Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arrasate

Aurkibidea

Udalerria: Arrasate

Sarrera

Debagoieneko udalerria eta herririk haziena. Leintz bailarako beste herriekin (Eskoriatza, Aretxabaleta eta Leintz Gatzaga) hartu-eman handia izan du mendeetan zehar, eta oso lotuta daude hainbat arlotan, hizkera barne. Izan ere, esan daiteke euskara berbera erabiltzen dutela lau herriotan.

- **Biztanleak**: 21.968
- **Euskaldunak**: %54,8

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **170**
- Zintak: **203**
- Pasarteak: **1.754**
- Transkribatutakoak: **427**
- Audioak: **41**
- Bideoak: **1.712**

Proiektuak

- 101L - Herriz herri
- AED elkartea
- Arrasate Press
- Arrasateko haur kantak eta jolasak
- Arrasaten hika
- Burdina: errementariak eta perratzaileak
- Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- Dialektologia-EHU
- EibarOrg blog komunitateak 10 urte
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskalkiak.eus
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte
- Koldo Zubizarreta - Karmele Zuazubizkar
- Leintz bailarako ahozko ondarea
- Loramendi Euskara Elkartea
- Mondragon Unibertsitatea
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Miren Abarrategi (1921-2007)

1921ean jaio zen Arrasateko Akiso baserrian. Ama antzuolarra zen, aita Arrasatekoa. Donostian egon zen garai batean, baina gerora Arrasatera itzuli zen. Harrezkero baserrian bizi izan da.

Karmen Abarrategi Eraña (1924-2013)

Uribarri auzoko Ibarretagainekoa baserrian jaio zen, sei anai-arrebatatik bigarrena. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Aretxabaletako Aozaratza auzoko Otalora baserrikoa. Garagartzako auzo-eskolan ikasi zuen gerra hasi zen arte. Gerraostean Gesalibar auzoko Santa Agedako “Escuela Católica”n bukatu zituen ikasketak. Geroago josten ikasi zuen, eta 28 urtez joskintzan jardun zuen. Bere jaiotetxean bizi izan da beti, harik eta baserrian bizitzen jarraitzea gogorregia zela ikusi zutenean, bere ahizpa Soledadek eta biek Ibarretagainekoa saltzea erabaki zuten arte.

Soledad Abarrategi Eraña (1932)

Uribarri auzoko Ibarretagainekoa baserrian jaio zen, sei anai-arrebatatik gazteena. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Aretxabaletako Aozaratza auzoko Otalora baserrikoa. Gesalibar auzoko Santa Agedako “Escuela Católica”n ikasi zuen, sei urtetik hamabostera arte. Ibarretako ortuetan hazten zituzten tipula landareak eta marrubiak Durangon, Eibarren eta Elgoibarren saltzen zituzten. Garia ereiteari 60ko hamarkadan utzi zioten, baina ganaduentzako txidarra eta oloa 2004ra arte erein zituzten. Ibarretagaineko alaba bik baserria eta lur-sail gehienak saldu egin zituzten lantegiak eraikitzeko.

Nieves Abarrategi Mendizabal (1933)

Zerkaosteta kalean jaio zen. Hiru urte zituela, etxeko gizonak gerrara joan ziren. Emakumeek Frantziara egin zuten ihes, Aguillon-era. Hiru urte han pasatu eta etxera itzuli ziren. Zazpi urtetik hamalau urtera arte eskola nazionaletan ibili ondoren, Elma lantegiko biltegian hasi zen lanean. Ilunkaratan, lanetik irtenda, josten ikastera joaten zen Olarte kaleko Rufinarengana. 23 urterekin utzi zion lanari, ezkontzeko. Senarra ere Arrasaten kalean jaioa da. Lau seme-alaba dituzte.

Eugenio Abarrategi Mujika (1906-1992)

Izotz fabrikaduna

Bixenta Agiriano Argarate (1923-2005)

Pedro Agiriano Urrutia (1932)

Arrasateko Musakola auzoko Altzibar baserrian jaio zen 1932an. Baserritik bizi izan da beti. Eskola nazionaletan eta gau-eskolan ibili zen ikasten eta horren ondoren San Viatorrera joan zen sarrailagintza ikastera aprendiz modura. San Viatorrekoa amaitu zuenean, osabaren almazenean mandatari lanetan aritu zen. Gerra garaian etxetik ihes egin eta San Prudentzioko Isasin egon zen lau hilabetez.

Joxerra Agirreurreta Zeziaga (1959)

Osina baserrian jaioa, Zigarrola auzoan. Ama bertakoa zuen eta aita kaletarra. Hiru senidetan zaharrena, fraidetan ikasi zuen. Euskaltegiko irakaslea izan da erretiroa hartu arte. Amaia Altuna lankide ohiarekin batera elkarrizketatu genuen, Arrasateko hitanoaren inguruan. Joxerraren gurasoek hika egiten zuten beraien anai-arrebekin. Joxerrari aitak hika egiten zion eta berak anai-arrebei hika egiten die, baina haiek zuka erantzuten diote. Emaztearekin hika egiten du. Semeei ere hika egiten die.

Amaia Aiastui Leibar (1956)

Gesalibar auzoko Enusketa baserrian jaioa, urtebetera Toki Alai etxera joan ziren bizitzera, auzoan bertan. Lau ahizpa dira. Hamar urte arte auzoko eskolan ibili zen eta gero mojetan. Magisteritza ikasi zuen Gasteizen eta Arrasateko ikastolako irakaslea izan da erretiroa hartu duen arte. Arrasateko hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, bere lehengusina den Primi Iñarrarekin batera. Amak zuka egiten zien eta aitak hiru zaharrenei hika (txikienari zuka). Ahizpen artean hika egiten dute (gurasoek beren anai-arrebekin bezala). Bere semeak ere erabiltzen du hika; alabak, berriz, ez.

Felix Ajuria Belar (1924)

Abadiñoko Urkiola auzoko Txabola baserrian jaio zen. Aita otxandiarra zen eta ama mañariarra. Felixek urte bat zuela aita hil zitzaion, eta amarekin batera Abadiñoko abadetxera joan ziren. Ama abadearen "amadecasa" izan zen urteetan. Gerra denboran Bizkaian zehar ihesi ibili ziren, eta azkenean amaren jaiotetxera itzuli ziren. Aramaion eta Otxandion morroi lanetan jardun eta gero, hamalau urte zituenean, Arrasateko Elma lantegian hasi zen lanean Felix. Bertako galdategiko arduraduna zela hartu zuen erretiroa. Milagros Barandiaran arrasatearrarekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba dituzte. Bai gerra denborako eta baita Arrasateko garapen industrialari buruzko hainbat kontu azaltzen ditu Felixek.

Lorenzo Altube Bolinaga (1932)

Euskararen gaineko kontuak kontatzen ditu.

Lorentza Altuna Mondragon (1925)

San Andres auzoko Estrada baserrian (gaur galduta) jaio zen 1924an. Aita Estradakoa bertakoa zuen eta ama auzo bereko Satorretxekoa (hau ere gaur egun galduta). Hamar anai-arreba ziren. Estradako etxea urak mugitu eta brintzatu ondoren, familiak alde egin zuen bertatik eta hutsik zegoen Elorriaga baserrira pasatu ziren. Bedoñako abade etxean hasi zen eskolan, gero Aretxabaletako Aozaratza auzoko eskolan ibili zen eta handik Arrasateko Merzedarien eskolara joan zen. 13 urterekin bukatu zituen eskolak. 18 urterekin Soraluzeko "Meltxiorren" tabernara joan zen lanera. Han hiru urte lanean egin eta gero, etxera bueltatu zen baserriko lanetara. 28 urterekin Otamendi baserrira ezkondu zen, Antonio Aranarekin, eta bost seme-alaba izan zituzten.

Amaia Altuna Sagasta (1961)

San Andres auzoko Oraindixo baserrikoa, guraso biak baserritarrak. Bost senidetan gazteena, diferentzia handiarekin. Amak hika egiten zion eta anai-arrebek ere bai, baina berak zuka erantzun. 10 urte zituenean familia kalera joan zen bizitzera. Mojetan ikasi zuen, eta ondoren ALMENen, dena erdaraz. Arrasateko hikari buruzko elkarrizketa egin genion. Joxerra Agirreurreta lagunarekin batera. Amaia hitanoa lanean hasi zen erabiltzen, euskaltegian (lehenengo AEKn ibili zen eta gero udal euskaltegian). Alaba gazteenari hika egiten dio, hark eskatuta.

Obdulia Ansoategi Iregi (1912-2003)

Herriko elkarteetan, ostatu eta etxe askotan aritu izan zen bere artea eskainiz, sukaldaritza, alegia. 15 urterekin, etxetik irten eta Areetako Allende familiaren etxean hasi zen neskame. Gerora, Donostiara joan zen Xabierreko Kontearen etxera. Sukaldean 7 pertsona aritzen ziren, gehienak frantsesak; eta han ikasi zuen sukaldaritza Obdulik. Horrez gain, Alzolako bainuetxean 10 urte egin zituen, gerra hasi aurretik eta baita ondoren ere. Arrasatera itzuli eta Sindikatuetan aritu zen sukaldaritzako eskolak ematen. Gutxienez, 500 pertsonak ikasi zuten berekin. Eta ez arrasatearrek bakarrik: inguruko herrietatik ere etortzen ziren beregana. Klase teoriko eta praktikoak ematen zizkien Obdulik emakume haiei. Oraindik ere, Arrasateko etxe askotan Obduliren errezetak prestatzen dira.

Garbiñe Aperribai Larrañaga (1932)



Garbiñe Aperribai Arrasateko Erdiko kalean jaio zen 1932an. Aita aretxabaletatarra eta ama arrasatearra; biak Donostian lanean zebiltzala ezagutu eta ezkondu ziren. Bost anai-arreba dira eta Garbiñe bigarrena da. Gerra sasoian Arrasatetik pasatzen ziren hegazkinak gogoan ditu eta baita bonbardeaketetan babeslekuan amarekin gordetzen zirela ere. Umetako eta gaztetako kontuez aritu da: etxeko giroa, jakiak, eskola, erromeriak...

Joxe Mari Arabaolaza Alcelay (1908-1995)

Errotaria

Amaia Arana Beitia (1963)

Arrasateko Musakola auzokoa, aita Arrasatekoa zuen eta ama Arantzazukoa (Oñati), han eta hemen neskame ibilia Arrasateko Zerrajeran lanean hasi aurretik. Bi senide dira. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin diogu Amaiari, Beronika Garai eta Koldo Zubizarreta lagunekin batera. Gurasoek ez zioten hika egin, baina haiek hika egiten zuten senideekin eta umetatik entzun zuen etxean. Anaiak ere hika egiten zuen lagunekin. Amaia, berriz, lanean hasi zen hika egiten, euskaltegiko beste irakasle batzuekin (39 urte hauetan udal euskaltegian ibili da lanean; azkenengo 7 urteetan jardun erdiz euskaltegian eta beste erdia Udaleko euskara zerbitzuan). Lagun koadrilan ere hika egiten dute.

Isabel Aranburuzabala Amozarrain (1947)

Joxe Arantzabal (1952)

Julian Aranzabal Aranzabal (1914-1998)

Soinujolea

Anizeto Aranzabal Gantxegi (1896-1991)

Dendaria

Joxe Mari Aranzabal Gantxegi *Kanuto* (1898-1993)

Dendaria

Miren Arenaza Apaolaza (1955)

Aozaratza (Azatza) auzoko baserri batean jaioa 1955ean. Etxeko giroan kantu eta esaera asko ikasi zituen. Etxean ikasitakoa praktikan jartzen du, Arizmendi ikastolan haur hezkuntzako irakaslea da eta.

Joxepa Arregi Egidazu (1919-2010)

Musakola auzoko Garratz baserrian jaio zen 1919an. Hamaika anai-arreba ziren. Zigarrolan ibili zen eskolan, baina ez zen eskolara denbora askoan joan. 14 urterekin Etxaurreneko etxera joan zen neskame eta hiru urte egin zituen bertan, harik eta gerra hasi zen arte. Gerra ondorenean ezkondu zen Tomas senarrarekin, baina hirugarren semea izateko zegoela, gaixotuta hil zitzaion gizona. Ordutik aurrera senarra bazkide zen lantegian gogor lan egin behar izan zuen bizimodua aurrera ateratzeko. Seme gazteena atxilotu zutenean haren eskubideen alde borrokan hasi zen eta Etxerat elkarteko lehendakari izan zen urte askoan.

Kristina Arregi Egidazu (1928-2015)

Musakola auzoko Garratz baserrian jaio zen 1928an. Aita Garratzekoa bertakoa zen eta ama Arruenekoa (gaur galduta). Hamabi anai-arrebatan gazteena zen Kristina. Zigarrolako eskolan ibili zen gerra aurretik eta gerra denboran kaleko merzedarietan ikasi zuen. Umetatik baserrian egin zuen lan, harik eta Erdiko kaleko Pako Arriaranekin ezkondu zen arte. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Lucia Arregi Etxabe (1920)

Arrasateko San Andres auzoko baserri batean jaio zen. Gaztaroan 1934ko iraultza eta 1936ko gerra ezagutu zituen. Gerra ondoren soldadutzara joan zen, gazte-gazterik. Baserrian lan egindakoa da.

Ainhoa Arregi Gaztañaga (1976)

Arrasaten jaioa, kaletarra. Aita Arrasatekoa du eta ama 9 urte arte Aretxabaletan bizi izandakoa baina gerora Arrasaten. AEK-ko irakaslea da. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Jon Azkoaga lagunarekin batera. Etxean jaso zuen hitanoa, amaren bitartez. Neba bat dauka, bera baino nagusiagoa, eta elkarrekin hika egiten dute. Arrasateko hika erakusteko ikastaro bat eman zuen Emakume Txokoan.

Tere Arregi Letamendi (1932-2018)

Tereren gurasoek Donostiako Mirakruz gaineko Arzak taberna kudeatzen zuten, eta taberna gaineko etxebizitzan jaio zen. Bost anai-arrebatatik zaharrena izan zen Tere. Aita Musakola auzoko Artxubi baserrikoa (gaur galduta) zen, eta ama, berriz, Oñatiko Kale Zaharrekoa. Gerra hasi zenean Oñatira joan ziren senideen etxera hilabete batzutarako. Handik Arrasatera joan ziren eta harrezkeroztik bertan bizi izan zen, Zigarrola auzoan. Bere etxe ondoan zegoen eskolan ikasi zuen sei urtetik hamalaura arte. Eskola denboran auzoko Axerikua baserriko (gaur galduta) umeak zaintzen zituen eta baserriko lanetan ere laguntzen zuen. Eskola bukatu eta Zerrajeran hasi zen lanean. Ezkondu zenean, orduan ohikoa zen modura, lana galdu eta etxean geratu zen. Imanol Mondragon arrasatearrarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

Javier Arregi Liziaga (1925)

Arrasateko kalean jaio zen, baina Kataide baserrian, aitaren jaiotetxean, pasatzen zuen denbora gehiena. Zortzi anai-arreba ziren. Gerra aurretik ikastolan ibili zen lehenbizi; gerra ostean eskola nazionalean, Martin Calvo irakaslearekin, eta geroago San Viatorren fraideekin. Lanean hasi ostean gau-eskolan ere ibili zen. 14 urterekin ELMAn hasi zen lanean eta sei urte egin zituen aprendiz gisa, harik eta soldadutzara joan zen arte. Handik itzuli eta artean ezkonberriak zirela, Goizuetara joan ziren bizitzera, meategian lan egitea eskaini zioten eta. Bost urteren buruan itzuli ziren Arrasatera eta ELMAn sartu zen berriro. Baina bere lantegia ere bazuen, eta denborarekin utzi egin zuen ELMAko lana. Emaztea Bergarako Angiozar auzokoa du. 80. hamarkadatik txakolina egiten dute "Kataide" izenarekin.

Begoña Arregi Onagoitia (1950)

Elorrion jaio zen 1950ean, baina Arrasaten bizi da eta irakasle da bertan. Umetan ikasitako haur-kanta asko dakizki.

Joxe Arriaran Aranburu *Arriaran II* (1926-2015)

Arrasateko Arano kalean jaio zen 1926an. Aita Eskoriatzako Mazmela auzoko Etxenausi baserrikoa eta ama arrasatearra zituen. Sei anai-arreba ziren. Aita iturgina zen eta amak etxeko denda ("Bittor hojalateruena") eramaten zuen. Bost-sei urterekin ikastolan hasi zen. Gerra denboran ez zuen eskolarik izan. Gerraostean San Viatorren jarraitu zuen hamasei urte izan zituen arte. Iturgin lana izan zuen ogibide bizi guztian. Azkoitiko Olaberri fondako Encarnacion Elorzarekin ezkondu zen eta bi seme izan zituzten. Pilotari profesinala izan zen. Atzelari moduan jokatzen zuen `Arriaran II.a´ izenarekin.

Markel Arriolabengoa Martiarena (1990)

Aramaioko da, baina Zuian bizi da. Aita Aramaiokoa du eta ama Arrasatekoa. Kaletarra den arren, harreman handia du baserriarekin eta basoarekin, besteak beste lanarengatik. Hikari buruzko elkarrizketa egin genion, Arrasaten, Ibai Zubizarreta lagunarekin batera (horregatik agertzen da Arrasateko orrian eta ez Aramaion). Aitak batzuetan hika egiten dio; 12 urte zituenean, hari hika egiten hasi zen. Baserri giroko gizonezkoekin egiten du hika batez ere.

David Artzamendi Enparantza (1914-2014)

Tomas Atxa Madinabeitia (1925-2004)

Ana Mari Axpe Elejalde (1946)

Aramaioko Azkoaga auzoan jaio zen 1946an. 11 anai-arreba ziren eta umetatik lan egin behar izan zuten baserrian. Hala ere, umetako kantu eta jolas asko gogoratzen ditu.

Bixente Azkarate Zabarte (1933-2016)

Iturriotz kalean jaio zen. Aita Meatzerreka auzoko Zelaitxo baserrikoa zen (baserria aspaldi erre zen), eta ama Udala auzoko Ozaeta baserrikoa. Lau urtetik bederatzira mesedetako mojen eskolan ibili eta bukatu zituen eskolok. Gau-eskolara ere joan zen, eta bere seme-alaben eskola liburuekin bukatu zituela ikasketak dio Bixentek. Bederatzi urterekin amaren baserrira joan zen bizitzera lan-truke. Bertan urte eta erdi pasatu ondoren, Aretxabaletako Galartza auzoko Errartena baserrira joan zen. 13 urterekin Mancebo lantegian hasi zen lanean, erromatar balantzak ("romana") egiten. 17 urterekin "Metalúrgica Cerrajera"n ekin zion lanean, sarrailak eta giltzak egiten. Soldaduska ondoren, Zerrajerara joan zen. Kalitate kontrolean, marketing eta erosketa arduradun lanetan jardun zuen, bertan erretiroa hartu zuen arte. Arrasateko "Distrito 33"ean bizi izan da urteetan. Lau auzune zituen barruti horrek, bakoitza bere berezitasun eta jaiekin. Bixentek bultzatutako auzolan bati esker, lau auzuneok bat egin eta Santa Marina izeneko auzo bakarrean elkartu ziren. Bixentek Arrasateko Musika Bandan jo zuen urteetan. Geroago, Arrasate Musikal musika eskolako sortzailetako bat izan zen. Azkoitiko Urkiolegi baserriko Inazia Lizarralderekin ezkondu zen. Lau seme-alaba dituzte.

Mari Tere Azkoaga Atxa (1930-2006)

Jon Azkoaga Ugalde (1985)

Euskaltzalea, AED (Arrasate Euskaldundu Dezagun) euskara elkartean eta AEKn lanean ibilitakoa. Arrasateko hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion Ainhoa Arregirekin batera. Gurasoek (aitak bereziki) hika egin izan diete anaiari eta Joni. Ama ere hitano hiztuna da eta Ahotsak-erako elkarrizketatu genuen: Anabel Ugalde, San Andres auzokoa. Jon baserritarra izan zen aldi batean (oilo-haztegia izan zuen) eta orain eskola-irakaslea da.

Bixente Barandiaran (1911-2004)

1911an jaio zen Apotzaga auzoan eta bost urte zituela Arrasatera joan zen bizitzera Markoalde baserrira (lehen Marko Etxeberri izandakoa). Gurasoak biak Apotzaga auzokoak zituen. Errementari eta ferratzaile ofizioetan aritu zen 2001. urtera arte eta 90 urterekin erretiratu zen.

Pilar Bastida Irastorza (1924)

Eibarko Arrate bailarako Sagartegieta ("Sartei") baserrian jaio zen. Aita eibartarra zen eta ama, berriz, Mallabiko Gerea ("Geria") auzokoa. Zortzi urtera arte Eibarren bizi izan zen. Eibarko arma industriaren krisiak langabezia handia ekarri zuen, eta aitak Arrasaten lana aurkitu eta Musakola auzoko Olatxo kale-baserrira (gaur galduta) etorri ziren errentero. Gerra denboran soldaduak etxean egon ziren, eta amak Pilar Oñatira bidali zuen, Zañartu auzoko eskola kudeatzen zuten mojen etxera. Bi urtez egon zen bertan. Pilarrek hamazazpi urte zituenean, Ferrerias kalera joan zen familia bizitzera. Arrasateko “Monjas de la Asunción”en eskolan ibili zen hamazortzi urte bete zituen arte josten, kontabilitatea eta pintura ikasten. Handik Zerrajera lantegiko bulegora joan zen lanera. Zarugalde kaleko Leandro Azkoagarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba dituzte. Azken umeak hiru urte zituela, “Academia Bastida” ireki zuen, takigrafia eta mekanografia irakasteko. Etxean hasi zen klaseak ematen, baina ikasle kopurua igoaz joan zen, eta 80 idazmakinako eskola izatera iritsi zen. Gero, alaba batek jarraitu zuen Pilarrek hasitako lanarekin.

Juli Bedia Iriarte (1919-2011)

Erdiko kalean jaio zen, lau anai-arrebatatik zaharrena. Aita arrasatearra zen eta ama Oñatikoa. Julik zazpi urte zituela, familiak plaza kantaleko “Bar Central” hartu zion aurreko ugazaba zen "Txotxuena"ri. Etxeko lan guztiagatik, Julik eskola utzi behar izan zuen hamabi urterekin. 1934. urtean taberna utzi eta ile-orratzak egiteko tailer bat jarri zuen aitak. Iturriotz kalean jarri zuen tailerra, Artazubiagako kondeak bertan zuen etxea erosi eta gero. Berrogei langile izatera iritsi zen tailerra, denak emakumezkoak, euretatik asko senarrak kartzelan zituztenak. Herriko mojek ere hartzen zuten parte, ile-orratzok paketatzen. Bixente Uribetxeberria arrasatearrarekin ezkondu zen Juli, eta alaba bat izan zuen berarekin. Ezkondu eta gero, Julik salmenta negozioan jarraitu zuen, denetarik saltzen eta erosten. Juliren alaba Miren ere egon zen elkarrizketan.

Luis Bengoa Eraña (1922-2004)

Andres Bengoa Eskibel (1932)

Patxi Bengoa Sagasta (1932-2010)

Meatzerreka auzoko Meatzaga baserrian jaio zen 1932an. Ama Meatzagakoa bertakoa zuen eta aita Aramaioko Arexola auzoko Keristi baserrikoa. Bost urterekin hasita zazpi urtera arte Arrasateko mertzedarietan ikasi zuen. Gero hamahiru urtera arte eskola nazionalean ibili zen Martin Calvo Sanabria maisuarekin. Abadiñoko Irazolako Baxili Ezenarrorekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituzten. 26 urtera arte baserrian egon zen. Gero FAGORren lan egin zuen jubilatu arte.

Juli Berezibar Arabaolaza (1916)

Maalako Errabala kalean jaio zen. Aita Meatzerreka auzoko Salturri baserrikoa zen, eta ama Zigarrola auzoko Itsasondo baserrikoa (gaur desagertuta). Zortzi urtetik hamabira merzedarien eskolan ikasi zuen, eta handik Hondarribiako “Hijas de la Cruz” frantses mojekin ikastera joan zen. Hondarribian senide baten etxean bizi izan zen. Hamalau urterekin etxera itzuli zen etxeko Salturrirena harategian lan egitera. Bertan jardun zuen ezkondu zen arte. Gerra denboran harategian obus bat erori zen eta Oñatira ihes egin zuen aitarekin. Oñatitik Hondarribira joan zen Juli, eta tropak Bilbo aldera joan zirenean itzuli zen Arrasatera. Amaiur batailoian borrokatu zuen Sabin Arrieta arrasatearrarekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Juan Berezibar Garro (1934-2019)

Garagartza auzoko Lazaruena baserrian jaio zen, sei anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, auzo bereko Garrorena baserrikoa. Auzoko eskolan ikasi zuen zazpi urtetik hamalaura arte. Eskolak bukatuta, etxean geratu zen, eta hamasei urterekin baso lanetan ekin zion. Lau urtez jardun zuen horretan, eta Jaizkibelen 1952. urteko suteak kiskaldutako mendietan ere jardun zuen lanean. Soldaduska Marokoko Alkazarkibir-en egin zuen. Bertako ospitalean izeba moja bat zuen, eta Juantxok laguntzaile lanetan jardun zuen ospitalean. Soldaduska bukatu ostean, baserria eramateaz gain, Zerrajeran jardun zuen lanean jubilatu arte. Zerrajerako Etruk ermandadeari buruzko azalpenak ematen ditu. Bere auzoaren “zazpi kaleen” izenak ematen ditu, eta baita auzotarren gainbeherari buruzko azalpenak ere.

Juan Berezibar Ibabe (1930-2019)

Meatzerreka auzoko Salturri baserrian jaio zen 1930ean. Aita Salturrikoa bertakoa zen eta ama Aramaioko Eguzkierripa auzoko Ibabe baserrikoa. Gerra zela eta, bederatzi urterekin hasi zen eskolan, Arrasateko mertzedarietan. Gero, eskola nazionalean ere ibili zen eta San Viator eskolan egin zituen azken lau eskola urteak. 14 urterekin etxean geratu zen. Elgoibarko San Pedrotik etorritako Frantziska Ziorragarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan dituzte. Kanpazarko harrobian pare bat urtez lan egin eta gero, AMATen egin zituen beste hamar urte. Gero Zerrajeran jardun zuen zaintzaile modura, 58 urtera arte.

Kazintto Bergara Alzuri (1947)

Tailagina

Elbira Berriotxoa Muñoa (1925)

Zarugaldeko Arrixanena kale-baserrian (gaur galduta) jaio zen. Aita Elorrioko Gaztañeta baserritik etorri eta amaren Uribarri auzoko Arrixan (Arriaran) baserrira ezkondu zen. Bertan hiru seme-alaba izan zituzten. Gero aitak Zarugalden bizitzeko etxea eta ganaduentzako ukuiluak eraiki zituen. Bertan bizi zirela jaio ziren Elbira eta beste anai-arreba bi. Ganadutik aparte, ehun oilo zaintzera iritsi ziren Zarugalden. Elbirak mesedetako mojekin ikasi zuen bost urtetik hamabostera arte. Gero Durangoko moja klaratarrek kudeatzen zuten San Antonio ikastetxean merkataritza ikasketak egin zituen hiru urtez. Beste bi urtez Bilbon ikasi ondoren, merkataritza-peritu titulua lortu zuen. Gerra denboran mortero bat sartu zitzaien etxera, baina teilatua eta ganbara zulatu ondoren, ohe baten gainean geratu eta ez zen lehertu. Arrasateko Joxe Zuluetarekin ezkondu zen eta seme-alaba bi izan zituzten.

Joxe Biain Alberdi (1922-2002)

Barkugilea

Felix Bolibar Iribecampos (1925)

Jose Ramon Bolinaga Ezquibel (1926-1988)

Kalean bizi zen. Umetako jolasei buruzko azalpenak eman zituen.

Ding Chen Yin (1995)

Arrasaten jaioa, gurasoak txinatarrak ditu. Bere anaia Jian Madrilen jaio zen. Ikastolan ikasi zuen, eta ondoren euskal sukaldaritza ikasten ibili zen Gasteizen. Bere familiak bi jatetxe ditu Arrasaten. Ling Gran Muralla jatetxean egoten da lanean. Musika elektronikoa sortzea eta skatea gustatzen zaizkio. 101 L proiekturako ere elkarrizketatu genuen, mandarineraz.

Francisca Cigorraga Lete (1933)

Sabina Dolara Mendizabal (1920-2017)

Justi Egidazu Pagaldai (1919)

Pedro Jose Egidazu Uriarte (1923-2003)

Salome Elkorobarrutia Herrarte (1910-2006)

Gorostiza baserria, Uribarri auzoa.

Xabier Elkorobarrutia Letona *"Elkoro"* (1966)

Kaletarra den arren, guraso biak baserrikoak ditu: aita Gatzagakoa eta ama Maringoa (Eskoriatza). Mondragon Unibertsitateko irakaslea da. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion Igor Herrarte lehengusuarekin batera, elkarrekin hika egiteko ohitura dute eta. Xabierrek umetatik entzun du hitanoa etxean: gurasoek ez zioten hika egiten, baina osaba-izebek eta amandreak bai. Gurasoek euren senideekin ere hika egiten zuten. Xabierrek anaiarekin ez du hika egiten, baina bai lehengusu batzuekin eta hainbat mutilekin. Neskekin, ordea, ez.

Dominika Elorza Heriz (1924)

Meatzerreka auzoko Etxaldebarri baserrian jaio zen 1924an. Ama zen Etxaldebarrikoa eta aita Eskoriatzako Mendiola elizateko Elizakoa baserrikoa. Lau anai-arreba ziren. Mikelete etxeko eskolan hasi zen zortzi urterekin. Hemen urte pare bat egin eta gero, San Viatorren urte bat eta Biteri-n beste bat egin zituen. Debatean jaio eta Meatzerrekan hazitako Bixente Langaranekin ezkondu zen eta seme bat izan zuten. Gasteizen neskame egindako hilabete batzuk kenduta, bere bizi guztia Etxaldeberri baserrian eman du.

Milagros Eriz Otadui (1918)

Ferrerias kalean jaio zen, hiru ahizpatatik zaharrena. Aita Santa Ageda auzoko Imendi baserriko zen, igeltseroa bera, eta ama Arrasatekoa. Lau urterekin hasita Merzedaria mojen eskolaurrean ikasi zuen, euskaraz. Hamarrekin Viteri eskolara pasatu zen, eta bertan erdaraz ikasi zuen hamabost urtera arte. Gero josten ikasi zuen. 1935. urtean aitak berak San Franzisko kalean eraiki zuen etxe batera joan ziren bizitzera. Bertan, ortuaz gain, txerria eta hegaztiak ere zaindu zituzten. Etxe hori mendiaren babesean zegoen, zorionez, eta gerran jaurti zituzten bonbak etxetik urrun lehertzen ziren; beraz, euren etxea osorik geratu zen. 1994. urtean etxea bota eta bertan pilotalekua eraiki zuten. Arrasateko Jesus Balanzategirekin ezkondu zen. Seme-alaba bi izan zituzten.

Karmen Errarte Erzilla (1924)

Garagartza auzoko Lete baserrian jaio zen, 11 anai-arreben artean. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Udala auzoko Arteta baserritik etorritakoa. Auzoko eskolan eta Arrasateko eskola publikoan ikasi zuen sei urtetik gerra hasi zen arte. Gerraostean, Gesalibar auzokora joan zen. Gerra hasi zenean, aitajauna ardiekin beste baserri batera eta familia ganaduekin kale-baserri baten babestu ziren. Karmen Arabar Errioxako Eltziegora joan zen urtebetez, esne-bezeroa zuten Arrasateko Alvaro Gomez musikariaren etxera. Beste urtebetez Oñatin egon zen neskame, Ines Iñurrategiren Aloña tabernan. Gesalibar auzoko Abarrategi baserriko Felipe Nafarraterekin (Patxi Nafarrate abeslari ospetsuaren anaia) ezkondu zen. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Karmenen alaba Ibone ere egon zen elkarrizketan.

Agapito Errasti Ozaeta (1919-2004)

Barruti baserria, Garagartza.

Milagros Ertzilla Arregi (1934)

Udala auzoko Arteta baserrian jaio zen 1934an. Aita bertakoa zuen eta ama Elorrioko baserri batekoa. 3 anai-arreba izan arren, berari tokatu zitzaion baserriko lanetan aritzea eta eskolara ere gutxi joan ahal izan zuen. 23 urterekin ezkondu zen; senarra aramaioarra zen, baina gaztetatik Udala auzoan apopilo zegoena.

Esteban Etxabe Arregi (1927)

San Andres auzoko Muxibar baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, auzo bereko Azerikua baserrikoa (gaur galduta). Gerra aurretik, zazpi urterekin hasita, maristen eskolan ikasi zuen. Gerraostean San Viator eskolan ibili zen urte pare batez. Hamalau urterekin Elma lantegian hasi zen lanean, hoditarako osagarriak, janaria txikitzeko makinak eta beste tresneria batzuk egiten. Hamazortzi urterekin egun erdiko eskolak jasotzen hasi zen, doitzaile (ajustadore) ikasketak egiteko, gaurko Biteri plazan zegoen Biteri eskolan (geroago eta beste toki batean Eskola Profesionala izango zena). Elman hartu zuen erretiroa. Kontxi Lasaga arrasatearrarekin ezkondu zen. Bera mutikoa zela, Muxibar baserria erre ondoren, "etxe-erre batzea" nola egin zuten azaltzen du.

Joxe Bixente Etxabe Arregi (1922-2019)

Arrasateko San Andres auzoko Muzibargañekoa (Muxibar) baserrian jaio zen 1922an. Arrasateko abade-etxean ibili zen eskolan 13 urte zituen arte, eta geroago maristetan eta eskola publikoan ibili zen. 13 urterekin gazta egiten hasi zen mendian; artzain ibili ohi zen. Soldadutzara joan aurretik etxea erre zitzaion. Donostian eta Orioko gainean egin zuen soldadutza; gerora, laguntzaile egin eta etxera bueltatu zen.

Joxe Etxagibel Otadui (1917-1992)

Futbolaria

Bitoriano Etxagibel Urizar (1936)

Garagartza auzoko Iturralde baserrian jaio zen 1936an. Aita Franzisko etxekoa zen eta ama Arrazolako Iturritze baserrikoa. Zortzi anai-arreba ziren. Garagartzako eskolan hasi zen bost urterekin, Don Ciriaco Jauregi maisuarekin. Hamar urtera arte joan zen eskolara, baina gau-eskolan urte askotan ibili zen Don Ciriaco berarekin. Zerrajeran zortzi hilabete eta Roneoko Inprentan beste hiru urte lan egin ostean etxera bueltatu zen, baserritik bizimodua atera guran. Azkenean, 30 urterekin "ULGOR"-en sartu zen eta bertan lan egin zuen jubilatu arte. Aizpurutxoko Etxebarri baserriko Jesusa Alberdirekin ezkondu zen eta sei seme izan zituzten.

Kontxi Etxebarria Axpe (1923)

Arrasateko Erdiko kalean jaio zen, sei seme-alabaren artean. Aita aretxabaletarra zuen eta ama, berriz, Olatzagutiatik Arrasatera umetan etorritakoa. Aita, Isidoro Etxebarria, Arrasateko alkatea zen gerra zibila hasi zenean. Kontxi “Damas de la Asunción”en hasi zen eskolan, eta gerra etorri zenean bere maistrekin batera Oñatira ihes egin zuen. Gerra bukatu zen arte ia etxetik irten gabe egon ziren Oñatin. Aita-amak beste umeekin Gasteizen eta Olatzagutian egon ziren babesean. Anaia bat kartzelan egon zen Bilbon, beste bi frontean zeuden bitartean. Kontxik “Caja de Ahorros Provincial”en egin zuen lan ezkondu zen arte. Jose Andia olatzagutiarrarekin ezkondu zen.

Fabian Etxebarria Berezibar (1927)

Meatzerreka auzoko Montzon baserrian jaio zen 1927an. Ama Montzon bertakoa zuen eta aita Aretxabaletako Galartza auzoko Perurena ("Kukuzulo") baserrikoa. Zortzi anai-arrebatatik gazteena da bera. Kanpazarko Mikelete Etxeko eskolan hasi zen 9 urterekin. Berehala gerra hasi zen eta 12 urtera arte ez zuen eskolarik izan. Hamabi urterekin San Jose kolegioan hasi zen eta 14 urtera arte ibili zen bertan. Etxean geratu zen baserriko eta basoko lanak egiten. 32 urte zituela, bere anai-arrebekin elkarlanean, gerra denboran itxitako Kanpazarko harrobia berriro martxan jarri zuen. Elkarrizketa egin zen sasoian oraindik ere familiakoen kargu zegoen harrobi hori. Bizikleta zalea, 1945. urtean, ziklo-kros saria atera zuen Arrasaten. Salturri baserriko Maria Teresa Berezibarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Maritxu Etxebarria Ugalde (1919-2010)

Irene Ezpeleta Urkia (1935)

Irene Ezpeleta Urkia Arrasateko Bedoña auzoan jaio zen 1935ean. Zortzi anai-arrebetan bera erdikoa da. Bedoñan pasa zuen bere haurtzaroa eta eskolak elizan jaso zituen, auzoko abadearekin. Hamabost urterekin Bergarara joan zen neskame bezala lan egitera eta hiru urtez egon eta gero, Arrasatera bueltatu zen Rere ostatuan lan egiteko, baina hura utzi eta berriz neskame moduan jardun zuen. Kontu hauez, gerra garaiaz, goseaz, garai bateko Gabonez eta jai giroaz, etabar. hitz egin du.

Julio Galarta Bengoa (1917-2011)

Aita Aretxabaletako Arienza baserrikoa eta ama Garagarza auzokoa zituen. Julioren gurasoak San Andres auzoko Etxaburu baserrira ezkondu eta seme bakarra izan zuten. Jaio Zizurkilen egin zen; jaioberria zela Eibarrera joan eta bi urte geroago Arrasatera itzuli ziren. Arrasaten, haurtzaindegian egon zen urte pare batez. Gero beste urte pare bat mertzedaria mojekin egin zituen, eta gero 14 urtera arte eskola publikoan ibili zen. Udaleko beka batekin "maestría" ikasten hasi zen, baina gerrak ikasketok eten zizkion. RONEO lantegiko bulegoan egin zuen lan jubilatu arte. Lantegiko baimenarekin "Arte Ederrak" ikasi zuen Bartzelonan. Margolaria da afizioz, eta hainbat erakusketa egin ditu bai Euskal Herrian bai Katalunian.

Dominga Galdos Zubia (1929)

Artasia baserria, Arrasate.

Faustina Galdos Zubia (1931)

Bedoña auzoko Artazubiaga baserrian jaio zen. Auzoko sakristauarenera joaten ziren irakurtzen ikastera eta doktrina apaizarekin ikasten zuten. Bederatzi urtera arte Bedoñan ikasi zuen; harrezkero Arrasatera jaisten ziren oinez. Gurasoak oso kontalariak zituen eta berak ere haiengandik ikasi zuen. Hainbat kantu, ipuin eta pasadizo kontatzen ditu egindako grabazioetan.

Bittori Gallastegi Arregi (1920-2005)

Kamarera

Modesta Gallastegi Arregi (1917-2008)

Juli Gallastegi Ezkurra (1921)

Uribarri auzoko Urdaixena (Urdaiena) baserrian jaio zen, zazpi anai-arreben artean gazteena. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, auzo bereko Erguin baserrikoa (gaur galduta). Garagartza auzoko eliza ondoko eskolan ikasi zuen sei urtetik hamahiru urtera arte, beste 120 ikaslerekin batera, gela batean. Santa Agedako eskolan ikasi zuen gero josten eta bordatzen, beste urtebetez. Gerra denboran fronte biren artean zegoen Urdaixena, eta etxetik bidali zituzten. Garagartzako Mardona (Mardoena) baserrian egon ziren hiru hilabetez, eta handik Elorrioko Iguria auzora joan ziren. Anaia antrax gaitzarekin hil zitzaion, eta 50eko hamarkadan etxeko gehienak tifusez gaixotu ziren arren, denak ongi osatu ziren. Juli eta bere ahizpak plaza-andre trebatuak ziren. Inguruko herrietako azoketara, eta Deba eta Elgoibarrera ere joaten ziren barazki eta landareekin. Marrubi garaian astero hiruzpalau egunez joaten ziren Gasteizera marrubiak saltzera. Bergarako Eugenio Arrutirekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

Rakel Gamito Gomez (1984)

Haur Hezkuntzan graduatua, UEUko langile-ohia eta UEUko Pedagogia Sailburua.

Angeles Garai Arregi (1924)

Musakola auzoko Zeleta baserrian (gaur galduta) jaio zen, bost anai-arrebatatik laugarrena. Ama bertakoa zen, eta aita berriz Bedoña auzoko Arteta baserritik etorritakoa. Sei urterekin hasita Zigarrolako eskolan ikasi zuen, gerra hasi zen arte. Gerra denboran nazionalak etxetik bidali zituzten eta Oñatiko Zañartu auzoko Ipentza baserrira joan ziren ganaduekin. Bertako eskolan ikasi zuen etxera itzuli ziren arte. Anaia bi Amaiur batailoian borrokatu ziren, eta gero preso hartu zituzten. Arrasateko udaltzainen arduraduna zen "Migel Haundi"ren seme Juan Bautista Mendietarekin ezkondu zen. Seme-alaba bi izan zituzten. Anjelesen laguna Pilar Bastida ere egon zen elkarrizketan.

Tomas Garai Marcaide (1949)

Tomas Garai, Bedoña (Arrasate) auzoko Artia baserrian jaio zen 1949an. Eskolako lehenengo urteak Bedoñan pasa zituen arren, bederatzi urterekin Arrasateko San Viatorren ikasten hasi zen eta aldaketa handia suposatu zion, batez ere hizkuntzarengatik. Bedoñan umetan eta gaztetan pasatako kontuez, baserriko lanez, baserriaren berrikuntzez, elikaduraz, ligatzeaz, Arrasateko industria garapenaz... jardun du.

Facundo Garai Txintxurreta (1931)

Bedoña auzoko Iturriaga baserrian jaio zen 1931n. Aita Iturriaga bertakoa zuen eta ama Aretxabaletako Isurieta auzoko Aldekoa baserrikoa. Hamar anai-arreba ziren. Bedoñako abade etxeko eskolan hasi zen eskolan, Don Fermin Fernandez de Arroiabe gatzagar maisuarekin. Gero Aretxabaletako eskolan ibili zen Don Isidro Etxeberria maisu zela. Hamar urterekin eskola utzi eta etxean geratu zen lanean. 24 urterekin txofergintzan hasi zen. Sei urte geroago, "Roneo"-tik pasatuta, "Talleres Arrasate"-n egin zuen lan fresadore modura. Bere azkenengo zortzi lan-urteak "Fagor Electrónica"-ko biltegian eman zituen. Iruratik Zerrajerara lanera etorritako Mari Carmen Elizaranekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

Beronika Garai Urkia (1962)

Aretxabaletako Larrino auzoan jaioa, 4-5 urte zitula familia Arrasateko Musakola auzora joan zen bizitzera (ama Larrinokoa, aita Bedoñakoa). Eskolan oso gaizki pasatu zuen, erdaraz ez zekielako. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin diogu Amaia Aranarekin eta Koldo Zubizarretarekin batera. Umetatik entzun du hitaanoa: Beronikaren gurasoek ez zioten hika egiten, baina hika egiten zuten senideekin. Lagun koadrilarekin hasi zen hika erabiltzen.

Joxe Garay (1933)

Oñatiko artzai-txakur txapelketako lehenengo irabazlea

Xabin Garay Arregi (1915-1994)

Ramona Gaztañaga Guridi (1922)

Garagartza auzoko Txuanena baserrian jaio zen, bost anai-arreben artean. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Udala auzoko Txukurrillo baserrikoa. Auzoko eskolan eta Gesalibar auzokoan ere ikasi zuen zazpi urtetik gerra hasi zen arte. Etxeko barazkiak Durango, Eibar eta Elgoibarko azoketan saltzen zituen, besteak beste. Gerra hasi zenean, ganadua, oiloak eta abar kendu zizkieten milizianoek eta familia osoa etxetik bidali. Ramona bere amarekin Garagartza auzoko Karraskain baserrian (gaur galduta) babestu ziren, baina laster itzuli ziren etxera. Aita beste alaba batekin Bilbo aldera joan zen eta anaia bat frontera. Gerra bukatu eta gero denak elkartu ziren berriro. Gazia (Gazeaga) baserriko Fernando Zuazubizkarrekin ezkondu zen Txuanenera. Bi seme-alaba izan zituzten.

Inma Gaztañaga Txintxurreta (1948)

Aretxabaletako Isurieta auzoko Ametza-Goikoa baserrian jaioa; aita bertakoa zen eta ama, berriz, Ugaztegikoa. Zortzi urte zituenean, familia Arrasatera joan zen bizitzera. Aitak zerrajeran egiten zuen lana. Abatetxean egin zituen lehen eskola-urteak, apaizarekin, eta Arrasaten mojetan ibili zen. Eskola Profesionalera joan zen gero eta Fagorren ibili zen lanean. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Joxepi Letona lagunarekin batera. Inmak etxean jaso zuen hitanoa: gurasoek hika egin diete. Berak ere hika egin die seme-alabei eta bilobei. Ainhoa alaba ere elkarrizketatu genuen.

Esther Goikolea Zabala (1943)

Aretxabaletako Goroeta (Korueta) auzoan jaioa. Gurasoak Arrasaten bizi ziren, baina gerran etxea galdu zuten eta amandrearen etxera joan ziren. Hantxe jaio zen Esther. Hamaika urte zituela berriro itzuli zen familia guztia Arrasatera. Esther mesedetako mojen eskolan ibili zen. Bere burua Koruetartzat dauka. Hainbat elkarrizketa egin zaizkio, hainbat gairekin lotuta; horietako bat Arrasateko hitanoari buruz, Patxi Goikolea anaiarekin batera.

Patxi Goikolea Zabala (1933)

Arrasaten kalean jaioa. Gerran, 4 urte zituela, aita espetxeratu egin zuten, eta amandrearen baserrira joan zen familia guztiarekin batera (Goroetara, Aretxabaleta). Baserrian bizi izan zen 21 urte izan zituen arte. Kalera ezkondu zen. Industrian lan egindakoa, kultur eragile handia izan da Arrasaten, batez ere bertsogintzan (Euskal Herriko lehen bertso eskolaren sortzaileetako bat), baina AEDren barruan ere lan handia egindakoa da. Hainbat proiektutarako jaso dira bere testigantzak; elkarrizketetako bat Esther Goikolea arrebarekin egin zioten, Arrasateko hitanoari buruz.

Asuncion Gorostiza Bengoa (1930)

Arrasateko Zaitegi etxean jaio zen 1930ean. Lau ahizpa ziren eta bera bikietakoa, gainera. Ama Bedoña auzokoa zuen eta aita Maringoa, Iturrate baserrikoa. Umetan Marinen pasatzen zituen udak, aitaren jaiotetxean. Alokairuan bizi ziren Zaitegi etxean eta 6-7 urte zituela San Andres kaleko Bazter-etxe etxera aldatu ziren; handik urte batzuetara berriz kalera joan ziren. Eskola publikoan ibili zen 8 urterekin hasi eta 14 ingurura arte. 16-17 urterekin urtebete umezain egin zuen eta geroago inprentan hasi zen lanean, harik eta ezkondu zen arte. Ezkondu ostean, San Andres kaleko Ibai-alde etxean jarri ziren bizitzen eta bertan bizi izan da ordutik. Bi seme-alabaren ama da.

Igor Herrarte Letona (1978)

Kaletarra, baina baserriarekin lotura izan duena. Ama Maringoa (Eskoriatza) eta aita Arrasateko Miravalles baserrikoa (San Andres auzoa). Ingeniaria. Hikari buruzko elkarrizketa egin genion, Xabier Elkorobarrutia lehengusuarekin batera. Igorri guraso biek hika egin diote umetatik eta senitartekoen artean ere asko entzun du. Bera 20 bat urterekin hasi zen erabiltzen, mutil batzuekin (neskekin ez; arrebarekin ez du hika egiten). Seme-alabei hika egiten die: semea jaio zenean, hari hika egiten hasi zen eta orduan erabaki zuen alabari ere hika egitea (aurretik zuka egiten zion).

Mariasun Ibabe Okina (1956)

Arrasaten jaioa, Makatxenan (gaur egun Santa Marina). Alaba bakarra. Guraso biak Udalakoak zituen, baserritarrak, eta hamar urterekin hara joan ziren bizitzera. Moja ikastetxean egin zituen ikasketak, gaztelaniaz, baina etxeko hizkuntza euskara izan zen: guraso biek hika egiten zioten eta baita osaba-izebek ere. Gaztetxoa zela familiako tabernan hasi zen lanean, Udalan, eta 20 urterekin ikastolan, Haur Hezkuntzako umeekin. Irakaslea izan da erretiroa hartu artean. Euskaltzalea eta feminista, Arrasateko Emakumeen Asanbladakoa, hainbat borrokatan hartu du parte. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Amaia Pagaldai lagunarekin batera.

Paulino Ibabe Zubizarreta (1920-2014)

Carmen Ibarguen Mondragon (1925)

Primi Iñarra Leibar (1956)

Arrasateko Gesalibar auzoko Abarrategi-Bekua (Abartegi) baserrian jaioa, guraso biak auzokoak zituen. Sei senide dira. Hamar urte arte auzoko eskolan ibili zen eta gero mojetan. Magisteritza ikasi zuen Gasteizen eta ikastolako irakaslea izan da erretiroa hartu duen arte. Lazkaoko ikastolan ibili zen 9 urtean eta gero Arrasatekoan. Arrasateko hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, bere lehengusina den Amaia Aiastuirekin batera. Gurasoek ez zieten seme-alabei hika egin, baiba anai-arreben artean hika egiten dute (gurasoek beren anai-arrebekin bezala).

Arantxa Iregi (1941)

Eskoriatzan jaio zen 1941ean. Gurekin egon zenean erretiratuta zegoen arren, irakasle izan zen Arrasateko mesedetako eskolan urte askoan. Umetan ikasitako haur-kanta asko dakizki.

Jesus Iria Orue (1931)

Garagartza auzoko Murrixena tabernan (gaur galduta) jaio zen. Ume-umetan joan zen familia Garagartzako Martokotxiki etxera. Aita Kartzelakoa eta ama Arispeko baserrietakoak ziren eta sei seme-alaba izan zituzten. Sei urterekin Garagartzako eskolan hasi zen eta hamabirekin San Viator-era joan zen seminariorako prestatzera. Saturraran, Gasteiz eta Donostian egin zituen elizbarrutiko abadetza ikasketak hamabi urtetan. Eskoriatzako ospitaleko kapilau izan zen. 1972. urtean abadetza utzi zuen. Bartzelonan ikasketak egin eta irakaskuntzan jardun zuen jubilatu arte.

Jose Iria Orue (1928-2014)

Jesus Iribekanpos *Etxaburu* (1917-2003)

Etxaburu baserria, San Andres auzoa.

Joxe Iturbe Garai (1933)

Bioso (Bidasoro) baserrian jaio zen 1933an. Aita bertakoa zuen eta ama Bedoñako Artia (Arteaga) baserrikoa. Sei urterekin auzo-eskolan hasi zen eta hurrengo urtean abadetxeko eskolara pasatu zen. Hemen urte pare bat egin eta kaleko eskola nazionaletara joan zen hurrengo bost urteetarako. Baserri eta baso lanetan aritu izan da beti. Artzaina izan da umetatik. "Malbe" pertsonaia, Bioso baserrian jaioa, "tio Alejandro" izan zen Joxerentzat, bere aitajaunaren anaia.

Juanita Lasa Nuin (1949)

Aizpekua baserria, Garagartza auzoa.

Esther Learreta Errarte (1966)

Miravalles baserrikoa, San Andres auzoan. Ikastolan ikasi zuen eta Aretxabaletako udal euskaltegian idazkari lanetan dabil. Arrasateko hitanoari buruzko elkarrizketa egin diogu Junkal Perez lagunarekin batera. Txikitatik entzun du hitanoa etxean. Aitak ez, baina amak hika egin dio Estherri umetatik eta berak anaiarekin ere hika egiten du. 18-20 urte ingururekin hasi zen hitanoa erabiltzen. Senarrarekin zuka hitz egiten du eta etxean ez du transmititu.

Juan Leibar Guridi (1926)

Gesalibar auzoko Elezgarai baserrian jaio zen. Bost urte zituela, Loratoki etxera joan ziren, Ospitaletik gertuago, aitak bertako ortu eta lorak zaintzen zituelako. Aita auzoko Enauzketa (Erenuzketa) baserrikoa zen, eta ama Uribarri auzoko Goiru baserrikoa. Garagartzako auzo-eskolan ikasi zuen seitik hamabi urtera arte. Gero Eskoriatzako Marianistekin ikastera joan zen, Eskoriatzako Bainuetxean. Marianistekin jarraitu zuen urteetan, ikasketak eta irakaskuntza tartekatuz, hamazazpi urtez. Elorrio, Soria, Madril, Igorre, Iruñea, Suiza, Cadiz eta Marokoko seminario, ikastetxe edota unibertsitateetan ikasi edota irakatsi zuen. Pedagogian Lizentziaduna, 29 urterekin Arrasatera itzuli eta Eskola Profesionalean hasi zen lanean. Jose Maria Arizmendiarrietarekin batera TU-Lankide aldizkaria sortu zuten Eskolan. Arrasateko ikastolaren sorreran parte hartu zuen, eta Jose Lekuonarekin elkarlanean Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako herrien monografikoak idatzi zituen, historia, geografia, pertsonaia ezagunak eta abar aztertuz. Jose Maria Arizmendiarrietaren aurrenengo biografia idatzi zuen, eta Pedro Biteri Arana (filantropo arrasatearra), eta Angiolillo-rena (Canovas del Castilloren hiltzailea) ere idatziak ditu. Uribarri auzoko Erguin baserriko Mari Lurdes Balzategirekin ezkondu zen. Hiru alaba dituzte.

Asuncion Leibar Kortabarria (1924-2010)

Enuzketa-aldekoa baserrian jaio zen 1924an eta bertan bizi izan da beti. Garagartzan ibili zen eskolan. 3 seme-alabaren ama da. Arantxa alabarekin batera egin zitzaion grabazioa eta Carmen alabak ere hainbat azalpen eman zituen.

Joxepi Letona Badiola (1944)

Josefina -Joxepi lagunentzat- Eskoriatzako Marine auzoan jaio zen, Zabale baserrian. Guraso biak auzokoak ziren. 8 senide ziren. Auzoko eskolan ibili zen eta 16 urterekin Arrasateko eskola profesionalera joan zen, interna. 22 urte zituela, familia guztia Arrasatera joan zen bizitzera. Fagorren ibili zen lanean. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Inma Gaztañaga lagun eta lankidearekin batera. Joxepiri guraso biek hika egiten zioten eta anai-arrebekin hika egiten du. Seme-alabei ere hika egiten die.

Maximo Letona Badiola (1947)

Pilotaria

Espe Lizarralde Gallastegi (1938-2023)

Inazia Llodio Bengoa (1917-2018)

Gesalibar auzoko Artabilla baserrian jaio zen, zortzi anai-arrebatatik seigarrena. Ama bertakoa zuen, eta aita Aramaioko Gantza auzotik etorritakoa. Garagartza auzoko eliza ondoko eskolan ikasi zuen sei urtetik hamahiru urtera arte. Gero kaleko eskolara joan zen josten eta bordatzen ikastera. Eskolak bukatu eta neskame joan zen Arrasatera. Hainbat etxetan jardun zuen umeak zaindu eta etxeko lanak egiten. Gerraostean, errazionamendu garaian, Zarugaldeko Azkarate okindegian aritu zen ogia saltzen. Gerra denbora Arrasaten eman zuen. Isiltasuna eta beldurra gogoratzen du Arrasateko kaleetan, bera mandatuak egitera joaten zenean. Ezkondu zenean utzi zion neskametzari. Aita arabarra zuen Luzio Velez de Mendizabal arrasatearrarekin ezkondu zen eta zazpi seme-alaba izan zituzten.

Luis Lopez de Aretxaga Agirregabiria (1920)

Legution jaio zen. Aita-amak ere legutioarrak zituen, baina amaren osasun txarragatik Luis Arrasatera ekarri zuten senide batzuek, berak zazpi urte zituela. Urtebetez Legution eskolatu zen, eta, gero, Arrasateko abadetxeko eskolan hasi zen. Luisek ez zekien euskaraz mintzatzen, baina eskolak euskaraz ematen zituzten, eta, eskolako kide guztiak euskaldunak zirenez, berehala ikasi zuen gure hizkuntza. 15 urterekin lanean hasi zen Soroetxe izenarekin ezagutzen zen “Alberdi y Cía” lantegiko bulegoan. Larru zurrategi lanez aparte, esmeril-harriak ere egiten zituzten Soroetxen. 18 urterekin, gerrara eraman zuten '*La Quinta del biberón*'en. Sei urteko soldaduska egin ondoren, Zerrajerako bulegoan lanean hasi eta bertan jardun zuen erretiroa hartu zuen arte. Kirolaria eta Kirol Elkarte bultzatzailea izan zen. Hainbat Elkartetako zuzendaritzan parte hartu zuen. 1957. urtean, Erroman Pio XII aita santuaren aurrean ezpata-dantza dantzatu zuen, Arrasatetik joandako talde batean. Aramaioko Josefa Antonia Erizekin ezkondu zen. Seme bi izan zituzten.

Justa Madinabeitia Urrutia (1924-2011)

Meatzerreka auzoko Etxebarri baserrian jaio zen 1925ean. Aita Etxebarrikoa bertakoa zen eta ama Aramaioko Gantzaga auzoko Garratz baserrikoa. Hamaika hilabete besterik ez zituen egin eskolan. 1935. urtean amandrea hil eta eskolak bukatu ziren. Bere etxera, Etxebarri baserrira, ezkondu zen Elorrioko Iguria auzoko Uhalde baserriko Maximo Gallastegirekin eta bertan bizi izan da beti. Hiru seme-alaba izan dituzte.

Gregori Markaide Pildain (1921)

Uribarri auzoko Olanbarri baserrian (gaur galduta) jaio zen 1921ean. Aita Olanbarrikoa bertakoa zuen eta ama Udala auzoko Erregena baserrikoa. Sei anai-arreba ziren, bera gazteena. Aita baserri-arotza zen. Gerran ama tiroz hil zuten baserriko atean. Eskolan oso denbora gutxi ibili zen. Arrasateko Arbolapetako "Gantxegixena" tabernan (Bar Canuto) egon zen neskame. Goizetik etxeko lanak egiten zituen, horrela arratsaldean eskolara joan ahal izateko. Geroago Eibarren, Arrateko San Martin baserrian, egon zen neskame urtebetez, 1000 errealen truke. Bedoña auzoko Artia baserrira ezkondu zen, Pio Garairekin, eta lau seme izan zituzten. Bere amarekin hasi zen "plaza-andra" lanak eta arteak ikasten eta 73 urtean dihardu baserriko gaiak Arrasateko plazan saltzen.

Juanita Mendieta Madinabeitia (1915-2005)

Baserritarra

Alejandro Mendizabal Cormenzana (1905-1991)

Futbolaria

Jerardo Mondragon Garai (1927-2012)

Uribarri auzoko Telleria baserrian jaio zen, bost anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Bedoña auzoko Itturrixa (Iturriaga) baserrikoa. Garagartza auzoko eskolan hasi eta “San Viator”ekoan bukatu zituen eskolok hamalau urterekin. Gerra denboran amaren baserrian babestu ziren. Hamalau urterekin ekin zion lanean, familiak Aretxabaletan zuen Ibarra sarrailagintza tailerrean. Handik Bergarako “General Mecánica” makina-erreminta lantegira joan zen, eta honen gainbeheran Torunsa torloju-fabrikan ekin zion. Arrasateko parrokiako koroan hasi zen abesten, eta Bergarara ezkonduta, bertako Umore Ona Elkarteko abesbatzako kide izan zen. Gero Bergarako Orfeoiarekin Euskal Herria eta Espainian zehar abestu zuen. “Orfeón Pamplonés”arekin Europan ere abestu zuen.

German Moreno Rodríguez (1939)

Etorkin euskaldundua

Pilar Mujika Arana (1919-2011)

Zarugalde kalean jaio zen. Aitajauna Miatzerreka auzoko Ugalde baserritik ezkondu zen Zarugaldera. Pilarren aita-amak arrasatearrak ziren. Seber Altuberen plazako eskolan ikasi zuen gerra hasi zen arte; gerraostean mojekin ikasi zuen. Familia abertzalea zen, eta gerra denboran Bilboko Bedoña auzoko baserri batera ihes egin zuen familia osoak, eta urtebete bertan pasatu ondoren Santanderrera alde egin behar izan zuen. Izeba bat fusilatu zioten Oiartzunen. Ezkondu aurretik Asa lantegian hasi zen eta bertan jardun zuen 23 urtez. Aretxabaletako Eusebio Lizarralderekin ezkondu zen. Gerra garaiko kontu interesgarriak kontatzen ditu, eta baita elizak orduan zuen botereaz ere.

Patxi Murgoitio Azkoaga (1951)

Rufino Oianguren Uribe-Etxeberria (1929)

Fraidea

Eusebio Okina Bengoa (1929)

San Andres auzoko Etxaburu baserrian jaio zen 1929an. Ama bertakoa zuen eta aita Eskoriatzako Apotzaga auzokoa. Viterin ibili zen lehenbizi eskolan eta geroago eskola nazionalean, Martin Calvo irakaslearekin. 14 urterekin "kutxerixan" hasi zen lanean, koilareak egiten. 14 urte egin zituen bertan eta gero ULGOR kooperatiban sartu zen. Emaztea Lizarrakoa (Nafarroa) du, baina umetatik Arrasatera etorria. Ezkondu zirenetik kalean bizi izan dira eta 3 seme-alaba dituzte.

Juana Okina Zeziaga (1922)

Udala auzoko Garaikoa baserrian jaio zen 1922an. 9 anai-arreba izan ziren, baina zaharrena ez zuen ezagutu. Udalan bertan ibili zen eskolan. Gerra garaian Bizkaia aldean ibili ziren ihesean. 18-19 urterekin udatan Zestoako hotel batera joaten hasi zen lanera eta 13 urte egin zituen hara joaten. Ezkondu ostean kalean bizi izan ziren urte batzuetan, baina gerora Garaikoa (bere jaiotetxea) taberna bihurtu zuten eta bertan egoten ziren. Senarra lantegira joaten zen lanera eta Juanitak eta ahizpa Andresak eramaten zuten tabernako martxa. Taberna itxi zutenean kalera jaitsi ziren berriro. Elkarrizketan Andresa ahizpa gazteagoak ere ematen du azalpenen bat edo beste.

Arantxa Olabe Leibar (1947)

Gesalibar auzoko Enuzketa-aldekoa baserrian jaio zen 1947an eta bertan bizi izan da beti. Gesalibar auzoan bertan ibili zen eskolan. 16 urterekin Arrasaten hasi zen lanean fabrikan eta 10 urte egin zituen bertan, harik eta ezkondu zen arte. Bi alabaren ama da. Grabazioa bere ama Asuncionekin batera egin zitzaion eta Carmen ahizpak ere hainbat azalpen eman zituen.

Maria Ormaetxea Goitana (1922-2018)

Gesalibar auzoko Jauregi baserrian, “Baxabena” izenarekin ezaguna, jaio zen sei anai-arrebatatik zaharrena. Ama umetan Durangotik Baxabenera etorritakoa zen, eta aita berriz Aramaioko Berasategi baserrikoa. Mariak zazpi urte zituela familia Uribarri auzoko Eguzkitza baserrira joan zen, eta hemezortzi zituela, auzo bereko Uribe baserria erosi eta bertara joan ziren bizitzera. Gaur egun Garaia Berrikuntza Gunea dago Uribe baserria zegoen lekuan. Maria zortzi urterekin “Damas de la Asunción” kongregazioko mojen eskolan hasi zen, eta bertan ikasi zuen ia hiru urtez. Neskame jardun zuen Elmako zuzendari Julio Agirrebeitiaren etxean, hilean 30 pezeta irabazten. Geroago josten ikasi zuen, eta ondo ikasi ere. Maria bera joskintza irakaslea bihurtu zen, eta Uribe baserrian hamar urtez neska askori irakatsi zizkien joskintzaren trikimailuak. Gerran Eguzkitza baserria erre egin zieten nazionalek, eta berreraiki egin zuten gerraostean. Mikel Arrieta arrasatearrarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Xabier Ormaetxea Lasaga

Arrasateko Santa Ageda auzoan jaiotakoa, irakasle da Gasteizko Irakasle Eskolan. Gurasoak aramaioarrak zituen, baina Xabier jaiotzean, zerrategia erosi zuten Arrasaten eta bertara joan ziren bizitzera. Aita Aramaioko kalekoa zen eta haren ama (Xabierren amona) ezaguna zen Aramaio-Arrasate inguruan petrikiloa zelako, eta hezurrak konpontzen, gaixoak sendatzen eta abar jarduten zuelako. Ama, berriz, Azkoagakoa zen. Santa Ageda auzoko kontuak aipatzen ditu grabazioan.

Encarna Orobengoa Orue (1933)

Jose Julio Orobengoa Orue (1947)

Aizpekua baserria, Garagartza auzoa.

Ines Osinaga Urizar (1982)

Ines Osinaga arrasatear musikaria da. Umetatik jaso du musikarekiko zaletasuna etxetik. Arrasateko musika-eskolan eskusoinua ikasten hasi zen eta gero trikitia jotzen ikasi zuen, Maixa Lizarribar irakasle zuela. 15-16 urterekin musika sortzen hasi zen eta Ekon taldeko partaidea izan zen. Gose taldea sortu zuen beste bi partaiderekin batera eta 2005ean kaleratu zuten haien lehengo diska, musika elektronikoa eta trikitia uztartuz.

Lucia Otadui Etxaniz (1917-2006)

Udala auzokoa. Aita bertakoa zuen, Palaziokoa; ama Arrazolako Motakua baserrikoa. Udala auzoko eskolan ikasi zuen, eta gerrako ibilerak ondo gogoratzen ditu.

Eugenio Otxoa *Gatzaga*

Leandra Otxoa Abarrategi (1924-2006)

Jose Ramon Ozaeta Llodio (1933)

Dionisio Pagaldai Leibar (1930-2011)

Baztargainazpikoa baserria, Gesalibar auzoa.

Amaia Pagaldai Urrutia (1961)

Uribarri auzoko Baztargain-Azpi baserrian jaioa. Aita bertakoa zen eta ama eskoriatzako baserri batekoa. Gesalibarreko eskolan ibili zen 11 urtera arte eta ondoren Almenen. Magisteritza ikasi zuen eta ikastolan ibili zen lanean (San Frantzisko Xabier, gerora Arizmendi) erretiroa hartu arte. Gurasoek ez zioten hika egin, baina etxean entzun zuen umetatik. Baina berba egiten hasi zenetik esan daiteke hasi zela hika berba egiten; izan ere, animaliei hika berba egiten zien, eta egiten die. Gerora, 17 urterekin, hasi zen lagunekin hika hitz egiten. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Mariasun Ibabe lagunarekin batera. Koldo Zubizarreta bere senarra ere proiektu bererako elkarrizketatu genuen.

Bixente Pagoaga Gallastegi (1946-2012)

Musakola auzoko Aranguren baserrian jaio zen 1946an. Zortzi anai-arreba ziren. Zigarrola auzunean ibili zen eskolan, baina ez zen beti joaten eskolara, umetatik baserrian lan egin behar izan baitzuen. 10 urtez fabrikan ibili zen lanean, baina ez zen bere gustuko lana. Artzain ibili izan zen bere bizi osoan.

Bixenta Pagoaga Gonzalez (1911-2011)

Junkal Perez Lizarralde (1967)

Arrasatekoa, kaletarra, gurasoak ere kaletarrak (ama Legazpikoa). Ikastolan ikasitakoa da. Arrasateko hitanoari buruzko elkarrizketa egin diogu, Esther Learretarekin batera. Junkalen hitanoa ez du etxean jaso; koadrilako bi lagunekin ikasi zuen hika egiten, 17-18 urte zituenean. Auto tailer batean egiten du lana eta batzuetan bezeroekin hika egiten du. Etxean ez du transmititu.

Julita Perez Prieto (1922)

Herriko plazan bizi zen. Kortinak egiteko tailer batean lan egiten zuen; handik irtendakoan etxeko lanak egin eta berriz lanera. Dantzarako zaletasun handia izan du.

Jesus Mari Plazaola Otadui (1957)

Arrasateko Udala auzoko Palazio baserrian jaioa. Bergarako Udaleko baso langile dihardu azken urteotan. Hainbat artzain txakur txapelketetan parte hartutakoa, eta bai Gipuzkoan baita Euskal Herrian zehar ere txapelak irabazitakoa.

Dolores Resusta Olañeta (1896-1990)

Dendaria

Eli Sagasta Egidazu (1952)

Matias Sagasta Elorza (1920)

Musakola auzoko Mojategi baserrian jaio zen, zortzi anai-arreben artean seigarrena, bere aitaren bigarren emaztearena. Aita bertakoa zen, eta ama berriz Aramaioko Gantza auzokoa. Eskolan auzoan bertan hasi zen sei urterekin. Gero kalean jarraitu zuen hamalau urtera arte, Ferixa Leku ondoko eskolan, Zarugaldekoan eta Abadetxekoan bukatuz. Eskolak euskaraz jaso zituen. Eskolok bukatu eta pinu sartzeari ekin zion lanbide bezala. Hiru urtez basomutil jardun ondoren, “Arzamendi, Berecibar y Cía.” sarrraila lantegian hasi zen eta bertatik jubilatu zen. “Quinta del Biberón” barruan joan zen gerrara. Gasteizen egon zen gerrak iraun zuen artean, agintari militar baten laguntzaile lanetan. Afrikan bukatu zuen soldaduska, ia sei urtekoa izan zena. Auzo bereko Osiñalde baserriko Faustina Aranarekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba dituzte. Matiasen lagun Pablo Barrena ere egon zen elkarrizketan.

Eugenio Sagasta Juaristi *Olatxo* (1930-2008)

Pilotaria. Lehenagoko pilotaren gaineko kontuak kontatzen ditu.

Juanito Saizar *Aramaio*

Txoferra

Pedro Sologaistoa Iriarte (1920-2009)

Futbolaria

Anabel Ugalde Gorostiza (1956)

San Andres auzoko Ibaialde auzoan jaioa. Bi senide dira. Umetan moja ikastetxean ibili zen. Historia ikasketak egin zituen. Irakasle jardun du urte askotan, besteak beste herriko ikastolan eta EHUn. Historiako emakume bertsolariei buruzko ikerketa egin zuen, eta horri buruz egin diogu elkarrizketa. Hitanoari buruz ere bai.

Kontxi Ugalde Lizarralde (1920-2001)

Teodora Ugarte Orue (1934)

Rafael Unamuno Sologaistoa (1906-1999)

Enuzketa baserria, Gesalibar auzoa.

Jose Mari Unzueta Sudupe (1943)

Jose Mari Unzueta 1943an jaio zen Bedoña auzoan (Arrasate), Sakristaukoa deitzen dioten baserri-etxean. Ama azkoitiarra zuen, baina familiari Bedoñara bizitzera joateko aukera eskaini zioten, han eraiki berria zen etxe batera. Ordainetan, elizaren ardura batzuk hartu behar zituzten eta horrela egon ziren, etxea erosi zuten arte. Ingeniaritza ikasi zuen arren, diseinua zen gustatzen zitzaziona eta atzerrian formatu eta gero Fagor Etxetresna Elektrikoetan lanean hasi zen. Bedoñako auzoan beti auzolan handia egon da eta lan asko egin behar izan dute azpiegiturak eta zerbitzuak lortzeko. 60ko hamarkadan Aretxabaletako auzo bat izatetik Arrasateko auzo bat izatera nola pasatu zen kontatzen du. Gaur egun, Bedoñako auzo-alkatea da.

Juan Jose Uribarren Lejarreta (1930)

Karmel Uribarren Munitxa (1961)

Antonio Uribesalgo

Anbulantzia txoferra

Balentina Urionabarrenetxea Agirre (1914-1994)

Dendaria

Jose Mari Urrutia Ibabe (1922-2009)

Jose Valles Valles (1929-2001)

Mari Cruz Velez de Mendizabal Arana (1912-2010)

Arrasateko Garibai kalean jaio zen. Aita arabarra eta ama Arrasatekoa zituen. Hamabi urterekin Santanderreko Mertzedarien eskolan barneko ikasle sartu zen. Bost urte han eman eta gero, etxera itzuli eta Zerrajeran bulegari lanean jardun zuen pare bat urtez. Gero Zumarragako seminarioan nobiziatu eta Oiartzunera bidali zuten. Hango eskolan Jose Manuel Azkuna eta Jose Mari Lekuona izan zituen ikasle, besteak beste. Gerrak bertan harrapatu zuen. Gerra denboran eta gerraostean Saturraraneko kartzelan, Santanderko bi kartzelatan eta Valladolideko baten ere egin zuen lan, ekonomatoen arduradun modura. Bere bizitzako azken urteak, Eskoriatzako Mertzedariekin eman zituen.

Ines Zabala (1948)

Patxi Zabala Madina (1913-1999)

Zapata konpontzailea

Julia Zabala Palacios (1944)

Juliak gazte denborako kontuak gogoratzen ditu. Hogei urte zituela Urkiolara joan, San Antonio egunean, eta bertan ezagutu zuen bere senarra izango zena.

Patxi Zabarte Beitia (1922-2009)

Udala auzoko Ozaeta baserrian jaio zen 1922an. Aita Ozaetakoa bertakoa zuen eta ama Aramaioko Oletakoa. Hamaika anai-arreba ziren. Auzoko eskolan hasi zen sei urterekin. Hamaika urterekin Amorebieta-Etxanoko Karmeliten ikastetxera joan zen, baina gerrak eten zituen Patxiren ikasketak. Gerra denboran Pio Azkarateren okindegiko ogiak banatzen zituen Arrasaten. Gero basoan, Zerrajeran eta Roneon egin zuen lan. Erratzuko (Baztan) Pilar Irigoienekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuten.

Esperantza Zeziaga Lasagabaster (1904-1998)

Dendaria

Benigno Zuazubizkar Heriz (1909-1994)

Korriona.

Felix Zubia Arana (1931)

Udala auzoko Garaikotxiki baserrian jaio zen, hamaika anai-arrebatatik seigarrena. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Elorrioko Iguria auzoko Ibarluze baserrikoa. Amak petrikilo osaketa xumeak egiten zituen (bihurrituak, erasanak, etab.) Gerra denboran Bizkaiko Atxondo herriko Arrazola elizatera lehenengo, eta Elorrioko amaren jaiotetxera geroago, babes bila joan zen familia, ganadu eta guzti. Auzoko eskolan ikasi zuen sei urtetik hamalaura arte. Eskolara joan aurretik, egunero kalera esnea eraman eta handik ogia ekartzen zuen. 24 urtera arte etxean jardun zuen, baina baserritik bizimodua atera ezin, eta ezkondu zenean Aranzabal lantegian hasi zen lanean, giltzarrapoak egiten. Bertatik hartu zuen erretiroa. Oñatiko Orbea txokolate lantegiko nagusientzako neskame lanean ziharduen Dionisia Murgiondo Anatxe baserriko zegamarrarekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba dituzte.

Jaime Zubialdea Zabala (1916-2003)

Aguazil pregoilaria

Mauri Zubillaga Duinat (1950)

Pilotaria

Tomas Zubillaga Duinat (1955)

Pilotaria

Koldo Zubizarreta Arenaza (1961)

Aretxabaletako Galartza auzoan jaioa, baserrian. Untzillako eskolan ibili zen. 26 urterekin Arrasatera joan zen bizitzera, baina lehenago ere bertan egiten zuen bizimodua: lanbide heziketa, lana, lagunak... Hitanoari buruzko elkarrizketa egin diogu Beronika Garai eta Amaia Aranarekin batera. Gurasoek hiru anai gazteenei zuka hitz egiten zieten eta baita anaia-arreba zaharrenek ere, baina gurasoek zaharrenei hika egiten zieten. Dena dela, orain hiru gazteenek euren artean hika egiten dute, eta zaharrenei ere horrela egiten diete, hika; baina zaharrenek eurei, gazteenei, zuka egiten diete. Koldok auzoan umetatik egin du hika bere adinekoekin. Ohitura handia dauka mutilekin hika egiteko, baita ezezagunekin ere (neskekin lagunak baldin badira bakarrik).

Benito Zubizarreta Barrena (1931)

Bolaria

Ibai Zubizarreta Pagaldai (1991)

Kaletarra, baina guraso biak baserrikoak ditu eta harreman estua izan du umetatik baserri munduarekin. Biologia ikasi zuen Bilbon eta basozaina da, Lea Artibain. Aste barruan Ermuan bizi da. Arrasateko hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Aramaioko Markel Arriolabengoa lagunarekin batera, elkarrekin hika egiteko ohitura dutelako. Aitak hika egiten dio Ibairi, baina ez haren arrebari. Ibairen gurasoak ere elkarrizketatu ditugu, proiektu bererako: Koldo Zubizarreta eta Amaia Pagaldai.

Joxe Zulueta Uribe (1921)

Gaur egun Nafarroa etorbidea izenarekin ezagutzen den “Calle Estación”en jaio zen. Aita Arrasate kalekoa zen eta ama Zaldibar auzoko Ale baserrikoa. Herriko eskola publikoan hasi eta Abadetxeko ikastolan jarraitu zuen ikasten. Hamaika urterekin Bergarako “Escuela Elemental de Trabajo”n hasi zen, baina gerrak eskolara joatea eten zuen. Militarrek Zerrajera lantegia militarizatu zuten gerra jaurtigaiak ekoizteko, eta bertan hasi zen lanean Joxe. Lantegia zibil erara itzuli zenean, Zerrajerako “Escuela de Aprendices”en Industri Maisutza ikasi zuen. Zerrajeran bertan tailerburu lanetan jardun zuen jubilatu zen arte. Gerran lau urteko anaia eta lehengusina bat galdu zituen, kalean erori zen bonba baten ondorioz. Etxetik ihes egin eta amaren jaiotetxean babestu ziren, gerra-tokia herritik urrundu zen arte. Arrixan (Arriaran) baserriko Elbira Berriotxoarekin ezkondu zen eta seme-alaba bi izan zituzten.

Pedro Zumelaga Ozaeta (1914-2007)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Belaunaldien arteko harremana

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/003
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:02:10. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Bixente zortzi anai-arreben artean bigarrena zen, hortaz txikiagoak zaindu behar izaten zituen sarri. Gainera, auzoko beste umeak ere beraien baserrira joaten ziren askotan. Sasoi hartan familia handiak izaten ziren gehienetan. Adin desberdinetako umeak elkarrekin ibiltzen ziren, bai jolasean baita eskolan ere.

Transkripzioa
- Bai.
- Esan dozu lehen, beti ume artian edo, ez?

- Bai. Beti ume artien.
- Jende asko izan zarie...
- Izen giñen zortzi, ni nitzen bigarrena. Eta, ba, bueno, beti ume artien. Amak, aitte faten zan fabrikara, eta amak, ba, eruten euen basarrixe. Ta amandriakin, ba, umiek eta ume txikixek mordue egozen atzetik eta, ba, benga! Ta gero auzokuk-eta junteten zien, aldamenekuek be bai. Bi bizitzako basarrixe zan. Eta aldemenekuek eta...ume mordo bat juntetan giñen! Orduen etxe bakotxin izeten zien, ba, zazpi-zortzi normala izeten zan. Gaur ez dao holakoik. Gaur bat, bi edo bapez. Bai.
- Baiña zuek etxebizitza bittan ya hamarretik gora, ez?
- Bueno, bestekuen ez zien hainbeste, baiña bai, gu han mordua juntetan giñen. Ume mordua juntetan giñen. Ta gero beti izeten die etxe batzuk [...] eta, ba, bueno, auzoko umiek-eta juntetan giñen, han asko juntetan giñen.
- Zeuenian?
- Geurian. Bueno, ta eitten [gittun], ba, geure jolasak eta geure dibersiñuak.
- Ta, gaiñera, edade diferentietakuak egongo ziñazien, ezta?
- Bai. Hor, zortzi-hamar urten aldien danak baten sartzen zien. Eskolan be, ni akordetan naz, han auzuen, ba, gaur haik daukie... haik gizonak daukie hirurogeta sei-zazpi urte, nik daukat berrogeta hamazortzi urte, ta danok alkarreaz ibiltten giñen eskolan. Eskolie danendako izeten zan bardiñe. Orduan ez euen graduaurik eta zerik. Batzuk alde baten eta bestiek bestaldin, orduan ez euen. Danak batera!
- Eta eskolia bertan auzuan zeuan?
- Auzuen euen. Auzuen.

1.2. Amari ikasitako kantak

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/022
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:34:40. **Bukatu**: 00:36:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- **Laburpena**: Markesaren alaba; Santa Genoveva kantak ez ditu ondo gogoratzen. Amari ikasitako kantak. Negu aldean amak asko kantatzen zuen.

Transkripzioa
- "Markesaren alaba" ta lehengunien esan notsune, "Sta Genoveva" ta horrek, oso ederki nekixen, baiña oin... Eske ahaztute deuket. Klaro, horrek [eitten zittuzun han] ta umetan ta gehixau, ba, kitto. Gehixau ez dittuzu... Baiña oso politto, ta danak. Oin "Markesaren alaba" nik hor radiua asko eukitten dot, eta hor kantetan dau, baiñe ez dau dana osorik kantetan. Niri amak, amak erakutsi oskun guri hori. Amak. Amak, bai. Amak bestela ez euen eukitzen denpora haundirik, baiña neguen, erropak-eta --ez dakitzu?--, izerak-eta apurtu eitten zien, ta ordun josi eitten zien, ta danak eskuetan. Eta harek, neguen kantuen-kantuen egoten zan, ta gu aman onduen neguen oso gustora egoten gitzan. Berak izareri [ipinkixek] edo erropak josixaz, edo gu beste zerbait [...], umiek aman onduen gustora.

Eta hori, "Sta Genoveva"-na be bai eta honena be bai. Zelan da? Jesus!
- "Markesaren alaba".
- "Markesaren alaba".
- Eta hau, "Sta Genoveva", hasieria gogoratzen dozu, behintzat?
- Eske "Sta Genoveva"... Buff! Berba batzuk badakit, baiñe... Klaro, hori esaten euen historikue zala, e? Benetakue zala. Klaro, orduen danak benetakuek zien, e! Orduen danak benetakuek zien!

1.3. Musikola edo Musakola auzoa

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/002
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:03:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Musakola (euskaraz izen jatorra "Musikola" omen da) auzoko Aranguren baserrian jaio zen, "Ziorla" (Zigarrola) zen garai bateko "kalea" Musakolakoentzat. Inguru haietatik desagertutako bederatzi baserrien berri ematen digu Bixentek.

Transkripzioa
- Zu jaio nun jaio ziñan?
- Jaixo Aranguren baserrixan, Arrasaten.
- Hori ze auzotan dago?
- Musikola auzua.
- Ezta Musakola?
- Musakola erderaz baiña Musikola, guk euskeraz Musikola. Musakola erderaz baiña euskeraz Musikola. Eta gero guk han geuken kalie, guretako kalie zan Ziorla. Ziorla zan San Isidroko elizia. Dau han Eroskittik Mondrauera goiazela, zubixa, zubi kontran dauena, ba lehenau ez euzen hor etxe... gutxi euzen hor. Hor euen han elizak baiño han zubixan dagozen etxe illaria eta bestaldeko etxe illaria. Bi etxe illara egozen, eta gero egozen elizia, zerria eta zerria euen lekuen ei euen errotia. Eta Ziorla, gero ba fabrikia be bai, hortik dator Ziorla, olia, eta gero ba hantxe euen Zerrajerako etxe illara bat eta Txutxueneko etxia eta ya ixa Mondrauera arte hor ez euen etxe bat be, danak baserrixak, danak baserrixak.
- Igual-igual dago ointxe.
- Ene, ene! Hor egongo dira desapareziduta bertatik Mondrauera bittartien, Txoxa bat, Aldekue bi, Etxezondo hiru, Bidekurtze bixak bost; gero atzeratxuago euen beste bat Antoña sei, Legarre zazpi. Zazpi baserri behintzet desapareziduta. Ta beste bi hor Osiñagak eta hareik erdi desapareziduta. Horreik danok, hor ez euen etxerik ezelakorik be. Bapez, hor dana zan labrantzia. Eta Mondraueko Tio Tom egon zan tabernia? Bueno, Tio Tomen parien bestaldien dau Markiegi sastrerixia, eta handik jarraittu ta oin kinielak eta egoten diren lekuen euen tabernia euen Bar Caserio, ta han Bar Caserio baiño ez dakit portal bat honutzago portal bat harutzago, euen holako kallejoi bat, eta ondion hantxe dau Erregetxuena etxia eta nik han behixak akordatan naz. Ta hango amandria Manuela etorten zan asto zuri bateaz Ziorlan eukien solo bat, eta etorten zan

Ziorlara.

1.4. Arrasate edo Mondraue

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/003
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:03:37. **Bukatu**: 00:06:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Bestelako kontuak » Historia orokorra
- **Laburpena**: Jendea oinez edo asto gainean zebilenean denek elkar ezagutzen zuten. Gaur egun gauzak aldatu egin dira. 1946ko udaberrirako jaio zen Bixente. "Arrasate" izena oso gutxi erabiltzen zen Bixenteren gaztaroan; euskara garbi zaleek erabiltzen zuten batez ere.

Transkripzioa
- Baiña ba horreik dire oin... klaro, gaur ez dogu iñor ezaguketan, ez ogu iñokin berbarik egitten, danok gabiltz kotxien, danok gabiltz prisaka. Baiña orduen danok ibiltten gintzen oiñez, edo bestela asto gaiñian, eta kalera astuakin egunero faten zan, eta danok ibiltten giñen oiñez, orduen ba danok ezaguketan gintzan, eta danok gekixen nundik nora, zertan gebintzen. Baiña ba oin danok kotxien, danok prisaka, eta gero zein...
- Lehen baserri bat euen lekuen oin hogei edo hogeta hamar bizitza.
- Klaro! Eta gero oingo zerik haundixena da aldamenekuari zela guzurra esan. Hori da. Baiña lehenago be beuen hori, lehenagoko agurak esaten euen “fulano”, eta “zer”, “ferixara”, eta “bai ointxe naixuek”, zenbat guzur esan bihar (di)ttozu, eta esan asko baitta egi banaka bat eta handik jaso in bihar juau. Lehenauko esaerak horreik izaten ziren, bai. Ni hantxe jaixua, Arangurenen jaixua.
- Eta zela dakotzu izena eta abizenak?
- Izena Bixente Pagoaga Gallastegi.
- Ze egunetan jaiotakua zara?
- Aprillia bost, berrogeta seixan, udabarrirako. Buneno udabarrixa batzutan, segun garizumia zela datorren, uste dot artian neguen akaberia izan bihar euela aprillian, klaro, udabarrixa marzuan sartzen gara udabarrixan, bueno, izan marzuan sartu udabarrixan baiña ba garizumiak zela ebaten eta erabagitten dauen aste santuak, artien aste santuak eta etorteko. Mas bien negua, udabarrixa esan baiña masbien negua esaten euen. Bai, aprillien bostian jaixua, bai.
- Eta Mondraue famosuari oin danok Arrasate esaten xaugu, zuek sekula mutikotan eta entzuten zeuein Arrasate izena?
- Arrasate entzuten zan hola noizien behin. Gutako Mondraua, Mondraua.
- Nork esaten eben Arrasate?
- Ba Arrasate esaten euen honeik euskera...
- Zaliak?
- Euskera, bueno, euskaltzaliak danok giñan baiña euskeria apurtxo bat kuriosuago edo zertzen euenak Arrasate eta klaro, betik, zela euen gaiñera gu mutikuak giñanian euen prohibiduta horreik izenok, eta betik papel danak egoten ziren, euskeraz daz leheneau-lehenaukuak baiña beste danak daz idatzitta erderaz. Eta “término municipal”: Arrasate, edo

Arrasate, “término municipal: Mondragón”, hor zertzen zan. Guk Arrasate ez gotsen esaten; oin da Arrasate, eta ondion be guk geure artien eta baserrittar artian eta, “nora hoia?” Eta “Mondrauera”. Gure ohitturia hori da, Arrasate oingua da, bai, geuk be oin esaten dogu Arrasate, ezta? Baiña ez, lehenau ez zan esaten.

1.5. Plazara saltzera

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/010
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:23:44. **Bukatu**: 00:26:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Arangurenen ganaduak eta ardiak zituzten. Baratzeko gauzak eta ogia ere asko egiten zuten. Plazarik plaza saltzen zituzten etxeko ekoizpenak. Esnea kalera eramaten zuten. Baina bizitzeko era aldatzen hasi zenean, ganaduak kendu behar izan zituzten eta ardiekin bakarrik geratu ziren. Garai hartan plazan denetarik saltzen zuten.

Transkripzioa
- Eta Arangurenen bizi ziñaiñien, ganaurik-eta?
- Bai, bai, bai. Arangurenen bizi giñanien geuken ganauak, ardixek, eukitten geuen baratza asko, gero itten geben ogixe mordua; orduen andra-gizonok eta ama, ointxe hil dda ba larogeta hamaika urteaz, baiña beti egonda oso ondo. Eta orduen itten geben guk plazatara ibiltten giñen gu asko. Oñatiko plazara hogeta hamabos urtian baiño gehixau fanda gaz gu.
- Zapatuero.
- Zapatuero. Gehixen baten neu faten nitzan, atzenetan ama. Eta danari obaketa gotsen, eta ganauak kendu gittuen oin dala hogeta lau urte datoz ointxe. Ganaue asko geukan eta ibiltten giñen esnetan, esnia ataten geuen kalera. Baiña aillegau zan momentu bat jentiak komodidadia, gero hasi ziren ba honeik, kaleko esniok, eta ba gaur ez egidazu ekarri, gaur sobra dauket, oporrak dire, aste santuek dire, ez egidazu ekarri, ba esniori sobra. Gero domeka goizian be ze molestau itten naizu beratzietan atia joten badostazu, hamaikak arte lo in bihar dot, eta bueno, horreik danok. Eta ba bueno, erabagi geuen ganauak, kriau bat geueken, kriauaz be ez geuen... bat oso ona euki geuen, baiña bestiakin ez geuen azertetan larregi eta esan geuen ganauok kendu eta geldittuko gare ardixekin bakarrik. Gero ya ba ortu eta horreikin. Eta hola bizi izan giñan eta bizi gara ondiok. Oin ba ezebez? Oin ya jubilauta eta ba oin be puxka bat jarraittu, jarraittu ba lagundu, nik egin gauza haundirik ez, lagundu itten dotsiet, lagundu. Eta bueno, horreik izaten ziren baserriko kontuak.
- Beste jenerorik saltzen zenduen plazan-edo?
- Orduan bai, orduan saltzen zan harrapaten zan dana. Orduan danetik saltzen zan, zeatik eze kanpotik ez zan etorten oin beste. Frutie be saltzen zan, berduria asko saltzen zan, baiña gaur egunien daz preparauak daz gauza asko, konjelaue, potiek daz onak. Gero, ba nik ez dakitt, igual larogeta hamabosta edo gehixau, andrak ba dabiltz lanien, orduan ez

daukei astirik. Eta gero beste bosta edo sei edo gure dauanak, ba bitrozeramikia zikinddu itten dala, azazkalak ondatu itten direla, hoba da preparauta zertzeia, preparautakuek ekarri eta trankiltxuau.

1.6. Jateko ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/013
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:31:05. **Bukatu**: 00:33:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Gaurko gazteek dendako okela, esne, gazta eta abarren zapore eta ehundurara ohituta, era naturalean ekoiztutako baserriko gauzak ez dituzte gustuko. Baina ez dira jateko ohiturak bakarrik aldatu.

Transkripzioa
- Askok esaten daue, eske oingo gaztiek gosia pasaten dauen, keba! Ez daue jaten oillaskorik, ez daue jaten okelarik, ez daue jaten arraiñik. Jaten daue pastie, huruna, beteten daue zabelori eta hala, trote. Tripia bete eta trote, baiña gaur holaxe dau, ikusten dogu, eta ezin geike kritikau. Geu gaztiak bagintza beste hainbeste ingo geunke. Baiña ez, gauza asko aldatu egin dira, aldatu dira bildurgarri, bai jaten bai danien, danien aldatu da. Eta askok esaten daue, ni akordatan naz hemen Maritxu Kajoi egun baten, egoten ziren ehun ta hogeta hamabost ehun eta hamabost lagun egoten ziren afaitten. Eta klaro urte baten esan gauan hareik kartan ezin geike emun, ipiñiko dogu menu bat. Orduan menua izan zan urdaiazpiko apur bat piketako, zopa de peskaua eta gero oillaskua, etxekua. Etxian guk hegazti asko daukogu oin be bai eta orduan be hegazti asko geuken, etxeko oillaskua. Eta jentiari esan “¿qué tal estaba el pollo?” “¿Pollo? ¡Si parecía una gallina vieja!" Gogorra, zuk lehen esan dozuna, gogorra, gusto diferentie.
- Gusto gehixau.
- Gusto gehixau, hori da askok eta askok, gaur hemengo arrautzia kentzen dotzue eskuetatik ezaguketan dabenak, baiña gazte bateri “que huevo mas amarillo”, larue, oso horixe, hori da baserriko arrautzie.
- Eta emuten xatsu behixen esnia, eta oingo mutikuak…
- Gustue dauko.
- Ez xate gustaitten.
- Ez jako gustetan.
- Gustaitten xate pote kuadraukua.
- Klaro, eta gero ume danak telarik ez daixela euki.
- Esnia tela barik, ezta?
- Esnia tela barik. Esnegaiña kenduta. Eta gaztaia be, gaztaiakin be bardin pasau da, gaztaia, bueno ondiok badau jentie lehenauko gaztaia gustaten jakona, baiña ehunetik hamar? Jentiari oin gustetan jako gaztai bigune, pattala. Eta hemen lehenau jaten zan ba “queso de borrachos”. Ardau pittin bat edateko gaztaia, ardau apurtxo bat edateko gaztaia, hori da gaztaia.
- Dana zatitzen dan hori, ez?

- Hori, horreik dire gaztaiak horreik dire. Bueno, horreik dire, hola gaz ikasitta. Gaur bestaldera dau, gaur biher da gaztaia suabie, bueno ba igual estomangurako hobia izango da, baiña bestiek be estomangutik ez ziren hiltten lehenauko zaharrak. Gaztiek ez ziren hiltten estomangutik, gaztaia jan pikantia-eta e? Orduan gauzak aldatu in dira, aldatu dire ba danak.

1.7. Deguria mendian gaztagintzan

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/015
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:35:42. **Bukatu**: 00:38:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Orain ardiak antzutu arte etxean edukitzen dituzte. Lehen, berriz, maiatzean joaten ziren ardiekin Deguria mendira eta han egiten zuten gazta. Gaztak egin eta keztatu ere bai. Gaur egun bere 86 urterekin, Muxibarko artzaina da gaztagintzara mendira joaten den bakarra.

Transkripzioa
-Eta ardixak nun ebili dittuzu, mendixan, etxian...?
-Ardixek bixetan, bixetan, alde bixetan. Negue eitten daue behien, ta maietzien ia faten gare gora. Ia maietzien ba... lehenau izeten zan mendire fatie sagraua. Oin, ba, klaro, ez gaz iñor eta antzutu arte egoten gare behien. Orduen antzuketan dittuk, ba, San Antonio ostien-edo antzuketan die ta ia botaten die mendire. Baiñe lehenau faten giñen, ba, maietzan batetik San Isidruek bittartien mendira. Ta mendixen egoten giñen gaztaigiñan. Enda zan bizimodu oso gogorra. Baiña... Bueno, ni neuretako ez zan izeten gogorra. Gustau itten bajatzu... Lan danak die gogorrak, ta gustetan ez bajatzu, gogorrauek. Baiñe, ba, lehenau, ba, hola izeten zan. Oin mendiko... gero, ba, orduen ez euen kotxie be, ba, ez azen oingo moduan. Oiñez ta al zan moduen, baiña, ba, oin kotxiekin ta zerakin, ba, beste diferenteko zera da. Baiñe bai, ardixek mendire bielketan dittugu.
-Ta lehen gaztaia Degurixan eukitten zeuein zuek, ezta?
-Bai, bai, bai, bai.
-Ta han Degurixan itxabolan bertan eitten zeben gaztaia?
-Bai, bai, bai, bai. Makiña bat urtien eindde gaz Degurixan. Bai, bai, bai.
-Ta hori keetu ta dana bertan?
-Dana bertan. Oinddio be keetu han eitten dittut nik. Zegatik ze, keeketako dana preparaute daukou ta keetu han eitten dittut. Baiña bai, bertan eitten zien gaztaiek. Ta egun be mendixen hobeto eitten da gaztaie behien baiño.

-Ahuntzak modura?
-E?
-Ahuntzak modura?
-Esaktamente. Esaktamente. Baiñe tenperatura aldaketie beti egoten da gutxitxuau. Ta mendixen oso ondo egoten die. Oso ondo. Bai, bai, lehenau mendixen ta, nik ez bakarrik, ba, egoten giñen e... Oin ez, oin Muxibar egoten da bakarrik. Ta larogeta zazpi urte ein biher dittu /einbittu/. Ba iges be egon zan larogeta xeigaz gaztaigiñen, aittejaune. Ta, bueno, baiñe, ba, oin Matromari be falta da, Erguin be falta da... ba, oin e, zaharrak gastau

ein die. Ta gaztiek, ba beste lanbide bat, beste lanpostura bat. Gero hain deu gutxi, hain deu gaixki pagaute ba, jentiek ez dau zertzen. Ez da etorten oin lehengo moduen. Baiña bestela mendixe politta izeten da. Ta mendiko girue, mendiko egoerie...
-Ta zuk han e...

1.8. Artzainen artean giro ona

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/017
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:40:55. **Bukatu**: 00:43:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Deguriako artzainak ondo konpontzen ziren elkarren artean. Goizetan, batez ere, ardiak bildu eta ekartzerakoan, bata besteaz asko arduratzen ziren. Bakoitzak bere lanak egin ondoren, tertulian elkartzen ziren, bai eguerdian eta baita arratsaldean ere.

Transkripzioa
- Horrek kontetan zittuan, barriketa gehixau izaten ziran, bai. Gero Gregorio be ez zan barriketa askokua, Migel be ez, Muxibarrek gehitxuau, eta gero Degurixan beste agure bat, gure andrien tio bat be bai han artzai egonda, ondiok txabolia han dauke, eta horreik beti be kontetan zittuan. Biaña ya atzenerako ba bakotxak itten dau ba bakotxak bere bizimodua. Manuelen-eta denporan diferentetxuau izaten zan.
- Tratu gehixago alkarrekin.
- Bai, eta hori ardi mozketia guk normalian egitten geuen Matromarikin, Matromariñenien ni ibiltten nitzan ardi mozketan eta gero guriak itten giñuan danak ekiñaldi baten, baiña batak bestiari lagunduta. Gero gauza bat egoten zan mendixen ona, hori bai, illunkeretan bakotxak bere aldetik ardi pillaketia, normalian juntaten giñen hor bostak inguruan eta sei tt´erdirak artien danok egoten giñan barriketan eta ya gero bakotxa bere aldera ardixak pillaketan, eta illunkaran “cada uno por su lau”. Baiña hurrengo goizien zortzi tt´erdiak, beratziak laren gutxiago inguruan ardixak urteten ez beuen Pozu Zabalen aurrera, nik etorri biher izaten neuen goittik, eta klaro, bestiek batak bestiari ondo ikusten euen enda ardixak, bueno, ni zortzita erditarako Pozu Zabalen pasau ez banitzen eta ni hara fan eta Matromarin eskortan ardirik ez, edo Muxibarren eskortan ardirik ez, ya orduen egoten zan arduria. Ya orduen bata bestiakin juntaitten giñen eta bueno, zerbait pasau da edo arduria egoten zan. Hori errespetu hori beti. Gero ardixak jeitzi, gaztaiak egin, txabolia jaso, bazkerixa preparau eta hamaiketa erdietan danok juntetan giñan, ordu batak arte tertulixia. Hori egunero, egunero-egunero-egunero izaten zan. Baiña goizian egoten zan arduria itzela egoten zan. Ni akordaten naz, neureana be etorritta daz eta, ni ardixakin goittik behera eta Matromari falta. Eta Gregoriori esan, “Matromari?” “Eta fandok ha goizian bere orduan baiña ez dok agiri”, enda zer da ta, lañue, lañuen bittarten baten edo Araba Mendixen ikusi eta bueno, bajatok.

1.9. Deguriako granjak

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/019
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:48:17. **Bukatu**: 00:51:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Bixenteren garaian jada artzainak ez ziren jaisten meza entzutera Araotzera, baina bai tabakoa bukatuz gero tabakotara noizbait. Artzainek txerriak hazten zituzten gazurarekin. Bixentek ardiez gain sei txerri ere zaintzen zituen.

Transkripzioa
- Eta zuek ze itten zeuein, mezia entzutera domekan Araotzera faten ziñain?
- Ez, gu ez, gure denporan ya ez zan itten hori, aurretik bai, aurretik pastore danak gaztaiak in tta Araotzera mezetara, eta gero bueltan danak mekauendios baten. Lan danak egitteko, txarrixak gobernetako, danak mekauendios baten! Eske Degurixatik Araotzera fanaldixa dau e?
- Horixe dauela. Bajaittia samurra.
- Eta igotia? Ni fanda nau Degurixatik Araotzera oiñez bastante bider, eta birrittan nau bajaute tabakotan Mantxuenera, tabakua falta. Gure etxabolia apartetxo egitten da Gazteluko eskortia, Gaztelu aldera, handik hartu eta Mantxuenera tabakutan. Baiña ez, mezetara ez naz fan, mezetara ez naz fan.
- Eta orduan txarrixak, gazuria eta emuteko, txarrixak eukitten zittuein?
- Txarrixek bai, txarrixek danok eukitten gittuan. Migelek ez euen eukitten, eta Migelen gazurak neuk jasoten nittuan. Gregoriok eukitten zittuan txarri bi, Muxibarrek beste bi eta nik eukitten nittun sei bat txarri. Txarrixak erueten ziren hor hogeta bos bat kilo ingurukuak eta ehun kiloko txarrixak askotan bajetan gittuan. Gazuria oso ona da.
- Baiña gazuriakin bakarrik ez zeuein…
- Gazuriakin bakar-bakarrik. Gazuria bakarrik.
- Ha txarri okelia gozua izan bihar zan.
- Ba gero horrek txarrixok jaten ez dakixe, bakarrik zurrut itten. Asunek-edo emuten jakuen baiña bakarrik jaten ez dakixen. Eta horreik gero etxera ekarten zirenien galdu itten euen. Klaro, jaten ikasi barik. Leheningo urte bixen edo euki gittuan etxien gero udatzenien hiltteko, zeatik guk geuk txarri asko hiltten geuen eta etxien hazten gittuen hamalau bat txarri-edo, enda itten gittuan gazura txarrixak mendittik ekarten ginttuanian, hurrengoko egunien edo hurrengorakuen mataderixara, kendu itten ginttuan, zeatik eze jaten ez ekixen eta galdu itten euen. Baiña bestela txarrixa gizendu? Txarrixa ondo gizenketan zan mendixen, oso ondo. Ondo gazuriakin.
- Ha bai izango zala okela garbixa.
- Horixe garbixa. Bai, bai, txarrixak gazuria bakar-bakarrik jaten euen.
- Ze eukitten zittuein, libre edo etxabolan?
- Libre, bueno, guk txabola barruan baiña goizian jare itten otsien bestiek be. Guk geukan zerradura zailla haundixa geukan eta masbien libre ibiltten ziren. Enda gero peligrosua izaten zan gazuria, egunero gazuria gordiñik emun eta emuten otsien odolen atakiak, fuertiegixa, eta orduen egitten

geuan goizian egosi gazuria eta illunkaran egositta emun gazuria, goizian gordiña, trukauta. Baiña txarrixak, txarrixak egoten ziren bilddurgarrixak egoten ziren, txarri haundixak egoten ziren.

1.10. Goserik ez, baina "kapritxorik" ere ez

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/020
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:51:14. **Bukatu**: 00:53:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Baserrian ezin zuten gauza batetik bakarrik bizi, eta horregatik hazi behar izaten zituzten abere ezberdinak. Ahal zen guztiaz baliatzen ziren abereok hazteko. Gerraosteko gosea ez zuen ezagutu Bixentek, baina "kapritxorik" ere ez.

Transkripzioa
- Eske baserriko bizimodue, bai artzaiena, bai danena, ebatu bixatzu gauza danari. Hori doie lotuta doie, gauza bat bestiakin. Zeatik eze jentiak oin esaten dau artikulo gauza bat euki bihar dau, artikulu bat euki bihar dau, eta berak fallaitten badotsu ze in biher dozu? Ebaketan xatsu danari, aprobetxaten zan dana.
- Eta gaiñera txarrixak euki ez bazittuein, ze ingo zeuein gazuriakin?
- Harrika bota biher. Baiña orduan aprobetxau itten zan dana, dana aprobetxetan zan, dana. Ez dago... gaur egun bizimodue dau samurragua orduen-ta baiño, bastante samurragua dau, askokin be. Lehenau ba aprobetxatzen zan dana, eta dana neurtuta.
- Zuk gerra osteko goserik-eta ezagutu dozu-edo?
- Ez, nik ez dot ezagutu goserik, oin ez dodana ezagutu da gularik. Oñatin itten zan Maiztegi txokolatia, eta ontziak eukitten euen Ama Birjiña Arantzazukua, akordatan zara zu?
- Ez dot uste. Ontzia labrauta?
- Bai, ontziak eukitten euen Ama Birjiña erretratua, figuria eukitten euen.
- Baiña ontzia Arrasaten itten zan?
- Ez, Oñatin, Oñatin egon zan txokolaterixan, Maiztegi. Enda harek euken Ama Birjiñia ontza bakotxien, ontzak izaten ziren holakotxiek, eta euken Ama Birjiñia, baiña guk Ama Birjiña osorik sekula ez geuen jan, hortik ataraizu kontua zenbat txokolate jaten geuen. Ama Birjiñia osorik sekula ez geuen jan.
- Zenbaten artian jaten zenduen?
- Lau zati egindda-edo, orduen, guk goserik ez dogu ikusi, baiña gu mutikuak giñanien, goizien talua eta esnia, artua eta esnia edo morokilla, eta eguardixen gaur-bixar-etzi eta etzilimo babak, urdaixa eta txorixua euenien, eta domeketan garbantzo lapikua, libra erdi okelaz itten euein garbantzo saldiori eta gero azie edo gura dana, azie edo kolifloria edo gura dana eta gero ha piparrondo batzukin eta okeliakin eta ba beratzi, hamar, hamaika lagun, ha partiuten zan eta “se acabó”. Han ez euen iogurrik eta ez euen […], han ez euen. Orduen goserik ez dot ikusi. Ogixe be, nik ogixe gu mutikuak giñanien ogi zurixe hutsik ez naz akordaten. Patatatiakin, ogixeri sartze jakon patata egosixa, eta tremesa.

1.11. Artilezko galtzerdiak eta abarka-sokak

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/021
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:53:55. **Bukatu**: 00:57:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Gerraosteko errazionamendua pasatu ostean jaio zen Bixente. Hala ere, ezagutu zituen ikatza eta bisigua errazionatuta. Beharrezko gauzak Zerrajerako ekonomatoan erosten zituzten. Eskolara abarka-galtzerdiekin joaten ziren. Galtzerdiok etxean eginak ziren. Abarkentzako sokak ere etxean egiten zituzten eta Bixentek oraindik ere egiten ditu.

Transkripzioa
- Eta razionamentu garaixan zuek...
- Ez, ni ez nitzan fan sekula razionamentura.
- Eta zeatik, libre zeuntzeillako-edo?
- Ez, hori lehenauko kontua. Nire denporan ez euen razionamendurik. Bai, kendute. Ni “cuarenta y seisian" jaixua naz, eta horreik kontuak dira “cuarenta- cuarenta y uno- cuarenta y dos” horreikuek izan biher daue, entzunda bai, baiña nik gosia ez neuen ezagutu, oin gularik be ez. Ez euen zerik, eta gure aitta fabrikan ebillen, Zerrajeran, ta Zerrajeriak ekarten zittuen, han bai egoten zan razionaminetua, ekarten zittuen razionamientuan iketza, Gabonetan ekarten zittuen bixiguak. Gabonetan orduko denporetan bixigua jaten gauen guk, baiña Gabon egunian bakarrik, eta ba bixigu bat... tenedorekada bana. Zerrajeriak ekarten zittuen zapatak, ekonomatuak euken bai erropiena bai janena. Eta zapatak, akordaten naz ni zapatak izaten ziren “Zapatos El Tigre”, eta guk sekula ez geuen ibili zapatia neurrira.
- Betik haundixaua.
- Zortzi anai-arreba, zazpi bizi giñen eta zapatak hartzen oskun “veintiunua” bazan “cuartenta y unua”, guatia sartu bittartien eta benga! Haundi, klaro, ba astian behin edo ibili, txiki geldiketan zirenien bestiendako, sekula be ez zan zertzen. Orduen bizimodua zan "completamente" diferentia.
- Eske zapatak kalera joateko jantziko zenduezen, ez?
- Guk ez dogu zapatie, guk zapata parie apurtu barik izten geuen. Abarkie bai.
- Zapatak kalera fateko.
- Kalera fateko, domeketan kalera fateko, baiña kalera fateko be, Mondrauera fateko Gorpuztixetan eta holakotxe zeren baten; bestela Ziorlan bertan mezia beuen abarkakin be bai. Eskolara beti abarka-galtzia. Abarka-galtzia eta, abarka-galtzia ona bai, eta fraka mahonak eta amak josten be ondo itten euen, ta orduen gabanak Mondrauen ta Oñatin ta be bai, eta gabanak ba herriko jauntxuak gabana ibiltten zittuen, eta harein erretela zerak geldiketan ziren telak erosi eta amak itten oskun guri gaban teliekin kazadorak itten oskun, oso onak. Enda abarka-galtzak ardi-lanazko galtzak onak e?
- Etxien egindakuak?

- Etxien eginddakuak, oso onak, hori bai. Baiña abarka-galtzia, orduen ez euen...
- Eta abarkak orduan sasoi haretan baten bat bazeuen hemen abarkak itten zittunak-edo?
- Orduen gomaz, hemen ez zan itten nire denporan ez zan itten hemen, aurretik baietz esaten euen baiña nire denporan gomazko abarkie erosi egitten zan, gomazko abarkie, eta gomazko abarkak oingo modukuak be ez ziren izaten, sakon batzuk izaten ziren, takarrauak izaten ziren. Baiña abarkie, galtzie beti ona. Ardi-lanazko galtzie, eta niri gustau jat ardi-lanazko galtzia egittia be bai eta ona gustau izan jat beti ardi-lanazko galtzia. Oin be bai e? Nik ointxe be asko ibiltten, oin be soiñien ardi-lanazko galtzak eta hori beti gustau jat. Bai egittia eta bai jaztia, bai, bai.
- Eta sokak?
- Be bai, geuk etxien.
- Etxian egindakuak?
- Bai, etxien eginddakuak. Bai, bai, sokak etxien eginddakuak.
- Itten dozuz oin be?
- Bai. Hemen be badaukat.
- Artulia be itten dozu?
- Bai, bai.
- Egindda be badaukat nik, oin be. Ardiulia ointxe be badauket sokak egitteko gertu aber noiz atertu, aterri itten dauen traillok itteko.

1.12. Aitajaun karreteroak erlojua erosi

- **Hizlaria(k)**: Leibar Kortabarria, Asuncion; Olabe Leibar, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-042/003
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:06:18. **Bukatu**: 00:09:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Asunzionen aitajaunak, nahiz eta erlojua irakurtzen jakin ez, Axpeko meategietan karretero zebilela erlojua erosi eta etxera ekarri zuen gurdian. Erloju hura oraindik martxan dago gaur egun.

Transkripzioa
- Gero […] Ez dakit zer ingo zala eta badakit zer ingo zala eta baten batzueri esan gotsen, badaukogu ba guk dirua, gerra denporako dirua, eta horreik gero balixoko dauela, gero balixoko biharko dau, oin ez dotsue balixo ta. Eta hemen dagoz gordeta.
- Horreik igual balixua eukiko daue e?
- (Arantxa): neuretzako bai.
- Sentimentala alde batetik, baiña...
- (Arantxa): zenbat urte dire, hirurogeta hamar urte-edo zenbat dira gerria pasau zala.
- Ba hirurogeta hamabi ya.
- (Arantxa): ba hirurogeta hamabi, neri hirurogeta hamabi urtien etxian egon badira, hemen dauen hau erloju hau, horrek esaten dauena aittajunak ekarrittakua da. Arrazolan minatan lana egin, idixakin, minan Arrazolan, Axpe-Arrazolan, idixakin juanda bai, Axpen. Eta berak erlojuari igarten jakin ez, dirua ezaguketan be ez, baiña han hartu idixak, etorri

Arrasatera, Arrasaten erosi eta ekarrittakua da.
- (Asun): ez, hola ez.
- (Arantxa): edo zela zan, Axpen edo Durangon erositte?
- (Asun): han bost duro, aste guztian lana egindda idixakin-tte, bost duro pagau; zuek ez dakitzue horreik, busarrixak izaten ziren, erruera bi eta holako zer bat, burdiñazko...
- (Arantxa): tronkuak eruateko.
- (Asun): tronkuak eruateko eta zerak, minatan karruakin hara eta bestera, eta bost durukuori emun otsenien [...] beti pipia ezpanian eta adurra darixola ibiltten zan, hartu idixek, juen Durangora, hartu erlojua burdixen eta etxera. “Baiña zer ekarri dozu?”, “Ba hau Mondrauen eginddako erlojua”, “no se cuantos Praderas” esaten auen berak.
- (Arantxa): izena be, izena badauko horrek.
- (Asun): Mondrauen eginddako erlojua zala, haxe hartu eta ekarri eta hemen dau.
- Ondiok be?
- (Arantxa): bai, eta martxan e?
- (Asun): [...] ijitanuak etorri eta ikusi euen erlojuori, “¿me vendes?”, “No, por dinero no”.
- (Arantxa): neuk be ez neuke salduko.
- Beste hirurogeta hamar egongo da.
- (Arantxa): ondo bada bai, porke ezebe ez dauko, e? Petroleuaz edo garbiketan daue ta... noizian behin kuerdia emun eta esaktua baiña hola, ez dau holako...
- Burdixen ekarrittakua.
- (Arantxa): burdixen ekarritta, orduan aber! Kamiñua in zala be zenbat urte dira ba ondiok, berrogeta...
- Karreterua zeuen aittajuna, e?
- (Arantxa): bai, honeik eurok be bai, asko egindda dagoz karretero e?

1.13. Amonaren jokaera telebista iritsi zenean

- **Hizlaria(k)**: Leibar Kortabarria, Asuncion; Olabe Leibar, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-042/004
- **Iraupena**: 0:05:08. **Hasi**: 00:09:08. **Bukatu**: 00:14:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Aitajauna hargina zuen Arantzak; aita, ordea, baserritarra eta karreteroa. Etxeko nagusienen gogoz kontra, baina traktoreak azkenean baztertu zituen idiak. Arantzaren amonak arazoak zituen erdararekin; telebista etxera iritsi zenean, berriz, mezak belauniko entzuten zituen etxean. Zelako asmakizuna telebista!

Transkripzioa
- Arantxa: Aber, baserriko... nire aitte eta ama baserrittik bizitte daz betik. Ni, zazpi urte naukela ardixek kendu zien hamen. Ba bizimodue baserrittik atara daue. Nire aittajaun, horren aitte, hargiñe zan. Bai, hargiñe. Baiñe aitte betik ganauekin ta... ba mendixen. Murugaindik paguek bajaketan Santa Agedara akordetan naz.
- Baiña egurra zerretarako-edo?

- Ar.: Bai, bai, zerretarako. Zerretarako. Nire aitte betik...
- Asun: [...]
- Ar.: Idixekin, orduen ez euen pistaik!
- Oñatin in xau karretero bati. Zenbat urte dako harek? Larogeta... hamar ixa, ezta?
- Ar.: Ba nire aittek ingo zittuan bizi izen bazan larogeta zortzi, zazpi-zortzi. Nire aittek asko itten auen idixakin.
- Ha bizi guztian karretero. [...]
- Ar.: Ba gurie be bai. Betik.
- As.: Hareik gero harro esaten auen, e? Nire aittajunek eta harro esaten auen, e? Aittek be bai eta aittajaunek be bai, aittajaune be karreterue zan. Ta harek esaten auen: “Alperrik etorriko dittuk adelantu haundixek, idixen adarrak moduko jenerorik ez dok etorriko!” Esaten auen. Etorri bai etorri. Oin ez jak!
- Ar.: Bai. Lehenengo traktorie ekarri gauenien, ni, horren aitte, eta hak pentsetan auen traktoriek ez auela lanik in biher. Eta idixek azen etxien e? Traktorie ikusi auenien, oin gure badozu kendu, oin gure badozu kendu idixek. Baiñe ordura arte? Beretzako idixek zien ba mundue.
- Besterik ez eben ezagutu harek.
- Ar.: ez. Nire amandrie be, nire amandriek erderaz oso geixki itten auen, ez auen ulertzen eta lotsatu itten zan, barriz. Enda hola kanpokoko bat erdelduna etorten zanien etxera, esaten auen: “Ume, urten, urten kanpora horrek barre ingo jone eta, urten”. Akordetan naz nire aiztie, ni baiño zazpi urte gaztiaue da, eta egun baten esaten dutso: “abuelita, ¿buena venta?”. Plazara juenda. Eta orduen kaleko ogixe ekarten oskun, baserrikue eukitten gauen, baiñe kaleko ogixe umiei, eta “¿buena venta?, "a ti no te importa ni buena ni mala, a ti te importa la pa tí”. Eta telebisiñue berdin, telebisiñue lehenengo etxera ekarri zanien...
- As.: [...]
- Ar.: Bai, baiñe nik etxien esaten dot. Etxera etorri zanien lehenengo telebisiñue, nire amandriek mezie belaunbiko entzuten auen.
- Telebisiñoko mezia?
- Ar.: Bai, eta fede bateaz! Egun baten, gu neskatillak, klaro, oin komunetan be dauketzu ur berue, dutxie eta otxokuartuek, baiñe orduen ezebez, sukaldien garbiketan gitzen, eta banabil garbiketan ta martxan, eta: “Ume, ezkutau hai! ez don ikusten begira dazena danak heuri ala?” .
- Nere amandriak be ez eben sinisketan zela sartzen ziren hainbeste gauza holako kaja txiki baten.
- Ar.: Neuriek be ez. Beste behin badau, zezenak izugarri gustetan jakon, aittajunai be, aittajunai eta amandriai bixei, eta zezenak ipintten dotseu ta: “Auxilio! Auxilio!” Ni hor kanpuen nunbaitten, etorten naz: “ze pasau da amandria?” Eta, “ze pasau dan? Ez don ikusten zezen danak ezkatzera datozela ala? Kendin hori kajioi!”. Onbre, eurentzako telebisiñue zan...!
- [...]
- Ar.: Amandrie hil zan oin hogeta hamahiru urte-edo, baiñe zan bizi guztien baserrixen [...] andra bat, errebentaute lanien, herniaz, "hernia estrangulada" bateaz hil zan. Hernia eukala eta ekarri medikue eta medikuei esan utsen sukaldeko mahai gaiñien operetako. Eta “zeatik ba?”, ta berak etxetik jutie ez euela gure, bera geldi-geldi egongo zala. Kuittaua!
- Geldi-geldi egongo zala, e?
- Ar.: Bai.
- Sekula medikuan egon barik igual.
- Ar.: Asko egon barik, bai.

1.14. Emakumeak nagusi Enuzketan

- **Hizlaria(k)**: Leibar Kortabarria, Asuncion; Olabe Leibar, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-042/005
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:14:16. **Bukatu**: 00:16:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Arantzaren aurreko belaunaldiek gaitzak osatzeko beste era bateko tratamenduak erabiltzen zituzten. Azken bi belaunaldietan, Enuzketa baserriaren ugazabak etxean jaiotako emakumeak izan dira.

Transkripzioa
- (Arantxa): Behin-o neuk eruen auen, ez jakolako jana ondo asentetan eta botaka itten auen, egun asko-ta. Eruen auen eta medikuak esan nosten... jan be itten auen porru-patatak, tortillia, esnia; beste bat jaten bauen, kalte itten otsen, eta medikuek esan nostan “tiene un desgaste físico tal...”. “Neu tisiko? Neu? Arrautzak etxien eta tisiko?” Tisiko tuberkulosa zan orduen, eta akordetan naz itten auen, oillua zainddu, arrautzia itten auena arrautzia “Vino Sansónegaz" edan, eta mejorau in zan e? Berari holako lotsagarrikixarik, tisiko bera! Gosiek!
- Etxien arrautzak egonda! Hori Sanson arrautziakin neuk be hartuta dakot umetan.
- (Arantxa): Orduen geixuak bixitetan Sanson botellia erueten zan.
- Bai, halaxe da, ardau goxua, guk esaten gotsan ardau goxua.
- (Arantxa): Bai, oin ez dakit dauen be.
- Egongo da igual.
- (Arantxa): nik ez dakit.
- Markia igual ez, baiña ardau goxua bai.
- (Arantxa): Bai? Badago? Nik erosketan be ez dot pentsetan, baiña bueno, orduen.
- Bai, ardau goxua, umia geixorik eta ardau goxua pittintxo bat.
- (Arantxa): Ene, "por dios", orduen! Guk ze geukan ba? Ezebe ez geukan eta. Ezebez e? Kamiñorik be ez, dirurik be ez, ezebez. Eskolara fan eta eskolatik lanera eta lanetik etxera.
- Zu zer zara, hemen jaixua?
- (Arantxa): Bai, bai. Nire ama be bai. Emakume [...] “en mando”.
- Emakume zeretik dator e?
- (Arantxa): Beorren aitta hemengua zan, gero ama eta oin ni. Nik be neska bi daukat, oseake bixar edo etzi be.
- Orduan zure gizona ezkondu zan hona.
- (Arantxa): bai.

1.15. Prakarik ez!

- **Hizlaria(k)**: Leibar Kortabarria, Asuncion; Olabe Leibar, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-042/018
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:55:18. **Bukatu**: 00:58:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Errepidea egitea aurrerapen garrantzitsua izan zen. Ordura arte lanera oinez eta bizikletaz joaten ziren. Eta orduan emakumeek ezin zuten prakarik jantzi! Arantzak 17 urte zituela arazoak izan zituen behin meza entzuteko, prakak jantzita zihoalako.

Transkripzioa
- (Arantxa): kamiñua beste bat. Nik egitten nauen, Amaten ni hamasei urteaz lanien hasi eta ibilli nitzan hamar urte, ezkondu arte. Gero ezkondutakuan ya etxera e? Orduen emekumiak ezin leikien jarraittu lanien. Eta hemendik Santa Agedara oiñez, eta Santa Agedatik Arrasatera bizikletan, relebuan. Ordu bixak arte in eta atzera hona oiñez.
- Eta zer zeukatzun, itxabolan bat-edo bizikletia izteko?
- (Arantxa): bai, hor abare etxien auen holako oillategi bat eta hantxe izten gittuen bizikletak. Eta abarkak. Hemendik Santa Agedara busti-busti itten nitzan.
- Eta aterri baeuen Santa Agedatik hara sikatu, ezta?
- (Arantxa): klaro, askotan. Kanbixaiteko be lau pare fraka. Frakak ez, orduen frakak etorri zirenien, bueno!
- (Asun): frakak etorri zirenien nik makiña bat aldiz esan donat, hori inbentau auenak homenaje bat.
- (Arantxa): oin relebuen lanien juten diren andrak...
- Frakak andrantzako.
- (Arantxa): bai.
- Lehen andrak ezingo zauen frakarik jantzi.
- (Arantxa): ez, ez. Ni akordetan naz, orduen banaukan nik hamazazpi bat urte-edo, Etxanen, gaupasa bat in biher gauela, kuadrillia giñen, neskatillak. Eta afaldu gauen urdaiazpikua tomatiaz, eta paraguaiuak eta kafie. Eta gero erateko orduan, nik ez dakit ze eraten zan, “cuarenta y tres”-edo, eta ez zakurik, ez mantarik eta ezer, etxabola baten hotzak akabetan. Hartu dogu kafe mordo bat, errebentau ez gauenien Nescafe pote bat hartu gauen, lau basotan-o. Hurrengo egunien jaiki eta mantzeliñia, besterik ez auen jateko, eta han baten batek arrautza batzuk eta patata batzuk, tortilla de patata. Mezetara faten gara frakakin eta abariak esan zoskun handik kentzeko, frakakin ezin lekiela emakumiak elizan egon ta.
- Zenbat urte zeukatzun zuk orduen?
- (Arantxa): hamasei bat, hamazazpi bat urte? Abare zahar batek elizan atenziñua deitu zoskun.
- Ez da hori aspaldiko kontua.
- (Arantxa): ez, ez.
- Ba ni jaixo nintzanian zuk horixe eukiko zeben gutxi gorabehera.
- (Arantxa): bai. Atenziñua deittu oskun frakakin jun gizelako. (...)
- Zeozer esan biher...
- (Arantxa): atentziñua deittu zoskun hala ezin lekiela elizan egon.
- Urten in bihar izan zeuen?
- (Arantxa): guk barre. Ordureko ha Etxanen, ha abare zaharra zan eta Etxanen bizi zan, baiña gu Mondrauen bueltaka bagebitzen eta pixka bat, ez dakit ba, espabillauak ez dakit izango giñan baiña behintzet zerbait gehixau ikusitta-edo.
- Bai, ez ziñein baserri zulokuak.
- (Arantxa): ez.
- Kalia eta ezagututa ya.

- (Arantxa): kalien lanien gebitzen, eta lanien dabillena ba aber!
- Bai, eta ikusiko zenduen beste batzuk be frakakin ibiltzen zirena.
- (Arantxa): bueno, ba gu bakarrik ez giñan izango.

1.16. Ezti irristakorra

- **Hizlaria(k)**: Gorostiza Bengoa, Asuncion
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-044/009
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:36:17. **Bukatu**: 00:39:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Baserrian osaba edota aitajaunarekin edozein lekutara joatea gustatzen zitzaion; erlategira, ikatza egitera... Eztia koilaratik gustura hartzen zuen, baina tremesaren gainean ez, dena irristatu eta galdu egiten baitzuen. "Ezkerra" txokolatea ez zuen gustuko, bai ordea gazta esnearekin.

Transkripzioa
- Eta gaiñera orduen euen erlategi bat bertan. Ba ni horra ondora be ez noie e? Esaten notsen, porke begixan eukitta neuen zer bat, pikau, erliorrek pikaute, tremendua euki be aberixia e? Bueno, ez noia eta banoia, atzenian fan eta hartu eta jan nauen. Baiña orduen be zenbat bider esan nostan tiok, “ez etorri niaz” zera, erlia jaixota euen han arbola baten aldamenien.
- Erlakumia.
- Bai. Eta fan biher dauela hara jasoten eta ez dakit zer itten, eta neu be hantxe agua zabalik. Okerra nitzan hortan e? Zu hara? Neu be hara!
- Ikustia nahi dana.
- Bai, bai. Ni basuen be holaxen egonda nau, piñuk zerak arregletan, iketza itten aittajauna, aittajauna, tio eta bera. Eta ni etxien amakin eta tiokin eta beste aiztie, orduen zan. Eta fan atsaldeko bostetan gora, eta goizien ordu bixetan-edo etorri gintzen. Eta gurien ama bidera urtenda, porke etxetik bastante urrin euen gaiñera zerori; zeozer pasauten jakun-edo. Porke idixaz fan zan eta ba ez dakit zertzuk, errekauak eta egunerako eta holakuak-eta. Hantxe egon, jaungoikua ahaztu arte eta gero ordu bixetan etxera. Ganauekin eta biher dan moduen. Eta gurien ama bidera urtenda, ikusten nau ondion, “agertu zara? Pozik nau”. Eta “nun daukatzu umie?”, Bestiek, tiok-eta, “ba lo itxi dot, lo egongo al da!” Baiñe ha be gugana etorren, eta gu barrez trankil, burdixen tinbili-tanbala, tinbili-tanbala. Ni holako zorokerixak egindda nau; umetan e? Gero gerra denporia barriro.
- Zein zan erlazaiña famelixan?
- Aitta, tio, orduen erla asko euen Mariñen, oin ez dakit, ez naz aspaldixan egon be ez naz, bueno egon, Gabonetan-edo egon nitzen, baiña erlak eta zerak ikusteko, gero beste gure aitten leku baten, edo pariente edo tia batzun artian han saldu eta dana itten auen.
- Eztixa?
- Eztixe, bai. Gurien aittajaunak eta ez, etxerako lain eukitten auen. Besterik ez. Ba apurren bat emungo otsun, baiña ez, baten bateri baiña etxerako lain. Eta neri ez jaten gustaitten jaterik eztixa be orduen, emuten oskun ba zerien, artuen zer baten, ogi zati baten gaiñien, artuen... eta han

fris-fras alde guztietatara faten zan eta eskuetan dana eztixa eta lurrera faten jakun.
- Tremesien?
- Klaro, eta esaten nik eztirik ez dot biher. Ba orduan txokolatia, Txokolate Ezkerra, txarraue! “más vasto!”. Eta ha be ez dot gura, eta tiok itten euen esne asko euenien gaztaia, esniaz, etxeko esniaz gaztaia. Ha gaztaia eueneien gaztaia, bestela txokolaterik be ez eta eztirik be ez. Eztixa bazan kutxarilliaz jateko bai, baiñan ogi gaiñian botata eztixa jaten, ez. Fan itten xatan eztixori alde guztietara. Hortan okerra nitzan gaiñera.

1.17. Aldaketa ugari

- **Hizlaria(k)**: Gorostiza Bengoa, Asuncion
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-044/011
- **Iraupena**: 0:04:19. **Hasi**: 00:42:18. **Bukatu**: 00:46:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Lehenago ezagutu zituen gauza asko ez dago jadanik: kobazulo, baserri, zuhaitz bereziak, San Anton ermita, etab. Bera umea zela abuztuko "Blanca" egunean egiten ziren ospakizunak gogoratzen ditu.

Transkripzioa
- Leheneuko gauzarik ez dau ezebe, hemen. Eta ze ingo dozu ba, ya…
- Lehen hemen kalien dana baserrixa zan, ezta?
- Baserrixe Axeri, Atxena, hor; hemen goixen San Andres, ta dotoriena San Andreskua zan, bueno dotoriena, hor Atxena zan, Axerikua zan oso baserri ona, eta artue eta garixe eta danetik egoten zan, eta ortue be ona, eta makatza arbola bat, harrezkero ez dot holako makatzik ikusi iñun be. Egundoko arbolatzarra, eta hau kanteria hor kamiñua in euenien, orduentxe kendu euen. Pena hartu nauen neuk be e? Gu hementxe bizi gintzen, ta kamiñu hori zerketako ba harutzagotik edo honutzagotik in ekien baiña erdi-erdixa hartu auen eta arboliori, makatza arboliori lurrera. Baiña arbola bat zan tremendua gaiñera, honeik piñu haundixok izaten dire ba? Holakotxia. Bai, bai, atenziñua deiketan auen. Eta gero hamen Atxenak, horreik berduria eukitzen auen. Aza, patata, porru, horreik kalera saltzen euen asko. Eta hemen San Andreskuak ez, San Andreskua zan gaiñera, sukalde bat eta euken lehenaukue, sukalde erdixen zer hoi, sua, eta gero tximinixarik be ez, eta dana zabaldute. Eurak ke usaiña besterik ez auen eukitten e? Bertako jentiek; ke usaiña, bai. Eta gero ba bota euen hori be eta eurak ba ezkondu eta zertu ziren eta "ya está". Bestela San Josepen bizi izan ziren, oin ermittia dauen lekuen. Eta han ermittie beuen lehenau, bueno, zenbat santu. Oin pasaute egongo zan San Anton, “diecisiete de enero”-edo. Ta orduen ni ez nitzen faten orduen e? Faten ziren baserrittar guztiek arto buruekin te holako gauzetara mezetera, eta han mezetan emun artaburuok.
- San Antonen?
- Bai, hor goixen. Hortxe goixen dau, ya jausitta dau eta ya ezebez baiña. Gaiñera eliz…ermittia-edo haundixe gaiñera, bi ermitta egozen baten; oseake baten egon San Jose, hemen, eta gero hormia eta gauzak eta

hemen gero “La Virgen Blanca”-edo. Eta Ama Birjiña kontuori be oso zera zan. Pasau neuen, penie eta dana hartu osten; lehengunien esan notsen gaiñera, akordetan nauk etorri nintzen, umiek, gurien umiek daukie hamabost hillabeten aldie, hamalau hillabete-edo, eta klaro, bata bestiandik ba ezebez, eta bataaz izen ezik, bestiaz be ezin nitzan fan, eta mutikuek euken hiru bat urte eta bestiak lau, ya fateko modukuk, eta “San Blanca” egunien “cinco de agosto”, banoie San Josepera gaur, etxien esan hola esan eta preparau te dana in nitzen eta fan be bai. Faten naz eta ez mezaik, ez txokolateik, eta ez gaiñetikoik, ezebez. Buelta in ta etxera barriro. Eta aurretik fan barik nengun ba hiru-lau urtien, aurretik bai neskatillatan eta, bueno, Blanca egunien, eta han txokolatia-eta. Eurak gizonok, hara faten zirenok Ama Birjiñen zerera, ba armozau te dana itten euen, txokolatia eta anise eta holako gauzak hartzen zittuen.
- Han bertan, ermittan?
- Bertan ermittan, bai. Teillape bat euen holaxen eta hantxe azpixen bankuk eta danak atara eta hantxe barriketan eon. Bai, bai, gizon pillua gaiñera egoten ziren, auzokuek eta ez dakit nik nunguek-eta. Ze santu zanik be ez dotsut esango, Ama Birjiña Blankan egunien, “cinco de enero, o cinco de agosto”. Eta orduen aurretik be faten nitzan neskatillatan be, baiña gero umiek txikixak ziela, ez dakit zer, ba ezin fan eta ni ez nintzen faten. Eta preparau nitzen urte baten, [...] mutikuak hiru urte eta bestiek lau. Ba holaxe. Mobidu naz eta... etxera. Eta gero harrezkero fan be ez naz ein. Dana jausitte dau.
- Klaro, etxekoandre egindda. Lehen txokolaterik be ez leheningo eta oin ermittarik be ez.
- Santurik be ez eta gaiñetikorik be ez, ezebez.

1.18. "Matonenak"

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/002
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:01:22. **Bukatu**: 00:05:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Udala auzoko Garaikoa baserrian jaio zen Juana 1922ko martxoan. Dena dela, "Matonenak" izenez ziren ezagunagoak. 13 urtean udaro joan zen lanera Zestoako hotel batera.

Transkripzioa
-Juana Okina Setiaga.
-Eta ze egunetan jaiotakua zara?
-Marzuen hogeta zazixen, urtie hogeta bi. "Del año veintidos, veintidos". Bai, hogeta bi, hogeta bixen. Eta oin dauket larogeta xei urte, zazpi ein biher marzuen. Jaixo giñen Udalan, eta hori izen gaztiena, eta nik horri segiduten nutsen. Eta bestiek ba aberba zortzi. Beratzi izen giñen, bat guk eztou ezautu. Zarrena orduen denporan ez dakit ba nik, meningitisa edo zeraz hil zala, baiñe zaharrena hil zan. Eta zortzi, zortzi illaran, e. Urte bittik urte bire gure edadie, danok euki dou.
-Urte bittik urte bira?

-Bai. Danak zortzirok urte bittik urte bire. Horrek eta nik pe bin urten diferentzie dauku eta gero niri segiduten dustanak be bai eta hori be bai. Oin bizik gare hiru ahizpa; zaharrenak dauko larogeta hamahiru, ein bittu. Eindda dauken ala ez?. Larogeta hamahiru ein bihe daue San Jose egunien eta gaztiena hori.
-Gaztienak orduan hamasei gutxiago, hemezortzi gutxiago?
-Ondion gure beste bi anai zaharrauak zien, e, Grabiela baiño, oin bizi dana baiño. Eta beste aizta bat be bai, horrek danok zaharrauak zien.
-Eta zu zer zara, Matronen jaixua ala Matronera ezkonduta?
-Ez, hantxe etxien bizitte. Hoixe da gure etxie jaixo giñena.
-Baina hori da Matone?
-Matrone, Matonen etxie esate utsen lenau, eta geuri be Matonenak esateoskun, baiñe hori Garaikoa da. Etxien izena Garaikoa da, Garaikoa. Bi bizitzako etxie da.
-Eta zu Matonen jaixo eta Matonen ezkondu egin zinan?
-Ez, ez, ez; bai, gixona. Eta gero handi hona pasua dienak. Ez, ez, ez. Bai, bertan jaixo eta bertatik ezkondu, hori bai, baiñe eindde, bixen bittartien joan giñen, hamahiru urtien juan nintzen hotel batera lanera. Udako denporie.
-Nora?
-Zestonara.
-Balnearixora?
-Ez, hotelera. Oiñ hotela ia desaparezidu zan, hotelekuek danak hil dittuk / hilttuk/ moja bat izen ezik beste danak hill die. Eta oin ha, urte askuen euki dou amistadie ta gauzie baiñe haik juan hittunan.
-Eta oin hutsik dago?
-Etxe barrixek eindde; etxe barrixek eindde dau, handik hoteletik segiduen dau balnearixua. Baiñe hamahiru urtien juan nitzen.

1.19. Gerratean, sotoan gordeta

- **Hizlaria(k)**: Ertzilla Arregi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-047/002
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:00:37. **Bukatu**: 00:04:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: 1934ko maiatzean jaio zen Udalako Arteta baserrian. Senarra, Aramaioko ganboatarra, Artetara ezkondu zen. Gerra denboran ume pila bat soto batean gorde zituzten. Milagrosen anaia batek ihes egin zuen eta osabaren etxera joan zen.

Transkripzioa
-Hemen jaixo ziñan?
-Hementxe. Etxien gaiñera.
-Zeu maiorazkua?
-Ez, anaie nausixaue dauket. Ha kalien bizi da. Iñok pe ez euen gure basarrire eta azkenien ni geratu bihar.
-Bizi guztia hemen pasau dozu?

-Bai, bizi guztie. Ni enaz iñun ibilli lanian. Ni bizi guztien aitta-amak zainddu ta hemen egon naz.
-Eta zuk umiak eta hemen hazi dittuzu?
-Hemen hazi ttut danak.
-Eta nundik etorri xatzun gizona?
-Gizona Aramaixotik, Ganboatarra.
-Nungua?
-Ganboa. Ganboatarra. Aitta munizipala eukin euien horrek. Gerra-denporan ama kaiñonazuak hiltzia gure gizonai tta.
-Han bertan Aramaixon?
-Ez hemen, Zerkaostietan.
-Zu gerra denporan justo jaixo, ezta?
-Bai, hantxe jaixo nintzen, umetxue. Ni akordetan naz hemendik kalera eruen giñuen gu. Sotanue euen hor, zerien, Monterronen nuen. Anaie, nausixaue, hiru urten aldie, ihes eiñ auen sotanotik, ume pillue han, gure apurue, ama etori zanien danak fuenda, ha tiogana Madarixara Kaxintogana. Iges indda mutikuek.
-Zulotik igesi? Gustau ez han egotia?
-Ba norabaitt iges ein biha auen eta igesi. Eta gu han tian seme-alaba danok han gengozen (...), eta harek ihes ein auen. Eta ama etorri zanien mutikue falta. Danak larri mutikue topetan eta ha tiogana fuenda.
-Eta tiogana nora joan zan?
-Madarixara, Letera. Hor (...) bidian, Jabierren-da aittagana. Besaidetarra Jabier, eskabadoriakin ibilli zanena. Haren aittana.
-Ze etxetakua?
-Madarixa. Basarrixa Madarixa zan.
-Eta ze auzotan?
-Ba Garagartzatik gora, Santa..., zerien.
-Han Uribarri alde hartan?
-Bai, hortxen. Buenoo!
-Mutikuak hanka eiñ?
-Mutikuak hanka eiñ.
-Baiña azkenian topau eben.
-Bai. Segiduen antza emon euien amak eta nora fan zan ha. Etxera hona be etzan etorri. Aittajauna-amandriak hemen azen, gu beste danak fuenda baiña aittajuna-amandriak hemen geratuta azen artian, hona bez, ha tiogana. Esango auen, ni hara faten banaz segiduen topauko naue ta tiogana.
-Zenbat urte eukan orduan?
-Ni txikitxua nintzen, ba nik baiño hiru urte gehixao ba zenbat, mutikotxue; bost urte xei. Gero han egon zan baiñe lelengokuen iges eiñ auen. Mutikuen lanak.

1.20. Umetan etxekoandre

- **Hizlaria(k)**: Ertzilla Arregi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-047/004
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:09:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

- **Laburpena**: Eskolako jolas-orduan jolasten zuten, baina etxean ez zuten astirik izaten. Hiru anai-arrebatatik gazteena zen Milagros. Nagusiena laster hasi zen lantegian; bigarrenak eskola apur bat jaso zuen, baina berak etxeko eta kanpoko lanak egin behar izaten zituen. Gurasoak eta aitajaun-amandreak zeuden etxean.

Transkripzioa
-Ze hola rekuerdo barregarrin bat...
-Ez, ez, ezebez barregarririk.
-Neska-mutillak?
-Neska-mutillak danak pillan. Neu akordetan naz mutiko bat, oin fraille dao, berai be etxako ahaztu, eztakit ze eingo usten, emun nutsen ainkariaz nik eztakit zela enutsen kendu besua. Oindio etxako ahaztu hari, e!
-Hori zeuk?
-Neuk berai. Nik eztakit ba ze ingo usten-da. Eta nik ainke. Ondio etxako ahaztu hari.
-Igual markia han eukiko dau.
-Markie eztakit dauken baiña etxako ahaztu. Urtero etorten da auzora, fraille dau ta beti esaten dau: “Akordetan za?”, eta bai, eta akordetan naz ba ba ni. Umien kontuek. Bestela ba ezebez besteik.
-Eukitzen zenduen astirik jolaserako eta?
-Errekreo denporan eta. Bestela ezebez, etxien ez zeuan astirik, etxera etorten zintzenien lana euen txiki-txikittatik, e!
-Zenbat anai-arreba zinen?
-Hiru. Anaie da nausixena, gero nire aiztie, gaztiaue ni baiño, zazpi urte. Hak bai, hak eskolie ta dana, hak (...), gu gintzen kastigautakue, ni. Eta ha mutille be puxkat hazi zanien frabikara lanien eta ni etxien beti lanien.
-Zuk etxeko lanak eta solokuak.
-Eta solokuak, danak. Dana ein bihe zan da.
-Eta aitta-amakin eta aittajauna-amandriekin...
-Aitta-jauna amandriek, bai. Aittajaune hil jaten niri, nik hamalau urte nauken ha hil zanien. Ta ni kaletik josten ero, ikasteko ero bialketan giñuen astixa euenien, da netorren kaletik gora, orduan ez euen kamiñoik eta auzoko bi gizon berutze eta esan ustien: “zuk eztozu jakingo, baiñe kajatan goiez, aittajaune hil da”. Nik orduen enauen ikusi bidien nundik netorren be. Abixaran, nik usten dot harri danak aurrien ekarri nittuela etxera. Eta etxien esan ustien: “Baina zelan esan leike umetxuei aittajaune hil dala bidian”.
-Zeu bakarrik zoiazela.
-Bakarrik. Nik orduen enauen ikusi bidien, ezta... Aurrien topau baneu edozer be aurrien eruengo neuen orduan, nik orduen enauen ikusi.
-Eskerriak ez euela kotxerik.
-Ez euela, bestela pentsaizu. Eta nik hamalau urte neuken aittajauna hil zanian.

1.21. Txerriak irarekin erreta

- **Hizlaria(k)**: Ertzilla Arregi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-047/007
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:16:32. **Bukatu**: 00:20:00

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Idiak ere bazeuden Artetan, etxerako lanak egiteko. Txerriak lehengo erara erretzen ditu oraindik Milagrosek, irarekin sua eginda. Gaztainadi zaharra berritzen hasiak dira. Urte osorako gaztainak gordetzen ditu izozkailuan. Lehengo gaztaina oskolean ondo gordetzen zen, baina orain hondatu egiten da. Lehenago gaztaina eta salda izaten zen eguneroko afaria.

Transkripzioa

-Iririk izaten zeben?
-Bai, lehen irixak be bai.
-Karretero lanetan ibili da inor ala etxerako lanetarako bakarrik?
-Etxeko lanetarako bakarrik, e.
-Idia ekarri eta...
-Bai, idia ekarri eta etxek lanak. Egurre ekarri, suegurre ta idie ta soloko danak. Orduan ez euen makinarixaik. Eta dana irixekin itten zan.
-Oingo basuetan ez dago bape idarik, baiña garai hartan piñurik etzan egongo.
-Oin be idie bai, Nik txarri-denporarako idie abaitta ekarten dot txarrixe erreteko. Lehengo antiguara itten dot nik, e!
-Bai? Eztozu sopletiakin eitten?
-Ez, ez, ez. Gurien idiaz. Nik txarri denporarako irie ekarrikot.
-Baiña oiñ momentuan hemengo basuetan burdikara bat ida egiteko...
-Bai, gurien bai. Bai, bai, bai. Piñuixetan be gurien oindio idiek asko urteten dau. Eztoula ebaten, txarrixentzako bakarrik.
-Txarrixa orduan ida usaiñaz.
-Ida usaiñaz, bai. Guk beti eittendou, e. Jentiek sopletiaz itten dau (...). Guk txarri-denporie, txarrixe beti idiaz.
-Sendorkara bat nahikua, ezta?
-Bai. Guk txarrrixan zera eitten dou idiaz. Jentiak sopletiaz, baiñe nik sopletiaz eztakit zelakua izengo dan gero. Guk ez.
-Idia egon ezkero...
-Bai, guk idiaz eitten dou, e.
-Baiña zuk piñuz jositta daren baso honek, lehen garai baten etzan piñurik egongo.
-Lehen ez.
-Lehen zer? Basua-ta gaztaiñia ta...
-Basua ta gaztaiñia ta hori. Ondio nik gaztañuixa be badauket, e. Ondio.
-Lehengo zaharrak?
-Bai, eta barrixek ifintteko asmuekin dabitz, hor bi ero hiru ifinitta daukie ta. Gero gaztaiña denporan gaztaiñek batu eta konjelaute eukitteittut, urte guztien aguentetan dau konjelaute.
-Koskol barik, ezta?
-Koskol barik, bera alie konjelau.
-Beste garai baten koskol da guzti gordeko zittuen neguan jateko.
-Bai. Neguen jateko. Baiñe koxkolien hondatu eitten dia. Lehen ez, baiña oiñ nik eztakit ze pasetan dan, jenero dana koxkolien batu, eukiñ eta hillabete baiño lehen dana, gaztaiña danak hondatute.
-Hori gaitz barri horregaittik izango da?

-Eztakit nik zeaittik dan. Eta oiñ eitten da koxkolik barik konjeladorian sartu ta ia ezta. Han badakigu ondo dauela. Han ondo dauela.
-Lehen be gaztaiñia asko batuko zan, ezta?
-Lehen be asko. Eta oin be bai, oin be nik aurten be danak eztittut batu, gure dauenak fuen da batu han geratu zien.
-Baiña oin kapritxoz, lehen jateko, ezta?
-Bai. Oin be jateko, nik eztot saltzeko, oin be jateko.
-Bai, baiña esan gura dot lehen neguko jatordu prinzipalena...
-Gaztaiña, gaztaiñia. Afaitteko gaztaiñia.
-Saldia ta gaztaiñia.
-Gaztaiñia. Lehenau ez euen besteik, e. Oiñ (eiozu) saldie ta gaztaiñak, etxetik kanpora urten biheko zauke. Etxetik kanpora.
-Gaurko afaixe hau da: berakasaldia ta gaztaiñak.
-Gaztaiñak.

1.22. Etxera ezkondu behar

- **Hizlaria(k)**: Ertzilla Arregi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-047/009
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:22:35. **Bukatu**: 00:24:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Txikitatik izan zituen Milagrosek etxeko ardura asko. Amonari egiten zizkion iruzur xamurrak. Milagrosek ez du inoiz etxetik kanpo lanik egin. 23 urterekin ezkondu zenean kalera bizitzera joatea nahi zuen, baina etxean geratzerik inork nahi ez zuenez, bera geratu behar izan zen.

Transkripzioa
-Baiña niri erakutsi ustien txiki-txikittatik ibiltten da esan nutsien. Da gero gurien (amandrie gauken) da harek ba dirue hainbeste (gordetan?) auiela kontrebuziñuek eta, da betik: “bai, hainbeste eta eztakit zer”. Eta nik betik gutxiao esaten nutsien. Eta betik esaten ustien: “Zelan konponketan za?”, “Zetako esangotsat ba hainbeste kobrau daubiela, disgustue emuteko? Eta esan gutxiao eta hor konpon, eta pozik geraketan zan.
-Danok pozik.
-Danok pozik. Eta nik esaten nutsen ba (guzurra be) noxien behin esan ein biheko da, bestela beti: “ene!, hainbeste eztakit zer”, baiña nik hamabi urterako kontrebuziñuek, etxeko asunto dana neure kontu itxi istien, e. Da hamabi urteaz,e, neskatillatxue horrek danok eitten, e. Txiki-txikittatik.
-Zuk etxetik kanpo ez...
-Ez, ez, ez. Etxetik kanpo enaz ibilli. Eztotsut ba esan etxian, bizi guztian baserrixen lanian, aittajauna-amandriak, aitta-amak danak neure kontu hemen gero. Etxetik ni hemendik enaz ibilli iñun.
-Zenbat urtekin ezkondu ziñan?
-Hogeta hirugaz. Nik esan nauenien ezkonduta kalerako, aitta ta ama (...) negar baten. Azkenien ba etxien geratu bihar.
-Bazeukazun gogua kalera joateko?
-A, bai, bai, nik esan nutsien: “Bizi guztien lanien errebentetan hemen eta ze pentsau dozue ba?” Eta ez aubien gure. Eta azkenien ba etxien geratu

bihar. Iñok ez auen gura, anaiek be ez auen gure, iñok be ez. Eta esan nutsien: “nire kontura oiñ danok hemen?”
-Eta halaxe?
-Ba bai, eta bertan segi.

1.23. Baserria galzorian

- **Hizlaria(k)**: Arregi Liziaga, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-050/008
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:13:19. **Bukatu**: 00:15:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Hamar bat ganadu-buru egoten ziren Kataiden. Musakola auzoan guztira 250 ganadu inguru egongo ziren orduan. Arto, baba eta gari soroak ere asko ziren. Gaurko autobideek eta trenbideek aberastasun hori jan egin dute. Gure kultura zaharra galtzen ari da.

Transkripzioa
-Eta hor e, ganauek-eta bazittuein?
-Kataiden ezen e, bai, hori da beste gauza bat. Kataiden ezen, ba, xei bat behi, ta txahal egoten zien gehixau. Txahalak eta hori, asto ta, hamar bat buru gutxienez egoten zien e. Hamar buru gutxienez egoten zien. Entre txahal ta behixek ta egoten zien, beti lau-xei behi egoten zien. Eta gero bieiek eta horreik be ,ba, horreik be egoten zien hamar buru baiño gehixau. Eta hemen karo hor, alde hortatik, Musakolako auzuen nik kontau nittuen hogeta bost baserri azela. Eta hamar buru bataz beste, berrehun eta berrogeita hamar buru diela. Eta hori aberastasunoi falta da, e. Aparte garixe ta artue hartzen zana, babie eta hori. Hori alde hortatik ikeragarri galdu dou. Eta ni horren kontra nau, ze hori, hori ez dau ondo. Ze honeik... nik ez dot esaten e, hainbeste baserri egon biher litzakenik, baiñe baietz, baietzien nau. Eta honeik autopista, trenbide, eta horreik, ein biher badie, ein in biher die. E? Ein biher badie, ein in biher die /inbidie/, baiñe horren laiñe, baserrixei kendu dutsie zerai. Orduen, horren laiñe beste leku baten ipiñi in biher dala /bidala/. Eta hori itten ez badou ba ez dau ondo hau, ez dau ondo. Hori oso gaizki dau.
-Bai, bai. Hormigoiz beteten gabiz...
-Bai, bueno, bueno... lotsagarrixe da hori. Ze, azkenien ba nik uste... Gaiñera, hori aparte, hori kultura bat da, e. Hori, hori galtzen badogu... Hori da berdin-berdin oin e, esate baterako, ganauek euki dittuenak bere semiei ez badutso erakusten, ez badauko ganaurik han, harek eitten dauena da, ba, ahaztu. Eta hurrengokuek, biher bada, biher bada, baldin badau berriz ganauek ifintteko, ha hutsetik hasi biher da ta harek ez daki ezer be, e! Eta hori, hori galtzie... galtzie beti txarra da.
-Bai, bai, bai.
-Galtzie beti txarra da. Ta hori be bai. Bai hizkuntzan, eta bai hortara.
-Hainbeste mendetan ikasittakua...
-Hori ba. Bai, dana.
-Bai, hori pasau da ohittura zaharrekin be bai, edo langintza zaharrekin be bardiña pasau da.
-Danakin pasau da hori.

1.24. Baserri kultura berreskuratu nahia

- **Hizlaria(k)**: Arregi Liziaga, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-050/009
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:15:45. **Bukatu**: 00:18:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Baserria da gure kulturaren oinarria, eta eutsi egin beharko geniokeela uste du Jabierrek. Baserritarren elkar laguntzeko ohiturak azaltzen dizkigu. Gaur egun ohitura horiek galduta daude. Ez dio gizarteari etorkizun itxaropentsua ikusten.

Transkripzioa
-Bueno langintza zaha... Bueno, beti fan biher dou /fanbiou/ ba ikesiaz ta aurreratuaz, ezta? Hori da gauza bat. Baiña beste gauza bat da kentzie, eta hori ez da kendu biher. Baserrixei eutsi in biher jakue, ez kendu. Baserrixe ez da baserrixe bakarrik, baserrixe hizkuntzaz, ohitturaz, edukaziñoz esaten jakona, joe, hortik gure oiñarrixe hori da! Eta horreik galtzen dittugunien ez da egongo ez kooperatibarik eta ez ezer be ez da egongo. Ze hori, hori da gure edukaziñua, bizi guztian euki dogune. Basarrittarra izen da beti bata bestiei laguntzekue. Nik e, gure denporan izeten zan ba, esate baterako, ta nik hori askotan ikusi dot, e! ba Kataiden igual [azen] sasoi ona orduen. Nire lehengusu bat euen han eta sasoi ona egoten zan ta eurak be sasoikuek izeten zien ta, orduen, ba, eurixe ein biher ... bedarra ebaitte igual, ezta? Aldameneko baserrixan. Beste baserrixan, bedarra ebaitte. Eta hareik larri... ta eurixe. Eurixa itxuria. Ta hareik larri baebitzen, bedarra erretirau ezinke, faten zien Kataidetik hara bestiei laguntzen. Ta eurak igual-igual etorten zien bestaldera, e!
-Oin ez da holakorik.
-Bai, oin, oin hori, hori... baiña hori da gure edukaziño bat. Baiña hori fan da!
-Ta ez xatzu /etxatzu/ pentsaitten hori igual lehengo auzo-lan edo laguntasun hori...
-Bai, hori, beste bat.
-Horretxek berorrek sortu dauela kooperatibismua hemen.
-Bai ba! Bai ba! Hori esaten dot ba. Horregatik esan dutsut ba lehen, ba deskuiduen hori ohitturioi horreik gauzok kentzen badie ez dauela ez kooperatibarik ez ezer be ez dauela. Ez hori bakarrik, beste mille gauza ez daz. Hori, hori baserriko edukaziño bat da. Bata-bestiei laguntzie ta hori. Hori galtzen badogu ba, ez da egongo ezer e.
-Eske gaurko...
-Orduen egoismuen fundauko gara, amerikanuek letxe pistoliaz ibiliko gara danok. Ta hori da txarra! Guk sozidade bat armatzen badogu oin, ba, lapurretakue, nik zuri ostuko dutsut, ezta? Hori, zera, ba, dirue edo gure dana. Ta osketan... nik zuri osketan badutsut /butzut/, zuk be ostu in biherko dozu /bikozu/.
-Karo, norbaitteri.
-Batonbatei. Neuri, horri edo batonbatei. Ta orduen ze..? ta ze kultura ein dou? ba lapur kulturia. Eta hori, ba, horreik gauzok daz hemen txarto, zera, horreik zeretik erakutsi biher daue, eskolatik eta... bai oin, oin in eskolatik, lehen baserrittik, baserrixe zan eskolie len. Eta oin hori galdu da. Hor

hutsune haundixe. Eta, karo, hor e, ba, oin esaten jakona, teknikoki aurreratuko gara, baiña guk eitten badogu gizarte bat txarra, gizarte... bata bestiei ez errespetetako eta lapurretan eta, eta guzurretan eta hori gizartioi itten badogu, orduen ezingo gara ondo bizi, e. Hori beste... zer da, ba, ondo bizittie?
-Bai, bai, karo.
-Bai, zer da ondo bizittie? Diru asko eukittie? Ez, ez da bakarrik dirue, biher da gizarte on bat eittie be bai. E? Batez be, batez be. Ze len jentie...

1.25. Galdutako baserriak

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Joxe Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Erref**: ARR-052/002
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:00:57. **Bukatu**: 00:03:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Hamabi baserri besterik ez dira geratzen San Andres auzoan, garai batekoen erdiak, gutxi gorabehera. Izenik izen azaltzen dizkigu Joxe Bixentek. Berak ez du inoiz lantegi batean lanik egin.

Transkripzioa
-Hiru baserri, beratzi... Intxausti, hamar, Takolo hamaike... hamaike... ta geurie hamabi besterik ez dittuk egongo.
-Erdixak?
-Erdixek egongo dittuk.
-...gora[...], ezta?
-Badator gora?
-Bai.
-Ba gora badator, itxungi, itxungi hori. Holan, bale, geratuko dok / geratukok/. Bale, ondo jak. Ba oin geratuko dittuk horreitxeik, hamabi... hamabi, hamahiru? Holako bat. Hemen kendutekuek dittuk Boliñeteko errotia... Gero hamen bezino bat be bajauan, gero hamen bezino bat be bajauan, Muxibar azpikue. Ta ha be, ha be jausi in zuan aldemenetik eta kendute jak. Beste baserri bat bajauan hamen, honen kontra.
-Bai, entzunda dakot.
-Ta hori bat. Boliñete hiru, Satorretxe lau, Isazelai zaz... lau-bost, Atxena xei, Axeri zazpi. Zazpi kenduta jazak. San Andres beste bat, San Andres baserri zahar bat, zortzi, kendute... zortzi egongo dittuk kendute. Ta egongo dittuk Otamendi bixek bi, Azue bixek lau... Etxaburu, Tellemendi zazpi... Gero beste bat hor kantera onduen be ha be eliminaute jak, baserri zahar bat. Zazpi. Gero bestaldien jazak beste bi basarri, beratzi. Ta geurie, hamar. Hamar besterik ez dok egongo e. Han Intxausti hor behien, ta Takolo. Hamabi. Hamabi behintzet bajazak. Ta hamar bat egongo dittuk, hamar-hamaike egongo dittuk kendute. Horreik Ulgo... Ulgorrek...
-Ta hamabi horreittan jendia bizi da?
-Bai, ondio bizi dok. Nik esan jittuaten baserrixetan jentia bizi dok ondio.
-Ta hainbeste fabrika in ondoren zu zeu be fabrikan ibilittakua izango zara ba?
-Ez, sekule be ez!
-Bapez.
-Sekule be ni ez naz egon fabriken. Fabrikarako okasiñue euki naixuan nik

hamen, Ulgorrena ta, nire lagunak zittuan horko Ulgorreko fundadoriek eta, neuaz eskolan ibilittekuek, bat behintzet. Bat ez, bi be bai. Ta esan justien ta “Ba! Ni ez naixuek pasetan kalera!“ Ta ez nintzuan fan. Juan banitz hoba!

1.26. Kaletik tripa-truke lanera etorritakoak

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Urrutia, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Erref**: ARR-053/009
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:18:57. **Bukatu**: 00:21:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Gerraostean kaletik jende asko etortzen zen lanera baserrietara, tripa-truke. 18 laguneraino elkartu izan ziren orduan garia ebakitzeko (eta etxekoak 2-3 besterik ez ziren izaten). 1942etik ia 1950rainoko urteetan, egoera beltzak ezagutu zituzten. Garia ehotzera gauez eta mendiz joan behar izaten ziren, errotak prezintatuta egon zirenean. Garai haietan artoa jaten zuten ogia beste .

Transkripzioa
- Ta orduen bertan basarrixetan be oin baiño laguntasun gehixao bata bestiari eitten akon. Ta gero, ba, kaleko jentie "hambre" auen, erderaz, ta tripa truke etorten zan edozein.
- Lanera?
- Lanera.
- Hori gerra osteko zerian?
- Bai. Ni akordetan naz gari soluen gurien hartzen zien hogeta hamar-hamabost, berrogei bat anega gari hartzen zien. Ta egun baten hasi gari solue goixien ta gabien akabauta itxi. Lotute ta dana eindde. Baiña hamazortzi lagun gari ebaitten igetaixakin.
- Karo, ta hamazortzi lagun etxekuak ez zien.
- Ba, etxekuek, ba, bi edo hiru edo. Bai.
- Ta bestiak tripa truke…
- Tripa truk.
- Lanera etorrittakuak.
- Tripa truk, eta gero, ba, baba apurren bat edo zeoze emongo otsen […] ta beti preguntie aber lanik agon. Lanik ez, tripie, tripie.
- Gorrixak orduen, e?
- Ez, zera! Haik cuarentaidosetik gero ez noia esaten cincuentaraiño baiña hor urte batzuk baltzak egon zien, e? Baltzak, e? [Gu akordatzen], frailietara eskolara faten nitzenien ta aman aizta bat han Erdiko Kalien bizi zan, kale-kalien ta, ba, handik hona tiradie oinez etorteko ta berak emungo oskula bazkaitten lentejie edo babie edo zeozer ipiniko auela ta baiña ogixe eruteko hamendik, egixe eruteko. Bai. Ta guk geuk hemen basarrixan goserik ez gauen pasau.[Betik eoten zan] txarrixe edo oillue edo… Ogixe be, errotak eta prezintauta egon zien danak baiñe hor aitten arreba baten gizona zan errotako, hor, Epelerrota edo esaten akona, ta guardia zibillek egoten zien egunez ta gabez eruen zorrue ta ixon ta basotik bueltan ekarri

ta /ekarri'tte/, hor gorde ta ogixe ein ta /ein'dde/.
- Garai bateko basarritar danak ibili ziñein igual, e?
- Bai, bai.
- Asi ke, etxen ogie eitten zendun.
- Bai, bai eitten auen ama difuntiek, ogixa eitten auen ta artua be bai. Ta ba nik ez dakit, lehenengo akordetan naz astero eitten auela labako sue. Hemen auen labie ta hor holako eromahai zahar haundi bat, ta han eitten auen, ez dakit zortzi-hamar bat ogi edo ze eingo [zittuen]. Gero esan dotena, bata ta bestie etorri eitten zien lanera ta harentzako ogixa jatie zan loterixie urtetie. Bai, ta gero hasi zan, gogortu eitten zan behin zortzi egunera ezkero, asko basarriko ogixa ta gero ez dakit nunbaittetik enterau zan patatie egositte sartute gehixau konserbaitten zala ta. Ta gero artue, artue jaten zan, bueno. Artuek eingo zittuen ogixak beste arto eingo zittuen.

1.27. Satorretxe baserria nola galdu zen

- **Hizlaria(k)**: Altuna Mondragon, Lorentza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-068/002
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:03:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Amaren jaiotetxea, Satorretxe baserria, non zegoen eta noiz galdu zen azaltzen du. Etxea mugitu eta printzatu egin zenean, bota egin zuten. Bera gaztea zela, ekaitz handi baten ondorenean, etxeko atarian metro beteko kazkabar geruza ikusi zuen.

Transkripzioa
-Satorretxekua?
-Satorretxekue, bai. Grazie eitten dotsu?
-Bai, hori, Satorretxia.
-Satorretxe bai, Satorretxekue. Satorretxea.
-Hori nun dao, Satorretxe?
-San Andres auzuen. Takolo bakitzu nun dauen, bide kurtzien? Ba handik hurrengo euen. Hor Fagor oin botata dau.
-A, euen?
-Fagor sortu zan lekuen-edo. Bai euen bai.
-A, oin izkutauta dau.
-Bai izkutaute dau bai.
-Fagor Elektronika dauen lekuen?
-Elektronika ez. Bestaldera, Atxabalta aldera. Bai.
-Hor, Lugor ez zan?
-Bueno, Lugor bai, Lugor, Lugor. Hor Lugor inguruen, bai.
-Satorretxeko Fagorren ipiñiko dot. Noiz galdu zan etxe hori?
-Ba, hori galdu zan, nik, hamazortzi urtekin fan nitzen Plazentzira zebiduten taberna batera. Ba harrazkero izen zan. Baiñe, hor liburu baten agerketan da erre ein zala ta erre ez zan /etzan/ ein. Zeatik euen kontraterrenuen euen baserri ederra zan. Kontraterrenuen dauken oseake terrenuek euken oso aldrebes, danak aldapan ta urriñetik. Eta etorten zan

goittik behera ur asko etorten zan. Eta ein zan mobiru.
-Etxie mobiru?
-Bai eta brintzau ein zan. Eta ein biher izen euen, bota. Ein biher izen euen. Ta liburun baten etorri da erre ein zala baiña erre ez, ez zan /etzan/ ein. Bai, mobiru ein zan.
-Hori Oñatiko Ursulan be gertau zan. Hiru etxe mobiu ein zien holako ur haundi batzukin.
-Bai, mobidu ein zan.
-Eta harek be hustu ein biher izen zittuen.
-Bai mobidu ein zan. Ni akordetan naz, ni gaztie nintzela zela ein eben holaxe junixo baten keixak eta heldute zela, harrixe. Baiña ein eben harri asko. Ta goittik behera sartu zan harrixekin, eskapeien, holako metro ta piku geratu zan harrixe. Eta auzoko jentie ibili zan handik harrixe ataraten. Harrixe bai.
-Hori ze urtetan pasauteko kontuek?
-Ai, nik horixe urtiok, ez jakixat /etxakixat/ ume. Hori ni gaztie nintzela.

1.28. Aita lan ezberdinetan iaioa zen

- **Hizlaria(k)**: Altuna Mondragon, Lorentza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-068/007
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:15:10. **Bukatu**: 00:18:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Hijas de María eta luistarren kongregazioko kontu batzuk azaltzen ditu. Eskolatzea bukatu eta etxean geratu zen. Behi ederrak eta etxean hazitako idiak zituzten. Aita hargina eta igeltseroa izateaz gain, txerri-hiltzaile lanetan ere jarduten zen, eta baita karegintzan ere.

Transkripzioa
-Kontau zoztan Antzuolan batek, zure edadekua ha be, eta harek esan ostan.
-Hijas de Marietakue, bai.
-Eurek eukitten ebeila zintta urdiña.
-Urdiña.
-Eta, […] ein ezkero, dantza ein ezkero mutillakin zintxa berdia jartzen otsiela.
-“Ahí esta”, ez, ni ez naz akordetan.
-Zuek ebalten zeuen zintta hori?
-Bai, baiña guk ibiltten gaben zintta hori mezetara faten gintzenien ta zeozer euenien, bestela ez. Ta han elixan egoten zien, geuk ez geben eukitten e! Elixan egoten zien horreik.
-Ta zeuek ipiñi barik?
-Bai, ez. Zan lazo azul bat, medalla bat, Ama Birjiñiaz. Ta horrek han elixan egoten zien. Abadik eukitxen zittuen.
-Baia zeuek […]

-Ez ez, zozer euenien, bestela ez. Hijas de Marietakuek edo ez dakit zer. Ta gero San Luisenak, mutillek be bai eukitten zittuen. Mutillek be bai.
-Harek lazuekin ez zien ibiliko.
-Hareik be lazuekin eukitten zittuen.
-A bai?
-Bai, ez dakit San Luis edo zer izeten zan eukitten euen hoi, baiña bai.
-Harek be lazuoi ebalten ebei?
-Bai.
- Ni egon naz Luistarrekin hau danau beitten ta...
- Ba hemen behintzet ni akordetan naz lazuekin eoten ziela.
-Formal formal.
-Bai, urten arte. Mezetatik urten arte.
- Zeuek antzera, ezta?
- Bai.
-Eta hamahiru urtekin eskolia [...] ta ia etxien geratu ziñan?
-Bai, gero etxian.
-Ganauek eta bazaukien.
-Bai, ganauek-eta.
-Zenbat ganau?
-Zenbat eongo zien ba, zazpi -zortzi bat-edo.
-Idirik-edo?
-Idixek, etxien hazi zittuen aittek idixek. Etxekuek euki zittuen idixek, baiña bestela behixek edarrak: uztarriko behixek. Uztarrixen behixek. Txata ta Noble. Behixek uztarrikuk, edarrak.
-Nire baserrixen be Txata bat egon zan.
-Egon zan? Txata ta Noble behixek. Eta gero zekorrak euki zittuen eta zekorrak kapaute idixek etxien ifiñi zittuen. Ta idixek etxien hazi zittuen.
-Zure aitte karreterogintzan ibili zan edo etxeko lanetan bakarrik.
-Bueno, nire aitte zan hargiñe, zan igeltserue, zan txarri-hiltzaillie, danetik eitten zittuen.
-Figuria orduan.
-Bai, danetik ein zittuen. Malaletxetxue be bazan baiñe danetik eitten zittuen, bai.
-Baiña berak etxien eingo eban ta.
-Etxien ta kanpuen be bai. Hargintzan be ibiltten zan ta etxien be bai. Gero eitten zittuen karoixek be eitten zittuen, karie be eukitten eben etxien. Ta etxien eukitten eben karie eta zera, hori, zeroi be etxien eitten eben.
-Letxaria?
-Letxerie be etxien eitten eben. Ta leku askotan ibiltten zan, zerien, zuriketan ta hola. Etxie zuriketan ta. Artistie zan hortan. Etxie oso ondo ifiñitte euken.

1.29. Baserri ezerosoa, baina emankorra

- **Hizlaria(k)**: Altuna Mondragon, Lorentza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-068/008
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:18:21. **Bukatu**: 00:21:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Aitak etxea txukun jarrita zuen, baina etxearen kokapenagatik ur larregi sartzen zen barrura. Lur-sailak ezeroso eta

urruti samar zeuden, baina aitak fruta arbola ederrak zituen, baita erleak ere.

Transkripzioa
-Baiñe, etxik defektutxo bat euken. Ur asko sartzen zan goixetatik eta. Ni akordetan naz amak zela esaten eben : “[…]balego”. Ta alde bixetatik kriston kalluek euken. Ure fan zain, baiña hala ta guzti be urek goittik behera sartzen zien asko. Kontraterrenue euken ba, bastante. Ta etxie ederra zan, baiñe.
-Ardirik eukitten zebein?
-Ez. Ahuntzek bai.
-Ahuntzak e?
-Ahuntzek bat edo bi bai, baña ardirik ez. Oilluek eta gaiñera oilluek eta txabolie ta “en el quinto carajo”. Ta aldatzien gora fanda zera, lehenengo oilloteixe, gero erlateixe, gero txabolie.
-Erlateixe esan dozu?
-Bai, erliek be bai eukitten zittuen.
-Kontxo! Zu zeu ibili za sekule erletan?
-Ni ez, baiña akordetan naz zela eukitten zittuen ta sagarrien geratu zan baten, doiela erlakumie sagarrien ta zela hartzen eben esnie.
-Esnia?
-Bai, ta zela erretirau eben. Akordetan naz. Ta hartzen zittuen. Ta ataraten zittuenien esnie eztixe ataraten ebenien, holako panalak.
-Abauak.
-Bai, abauek, darixola han ibiltten zan ta kriston pikadakin erlienakin ibiltten zan. Danetik euken.
-Baiña zu gustora, eztixe gustaitten bajatzun...
-Bai, euken hortan espeziala zan. Ta euken frutalak, kantidadie euken. Ona gaiñera e! Madarixek, neguko madarixek, konpotarakuk be bai. Bi arbola edarrak euken. Gero udakuek be bai. Kategorixakuek euken. Asko, oso. Eta zan oso frutazalie ta. Ta berak esaten eban, jaten eutsien ta: “Jan deixiela, zenbat eta gehixau jan gehixau eitten jako ta. Gure daben guztie jan deixela” esaten eban harek.
-Jan zer? Txorixek?
-Txorixek eta gaiñetikuek. Etozenak eta jan deixiela.
-Danontzako daola ta.
-Danentzako. Zenbat eta gehixau jan gehixau eitten jakola esaten eban ta harek.
-Baiña horreik orduen etxetik urrin xamar euezan, ezta?
-Bai, urrin urrin. Danak aldapan, aldapan aldapie gora urrenen dauenak be bai, aldapan gora. Danak aldapie gora, gorutze. Eta ibiltteko nahiko. Bat hor Begoña aldien ez dakit nun zolo bat, beste bat ixe Iremendi inguruen , gero Kurtzetxikin atzera, Kurtzetxikin be bedarrak eta soluek be bai eta urrin urrin, asko ibili biher zan.

1.30. Arrasatera esnea oinez eramaten zuten; amak sorkian

- **Hizlaria(k)**: Markaide Pildain, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-069/010
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:08:08. **Bukatu**: 00:09:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Astoa izan aurretik eskuan eramaten zuen esnea Arrasatera. Etxetik Arrasaterako bidea zein zen azaltzen du. Amak buru gainean eramaten zuen sorkian. Berak ez zuen ikasi sorkia erabiltzen.

Transkripzioa
- Ardirik?
- Ez, ez, astue, gero noizbaitten astue. Bestela danak buruen edo eskuen Mondrauera. Akordetan naz Maitenetik behera, Maitena badakitzu nun zan?
- E...
- Udalara bidien.
- Bai.
- Maitena eta handik behera euen harrizko bidie, handik urteten euen Kanpazarko bidera.
- Bai, bai, bai.
- Mari Kurtzena edo... Eta betik marmittak erun biher ta betik harrixe joten, tau! tau! bestien. Zenbat karga eruango auen, ba, hamabost urteko umiek?
- Bai, bai. Ta oindiok ez eukein astoik, e?
- E?
- Astoik ez eukein oindiok, e?
- Ez, ez, artien ez euen astoik, astoik be. Ta amak eruten eben buruen, amak berak erun biher euenien, sorkixe esaten gutsen.
- Sorkixa?
- Sorkixe, holako erredondo bat.
- Bai, buru gaiñien ibilttekua.
- Buruen [ibiltten], ha ipintten eben eta eskuek, eskuek poltsikuen [iguel] ibiltten zittuen edo tokilla barruen edo nunbaitten.
- Ba bai, ia ikasitta euen.
- Ikisitte, hoixe.
- Ta zuk ez zeben ikasi sorkixoi ipintten?
- Ez, sorkixen ez. Ene... ezebez, ikesi ezebez edo ez dakit nik. Bizimoduek beraxek erakutsi gau. Nezesidadiek erakusten dittu makiña bat gauza ta...
- Eta zuk zer, gerra denporan ama galdu zebenien...

1.31. Gaztainak; Markuleteko errota

- **Hizlaria(k)**: Markaide Pildain, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-069/021
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:21:30. **Bukatu**: 00:23:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Gaztaina oskol eta guzti gordetzen zen behar zenerako. Askotan egosita jaten zituzten. Kanpoan zaku batekin edo egurrekin tapatuta izaten zituzten. Beraiek ez zuten artorik baina Markuletek bai,

Uribarriko errota eta okindegia zenak. Haiek zaldian ekartzen zieten etxera irina eginda.

Transkripzioa
- Eta gero gaztaiñak eta jaten zindduein?
- Bai, honbre!
- Hor udazken partien ta gaztaiñak, ezta?
- Honbre! Gorde itten zan gaztaiñie gordeten zan, koskol ta guzti gordeten zan pilluen eta biher dozunien eskuera bateaz jo bat, apur bat emoten otsezun eta etara ta bestie gorde, han.
- Eta danboliñien, danboliñien edo egositta?
- Ez, ez, bere pintxo ta guzti! Lurrien.
- Baiña ta jan?
- Jan?
- Jan egositta edo erreta?
- Jan egositte askotan, egositte askotan. Ha, ha eoten zan betik kanpuen gaztaiñie. Tapau zakuen bateaz edo egurren bateaz edo egur batzukin ta tapaute freskuran. Ta han hartu eta egunero.
- Ia.
- Egunero edo biher gabenien behintzet ta nik ez dakit ba, orduen zera ibiltten zan [...] esnie eta ogixe.
- Eta artua ta talua ta?
- Ba, artue ez geben guk itten ta artue itten euena zan Markulete. Markulete zuk ez dozu esistidu?
- Ez.
- Hori zan errotie, panaderixa edo errota, dana itten eben, Markulete. Oin ez dao.
- Nun euen errota hori?
- Hori, hori Uriberrin, Garagartzara bidien.
- A! Uriberrin bertan?
- Oin edifiziuek eta... Mendittibarri onduen.
- Ia, ia, ia, ia.
- Eta haik zaldixen ekarten euen etxera, erun be bai, ta ixo eta urune eindde ekarten euen etxera. Bai.
- Baiña zuk esan dozu garixa gerra aurretik euki zebeilla baiña ia gerran...
- Ez, gerra denporan ez naz akordetan. Horixe be ez naz akordetan.
- Eta gerra ostien ia ez dozue garirik euki?
- Eske ez naz akordetan hoixeaz be. Ez geben eukiko, ez dot pentsetan.

1.32. Gerra osteko jatorduak

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Sagasta , Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-073/007
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:15:35. **Bukatu**: 00:18:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Errotak itxita zeudenean, herriko errota batera joan behar izaten zuten etxerako garia ehotzera. Baina zahi asko eta irin gutxi ematen zuten bertan, eta horregatik Elorriora joaten ziren ehotzera. Babarrunak eta urdaia jaten zituzten egunero eguerdian, eta porru-

patatak gauean. Gaztaina denboran gaztainak, egosita edo erreta. Esne trago bat eta ohera.

Transkripzioa
-Ta zeuek bazeukotzuein hola garirik edo artorik edo ixoteko? Zela eitten zeuein?
-Elorrixora edo ahal dan lekuetara fan biher. Hor Mondraguen auen fabrika bat, Arrasate. Han kupue kanbixetan auen. Ba eruen garixe, ta hainbeste gari eruen ta emuten eutsuen honenbeste urun. Baiñe gehixena zahixe emuten auen, ta harekin pasaik!
-Ogixe zahixekin eitten zebein?
-Galbahittute. Galbahittute eitten zan. Galbahien pasauta.
-Oseake zuek zeuentzako erun biher zeueiña be, ha be neurtuta euen? Zuk zeure kupua pagau eta gero. Beste urunakin ezin zeiken ein zeuk gure zebena? Ez?
-Keba. Ha, errotak eta zerraute auzen ta obligaute zingozen horraxe faten.
-Ta mundu dana leku batera.
-Karo. Danak leku batera. Mondraue dana horraxe fan biher izeten zan, ta erueten zan, ba, berrogeita hamar-berrogei kiloko zakua. Ta emuten eutsuen e, nik ze dakitt, hogei kilo urun edo eta, gehixena zahixe. Ta ha ba gero galbahiketan [dozun] ta urune geraketan zan ezebezien.
-Etxerako lain izeten zan?
-Ez, falta.
-Artua jan biher asko?
-Artue, artue jan biher, artue egunero!
-Ze izeten zan orduko menu normala?
-Babak eta urdaikixe!
-Ta gabien?
-Gabien porru-patatak.
-Ta gaztaiña denporan?
-Gaztaiña denporan gaztaiñak be bai. Gaztaiñak guk asko gauken, gaztañadixe gauken guk hemen etxe gaiñien dezentie ta, gaztaiñak-eta jaten gittuen, gaztaiña erriek eta...
-Ta egosixak?
-Egosixe eguardixen jaten zan jeneralien. Gabien erreta. Ta esne trago bat eta ogera. Uskarrak [botaten] ta aide!
-Bueno, gaztaiña denporan libre da, ezta?
-Gaztaiña denporan libre da, bai!
-Ez, ze Oñetin, zure edadeko jentiak, zu baiño zahartxuauek esaten ostain, bi edo hiru etxetan tokau xaten, udazken-neguko afaixa izaten zala gaztaiñak eta saldia.
-[Hiruka be], esnie.
-Ta gero esnia, karo. Ta ogera.
-Ogera.

1.33. Garia egitea makinen mende

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Sagasta , Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-073/008
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:18:27. **Bukatu**: 00:21:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Okelatarako behiak hazten zituzten. Garia lehenengo igitaiarekin ebakitzen zen; gero idiekin tiratutako sega-makina etorri zen, baina honek gari-jotzeko makina eskatzen zuen. Baserri txikiek ezin zuten hainbeste makina erosi. 1955 urte inguruan utzi zioten garia ereiteari.

Transkripzioa
-Zueik ganauak-eta ze zeuketzuein, behi esniak, edo okelakuak?
-Okelakuek. Okelakuek.
-Baiña etxien eukiko zebein bakarren bat.
-Esne behirik? Oingo moruen esne behirik ez. Baten fan ta ostikarie, lapikora bat eta pla!! Aide! Atrapau zak lapikuoi tta!
-Ze zaukotzuein, ganau gorrixa?
-Gorrixe ta […] eoten zien. Ta ostikarie gehixau esnie baiño.
-Baiña etxera erretiretan zittuein lo eittera edo libre ibiltten zien?
-Etxera, etxera. Etxera ekartzen gittuen lo eitten ta. Bai.
-Ta hamen, karo, zuek garai baten seguru asko bedarra ta garixe igual idixekin tiratutako makiñekin ebagiko zeuein garain baten.
-Bai.
-Ta gero, zera, traktorie-ta etorri zanien ze aldaketa klase…
-Ikeragarrixe. Ikeragarrixe. Lehelengo garixe, ba, lehelengo igitaixekin ebaitten zan. Gero etorri zan segadora bat idixekin tiretu ta garixe ebaten auena. Eitten gittuen azauek, ba, holako dezentiek. Ta hak botaten zittuen buruek ahal dan moruen, baiña hartarako gero hareik joteko trilladorie biher zan, zegatik burue geraketan zan atzien ta aurrien. Ta haik dana pasau biher zan /bizan/ makiñan, kentzeko dauken gari alie. Ta halaxe.
-Oseake makiña bat ekarriz gero, gero beste zazpi biher ezta?
-Beste zazpi biher! Ta hemen basarri txikixek auzen ta holako makiñak-eta erosteko-ta nun? Bah! Baeuzen, bai, hemen Mondrauen baeuen bat ibiltten zana, ta ha ibiltten zan etxerik etxe zerketan, gari joten.
-Ta sozidadien-ta ez zittuein erosten holako gauzak?
-Sozidadien aukien horreik mondrautarrak, bai. Baiña sozidadetik aparte ibiltten zan etxerik etxe garixe joten. Horrenbesteko bat kobrau ta…
-Zela pagaitten zan, dirutan edo garittan?
-Dirutan, dirutan pagetan zan. Ez dakit ze kobretan zan, ahaztute dauket. Aspaldiko kontuek die ta.
-Noiz itxi zotsain garixe ereittiari?
-Garixe eraittiai? “Cincuenta y cuatro-cinco”, hortxe, holakotxe bat.
-Bai? hain goiz? Oñatin ya sesentatan sartuta.
-Ez, guk “cincuenta y ocho” batetik aurrera ta itxitte gauken.
-A karo, baiña orduan zu fan ziñan Fagorrera, ezta?
-Ni Fagorrera fan nitzen lanien, bai. Guk “cincuenta y cinco” holako baten itxiko gutsen garixe eraittiai. Ta gero garixen lekuen eraitteko aillorbia, ta ez zan sikeketan kristoatik be. Euzkixe [... igerra] egoten zan ta illunkeran berdie.

1.34. Etxean gizonik ez

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Kristina

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-082/003
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:02:34. **Bukatu**: 00:04:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Zigarrola auzoko eskolara joaten zen, baserrian lanik ez zegoenean. Gerraren ondorioz hil zitzaien anaia bat, eta lan istripuan beste bat, 16 urte zituela. Mutil bat eta zortzi neska geratu ziren etxean. Neska nagusiak neskame joan ziren. Kristinak 18 urte zituela, anaia bakarrak etxetik alde egin zuen.

Transkripzioa

-Ta eskolara nora faten… nora fan ziñan zu?
-Ni e Zigorlako zerera, eskolara.
-Ziorlako eskolara.
-Bai. Maistrie gauken.
-Izena goguen dakotzu?
-Ba… oin ez jat /etxat/ etorriko.
-Bueno, igual xao... Eta zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
-Ba ez dakit /eztakitt/ horixe…
-Sei, zazpi edo?
-Bai, holan bielduko nindduen. Baiña eskola baiño gehixau, baserrixen gehixau lan eitten gauen. Zegatik eze lana baeuen.
-Eskolara tururu.
-Tururu. Eskoliori guretako ez zan izeten.
-Ze itten zeuein, ittaurrien eta…
-Ba danera.
-Danera?
-Danera.
-Ia umetatik e?
-Bai. Bai, bai, hori ez uskun guri perdonau. Gaiñera, ba, lau seme o euki zittuen, lau mutil, ezta? Eta bi, zera, bat gerrako zerak, konjelau-edo ein jakon hankie, eta horko konplikaziñuaz hil ein zan.
-Kontxo!
-Eta bestie tronkuek harrapau auen hamasei urtekin.
-Basuan lanian?
-Bai. Ez, han etxe aurrien, kargau ta deskargan abitzela, burdixe, ba, zertu ein zan, jausi jakon gaiñera eta errebentau ein utsen.
-Mekatxis la mar.
-Errebentau tripie, barruen. Erdixen hartu auen ta han geratu zan. Ta, klaro, ba geratu gitzen batekin.
-Ta beste danak neskak.
-Ta beste danak neskak. Ta neska nausixek, ba, kriera, alde batera edo bestekaldera ibili die. Gu, gaztien bixok, ba, ez gitzen fango iñora. Baiña Joxepa ta horreik, ba, hor ibili zien, etxeik etxe, alde batera edo bestekaldera. Gu ez, guri ez jakun /etxakun/ tokau zerik.
-Kriarantzarik?
-Krierantzarik ez jakun /etxakun/… etxien gehixau, etxien.
-Etxeko kriadak, etxeko kriadak, ezta?
-Ez auen ta. Ez auen ta. Anai bat geratu jakun ta bera kantsau ta iges ein uskun etxetik. Karo, beretako dana.
-Eta alde ein eben e?

-Bai.
-Jontxo!
-Eta...
-Zenbat urte zeuketzun zuk, anaiak alde ein auenien?
-Ba ez dakit, hamazortzi edo... urte bat bai.

1.35. Aita idiekin garraiolari

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-082/016
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:45:23. **Bukatu**: 00:47:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Aitak, garai batean, Bergarako Labe Garaietatik Arrasatera idiekin garraiatzen zuen materiala. Anaia bat pinu enbor batek hil zuen, istripuz. Aramaioko esne-saltzailea zen Manzano-ren furgonetan eraman zuten ospitalera.

Transkripzioa
-Esan dozu, behin baiño gehixautan, etxian idixak zeukatzueilla. Idixak zer zien, etxeko lanetarako edo karreterogintzan be batenbat ibiltten zan?
-Karretero aitte denpora baten ibili zan. Zeretik, Altos Hornostik zerera ekarten, beste Altos Hornosera.
-Bergaratik hona?
-Handik horra, bai. Goixien ez dakit ze ordutan urteten auen ta gabien ez dakit ze ordutan aillegetan zan.
-Ta ze ekarten eben?
-Ba materixala o, burdiñe edo, zerak ekarten zittuen. Aitte ibili zan karretero. Idixekin. Ta gero ba etxien. Etxeko lanak eitten zittuen.
-Ze zuk esan dozu, esan dozu anae bat galdu zebeilla burdixa deskargaitten, ezta?
-Bai.
-Hori ze...?
-Baiñe orduen basutik ekarri zittuen piñuek. Eta han etxe aldameneko kamiñuen holako zer bat dau ta ba goixen itxitten zittuen, gero kamioiek edo erungo zittuen. Eta, ba, bat gaiñera etorri jakon bualtaka ta errebentau ein eutsen... bai. Ekarri auen etxera ta Olanok zerien, ta esaten auen "eneee... está reventau". Ta orduen eruen auen Elgoibarrera eta ba horixe, Elgoibarren han... karriau... ba ez auen tardau, bi edo hiru egun edo in zittuen.
-Oseake beste anaia be Elgoibarreko ospitalera eruen euein, e? Oseake anai zaharra be gerran hondatutakua, ala!
-Bai, bai.
-Ta gero bestia etxian miña hartuta.
-Zeren automobillien. Aramaixoko zera, letxerue, Manzano. Haren kamioien eruen auen bigarrena. Ta lelengokue ez dakit, ez naz /enaz/ gogoratzen ze autobobilletan erungo auen, baiñe hori bai, kamioie etorri zan... oooo furgoneta bat, ba esniek-eta ibillteko auken ta hantxe sartute erun auen.

1.36. Joxe aitaren baserrian

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/011
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:22:38. **Bukatu**: 00:26:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Gaztetan asko joaten zen aita jaio zen baserrira, Mazmela auzoko Etxenausira. Hamasei urte zituela artzaintza, itaurreko lana eta baserriko lan ugari ezagutu zituen. Mazmelako artzain handienetako bat zen Joxeren osaba.

Transkripzioa
-Zuk esan dozu kalien jaixo ziñala.
-Bai.
-Kalien, kaleko etxien ura ta argiinddarra ta umetatik ezautu izan dozu?
-Baaai beti.
-Normal?

-Beti, normal.
-Te zeure aittan baserrira faten ziñan?
-Bai, asko! Bakaziñuetan ta [astebetien] egoten gitzuan! Mazmelan gu.
-Ta ze... Etxenausin?
-Etxenausin. Ta Karriona. Bi baserri geukan guk. Etxenausikuek zittuan aitten... basarrixe. Ta Karrionenekue, arrebie ezkondu zuan Karrionenekuekin.
-Aittaren arrebia?
-Bai. Ta bi basarri geukan guk. Ta udan hantxe egoten gitzuan. Ta gero gerra... Hi! Ta gerra denporan, bestiek e... hor jabitzan nunbaitten, ta pastore ibili nitzuan ni! Tiokin.
-Ardixekin?
-Honbre!
-Ta ganauek, zera ta... ittaurren ta... garixe ebaten ta danien in juau guk, e!
-Kontxo!
-Honbre!
-Pastore nora faten ziñan? Andarto... zera, Degurixa aldera edo?
-Zerera, Alabittara. Aitxorroztik aurrera. Horreik dittuk e, Elgea aldera joten juek ba baserrixek...
-Bai, bai, bai, bai.
-Hara faten gitzuan.
-[Arabako mugan].
-Hara, hara faten gitzuan gu.
-A, han itxabolia bazeukotzuein?
-Txabolie be bai.
-Ta ardixek jaitzi ta zeuk itten zittuen?
-Honbre!
-Ta gaztaia?
-Gaztaia tiok. Gaztaia tiok.
-Eta gaztaia han itxabolan itten zeuein, edo...?
-Txabolan. Ta gaztaie aumetako, tximinixa bako txabolie, han. Sue ein, ta keia atara hari ta ba holaxe!
-Lo ez zeuen ingo...
-Lo bai.
-Lo ez zeuen ingo gaztaiekin, ezta?
-Bai, baiña holako zer bat aparte geukan ta, ta han lo.
-Ia, ia.Ta hori zenbat urtekin?
-Hori ia... hamaxei urtekin ia. Hamalau-hamasei urtekin. Orduen mutikue ia.
-Eta gazuriekin txarririk edo...
-Txarrixe ta gazurie ta zera, asunekin zertu ta... txarrixei jana bota...
-Haik txarrixak gozuak izengo zien...
-Bai.
-Ta ze eitten zeuein, txarrixa etxian hiltten zeuein edo...?
-Etxien.
-Edo Arabara saldu?
-Etxien... etxerako, etxerako txarrixe.
-Ez, zegatik hor Degurixan ta e, kargalekun ta egozen pastoriak...
-Bai.
-Nola bakoitzak hiru-lau txarri hazten zittuen...
-Ez, guk etxerako hartzen gittuan.
-Ze zeukain, artalde haundixa?
-Baaaaaai. Inportantie. Inportantie.
-Zenbat ardikua, gutxi gorabehera?
-Aa... ehunetik gora. Ehunetik bastante gorau.
-Orduan artalde formala.

-Bai, bai, bai. Hor jazan Mazmelan, bi jazan. Etxenausikuek eta Kapelenak. Bi. Pastore... ardi ta... Ta pastoriek asko jazan han orduen e! Alabitten asko! Atxorrozpekue, Agarrekue, Nagiturrikue, Kapelena, Agarrekue, Etxenausikue... eta bestie nor zuan...? Beste bat be bajauan.

1.37. Baserrian gustura egoten zen

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/012
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:26:10. **Bukatu**: 00:29:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Eskolako oporraldietan Joxe baserrira gustura joaten zen. Etxenausiko behiek sariak irabazten zituzten Arrasateko ferietan. Argindarra eta ura baziren baserrian, baina bainugela berak jarri zuen geroago. Pujeta (lixiba) egiten, latsarria eta labesua ezagutu zituen Joxek baserrian.

Transkripzioa
-Oseake, orduen, bakaziño denporan, ez ziñan kalian egoten.
-Gutxi, gutxi.
-Basarrira.
-Basarrira. Gustora. Gustora.
-Ta zenbat ganau buru zeukotzuein?
-Ganauek eukitten gittuan guk e, gure basarrixen, xei-zazpi hola, ta astue gero.
-Ta idirik?
-Idirik ez. Lanak itten gittuen zerak... hau nun ifintten dok?
-Hementxe.
-Lanak itten gittuan goldan ta, burdiñaran ta, zerien e, behixekin.
-Behixekin? Uztarr..
-Behixek edarrak e! Mondrauen birritten e, lelengo premixue atara zittuenak. Behixek.
-Bai? Ferixan? Baiña Santo Tomasetan edo?
-Santo Tomasetan, bai, bai, bai, bai. Birritten. Bi urtetan.
-Horreik, uztarriko behi horreik?
-Bai, bai, bai. Baiñe behixek zelakuek! Bueno, gobernau be holaxe e, gure tion etxien, gobernau be.
-Ba bai, lanerako...ganaua..
-Joe.
-Han gogor ein biher.
-Gobernau ondo e.
-A orduan zu zeu be ittaurrian ibilitta zaz?
-Bai, bai, bai. Atzetik be bai! Burdiñaran ta atzetik be bai.
-Burdiñaran, e?
-Bai, bai, bai.
-Eta Etxenagusi horretan, zu hara faten ziñanien, goguan dakotzu inddarra ta ura ta zela eozen? Etxe barruan baeuen urik?

-Bai, bai, bai, bai.
-Bai?
-Bai, bai. Kuarto bañorik ez jauan /etxauan/, gero in gaixuan geuk. Kuarto bañua. Ia mutil in giñenien, ia kuarto bañua in gaixuan geuk.
-A, karo, gaiñera zeu hojalatero, aitta…
-Bai, bai, bai.
-… ta semie hojalateruak.
-Baiñe ure, depositto bat jauan han ta etorten zuan, ta hor metal ura geukan aldamenien, erateko.
-Itturrixa, edo posaderia edo zer zan?
-Ittu… zer bat… tubo bat ez, harrixe zertute, biher dan moduen ein ta handik etorten zuan ure!
-Eta hor Etxenausin andrak erropak-eta nun garbiketan zittuein?
-Pujetie.
-Pujetia?
-Honbre.
-Eta gero…
-Ogixe be bai. Hor, labie!
-Baiña alberkarik edo baeukein etxe inguruen? Ze pujetie gero aklaraitteko han ura biher dozu /biozu/.
-Bai, ba, esaten dustat /esateustat/ ba ure jaukiela ba, depositto bat eukien ta!
-A! eta aklaraittia eta dana etxe barruan itten zan e?
-Bai, karo.
-Ez, baserri askotan alberkie ipintten euein arropie garbiketako.
-Ez, ez…bai, a! Hori baaukien! Alber… bai, zera esan gure dok /gurok/? Fregaderie edo zeroi?
-Baiña etxetik kanpo.
-Etxetik kanpora bai, bai, bai.
-Ta harrixa erropak joteko eta.
-Bai, baitte, horreik danok, gizona. Joe. Horreik danok. Ogixe be etxien itten zuan e.
-Pentsaitten dot.

1.38. Arbi-garak eta esnea "erroberoa"

- **Hizlaria(k)**: Mujika Arana, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-145/015
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:36:22. **Bukatu**: 00:37:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Aitajaunak arbi-garak jaten irakatsi zion. Baserrian batzen zituzten eta gero "txitxarra"rekin (hirugiharra) jan. Hurrengo egunerako esnearen bila joaten zen gauetan baserrira. Esnea "erroberoa" asko gustatzen zitzaion.

Transkripzioa
- Arbi-garak, arbi-garak jaten dittuzu?
- E?
- Arbi-garak. Arbi-garak.
- Arbi-garak?

- Bai, hola kendu "a los nabos"...
- Bai.
- Kendu ha puntatxua ta egosi. Ai ze gozuek dien! Ia, gure aittajaunak erakutsi osten niri baserrixen.
- Bai? Zela esaten da, arbi a...
- Arbi-garak.
- A! Arbi-garak, a! Bai, bai, bai, bai.
- Arbi-garak.
- Bai, bai, bai, bai. Bai, arbixa garaketan hasten danian...
- Haixe kendu ta ze goxua, ifini han txitxarrakin ta, ta...
- A, txitxarrakin ta nahastuta?
- Honbre! Gozuaua! Nik oin be jango neuke. Eta ba, zera, gabetan esnetan faten giñen, hurrengo egunerako esnetan baserrira eta ba, batzen ta neu be begira ta gero batzen euenien, batu ta segiduen... Oin txarra dala medikuek, oin dana kajakua, oin bai dala txarra. Gero hori erroberua esaten dutsie, batu bai e, halaxe muturra sartu galdaran bai e, gozuaua! Ta horreik danok einda nao ni basarrixen gure aittajaunakin.
- Neuk be eindda daukot horreik.
- Nik hori be esnie gurau dot hango paketekuok baiño.
- Ezta, horrek ez dake bape gustoik.
- Baiña baiña, oin medikuek..
- Oin dauena hoixe da.
- Hoixe da dana da artifiziala.

1.39. Lohiz zikinduta mezara

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-155/011
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:20:48. **Bukatu**: 00:22:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: 10 urtetik 14 urtera bitartean, uda partean, Degurixan bildotsak zaintzen ibiltzen zen Esteban. Domeketan, bildotsekin mendian ibili eta eguerdi alderako Arientzara bueltatu behar izaten zuen, meza entzutera. Egun batean, bildotsak zaintzetik lohiz zikinduta sartu zen elizan, eta Don Simon abadearekin izandako gorabehera kontatzen du.

Transkripzioa
-Harek eiñ eusten beste gauza bat. Beste historixa bat nik [harena]. Ta...
-Horrek, Don Simon horrek?
-Don Simon. Karo, ba, orduen mezie entzutie sagraue zan, mezie entzun ein biher zan /einbizan/. Ta mutikue ni hamar urtetik aurrera ba hamalau arte zerien egon nitzen, e, udan, bilddotsan zain, Degurixen. Ta handik eruen biher izeten nauen Aumeti aldera, han Araba mendixen eruen biher nauen bilddotsok, ta gero eguerdixen etorri mezetan... mezetara etorri ein biher izeten zan. Ta handik banator, handik bueltie eindde, ordubete fan ta ordubete etorri, ordu bi biher zien handik bueltie eitten handik, Degurixetik Arabara fan ta Degurixara barriro e! Ta handik banator, ta etorri nitzen ta lokatzarie ta ke useiñe besteik ez ta... allegau, geratu nitzen eleixa goix...

gaiñien. Ordurako banakixen hango barri ta… ta ia jentie, hamaiketan zan mezie, ta ni begira hango jentie sartu zein ba neu azkenengo fateko, ez dakitzu? Ze klaro, lehengo lohixe ta holan zerien ta… geratu nintzen, ta, zerien eskillaran, koruko eskillera barrenien geratu nitzen neu. Ta orduen “Dominus Vobiscum“ esateko buelta eitten auen ta, bueltau eitten auen “Dominus Vobiscum“ esateko! Ta… baninguen, ta, jarri zan ta begire-begire, ta txarrixoi neuri begira, ba! “Hori atzien dauena etorri dailla hona!“ ta ni kalera! Zela fango nintzen, ba, lotsagarri ninguen hola kaka darixola ta aurrekaldera! Kauen diez. Joe, holakotxiek… Joer.
-Zu fan ta harek oindiok [jodiu], ezta?
-Bai jauna.

1.40. Degurixatik egun bat lehenago bueltatu zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-155/013
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:23:23. **Bukatu**: 00:24:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Mutikotan, Degurixan bildotsak zaintzen egoten zen Esteban uda partean. Astelehenean janarekin joaten eta igandean etxeratu ohi zen. "Norberak egin behar izaten zuen rantxoa" dio. Iturria txabolatik urruti zegoen. Estebanek ez zuen erloju eta egutegirik, eta, behinola, aste bat luzea egin zitzaion: larunbatean etxeratu beharrean ostiralean joan zen etxera. Hurrengo egunean berriz joan behar izan zuen mendira.

Transkripzioa
-Ta aste baten, han, mutikua, mutikua, aburrirute han bakarrik… tristia mutiko gaztientzako zera. Ta ein jaten, ba, ez gauken erlojurik ta kalendaixorik ta ezebe. Ta, ba, astelehenien faten gitzen, ba, ogi bat, otana bat, ta libre erdi txokolate edo libre bat txokolate ta holako gauzak hartu ta gaiñetikuek, ba, patatie ta [zera]… Ta gero norberak ein biher rantxue! Batien berakatz-saldie, bestien [gure dana], ta holan ein biher dana. Ta itturrixe kilometro erdire, e! Ure.
-Hain urrin?
-Urrin. Oin e, oin zerien txabolan daukie handik ekarritte goittik, baiña orduen ez auen holakoik! Han ure ekarri ein biher zan /einbizan/ handik! Ta holaxe… mutikue, mutikue estu! Ta, joder. Ta gero aste baten, ba ia astie luze in jaten ta etorri nitzen zapatue zalakotan barikuen etxera, ta zapatuen barriro buelta! Barriro buelta, domekara arte! La ostia, kauen dio…
-Ta zuk zer, zapatua zalakotan barikuen etorri!
-Barikuen etorri nitzen ta, la ostia, buelta! Kauen dios… joder. Kristonak ikusitte, bai.

1.41. Ama plaza andrea

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/018
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:50:22. **Bukatu**: 00:53:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Etxeko sagarrekin Bergarako San Prudentzio (Elorregi) auzoan sagardoa egiten zuten. 2-3 kupela ekartzen zituzten etxera eta bertan botiletan sartu. Amak esnea egunero eramaten zuen kalera; ostiraletan kaleko plazara joaten zen barazkiak saltzera, eta zapatuetan Bergarakora. Landareak ere saltzen zituzten.

Transkripzioa
-Ze izan zan, gogorra izan zan gerra ostien atzera basarrixa martxan ipinttia?
-E?
-Atzera basarrixa martxan...?
-A klaaro! Klaro, klaro. Badakitzu? Buuuuf.
-Ta soluak eta zelaixak eta pittin bat abandonauta egongo zien ezta?
-Bai, haik ondo azen. Zegatik asko, ta sagarrak-eta be ba ez zittuen kendu. Eta ba sagarrak be han azen.
-Sagardaurik itten zeuein zuek?
-Sagardaue itten gauen etxien. Bueno, etxien ez. Hor e, San Prudentziotik beheratxuau auen zer bat, han itten uskun, sagarrok eruen...
-A, tolaria?
-Bai. Eta gero etxien. Ba beti gurien bi barrika edo hiru egoten zien e. Sagardaua. Eta gero ba... gero bai, ta enbotellau. Ta han arka bat egoten zan, txarrixen zera-ta hiltten zienien, ez dakitzu? Urdaixe eta gatza emoteko, basarrixetan danien egoten da hori. Eta han auen lurre ondion.
-Bai, harrizko arkia, ezta?
-Bai. Eta ipintten zien hantxe botillak. Ta fresko-freskue egoteko. Bai.
-Eta zueik basarrixan, esan dostazu, esnia erueten zeueilla kalera.
-Kalera. Karo bezeruek.
-Ortuko gauzarik...a eta baiña esan dostazu ama faten zala ez dakit nungo merkaura.
-Bai, ama etorten zan hona, Mondrauera, osea, kalera. Bai. Egunero, eta ez dakit egun bat ala... bat izengo zan tratuakin, berduria ta gauzak ekarten. Etxien auena. Sagarrak eta berdurie, porruek, kipulak, azelgak, dien danak. Ordukuek, bere denporan, etorten zan ama. Eta gero zapat... hori eguakotxien. Eta zapatuen juaten zan Bergaraa. Landarak be bai eukitten gauen. Eta landaratan be gurera hortik Zubillaga aldetik eta Bergara aldetik, hortik Altos Hornostik honutza ta etorten zan. Bai, gurera, Zabaletara, Garratzera, bai.
-Landara billa?
-Landara billa, bai.
-Ia. Honeik be asko itten zittuen, Ibarretakuek be.
-A baai.
-Horreik be...
-Horreik be...
-[Durangora] ta Elgoibarrera eta Eibarrera faten ziela...
-Bai.
-... saltzen.

-Bai.
-Zela zan, Solekin ta...
-Baten bat Bitorixara be juaten zan. Hemendik e, saltzen.
-Bai, uste dot horreik be faten ziela.
-Igual honeik be fango zien Ibarretakuek be. Bai.

1.42. Behiak, ardia eta gazta

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/014
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:14:47. **Bukatu**: 00:15:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Baserrian abereak zituzten: lau behi, ardi taldea... Goizetan, anaia zaharrenak lantegira joan aurretik gobernatu ohi zituen ardiak. Amak gazta egiten zuten.

Transkripzioa
-Eta orduen lau behi, eta ardirik edo bazeukotzuein?
-A, ardixek euzen! Ardixek pastoriek, bai. Ardixek. Hor dau txabolie.
-Eta ardixak, pastoria zeukotzuein, edo etxekoren batek eitten euen...?
-Ez, ez, etxekuek, etxekuek. Goixien fabrikara juan baiño lenau eruen edo batu ta... etxekue. Etxeko nausixenak.
-Eta gaztaia eitten zeuein?
-Baitta, bai.
-Ta ze eitten euen, amak?
-Amak eitten auen, bai, bai.

1.43. Gaztainak saltzera

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/015
- **Iraupena**: 0:00:29. **Hasi**: 00:15:21. **Bukatu**: 00:15:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Ez ziren astero joaten plazara salmenta egitera. Gaztaina denboran, berriz, gaztaina saltzera joan ohi ziren.

Transkripzioa
- Ortu gauzak eta plazara erueten zittuein, edo?
-Bai, gutxitten. Gaztaiña denporan kaztaiñie bai. Baiñe bestela... ez. Baserrixe aiñubeien be baeuen eta... bertarako ondo, baiñe saltzeko ta ez. Kaztaiña denporan euela ekarriko auen zeozer, baiñe bestela leku askotan moduen astero plazara ez.

1.44. Gari lanak

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/017
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:16:02. **Bukatu**: 00:17:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Gari lanei buruz hitz egiten du. Garia ebakitzen aritzen zirenei ura eramaten zien. Larrinean egin, lastoa bildu... ohi zuen.

Transkripzioa
-Zer moduzko lana zan garixenoi?
-Buuu gu txikiñek gitzen, guk ure karrietan gauen bakarrik e, erateko, ebaitten ebitzenien.
-A bai? Eta zuk, zuk hamalau... osea eskolak bukatu zittueiñien-eta ez euen garirik etxian ia?
-Bai, baiñe gero ba ez dakit ze eitten auen. Baiña gu eskolan gebitzenien ta bakaziñuetan, gari ebaitten ibilten bazien, ba, “Ekarri ure!“ ta ure eruten gutsen itturrittik. Han etxie baiño goratxuau gauken itturrixa, freskua ura. Ta handik ure erueten gauen.
-Eta gari-joten eta ez ziñain ibiltten?
-Zera eitten zittuen, esto... har...behixekin...
-Bai, larraiñian.
-Larri... bai, hori itten han, bai han ibilten giñen.
-Ia, oseake zuk orduen gari konturik eta ez daukotzu oso...
-Gari kontue, ba, horixe, ni ebaitten ez dakit sekule ez dakit, akaso egunen baten apurren baten, baiñe... gero larriña in, ta zera lastue batu, ta kamararako preparau ta horreik danok bai, baiña, bestela, ba, ez.

1.45. Errotak eta garia entregatzea

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/043
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:36:20. **Bukatu**: 00:37:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra ostean, Uribarrin eta Santa Agedan baziren errotak, baina baserritarrik ez zuten garirik; entregatu egin behar izaten zuten.

Transkripzioa
-Karo zegatik e, hor baeuen ezta? Goratxuau Arrasate zera, errotia.
-A bai, Uribarrin. Santa Agedan be baeuen errotie. Baiñe urunik ez. Garirik ez. Kendu itten auen erdixa. Ta ez zan aillegetan danerako.
-Ia. Karo, zu orduen ia ez zeontzen baserrixan...
-Ez.
-Ta haik entregau einbiko euein ezta?

-Bai. Entregau eraitten utsien, bai bai. Ez dakit zenbat kilokin! Baserri txikiñek zien, diez, e. Baiñe entregau eraitten utsien.

1.46. Pinua sartzen

- **Hizlaria(k)**: Sagasta Elorza, Matias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-175/011
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:11:34. **Bukatu**: 00:14:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Natura » Flora
- **Laburpena**: 14 urterekin eskola bukatu, eta pinua sartzen hasi zen aita eta beste gizon batekin. Bergarako kondearen lurretan ibili ziren pinua sartzen. Matiasen eginkizuna izaten zen pinu landarea ipintzea. Gerra denboran itsas pinuak bota egin zituzten. Gero etorri zen intsignis pinua.

Transkripzioa
-Bueno, eta eskolok akabau zienien, etxian geratu ziñan, edo?
-Bai, fabrikan, edo zerien, bai etxien geratu nitzen. Ibili nitzen lelengo ba, hamalau urtekin, hor e Bergako batek, hamen ze gauken terrenuek asko basuek aukien...
-Gernikakuak?
-Bergakuek.
-A, Bergarakuak.
-Bergakuek, Bergakuek. Bergarako kondienak edo ez dakit zer zan. Hamen basuek auken. Ta Ugako baserriko ha, Gregorio, hango gizona aitte ta nire aitta lagunak zien ta zerekue ibiltten zan e, Ugakuori e, horren piñuek sartzen. Ta gure aittekin tratu bat eitten auen eta aitte ta bixek ibiltten zien. Egon nintzen mutikue, hamalau urteaz edo...
-(Laguna) Nun aukien piñuek horreik?
-Hau e, hamentxe, Maxuen gaiñien. Ta gero Saburdi azpixen be bai, zer haundixe aukien. Kondienak. Bergarako kondienak edo izeten zien.
-(Laguna) “Conde de Villafranca“ ez zan? “Conde de Villafranca“. Holakoren bat.
-Bai, bai, bai. Eta zeu be basuen ibili ziñan orduan?
-Bai, aitte ta ha beste Ugakue, zuluek eitten, ta gero sartzen, ta ni ibillten nitzen ba landarie botaten, illeretan, geroko.
-(Laguna) Piñuak zien?
-Piñu landaria ifintten.
-(Laguna) Orduen, hemen? Bai, e?
-Bai, bai.
-Joño! Piñuek zaharrak die hamen, e!
-Bueno, gerra denporan e, gerra denporan beste hori, piñu klase hori, horrek izen “maritimo“ ta insignisek, gerra denporan hareik bota ein zittuen. Basuak. Orduen bota, gerra denporan. Orduen ha auen, ta gero etorri zan hau insignis hau piñu klasie, hau hobie zala ta haik bestiek desapareziru ein zien. Maritimuek.
-(Lagunak) Haik insignis, insignisak ez zien...
-Haik maritimuek ia...
-A, lehendik maritimua euen?

-Bai.
-Eta gero sartu zan insignisa?
-Bai.
-Insignisak azkarrau urten zain, ezta?
-Bai, ixe ixe doble...hogei urte gutxienien diferentzia. Ta gero eliminau zan hori ta akabo.
-Ta zueik [alaizerua] ta alerzia ta honeik ez zittuein sartzen?
-Ez, ez, hamen ez zan sartzen hori.
-Dana insignisa?
-Bai, bai.
-Abetorik be ez?
-Gutxi, gutxi. Horreik, horreik sartzen zien horra... Aramaixo aldera zeretara ta gero sartu zien, baiña hamen ez. Hamen hauxe, ontxe dauen klasie.
-(Laguna) Insignisa.
-Insignisa.
-Oseake hamalau urtekin orduen piñu sartzen...

1.47. Gari-jotzeko makina, soziedadean erosia

- **Hizlaria(k)**: Sagasta Elorza, Matias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-175/015
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:16:16. **Bukatu**: 00:17:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Matias mutikoa zela auzoko sei baserriren artean sozio erosi zuten gari-jotzeko makina, "matxakia". Etxezarretan egoten zen makina.

Transkripzioa
-Zure garaixan, zu gaztia ziñanian, garixa jo eta zela itten zan?
-Niri akordau orduko, gurien ez zan jo ta ez zan ein. Ni akordau orduko hameko baserrittarrek, soziuek xei edo zien, ta makiñie hartu auen. Ta ni akordau orduko, mutiko txikiña nitzela.
-Makiña, matxakia?
-Bai. Hamen lau baserri. Hamen Axeriko hamen auena, eta Kataide, Garratze, Zabaleta [bixek] eta Mojategi. Hartu auen makiñia. Ta egoten zan ha makiñie Etxezarreta, han behien, Etxezarretan. Egoten zan ha makiñia.
-A, osea, Madrileñuen... Madrileñue, edo hori nungue zan Etxezarretako hori?
-Ha Etxezarreta, hango jefie hil zana, ha famosue?
-Bai.
-Bai. Ha, diputaue edo izendakue zan ha.
-Haren etxian egon zan makiñia?
-Gero haren etxien auen. Berak ez e. Gero auen ba etxie zainketako, baserrixe ta basue zainketako beste bat. Satur, Murua. Murua auen.
-Hori Satur hori ze etxetakua zan?
-Hori betarra zan, ez dakit ze herrikue izengo zan.
-(Laguna) Andria zan Ugakua.
-Ugakua andria. Ta bera betarra zan, ez dakit ze herrittakua izengo zan. Satur. Betarra zan ha. Ta hak eitten auen hori.

1.48. Perratzaile lana

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/004
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:08:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Perratzaile lana. Soldataz gain, jasotzen zituzten eskupekoak, abereen perra zaharrak... beraiendako izaten ziren. Abereen kaskoak traperoei saltzen zizkieten.

Transkripzioa
Ta hasi nitzan lenien. Bueno, ba, aprobau ein biher doula, ta "Bai". Hasi nitzen lanien, bixok, [bestioi] ta neu di-da, di-da, di-da lanien. Orduan hogeta bi urte neuken nik eta sasoia orduen edozer gauza eitteko! Ta han txaleta euken kamiño onduen berak, eta prismatikuekin bera eta uezaba ta kriau [urten biher euenori] begira egon zien lana zela eitten neuen, ezta? Ta nik ez neuken arduraik lana eitteko, di-da, di-da, di-da lanien. Hor hamaikek aldera etorri zan [urten biher euenori] ta beste lagunai esan [otsan]: "Enrique, ya me voy". "¿Cómo?", "Sí, ya hemos estado mirando de casa y a [Antonio] ya le ha gustado la forma de trabajar que tiene". Holaxe. Fan zan hori ta [esan osten]: "Ba mutil! Lasai ibili e! Lasai ibili! Badakitzu, [nerbixuak ez...] beti egoten ta holakuetan apurtxo bat, ezta? Ez nik asko [neukelako] nerbixorik. Nik baneuken nere [segidia], baneuken, ezta, baiña... bueno. "Bai, lasai ibili" ta fan zan. Hamabixetan isten eutsen lanari, hamabixak edo... ba, idixek perratzen [geunien] itxi ta bazkaittara

faten giñan. Ta gero ordu bixetan barriro hasten giñan, zeatik bixen bittartien, deskansau apurtxo baten ein ein biher izeten zan. Ta hamabixetan etorri zan beterinarixuori, esan eusten: "Bueno Bizente, ya le hemos visto trabajar y está bien, ya me gusta la forma de trabajar que tiene usted y eso y... Bueno, mire, estos hace diecisiete años que están trabajando conmigo, a estos les pago trece pesetas al día, a usted le voy a pagar doce pesetas". Nere artian "diferentzia edarra jak, [hik] zortzi ta honek hamabi". "Además --esan osten-- además la chatarra de las herraduras viejas y todo eso, para el trapero y eso, lo que cogen allí para ustedes, las propinas también para ustedes, el casco que recogen aquí también para ustedes". Oseake, guk kaskuak [kentzen...] danak isuskixaz batu gabien, eralgi ta zakuen sartzen geuen ta pagaten euskun "cuatro pesetas el kilo" traperuak.

1.49. Perratzaile kontuak

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/006
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:08:34. **Bukatu**: 00:09:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Albaitariak eskainitako soldata eta lan-baldintzak. Eskupekoak. Behin aitari 500 pta eman zizkionekoa: "Aitta, ferixara fan eta behirik ederrena ekarri".

Transkripzioa
- Bueno, ba holaxe, konforme geratu nitzan. Bueno, ba, gaiñera "el crin de los caballos" ta horreik ebaitten [gittun], ta horreik be erun eitten zittun brotxak-eta eitteko ta. Ba, propiñetan, ni hasi nitzen, ba, martixenien [...] inguruen hortxe, egun bat gorabehera hortxe, eta hartzen [gittuan] propiñak kaja baten ipintzen [gittuan] danak, ta zapatuetan kontau ta bestiek hartu ta eruten zittuan kaja de ahorrosera eta apuntau eitten zittuan. Eta Blanca bezperan atara ta partidu eitten [gittuen] ta: "Pues me tocó cuatrocientas ochenta pesetas cada uno eh, ¿qué te parece?". Orduan zer zan...! Ze diru zan ha, e?! Nik hareik hartu nittuen, cuatrocientas ochenta, beste hogei pezeta ifini, etorri nitzen etxera, ta etxien beti aitte, ba, ganau merketxuekin ibilli zan, [merketxuen...], ezta? Ta orduan bostehun pezetaaittik [eukozun] behirik onena [igual] orduen. Ta etorri ta esan [notsan] aittai: "Eiba bostehun pezeta aitta! Ta ferixara fan ta daonik behirik edarrena ekarri!". Ta holaxe ekarri geun behixa edarra. Ta holaxe, haintxe jarduten [geuen] gero.

1.50. Ferratzaile ogibidearen nondik norakoak

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/011

- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:19:05. **Bukatu**: 00:20:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Ferratzeak zenbat balio zuen. Ferra berriak noiz ipini behar izaten ziren. Gaur egun ere ferratzen jarraitzen du.

Transkripzioa
- Eta zuk badakizu, zenbat kobratzen zeben orduan perratzia?
- Pezetia, barrixa pezetia; bestia erriel bi.
- A! Erriel bi konpontzia.
- Bai. Zaharra, ona baeuen, erriel bi, ta bestela pezetia. Han Vittorixan danak barrixek, han ez zan begiketan, ra! kendu ta barrixe. Gero halaxe etorri eitten zien, gastauta edo, gero idixak [euezen...] ra! Kaskuak be edarrak eta euken be bai ta untzak sartzen zotsen, bueno!, ta josten zotsen ondo, ta perria aguantetan auen... bua! gastau arte. Bueno, gastau arte... Behin bi hillebete ta erdi ezkero, perrie kendu ta barrixa ipini bihar jako, zeatik kaskue hazi eitten jate, ta gero ez die ondo ibiltten.
- Eta kaskua zeukenian nolabait gaixotuta edo, zeuek eitten jatzuen kuria?
- Bai, bai, kurie bai, oin be hola eitten dotset nik. Hementxe daukat bisturixak [...] Hortxe [dau] bisturixak eta. Bai. Nik oin be, ba, behixa kojo daonien-eta berak etorten die ta hartu kotxien ta eruten naue, ein ta barriro kotxien etxera ekarten naue.

1.51. Errementari lanarekin noiz eta nola hasi zen

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/014
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:21:42. **Bukatu**: 00:22:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Bixentek baserria zuen eta errementari lana egiten hasi zen bertan: erremintak zorroztu, konpondu...

Transkripzioa
Eta emen Mondrauen noiz ipini ziñuan sutaixa? Hau ifintzia, ba, guk basarrixa eukaun emen ba ganauekin-da, or ibiltze giñan, sartzen nittuen lekuen olako lokaltxo bat preparau nauen, da asi nitzen nere kontura lanien, errementari lanian bai. Da gero ba andik ona etorri nitzan, da au ifini nauan, da orduan ba lan asko zan da or ni perratzaille ibili nitzen lekuko ori, mutiku ori, ori be ba Ugartenera o Ulgorrea sartu zan, da geo ba jentia neureana etortze zan geixena, da emen lan asko eoten zan gero, zea basarriko jenerua, osea basarriko erreminttie itte zan, goldak, burdixak, arreglau, dana, bueno, baserriko gauza dana.

1.52. Baserrirako beharrezkoak ziren tresnak eta lanak egiten zituen

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/026
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:33:21. **Bukatu**: 00:34:17
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Bixentek izan zuen lehenengo sutegian, baserriko tresnak egiten zituen: aizkorak zorroztu, mehetu... Garai hartan astoak ere perratzen ziren.

Transkripzioa
Orduan, dana basarriko lana auen, orduen etortzen zien kutxilluek eta horreik karnizeruek beste etxetik zorrozketako, ta axkorie ta horrek zorroztu, ta arreglau ta batien e axkorie sendo daolako meetu te aixoztu ta bueno, gauza asko! Ta gero errementie, beti errementtie eitten eoten nitzen, batek ez bada bestie beti etortzen zan da. Geo gaiñera astuek be asko perretan etorten zien, orduen astua zan ba basarrittik-eta etorten zien kalera astuekin, ta perra barik ezin leikien ibili.

1.53. Perratzeko erabiltzen ziren erremintak

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/027
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:34:17. **Bukatu**: 00:38:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Perratzeko erabiltzen ziren erremintak: tenazak, mailuka... Astoendako perrak beraiek egiten zituzten.

Transkripzioa
Eta ze erramintta erabiltzen ziñuen perratzeko? Emen daukat "el botiquín"; oneaz kaskua ebakitze otsien; orri tenazak deitze otsaun, tenazak; au pujamantia; au maillukia. Botikiñe emen daukat, au da desinfetante, betelin fenikó, au farmazian eoten da; ta orrek rie bisturixak, bat aunditxuaue, bestie txikitxuu da, segun. Bisturixa deiketa gotsen guk, erderaz da, baiña... Onek alde bixetan dauke zorrotza, ezta, da kaskue pujamantiaz apurtxo bat garbittu itten dotsau ganauei, ta gero ba norberak ikusi birau nun euki leikien min, ezta; igarri, jeneralmente igarri itten dotseu, da an artu te rra, rra, rra! oneaz kasku kentzen kentzen izten da, ta anketan da ba pusa daukan ero odola jatsixa daukan ero, onekin topate notsan. Da aura bisturixa ba onek ola nunbaitten ebai biadanien, ba orpuen ero pusa barauko, ba orreati xssaa! ebai da atara ta itteko. Ta oneik die ultzak, onek die ganauen untzak, osea perrienak, oixe da. Ta onek rie

ba perrak, oiñ tamaiñue ba zeak kaskuek aunditxuauek txikitxuauek eoten die ta ba, perrie topau biajako bere tamaiñorako. Onek rie astuan perrak, bai, aston bat noizbaitten kojo eoten da ta orduantxe ifintteko, bestela oiñ ezta erabilten, e. Eta perra asko eitten ziñuzen? Astuendako? puff!, beti batonbat, beti egunero aston bat perretako, bai, bai, geuk inddakuek.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Dotrinaren garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:03:15. **Bukatu**: 00:04:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Bi eskola desberdin, bata neskentzat eta bestea mutilentzat. Bost-sei urterekin hasten ziren eskolan. Garrantzi gehien zuena, dotrina ikastea. Maisu-maistren inguruko gorabeherak. Eskola erdaraz eman zuten.

Transkripzioa
- Eskolan be, ni akordetan naz, han auzuen, ba, gaur haik daukie... haik gizonak daukie hirurogeta sei-zazpi urte, nik daukat berrogeta hamazortzi urte, ta danok alkarreaz ibiltten giñen eskolan. Eskolia danendako izeten zan bardiñe. Orduen ez euen graduaurik eta zerik. Batzuk alde baten eta bestiek bestaldin, orduen ez euen. Danak batera!
- Eta eskolia bertan auzuan zeuan?
- Auzuen euen. Auzuen euen neskandako ta mutillendako.
- Ta? Aparte?
- Aparte.
- Bi?
- Bi.
- Edo bertan tokixan...?
- Ez, ez, ez. Bi eskola euezen, "derecha-izquierda", ezker-eskuma, ta bat izeten zan neskatillandako ta bestie mutikuendako.
- Eta nun zeuan hau eskoliau? Oin be han dao...?
- Bueno, oin dao Zigorlan bat, mutikuek ibili giñen eskolie hutsik dao ta bestien dao zaharren tabernia. Han Zigorlako elixa parien dao etxe zahar bat ta hantxe. Ta, bueno, ba, hantxe ibili giñen ta hantxe ikesi geuen ikesi geuen apurra. Asko ez.
- Zenbat urtekin hasten zan orduan eskolan?
- Bost-sei urteaz, bost bat urtekin. Baiña orduen eskolian printzipalena izeten zan dotriñie ikestia. Orduan dotriñie ikesi biher zan ondo. Dotriñie. Bai, ni hartuta nao egurkada ederra dotriñiaatik.
- Bai, e?
- Bai. Bueno...! Abadiek etorten zien ta erueten niñuen elixara. Ta esaten oskuen: "Bueno...". Orduen, gaiñera, erderaz eitten zan. Maisuek be zien... zan falangista bat.
- Kanpotik etorrittakuak...

- Kanpotik etorrittakua, [erdal herrittik] etorrittakua ta gero euen, maistria euen Mondragoeko alabia, baiña zan margaritia: Maria Urbana [Juzgain]. Ta maisua zan Don [...], baiña zien frankista hutsak. Ta abadiek be erderaz. Ta eruten giñuen elixara ta esaten oskuen: "Bueno, ahora tenéis que hacer examen de conciencia y propuesta de enmienda". Asko genkixan guk zer zan! Bai, horrek hola izeten zien.

2.2. Jaunartzearen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/005
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:06:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Abadeak dotrina erdaraz ematen zuen. Jaunartzea sei urterekin. Handik pare bat urtera, Arrasateko parrokian konfirmazioa egin zuten.

Transkripzioa
-Ta abadiek be ba erderaz, ta eruten gindduen elixara ta esaten uskun “bueno, ahora tenéis que hacer propuesta de enmienda… examen de conciencia y propuesta de enmienda”. Ze asko gakixenan guk zer zan! Ba bai, horreik hola izeten zien.
-Hori danori izaten zan, gaiñera, jaunartzia eitteko, ez?
-Bai, aurretik! Aurretik. Ba gero ba…
-Txikixak…
-Gero ba, nik in neuen, xei urtekin in neuen jaunartzia.
-Ze izaten zian orduan, bi? Komunixo txikixa eta haundixa, edo…?
-Ez, ez, bat, bat, bat. Bakarra in geuen, bakarrik. Lelengo komunixue eta gero ba handik urte bire edo etorri zan obispue, ta gero izeten zan konfirmaziñua. Ta mutikuek barre eitten geuen, oin ahaztute dauket nik zelan zan… a bai, akordetan naz, ointxe, ointxe etorri jat, e, bai. Mondraueko parrokixan in gauen konfirmaziñua. Ta izeten zan… ”Yo te…” ez… zela zan be! A! “Obispo de Roma, como crees en Dios, aquí te conforma” ta emuten uskun kriston ostixie, ba bera ze, mosuen itten euen hola ta, ba bueno guk be ba hori kantau eitten gaixonan hori, “Obispo de Roma”, bai. Ba zien gauza desberdiñek zien orduen.
-Dotriñako kantuak be…
-Buuuuu eske danak izeten zien elixako kantuek! Elixako kantuak guk ikasi gittuen mordo bat.
-Ta gehixenak erderaz, ez?
-Danak, danak, danak, danak.

2.3. Hezkuntza gerraostean

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/006

- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:06:23. **Bukatu**: 00:08:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Eskolan bandera espainiarra zegoen eta egunean lau aldiz kutsu politiko handia zuten erdarazko kantak abestu behar izaten zituzten derrigorrez.

Transkripzioa
-Ta gero eskolan egoten zan e, banderie egoten zan, bandera españolie egoten zan. Ta goixien eskolara sartzeko banderie ipintten euen, orduen kantau itten zan, eskumeko eskua jasota kantau biher izeten geuen. Eguerdixen kentzeko be bai, ordubi tterdiretan ipintteko be bai, ta boste t'erdiretan urteteko be bai. Ta goxien kantetan zan, kantue kantetan zan "De pie camarada, siempre adelante, cantemos el himno de la juventud, España gigante... España gigante, nuestra juventud". Oin ahaztute dauket. Gero eguerdixen kantetan zan "Cara al sol".
-Oseake diferente.
-Diferente. Eguerdixen kantetan zan "Cara al sol con la camisa nueva" hori kantetan zan, ta gero illunkeran "Por Dios, la patria del rey, lucharon nuestros padres. Por Dios, por la patria del rey, lucharemos nosotros también. Todos juntos en campaña lucharemos en unión, defendiendo..." ta guk esaten gauen "defendiendo la bandera de... la bandera español..." ta guk esaten gauen "defendiendo la cazuela del puñetero arroz", ta maisuek entzuten euenien, egurre! Bai horreik e... banderie hiru bider ipintten zan. Gu...
-Ulertzen zenduen zuek zer kantatzen zenduen?
-Bai...! Guk zera gakixenan guk orduen. Buenooooo. Ta gu sekule ez giñen jarri pupitrien e, eskolan. Sekule be ez. Kaleko mutikuek egoten zien pupitrien, ta basarrikuek egoten giñen banko korridu baten. Erderaz ez gekixen guk! Guk ixe hamabi urtera arte erderaz ez gekixen. Guk eskolarik ez geuen ikesi, zelan ikesiko gauen ba euskeraz, erderaz ez gekixen ta beti erderaz esaten uskun ta. Ta goxien eskola aurretik partiru biher izeten zan esnia, kalera. Basarrittik ekarten zan esnia kalera ta partiru in biher izeten zan. Ta beti aillegetan giñen berandu. Ta maixuek esaten uskun "¿Dónde has estau?" ta "repartiendo las leches". Karo, marmikada esnie, ba, etxe askotan partiruten geuen. Guretako baeuken zentzune. "¿Cuántas clases de leche has traído pues?" ta emuten uskun egurre. "Pues de vaca" ta "Pues entonces no se dice las leches, se dice la leche". Guk zer gekixen ba, guk leku askotan itxi biher geuen /bigeuen/ ta guk "repartiendo las leches". Ta "las leches nos repartía él". Hori izeten zan, orduko zera. Ba, zan, konpletamente desberdiñe zan.

2.4. Gizartearen aldaketa

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/007
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:08:55. **Bukatu**: 00:09:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Bizimodua erabat aldatu da, eskola gaietan behintzat.

Transkripzioa
-Buuuuuu.
-Gaurko umiak eta orduko...
-Buenooo, bueno, bueno, bueno. Gaurko umiek, ba, daz iguel e... eskola maillan daz lotuau, konprometiru itten die, umetatik gehixau konprometiru dittue gehixau. Ba orduen izeten zan, ba, leiruten, eskribiruten ta ba zerok, lau reglak esaten jakona. Horretxek ikesi ezkero... oin basikie derrigor atara biher dozu /biozu/, orduen nik ez dauket ez basikarik eta ez ezer be. Ezer be ez. Zan desberdiñe, konpletamente desberdiñe zan.

2.5. Baserriko eta kaleko umeen arteko giroa

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/008
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:09:32. **Bukatu**: 00:12:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolara joatea derrigorrezkoa. Zigorrak. Baserritarrei burla egiten zieten. Baserriko eta kaleko umeen arteko hartu-emana, oso txarra izaten zen.

Transkripzioa
-Ta derrigor juan bihar ziñazien hara?
-Eskolara? Bai, bai, eskolara derrigor fan biher zan. Eta gero maixuek e zigorketan, ba, ba orduen kastigau. Etxien ezin esan ezer be, bestela etxien be egurre! Gu makiña bat bider zigortuta egonda gaz gu, eskolan e, gu itten egoten gintzen nire anai zaharrena, ni, ta auzokuek beste lau edo, ta izeten giñen rebeldiek. Guk gauken “la ley de la fuerza“, inddarra geuken guk, ta danei emuten gutsen egurre. Baiñe guri burla eitten uskuen ta orden izeten zan insultue, basarrittarrandako izeten zan ”caseros boronos”. Abarka-galtzakin. Sekule kuadernorik be ez, pizarrie kolkuen ta pizarriñe. Ta, ba, “caseros boronos”, ta ba guk hori ez geuen onartzen. Ta gero geuken “la ley de la fuerza”, egurre. Kaleko mutikuek harrapetan gittuenien, benga, egurre! Ta gu beti egoten giñen, kastigaute egoten giñen.
-Orduan relaziñua basarrittarren, edo basarriko eta kaleko umien artian...
-Txarra, txarra. Ta gero euen abade bat, ondion bizi da. Eta hak oinddio itten gindduen apartau gehixau, distingidu gehixau, itten gindduen. Eta gu egoten giñen marjinaute egoten giñen. Basarriko umiek giñen marjinauek. Ba izengo giñen, ba, dozena bat mutiko, ta beste dozena bat neskatilla edo. Eta beti marjinauta egoten giñen.
-Neskak be bai.
-Bai, bai, bai, bai, bai.
-Eta eskolan, zuen eskolan, kalekuak be bai egoten zian hor?
-Bai. Ba auzokuek, kalie, kale-etxiek be baeuzen ta han egoten zien. Baiñe horreik euzen, horreik zien e, “los niños mimaus“. Horreik e... Gu,

basarrikuok, aparte egoten giñen. Ta hori maistrioi orduen egoten zan e, “ahorro infantil”. Kartilla bat egoten zan, ta izeten zan kartilla berde bat gari, galburu bat, “con una espiga”. Enda, ba, bakotxak eruten auen ba durue edo pezetie, edo pezeta bi, edo, ba etxien ahal euena. Eta gure arrebia euen gaixorik, ta amak esan usten “bueno hau ipini Pilarren izenien. Emun maistriei ta esan ipintteko”. Ta nik ez dakit zenbat emungo usten e, bost pezeta, edo lau pezeta, edo gure auena. Ta niri ahaztu. Ta egun baten maistriei esan nutsen e “Urbana, yo tengo aquí el dinero de mi hermana para apuntar en la cartilla”. “Ah, sí, sí, ven”. Sartu nindduen eskolan ta zerrau auen atie giltziekin, hartu auen makillie, ta emun usten, baiña Jesukristonak. Ta esan usten “Que no se te vuelva a ocurrir llamarme a mi otra vez Urbana. Señorita Maria Urbana”. Ta ondion ez da urte asko hil dala. Bai, señorita Maria Urbana.
-Gero etxian kontatzen zenduezen horrek gauzok?
-Bai…! Etxien horreik ezin leikien kontau. “Bai, zerbait ingo ebien“, esaten euen. Etxekuek gure kontra egoten zien. Orduen zien maixuek-eta zien Jaungoikuek. Orduen maixue, abadie ta guardia zibille zittunan ainketan euenak. Beste danok ezer bez. Bai. Desberdiñe zan, konpletamente desberdiña.

2.6. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/010
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:16:55. **Bukatu**: 00:18:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Garro, Eneritz
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Urte sasoiaren arabera, jolas desberdinak egiten ziren. Garizuma garaian, txirikilarekin jolasten zen.

Transkripzioa
-B: Gero txirikiletan bebai.
-E1: Egoten zian ez jolas batzuk, e, urte sasoi batzuetan e, garizuman...
-B: Bai txirikilia izeten zan normalien garizuman. Txirikilie izeten da, e... ipintten die makillak holan, trabes, hemen makilla bat ipintten dozu. Txirikillie izeten zan, hauxe izeten zan. Makillak izeten zien oso egoki inddekuek. Orduen, hemen ipintxen zeuen makilla bat holan, gero beste bi makilla hartzen zittuzun eta bota bizeuen, makillie bota bizeuen, honeaz bota bizeuen, hau makilliau erdixen jo eta handikaldera, ta! Da hurrengokuek ha makillie jo eta jo bieeuen hau makilliau. Da honek makillie joten euenien, hau hola joten euenien, salto inddekuen, bestiek jo in biherreuen eta... txirikilletan izeten zan, oso politte izeten zan.
-E2: Ta jo ta gero, bille juan? Edo zelan zan?
-B: Ez, barrido bestiek hartu eta jo ein bihereuen. Zenbat eta denbora gehixau makillie dantzan ebillen, haxe izeten zan politte, eta bueno, e, gure, nire aittañarreban arreba bat, arreba batek bezinie hil iñ euen,

txirikilletan.
-E1: Hori da, arriskutsua be askotan...
-B: Bai, surrien jo euen eta odolustu ein zan. Bai, Atxabaltan, gure andrien etxekuetan zertu ein zan. Bai, ba arriskutsue, ba halaxe suertau zan, txirikilletan, bai.

2.7. 'Txibirrion da txibirrion' lo-kanta

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/012
- **Iraupena**: 0:00:28. **Hasi**: 00:19:32. **Bukatu**: 00:20:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Lo-kanta, "Txibirrion da txibirrion..."

Transkripzioa
Kantau, lo eraitteko izeten zan:

"Txibirrion da txibirrion,
errekaldian hiru gizon
txinotia ta pakotia,
mozolateiko pastoria.

Looooo..."

Ta, ba, hori kantetan jakon ta, birrittan edo hiru bider ta umia lukartu eitten zan.

2.8. Lo-kanta

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/013
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Lo-kanta, "Horra hor goiko..."

Transkripzioa
"Horra hor goiko hareztitxo baten
Kukuak umiak egin dittu aurten.
Kukuak egin [amibittak] jan
Huraxe [ere] kukuaren zoritxarra zan.

Looooo..."

Ta, ba, hola izeten zien kantuak. Bai.

2.9. Axelko eta Otsoko

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/014
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:21:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Ipuinak. Axelko eta Otsoko.

Transkripzioa
- Kantu askotan agertzen dira animalixak, ez?
- Bai, bai. Ta gero, ipuiñek. Ya haunditxuau eitten zienien, ba, ipuiñek esaten zien. Axelko ta Otsoko ta... Honi be kantetan... honi be esaten notsen, e? Bai.
- Bai? Ta badakazu goguan?
- Bai. Ba, porejenplo, hori umiai asko kontaten jakon Axelkona ta Otsokona. Axelkok euken, ba, afixan euken umiek. Ta Otsoko fan zan ta esan otsen, behetik esaten eutsen: "Axelko, zenbat ume daukek?", ta "Bost". "Botaidek bat", ta "Eeez". "Botaidek bat, arbolia botako dostat bestela buztanakin", ta "Ezetz!". Ta bestiek buztanakin joten otsen arbolie tiki-taka, tiki-taka joten otsen arbolie, ta bota eutsen ume bat. Ta jan euen umioi. "Edarra jeuan ta botaidek beste bat", "Eez". Ta bueno, holan, banan-banan ume danak jan [eutsen]. Ta gero, ba, Otsokuoi fan zan errekara, egarrixa euken, ta fan zan errekara ta eran euen ure. Bixen bittartien fan zan Axelko ta tripie ebai ta atara otsen umie tripa barrutik, kargau otsen harrixekin. Ta itzartu zanien Otsokuoi, ba, egarrixa eukela; ure eraten hasi ta itto zan errekan. Ta gero esaten zan: hori hola bazan, sartu [zaille] kalabazan, ta urten daixela Vittorixako plazan. Horrek izeten zien ipuiñek. Holako ipuiñek egoten zien.

2.10. Umeekin jolasteko abesten zen kanta

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/015
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:21:48. **Bukatu**: 00:22:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umea altzoan jarrita abesten zen kanta: "Arre, arre mandako...".

Transkripzioa
- Ta gero haunditxuauek eitten zienien, ba, umiek hartzen zien altzuen, ta, ba, hor, bi-hiru urteaz "Arre-arre mandako". Hori jakingozue zeuek be.
- Ia kantau, herri bakoitzian diferente esaten da ta.
- Hori kentetan zan: "Arre-arre mandako, bihar Tolosarako. Handik zer ekarriko? Zapata ta gerriko. Zeiñendako?" Ta, ba, "Joxendako!" Ta beinga barriro! Horrek kantetan zien, horrek kantuok.

2.11. Umetako kantak

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/016
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:22:20. **Bukatu**: 00:22:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Domu Santu bezperan kantatzen zen abestia: "Txingilin txingilin mañe..."

Transkripzioa
Gero, ba, porejenplo, oin Domu Santu datoz, ta oin Domu Santutan guk kantetan geuen, Domu Santu bezperetan kantetan geuen:

"Txingilin, txingilin mañe,
Bixer Santamaiñe,
etzi Domu Santu,
umiek zuluen sartu.
Ama negarrez,
aitte dolorez,
abadie kantuen,
umie zuluen!"

Ta benga! Horrek izeten zien orduko... orduko kantuek holakotxiek izeten zien.

2.12. Amandre-gorringoa

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/038
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:44:50. **Bukatu**: 00:45:30

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Fauna » Natura » Basoko animaliak » Zomorroak
- **Laburpena**: Amandre-gorringoarekin egiten zen jolas-kanta.

Transkripzioa
- Eta maluekin-eta zeoze?
- Maluekin euen amandre-gorringo. Horreik, erderaz ez dakit zela esaten jakuen.
- "Mariquitas"?
- Bai, "mariquitas". Hori. Ba, hartzen zan eskuen ta "Amandre-gorringo, eurixa noix eingo, gaur eurixe, bixer euzkixe". Ta gero putz eitten jakon, ta nora faten zan, putz eitten zan ta ha denporie ein biher euela. Bai, bai, amandre-gorringokin. Hareikin be ibiltzen giñan.

2.13. Lo-kanta

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/039
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:45:30. **Bukatu**: 00:46:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Lo-kanta. "Lua, lua, txutxulun bebe...".

Transkripzioa
- Lo eragitteko ta... "Obabatxua lo ta lo" kanturen bat...?
- Bazan. Hori be bai, ta beste bat zan:

"Lua, lua txutxulun bebe
Lua, lua, potxolo.
Lua..."

Oin nik ahaztuta dauket! "Lua, lua, txutxulun bebe, lua, lua, potxolo". Oin ahaztuta dauket. "Lua, lua, masusta" be bai.
- "Lua, lua, masusta. Aita gure Gasteizen da, ama..."
- "...mandoan hartuta". Hori da! Hori da!
- "Aita gureak diru asko du..."
- "...diru asko du, ama bidean salduta". Bai, bai. Oin neuk be ahaztuta dauket oin gauza asko.

2.14. Lo-kanta

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/040
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:46:29. **Bukatu**: 00:46:50

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Txikitxo polit hori....".

Transkripzioa
- "Lotxua lo ta lo, lotxo engaiñadoria"...
- Ez. Ez naz akordetan horreaz.
- "Txikitxu polit hori"?
- "... zer duzu negarrez. Amak tabernarako dirurik eman ez". Hori?
- Ez.
- Ez, beste zeren bat be egongo da hor.

2.15. Gaztainak erretzen zirenean abesten zen kanta

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/045
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:50:37. **Bukatu**: 00:50:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Gaztainak erretzen zirenean abesten zen kanta: "Saldia eta gaztaiña jaten nuanian...".

Transkripzioa
- Janarixekin-eta kanturik egoten zan? Sagarrak heltzen ziranian, edo sagar erriak edo...
- Ez, ez. Gaztaiña-jana, gaztaiñak erretzen zienien, orduan: "Saldia ta gaztaiñak jaten nuanian, uzkerra purru-purru basora bidian". Hori izeten zan orduko kantziñua.

2.16. Urteberri Eguneko esaera

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/046
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:50:58. **Bukatu**: 00:51:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Urteberri Egunarekin lotutako esaera.

Transkripzioa
- Eta jaixekin-eta, beste jai batzuetan, urtebarri egunian edo gabon egunian edo, kanturik?
- Elixako kantuak.

- Eta besterik? Holan, euskeraz, "urtebarri, barri..."
- Bai. "Urtebarri, barri, zoruek be igerri". Bai, horreik be egoten zien, ezta? Baiña normalien elixako kantuak. Elixiek euken orduan inddarra, elixiek.
- Eta hau, kantatzen hasi zaran hau, zelan zan?
- "Urtebarri, barri, zoruek be igarri". Klaro...
- Ez zeuan jarraiketan?
- Ez zeuan jarraiketan. "Urtebarri, zoruek be igarri", esaerie da, ta hori kantetan [zan] "Urtebarri, barri, zoruek be igerri", zeatik eze ya egune apur-apurtxo bat luzeketan hasten da. Eta, bueno, ya igerten da, diferenzia txikitxo bat igerten da.

2.17. "Txikitxo polit hori..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Otxoa Abarrategi, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-002/012
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:14:40. **Bukatu**: 00:15:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Txikitxo polit hori..." kanta.

Transkripzioa
Besuen hartuta, gaiñera, hobeto kantetan da, e? Umie besuen dozule emozionau eitten zara.

"Txikitxo polit hori, zeu nere laztana,
katiatu ninddazun libria nintzana.
Libriak libre dira, zu ta ni katigu,
biok biziko gera zuk gura badezu. "

Laztantxo bat emon ta lo. "Ein lo, e? Lo, lo", ta umie lukartu eitten da, e! Ointxe be bai, e! Hay que ver! Hori kantuori asko gustetan jakue.

2.18. "Atxia motxia.."

- **Hizlaria(k)**: Otxoa Abarrategi, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-002/014
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:15:44. **Bukatu**: 00:16:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Atxia motxia ..." umeekin egiteko jolasa.

Transkripzioa
- Umiekin jolas asko eitten auen gurien amak. Neuk be bai.
- Eta zelan da hori?
- Holaxe atzamarrak ipiñi: "Atxi, motxin, pi..." Oin be gurien txikiñek

egundoko barriek eitten dittu.

"Atxien, motxien, pirulin pan,
nere semie errotan.
Errota txikiñien klin-klan.
Botikario, kalendario,
hemen etxien zenbat hatz?
Bost hatz!"

Eta ebatu eitten jako eskutik. Ta gero berai, umiai, preguntau biher jako --gurien txikitxue [da Jon], ta--: "Kosk ala min?" "Kosk" esaten badau, klak! Hola joten da. Ta!, fuerte, e? Ta aiii! Egundoko txilixue igual. Ta "min" esaten badau, ba, ta! holaxen ein. Ta hori, ba, asko eitten gauen umien artien.

2.19. Ume-kanta ezaguna

- **Hizlaria(k)**: Otxoa Abarrategi, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-002/025
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:28:15. **Bukatu**: 00:28:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Joxe narras..."

Transkripzioa
"Joxe Narrasek dauko dendia beteta,
sagar ustelez dana beteta hantxe egoten da.
Harek saldu orduko topauko dau andria.
Kostako xako hareri kentzen ta zerbait ein [biharko da]."

Holakuek be amak kantetan eutsen, e?

2.20. "Andra Josepa tronpeta" kanta

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Argarate, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-003/006
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:06:40. **Bukatu**: 00:07:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Andra Josepa tronpeta" kanta.

Transkripzioa
Andra Joxepa tronpetan,
Kristoren zoragarri

Jarri belaunbiko.
Gure ortuan zer dago?
Azaburua loratzen.
Aittetxo, amatxo,
urra, urra Pepetxo.
A la kinkiñera, a la samurrera
(nere auzoko andra bati esaten jakon)
Joxepa Etxebarriko, jira beste aldera!

2.21. "Haurtxo txikia narru gorrian..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gonzalez, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-003/011
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:14:05. **Bukatu**: 00:15:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- **Laburpena**: "Haurtxo txikia narru gorrian..." kanta.

Transkripzioa
Haurtxo txikia, narru gorrian
hotzitzen ere ez zera
amoriuak ekarri zaitu
zeru goitikan lurrera.
Jangoikuaren semea zera
Nola litzake bestela?
Belen aldeko artzai guztiak
datoz zu adoratzera.

Manuel txikia kontentuz dago,
txit aingeru asko juntatzen zaio
Manuel txikia kontentuz dago
txit aingeru asko juntatzen zaio (bis).

2.22. "Txikitxo polit hori" kanta

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Argarate, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-003/015
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:17:20. **Bukatu**: 00:17:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umetako kanta. "Txikitxo polit hori...".

Transkripzioa
- Eta zuk, Bixenta, besterik holan... ba, umia lotara eruaten zanian edo?
- Banakixen nik holakuek, baiña...

Txikitxo polit hori,
ez lorik egin basuan,
otsuak jan ez zaittezen
ardia zeralakuan.

2.23. `Markesaren alaba´ kanta

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Argarate, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-003/019
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:23:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: `Markesaren alaba´ kanta ezaguna.

Transkripzioa
1.Markesaren alaba
interesatua
marineruarekin
enamoratua.
Deskubritu gaberik
euren sekretua
amoriua zeukan
barrenan sartua.

Hala disponiturik
bixek...

Hemen borraute dauko.

Hala disponiturik
ziraden... alkarrekin...

2. (...)
alkarren artian.
Ezkonduko zirala
hurrengo urtian.
Eskolak ikasteko
bien bitartian
beraren herritikan
guztiz apartian.

3.Hala disponiturik
jarri zian biak
kartaz entenditzeko
alkarren berriak.
Formalidadiakin

jartzeko egiak
baiña etziran lo egon
amaren begiak.

4.Ezin egon zan ama
hitz hori sufritzen,
berihala hasi zan
kartak detenitzen,
intentzio haundiagoaz
ezkontza galdutzen;
Juanitak halakorik
ez zuen pentsatzen.

5.Amaren malizia
korreora juan da
Antonio hil zala
egin zuen karta;
Juanitaren tristura
maitia izanda
engaiñatu du beste
gezur bat esanda.

6.Amak esaten dio
Juanita neria
galdu da diotenez
Antonio Maria
nik bilatuko dizut
beste bat hobia
maiorazko, interes
askoren jabia.

7.Denpora kunpliturik
galaia abian
zer pasatu ote zan
haren memorian
kartarik hartu gabe
joan dan aspaldian
inozente sartu zan
jaio zan herrian.

8.Hau da lehendabiziko
esan zenduena.
Zer da musikarekin
onratzen dutena?
Markesaren alaba
kalian barrena
esposariua zala
hark bihar zuena.

9.Desmaiaturikan egin
zuan ordubete
gero nobia eske
hitz bi egin arte
inguratu zitzaion
makina bat jente
bigarren ordureko

hil da derrepente.

10.Gaba pasatu eta
hurrengo goizian
entierrua zuen
bigarren klasian.
Markesaren alaba
guzien atzian;
Zer pena izango zan
haren bihotzian?

Politta da hori, kantua.

2.24. "Binbili bonbolo" kanta abesten zion amak

- **Hizlaria(k)**: Zumelaga Ozaeta, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-003/021
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:25:15. **Bukatu**: 00:26:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Pedro umea zela, amak "Binbili bonbolo" abesten zion.

Transkripzioa
- Kantetan euen, amak kantetan osten niri:

"Binbilil, bonbolo,
Sendo lo
Itsua kantuan balego."

Ta beste bat:

"Binbili, bonbolo,
Sendo lo
Akerra Frantzian balego.
Akerrak kanta,
ardiak dantza,
ahuntzak danboliña jo!"

- Eta hori ze kantatzen zan, umiekin?
- Ba, umia nitzela kantetan auen.
- B: Ume txikixek ez, 4-5 urtekuek edo...

2.25. `Itsasoan laino dago´ kanta

- **Hizlaria(k)**: Zumelaga Ozaeta, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref**: ARR-003/022
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:26:25. **Bukatu**: 00:27:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: `Itsasoan laino dago´ kanta.

Transkripzioa
- Eta hori be bai:

Itsasoan laiño dago
Baionako barraraiño.
Nik zu zaitut maitiago
arraintxuak ura baiño.
Nik zu zaitut maitiago
txoriak bere umiak baiño.

Zure oroitz aita dago
laiñopian barruraiño
Nik zu zaitut maitiago
txoriak bere umiak baiño.
Nik zu zaitut maitiago
arraintxuak ura baiño.

2.26. "Txikitxo polit hori..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Argarate, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-003/048
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 01:01:07. **Bukatu**: 01:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Txikitxo polit hori..." kanta.

Transkripzioa
Txikitxo polit hori,
ez lorik egin basuan,
otsuak jan ez zaittezen
ardia zeralakuan.

Salamankara nuala
Bidian nuan pentsatu
abade tunante baiño
hobako nuela ezkondu.

Ezkondu nintzan ezkondu,
bai neri ondo damutu
fraka beltxian hari zuria
sekulan ez zan faltatu.

- Oso politta. Eta hori etxian kantatzen zetsuen zuri?
- Etxien amak.
- Amak?
- Kunan umiei eraitteko.
- Lo-eraittekua zan orduan?
- Bai.

2.27. "Ume txikia negarrez dago..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Argarate, Bixenta; Pagoaga Gonzalez, Bixenta; Zumelaga Ozaeta, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-004/001
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Ume txikia negarrez dago..." kanta abesten du Pedrok.

Transkripzioa
Ume txikia negarrez dago
ama emazu titia
amak emango titi goxua
lo egiteko gustora.

Lo egiteko gustora eta
ama lanian dabilla
Aita gaiztua tabernan dago
pikaro jokalaria.

- Eta hori be lo-eraittekua zan?
- Bai, lo-eraitteko kantua zan.
- Eta hori zeiñi ikasi zetsazun zuk?
- Hori amak kantetan auen.
- Amak hori be bai?
- Bai.

2.28. `Arre, arre mandako´ kanta

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Argarate, Bixenta; Pagoaga Gonzalez, Bixenta; Zumelaga Ozaeta, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-004/003
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:02:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: `Arre, arre mandako´ kanta ezaguna.

Transkripzioa
- Eta gero, beste kantu batzuk egoten ziran, ba, umia hanka-gaiñian edo altzuan edo holan...
- Egongo zien, egongo zien, baiña ni gaur por gaur ez naz akordetan.
- "Arre, arre, mandako" ta...
- B: "... bixer Tolosarako, etzi Panplonarako. Handik zer ekarriko? Zapata ta gerriko."
- Orduan akordatzen zarie...
- B: Amak kantetan oskun:

Arre, arre, mandako,
bixer Tolosarako
etzi Panplonarako.
Handik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko.

- Norentzako? Ez zan galdetzen holan?
- B: Norendako, aittendako.

2.29. "Loa loa txuntxulun berde..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Arregi, Modesta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-005/005
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:05:25. **Bukatu**: 00:06:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Loa loa txuntxulun berde..." kanta.

Transkripzioa
- Ta umiek negar eitten auenien eta, ez zotsen kantetan ezebez?
- Bai.
- Zer?
- Ai ama! Oin ez dakit... "Loa, loa txuntxulun berde" be kantetan gutsen.
- Eta zelan zan, ba?
- "Loa, loa txuntxulun berde, loa, loa, masusta".
- Ta ya está?
- Ez dakitt, ya ahaztute dauket. "...txuntxulun berde,. Loa, loa, masusta. Lo [eirazu], haurra...", ba, hortiik... Antzera.

2.30. "Atzamar txikitxo hori..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Arregi, Modesta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-005/006

- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:06:15. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Atzamar txikitxo hori, punta behatz hori, danen artian txikiña dek hori..." kanta.

Transkripzioa
- Gero, eskuekin-eta umiei eitten jakon jolasik? Holan, eskutxuekin-eta…?
- Bai. Eskutxuekin:

Atzamar txikitxu hori, punta behatz hori,
danen artien txikiña dek hori.

Bigarrentxu hori, punta behatz hori,
beste guztien aldien nagie dek hori.

Hirugarrentxu hori, punta behatz hori,
beste guztien aldien luzea dek hori.

Laugarrentxu hori, punta behatz hori,
beste guztien artien bizkorra dek hori.

Bosgarrentxu hori, punta behatz hori,
beste guztien artien lodia dek hori.

2.31. "Arre arre mandako..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Arregi, Modesta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-005/007
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:07:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Arre arre mandako..." kanta.

Transkripzioa
- Ta altzuen hartu ezkero umetxon bat?
- Ba, kantetan gotsen. Oin me he quedao en blanco. Etxoiñein apur bat.
- "Arre, arre mandako"?
- "Arre, arre mandako" be bai. "… bixar Tolosarako, etzi Panplonarako. Handik zer ekarriko? Zapata ta gerriko. Zeiñendako?" Ba, izena ze esaten gaixonan.

2.32. Inuxente eguneko esaera

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Arregi, Modesta

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-005/018
- **Iraupena**: 0:00:15. **Hasi**: 00:16:30. **Bukatu**: 00:16:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: Inuxente eguna. "Inuxente, babalora..."

Transkripzioa
- Ta, gero, Iñuxente egunian ta? [...]
- Bai, Inuxentiek-eta bai.
- Zelan?
- Ointxe letxe, aldrebeskerixan bat erain ta... Ta gero: "Iñuzente, babalora, txakurren buztana jira gora" esan ta aurrera!

2.33. "Atzamar txikitxo hori" kanta

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Arregi, Modesta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-005/032
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:27:35. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Atzamar txikitxo hori, punta behatz hori, danen artian txikiña dek hori" kanta.

Transkripzioa
- Ha lehen eskuekin ein dozuna eingo dozu barriro?
- Zein?
- Atzamartxuena.
- Bai.

Atzamartxu hori, punta behatz hori,
danen aldian txikiña dek hori.

Bigarrentxu hori, punta behatz hori,
beste guztien aldien alperra dek hori.

Hirugarrentxu hori, punta behatz hori,
beste guztien artien luzia dek hori.

Laugarrentxu hori, punta behatz hori,
beste guztien artien bizkorra dek hori.

Bosgarrentxu hori, punta behatz hori,
beste guztien artien lodia dek hori.

2.34. Kalabazaren eta mandoaren ipuina

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/015
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:28:50. **Bukatu**: 00:31:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Aita oso ipuin-kontalaria zen. Batzuk berak asmatzen zituen. Kalabazaren eta Astoaren ipuina kontatzen du.

Transkripzioa
- Ta hori. Ta amandriena... bueno! nik rekuerdo bat dauket oso ona amandriena be. Ta gero aitte ipuinkontalarixe. Hak asmetan zittuen ipuiñetan-ta. Ta adurra darixola egoten giñen gu haren ipuiñekin. Oso gaztaro politte. Ipuiñak? Ba, berak asmetan zittuen hak.
- Gogoratzen dozu, holan, ipuiñen bat?
- Bueno, ba, ipuiñek... ipuiñek, bai, gogoratu... batenbat igual gogoratuko naz ni... Ba, esaten oskuen bat, adibidez -bat kontetaarren, e-:

Juaten da gizon bat ferixara hamen Arrasatera -Arrasaten ferixia eitten zan ostiraletan ta-, juaten da gizon bat eta han egozan kalabaza haundi batzuk egozan ferixan. Batek saltzen euken. Ta basarrittar bat, han mendixen bizi zana, esaten otse: "Hi, horrek zer dittuk, ba?", "Horreik? Horreik, joe, horreik manduen arrautzak dittuk, moteil! Hik ez dakik, ala?". "Manduen arrautzak?", ta "Bai, bai, bai, manduen arrautzak". Ta "Bueno, ta horrek ze?", "Hortik mandokumiek urteten jok". "Zela urtengo jok, ba, mandokumiek?", "Baietz, ba! Ein eik probia! Total, bost duro besterik ez jok balixo". Orduen bost duro diru asko ei zan. "Bueno, ba", erosten dau. "Hik hartu ta ipini otzarapeian eta hamendik hamabost egunero seguru mandokumiek urtengo dostana [...]". Bueno. Hartzen dau besapeien zeroi, kalabazioi, ta badoia etxerutza. Ta etxera [juaterakuan], baserrixan, izugarrizko aldatza ei eukan, ta eurixe eindda ta laban samar. Ta badoia aldatzian, bastante gora doiela, laban eitten dau gizonorrek, urteten dotso kalabaziorrek beso azpittik ta "Aiba!", han doie "tan-ta-tan", goittik behera, "tan-taun-taun"... "plausta!" Sasira. Sasixen erbixe lo. Urteten dau erbixorrek bere belarrixok tente dittula, hango ariñeketie! Ta "Eneee! Akabo nire mandokumie! Putx! Putx! Putx!" esaten otsen, baiña mandokumiek ihes in´tsan.

Holako kontuek-eta bai.
- Politta.
- Bueno...
- Eta honek berak asmautakuak ziran?
- Berak asmautakuek horrek. Eta beste... Zer esango dotsut? "Gaur ikusi dot txori bat, baiñe ze politte zan! Hurrengo hona etorten bada, harrapau bihar dot. Buru bi euken: bat hola begire ta bestie hola. Buru biko txorixe". Ta guk siñistu! Siñistu, baiña! Ta holako zelebrekerixak eta... Betik holakotxe zerbaitzuk esaten.

2.35. Gaztetan dantzara Aretxabaletara, eta Garizuman txirikiletan

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/017
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:32:40. **Bukatu**: 00:36:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
  Aisia » Kultura » Dantza
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Gazte denboran, igandetan, Aretxabaletara joaten ziren, dantzara. Baina Garizuman ez zen ezer egoten, ez musikarik, ez ezer. Eta Garizuman Txirikiletan egiten zuten. Txirikiletan zelan jokatzen zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Gero Garizuman, ba, txirikillatan eitten gendun. Txirikillatan jakingo dozu, ezta, zer dan?
- Ez, nik ez.
- Txirikillatan? Joño, ba, hori da Garizumako jolas bat. Garizuman orduen santu guztiek tapetan zien eleixan-ta be. Eta gero domeketan ez zan egoten soiñurik eta ezebe Aretxabaletan. Bestela gu Aretxabaletara jasten giñen, ya haunditxuauekj einddekuen, e! Bai. Hor, hamabost-hamasei urtekin hasten giñen aretxabaletara jeisten, ta han egoten zan, ba, musikie, bandie be bai, bandie be baeuan, ta gero gramolie. Gramolie esaten zana ipintten euen eta bestela, ba, zera, soiñua. Soiñue-joten zan. Eta holan, ba, Aretxabaletan fiesta politta eitten zan domeketan. Ta domeka aurretik edo domeketan zerian... Gu mutikotan-ta , ba, jolasoi izeten zan txirikillatan. Ta txirikillatan da Garizumako jolasa. Ta zer dan? Ba, esplikauko dotsuet, gura badozue, zer dan. Izeten da holako... Txirikillie izeten da zotz bat; zotz bat, ba, makilla-punta bat moduan, holako luzerakua izengo da, eta puntatxo bana ataraten jakon han. Eta diametrue, ba, hogeta bost bat milimetro edo holako zer bat. Hau baiño sendotxuaua. Bai. Izeten zan holakua. Hori da txirikillia. Ta gero mazetia, beste makilla bat lodixagua, holako lodi bat eta holako luzera bat daukena, ha hartzen zan ta txirikillie botatzen zan gora ta jo eta ha juaten zan urrin. Eta gero, han eleix onduen geuken holako orma bat, eta han orman ipintten zan zer bat, makilla bat batetik bestera. Eta hari deiketan jakon torria. Ta torre barrura sartu biher zan txirikillie. Orduan, torre ondotik hartu ta botaten zan txirikillia aidien. Eta hortarako eitten zan talde bat eitten zan. Ta taldiek eitten euen, jokaketan euen, ba, txokolatie edo bestela, ba, txokolaterik ez baeuen... Ya txokolatie haunditxuauek eraten euen, e! Baiña bestiek, gu ondio mutiko txikixek gitzela, izeten zan honrie. Ta [zera] eitten zan: ba, juntetan bagitzen hamar, ba, bost... Osea, bi [kontetan] zien, bik lehenengo: "Hi...". Batek bestien kontra ein biher euen, ezta? Bueno, ba, batek eitten euen bere ekipua, bost hartzen zittuen; ta bestiek beste bost. Ta ekipo batek bestien kontra eitten euen. Ta txirikillia horrek, txirikillia hartu ta torre ondotik hartu ta hola botaten zan, ta, ba, batzuk urrin botaten euen txirikillia. Batzuk arte ona eukien; beste batzuk, ba, ez hain urrin. Eta gero, ha botaten zan lekutik hartu ta eskuz harrike sartu biher zan han torre barruen. Hori zan jokua. Eta txirikillia hartu ta bota eta aidien hartzen baeuen --holan edo baitte txaketiekin-edo hartu zeikezun

hola aidien--, orduan hamar punto eukan harek. Hamar punto. Ta, bestela, torrian sartzen bazan, bost. Barrure. Ta bost, hamar, hamabost, hogei... Ehun arte izeten zan. Ehunekin ya amaitzen zan. E? Aldiko bost kontetan zien, baiña aidien hartzen euenak hamar punto euken. Ta holan izeten zan jokue. Hori da txirikilletan. Eitten zan Garizuman.
- Garizuman bakarik...
- Garizuman bakarrik. Hori Garizumako jolasa zan.

2.36. "Libiri ta labero, kaka ganauzaiñe" kanta

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/022
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:40:15. **Bukatu**: 00:41:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Ume bat behizain zebilela, beste baten sorora alde egiten bazion, hauxe kantatzen zioten: "Libiri ta labero, kaka ganauzaiñe...".

Transkripzioa
- Bai, bai, umetakuek. Ba, han ibiltten zan, ba, neskatilla-mutikuek beti ganau-zain ibiltten zien han. Auzo bateko, etxe bateko, gaunauek, ba, beste solora pasetan zien igual, ta zera, ta mutikuei orduen burla eitten eutsien. Eta, orduan, ba, kantu bat, hauxe dakit nik orduan kantetan zana han behintzat. Ganau-zaiñoi, han akordau barik dauela-edo, bestiekin distraiduta dauela igual, behixe juaten jakon, ba, bere terrenotik bestien solora igual, bestien arto-solora igual juaten zien behixok. Eta orduan kantau eitten otsien:

"Libiri tte labero,
kaka ganau-zaiñe
Uxarteko ganauek
artue gura aiñe"

2.37. Lua-lua txutxulunberde

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/023
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:41:15. **Bukatu**: 00:42:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Lua-lua txutxulunberde" kanta.

Transkripzioa
- Ta besterik? Holan, lo-kantak eta...
- Bai, bai. Gure zerien , gure amak-eta kantetan zittuen. Bat zan: "Lua, lua, txuntxulun berde, lua, lua, masusta. Aita guria... Gasteizen dago" edo. A! Bai: "Aita guria Gasteizen dago, ama manduan hartuta". Holako batzuk-eta bai.

2.38. "Atxia-motxia perolipan"

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/024
- **Iraupena**: 0:00:18. **Hasi**: 00:42:12. **Bukatu**: 00:42:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Atxia-motxia perolipan" kanta.

Transkripzioa
- Ta beste bat be... Aber... "Atara... begixe"...Itxoin, e! Ez, ya juanda dauket burutik. "Ikusi nuen erbixe, atara nutsen begixe..." ...
- Hori "Atxia-mutxia" ezta?
-
"Atxia-motxia, pirulin pan,
gure semia errotan
errota txikiñek klin eta klan
botikario,
kalendario,
kosk ala pit?"

Hori bat.
- Hori eitten zan eskuekin...
- Bai, hori da, bai, bai, eskuekin. Eskuekin uste dot eitten zala, bai.

2.39. Txilin-txilin maiña

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/033
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:56:55. **Bukatu**: 00:57:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Txilin-txilin maiña, bixar Santa Maiña, etzi Domu Santu, umia zuluan sartu, aitta dolorez, ama negarez, herriko apaiza diruaren pozez / errialan pozez (azkenengo zatia ez dauka garbi)

Transkripzioa
- Hau Salamanca-kua zan: "Txilin-txilin maiña, bixar Santa Maiña..."

- A! Bai!
Txilin-txilin maiña,
bixer Santa Maiña,
etzi Domu Santu,
umie zuluen sartu,
aitta dolorez,
ama negarrez,
herriko apaiza diruaren pozez.

Edo holako zerbait. "...errielan pozez", "errielan pozez" (azkenengo zatia ez dauka garbi).

2.40. "Salamancara nindoalarik, bidean nuen pentsatu"

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/034
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:57:35. **Bukatu**: 00:58:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Salamancara" kanta ezaguna.

Transkripzioa
- Eta gero honek jarraitzen dau: "Salamanca-ra baninddoala..."
- A, "bidean nuen pentsatu", hori?

Salamanca-ra nindoalarik,
bidean nuen pentsatu
estudiante tunante baiño
hobe nuela ezkondu.

Ezkondu ere ezkondu nintzan
baita ere ondo damutu
fraka beltzian hari txuria
sekulan ez zait faltatu.

2.41. Horra hor goiko hareztitxu baten

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/037
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:59:10. **Bukatu**: 00:59:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Horra hor goiko hareztitxu baten, kukuak umiak egin dittu aurten. Kukuak egin amilotxak jan, hau ere kukuaren zoritxarra zan.

Transkripzioa
- Eta hau? "Horra hor goiko..."
- "Horra hor goiko"... Hau ama zanak kantaten euen hau.

Horra hor goiko hareztitxo baten,
kukuak umiak egin ditu aurten.
Kukuak egin amillotxak jan,
hau ere kukuaren zoritxarra zan.

- Eta "Txibirrion ta txibirrion, errekaldian hiru gizon"...?
- Ez.
- "...txinotia ta pakotia..."
- Ezta.

2.42. Txalo, txalo, txalopin txalo

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/038
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:59:55. **Bukatu**: 01:00:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Txalo, txalo, txalopin txalo, katutxua mizpilla gaiñian dago, bidigarrua leixarrian, umiai ziriña bizkarrian.

Transkripzioa
- Eta txalo pin txalo-kuak? Txalo eittekuak?
- Bai, "Txalopin txalo", entzunda zerbait bai, baiña...

Txalo, txalo, txalopin txalo,
katutxua mizpilla gaiñian dago,
bidigarrua leixarrian,
umiai ziriña bizkarrian.

Edo "Pellori ziriña bizkarrian" edo bai, bai, izenak ipini ta...
- Eta "Hain urrin etxe pospola..."?
- Ezta.

2.43. Urtebarri barri

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/039
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 01:00:35. **Bukatu**: 01:01:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

- **Laburpena**: Urte barri barri, daukanak ez daukanari, nik ez daukat eta niri, neri emuten ez dostena, txarri belarri.

Transkripzioa
- Eta jaixetakuak? Gabonetan edo urte barri egunian edo...?
- Bai, jaixetakuek? Bueno, bai...
- Gabon egunian edo?
- Bai, gabon egunien-ta bai. "Urte barri" adibidez.

Urte barri barri,
daukanak ez daukenari,
nik ez daukat eta niri,
niri emuten ez dostena,
txarri belarri.

2.44. "Belengo portaleko ate zabaletan..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/041
- **Iraupena**: 0:00:13. **Hasi**: 01:01:32. **Bukatu**: 01:01:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- **Laburpena**: "Belengo portaleko ate zabaletan, Jesus laztana dago hotzak lastuetan".

Transkripzioa
- Ta gero:

Belengo portaleko ate zabaletan,
Jesus laztana dago hotzak lastuetan (biz)

- Hori be bai. Hori... hamenguek die horrek, e!

2.45. Umetako kanta

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/008
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:14:20. **Bukatu**: 00:15:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Ganadu-zain. "Lai labero" kanta.

Transkripzioa
- Eta ganau-zain ta, igual, bata zelai baten eta bestie bestaldera, ta "Lai labero".
- Zer da hori?
- "Lai labero"? Ba, kantu bat. Ez dakitzu?

"Lai labero,
dibiri txa labero,
nun da ganau zaiñe?
Ganaue laboretan
da eperra kantetan,
usue landetan"

Ba, ez dakit, igual izeten zan, ba, igual eukiko [...] Joxe edo Pedro edo izena, ta:
"Pedro Etxebarrikok kaka fraketan!".

Ta holakoxiek. Holakotxiek. Eske...
- Zeuek asmautako...
- Bai, bai. Ba, guk be baten bati ikasiko [gutsen] ta... Bai. Ta holaxe.

2.46. 'Atxia-motxia' jolasa eta kanta

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/011
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:18:25. **Bukatu**: 00:19:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: 'Atxia-motxia' jolasa eta kanta.

Transkripzioa
- Beste batzuk harri-launak. Harri-launak, ba, [...]. Eta bestie pote-poteka. Atxia-mutxia!
- Zelan zan hori?
- Hori? Holan, ifintzen [zotsun] atzamarrak, ezta? Hamar atzamar. Orduen, bestiek, ba, kuadrillan juntetan giñen, ifintzen [gittun] danok. Ta "atxie, mutxie...", bestiek, e? Zuk beste bati ein biher [eutsezun]; toketan jakonak, holan, txandan. Ta

"Atxie, mutxie, pirulin plan,
nere semie errotan,
errota txikiñien klin-klan.
Botikario, kalendario.
Hemen etxien zenbat hatz?
Hamar hatz.
Kosk ala pitz?"

Eta aguro erretirau ein biher [ittuzun], bestela ebaketan [baeutsun] bestiek "ta!". Eskuetatik obaketan eutsun. Ta aguro erretiraten [bazittuzun], ez

[eutsun] obaketan. "Da!" han obaketan baeutsuen, kosk ala pit... Ta zan "kosk" hau, "taka", ta "pit" buelta azalari, hola emon. Eta klaro, "kosk" hoba izeten zan "pit" be baiño, zeatik "pitek" bueltan min gehixao emoten auen ta.

2.47. 'Anbo-atoka' umetako jolasa, kanta

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/015
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:21:40. **Bukatu**: 00:25:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolas eta kanta: 'Anbo-atoka'.

Transkripzioa
- Bata bestiei anbo-atoka.
- Zelan da hori?
- Anbo-atoka... anbo-ato, ba, kuadrillie jarten gitzen, neska ta mutil igual. Ta alde batetik mutillek edo neskak edo holan. Ebatu ta: "Anbo-ato, matarile-rile-rile". Oin ahaztute daukot. "Anbo-ato, matarile-rile-ron". Ta bestie etorten zan handik honutze pausuek eiñaz, ta: "¿Qué quiere usted? Matarile-rile-rile. ¿Qué quiere usted? Matarile-rile-ron". Gero, ba: "Escoja usted. Matarile-rile-rile. Escoja usted. Matarile-rile-ron". Ta "Escojo la señorita" edo "el señorito--gehixen gustetan jakona-- matarile-rile-rile...". Ba, esaten euena. Ta gero, aber... "Escoja usted. Matarile", ta gero "Escojo la señorita no se qué" ta gero bestiek esaten eutsen: "Pues, aquí le entrego a su hija..." edo "a su no sé qué. Matarile-rile-rile". Ta gero ha entregetan eutsen bata bestiei, berak eskojidu euena, ta gero, holan, "al corro de las patatas" moduan, ez dakitzu? "Artalataiko" moduen ein ta ha entregau. Ta atzenien, ba, bakarra geraketan zan.

2.48. 'Artalataiko' umetako jolasa, kanta

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/016
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:25:10. **Bukatu**: 00:26:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umetako jolas eta kanta: 'Artalataiko'.

Transkripzioa
- A! "Artalataiko" beste bat da. "Artalataiko", holan, danai obatu... "Alabandaka" be bai.
- Ia, zelan da?

- "Artalataiko" zan alkarri obatu ta:

"Artalataiko, artalataiko,
artalataiko bolua.
Beria duala, beria duala
mundu guztiko jentia.
Artalarun andria
Soiñua jo ta dantzatu"

- Ba, holan. Guk...
- Ta horrek amaieria daka, baiña? Akordatzen zara osua?
- Guk? Guk eindakuak dira, guk eitten [gittuan] horrek.
- Zeuek asmautako kantuak dira?
- Asmaute... Guk... asmautekuek edo... Guk, holaxen, kuadrillan ikesi. Ba, ikesi, han bata bestiei.
- Akordatzen jatzu horren amaieria zein dan?
- Artalataikuana?
- Bai.
- "Beria duala, beria duala mundu guztiko jentia. Artalarun andria, soiñua jo ta dantzatu". Ta gero, ez dakit nik hor akabetan dan. Hortik aurrera ez naz akordetan.

2.49. 'Atxia-motxia' jolasa eta kanta III

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/018
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:27:35. **Bukatu**: 00:29:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Atxia-motxia.

Transkripzioa
- Ha zan ona ha!
- Hau, "atxia-motxia" bi kantau dozuz. Kantauko destazuz berriz osorik?
- Berriz?
- Bai, eskuekin eitten ziranak.
- Bueno, zuk...
- Zu lasai [...]
- Eskuak danak igual...
- Bixak igualak dira gitxi gorabehera, baiña kantu [...]
- Bai. Gauz bost lagun, ezta? Igual, korruen bost lagun. Ta, bueno, danak ifini eskuak. Ta bat, batek ein bihar dau, bueno: "Atxian, mutxian..." Ikusi eitten die eskuak?
- Bai, bai, bai. Berdin da.
- Bestiek eitten dau, e?

"Atxia, mutxian, pirulin plan,
nere semia errotan,
errota txikiñien klin-klan.
Botikario, kalendario.

Hemen etxien zenbat hatz?
Hamar hatz.

- Eta, orduen, aguro erretirau eskuek, e! Bestela, harrapetan baotsun, "Kosk ala pitz"? Eta, klaro, lehen esan dotsutena, "kosk" min gutxiago eitten da: "taka!". Ta "pit" azalari buelta. Eta [horrek] min eitten [zeuen] ta, gaiñera, ganauaz [...], e!
- Eta beste bat zeuan, ez?
- Bestia, zelan zan? A! Hori, klaro, leku baten kantetan... Ba, zuk modu baten kantetan [...]. Beste bat:

"Atxien motxien,
zesteran kotxien,
irrin-arran, kortatxo,
behin topau nuan erbitxo,
atara nutsan ezkerreko begi gorri-gorri-txo!"

- Ta orduen, ba, eskuek harrapetan! Bai. Eta honek, holan, kantuek eta erdi-kantuek eta... Buu!

2.50. Lo-kanta

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/019
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:29:20. **Bukatu**: 00:30:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Ume txikiak lokartzeko kantak.

Transkripzioa
- Ume txikixeri ze kantu edo ze eitten jakuen? Holan, lokartzeko ta ze izaten zan?
- Aii! Enee... Ahaztuta dauket.
- Honek, "obatxua lo ta lo..."
- Bai:
"Dingilin dango Mariña,
Betik honelan bagiña,
Betik honelan izaterako
Poltsia [dogu] guk ariña".

- Ta beste bat:

"Dingilin dangolo, Maridurango,
ez egin basuan lorik,
bestelan, barrez, [aixeritxuek] jango zau
bildotsa zarielakuen".
- Eta... Ni kantuen hasten nitzenien, koiñatuk esaten osten: "Faustina, umie, zu kantuen hasten zaranien, umiek negarrez hasten dia, ez dakitzu kantuan ta". Eta berak be ez zekixen, baiña [neri] gutxiao.

2.51. 'Tiriki tiki tauki' kanta

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/020
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:30:40. **Bukatu**: 00:32:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: 'Tiriki tiki tauki' kanta

Transkripzioa
- ... zelan da? A!

Tiriki tauki-tauki mailluaren hotsa
Hamalau hargin baiño hobe da arotza.

- Ta hori be luziaue da, baiñe... Klaro, [ahaztu]... "tiriki-tauki-tauki". Beste bat:

Tiriki-tauki-tauki urunok eralgi...

- "Urunek eralgi" zien, urune lehenao bahien eralgi eitten zan finketako [ogixa eitteko]. Bahia.

...urunok eralgi,
ontza bat txokolate hamalau atsori.

- Entendidu dozu?
- Eta horrek musikia zekan?
- Ba! Ke ba! Hori musikarik barik, hori "rist-rast" kantau ta aurrera!
- Oseake, "tiriki-tiki-tauki..."

...urunok eralgi.
Ontza bat txokolate hamalau atsori.

- Atsuek andra zaharrak zien. Oin, lehen, gero, umerik eitten ez zeuenak ziela, baiña bueno. "Hamalau atsori".

Hamalau atso eta hamalau fikara...

- "Fikarak" die tazak. "Fikara". Ta, klaro, handik:

...txokolatia atarateko bildurraz ikara.

- Ontza bat txokolate hamalau atsoi... hamalau atsoi [eitten] badotsezu... Hamalau atso [baeukien] ta hamalau fikara, baiñe ontza bat txokolateaz, ba...

Hamalau atso eta hamalau fikara,
txokolatia atarateko bildurraz ikara.

2.52. Errezitatutako kanta

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/021
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:32:05. **Bukatu**: 00:34:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Errezitatutako kanta.

Transkripzioa
- Aber:

Udabarria dator, masusta, masusta,
estimatuko nuke emango bazusta.

Udabarria juan ta negua etorri,
alborako laguna nahi nuke ekarri.

- Baiñe hori hola be ez da... Eske ahaztute deuket. A!

Aitak emango baleust hamar hamaseiko
ezkonduko nitzake udabarrirako.

Udabarria juan ta negua etorri,
alborako laguna nahi nuke ekarri.

- Baiña hori be ez da... Ez dot ondo kantetan! Ez jat ondo gogoratzen!
- Luziagua da?
- "Tiriki-tauki-tauki...". "Udabarria juan ta negua etorri..."... A! Ez, "Amak...", "Aitak emongo baleust --izengo da-- ...hamar hamaseiko --hor hasiko da, pentsetan dot--, ezkonduko nitzake udabarrirako".

Udabarria juan ta negua etorri,
alborako laguna nahi nuke ekarri.

- Baiña da luziaua. Luziaua da.
- Sekula entzun barik nekan. Nahiz eta luziagua izan, behintzat zatitxo hori, ba...
- Bai, luziaua da hori, luziaua da. "Ama" be ez dakit hor ez dan sartzen. Amak dirua euki ez ta gero aittei eskatu. Hor, hor... Lehenengo amai ta amak ez daukela, ta gero aittei eskatu. "Aitak...", "Amak..."...
- "... emon baleust"...
- Baiña gero: "aitak emango baleust hamar hamaseiko --"Hamar hamaseiko" ez dakit [...] ontzakuk edo ze izengo zien orduen-- ezkonduko nitzake udabarrirako".

Udabarria juan ta negua etorri,
alborako laguna nahi nuke ekarri.

- Baiñe ez dot dana... Hori, hori [...]...
- Zeoze falta da?
- Bai, hor falta die, edo erdixen, edo akaberan ta...

2.53. Santa Genoveva kanta

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/023
- **Iraupena**: 0:06:55. **Hasi**: 00:36:00. **Bukatu**: 00:42:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- **Laburpena**: Santa Genoveva kanta. Ez du ondo gogoratzen letra baina kantaren edukia azaltzen du.

Transkripzioa
- Eta hau, "Sta Genoveva", hasieria gogoratzen dozu, behintzat?
- Eske "Sta Genoveva"... Buff! Berba batzuk badakit, baiñe... Klaro, hori esaten euen historikue zala, e? Benetakue zala. Klaro, orduen danak benetakuek zien, e! Orduen danak benetakuek zien! Esaten [...]: "Bai, pasautakue da hori, holaxen zan". Orduen, ba, santuek eta, ba, eitten zien milagruek eta danak esistiduten auen orduen.

Sta Genoveva nolakua zan hastera nua kantatzen,
horretarako laguntasuna berari diot eskatzen.

Sta Genoveva sortzetikan zan dukesa baten alaba,
kondiarekin ezkondu eta juan zan [Frente Mozalara].

[Frente Mozala] palaziua deitzen [zaio] jauregi
Horra kondea suertatua juatia agintari,
eskubidea utzi zitzaion bere maiordomoari.

"Maiordomoa zan Golo. Eta hor be... ya ez naz akordetan. "Eskubidea utzi zitzaion bere maiordomoari". Itxi etsen bere andrie zainketako. Bere eskuetan geratu zan. Bera juan zan, ba, horra frente hortara. Tokau jakon fatie, fan ein biher zan ta --oso andra gaupie ei zan-- eta estaduen itxitte, e? Euen andrie, estaduen euen. Ba, Golok esan eutsen baietz, berak zaindduko euela" .

Baiña Golo zan atrebitua,
benetakotzat egiten dio pregunta akusatua.

"Ba, klaro, relaziñuek eskatu otsen eta markesak, andriek, negau ein etsen. Eta klaro, harek ikusten euen bere burue galdute euena, ha etorten zanien gizona, "honek kontauko jutsek". Eta klaro, andrie ezkutau ein biher euen norabait. Eta holan..."

- Eske hori kontetan ta beste bat igual akordetan jat, ta gero haren billa fango naz ta ez jata akordauko.

"Eta gero, beste kriau batzuk zertu zittuen: "Bueno, horrenbesteko bat pagauko dotsuet -orduko dirue--, ta hau hil ein bihar dozue", soldau batzuei, beste soldau batzuei Golok. Hori maiordomuek. Eta itxi eutsen maiordomuek, abisetan eutsen kondiorri andrie bide txarretan ebillela. Eta esan eutsen, ba, bestiek ezin euela sinistu. Ta, ba, baietz. Baietz. Ta firmetan eutsen ta, ba, kitto, hareaz ez zala akordetan ta ez dakit ze, ta bueno, emun eutsen, hiltteko orduen. Berak emun eutsen ordenie holan baebil, andrie hil zeixela, bere andrie. Eta Golok ein euen, hartu zittuen bi soldau eta hiltteko. Eta esan eutsen Golok: "Bueno, horren begixek ekarri bihar dostezue. Hil ta horren begixek ekarri bihar dostezue". Bestela, klaro, ez [euen] sinistuko ta. Eta ya basomortora eruen euen."

- Hori, basomorto... Oso politte zan, sentimentala zan, e!

"Eta basomortora erun auen, eta emuten otsien, ba, soldauoi pena haundixa emuten otsien hain andra guapia umetxuaz --umetxua be artien besuetan eroiela--. Hilttie oso pena haundixa emuten otsen. Alkarri begiketan ei eutsen ta hil, ta ezin hil, ezin ei euen hil. Ta hortaran, esan ei eutsien -ba, milagrue izan ei zan ha be--, hortan dabitzela: "Bai, gaur ezin geikek hil ta ez juau hil bihar", ta "Baiñe begixak eruteko esan joskuek, beronen begixek erueteko". Eta hortan dauzela, agertu zan ahuntze, ahuntze agertu zala. Milagrua han be. Eta esan ei eutsien, bueno, holaxen, ba..."

- Aiii... Que pena! Oso politte zan! Sentimena politte ta ez jat akordetan.

"Esan ei otsien, bueno, ba, ezetz, baiña juramentue eitteko, juramentue erain eutsen ez zala agertuko handik. Baekixala, baietz, bera han egongo zala, berak ez zittuela [galduko...]. Orduen, ahuntza hil euen. Ahuntzen begixek erun eutsien Goloi. Eta Golok, ba, sinistu euen, bueno, ba, hil euela. Hil euela, baiñe Sta Genoveva egon zan kueban, "en una cueva" umetxuorreaz. Eta beste ahuntz baten esniekin manteniduten zian, ahuntzen esniakin. Ahuntz bat faten [jakun], ta haritxi esnia batu ta ama-semiok bizi ziela ta, ba, ez dakit nik zelan biziko zian kobazuluen. Ta handik, etorri zanien zeretik, frentetik, bere kupuoi akabau euenien, etorri zanien, fan ei zien kazara. Baiña triste ei euen beti, triste gizonoi. Ta fan die kaballuokin, ba, "a cacería". Eta basomortue. Eta ikusi ei euen umetxo bat sartu zana kobara. "Ene ba!" Ta ha ez zala bitxua, ez dakitzu? Ez zala zera. Ha zala ume bat, pertsonia zala. Eta urten daue Sta Genoveva horrek eta, ba, klaro total... ba, "desconocida" ei euen, bera be ez ei euen emuten. Eta berak ezautu ei euen gizona. Gizonoi ezaute ei euen. Ta, ba, zelan edo zelan espliketan, baiña aber zelan ta zelan. Ta, ba, holaxe ta holaxe, ba, larrittu zienien edo [zerien] gizonai esan ta... Historixioi esan ei eutsien zelan. Ta zelako zerak, kalumniak ifini etsien berai eta bere gizona zelakue zan edo zein zan edo nora juan zan eta maiordomuek zelan zertu euen ta zer txarrien ifini euen. Ta, ba, zelan solduek, ta soldauei pena emun dotsiela hilttia ta zelan itxi zittuen. Bueno, ba, hartu, [itxurie], andrioi ta umioi ta erun ei zittuen etxera, bueno, palaziora. Ta Golo gero ez dakit, urketu ein euela, esei ein euela edo..."

- Baiña esaten doten moduen be ez, hori kantuen da oso politta. Baiña nik ahaztuta daukat. Ahaztuta, baiña nik ya, klaro...
- Hori amak kantatzen zeban?
- E?
- Amari ikasittakua?
- Hori amak. Ta "Markesaren alaba" be bai. Ta gehixau be bai. Ta "Markesaren alaba" oso konpleto-konpletue.

2.54. Kanta eta jolasak

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/026
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:44:15. **Bukatu**: 00:45:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Ume txikiei abesten zitzaizkien kantak. Eskuekin egindako jolasa.

Transkripzioa
- [Eskuetan] ta holan, ez dakitzu? "Maro-marote --eta, ba, umia fijau eitten da; fijau eitten da atzamarretan, ez dakitzu? txikitxue dana--, eragiozu eskutxuorri, behin bateri ta behin besteari". Eske ez dakit, ez dakit. Eta, ba, horixe.

2.55. 'Txikitxo polit hori' kanta I

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/028
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:45:40. **Bukatu**: 00:46:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: 'Txikitxo polit hori' kanta.

Transkripzioa
- Bai, akordauko jat.
- Bai, beste bat be badao: "Txikitxo polit hori"...
- A!

Txikitxo polit hori, [zer] neure laztana,
katigatu ninduzun libria nintzana.
Libriak libre dira, zu ta ni katigu
Horrek eragiten du sarritan zizpuru.
Zizpuruak zizpuru, zu ta ni katigu.

2.56. 'Txikitxo polit hori' kanta II

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/029
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:46:15. **Bukatu**: 00:46:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: 'Txikitxo polit hori' kanta.

Transkripzioa
- Zelan da...?

Txikitxo polit hori nolan zera bizi?

Aspalditxuan, maitia, ez zutut ikusi.

- Hori umiena ez da, hori beste bat da. "Badakit zabiltzana"... Hori umieri kantetan jakon, baiñe...

Badakit zabiltzana nigandik igasi,
ez didazu ematen sentimentu gutxi.

- Baiñe ya... Horrek luziauek die, baiñe...

2.57. 'Dingilin-dangolon Mari Durango' kanta

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/031
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:47:35. **Bukatu**: 00:48:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: 'Dingilin-dangolon Mari Durango' kanta.

Transkripzioa
Dingilin-dangolon Mariña,
betik honelan bagiña,
betik honelan izaterako
poltsia dugu ariña.

Dingilin-dangolon Mari Durango
ez egin basuan lorik
bestela, barrez, axeritxuak jango zau
bildotsa zarielakuen.

- "Dingilin-dangolon, Mari Durango". Bata "Mariña" da, "betik honelan bagiña, betik honela izaterako poltsia dugu ariña". Ta bestia: "Dingili-dangolo, Mari Durango, ez egin basuan lorik, bestelan, barrez, axeritxuak jango zau bildotsa zarielakuen".

2.58. 'Andra Joxepa tronpeta' kanta laburra

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/034
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:50:35. **Bukatu**: 00:51:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: 'Andra Joxepa tronpeta' kanta.

Transkripzioa
- ... akordauko jat.
- Seguru, seguru. "Andra Joxepa tronpeta" badakizu?
- A! Bai. "Andra Joxepa tronpeta, ate ostien gordeta". Bueno, bueno. Beste bat zan guk ikesi [geuna]:

Andra Joxepa tronpeta
kristoren zoragarri
jarri belaunbiko,
adora jesukristo.
Gure ortuen zer dago?
Azaburua loratzen.
Aitatxo, amatxo,
hurra, hurra, Pipitxo
Ala kinkillera, ala samurrera,
Teresa Etxebarriko jira beste aldera!

- Eta, ba! Hori, hori... nahiko [konpletoko] neuan.
- Eta beste bat...

2.59. Taldeka lan egiten zuten eskolan

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-009/002
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:04:25. **Bukatu**: 00:06:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Taldeka lan egiten zuten eskolan. Ikasketak; arazoak: "A c&#65533;; "en total". Gauza guztiak buruz ikasten zituzten. Ritmora ikasten zuten guztia. Ez du uste pedagogia txarra izan zenik.

Transkripzioa
-Holako anekdotak pasetan zien. Eta gero bueno ba horri, txikitxuek joaten zien euren lekure, haunditxuauek haunditxuauek taldeka. Nik neuken taldien bi mutiko: Arientzako bat, Felix, Aundikua, eta Koruetako beste bat, Jesus Mari. Ta klaro, problemak, “un mercader…”, problemak erderaz zien. Ta hortxe nunbait ulertu eitten gauen, ezta? Eta errez-errezak zien “a cómo”. “¿A cómo tuvo que vender el litro de o el kilo de…?”. “Hi, a cómo dok? Hau dividir”. Ze guk zatiketak ez gittun eitten, eitten gauen dividir, “a cómo”.
-“A cómo” baldin bazan…
-“A cómo”, hori zan oso erreza, baiña izeten bazan, “en total”: “Hi, en total dok, ze izengo dok, multiplicar edo sumar?”. Hori zan beste arazotxo bat, ez? Eta bueno, ta gero zein fan korrejiruten? Ze faten giñen pizarriakin, abadiana korrejiruten. Ta klaro, txarto eukenak hartzen euen kaskarrekua. Eta nik ez dakit, neukin biguntxuaue zan. Igual neskatilllie nitzelako, barritsue izengo nitzen, baiña bestelan zalaparta larregi ez nutsen emongo ze oso kuriosidade haundixe neuken gauzak ikesteko. Eta bueno, holan, gaiñetiko gauzak be ikesten ginttuen buruz. Hormatan, ipintten euskun mapak eta kapitalak, Europako kapitalak, ezta? “Checoslovaquia capital

Praga". Holan, "Italia capital Roma". Dana zan doiñuekin. Doiñuekin ikasten gauen.
-Kantuen moduen.
-Bai. Kordillerak be bai. "Primero la Pirineica, segunda la Cantábrica, tercera Ibérica, cuarta la Carpetana, quinta la Oretana". Holaxe ikesten gauen. Uste dot ez zala izen pedagogia txarra.
-Ez? Ikasten zenduen?
-Uste dot. Uste dot. Garai hartarako e!

2.60. "Arre arre mandako..." kanta ezaguna

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/024
- **Iraupena**: 0:00:15. **Hasi**: 00:36:00. **Bukatu**: 00:36:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Arre arre mandako..." kanta ezaguna abesten du.

Transkripzioa
Arre, arre, mandako
bihar Tolosarako,
etzi Panplonarako.
Handik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko.

- Horixe kantetan jakuen asko umiei. Ez nitzen akordetan.
- Eta hori aittari entzunda?
- Bai.

2.61. "Txalo pin txalo" kanta ezaguna

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/033
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:46:15. **Bukatu**: 00:46:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Txalo pin txalo" kanta ezaguna.

Transkripzioa
- Eta beste kantu bat, holan, oso ezaguna ta seguru ezautzen dozuna: "Txalo pin txalo"?
- "Txalo pin txalo, katutxue mizpilla gaiñien dago". Ta gehixao ez dakit.
- Kantuak be asko zian, orduan, ezta?
- Asko, asko.
- Lehen jolasak esan dozu, baiña kantuak be...
- Kantuek be asko, asko.

2.62. Aitajaunak kontatzen zituen ipuinak; lamiak

- **Hizlaria(k)**: Iria Orue, Jose; Orobengoa Orue, Encarna; Ugarte Orue, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz
- **Erref**: ARR-015/024
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:40:35. **Bukatu**: 00:43:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Aitajaunak kontatzen zituen ipuinak. Lamiak.

Transkripzioa
- Bueno, ba, esaten zauen, ba, zerien, han bizi ziela lamiñak, han koba haundixe dauen lekuen. Ta han urteten zauela, ba, illetargixe garbixe zauenien hara. Ta orrazketan, baiñe urrezko orrazixekin urteten zauela. Bai. Eta ziela oso guapak, emakuma guapak. Eta egun baten, hemen esaten da Korrioneko kriaue. Korrionen zan kriau bat pastore...
- Bai, pastore...
- Orduen, ba, han fan zan ta urten otsen ilunkeran emakumiorrek bera etxera datorrela, ba, ardixek batu ta, enfin, lanak eindda. Ta berbetan ta jo! Mutilloi zoratuta, holako emakumeik! Izen biher zan oso ederra, dana ondo einddakue ta hori. Eta jo! Handik egun gutxira ostera ta mutilloi guztiz enamorauta. Kauen la puñeta! Ta joe, ba, "nik etxien edo..."
- ..."esan biherko juat".
- Bai. Ta, ba, etxera fan zanien, "Zu, beitu...", ba, bere uezabai-edo "Zu, beitu: hortxe juntetan naz etxera natorrenien emakuma bateaz. Da ederraue! Baiña, baiña zoragarrixe, e!" Ta [...] esan otsen: "Hi, baiña...", ta "Bai, bai, ba, hantxe". Ta "Nun urteten dutsu, ba?", "Han, ba, kantera koba haundiko han zerien. Haintxe erreka onduen egoten da". Ta bestiek: "Hi, beitutsek hankak zelakuak dauken?", ta "Ba, ez", "Ba, beitiok aber zelako hankak dauken". Eta zerien, ba, fan ta konturetu zan, ba, zerokin, hankokin, eta zerenak, arraiñanak, paitten hankak. [...] eta etorri zanien, enee! haren disgustue! Esan eutsen, ba, zerorri. "Beitu, ba, esaten nustan nik, horrek lamiñak dittuk! Gehixao ez hari arrimau! Ta pasetan hazenien aittieren ein, e! Pasetan hazenien ezkutauko dittuk eta". Ta hola. Baiña mutilloi kriston disgustuaz eta hil ein zan disgustuakin. Eta entierrure lamiñie be fan ei zan atzeratxueutik. Bai, Korriona dao hor zerien.
- Bai, bai, badakit, badakit.
- ... Handik elixa ondoraiñok, baiña kanposanto aurrien geratu ei zan, elixara ez ei zan sartu. Hara lagundu ei otsan, haraiñotxe, lamiñiorrek.

2.63. Ahuntzen inguruko ipuina

- **Hizlaria(k)**: Iria Orue, Jose; Orobengoa Orue, Encarna; Ugarte Orue, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz
- **Erref**: ARR-015/025
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:43:40. **Bukatu**: 00:45:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Aitajaunak kontatzen zituen ipuinak. Ahuntzen ipuina.

Transkripzioa
- Nik ez dakit oin, apur bat freskatu ezkero, besten batekin be... Hor badie beste batzuk be, baiña ez dakit.
- Klaro, hau zela dan zahartxuaue...
- Hor badao beste bat ahuntzena-edo, ezta?
- Ahuntzek-edo ez zauen, ba, urteten hor nunbaitten?
- Bai. Bai, ba! Pastore bateri, ba, gabian, gaba allegau jako ta hor... Orduen, ba, itxuria, hori zan pastore lekuoi, ta, ba, zera: akerra falta. Akerra ez, adarixe falta. Adarixe falta. Ta "Kauen la puñeta!", halakon baten entzun dau zerian... Artazu esaten jakon kanterie dauen aldeko mendixe, e! Ta bestie Atxabal, ezkerrekue goiezela hara. Eta han "tolon-tolon, tolon-toloton" zeroi, ta "joño! Hemen jak!". Hara fan ta ezebez, bestekaldeko hatxien. "Kauen la puñeta!". Pasau, fan hara, ta berdin. Ta halakon baten aker haundi bat bal-baltzak [esan]: "Ze [dabik] hemen? Ze pasetan jak?". Eta, jo, sustaute: "Ba, akerra, akerra...", "Eskerrak emon heike, hor kolkuen daroien kurutziei, bestela hemen geratuko hintzen". Ta akabo mutilloi! Haren... Sustauta! Bueno...! Bai.

2.64. `Atxia motxia´ kanta

- **Hizlaria(k)**: Iria Orue, Jose; Orobengoa Orue, Encarna; Ugarte Orue, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz
- **Erref**: ARR-015/027
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:47:10. **Bukatu**: 00:47:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: `Atxia motxia´ kanta.

Transkripzioa
- "Atxie-mutxie" hori be bai...
- Horrek bai, e! horrek gauza danok bai!
- Horrek, horrek...
- Ba hoixe:

Atxie-mutxie, pirulin pan,
nere semie errotan,
errota txikiñek klin-klan
botikario,
kalendario,
hamen etxien zenbat hatz?
Bost hatz.

Bai, ta gero "bost hatz" edo "bat", gure dana. Horreik kontuok bai.
- Horrek zauken, zan joku bat hori.
- A! Jokue zan?
- Bai, hola, atzamarrak...
- ... hartzen zien...
- A! Bai, bai, bai...
- Hori "dekolin-dekolan" zan.

2.65. "Dekolin, dekolan..." jolasa eta kanta

- **Hizlaria(k)**: Iria Orue, Jose; Orobengoa Orue, Encarna; Ugarte Orue, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz
- **Erref**: ARR-015/028
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:47:40. **Bukatu**: 00:48:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Dekolin, dekolan..." jolasa eta kanta.

Transkripzioa
- Hori "dekolin-dekolan" zan. Hola jarritte.
- Hori kantetan zan.
- "Atxie-mutxie" hola zan, hola atzamarrak ipinitte, ta "Dekolin-dekolan" zan holan bizkarrien jota. Hi be akordauko haz horregaz, "Dekolin-dekolan".
- Bai, bai, bai...
- Ni ez!
- Guk hori eitten gaixonan holan, baiña "Bekolin-Bekolan"...
- "Dekolin-dekolan", bizkarra ipinitte, bai...
- Zelan da "Bekolin-bekolan" hori?
- Ba: "Bekolin-bekolan, de la..." Zela don? Hola da?
- "... del palacio a la cocina. ¿Cuántos dedos hay en...?"
- Bai, hori da.
- Bai, eta hik esan biher otsanan "lau" edo "bost" edo...
- [...] zenbat hatz?
- Hori da.
- Zenbat hatz...
- Hori neuk [...]...
- Eta bat egoten zan... Igual lau, ezta? Ba, batek jartzen eutsen zerai, ba, zenbat hatz? Ba, bi, hiru, lau edo bost edo hamar, edo bat.
- Ta gero asmau ein biher?
- Asmau ein biher.

2.66. "Andra Joxepa tronpetan..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Iria Orue, Jose; Orobengoa Orue, Encarna; Ugarte Orue, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz
- **Erref**: ARR-015/034
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:53:10. **Bukatu**: 00:54:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Andra Joxepa tronpetan..." kanta.

Transkripzioa
- "Andra Joxepa tronpetan..."... Zela don?
- "...erregiñia lantzetan. Jarri belauniko, adora jesukristo. Aitatxo, amatxo, urra-urra pispitxo..."
- Ta, ba, danok jarri lurrien...
- "Joxepa Etxebarriko jira beste aldera!", ta buelta ein ta...
- ... ta gero bueltau.
- Hori berriro eingo dou? Hori ipiniko dou ondo.
- [...]
- Aber:

Andra Joxepa tronpetan
erregiñia lantzetan
jarri belauniko,
adora Jesukristo
aitatxo, amatxo
urra-urra pispitxo
Joxepa Etxebarriko
jira beste aldera!

Hor gehixao be baazen, baiña...

2.67. "Arre, arre mandako" kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-017/039
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:55:40. **Bukatu**: 00:56:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Arre, arre mandako" kanta.

Transkripzioa
- E: "Arre-arre, mandako..." A! Gaiñera, ez dauko... soñurik ez dauko horrek!

- Bai, rezitaua da, ez?
- Bai.
- Osea, ez daka doiñu...
- Baiña zuek zela eitten [zeuen], ba?
-
Arre, arre, mandako,
Bixar Panplonarako,
Etzi Tolosarako.
Handik zer ekarriko?
Zapata ta soiñeko.

Hori zan.

2.68. "Amamana don da..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-017/040
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:56:00. **Bukatu**: 00:56:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Amamana don da, amamana don da, gure mutikotxua...." kanta.

Transkripzioa
- Ni gehixao akordetan naz igual ez nere anaiakin, porke nik nere atzetik bat bakarrik daukat gaztiaua, baiña igual nere aiztian umiek, nere [...] lobak, igual asko: "Amamana don da, amamana don da..." Baiña hori da. Osea, ez... "Amamana don da", holan, besuetan hartu...
- Ta lo hartzeko edo?
- Bai.

Amamana don da, amamana don da
gure mutikotxua.
Amamana don da, amamana don da
gure mutikotxua.

Ez dakit, bueno...

- E: eta gero umiai [eitteko]...
- Ez, ba, goxo. Hori besuetan nik... Ta nik nere alabai holan, e! A! Bai, bai. Nik aman kantuak danak jarraitzen dot.

2.69. Amak ura edaterakoan abesten zien kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati

- **Erref**: ARR-018/002
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:00:33. **Bukatu**: 00:01:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Amak txikitan mendian ura edan behar zuenean abesten zuen kanta: "hau ura nok eran dau, aingerutxo batek...".

Transkripzioa
- Nik hau amari entzunda. Nik baiño nere amak gehixao, e! Bera, txikitan, aber... faten zienien mendira eta egarrixe, eta ura eran bihar zauienien, hori ura erateko esaten zauen hauxe, e! Ta esaten zauen:

"Hau ura nork eran dau,
aingerutxo batek.
Zenbat bidar?
Hiru bidar.
Jesus ta milla bider."

Eta horrekin ya eran eitten dozun, ta ez jatzun pasetan ezebez.
- Bedeinkauta...

2.70. "Ogera noia, ogetik nator.." kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/003
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:01:05. **Bukatu**: 00:01:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Ogera noia, ogetik nator..." kanta.

Transkripzioa
- Eta gero beste bat, esaten zauen:

"Ogera noia,
ogetik nator,
topetan dittut
hiru aingeru,
bat buruan,
bi oiñetan,
hor dator San Jose
arantzaz josirik eta beterik
hau egunian hiru bider esaten dauenak
ez dau ikusiko infernurik".

Ez dakit holan izango zan.
- Hori zer zan, gabeko errezuren bat edo?
- Errezu bat holan.

2.71. Gabonetako kanta zaharra

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/005
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:02:18. **Bukatu**: 00:02:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- **Laburpena**: Gabonetako kanta zahar bat: "Goazen goazen Belenera zahar da gazte guztiok..."

Transkripzioa
- Eta gero, gabonetako kantak... Nik dauket, aber... Hau be guk urtero-urtero abesten gauen nere etxien. Eta da:

"Guazen, guazen Belenera
zahar ta gazte guztiok
eramaten Belenera
Gabon Zahar bi kapoi,
ardi bi ta lau billots,
pitxar haundi bat esne.
Intxaur, sagar, gaztaiñak
altzua bete-bete.
Altzua bete."

2.72. Errege eguneko kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/006
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:02:42. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Errege egunean abesten zen kanta: "Erregiak datoz, erregiak datoz..."

Transkripzioa
- Eta gero beste bat... Porke gero dauko... Aber, hau. Jo, daukot nere euskeran... Erregiak. Lehen zien Olentzero baiño Erregiak. Eta gure amak abesten... Klaro, bera txikittan hau:

"Erregiak datoz (biz)
Bretxan barrena (biz)
Umilla dezagun (biz)

Jesus Belena (biz)
Ate-txokuan oillar bi
batak bestia dirudi
etxe hontako etxeko andria
Ama Birjiña dirudi.
Ama Birjiña, Ama Birjiña,
zu zera zeruko erregiña."

Eitten dust grazia, porke ipintzen dust... Faten naz atzerutz, ta ez dakizue...

2.73. Errege eguneko kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/008
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:05:05. **Bukatu**: 00:05:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- **Laburpena**: Errege egunean abesten zen kanta: "Hiru errege datoz kale nagusitik...".

Transkripzioa
Hiru errege datoz kale nausitik,
tripa saardoz beteta, ezin egon zutik.
Meltxorrek heltzen dio Gasparri besotik,
ez muturrez aurrera eroriagaitik.
Hiru errege Orienteko
[...n] dijoa
[Haxe be] erakusten da tanboliña jua.
Bizi-bizi arraiñak igeri.
Arrain gorria, [burruin] gorria,
[trispitis] kalera
a ze kuadrilla ederra
kalian barrena.

2.74. Gabonetako kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/010
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:06:20. **Bukatu**: 00:06:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- **Laburpena**: "Gabon gaboneta, errez errezeta ..." kanta

Transkripzioa
- Beste bat, ke daukat hamentxe zan be bai:

"Gabon, gabonetan,
errez errezetan
Jesus jaio dala
jo deigun krisketa."

- Bai, hori bai...
- Hori entzunda daukozu? Ba hori... Horregatik ez diez izango... porke nere ama... Osea, eurok ez daue asmatu, ta gura dot esatia, diez kanziñuak...

2.75. San Nikolasen kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/013
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:10:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: San Nikolasen kanta.

Transkripzioa
- San Nikolas-en kantua?
- A! Hori bai, hori beti.
- Hori bai, ezta? Eta, gaiñera, imajinatzen dot... Hori bersiño bakarra da edo...?
- E: Bai. Ez dauko zentzunik gauza batzuk, ez dakitzu zer esaten dozun, baiñe bueno, baiñe hor dao.
- Ia, gitxi gorabehera hau da zuek dakizuena?
- "San Nikolas, coronado..." Ai! Ke, ba!

"San Nikolas, coronado,
arzobispo, Mariandres.
A la luna —guk esaten gauen— a la luna,
noche y dia,
etxeko andre noblia
egizu, egizu pillia.
San Nikolas,
triskili-tras,
dame una castaña y no quiero más.
Aquí estamos cuatro, cantaremos dos
Para San Nikolas por amor de dios.
Lehelengo portaleko —baiña da "Belengo", ta guk "lehelengo"—
ate zabalean
hotzak dardaraz dago Jesus lastuetan (biz).
Angelitos somos,
suspi-suspiramos,
lukainka, txorizo,
neskai dana, mutillari bapez".

Hau ez da...
- Neskai dana, mutillari bapez...
- Eta mutillak: "neskai bapez, mutillai dana" ta hortxe, hor bukatzen da.

2.76. Amari entzundako 'Pernando amezketarra'ren ipuina

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/030
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:32:15. **Bukatu**: 00:33:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Amari entzundako kontuak: Pernando amezketarraren ipuina.

Transkripzioa
- Eta zu zeren esaten zeoze Pernando Amezketarra edo...
- Eske gura amak kontetan zauen asko Fernando Amezketarra... Bera eta guri be bai, ba, hori, Fernando Amezketarrana. Akordetan naz...

Behin, Fernando Amezketarra —bueno, hori, egongo diez jasota nunbaitten, baiña— ba, ipini zala gaixorik. Eta, klaro, basarrixen. Eta bueno, ba, abisau dotsien medikua etortzeko. Baiña, klaro, medikua allegau orduko basarrira, ba, ya Fernando osatute. Eta ya soluen zauen lanien. Eta han ikusten dau "Enee!" medikue datorrela, igual zortzi egun pasata edo hiru. "Ene, ba! Ya ke honaiñotxe etorri da, ogian sartu biharko dozu". Eta bueno, Fernando formal-formal ogera sartu eta, bueno, medikuak: "Buu, grabe ikusten dotsut, e! — A! Ez—: "Kalian esan dostie bastante grabe zauzela", abadie ta bixok —hori da— abadie ta bixok. "Ene! Ya grabe egongo zara", pentsau, ya koloriak lanien ibilitta gorri-gorri ya. "Ba, kalenturie, sukarra..." ta ez dakit ze. "Bueno, ya ke..." , bera abarka ta guzti ohien sartuta, "... ya ke honaiñotxe etorri garen, ya igurtzie ta azkenengo sakramentue emon. Aittiaren, semiaren...", kentzen dotsie mantak emoteko, ta abarkakin bestie ohien sartuta. Engañue...

2.77. "Arre arre mandako" abestia

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/040
- **Iraupena**: 0:00:15. **Hasi**: 00:42:35. **Bukatu**: 00:42:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

- **Laburpena**: Umeak altzoan ipinita "Arre arre mandako" abesten zitzaien.

Transkripzioa
- Eta ume txikixeri jolasak altzuan ipinitta...
- E: "Arre, arre, mandako..."
- "Arre, arre, mandako..." esan dozue...
- E: "... bixar Panplonarako, etzi Tolosarako...", hori bai. "...etzi Tolosarako, handik zer ekarriko, zapata ta gerriko", hori bai. Bueno...!

2.78. "Txalo pin txalo" eskuekin egiteko kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/041
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:42:50. **Bukatu**: 00:43:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Eskuekin lagunduta abesten ziren ume-kantak: "Txalo pin txalo".

Transkripzioa
- Eta eskuekin edo...
- E: "Txalo pin txalo..."
- ... arpegixan edo...?
- E: "Txalo, txalo, txalo pin txalo. Txakur txikia begira dago". Hori. "Txalo, txalo, txalo pin txalo. Txakur txikia begira dago".
- Eta beste gauzarik, ba, holan, arpegixan umiari? Beste kanturen bat?
- Ez.

2.79. Auzoko eskola; herriko eskola

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/005
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:07:33. **Bukatu**: 00:08:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Auzoan bertan eskola zuten. Barajuan auzokoak ere bertara joaten ziren. Ibarran bertan, eskola handiagoa zegoen.

Transkripzioa
- Eta eskolia eta?
- Eskolia auzuen gauken. Bai, aber, gauken auzuen guk Azkoagan gauken, bai apaiza ta bai maixu... maistrie. Eskolie gauken bertan. Eta gure aldameneko beste auzo batekuek, Barajuen auzokuek, etortzen zien

Azkuagara, geure auzora. Osea, itten zan... ez zan egoten auzo guztietan bakoitza bere eskolie, baizik eta itten zien ba, esan dotena, Barajuen eta Azkuaga elkartuta, eta gero beste auzo batzuk be bai Etxaguen ta Gantzaga batera ibiltten zien, Uribarri eta Arexola be bai... Osea, hori izaten zan. Eta gero, behien, Aramaixon, Ibarran, herrixen behien, han bai... han aukien... han ya maixu eta mastra. Bikin. Han ya...
- Han ya... kategorixia, ezta?
- Han ya pribilejiauak zien, bai... Maixu ta maistra, bai.
- Eta eskola urtiak-eta zelan gogoratzen dozuz?

2.80. Sokasaltoan Garizuman

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/018
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:38:11. **Bukatu**: 00:39:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Garizuma garaian, sokasaltoan ere egiten zuten asko.

Transkripzioa
- Esan dozu sokasaltua be...?
- Bai, sokasaltua be bai.
- Garizuman...
- Bai, Garizuman ibiltten giñen asko sokasaltuan be bai, baiña ez dauket goguen...
- Eta kanturik edo?
- Eske... egun hauetan zenbat bider.. jo... hainbeste kantu nakix en eta ezta...
- Sokasaltuan asko jaso douz erderazkuak.
- Bai, nik be bai, e!
- Eta euskerazkorik?
- Euskerazkorik ez. Eske ni egun hauetan, gaiñera, sarri egon naz pentsetan eta zergatik ete zan guk jolas batzuk dana erderaz. Kanpotik sartuiko jolasak edo... Ez dakit... Igual maistran batzuk, orduen be zelan kanpoko jendie... irakaskuntzan zelan kanpoko jendie egoten zan... erderaz. Erderaz zan erakusten auen dana, orduen... hortik etorri biher dau, hortik etorri biher dau /bidau/. Eta ez dakit...

2.81. "Bonbolontena" kanta zaharra

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/021
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:41:37. **Bukatu**: 00:42:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Bonbolontena" kanta zaharra.

Transkripzioa
- ...“Bonbolontena”. Hori jakingo dozu? Entzungo [zeben]...
- Bai, uste dot entzunda dakatela, baiña biharbada diferente.
- Aber:
Bonbolontena, ene laztana,
ez egin lorik basoan,
azeritxuak eruango zaitu
erbia zeralakoan.

- Labur-laburrek die.
- Ze ondo kantatzen dozun!

2.82. "Atxia-motxia" kanta zaharra; jolasa abestuaz batera

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/022
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:42:35. **Bukatu**: 00:44:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Etxeko umeekin egiten zen jolas, kanta. "Atxia-motxia...".

Transkripzioa
- Aber, beste kantu bat dago, atzamarrakin ez dakit sekula ein dozun. Atzamarrak ipini, igual hartzen dittuzu, ba, etxeko ume danak. Orduen zelan asko izaten gitzen, ba, igual lau-bost jarten gitzen, ta ama be bai. Ta bakotxak ipintten auen eskue edo atzamarra. Berdin da. Eta jueten ziñen:

Atxien, motxien pirulin pan,
gure semie errotan,
errota txikixek klin-klan,
botikario, kandelario,
behin juan nintzan basora,
topau nuen erbixe,
jaurti nuntsen harrixe,
atara nuntsen ezkerreko begi
gorri-gorri-gorri-gorri-gorri- xe!

Eta harrapetan dozu baten atzamarra, eta ahalegiña ein bihar dozu hareik atzamarrak kentzen. Eta klaro, lehenengokuen harrapetan dotsezu, ba, gutxien mobiduten danai. Baiña gero ya ama ekitten danien edo dauena dala ekitten danien “atara nutsen ezkerreko begi gorri-gorri...”, ya ekitten die atzamarrak kentzen. Osea, bukatu baiño lehenao atzamarrak kentzen. Hori izeten zan. Ta izeten zan, ba, hor armetan zan, bueno...! Egundoko... Gustora! Saltsie. Ta hori be etxien ikesitte, e!

2.83. "Arre arre mandako" kanta ezaguna

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/024
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:45:01. **Bukatu**: 00:46:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Arre-arre mandako"... kanta ezaguna.

Transkripzioa
- “Arre-arre mandako”. Aber:

Arre-arre mandako,
bixer Tolosarako
etzi Panplonarako,
handik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko.
Norendako?
Norendako?
Mikelendako.

Edo altzuan dauketzunendako. Eta hori eitten zan jarri altzuen eta jueten zitzen: “Arre-arre mandako…”. Oseake, umiai salto eraiñaz. Horrela juaten zitzen:

Arre-arre mandako,
bixer Tolosarako
etzi Panplonarako,
handik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko.
Norendako?
Norendako?
Mikelendako.

Ta salto haundi bat erain berai ta, ba, umie barreka. Oseake, hori izeten zan, besterik gabe.

2.84. "Txalo pin txalo" abesti ezaguna

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/025
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:46:11. **Bukatu**: 00:47:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Txalo pin txalo". Umearen eskuak hartu eta txaloka kantatzen zen.

Transkripzioa
- “Txalo, txalo…”. Klaro, “txalo” be da “Katalamixiliko” bezela. Hartzen dozu umie altzuen ta ekitten zara, esku bixek hartu, bere eskuek, eta:

Txalo, txalo,
txalo pin txalo.
Katutxue mizpilla gaiñien dago.
Txalo, txalo,
txalo pin txalo.
Txaloo!

2.85. "Haurtxo txikia negarrez dago" ume-kanta

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/027
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:48:12. **Bukatu**: 00:49:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Haurtxo txikia negarrez dago..".

Transkripzioa
- “Haurtxo txikia negarrez dago”?
- A! Bai.
- Baiña hori etxian entzunda?
-
Haurtxo txikia negarrez dago,
ama, emoiozu titia.
Aita gaiztoa tabernan dago,
pikaro jokalaria.

- “Haurtxo txikia negarrez dago…”…
- Berriz, berriz errepikatzen zan.
- “… emaiozu titia iñoiz aitatxo…”…
- “…etorten bada”. Bai…
- “… ekarriko dizu zapata…”…
- “… zuri berrixa. Zuri berria.”. Bai. Etxien. Bai, baiña hori gutxiao kantau edo ez dakit zer, baiña bai, bai. Ta etxien kantetan zan, e! Bai, etxien kantetan zan hori.

2.86. Beste ume-kanta ezagun batzuk

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/030
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:53:21. **Bukatu**: 00:55:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Andra Joxepa tronpeta..."; "Txilin txilin maña..." kantak ez ditu oso ondo gogoratzen.

Transkripzioa
- Ia, hemen beste batzuk dakaraz: “Arre, arre, mandako” hau da zuk esan dozuna, ta, gaiñera, letria be iguala. “Andra Joxepa tronpeta”?
- “Andra Joxepa tronpeta, jarri belauniko”…
- “Kristoren zoragarri”?
- Ez. Aber: “Andra Joxepa tronpeta, jarri belauniko, andrea Jesukristo”… Ai, ke pena!
- Zer?
- Ezin jata akordau! Oso politte da hori! Aber…
- Eske nik hamen dakatena da: “Andra Joxepa tronpeta, kristoren zoragarri, jarri belaunbiko, adora jesukristo. Zein da basarririk onena?”
- “…onena…”
- “Ondartza”.
- Bai, bai.
- “Aitatxo, amatxo, purra-purra txikiño”. Hemen ya bersiño diferentiak. “A la kinkillera, a la samurrera”…
- “… kinkillera, a la samurrera… jarri… jarri belaunera”. “Jira beste aldera!” “Jira beste aldera!”. Bai. Letra batzuk kanbixauta, baiña bai, hori da, bai. Bai, bai, bai. Ez nitzen… Esaten dotsut, hor dau kantu pilla bat barruan jakin… hor dauena, baiña ez datozena. Orduen, ba, hoixe.
- Eta beste bat: “Txilin-txilin maña, bixar Santa Maña”…
- “Etzi Domu Santu. Umiek zuluen sartu. Ama negarrez, aitte dolorez… kantuen…”
- “Abadia kantuan”
- “Abadie kantuen”…eta?
- “Eta umie zuluan”.
- Ez, guk beste modu baten… “Abadie kantuen”…
- “Abadia kantuan errialen pozez”?
- A! Bai! “Herriaren pozez”! “Abadie kantuan errialen pozez”.
- Eske “umie zuluan” oso…
- Ez, “umie zuluan” ez, “errialen pozez”. “Abadie kantuan errialen pozez”. Bai.
- Eta hau zegaittik edo kantu horren historixia…?
- Ez dakit, ez dakit zer izan leikien.
- Bai, eske letria nahiko…

2.87. "Nere aitak amari gona gorria ekarri..." kanta ezaguna

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/031
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:55:11. **Bukatu**: 00:56:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Nere aitak amari gona gorria ekarri..."

Transkripzioa
- Gero, beste hau: “Nere aittak amari…”?
- Onbre!
Nere aittak amari gona gorrixa ekarri (bis)
Berriz ere maiteko dio nere aitak amari.
Nere aittak amari gona gorrixa ekarri.

Nere amak aitari praka berrixak ekarri (bis)
Berriz ere maiteko dio nere aitak amari.
Nere amak aitari praka berrixak ekarri.

Oseake, aittek amai gonie eta amak frakak.
- Nik nekan zatixa zan “Gona gorri-gorria zazpi jostunek josia”…
- “…josia”.
- … baiña, klaro, ez zuk esandako “Nere amak aittari…”…
- Klaro, hor bittertien “zazpi…”…
- Eta, orduan, zeuk esan dozuna izango zan erdiko estrofia eta azkena, “zazpi jostunek josia”. Ta guzti hori zuk be kantatzen dozu?
- Bai, bai. Aber:

Nere aitak amari gona gorrixa ekarri (bis)…

Gona gorri-gorria zazpi jostunek josia.
Berriz ere maiteko dio nere aitak amari.

Baiña guk hau baiño gehixao ibiltzen [geen] hau. Oseake, eitten [geen] salto: nere aittek amai gonie ta amak aittei frakak.

2.88. "Bat, bi, hiru, eta lau; Txomiñek andria falta dau" kanta ezaguna

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/032
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:56:49. **Bukatu**: 00:57:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Bat, bi, hiru, eta lau; Txomiñek andria falta dau". Ana Marik beste estrofa bat ere badaki.

Transkripzioa
- Eta hau: “Bat, bi, hiru ta lau, Txomiñek andria falta dau”?
- “Bat, bi, hiru, lau…”. “Txomiñek… erreka-zuluen topau dau”. Aii! Aber… Aii! Aber:

Txomiñek andrie falta dau,
erreka-zuluen topau dau,
zirrika-zirrika atara dau.

Aber, hi!
- Ez, ez. Guk diferente: “Bat, bi, hiru ta lau, Txomiñek andria falta dau.

Txomiñek dauka dendia, sagar ustelez betia...".
- A! Bai, "zazpi jostunek josia".
- Ez, "sagar ustelez..."
- "...betea".
- "... harek danak saldu orduko topatuko dau andria".
- "... barria". Bai, baiña gero auen hori beste zatixe.

Txomiñek andrie falta dau,
erreka-zuluen topau dau
zirrika-zirrika atara dau.

Klaro, bersiño diferentiek.
- Bai, bai, bai. A! Oso ondo.
- Bai, bersiño diferentiek.

2.89. Aurpegia laztantzeko kantua: "Katarramixon"

- **Hizlaria(k)**: Arregi Onagoitia, Begoña; Iregi, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-035/002
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:01:15. **Bukatu**: 00:02:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Martiartu, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umea altzoan hartuta egiten zen. Hasieran, umeak ikasi arte, helduak umearen eskuak hartzen zituen eta aurpegia laztantzen zion abesti bat kantatuz: "Katarramixon, nun ixen? Gaztelun..".. Behin umeak kantua ikasten zuenean, heldua eta umea parez-pare jartzen ziren eta norberak bere aurpegia laztantzen zuen abestia jarraituz. Auzoan, taldean, denok borobilean jarrita ere, abesten zuten kantu hau.

Transkripzioa
- Bego, uste dot zuk dakitzula hauxe: eta da helduan eskuak umearen aurpegittik pasatuta erabiltzeko, ezta? Hori zela, zela zan hori? Zela itten zan ta...
- Ba bueno, normalian umia altzuan hartzen zan, e? Eta orduan, bueno, horrela, ez?

"Katarramixo
nun ixen,
gaztelun,
zertan,
gaztaiña ta ogixa ekartzen,
nun itxi,
bentanan,
nork jan,
katuak,
niri bapez,
zapi-zapi-zapi-zapi"

Eta ya ikasten zauenian, ba, ya egiten zan espillu bezala, e? Umiak ikasten zauen, eta norberak be bai, eta orduan, hori, berriz errepikatu:

"Katarramixo
nun ixen,
gaztelun,
zertan,
gaztaiña ta ogixa ekartzen,
nun itxi,
bentanan,
nork jan,
katuak,
zapi-zapi-zapi-zapi"

- Eta norberan aurpegixan eitten zan?
- Bai, ya bi eratara, ezta? Ume txikitxua, baiña gero ya, hori da, bazekienian, ispillu bezela, eta norbera.
- Biok: zuk alde batetik, eta berak zuri begiratuta...
- Bai, gero kuadrilla haundian be bai, egiten genuen, ba, auzokoak edo horrela.
- Borobillian jarri ta bakoitzak bere...
- Bai, pasatu aurpegitik eta hori, ba.

2.90. Errekete batekin pasatako gertakizuna

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/026
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:48:05. **Bukatu**: 00:51:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
  Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena**: Hiru urte egin zituen neskame, gerra hasi arte. Nagusiak Gasteizera joan ziren eta bera etxera itzuli zen. Gerra denboran, San Prudentzion erreketeak formatzen ziren eta eurak hara joaten ziren "dotoreena" zein zen begiratzera, hari zerbitzatzera joateko. Errekete batekin gertatu zitzaion pasadizoa kontatzen du.

Transkripzioa
- Urte asko neskame?
- Hiru ingo nittunan.
- Hiru bakarrik?
- Bai. Gero ba horrexek, gerriak urten jonan eta gerriek urten euenien etorri nintzonan, eurak juan zittunan Bitorixara, eta Bitorixara juan zienien ni etorri nintzonan ba nik hamen banaukela famelixie eta ni etxera. Etxetik, Maxima jaonan San Prudentzioko estankuen, eta San Prudentzioko estankura juan nintzonan. Eta han jazenan...
- San Prudentzion estankua jaonan?
- Bai, oin... tabernie ta estankua jaonan ta han behien, oin dana kanbixauta jan baiña behien jauenan dantzalekue. Eta han dantzalekuen eitten zittunan reketiek formau, eta soldauek eta zerak han formetan zittunan-ta.

Gu goittik dotoriena, zein zan guapuena topau. Entendiduten dusten? Eta gero zerbiduteko juaten giñenien ba hantxe. Eta egun baten soldau bat jauenan, kabroi bat zonan, ta beti jartzen zonan hola ate kontran, eta betik. Eta “Deskuidetan bahaz pentsau, e! Emoten dustatenaz hagiñek botata itxiko dostat, e!” Erderaz baiña bueno. Eta bueno hor egun baten ba itten justen, joten jonat eta bi hagin botaten jutsenak. Eta nun juntauko, hurrengo egun baten banaton etxera, eta gure etxien jazenan orduen Garratzen komandantie ta ez jakiñat zein etxien lo eitten. Eta zonan asistentie edo zera. Asistentie tenientiena, hagiñak apurtu nutsena. Juaten non eta han jan. “¿Tú a qué vienes aquí!?” “¿Tú a qué vienes aquí?”, ni nok hamengue eta heuk zetan etorri ez; nik esan ustaten deskuidetan bahintzen emungo dostatela. Eta ba ez hitzen portau ta Ya esta! Eta esan justenan...
- Komandantiak zer?
- Etorri zonan, “¿Qué pasa? Pues esta no se qué...” “Yo sí, yo le di”, baiñe nik emun jutsat esanda, zegatik eze beti ate onduan jartzen zuan eta derrigorrian ikutu biher juan hortxe, eta esan nutsan: “dexkuidetan bahaz emungo dostat, e!”, eta emun nutsan eta "ala, ya está”. Esan jutsenan: “A, esan dusk horrek zer, kulpie heuk euki dok falta baittuk hor”.

2.91. Eskolan baserritarrei burla

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/004
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:06:31. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Musikolakoentzat "Ziorla" (Zigarrola) zen kalea, bere eskola eta guzti. Eskola horretan baserritarrak baztertu egiten zituzten, erdara ez jakiteagatik. Burlak ere jasaten zituzten maisu eta eskola kideengandik. Baserritarrek egurra banatzen zuten mendekua hartzeko.

Transkripzioa
- Eta gu geu Musikolakuak izan, auzua da Musikola, baiña guk esaten geben, lehen esaten hasi naizena, horreik etxiok, eta ha zan, guretako ha zan kalie guretako. Arangurenetik hara fanalditxua euen eta zan Ziorla, eta gero orduan ba Ziorla, ba han euren zeren han zubi onduan euen etxe illaria eta gero bestaldera eta dauena, oin dau bueno egon zan, egon da oin arte, jubilauen tabernia-edo egonda, eta han egozen eskola bi, mutikuena eta neskatillana. Eta zerak, maistria zan Mondraueko alabia baiña txapelgorri negargarri bat. Maria Urbana Juldain geiztua personia. Hori entzuten dauenak esango dau neu be geiztua nazela baiña ez dost inporta. Oso geiztua zan ha, bai. Eta haren anekdota bat kontauko dotsuet, eta maixua zan Don Fulgencio Cabia, zan burgalesa-edo, baiña ba espaiñola, ta han egoten ziren erretratuak egoten ziren Primo de Rivera eta Franco. Eta goizian eskolan sartzen giñanien kantau bihar izaten geban “de pié camaradas, siempre adelante, cantemos el himno de la juventud”, hori kantau bihar izaten zan egunero, hori luzia zan. Gero eguardixen urteteko aittaguria, eta ordu bi tt´erdittan sartzen giñanian “Cara al Sol con la camisa nueva” ta gero “por Dios por la Patria y el Rey”, “lucharon

nuestro Padres…” ta “por Dios por la Patria y el Rey, lucharemos nosotros también” ta gero “todos juntos en campaña, lucharemos en unión” eta guk esaten geben “defendiendo la cazuela del puñetero arroz”, ta bueno, gero egurra, gero egurra, gero egurra izaten zan. Baiña ba gu baserrittarrak egoten giñen ba, gu anai bi, gero bagiñen gehixau, ezta? Baiña orduko denporan bi anai eta beste auzoko mutil bat oin kartzelan dauena, hau Zabarte-edo, eta gero gure primo batzuk eta gu sekula santa ez giñen jarri pupitrien. Beti banku korridu baten egoten giñan han baztartauta, euskera, erderaz ez gekixelako.
- Baserrittarrak-edo?
- Baserrittarrak egoten giñen han marjinauta egoten giñen.
- Kaletarrak baekixein erderaz?
- Kaletarrak han Ziorlakuak bekixien erderaz guk baiño gehixau, baiña guk baserrittarrok guk e… erderaz guk berandu ikasi geben. Guk leheningo eskolan erderaz ikasi bihar izan geben, ez gekixen erderaz, eta han egoten giñen jarritta, eta gero maixuak barre in bihar euenien gura kontura ataraten giñuen zerera, enzeraura ataraten giñuen eta ze entendiuko geuen ba guk, ezebez, burla egitten oskun, maixuak be bai eta hango mutikuak be bai, baiña gero guk gauza bat geuken ona, “la ley de la fuerza”, egurra! Hori egixa da, guk inddarra eta hango mutiko danak urrin ibiltten gittuan guk. Egurra partiuten geuen guk “a diestro y siniestro”.
- Errekreuean, ezta?
- Errekreuan eta errekreotik kanpora be bai.

2.92. Abadearen zigorrak

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/005
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:12:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: "Por la señal" oker errezatzeagatik abadeak jipoitu egin zuen Bixente. Gaztelania ez jakiteagatik ere behin baino gehiagotan jipoitu zuten. Baserritarrei iseka asko egiten zieten kaletarrek garai haietan.

Transkripzioa
-Etorten zan, Mondrauetik etorten zan, abare bat, don Justino Uribesalgo Saloña. Gaur, ba, nire andrien… aittagina… nire aittagiñarreban primo karnala zan. Baiña, ba, orduen e… Mondrauetik etorten zan. Abarie zan oso titiritero bat. Bizikletan ibiltten zan, ta agille tipue. Ta hak, oin bizi izen balitz eukiko zittuen ba… ehun bat urte. Enda… gaur be ez dakitt ondion zer dan. Etorten zan astien behin, ta eruten gindduen elixara. Ta ein biher izeten gauen “propósito de enmienda… acto de contricción y propósito de enmienda”. Zer da hori? Gaur be galdetu itten dot, ez dakit zer dan gaur be. Gaur be ez dakit zer dan. Enda egun baten esan usten /esausten/, “bueno, a ver, haz por la señal”. Kurtzesantuen bagekixen, baiña “por la señal” geure modure. Kurtze santuen euskeraz. Karo, orduen ba e, hori relijiñue ta euen oin baiño gehixau. Bueno euen… erakutsi…
-Dotriñie euskeraz ikasi zeuein ala?
-Ez, erderaz ikasi geuen, baiña etxien, kurtze santuen eitten ta hori dana

etxien, ba, euskeraz. Ta “haz por la señal” ta guk geuken orduen kriau bat. Zan hementxe Mietzerrekakua. Ta hak erekutsitta euken “por la señal”, ta “por la señal” eitten gauen: “por la señal, de la cañal, ogixa tronko, berakatz zopa, hik in ahala, nik jan”. Ta nik esan nutsen, ba, abariorri “por la señal” hori… mekauen riau! Benga, pli! pla! Kriston belarrondokuek! Ta, hurrengo etorri zan baten, ba, barriro be nigana sartu zan, itxurie begitten hartu nindduen. Ta “¡ven aquí! ¿Cuántos dioses hay?” ”Tres”, “A ver, di”, “Melchor, Gaspar y Baltasar”. Benga! Barriro be egurre…! Baiña guk ez gekixen erderaz. Erderaz ikasi geben, oso berandu ikasi geben. Ta gu egon giñen gu orduen e… geuk urten geben gogorrak giñelako. Baiñe ez herriko jentiek lagundu uskuleko. Basarrittarrak e… gaur egun basarrittar bat, faten zara edozein lekutera, eta lotsabakoren bat ez bada, hartzen zau ondo, biher dan moduen. Ta tratetan zau biher dan moduen. Baiña orduen tratetan gindduen, erderaz esaten dana, “a hostia limpia”. Gu ez gindduen… ez uskuen lagundu guri.
-Burla, ezta?
-Burle, burle. Burle, baiñe persona nausixek be bai, e! Persona nausixek be burle eitten euen. Ta auzuen, ba, klaro, zelan zan gehixena basarrixe, baiña baeuen kaleko jentie. Ta kaleko jentiek gu… metalidadie eukien halaxe ipinitte, ez haik jente txarra zielako. Eta oin askotan juntetan naz ni, ba nire edadekuek e, jentiekin, ta horreik gauzok komentetan dittut, ta barre eitten dou oin. Zelako aldrebeskerixak itten zien.
-Ia.
-Aldrebeskerixak eitten zien…
-Baiña zuek aguantau ein bihar.

2.93. Ainarak (enarak) eta txantxangorriak

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-040/008
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:17:30. **Bukatu**: 00:20:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Ermandadeko ganaduen liburuan ikusten zen Arano maisuarekin ikasitako baserritarren kaligrafia ederra. Liburu hau uholde batean galdu zen. Ainarak (enarak) udaberria eta udazkena iragartzen zituela ospatzen zuen Arano maisuak. Ardiak mendira eramaten zirenean, txantxangorriak agurtzen zuen artzaina bere txabolan.

Transkripzioa
- Zeatik lehenau itten ziren auzuetan ermandadak, ermandadia izaten zan ganauena izaten zan normalien. Eta han ba etxe baikotzeko ganau danak, etxe baikotxeko behixak egoten ziren, baeuen idixena eta baeuen behixena. Etxe baikotxien behixek egoten ziren markauta, zenbat egozen honenbeste numerokin, ba sei bazeukatzun seirak markauta, eta ba gero izaten zan ba ermandadie ba eurek ze preziua ipintten jakon, gero hilketa bat egoten bazan, akabau ganauren bat, haren preziuan pagau in bihar zan ta bueno, ermandadiak funzionaten eben hola. Eta horreik danok apuntetako euen liburu bat, kuadrikulaua, baltzaz eta gorrixaz zerak

egindda honeik kuadrikulaue, kaligrafiak honeik zerokin, baiña beuken, honakotxe liburutzarra zan. Eta ur haundixak eruan euen ha liburua, Zabaletan euen. Eta hango mutilzaharrak eruaten eben hori liburuori. Eta penaz hartu geuen danok, eta Zabaletako Rikardok eta be bai, hareik, ha liburua gaur esposiziñuen ipinttekua zan. Zelako kaligrafiaz egozen hareik baserriko izenak, behixen izenak, numeruak, hareik danak zertuta, eskribiduta; urhaundi batzuk eruan euen ha liburua. Baiña horreik eukien eskola asko eukien horreik. Aranon eskolakuak, eskola asko.
- Eta bera hemengua zan, Arano hori?
- Ez, ez zan hemengua, eta horrek Mondrauen oso famosue da “las escuelas de Viteri”. Bueno ba horreik “las escuelas de Viteri” horreik Viteriñen hor ibilitta euen eta horrek baieuken zer ikusirik, gero horreik herrixendako Viterik erregalau in zittuan, baiña Aranuori oso famosua izan zan, oso famosua, eta horreik eskola asko eukien.
- Eta zeatik ainarak etozenien eta faten zirenien jai?
- Ba itxurie berak euken naturiekin lotura horixe, klaro, eske ainarie etorten da udabarrixen eta udatzenien fan egitten da. Emigrau itten dau, orduen naturien gauza bat zelan dan, eta klaro, hain da gauza alegeria ainarak etorten direnien; alegerie ba emuten dotsu udabarrixa ya piztu, eta ya fan direnien udatzena. Hori da igual-igual, oin txantxangorrixak oso gutxi daz. Ondion be hemen banakan bat ibiltten da neguen. Baiña guk urte askuan, ba izaten zan batetik hamarrera mendira fateko eguna ardixakin. Ba mendira allegaitten ziñan egunian bertan, txantxangorrixa agertuko zan txabola tartien, eta horrek itten euen ikeragarriko ilusiñua, baiña bilddurgarrixa, iñok ezin leike sinistu be egin. Eta bai udatzenien zerretan zanien atia, negarguria. Zeatik txantxangorrixori egongo zan txin,txin, txin, eta orrixa jausten, ya ba abendua, eta negarguria. Eta horrek badauko naturiek badauko gauzak... bueno, bizi barik ezin leikienak esplikau be egin. Esplikau be ezin leike in. Horreik por ejenplo txantxangorri, eta hori dauko ba gauza danak, baiña bai, txantxangorrixena eta ainarie be bardin. Bai, horreik hola izaten ziren lehenau.

2.94. Gaixoak sokaz lotuta

- **Hizlaria(k)**: Leibar Kortabarria, Asuncion; Olabe Leibar, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-042/008
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:22:44. **Bukatu**: 00:25:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena**: Arantzak zazpi urte zituela, gaixo batzuk elkarri sokaz lotuta ikusi zituzten, zuhaitz baten inguruan bueltaka, zigortuta. Ihes egindako gaixoak auzotarrek itzultzen zituzten ospitalera.

Transkripzioa
- (Arantxa): zazpi urtekin ikusitta daukat, zazpi urte baiño asko gehixau ez neuken, pelikula bat letxe. Hor parrokixia dauen atzian auen pabelloi haundi bat, eta han zeren platanuek, arbolak, eta gehixenak hor egozen geixo agresibuak, eta abare batek erakutsi oskun teillatutik, elixien goiko zeretik. Sotanakin, tunika azul batzuk mahonezkuak, danak burdi-sokiaz lotute alkarri, arbolak erdixen-ta., ta bueltaka.

- Hori zertarako itten euein?
- (Arantxa): zelako pelikulia daukaten! Bueno, zigortuta egozen, eta orduen batek itten beuen, jausten bazan, bestia aurrien.
- Alkarri lotuta.
- (Arantxa): bai. Holako, ez dakit, hiru-lau metroko espazio baten.
- Eta egun dana hantxe bueltaka?
- (Arantxa): ba jare in arte. Ni umie nitzan... zazpi-zortzi bat urte? Igual ez.
- Ba hori ume batek ez eben entendiuko ezebez.
- (Arantxa): grabau jaten pelikulan letxe, in nosten inpresiño bat!
- Personak e? Ganauak baiño okerrago tratau e?
- (Arantxa): bai, bai. Nere aittek ganauak hola ez zittuan tratau, akaso egunen baten emungo utsen, baiña bestela ez. Baiñe orduen zan beste mundu bat uste do nik.
- Bai, kultura gutxi, ignorantzia, ignorantiak.
- (Arantxa): bai, jangoikoa aurrien hartu te egurre.
- Hala arreglaitten zan dana.
- (Arantxa): bai, bai, bai. Ba geixo asko euen, asko, hona ihes egindda eta etorri zenbat? Zemat geixo eruenda ete gaoz gu bueltan!
- (Asun): hona etorri eta ihes egindda, hemendik ihesi, eta etorten ziren hona, eta etorri eta gosiak.
- (Arantxa): ardaua edo zigarro bat-o, orduen Kuarteroia edo izaten zan.
- Kuarteroia bai, ezagutu dot nik be.
- (Arantxa): edo Idealak edo ez dakit holako tabako merke bat betik egoten ziren. Bat o bi emun, engaiñau, eta hala, guazak!
- (Asun): [...] horraxe eruan, eta yaesta, barrure.
- (Arantxa): etorri bixar e? Bai. Orduen telefonorik be ez auen, eta orduen ba entregau itten ziren.
- Ihes eginddakuak.
- (Arantxa): bai. Oiñ ez, [...]

2.95. "La Potritos"

- **Hizlaria(k)**: Gorostiza Bengoa, Asuncion
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-044/003
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:15:32. **Bukatu**: 00:18:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Zortzi urterekin hasi zen eskolan. Urte eta erdian ez zuen berbarik egin eskolan, erdaraz ez zekielako. Bizpahiru urtez "La Potritos" maistra zorrotzarekin ikasi zuten.

Transkripzioa
- Eta eskolan zenbat urtekin hasi ziñan?
- Eskolan zenbatekin, ez dakit ba, zortzi urteaz-edo. Hamen gerra denporia “treinta y seis” sei urte, ba eskolatik jai, eta gero beste urtebete baten-edo... gero zerik ez dauket. Eskolan ibili nitzala ixilik bai, urtebete eta erdixen ixilik. Nik maixueri, maistrieri eta iñori be ez notzan berbarik itten, ixilik, ez nekixen erderaz. Lehenengo berba in nauenien erderaz edurra zan baten. Edurra eta guztiakin akordetan naz gaiñera. Nik in nauen deklaraziñua orduen! Eskolan e? Gebitzen errekreuen, han barruko

zeretan, eta “como está edurrando” esan neuen. Lehenengo baten esan notsan bati, lagunari, Miren, akordaten haz ze esan nunan eta zenbat barre in eiztenan-ta? Ez. Ba ni ez zatan akordetan. Zenbat barre heuk eta inguruko danak, (…) danak barre in eiztezuen. Baiña gero ez nitzonan ixilik egon, betik egitten nixonan, txarto edo ondo, ixilik ez behintzet. Baiña urtebete eta erdi gutxienez eskolan eta ixilik. Bai, itten zauen lagunakin berba baiña hola altu sekula be ez.
- Lagunakin euskeraz edo erderaz itten zeben?
- Lagunak be euskaldunek zien.
- Hori ba.
- Lagunak be euskeraz, baiñe zelan derrigorrez erderaz in biher zan, ba ixilik gu.
- Kastigau eta…
- Gero maistria be halakua geuken, “la Potritos”.
- “La Potritos”?
- Bai.
- Kanpotarra zan?
- Naparra zan. “La Potritos” atsu horreaz danok akordetan gare, haregaz, “con la Potritos cuando estuvimos en la escuela”, eta bai, zelako ederra zan e? Neskazaharra, bueno, neskazaharra zalakotan gegonzen. Holan ibilleria be zelebria euken e? “De pies planos” edo, holakue. Ta oso ondo ibiltten zan, eta hola moiñotxo batzuk hemen, dotore. Baiña “la Potritos” gora eta “la Potritos” behera.
- Eta kastigau itten zindduein…?
- Kastigau, betik kastigaute! (…) Kumunera faten ez oskun izten. Permisua eskatu, orduen permisua eskatu biher zan, (…), holaxe zanien be…
- Eta zenbat urtietan euki zeuein “la Potritos” hori?
- Potritos urte pare baten bai, edo hiruen.

2.96. Fedea galtzen doa

- **Hizlaria(k)**: Gorostiza Bengoa, Asuncion
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-044/012
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:46:37. **Bukatu**: 00:49:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
  Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena**: Berba egiten ikasi ezin zuten umeak auzoko ermitara eramaten zituzten. San Anton eguna ospatzen zuten, gero auzoko jaiak eta azkenik abuztuko "Blanca"k. Garizuman kalbarioa ere egiten zuten.

Transkripzioa
- Eta esaten dotset etxien, ikusiko dozue hori zerori botaten dauenien, mutikuei esaten dotset, mutillei esaten dotset: “Ramon, fan biher dok eta hantxe zulo bat jak, eta hantxe garbittu in biher dok ha zulue”. “Neu ez noie hara”. “Ba han zuluen dirua jak”. Dirua edo holakotxe zeozer, gauzan bat. Halakotxe zerak itten dost, holakotxe kuadro bat dau horman, kanpotik

eta ezebez e? Baiña bertan barruen zerraute daue zera, eta hantxe barruen...
- Zeozer egongo da.
- Zeozer, dirua edo zeozer bajak. "Bueno, ni ez noia hara". Ba ni gaztiaua banitza fango nitzekek. Pasaten dana aterik be ez dau oin, atie be zerraute dau lehengue, eta santurik be ez, ermittarik be ez, eta ezebez. Eta lehenago faten zan berbetan ez ekixen umiek be, hara faten ziren eta han santu horri gailletak ipiñi atzamarretan holan...
- Gailletak?
- Bai, santu horri ipintten jakon eta errezau eta gauzak in, eta gero berbetan ikasten auen jentiak. Asmetan ez euenok-eta, eta oin holakorik be ez dau eta, oin ezebez. Lehenau danok [...] gitzen, ba fan edozer gauzetara. Faten gitzen, ni hara ez nitzen faten, eneruen San Anton, gero Patroziñuak izaten zittuan, aste santutaik ez dakit bigarren-hirugarren astera-edo jaixek, auzokuek. Eta gero agostuan barriro Ama Birjiñian egune. Hiru jai bai. Eta horrek dauko, nik ez dot ikusi ha zera, "pero de" Uranga edo holakotxe pintore baten pintturie, hor eliza hortan ataratakue.
- Urangana?
- Uranga uste dot dala.
- Eta ondiok hor dago edo...?
- Ez, bertan ez, beste nunbaitten egon biher dau.
- A, horri ataratakua?
- Hor ataratakua. Neuk ez dot ikusi baiña entzunde leku askotan dauena. Eta horra faten zan Garizuman be, bueno, Etxaluzetik gora hor kanteratik, kamiñue, kamiñue be ez, bidia euen Begoñara, enda kalbario edo zela esaten jako horri zeorri? Horixe zerori be bai. Baiña hori be dana hondatute dau, hor be ezebe ez dau! Bai egongo dire zeozertzuk baiñe, porke horko kanterie, oin kamiñue pasaten dan lekuen, hor kamiñue pasaten zan lehen, kamiño ez, bidie. Eta gero hor pasau auen kamiñua.
- Eta kalbarixua hortik itten zan?
- Kalbarixua hortik izaten zan, ta Aste Santua [...] lurrei mun emunde, tremendo, ederki.
- Fedia izugarrixa, e?
- Fedie bai, orduen? Esan itten euen, fan eta jun itten gitzen, eta oin berriz ez dotsu deiketan iñora be. Batien ezin dozulako, bestien ya sinisketan ez dozulako, eta beste milla gauzagatik, ya... martxa hontan iñok be ez dau federik hartu biher, e? Guk be ez. Nik ikusten dot etxien, neure buruari esaten, ixilik egon biherko juat, bestela bazterrak endreautan neuk.

2.97. Gerran eskola berria txikitu zuten

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/008
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:19:33. **Bukatu**: 00:23:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Udala auzoan hasi zituen ikasketak Juanak, eskola txikitxo batean. Gerra hasi aurretxoan bukatu zuten eskola berria eraikitzen, baina gerran suntsitu egin zuten.

Transkripzioa
-Eskolan da nun ibilli zinaten, auzuan?
-Bai, auzuen? Esangotsut eskola kontuek. Gu gaztiek giñenien, gazte-gaztiek giñenien, holako eskolatxo moruko txiki bat euen, txiki bat, leku txiki bat, baiñe teillatuaz ta behintzat eskolatzat botata. Han juntetan giñen eta abariek emoten euen eskolia.
-Auzoko neska-mutil danak leku baten?
-Bai. Danak. Gero gerra-denporie etorri zan, baiña gerra denporie baiño lenao eiñ euen eskola barrixa, elegantie Udelan. Oiñ holan eskola de eztakit zer. Bai, Gure Ascen lengo astien be umiekin hantxe egon da egun baten. Eztakit zelan esplikau horren eskoliorren izena, baiñe.
-Andrea: “Medio Ambiente” da Udalako eskolia, geure mutikuak be joaten dia, esaten jaue “de Medio Ambiente”.
-Bai, hori dao oiñ. Baiñe hori eskolioi urte pare bat ero aurretik ein zan, eiñ euen eskola barrixe. Bai, Soroak erosi euen eta buuuu! Eskolie zelakue!
-Hori gerra ostetxuan ala geruao?
-Gerra denporan ha geldittu zan inpekable, barri-barrixe, elegantie ta haundixe eskolie, bueno! Sukaldetzar bat, eta gero maistriendako edo maistruentzako gure dana habitaziño bat kuarto bañukin, eta gero egongo zien mutillentzako hiru bat dutxa ero bi dutxa ero egongo zien. Eta neskantzako be. Izugarrizko eskolie zan. Gerra denporan jota dana txikittute itxi euen hori eskolioi.
-Obra barrixa?
-Barri-barrixe. Era gerra ostien bastante denporan egon zan ba geldi, ta gero hartu euela diputaziñuak ero aiuntamentuak hartu auela kargu te. Oin lelenguen ein zan antzera dana arreglaute dau. Da gero han eskolan baiñe, hara eskolara orduko nik hamalau urte eukiko nittun, gerra ostien hamalau. Hau gaztetxue dok eta, honek gehixao eingo euen nik paiño. Baiñe han berrogei lagun joan giñen gu Udalatik eskola hartara lelengo.
-Eta danak gela baten egoten ziñen?
-Bai, danak gela baten.
-Zaharrak gaztiei erakusten?
-Zaharrak gaztiei erakusten be ez, baiñe euki geuen Tolosako alabie zala ta maistra bat kategoria. Ta gerra ostien be hori maistrioi ezkondu bixen bittartien eta umetxuaz Udelara etorri zan. Hantxe egon zan bastante denporan.
-Berak jarraittu eben maistra?
-Bai. Eta gero gerra ostien ni denpora askuen enitzen ibilli. Hau, honek pe gehitxuao nik baiño. Eta bestiek gurien ebstiek ez, ene! Bestiek gu baiño zarrauek gure aldien gogorrak ikusitte. Kriau joanda Bergaako basarrin batzutara ta bi anai. Beste bi anaiek egon zien fabrikan ELMAn, eta gero hareik pe etorri zienien ba bata ELMAra eta bestie Zerrajerara.

2.98. Eskola euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/021
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 01:01:10. **Bukatu**: 01:01:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Gerra aurretik eskolak euskaraz jasotzen zituzten; gerraostean elebitan.

Transkripzioa
-Zuek eskola eta kastigurik izaten zittuein? Euskeraz ikasten zeuen gerra aurretik?
-Gerra aurretik euskeraz? Ene!, oso ondo. Dana euskeraz!
-Baiña gerraostian 'tururu!'.
-Gerraostien ez, baiñe gerraostien be gu ez gitzen... Gerraostien be euskeraz be bai Joxepak be. Bixetara gerraostien. Baiñe gerra aurretik abare bat euki geuen Zarauzkue, Berazadi euken apellidua. Hortxe bat hil euen Berazadi, haretxen anaie zan

2.99. Eskola euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Ertzilla Arregi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-047/003
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:04:16. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena**: Gerran ez zuen ezeren faltarik izan, bere amak lana zuelako soldaduei arropak garbitzen. Gerraostean hasi zen eskolan. Euskaraz jaso zuen berak eskola. Apaiz bat eta Tolosako maistra bat izan zituen irakasle. Eguraldi txarra zegoenean joaten ziren eskolara, onarekin etxean beti egoten zen zer egina eta.

Transkripzioa
-Beste rekuerdorik badaukotzu, bonbardeuak edo holako zerik?
-Keba! Gu umetxuek gintzen eta [...] kalien gengozen.
-Zuen etxiak kalterik izan eben?
-Ez. Gero gu hona etorri gintzen. Ni ez naz akordetan kalteik eukin geuenik.
-Esaten dabe Matonena eta eskola barrixa ta dana xehetuta gelditu ziela.
-Ez, ez, hau ez zan xehetu. Ni ez naz akordetan xehetu zanik.
-Zuk gerria ez ziñuen ezautu, baiña gerra ostia bai.
-Gerra ostia bai. Gerria bera ez ba umetxuek gintzen-ta. Guri ezer ez jakun /etxakun/ falta gerra denporan. Amak soldauei erropak garbittu eta eitten utsen, txokolate eta danetik emuten utsien eta guri sekule ezer ez jakun /etxakun/ falta. Baiña amak lana eitten utsien eta guri ez jakun /etxakun/ falta ezer.
-Eta zu orduan gerraostetxuan hasiko ziñen eskolan?
-Bai, gerraostian.
-Zenbat urtekin hasi ziñen eskolan?
-Ba xei urte ero.
-Hemen auzuan?
-Auzuen, auzuen. Auzuen gauken guk eskolia. Gure umiek be hemen ikesi euen, baiñe gero zerrau zan eta kalera fan zien.
-Zuk sei-zazpi urtekin eskolan hasitta, badaukazu goguan zenbat urte egin

zittuzun?
-Zenbat urte? Zenbat urte eingo geuen ba, urtebete eingo ete geuen? Puxkat hasi gintzenien solora denpora ona euenien ittaurren, eta denpora txarraz eskolara. Denpora onaz ez auen.
-Eta ze ikasten zeuen han?
-Leiduten eta eskribidu eta ba danetik erakusten oskuen.
-Dana euskeraz, ezta?
-Dana euskeraz. Euskeraz, euskeraz. Euskeraz eitten zan orduen.
-Apaizak?
-Apaizak, eta gero maistra bat egon zan Tolosakue.
-Kalian dana erderaz zan.
-Ba hemen euskeraz, dana euskeraz. Zenbat ba, umetxuek gintzen-ta, ittaurren ein ein biher zan, soluen ein biher zan.
-Ahal zanian eskolara.
-Ahal zanien, denpora txarra euenien eskolara. Soluan lanik ez euenien. Ta orduen ba umiek ihesi eskolara fan barek jolasien. Baiñe gero etxien jakiñien segiduen abixetan auien, baekixen ba txarraz bialketan giñuena ta, abixetan auien eta aide!, gero etxien somantie ez gintzelako fuen. Eta esaten gutsen: “a, eta denpora txarraz fan biher dou /bihou/ bakarrik eta onaz zegaittik ez?”.

2.100. Gauez ikazkinak bidean

- **Hizlaria(k)**: Ertzilla Arregi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-047/011
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:25:55. **Bukatu**: 00:29:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Behin Arrazolako jaietara joan ziren neska kuadrilla bat Udalatik. Gauean itzultzean ikaragarrizko beldurra pasatu zuten, bidean ikazkinak azaldu zitzaizkien eta.

Transkripzioa
- Ni akordetan naz urte bat, aillegau zan eta aitta-amai Arrazolara fan bihe geuela Andra Maixetan. Aittek esaten oskun, amak: “Ikusikozue, fuen, fuen, ikosikozue. Ez zaitteze fuen, ez zaitteze!” Umien kontuek. “Zegaittik ez ba?” (Derrigor?) fan bihou. Gehixau ez geuen esan fan bihe geuenik guk. Gero tentetan giñuen: “Etzoieze” ta. “Ez”. Fan gintzen, eta mutill ero ezautu gittun baten batzuk, baiña, zein da harek esan oskun: “Geuk lagunduko dotsuu, hor ikazgiñek dabitz eta ikusikozue” Ba mutillok geugaz. Esan guntsen han goiko tontorrien: “Bueno, hemendik fuengo gara eta ia esta. Bueno guk hemen itxi ein (gau), e, eta ezer zerik itten bozue, ulu”. Ulu?, sasixok be ez dakit zer [da] ulue. Eurak aillegau zien, ikezgiñen ebitzenok urten oskuen guri, eta bestiek goixe itxeitten, eurak etorten zien eta gero lagundu oskuen, e.
-Orduan ulu egin zeuen?
-Ulu? Biheko ulu. Ez geuken pasoik, urten oskun sasittik.

-Zenbat urtekin hori?
-Ba hamalau-hamabost urteko neskatillak izengo gintzen. Edo hamazazpi igual eukingo gittuen. Eta aittek eta esan oskun: “e zzaitteze fuen, ikusiko dozue”. Baiña umien kontuek.
-Lelengua ta azkena.
-Bai.
-Arrazola hori nun dago?
-Bixkaikue, Abadiño zera. Ta gehixao ez geuen esan eta gero esaten oskuen: “Ez zoieze? Benga!, Andra Maixak die. Baiñe ez geuen kontau historixie ze pasau jakun. Baiña gehixao ez gauen esan fan bihe gauenik, e!
-Zeoze pentsauko zeben, ezta?
-Bai, euren artien bai. Hartu daue suston bat eta etxuek gure honek gehixao. Baiña gehixao ez gauen aittatu fan bihe gauenik, e. Eta ez gintzen fan.
-Eta ze zeukan ba, famia Arrazolako..., hemendik haraiño joateko?
-Keba! Neskatillan kontue, auzuen (...) lagun danok pentsau gauen fuetie, han jaixak ziela ta.
-Kuadrillie joan ziñen?
-Klaro! Fuen gintzen ba lagunek, xei edo zazpi neska. Gehixao ez gauen esan guk fan bihe gauenik ez batek eta ez bestiek.
-Ikazgiñak baltzak.
-Eta mutillek esan oskuen, harek baekixien. Geuk lagunduko dotsuou. Bat zan primue gure lagun batena, geuk lagunduko dotsuou. Eta goiko tontorrien esan guntsen, bueno hemendik fango gara. Eta zerien eta,esan oskun, bueno, hor behien (...) deittu. Deittu? Nik ez dakit txilixuak atara gittuen edo sasixek entzun (...), han agertu zien (...) etxafleruen pare. Nora ezkutau zien be ez gittun guk gehixao ikusi. Eta gero auzoraiño lagundu oskuen, e.
-Eta ikazgiñok intenziño txarrakin, ala?
-Geuk badakigu ba ze...
-Baiña bildurra.
-Ha sustua zan gabien, e.
-A, gabaz.
-Gabez. Eguna izan balitza ikusten dozu, baiña gaba zan. Erromeixara fuen gintzen eta gabien getozen gu handik. Gaba zan. Egune izen balitz ikusten da. Baiñe illunien ez dozu ikusten zuk han zer dauen, e. Eta gero auzoraiño lagundu oskuen.

2.101. Zerrajerako "aprendiz" eskola

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Urrutia, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Erref**: ARR-053/003
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:06:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
- **Laburpena**: Zerrajerako "aprendiz" eskolan ikasi zuen Pedrok. Eskola honetan prestatutako langile asko Fagorrera joan ziren, hau sortu zenean. 13 bat urterekin hasi zen "aprendiz". 15 urterekin Zerrajerako biltegian hasi zen lanean.

Transkripzioa
-Orduen Zerrajerie zan hemen, bueno, “la base“ esaten jakona. Bai. Gero eskola aprendize be han auen. Nik eskolatik urten ta bi urte in nittuen eskola aprendizetan ta orduen auen Zerrajeran tornerue, ta ajustadorie, ta elektrizistie ta holan e, barkuek kargetako beste. Ta ez eukien estimaziñoik. Gero Fagor fundau zanien, ba, horreik danok fan zien harutze. Ta orduen geratu zan ez ajustadore, ta ez tornero, ta ezebe barek.
-Orduen ze, Zerrajeran asto lana bakarrik estimaitten euen?
-Aurretik?
-Bai.
-Ba, asto lana be asko. Asto lana be...
-Esan dozu teknikuek eta danak hanka ein eueilla...
-Ba horixe ba.
-... Fagorrera.
-Bai gero e, abitzenak hola e tornelleixan edo, beste leku baten ipiñi zittuen kursilluek, gure baauen ajustadore ein, edo gure baauen tornero ein, elektrizista ein, edo eta... [Hortaittik] urten auen mordo batek, ta gero ba praktikiaz ba puxka bat jarri ein zien, baiña haik, lelengoko haik, esaten zienak tornero-tornero, ta ajustadore-ajustadore, ta haik danak, onen danak, Fagorrera fan zien. Bai.
-Ez euen ondo pagaitten Zerrajeran?
-Bueno, ha ipinttie Zerrajerako obreruek ez auen galdu be ez ein, ze jentia hara fan ez zain, puxkat jaso ein zittuen jornalak. Ta... nik neuk be euki nauen Fagorrera fateko okasiñue, baiñe ez nitzen fan. Neuk e... lelengo bi urte ein nittuen eskola aprendizetan, ta gero, tio bat abillen almazenien, ta harako mutiko bi edo mutikote bi biher ziela, ta etorri zan hona ta aitte ta ama konbenziru zittuen ta fan nitzen almazenera.
-Zenbat urtekin?
-Ze sartuko nitzen aprendizetan, hamahirutik hamalaure edo? Ta fango nintzen hara, ba, hamabost inguruen edo. “En el año cuarenta y siete“ edo holako bat.

2.102. Ohiturak: Ezkontza, lutoa...

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Urrutia, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Erref**: ARR-053/025
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 01:00:02. **Bukatu**: 01:02:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ezkontza egunean familia arteko banketea izan zuten, Arrasateko Toki Ona jatetxean. Trajea janztea derrigorrezkoa zen ezkontza egunean. Bere ezkontzako trajea semeak apurtu omen zuen Maritxu Kajoi jai batean. Gurasoetakoren bat hiltzen bazen, lutoa bi urtez eramaten zen. Beste senitartekoren bat bazen hildakoa, luto-erdia izaten zen.

Transkripzioa
- Ez.
- Ez, ez? Ez zan izaten.

- Ta zuek ezkondu ziñaiñien, banketia edo eitten zan?
- Bai, bai, bai, bai. Eruten zien etxekuek danak ta gero tia-tiuek be danak, ta ba hortik aparte gauza haundirik ez. Gu juntauko giñen hirurogetaka lagunek. Mondrauen, orduen jatetxiek oso onak auzen. Toki Ona esaten akona, ta guk Toki Onan euki gauen, ta gero aurreratxuauen Mendikutena ta Urizar be orduaintxe sartu zan ta, bai. Jatetxiek onak auzen.
- Eta trajea? Zuriz ezkontzen zan neska ala beltzez?
- Horri preguntaiozu, ez dakit nik. Nik behintzat trajie derrigorrekua zan ezkonketako.
- Baiña gero modan egon zan zuriz ezkonketia.
- Baiñe...
- Orduan zer zan beltzez?
- Ez dakit nik zuriz ta ni, horrek berorrek daki nik baiño hobeto. Horrek holako soiñeko bat erun auen ez dakit nik armaixuan ez dan eongo. Ta ni, trajie, mutikuek apurtu auen zerien, Mari Kajoi edo holako...
- Harek akabera ona euki eben orduen.
- Bai, harek emun utsen azkenoi. Trajie jantziko naben ezkonketako. Gero akordetan naz ezkondu harekin trajiekin ta gero beste batekin fan nintzen Madrilera ta gero akaso entierroren baten edo jantziko naben baiña akabo. Nik ha trajie gehixao ez naben jantzi. Bai.
- Eta lutua?
- A lutua, bueno, hori beste historixa bat zan. Lutua ama edo aitte edo familixako bat hil ezkero, baltzez jantzitta ibili biher lehenengo urte bixen edo ez dakit zenbat denporan.
- Bi urte?
- BI urte uste dot izeten zala.
- Urte bixan baltzez, e? Lutua?
- Bai, bai.
- Bi urte gurasuak bazien hiltzen zienak.
- Bai.
- Eta beste senitartekon bat baldin bazan?
- Mediolutue edo holako zeoze esaten akon. Gero orduen auzen gabardina haundi batzuk eurixa danerako ta, ta holako brazoleta haundi bat ipintten akon baltza besuan.
- Norbaitt hiltzen zatzulako, esateko.
- Bai, bai. Bai. Orduen... Orduen, bueno, oin be hilttie hilttie da ta bakotxak bere lekuetan pena hartuko dau baiña orduen nik pentzeten dot persona bat hiltten zanien familixa dana gaixotu eitten zala. Bai, ta gero errezuek ta ez dakit zer ta badakit zer.
- Osea ke errosarioa egunero errezatzen zendun etxen? Errosarioa, egunero.

2.103. Eskolak euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Altuna Mondragon, Lorentza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-068/004
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:05:13. **Bukatu**: 00:08:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Bedoña auzoan bi eskola zeuden: umeek sakristau-etxean ikasten zuten, eta gero abade-etxera pasatzen ziren. Hemen

ikasi zuen Lorentzak. Gero Aretxabaletako Aozaratza auzoko eskolara joan zen, eta handik Arrasateko mesedetako mojetara. Eskola gehienak euskaraz jaso zituen, mojetan izan ezik.

Transkripzioa

-Eta zerbiduten juan baiño lehenao eskolan be ibiliko ziñen?
-Bai. Hombre. San Andres, hemendik Bedoñara guk geunken. Baserrixe San Andreskoa, baiña Bedoñin geunken zeroi. Lehenengo ibili gintzen abadiaz.
-Izena?
-Don Fermin. De Arroiabe.
-Arroiabe. Fernández de Arroiabe.
-Don Fermin Fernández de Arroiabe, bai.
-Ta hori, eskola hori, abadetxien euen?
-Bai. Abadetxien euen. Eta beste bat euen sakristauenien. Lehenengo txikixek sakristauek ibiltten zittuen ta gero pasetan zittuen abadiana.
-Ta bi eskola euzen?
-Bai, bai. Eskola, eskola moruen, bai, bai, bai. Ta hantxe ibili gintzen gu. Ta gero ez dakit /eztakit/ nik.
-Zu zeu ibili ziñen, sakristauan?
-Ez. Ez naz akordetan sakristauen ibili nintzenik. Abadiaz bai.
-Eta zenbat urtekin edo hasi ziñen?
-Ba gaztie, gazteik. Zenbat urtekin? Gazte.
-Bost- sei edo?
-Bai holakon bat, bost-xei bat urte edo hola.
-Eta noiz arte egon ziñan hor?
-Ba gero, puxkat kaskondu gitzenien akordetan naz hemen ez dakit / eztakit/ zer pasau zan, faten gintzela Azatzara be bai.
-Azatzako eskola?
-Azatzan egon zan maixu bat ta ez naz akordetan zela euken ixena be. Holako zelebre samar bat zan bera ta ez dakit /eztakit/ zer ikisi eben han, dibujuk eitten-edo, ez dakit /eztakit/ zetan. Ez geben denpora asko ein e! Bazkaixaz faten giñen hara. Ta gero Merzedarixatan be ibili nintzen beste apur bat.
-Hori, Atxabaltzan edo Eskoitzan?
-Mondrauen. Merzedarixetan Mondrauen. Maixuaz Azatzan e! Atxabaltan. Ta gero Mondrauen Merzedarixetan. Baiña ni estudiante txarra izen naz e! Estudiante txarra. Hemendik sartu ta bestetik urten uste dot.
-Ze eskola klase jasoten zeuen? Pentsaitten dot dotriñie asko ikasiko zauela?
-Hombre, dotriñie bai. Lehenengo txikixe, gero haundixe, oraziñuek eta horreik ondo ikesi biher izeten zien-ta. Gañetikoik ez, baiña hori bai.
-Euskera edo erderaz jasoten zenduen?
-Euskeraz. Euskeraz.
-Eskola dana jasoten zauien euskeraz?
-Bai. Akordetan naz don Fermin difuntuek zela erakusten euskun: aberea “ganado”; hau “éste”; agertu “aparecer”; ta holako zerak erderara be puxkat, ez dakitzu? Baiñe bestela euskeraz dotriñie-ta euskeraz. Ta gero Merzedarixetan erderaz.
-Dana erderaz.
-Dana erderaz.
-Ta bazekitzuen […]?
-Gero erderaz.
-Hara fan ziñien orduko bazekitzuen ya erderaik?
-Bueno, zozer hartuko geben-edo, zeozer. Zelakuk izengo zien? Ez dakit. Baiña zeozer bai.

2.104. Lihozko izarak eta lixiba

- **Hizlaria(k)**: Altuna Mondragon, Lorentza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-068/009
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:21:04. **Bukatu**: 00:23:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Lihoa (linua) soroan ez du ezagutu Lorentzak, baina lihozko izarak ospelei hazka egiteko onak zirela dio. Garbitzeko eta lehortzeko ere ez omen ziren errazak izarok. Pujeta (lixiba) nola egiten zuten gogoratzen du, hamabost lagun etxean bizi zirenean.

Transkripzioa
-Bai.
-Eta, garixa ta artua ta eukitten zebein?
-Bai.
-Zuk liñua ezautu dozu?
-E?
-Liñua.
-Ez. Baiñe liñue uretan non eukitten euen hotxian, badakit.
-Liñu potzuek?
-Liñu pozuek, bai. Baiñe neuk ez neben ezautu. Ta hemen be beuen, hemen arku onduen euen bat, liño harrixe zala esaten euen. Liñue joten euen harrixe.
-[…]
-Bai, liño harrixe esaten euen zala. Baiñe neuk ez neben ezautu liñoik.
-Gero etxien entzunda edo? Zuk liñozko izerarik eta ez dozu sekula eduki ohien.
-Bai, liñozkuek.
-Bai, zera baiño gogorrauek, ezta?
-Bai, hombre. Ospelei hazka eitteko izeten zien hareik onak. Ospelak ugeri eukitten gittuen ta harai hazka eitteko onak izeten zien hareik.
-Behin ein dot lo liñozko izerakin eta…
-In dozu?
-Eta sekula gehixa ez.
-Bai, liñozko izerak, gogorrak eta bai. Bai, sikeketako ta garbiketako ez zien ederrak izeten e!
-Ez, pentsetan dot.
-Ordun pujetie ein biher izeten zan ta ni akordetan naz han Estradakon zela egoten zan tinaja bat ta han beraketan ifintten zittuen ta trapu bat ifiñi gaiñien ta suteko hautsaz. Ure bota berue ta suteko hautsaz. Ha bigunketako zozer biherko /biko/ zan.
-Bai,[…] puxetia betik sutako hautsakin, ezta?
-Bai.
-Zuek erramorik botaten zotsein puxetiai.
-Ba, gaiñera bai, zeozer bai. Ni gero ez naz akordetan, baiñe Estradako hori nire, pentsau eizu, gu hamar anai-arreba izen gitzen, gurasuekin hamabi, aittajauna amandriekin hamalau ta beste izeko bat hamabost.
-Tropatxue.
-Ni akordetan naz, bai. Ta gero ba, ni txikixena, ni neuk gure nittuenak ein ta han ibiliko nitzen, baiña bestiek ba…"cada uno sálvese quien pueda" ein

biherko /biko/ euen. Eta akordetan naz amandriek eta bizi ziela Estradako sukaldien zela euen zera, tinajie batendako zulue moduen, baztar baten. Ta han eukitten euen zera, tinaji hori.
-Puxetia?
-Pujetiendakue.
-[…]
-Bai, zulo bat.

2.105. Erramu bedeinkatua

- **Hizlaria(k)**: Altuna Mondragon, Lorentza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-068/010
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:23:33. **Bukatu**: 00:24:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Erramu hostoak jartzen ziren lixibaren gainean. Oraindik ere, bedeinkatutako erramu adarrak jartzen ditu Lorentzak baserriko ate eta bazterretan. Ortuan ere jartzen du erramuzko gurutzetxo bat.

Transkripzioa
-Gaiñien eukitten zittuen elauntz-orrixek.
-Zertzuek?
-Elauntze.
-A, elauntze zuek erramuai esaten dotsezue?
-Erramue, bai, erramue. Elauntze, elauntz-orrixek. Elauntze. Erramue da bestie. Elauntz-orrixek ifintten zittuen.
-Elauntze ez da laurel?
-Bai.
-Ba guk erramue esaten xau.
-Erramue, ba guk elauntze. Elauntze. Erramue da hori beste, erlatei onduetan eta egoten danoi. “Miel de Romero”.
-Ez, romero beste gauza bat da. Guk Oñatin esaten xau, laurelari esaten xau.
-Erramue?
-Bai. Baserri askotan eoten dana, etxe inguruen.
-Bai. Nik oin be hor dauket, hor atien txintxiliz.
-Bai, bedeinkaketa eruteko.
-Elauntze, bedeinketute. Neu ez naz fan, baiñe aldekuek ekarten dust. Angelek ekarten dust urtero urtero bedeinketute. Ifintten dittut atien hor dauket ifiñitte txintxiliz, kanpoko atien be bai apur bat. Ta ifintten dittut bazterretan. Ortuen be bai, kurtzatxo bat erramuekin.
-Hor zer?
-Erramue, bai, laurela zerakin, erramuekin.

2.106. Eskolara Arrasatera

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Sagasta , Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa

- **Erref**: ARR-073/002
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:01:26. **Bukatu**: 00:04:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Bost urterekin Arrasateko mesedetako mojekin hasi zen eskolan. Gero eskola nazionaletara pasatu zen, Martin Calvo Sanadria maisuarekin. 13 urtera arte ibili zen eskolan. Euskaraz egiteagatik asko zigortzen zuten eskolan.

Transkripzioa
-Eskolan zenbat urtekin hasi ziñan?
-Eskolan, ez dakit neuk be fijo baiñe, bost bat urteaz edo zerera, Mondrauera, monjetara ta hantxe lehenengo letrak ikesi ta gero.
-Monjetara, ze monjakin? Akordetan zara?
-Merzedarixak zien.
-Goguen dauketzu maistran...
-Izenak eta, keba!
-Bakarren bat.
-Ezta, ideaik be ez dauket.
-Eta hauxe, ze, pentsaitten dot eskolie erderaz jasoko zaueilla.
-Dana, dana, bai.
-Eta kastiguik eta izeten zeuen, euskeraz eittiegaittik?
-Han monjetan hainbeste ez. Gero, zerera fan giñenien, bakitzu nazionaleta fan giñenien, han bai, bueno. Han dana erderaz ein biher zan /bizan/. Ta ez gakixen.
-Oseake, ordun monjetan ez zeuen ikasi erderaik?
-Ez gutxi, bapez. Denpora gutxi ein nauen monjetan.
-Zenbat urte?
-Urte bi edo, holaxe. Urte pare bat ein nittun monjetan, bai.
-Asike han trankil, orduen.
-Bai.
-Eta gero handik ya nazionaleta?
-Nazionaleta.
-Hango maisuen izenik, goguen dauketzu?
-Bai. Martin Calvo Sanabria.
-A, Calvon eskolan orduen.
-Bai.
-Calvo Sanabria?
-Bai.
-Zenbat urtetan euki zendun hau maixuau?
-Hori ba, ibili gintzen denpora guztien. Fango nintzen zazpi bat zortzi urteaz ta hamahiru urtera arte, hamabi- hamahiru urtera arte.
-Zer moduzkue zan, Calvo hau?
-Diktadorie, tremendue.ai. Eskolie erakusten txarra ez zan, baiñe gogorra. Makillie ugeri ta. Eskolan holan bape listo samarrak edo ondo manejetan zien, baiña gure moduen torpe samarra zana egunero kastigaute ta egurre, keie.
-Baiña,baiña, alde batetik euskeraz eittiegaittik eta bestetik leziñue ez ikastiaitik?
-Leziñue ez ikesteagatik eta danagatik eta euskeraz derrigor ein biher zan /bizan/. Han ta leku danetan, orduen honek e maestro nazionalak eta. Han dana ein biher zan /bizan/.
-Zuek eraztunik edo zeozer eukitten zauein, batak bestiai pasaitteko euskeraz einddakuen ta?

-Ez.
-Berak entzun ta egurra?
-Berak entzun ta egurra. Euskeraz ikusten baziñuen.Ta beti kastiagute, ba errekreo barik eta holako kastiguek egoten zien. Ta hantxe.

2.107. Oinez joaten zen eskolara

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Sagasta , Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-073/003
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:04:06. **Bukatu**: 00:07:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Kanikaka, tronparekin, pilotan, toke-torreka, sokasaltoka... jolasten zuten. Goizean eskolara, bazkaltzera etxera eta buelta eskolara, dena oinez egiten zuen. Auzoko neska-mutilak kuadrillan joaten ziren eskolara.

Transkripzioa
-Eskolan edo errekreuan ta ze jolas klase itten zien garai haiettan?
-Kanikaka ta tronpiaz ta.
-Kanikak ta tronpiakin be bai e!
-Bai.
-Ta pelotan ta eitteik izeten zauen edo?
-Bai, eitten gauen bai. Han eskolien aurrekaldien euen palazio zahar bat eta haren paretan kontrara eitten gauen ta gero frontoien be bai iñoz ibiltten giñen, pelotan ta.
-Futbolien ta eitten zauein?
-Futbolien ta hainbeste ez, pelotan gehixau ibiltten giñen.
-Eta toketorreka eta holako jokuek be bai?
-Baitte, horrek be bai. Soka saltoka ta.
-Soka saltoka neskakin edo zeuek?
-Neskakin, danok batera, neska-mutil ta.
-Zelan egoten ziñain, klasian neska-mutillak alkarrekin edo?
-Ez ez, mutillek bakarrik. Calvok mutillek bakarrik euken.
-Eta monjakin, igual?
-Monjak danak nahaste. Neskak ta mutil ta danak.
-Eta gero handik monjetatik urteten eben neskak, ze faten zien, nazionaletara hareik be edo monjetan jarraiketen ebein?
-Nazionaletara ta bertan jarraittu igual baten batzuk, baiñe general nazionaleta. Han gaztiek egoten zien.
-Ta orduen zu, hamahiru urtera arte Calvo honekin. Hau famosue izan zan ezta?
-Bai, joño. Eskolie erakusten ta txarra ez zan, maestrue ona zan, baiña gogorra. Bueno!
-Eta zu hamen jaixo baziñan, zelan dauko izen a etxe honek...
-Mietza.
-Montzon. Mietza Mietza.Montzon behekua da bai.
-Zu Mietzan jaixua ziñan , eskola zelan faten ziñan?
-Oiñez.
-Egunero?
-Egunero. Ta eguerdixen bazkaitten oiñez etorri etxea.

-Eta atzera bazkaldu ta eskola?
-Atzera ordu bixetarako eskolara. Ta ilunkeran […] etxien palizie. Errezaittera fan biher izeten zan ta.
-A, errezaittea? Ze eittea?
-Eskolatik etxera illunkeran urteten zauenien bostetan, aguro etorri biher ganadu zain edo. Hara be nonor fan biher izeten zan ta. Lana egoten zan etxien.
-Eta etxeko lanakgatik etxien sekulo geratu ziñen?
-Bai bai, igul bai, iñoiz bai.
-Igual ittaurrien eta hola?
-Ittaurrien ibilttearren ta iñoiz bai. Askotan ez, baiñe bai.
-Eta hemendik ze faten ziñein, kuadrillan bat edo?
-Bai, auzoko danekuek faten giñen, auzo dana faten zan.
-Eta Mietzerrekan zuk ez zen ezautu, Mikeletz etxeko eskolia?
-Nik ezautu bai, baiño eskolaik eta emoten-ta ez.
-Ya ez euen emoten eskolaik han.
-Ez ya ez zauen emoten. Horrek gerra ezkero ez da egon eskolaik. Aurretik bai. Mobimientue “trentaiseiseko” gerratik honantza, ez da egon hor, eskolaik ez da emon. Nik ez dot ezautu hor eskolaik emoten.

2.108. Etxean lana, eskolara berandu

- **Hizlaria(k)**: Berezibar Ibabe, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-075/004
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:04:35. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Etxean lana zegoenean eskolara berandu joaten zen. Aitak eskola "tunanteena" zela esaten zien. Bere aitonak ez zekien idazten ezta irakurtzen.

Transkripzioa
-Etxien lana euenien, eskolara faten ziñan, edo...?
-Bai, beranduau edo, zelabaittera bai.
-Ta baiña normalien ez zeben lan eitten?
-Aittek esaten uskun “Eskolie tunantiena dok e, tunantiena eskolie!“
-Berak ez eukan?
-Apur bat baauken bai. Ez eukena zan aittejaune. Ez ekixen leiruten, ez ekixen eskribiruten, ez akixen firmetan.
-Aittajaunak, e? Jontxo. Aittejauna be hangua Salturrikua izango zan.
-Hemengue zan bai.

2.109. Ikastolan ikasi zuen gerra aurretik

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/002
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:01:07. **Bukatu**: 00:04:09

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena**: EAJrena zen Gurea frontoi osteko ikastolan ikasi zuen. Errepublika garaia zen, eta Abade-etxean ere bazegoen beste ikastola bat. Gerraostean San Viatorren apaizak etorri ziren eta haiekin ikasi zuen.

Transkripzioa
-Ta zu zeu nora fan ziñan eskolara?
-Ni? Hara... Mondrauen euen e, batzokixe. Batzokixen atzien euen jardiñe haundixe. Ta han ein zan, ein auen PNV-kuek frontoi bat.
-A, frontoia.
-Ta frontoien atzien e, esk... ikastolie. Eta frontoien errebotie izeten zan holako ate haundi bat zerretan zan, ta ha zan eskolie. Ta gero errekreuen ha zabaltzen zeuen ta handik jardiñera faten gitzen. Ta ha izen zan "Fronton Gurea". Gero ipini utsien. Baiña ha zan Batzokiko frontoie.
-Eta zueik egon ziñein eskolie be bai Batzokiko ikastolia zan, ezta?
-Ez, danerakuek, baiñe bai, Batzokixek ein auen ha frontoie. Baiñe ikastolie? Ikastolie danendako zan, e.
-Baiña PNV-kuek jarrittakue zan hori ikastoliori?
-E?
-Hori pribaue zan edo publikua?
-Publikua, publikua. “Lo que pasa que” orduen ba Batzokixek ein auen ba frontoie ta eskolie be hantxe euen. Ta gero beste eskola bat euen abadetxien. Ikastolia ha be. Dana euskerakue zan orduen.
-Hori zan Republika garaixan, ezta?
-Republika garaixen.
-Oseake ikastola. Orduen zueik eskolak euskeraz jaso zittuein?
-Bai, bai, bai. Guk...
-Gerrara arte.
-Bai. Gure maixuek zien Hilarion, Urrutia, eta Etxebarria.
-Hilario Urrutia...
-Eta Juanito Etxebarria.
-Zer zien eurak, arrasatearrak?
-E? Arrasatearrak.
-Juanito Etxebarria... Zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
-Gu eskolan ba mutikotan. Betiko moruen.
-Bost-sei urtekin?
-Bost-xei urtekin edo. Karo.
-Oseake hori zan hogeita hamaika hogeita hamabi zer horretan, ezta?
-Bai, bai. Hogeta hamaika, hogeta hamabi, hogeta hamahiru, hor ibiliko zan.
-Eta hor egon ziñain gerrara arte? Eskola horretan?
-Bai, gerra denporara arte eta gero gerra denporan horreik desapareziru zien, ta etorri zien hona e Viatoristak. San Viator. Ta gero hantxe ibili giñen gu.
-Ta San Viatorren ia zien eskola nazionalak, ezta?
-Bueno, eskola nazionalak zien beste batzuk. Baiñe San Viatoristak etorri zien nazionalen epokan. Frankon epokan etorri zien. Bai.
-Eta zuek pasau ziñen orduen San Viatorrera?
-Bai, beste...
-Ha publikua zan edo pagau in biher zan?
-Eeee... publikue uste dot zala, e! Nik ez dakit /eztaitt/ pagetan gauen zerbait edo, baiñe ez dot /eztot/ uste, e!

2.110. Eskolatik iturgintzara

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/003

- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:04:09. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: "Escuelas Nacionales" deiturikoak ere jarri zituzten gerraostean. Den-denetan neskek eta mutilek aparte ikasten zuten. Hamasei urtera arte ikasi zuen San Viator eskolan. Aita Eskoriatzako baserritar bat zen, eta ama arrasatearra. Aita iturgina zen, eta etxean zuen tailerra. Joxek aitaren ogibidean jarraitu zuen.

Transkripzioa
-Publikuek gero beste batzuk euzen, e! “Escuelas nacionales“. Batzuk zien “escuelas nacionales“, goiko Santa Barbaran euen bat, beste bat Calvo-na, beste bat... hiru eskola edo baeuzen e. Baiña hor mutillek eta neskak aparte egoten zien. Baiñe ni ibili nitzen San Viator, Viatoristas.
-Bai. Eta San Viatorren mutillak bakarrik, edo zelan zan?
-Mutillak bakarrik.
-Eta Ikastolan neska-mutillak alkarrekin?
-Ezta, ezta.
-Ezta, bape?
-Orduen holakoik ez euen. Neskak egoten zien mojetan. Mojetan.
-Ez, eske, auzo-eskoletan normalien alkarrekin egoten zien.
-Ba gu ez, Mondrauen ez.
-Eta San Viatorren zenbat urtera arte?
-Baaaa... hamasei urtera arte edo. Hamasei-hamazazpi urte.
-Bai, e, hainbeste e?
-Ba, hamasei, hamasei urtera arte, bai, bai. Ez e, e! Orduen ez euen ezebez gehixau e, hortxe akabetan zan e!
-Bai, bai, bai.
-A.
-Hamasei urtera arte eskolan.
-Horreik gero, gero urten auen horreik zerok. ”Escuela de aprendices” eta horreik gerokuek die e. Orduen e, diruek eukenak faten zien estudixetan kanpora. Baiña zenbat? Mondrauetik hamar lagun edo e! Beste danak, hortxe akabetan zan.
-Eta lanera.
-Lanera.
-Zeure aitta-amak nunguak zien?
-Nire aitte zan Mazmelakue.
-Mazmelakua, ze etxetakua?
-Etxenausi, caserio Etxenausi. Ta ama Arrasatekua. Aitta zan Bittor Arriaran, ta ama zan Rosa Aranburu.
-Ama zer, kaletarra?
-Bai, kaletarra.
-Zenbat anae-arreba ziñein?
-Xei.
-Sei anai arreba?
-Lau mutil ta bi neska.
-Eta zu, orduen, Arano kale horretan bizi izan zara beti edo?
-Hortxe geuken guk, bizi ta hojalaterixie geuken guk.
-A, jontxo. Aitta hojalaterue zan?
-Aitte hojalaterue. Ta gero neu be bai.
-Oseake pelotari baiño lehenau hojalatero izen ziñan?
-Bai, ta gero be bai. Ta gure aittek eukiko auen orduen... hiru langille. Ta ni

hasi nitzen… anai nausixena fan zan Zerrajerara, ofiziñetara. Ta ni hasi nitzen hojalatero ta, ba, hor nebillen, hojalatero.

2.111. Soldadu eta pilotari

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/006
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:13:10. **Bukatu**: 00:15:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Gasteizko pilota enpresariaren aholkua jarraituz, soldadutzara boluntario joan zen. Destinoa Gasteizen aukeratu zuen, pilotan jokatzen jarraitu ahal izateko.

Transkripzioa
-Ta Bitorixara fan nitzenien, zera, pelota partidue jokatetan, enpresarixuek, Efisio Alti zuan, asko gure eustan niri, ta nigaz oso ondo portau zuan. Esan justan e, […] intendente eitten auenak: “E! Efisiok esan jok fateko hara“. Beragana. Hotela ta frontoie zuan. Hotela elegantia. Fan nitzuan hotelera ta esan justan. Orduen Pepito deiketan justien niri. “Pepito, cuándo entras tu en filas? “ Ta ”Pues el año que viene”. ”No, no, no, no. Vas a ingresar voluntario.”
-Han berriz.
-“Voluntario? Joer, me van a matar en casa” esan nutsan. “Me van a matar en casa”. “No, no, no. Si te toca a Madrid, ¿qué pasa? ¿O a Burgos? ¿O a Barcelona? O a…”. Aibadios! Ta etxera etorri nintzuan ta esan naixuan etxien, ta joe hurrengoko egunien nire ama —nire ama balientie zuan e!— hurrengoko egunien fan juan bera Bitorixara ta berakin berba ein biher auela /biauela/ ta fan zuan Bitorixara ta konbenziru juan. Ta bai, etorri zuan ta “faten bahaz e... Canariasera-edo toketan bajak, akabo!” Ta ondo egon nitzuan ni, ondo.
-A, ta orduan boluntarixo fanda zeuk aukeraketan zeben destinua?
-Karo!
-Ez dakit, nik, [ez nauen soldauskarik ein], orduen ez dakit…
-Karo! Karo! Hi boluntarixo faten hitzen baiñe hantxe kuartelien egoteko. Ta ordureko harek erositte eukan danak. Kapitanok eta…
-A bai, e? Preparauta eukan orduan e?
-Preparaute.
-A, orduan Bitorixan ein zeben soldaduska hori?
-Bai. Hiru urte, e! Hiru urte. Baiñe ondo, ondo, ondo.
-A, boluntarixo fanda luziaue zan?
-Hiru urte. Hiru urte egon biher zittuan /bizittuan/.
-Eta pelotan be eitten zeben, soldauskan egonda be?
-Jode, karo, zegatik fan nitzuan ba! Zegatik fan nitzuan ba?
-Oseake besti horrek ia…
-Ni boluntarixo ez nitzuan Franco defendiruten fan e! Pelotan han geraketako.
-Ia, ia…
-Ni ondo bizi izen nitzuan.
-Orduen zu soldauskan zengozela igual Donostian eta…

-Karo, edozein tokittara, edozein tokittara.
-Bai, soldauska ona.
-Bai, ona, ona, ona.
-Bueno, bueno.
-Goxien fan kuartelera ta atsaldien libre.
-Ta han kuartelien bertan baeuen frontoirik edo?
-Baitte. Han be entrenetan gitzuan. Frontoi ederra jeuan. Abiertue baiñe ederra.

2.112. Gaztetako dantzak

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/019
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:42:09. **Bukatu**: 00:44:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena**: Plaza erdian zegoen kioskoaren bueltan gazteek dantza egiten zuten, gurasoak begira zeudela.

Transkripzioa
-Eta alaixauak. Zuek erromerixa ta dantza ta nora joteko joeria zeukatzuein hortarako? Han Mondrauen bertan plazan itten zeuein dantza, edo?
-Plazan, Mondraueko plazan, domeketan.
-Zein egoten zan, Julio eta honeik joten euein han edo?
-Zein Juliok?
-Julio Galartzak eta, Torresek eta. Edo zu baiño zahartxuauek die horreik?
-Horreik zaharrauek dittuk ni baiño.
-Torres tanborillakin ta Julio txistuekin ibiltten zien.
-Bueno, horreik txistularixek zittuan.
-Ia, baiña, niri esan ostan joten eueilla bandan, bandiek eta…
-Ta gero musika, bai, plazan be bai. Horreik e, sueltue joten juen.
-Bai.
-Ta gero bandie jauan Mondrauen ederra e. Ta kioskua jauan erdi-erdixen. Plaza erdi-erdixen. Ederra kioskua! Hak, ha lastimie kentzie. Joeeeee. Eta holaxe bueltan, dantzan itten zuan, ta aittek…
-Ta bandie kioskuan, ezta?
-Bai. Aittek eta amak eta dana ikusten, ta semiek eta alabak-eta dantzan. Nik hori bizi izen naixuan, baiña gutxi, porke ni pelota partidua jokaketan faten nitzuan, ta beratziretan akabetan zuan musikia, ta gu berandu etorten gitzuan. Ta gu afaldu eta kalera urten orduko… akabauta egoten zuan dana. Ta gero tabernak be hamabixetan zerretan zittuan e! Taberna danak hamabixetan zerrauta, e. Ez oingo moduen, goixeko xeiretan ta. Hamabixetan fuera! Serenuek etorten zittuan ta aide!

2.113. Karapaixoa edo Pazko-opila

- **Hizlaria(k)**: Mujika Arana, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-145/021

- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:48:52. **Bukatu**: 00:50:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Aitajauna zen Pilarren aita pontekoa. Bera hil zen arte urtero egin zion "karapaixoa" (Pazko-opila). Okindegian egiten zituzten karapaixook, eta Garizuman oparitzen ziren.

Transkripzioa
- Ni abuelok asko ein dost. Abuelok asko asko asko. Karapaixua bera hil arte. Karapaixua, bakitzu.
- Bai, bai, bai, bai.
- Harek ein dust niri bera hil arte! Haundi ein ta danak ein ni danak ta berak, aittajaunak karapaixua.
- Eta karapaixua hemen Arrasatekua zer da hola, triangulo bat?
- Bai, triangulua. Gero arrautzak, txorixua...
- Oñatikua, Oñatin be halaxe da.
- Karapaixua.
- Eta hori karapaixua etxien itten zeuein edo...
- Ez, ez, panaderixan.
- Panaderixan?
- Panaderixan.
- Ze, urteko ze garaittan emoten da karapaixua?
- Garizuman.
- Garizuman?
- Garizuman. Ia oin ez da itten. Oin ez dau gure iñok karapaixoik. Hori, nik daukat bi-hiru edo neure besuetakuek eta ja! Batai be bapez, porke oin dirue bihe daue ta... Oin neuri falta itten dost diruak. Diruak neri falta itten dost oin.
- Bai, bai, bai, bai. DIrua. Lehen karapaixua baiña, danok in dou hori ta.
- Bai.

2.114. Mamuak Arrasaten

- **Hizlaria(k)**: Mujika Arana, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-145/022
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:50:09. **Bukatu**: 00:53:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Elizan albakoa kanpaia jotzen zuten iluntzeko zortziak aldera, eta ondoren mamuak irteten ziren, neskak beldurtzeko. Mamu bat harrapatu zuten eta mozorrotutako herriko abade bat zela jakin zuten.

Transkripzioa
- Garai haretan hamen kalien, basarrittan eta eliziak inddar asko euken, abadiari emun bihar xakon egurra ta anega bat gari [...] eta bueno, hamen kalien pasaitten zien holako gauzak? Kalien be inddar asko euken eliziak?

- Bai, albakua joten euenien...
- Albakua zer da?
- Kanpai batzuk, bonba-bonba... Zortziretan edo beratziretan, albakua, ta urteten euien fantasmak.
- Fantasmak?
- Honbre! Eta klaro, danok bildurrez etxera. Fantasmak, fantasmak! Ta egun baten, esan auien, "bueno, hamen aklarau in biher dou", mutillen batzuk. "Hola ezin leike segidu. Fantasmak zeintzuk dien". Kendu utsien, juan, ebatu atzetik, hiru lagunek jo, batei kendu utsien gaiñeko zer hori ta... A! Mondrauko abadia bat.
- Oseake, orduen abadia janzten zan fantasma umiek, mutikuak billurketako?
- Umiak, geu, neskak eta neskie, geu billurketako.
- Eta abakua zan kanpaien izena, e?
- Albakua. "Ia, albakua joten!" "Ta bai, albakua joten" ta...
- Hori illunkaran, ezta?
- Bai.
- Ta hori egunero?
- Orduen epokatxo baten bai, hasta ebatu arte. Enda nobixuez be hasitta ta "juan in biheko dou, albakue jo daue ta, juan in biheko dou" ta... Hori kenduko da. Hori kendu, ebatu utsien ta...
- Ta ze, kaputxia kendu ta
- Kaputxia ta gaiñeko sotani hori ta arrankau utsien ta...
- Ta herriko abadie.
- Bai, kaleko abadie.
- Orduen hori pasau zan, zu nobixotan, ezta?
- Bai, nire nobixotan. Ta bueno, nobixo aurretik be bai. Nik nobixue ez neukela be bai. Ni denpora asko ez nitzen ibili nobixuez. Ibili nitzen bost bat urtien edo...
- Albakua.
- Albakua.
- Eta kanpaiak jo ta gero fantasmak urten.
- Eta fantasmak. Enda neskatilla danok eta neskak baiña erretirua. Ta gure aittajaunak eta be "Ene! etorri zaitteze, jaingoikuaittik, etorri zaitteze". Ta gero ebatu utsien ta esan nutsen "aittajauna, ez hartu gaixki, e? Baiña fantasmai ebatu utsie" "Ebatu utsie? Zein" ta "Fulanok" izena [...] abadiena, ta "ke ba, ke ba!" esaten usten, "Ke ba, ke ba, ez! Harexei ebatu utsie".
- Hor akabau zien orduen albakuok, ezta?
- Bai, orduen, fantasmak orduen akabau zien. Orduen akabau zien fantasmok.
- Makiña bat gauza eitten dittue desdeluego elizakuek, e? Eta zuek aramaittakuak eta ez zeben eukitten?
- Aramaittakuak be bai baiña ez guntsen kasorik itten. Da!
- Basarrittan fin ibiltten zien aramaittakuak jo ta etxera!
- Bai, ya lo kreo.
- Baiña, hori, hori, zapatutan bakarrik izaten zan, ezta? Edo zapatu-jaittan.
- Nik desdeluego ez notsen kasorik itten, baiña albakuei...
- Baiña albakua bai.
- Jode, fantasmak ta fantasmak, eta gu ignorante, ignorante, bueno...

2.115. Albakoa kanpaia eta mamuak

- **Hizlaria(k)**: Mujika Arana, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-145/026
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:58:40. **Bukatu**: 01:01:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Albakoa kanpaiaren soinua beldurgarria omen zen, baina mamua harrapatu zutenetik kanpai hori ez zuten gehiago jo.

Transkripzioa
- Beste kontu bat akordauko xatzu, oso kontu politta kontau dostazu, hori, kanpai hori, zela esan dozu...
- Albakua?
- Albakua.
- Albakua, joe. Albakua. Enda, guk geuken, ba, han San Kristobal esaten da bide bat, hara San Kristobalko etxietara, ta han joten euen albakua eta jolin! Albakua joten euenien ba, "Etxera, etxera!" ta kitto. Eta orduen pentzaizu ze inocente biziko giñen, igual juaten giñen ba, neska-mutillak edo hara, ezta? Zelai bat auen, ta txorro-morroka ta buf! Umetxuak letxe ibiltten giñen. Baiña albakuak joten euen, joe! "cada uno por su casa".
- Billurrez?
- Ba, ta zera, ba, fantasmak, fantasmak. Neure artien e, "etxera" aittajaunak "bazatoz?" eta "bai, jo dau albakuak eta fantasmak urtengo daue" ta "bai, urtengo jone iguel. Etorri, etorri". Hurrengo egun baten, handik egunen baten esan oskun batek "no tengais miedo, ya le han pillau" ta "nori, nokin ba?" ta "A!" Ez doiela esaten, nortzuk ez doiela esaten. Esateko! Neuk esan notsen "mesedez esateko!" ta aber ez dosten niri esango ta "ezetz! Al cura fulano" "e!? ¿Verdad?" "Bai, bai, egixa, egixa, egixa!". Lehenengo hola puxkat moska. Ba, egixa. Akabo! "Se fueron los fantasmas".
- Eta albakuok eta kristuok.
- Ez, albakoik eta ezebez gero.
- Joe...
- Baun-baun! Baun-baun!
- Kanpaiak berak be billurra emuten zauen orduen, ezta?
- Billurra kanpaiak be. Ta jolin! Ta gero zera, abade bat zala. Hari abadiei, bueno, txarto esan...
- Ez baiña hak pentzauko eben bera ondo eitten ebillela.
- Ondo eitten ebillela, bai.
- Berak hori pentzauko eben.
- Ondo eitten ebillela.
- Mutikuak billurketan, umiek billurketan.
- Ta neskak. Jolin! Neska-mutillak. Juan ta ba, mekatxis la pena. Ta holaxen!

2.116. Ehunetik gora ikasle gela batean

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/004

- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:06:15. **Bukatu**: 00:08:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Garagartza auzoko eskolan ibili zen, Don Ciriaco Jauregi maisu ospetsuarekin. Sei urtetik 14 urtera bitarteko ehunetik gora neska-mutil zeuden maisu horrekin, gela batean. Juanito eskolan hasita zegoela, errepublikanoek gurutzeak eta dotrina irakastea kendu zituzten eskolatik.

Transkripzioa
-Ta zu eskolan han ibili ziñan?
-Ni ibilli nitzen Garagartzako eskolan.
-Garagartzako eskolan.
-Bai. Maixue izen zan oso famatue, Don Ciriaco Jauregi. Don Ciriaco Jauregi Arraburu. Don Ciriaco. Ta gu ibilli gitzen eskola baten –oin be han dau eskolie baiñe oin tabernie da- ibilli gitzen ehun ta piko neska-mutil. Neskak eta mutillak.
-Garagartzan? Ehun ta piko?
-Bai. Ehun ta piko. Ehun ta piko. Ta xei urtetik hamalau urtera. Ta danok maixu bateaz.
-Eta gela baten?
-Gela baten, bai. Gela auen eskuadra moduen, eskuadra moduen, ta alde baten auzen neskak eta beste aldien gauzen geu. E? Eskuadra moduen. Ez, nahastute ez gitzen ibiltten neska-mutillok. Neskak alde baten ta mutillok bestaldien. Baiña danok aula baten, sala baten.
-Maixu batekin ehun ikasle?
-Maixu batekin. Ta xei urtetik hamalau urtera. Asike pentsaizu. Ta danok formal e, ez pentsau han oingo moduen mutikuek rebelde edo maixueri zeozer esan edo, joe, errespetu bat! Bueno, formal danok, errespetu haundixaz. Ta ikesi, ba, beste eskolatan ikesten zan moduen. Leiru, “las cuatro reglas“ esaten zana, gero, geografia zeozer be bai, kaligrafia, lektura, ta horreik. Ba eskola guztietan ikesten zien gauzak.
-Ta zu zeu be sei urtekin hasi ziñan eskolan?
-Sei urtekin.
-Oseake, sei urtekin, hogeita hamabixan, republikan, ezta?
-Xei urte zan... ba hogeita hamabixan. Orduentxe... ni sartu nitzen ta ondion eskolan krizufijue ta amabirjiñan irudia han auzen. Orduentxe kendu zittuen, e. Horreaz akordetan naz. Ta ia, ba, gero errelijiñue, katezismue-ta ez zan emuten.

2.117. Eskola erdaraz, dotrina euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/005
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:08:17. **Bukatu**: 00:10:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

- **Laburpena**: Nazionalak sartu zirenean berreskuratu zituzten errepublika garaian kendutako dotrina ikastea eta gurutzeak. Dotrina beti euskaraz ikasi zuen. Juanitok ez du abaderik ezagutu eskola barruan, ez Errepublikan ez eta Francoren denboran ere. Garai bietan eskolak erdaraz jaso zituen.

Transkripzioa
-Gero, gerria agertu zanien, ta, ba, nazionalak hamen sartu zienien, Francon tropak hemen sartu zienien, ia emuten zan "catecismo" ta.
-Ta atzera kurtziak, ta atzera eta…
-Ifiñi zittuen barriro bai. Ta gero mezetara ta be jueten gitzen domeketan, danok formal mezetara.
-Ta Errepublika garaixan faten ziñein mezetara?
-Ez, ez.
-Mezetara be ez?
-Bai, jueten gitzen, mezetara jueten gitzen, baiñe eskolatik ez. Geure konture. Ta parrokixan auen abare bat, Don Rafael Heriz. Don Rafael. Hori zan, esto, nazionalistie zan. Nazionalistie. Holan, errespetu guztia. Gero desterrauta egon zan. Ta hak emuten uskun /emuteuskun/ dotriñie, esaten zan, e. Katezismue. Badakitzu zela hasitten zan. “-Kristaua al zara? -Bai jauna, kristaua naiz, Jaungoikoari eskerrak.“ Horixe akordetan naz lenengoko zeroi. Ta beste gauza asko.
-Oseake orduen dotriñia euskeraz?
-Dotriñia euskeraz betik. Eskolatik urten hamaiketan eta dotriñara jueten gitzen neska-mutillok. Egunero.
-Hori Franco etorri eta gero?
-Errepublika denporan be bai.
-A, Errepublika denporan be bai dotriñie eitten zebein?
-Bai, ta gero Francon denporan eskolan emuten zan, relijiñue ta “catecismo“ ta horreik, eskolan emuten zien.
-Francon denporan dotriñie euskeraz edo erderaz hartu zebein?
-Dana erderaz, erderaz. Bueno, parrokixan mezie ta hori dana euskeraz baiña parrokixan ia ez zan emuten dotriñie, Francon denporan.
-Ta dotriñie bera be, abaria faten zan eskolara?
-Ez.
-Maisuek berak?
-Maisuek berak. Francon denporan bai, maisuek berak. Abareik ez zan sartzen. Nik ez dot /eztot/ ezautu abareik eskolan, ez Republika aurrien, ez Republika denporan, ta Francon denporan be ez, eskolara ez zien sartzen. Bai, maixue bera.
-Ta zu eskolan hasi ziñanien, ia Republika denporan, eskolak euskeraz edo erderaz hartu zittuein?
-Errepublika denporan euskeraz... digo erderaz, dana erderaz! Errepublika denporan be bai. Dana erderaz. Liburu guztiek erderaz.
-Ba hemen Arrasaten eskola batzutan euskeraz ikasi ebein.
-Ez naz akordetan ni Arrasaten. Baiña Santa Agedan ez.
-Abadetxeko eskolan ta.
-Santa Agedan ez.
-Batzokikuek ikastolan ta…
-Garagartzan ez, Garagartzan…
-Zuek orduan erderaz jaso zebein?
-Erderaz dana, dana erderaz.

2.118. Marianista ikasketak

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/012
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:23:32. **Bukatu**: 00:26:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra bukatu zenean Eskoriatzan zegoen. Gogoan du gero egon zen gosetea. Eskoriatzatik Elorriora joan zen nobiziatua egitera. Handik Segoviara bidali zuten eta han ogi zuria jaten zuten egunero. Madrilgo Carabanchelen beste bi urte eman zituen batxilergoa bukatzen.

Transkripzioa
-Zu, orduen, e... gerria akabau zanien zuk zittuan hamalau urte. Zu zeuntzen, gerria akabau zanien, han Eskoriatzan zeuntzen?
-Eskoitzan, Eskoitzan. Eskoitzan. Gose denporan be Eskoitzan. Guk gosie pasau gauen, e. Bueno, jente guztiek. Hamen epokaik txarrena izen zan, berrogeita... berrogeita bi. “El año cuarenta y dos“ esaten zan. “Cuarenta y uno, cuarenta y dos”. Bastante... gaztetxuek giñen ta... jan ein biher, baiñe...
-A, eskolarako ez zan egoten nahikua?
-Bai, baiñe... gure aiñe iñoz be ez, e? Hor... baiñe geuk bakarrik ez, e. Beste jente guztiek hamen Arrasaten ta... Gure etxien, Lore Tokin, ondo, ondo suertau zien: solo haundi bat erosi geuen ta aittek eta amak hartzen auen artue ta patatie, ta ez dakit... ez garixe ez, baiñe.... honeik jan-gauzak. Ta ondo pasetan gauen, e. Artue etxien guk ez gauen... zera, deklarau biherrik. Ta etxien aukien zera, ELMA-ko molinotxo bat, eskuko moliño bat, urunketako ta ba, ba! Ondo, ondo, ondo. Baiña hamen Eskoriatzan ta, estudiantiek-eta gaixki. Seminarixuetan be oso gaixki pasau auen horreik e, “cuarenta y dos”. Gero hortik lau urte pasaute Elorrixora juen nintzen. Elorrixon nobiziaue zan. Ta han urtebete ta, ba, ondo, ya ondo bazkaldu ta ondo. Hor urtebete ein nauen.
-A, ta nobiziue ein zeben Elorrixon?
-Elorrixon, bai. Ta gero handik Segoviara, estudixuek jarraiketan. Beste urtebete Segovian. Ta han ya goserik ez auen. Castillan “por lo visto”... Bollo bat emuten uskuen goixien hamarretakue, beste bollo bat eguardixen... eguardixen. Ta beste bollo bat merixendetako, ta beste bollo bat afaltzeko. Boillue ta ba, janarixa, ezta? Baiña ogixa! Ta ogi zurixa! Milagrue zan ha, hamendik urtenda, e. Baiña Castillan “por lo visto” ondo abitzen ta ba! Ez auen holako problemarik. Ta gero juen nintzen hor urtebete ein ta Madrillera.
-Sorian urtebete ta Madrillen?
-Madrillen, Caravanchelen urte bi. Ba estudixuek konpletetako. Ta han akabau gauen batxilleratue. Batxillerato, ha lehenako batxilleratue. Zelan zan? Zazpi urtekue.

2.119. Arientzara eta Araotzera meza entzutera

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Esteban

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-155/012
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:22:20. **Bukatu**: 00:23:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Kurtzeberritik Arientzara joaten ziren meza entzutera. Zer bide egiten zuten azaltzen du. Muxibar baserritik gertuago geratzen zitzaien Arientza, baina Degurixan artzai zegoenea, Araotzera joaten zen meza entzuterara; gero, atzera mendira bueltatu behar izaten zuen eta.

Transkripzioa
-Ta zueik Kurtzebarrittik zeatik etorten ziñen ba honutz, e, han Deguixatik jente gehixena Araotzera faten zan mezetara.
-Bai, baiña gu Kurtzebarrittik etorten gitzen Araozko biria hartu barik! Han Atxulo badakitzu nun dauen? Han Atxulotik hartu ta atajue dau hona zerera, Arientza burure, Intxilistik behera sendie dau hor, sendie, ta han sendatik etorten gitzen horra, Arientzara. Bestela bestekaldetik etorten gitzen.
-Zuetako hobeto euen Arientza Araotz baiño?
-Eske etxera etorri biher bazan, Arientzatik etorri biher izan! Araotzera fan ezkero nun dauen badakitzu, Muxibar? Karo. Oin, Degurixan ninguela, Araotzera faten nitzen mezetara, ta barriro mendire bueltaitteko, e! Buelta eitteko! Baiñe etxera etorri biher bazan, ba, Araotzera ezin fan, joder, karo. Joder. Alrebes. Holaxen.
-A, karo, orduen zu mezie entzun ta gero etxea etorten ziñan?
-Karo, Arientzan mezie entzun ta etxera!

2.120. Aita elizara ez

- **Hizlaria(k)**: Arregi Letamendi, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-166/028
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:40:56. **Bukatu**: 00:42:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Beste erlijio eta sinesmen batzuk
  Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- **Laburpena**: Etxean, sekula ez du arrosariorik entzun. Gerra aurretik Tereren aita oso elizkoia zen, baina gerra denboran ikusitako hainbat gauza zirela medio albo batera utzi zituen elizako kontuak. Aita sozialista zen. Ama joan ohi zen elizara.

Transkripzioa
- Ta aramaittekue ta egoten zan... Zuek esaten ziben orduen bederatzietan ta?
- Ez, ez, ez. Elixarakuk eta ez gara izen.
- A, ez?
- Ez. Nik errosaixue ta etxin sekule ez dot era... entzun. Ta oin elixan...

Andra bat juaten jat jubilauetara ta nik iraketan... "Zelan zatoz ba?" ta "nik [...] rekuperauta daukat" esaten dotsiet. Abadiek be badaki hori.
- A, orduen rarue da oso familixa gutxi daoz elizkoixak izan ez dianak / eztianak/.
- Ez, gu ez. Guria aitta...
- Zer zan aitta... aitta sozialistia edo?
- Bai, baiña gure aitta oso elixakua ei zan.
- A, bai?
- Bai, oso lehenau.
- Horrek sozialis...
- Baiña gero gerra denporan ikusi zauen zerbaitzuk hori...
- [...] Ya ahaztu zittun gauza horrek ezta?
- Bai, bai... baiña ez zan... nik bestela politikan gurian aitta ez dot ikusi. Ez.
- Baiña berak ze... ze joera eukan?
- Ez, ez oskun esaten elizara ez fateko e!
- Bai, bai... baiña...
- Bera ez zan fango.
- Bera ez zan /etzan/ faten?
- Ez. Gu danok elixatik ezkondute gaz, ta bea aittepunteko fan da be bai. Ez oskun esan sekula ez fateko e! Sekule bez.
- Baiña bea [...]
- Ama, bai. Ama, bai. Ama elixakua zan. Bueno elixa faten zan

2.121. Maistra batekin 40 neska-mutiko

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/003
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:03:38. **Bukatu**: 00:06:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Musakolako auzo-eskolan hasi zen sei urterekin. Berrogei neska-mutikotik gora elkartzen ziren eskolan maistra eibartar batekin.

Transkripzioa
-Eta Zeletarrok eskolara nora faten ziñain?
-E?
-Eskolara nora....?
-Eskolara, ba, Musakolara, osea, Zigarrolako...
-Zigarrolako han auzoko eskolan?
-Bai. Auzoko eskolan. Maistrie etorten zan, eta, ba, neska-mutillek e, danok. Gu batera ibiltten gitzen. Orduen ez auen e...
-Zenbat urtekin hasi ziñan zu eskolan?
-Ba ez dakit nik. Gutxi gorabehera... horixe bai ni ez nazela akordetan. Xei-zazpi urtekin edo. Lehen bai, oin hiru urtekin faten die umiek, baiñe orduen ez. Pentsetan dot xei-zazpi urtekin.
-Eta faten ziñan orduen Zigarrolako...
-Zigarrolakora. Bai.
-Zenbat neska-mutiko alkarketan ziñain han?
-Ba, bastante. Ez dakit holan kontetan hasitta, bastante.
-Hogei, hogeita hamar, berrogei?
-Bai, bai, gehixau.

-(Laguna) Berrogei bai behintzat.
-Berrogei bai, o gehixau igual e.
-Garagartzan esan ostain ehundik gora juntaitten ziela.
-Ehundik gora e?
-Maixu batekin.
-Ba, gurien be, gurien be...
-(Laguna) Alde bixek...
-Alde bixek auzen ta danak okupaute azen.
-(Laguna) Nik ez dakit, berba ein neike?
-Bai, bai.
-Bai, bai.
-In zeike, in zeike. Beste egun baten zeuri ingo dotsut.
-(Laguna) Ez. Ni ez naz hemengua e.
-Nungua zara ba?
-(Laguna) Eibartarra.
-Eibartarra zara?
-(Laguna) Zortzi urtekin etorri nitzen Olatxora ta, ba, honekin lagun ordutik...
-Bai. Klaro, guk esnie ekarten gutsen honi.
-(Laguna) Esnia.
-Bai.
-(Laguna) Eskolara be batera faten giñen.
-A, lehengo esne bezerua orduan?
-Klaro.
-Klaro, esnia. Ta gurien e...
-Ta zueik eskolan neska-mutillak alkarrekin...
-Alkarregaz.
-Eta edade danetakuak igual.
-Bai, bai.
-Eta ze zeukotzuein, maistrua, maistria?
-Maistria.
-(Laguna) Elisa Lasa.
-Elisa Lasa. Eibartarra ha be. Gogorra e!
-Euskalduna zan?
-Bai. Baiña eskolan ez auen eitten. Euskaldune bai. Holan pentsetan auenien “honek ez justek /etxustek/ ba entendiru niri, edo ulertu“ ta esaten auen ”Eso así!” Euskeraz, euskeraz berbaren bat e, baiñe suelto e!
-(Laguna) Ni akordetan naz, dibisiñuak, numero batekin, oso ondo eitten nittun, baiña bi numerokin ez zien sartzen nere buruan. Eta etxekuak ez zakixien hori, eta berari ipiñi nusten sesiño altuauko mutil bat, Faustino, Txotxuenien bizi zana...
-A bai!
-(Laguna) Maisu. Ta hari entendiru nutsen euskeraz “a la perfección“.
-Karo.

2.122. Eskolak erdaraz eta zigor asko

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/004
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:06:06. **Bukatu**: 00:09:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena**: Zailtasun handiak zituen matematikak erdaraz ulertzeko, eta halakoetan maistrak eskuan makilakadak ematen zizkion. Mutikoek egiten zituzten gaiztakeriak aipatzen ditu, baita arrazoi gabeko egurzigorrak ere. Ikasleak gela ilun batean sartzea zen zigorretako bat. Gerrak eskolatzea eten zuen.

Transkripzioa
-Niri kebrauaz pasau jaten horixe. Ipini ustien kebrauek eta... esaten usten "Tienes que hacer no se qué, no se cuántos..." ta nik, guk...
-(Laguna) Karo, erderaz ez gekigun...
-... ezin ba, guk ezin ulertu...
-Aber egon egon, gauza bat [...] Zer esaten zeben, kebraduena?
-Ba kebraue hasi nitzen ta... badakit xei, ta gero xei, osea, xei ta zazpi zien, ta gero ez dakit zer ein biher zan /einbizan/. Ta, eitten nauen ta... "Que no me entiendes!" Ta eneeee... Atzenien hasi zan... maistriori hasarretu zan, ez dakit zertzuk ein utsen... "Ven aquí!" ta eskue ipini holan, ta orduen hak gaiñera emuten auen eskue ta "plisti! plasta!".
-Makilliaz?
-Makillie! Makillie beti! Eta lelengo ekarri auena mutikue, gaiñera, mutikuek-eta rebeldiauek... eneeeeeee! Nik entzunde dauket gure zeraren, honek, hartu eulixak, eta eulixak ez dakit zer eitten utsien haritxoren bategaz, eskolan hori e! Eta gero jarein. Ta zuzen maistriagana fan.
-Nun eitten otsain eulixari harixa?
-E, eulixak hartu, hartu eulixa eta ez dakit zer eitten utsien haxe hanketan lotu, haritxo bat, mehie izen biherko /izenbiko/ zan! Eulixen zerak lotzeko. Eta gero, ba, hiru edo lau hartu eta gero jarein eitten utsien. Eta klaro, maistriagana. Ta "¿Esto quién ha hecho?" ta hala ba, benga! Makillie! Ene, beste baten Angel Mojategikori. Hasi zan, lei... ikarurtzen auen, ta baekixen zer auken ta... eeee,eeeee, ta eeee... bastante luzie zan eta ez utsen urten. "Parece mentira!" ta hartu ta ala! Angeleri ostera "Pli! Pla!" Baiña askok? Zelako palizak! Oin balitze...
-Oin kartzelara!
-Bu, kartzelara! Bai, bai, oin balitze kartzelara!
-(Laguna) Kalabozue be a...
-A bai, kalabozuen. Ta auen...
-Kastigau eitten zinttuen kalabozora?
-Kala... baaaii! Ni sekulen egon barik nau.
-Zer zan, holako kuarto ilunen bat edo?
-Kuarto ilunen bat, eta han azen estufak, estufie neguen ixuketan zana, egurrek eta... ba han. Han `Potxotxosie´ sartzen auen, Antoni. Ta bere ama, bere ama e, azen eskolie hemen, eta bere ama hementxe bizi zan, "derecha-izquierda". Eta esaten auen, amari: "Dale! Dale! Dale a esa!" amak. Karo, zan, `Potxotxosie´ ba aber.
-Ama esaten maistriari...?
-Maistriari, joteko! Eta buenoooo, bestieri ez utsen asko inportako, baiña ala, ta kalabozuen. "Muy bien, sin comer estará hoy!" Andriek, bai, entre euskeraz, kastellana, ez dakit zer zan `Potxotxosioi´, eta han ipini... auzuen `Potxotxosie´ segittuen ipintten auen e! Buenooooo.
-Kontxo, kontxo. Eta zenbat urtera arte ibili ziñan eskolan?
-Ba ez dakit nik. Hamaika edo, hamabi.
-(Laguna) Hamabi kunpliruta. Gerrie...
-Bai, gerrie etorri zanien...
-Gerra etorri zanien eskolie eten in zan, ezta?
-Baaai, bai. Orduen be, ba!

2.123. Hildakoak San Franziskoren abituarekin

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa

- **Erref**: ARR-167/016
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:42:42. **Bukatu**: 00:45:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Oñatitik bueltatu zenean, mojen eskolan jarraitu zuen kalean. Eskolatzea bukatu eta etxean geratu zen. Aitajaunak Ameriketara bidalitako seme bat etorri zen Zeletara. Aitajauna hil zenean, hildakoak San Frantziskoren abitua jantzita sartzen zituzten hilkutxetan.

Transkripzioa
-Ze pasau zan gero? Gerria, gerria ia atzera etxeratu ziñain...
-Bai.
-Pittinka-pittinka anaiok be fan zien etxeraketan, ta zera...
-Bai, baiña bufff... etxeratu orduko hareik... denpora asko kosta jatien, asko, asko.
-Eta zu Arrasatera bueltau ziñanian eskolan jarraittu zan?
-Ez, gero pentsetan dot... ez dot pentsetan e. Arrasaten, Arrasateko kolegixuen ibili nitzen ni.
-A ia, ia Zigarrolan ez?
-Ez.
-Eta ze, ze kolejixo zan hori?
-Zera...
-Mojena?
-Mojena, bai.
-Zegatik zu handik etorriko ziñan... hogeita hamazazpixan hamahiru urtekin.
-Bai, holako bat.
-Oseake nik hamen ipiñi dot sei urtetatik gerria hasi arte Zigarrolan. Eta Oñatin gero Zaiñartun...
-Zaiñartun.
-Eta atzera...
-Eta ba horixe denporioi, han in gauen denporia.
-Eta hamen gero atzera mojetan.
-Bai.
-Eta zuk eskolia... eskolia bukatu zebenien ze, ze burubide, etxian geratu ziñen?
-Bai, bai. Ni etxien, etxien. Nehikue lana auen geurien etxien. Hainbeste mutil ta gizon ta... Gero tio, tio Ameriketatik be etorri jakun. Eta hak be... hori pentsau zeike. Hori nire aittejaunek bere semie bieldu ein auen Ameriketara.
-Bialdu?
-Bialdu.
-Alperra zalako edo?
-Alperra, osue! Eta...
-Barkuen ipini ta bialdu ein eben Ameriketara?
-Ameriketara bieldu ein auen. Eta esaten auen. “Zer, honekin zer? Ala, fan hadi“ ta bieldu auen. Eta ba bagekixen guk, tio amerikanue ta zera ta. Gero han geratu zanien ta zahartu zanien, ba, trajie ta sonbrerue ipini, etan ban etorri zan Mondrauera. Ta Mondrauen ta zer ta gure etxera. Eta “Aiii...“
-Zenbat urte eukela etorri zan?

-Ez dakit. Ia bastante urte. Ez naz akordetan. Urtiek, eta preguntau be ez.
-Aittajauna ez zan biziko.
-E? Eeeez, ez ez. Aittajaune gu gaztetan e... bai, akordetan naz. Gu eskolatik juan, eta esan auen “Aitteitte hil da“ ta San... ointxe be ikusten nau! Kajan sartute, San Frantziskon abittue jantzitta.
-Kontxo.
-Lehen horixe eitten auen!
-Abittue jantzitta?
-Abitte... bai! Abittue San Frantziskona! Ez dakit ba kofradixaren baten auen edo! Ez dakit. Behintzat, abittuaz!
-A osea, orduen sartu aurretik abittua jantzi ta “pam!“, kajan?
-Klaro, kajan, bai. Lelelengo hiltten dan momentuen jantziko utsien.
-Bai, bai.
-Bai. Horretxeaz akordetan naz.
-Ia.

2.124. Tifusak bi lagun hil etxean

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/019
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:53:07. **Bukatu**: 00:55:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Angelesek Oñatiko plazara seme bat bidaltzen zuen etxeko jeneroa saltzera. Lehenago astoarekin joaten zen plazara, baina Angelesen garaian zaldiak tiratutako orgarekin joaten zen. Angelesen aurreko belaunaldian, tifusak amaren ahizpa bi hil zituen etxean. Etxean denak tifusak jota zeuden, eta auzokoek laguntzen zieten.

Transkripzioa
-Esan dozu, osea, kalera, Bergarara, ta lehen beste herri bat be esan dozu.
-E?
-Beste herri bat be esan dozu, beste norabait be faten zala?
-Etxetik bieldu ginddueni en?
-Ez, ez, ez, zure ama...
-Aaa! Oñetira. Oñetira, baiña Oñetira bielketan auen Angelek, bera fango zala! Eta ha...
-Eta Oñatin, Oñatin be lehen zapatuen zan.
-Oñatikua be zapatuan izaten zan.
-Ba ha faten zan besteren bategaz. Besteren baten arrimora, juaten zan Angel. Bai.
-A baiña ama bakarrik, eske karo ama...
-Ama, ama bakarrik e. Bergarara bakarrik. Amak, gaiñera, esaten auen lehen juaten ziela zerakin, astuekin. Banastatan ahal dan... hasi eta... faten zien. Ta gero ia ba karruekin samurrau. Eta pentsau zeike. Gure etxien hil zien orduen, tifusa be egon zan itxurie, gu ez gingozen e, gure aurrekuek euki auen, amak eta. Eta ez dakit, bi edo hiru hil zien gurien tifusaz. Eta ama bieldu auen botikatan Bergaraa oiñez. Fan ta etorri, gure amak.
-Zure amak ezautu eben tifusa orduan?
-Ta, ba... bai. Gero bera gaixotu zan! Eta berari e... bueno! Ez dakit zertzuk

ein utsiela... eta bai, urten auen e. Berak urten auen, baiña beste bi edo, haik be neskak, hil ein zien. Tifusaz.
-Osea, zure amaren ahizpak...
-Eta gure ama ez. Gure ama, eneeeeeee... bueno! Esaten auen ein jakola luze...! Karo, ta gaiñera bera tremendozko kalenturiaz allegau ei zan. Bai. Oiñez, e! Ta ha be ogien sartuta, eta, ba, Garratz, aldemeneko zerak, Garratzekuek eta, Garratzeko amandrie ta, apurtxo bat lagunketan-edo etorten ei zien zerera, gurera.
-A etxien, danak eukien etxien?
-E?
-Etxien danak gaixorik?
-Bai, itxurie danak, gehixenak, danak gaixorik! Eta, ba, zeozer, bai. Gero ez dakit zer uretan sartu, ez dait zer eitten utsiela, entzundako zerak die horreik e, ikusi ez. Gu ondion urrin gingozen da.
-Eta zure amak orduen bi ahizpa galdu zittun?
-Bai.
-Kontxo, hori gogorra izango da, e?
-Baaai.
-Gerria be gogorra da, baiña...
-Bai, bai, bai. Ta horretxegaz, tifusaz. Orduen asko ibili ei zan Mondrauen e!
-Bai, bai, egon zan bai, zer bat.
-Bai, asko. Bai.
-Entzun dittut holako, tifusen kontuak beste lekutan be bai.
-Bai. Bai, bai.
-Kontxo.
-Ba holaxen.

2.125. San Isidro jaiak; umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/020
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:55:53. **Bukatu**: 00:58:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena**: Angeles zen etxeko jostuna. Auzoko jaiak San Isidroak dira. Jaietan errepidean egiten zuten dantza. Garizuman txirikiletan ere errepidean jolasten zuten. Udaran Epeleko errekara sarritan joaten ziren.

Transkripzioa
-Eta zu, orduen, esan dostazu etxien geratu ziñala...
-Bai.
-...eskolia akabau eta gero.
-Bai. Ta gero josten ikesten. Ibili gitzen...
-Kalien josten, edo etxien?
-Eta... ez, etxien.

-A, etxian bertan?
-Bai. A jozkiñen bat bazeukotzuien etxien, ala?
-Ez, nik etxekuek eitten nehikue lan nauken. Frakak eta arkondarak-eta neuk josten nutsen.
-Eta garai hareittan zueik auzuen jaixak eta eukiko zittuein, ezta?
-Bai, San Isidro.
-San Isidruak dia.
-Bai. Hamabostien. Gu...
-Ta zela...
-Honbreeeee!
-Zer moduz faten zien jaixok?
-Jaixok ondo! Guk pasetan gauen...! Nik hori esaten dutsat oin neu... gure, nire loba ta esaten [duskue] ba “San Isidro da, ta bagoiez!“ Ta hurrengoko egunetan edo preguntau “Zer? Nerea, zer ein dozue /einddozue/ San Isidrotan? Nehikue dantza eingo zauen“ ta “Bueno amama, mesedez! Dantzan“. Ta “Ezetz? Guk zenbat dantza ein ete gauen!“. Klaro, orduen gaiñera kamiñuen. Kamiñuen be bai, hainbeste, jente asko! Mondrauek zer haundixe auken e! Joera zerera... San Isidrora, Ziorlara. Eta ba han e, ez auen holan lisorik eta kamiñuen jentie dantzan. Oin beste kamion ez auen pasetan orduen. Nox pasauko zan ba! Noxien behin.
-Bai, bai. Oiñ aterpiek eta danak egoten die baiña jentiek ez dau...
-Bai... eta buenooo...! Guk e, pentsau zeike. Kamiñuen garizuman txirikilletan eitten gauen! Kamiñuen e! Kendu amari aurreko amantalak eta danok, neskake ta mutillok e! Batzuk, hala! Kamiñuen. Gero haxe hartzeko aurreko amantala jarri ta txirikillioi. Ta tortoleska ta... Oin, oin ez dauke idearik be ez. Ta gero haunditxuek in gitzenien errekan, errekie Epelekue zan garbi garbixe, Epeleko zera, “Hi, zegatik ez gaixuezan domeka atzaldien, guazen errekara!“ Zera, zera hartzen, zer bat, zerbaitzuk hartzen. Guk hartu ez, jaso harrixe ta ikusi ta, kangrekuek egoten zien! Bai, eta eskailluek be bai.
-Amuarraiña be...
-Eta gu? Gu udan? Puuu! Asko, ondo, hantxe pasetan gauen denporie! “Más felices...“

2.126. Garagartzako eskola

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/002
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:02:04. **Bukatu**: 00:03:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Umetan, Garagartzako eskolara joaten zen. Eskola non zegoen azaltzen du; eliza ondoan. Eskola gaztelaniaz izaten zen, baina ez omen zekiten. Sarritan zigortzen zituzten. Maisua euskalduna zen. Adin ezberdinetako umeak gela berean ikasten zuten: mutilak alde batean, eta neskak bestean.

Transkripzioa
-Bueno, bueno. Eta Gesalibarren baeuen eskolarik orduan?
-Garagartzara etorten gitzen.

-A Garagartzara?
-Bai.
-Nun euen Garagartzan eskolia?
-Ba hantxe, kamiño-kamiñuen, eleixie eta eskolie junto. Holan.
-A, eliz onduan?
-Bai, elixa onduen.
-Eta zueik eskolia zelan jaso zeuein, euskeraz edo erderaz?
-Euskeraz, nik uste dot, edo... erderaz, baiña ez gekixen erderaz! Ta gero, errekreuen be esaten uskun erderaz eitteko, baiña nokin? Iñok be ez gekixen ezebe ta!
-Eta kastigau ta eitten zinttuein?
-Baaaai, askotan!
-Erderaz eittiagatik?
-Ba nik ez dakit /eztakitt/ zegatigaittik, gaiztuek gitzelako edo. Kastigaute be sarrittan, errekreo barek eta.
-A bai e?
-Bai.
-Eta zer zeukotzuein, maisua, edo maistria?
-Maistrue, maistrue. Koruetakue edo zan, hor.
-A, euskalduna bera?
-Bai bai, euskaldune zan. Bai.
-Ze egoten ziñan, jente asko klasian?
-Bai, ta gaiñera ni xei urtekin juan nitzen. Baiñe nire anaie ta aiztie be baebitzen. “Lo mismo“ hamabikuek, hamarrekuek edo xeikuek. Danak junto. Bueno, gero diferente, ezta? Baiñe... Bai.
-Danak gela baten, ezta?
-Bai. Bai, bai.
-Eta maisu batekin?
-Bai. Alde baten neskatillak eta bestien mutikuek. Baiñe bistan e.
-Ta gutxi gorabehera zenbat lagun ziñain, zenbat estudiante ziñain, goguan daukotzu?
-Nik ez dakit baiña asko... Hogetaka bai, izengo giñen...

2.127. Gesalibartik Garagartzara oinez

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/007
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:05:59. **Bukatu**: 00:06:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Etxea eskolatik urruti zegoen; oinez egiten zuten bidea. Bazkaltzera, etxera joan ohi ziren. Anai-arrebekin joaten zen eskolara.

Transkripzioa
-Eta zeure etxia ze euen urrin eskolatik?
-Bai, bastante.
-Bazkaitten ta etxera faten ziñan edo...
-Bai bai, etxera. Etxera juaten giñen.
-Danok juaten ziñein etxera bazkaittera?
-Ba bai.

-Zenbat denpora oiñez?
-Eneeeeee orduen. Ba ez dakit nik, guk ordu laren edo. Ba handik, zera, Gesalibar hara plazara ba aguro hartzen zan ta gero apurtxo bat igo itten gauen aldatza. Baiña asko ez. Gaztiek giñen ta aguro itten gauen.
-Akordau be ez, ezta?
-Akordau be ez.
-Gaiñera bakarrik be ez ziñen fango?
-Ezta ez, ba anaia...
-... ta lagunak.
-Bai.

2.128. Arrasatera, josten ikastera

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/008
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:06:47. **Bukatu**: 00:07:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena**: 13 urterekin, Arrasatera joaten hasi zen josten ikastera. Maistraren izena esaten du. Jostun eskola plaza ondoan zegoen. Neskak bakarrik joaten ziren josten ikastera. Urtebete egin zuen eskola horretan.

Transkripzioa
-Eta gero esan dozu kalera etorri ziñala?
-Bai, bai.
-Kalien zein zan zure maistria?
-Ene, doña Cecilia Cárcamo.
-Cárcamo?
-Bai. Baiñe eneeee pentsaizu.
-Eta hor ia pagau ta eitten zeuein, edo?
-Ba ez dot pentsetan ez, ez. Hori be debalde, Garagartzan moduen, debaldekua.
-A, eskolako [...]?
-Bai, bai, eskolie zan.
-Aaa. Eta bere etxera faten ziñain, edo?
-Ez, ez. Hortxe plaza onduen auen. Oin hamen e zerak, San Frantzisko hamen dauen lekuen auen eskolia. Hamen bertan, aurrekaldien.
-Ia, ia, ia, ia...
-Klaro, oin diferente dau, baiñe... ez, ez, hementxe bertan, San Frantzisko onduen.
-Bai eta e... karo, pentseitten dot hor laboretan behintzet neskak bakarrik ibiliko ziela, ezta?
-Neskak, neskak.
-Eta mutillak beste norabaittera faten zien?
-Ba beste norabaittera haik, eurenera.
-Eta hor beste urtebete orduan.
-Ba urtebete edo bai.

2.129. Kale etxeko eta baserriko jatorduak

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/023
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:21:15. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Kale etxeko eta baserriko jatorduei buruz hitz egiten du. Neskame zegoen etxean zer jaten zuten aipatzen du: baba zuri eta gorria, garbantzuak, arroza... Baserrian, berriz, babak, porru-patatak, gaztainak, berakatz-salda... jan ohi zituzten. Lau behi zituzten baserrian. Biltzen zuten esnea etxerako izaten zen.

Transkripzioa
-Zein izaten zan hamen kalien jatordu normala? Asteguneko jatordu normala?
-Ba hamen potajie izeten zan, o... lentejie be ez. Baba gorrixe, baba zurixe, garbantzuek, arroza... ta horretxek gauzok.
-Eta baserrixen, baserrixen be antzea, edo?
-Baserrixen be gehixen baten babak han. Babak. Ta gero porru patatak. Kastaña denporan kastañak, ta gero berakatz saldia... ta...
-Hoi izaten zan afaixa, ezta?
-Bai, bai.
-Gaztaiñak, eta gero berakatz saldia.
-Bai.
-Gero esne katillukada bat hartu ta...
-Bai... ba...euenien.
-Euenian.
-Bai.
-Zueik etxian esnia etxeako itten zeuein?
-Bai, etxerako. Bai, ez, bakarrik etxerako.

2.130. Zortzi piezako erromeria

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/038
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:32:28. **Bukatu**: 00:34:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Gerra aurretik, plazan izaten erromeria. Zortzi pieza jotzen zituzten: lau afal aurretik, eta beste lau afal ostean. Neska-mutilek elkarrekin dantza egiten zuten; Hijas de María kongregazioan ibiliagatik ez omen zen erlijio jazarpenik.

Transkripzioa
-Gerra aurretik, zuk hamazazpi-hamazortzi urtekin, ya erromerixetara ta dantzara-ta fango ziñein, ezta?
-Ba hamentxe, lau... zortzi pieza joten zittuen. Ta lau afal aurretik eta lau

afal ostetik. Lau piezak entzun ta afaitten. Ta afaldu ta fregaue ein ta gero beste zortzi piezak e... o beste lau piezak. Ta bueltatxo bat ein ta, ba, aramaittakuetarako o, hamarrak o zortzi tt'erdik edo ez dakit beratzirak edo zer izeten zan, ba, etxera.
-Aja. Orduen... jontxo! Hori entzun barik neukan. Nun joten ebein, plazan?
-Plazan, plazan.
-Oseake afal aurretik lau pieza, ta afal ostian beste lau.
-Bai. Ta haretxek dantzan ein ta konforme.
-Ta mutillakin-ta eitten zeuein dantza?
-Bai, bai. Segun, batzuetan bai ta beste batzuetan ez ta... "de todo". Baiña plazan bueltaka-bueltaka, e. Hantxe.
-Eta relijiñuagatik-eta ez euen problemarik, ez zeukain problemarik emakumiok e...?
-Ez, ez...
-Hori republika garaixa izengo zan, ezta?
-Guk sekula be ez gauen euki problemarik dantzien ta relijiñuekin ta hori. Sekula be ez.
-`Hijas de Marías´en edo egon ziñain?
-Bai, egon bai. Baiña ez uskun guri ezer zertzen. Bai, bai.
-Zu baiño gaztetxuauak ya problemak izaten hasi zien.
-Ba... ez, geuri ez behintzet, e. Neu ez naz akordetan ta ni ez naz akordetan sekula ezer problemarik euki gauenik horren gaiñien.
-Ya, ya ya... Eta aramaittekuak ze ordutan joten euen?
-Ba nik ez dakit ze ordu izengo zan. Astegunetan zazpi t'tterdiretarako, baiña domeketan, ba, ez dakit. Gu behintzet dantzan eindde, o piezak bukatu, bueltie ein estaziño ondotik eta etxera.

2.131. "Gaua, gauekoentzako; eguna, egunekoentzako"

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/039
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:34:29. **Bukatu**: 00:35:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Zarugaldeko mamuari buruz hitz egiten du. Amandreak esaten zien gauez joanez gero, izara zuriz jantzitako mamua atera eta zera esaten zuela: "gaua, gauekoentzako; eguna, egunekoentzako"

Transkripzioa
-Zuk, zuretako ezaguna da hau Zarugalden edo, Albako kanpaiak eta fantasmia ta goguen dakotzu zuk? Fantasmiak urteten ebela Albako kanpaiak jota ta...
-Entzun, amandriei-ta entzun bai, baiñe... Antxiñekuek amandriek kontetan uskun: "Gaba gabezkuentzako eta egune egunezkuentzako". Ta gabaz juaten bazien, igual izerakin urteten euela ta "Zer?", "Gaba gabakuentzako eta egune egunezkuentzako" eta buelta ein ta etxera. Fantasmak edo... Horreik gauzok kontetan uskun.

2.132. Eskola eta dotrina

- **Hizlaria(k)**: Sagasta Elorza, Matias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-175/003
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:04:23. **Bukatu**: 00:06:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena**: Eskolan auzoan hasi zen sei urterekin. Gero, kalean jarraitu zituen ikasketak 14 urtera arte: Ferixa Leku ondoko eskolan, Zarugaldekoan eta Abadetxekoan. Eskola eta dotrina euskaraz izaten ziren. Erlijioak garrantzi handia zuen.

Transkripzioa
-Musakolan ez euen orduan eskolarik?
-A bai, auen bai, lelengo-lelengo hamen ibili nitzen, bai.
-A! Hemendik e, hasi hemen?
-Bai. Hasi hamen in nitzen. Hamentxe auen, eskolie, hor, hamentxe horretxen ostien auen. Hamen. Baiña hamen denpora gutxi ein nauen. Gero fan nitzen Zarugaldera. Gero Zarugaldetik abadetxera. Abadetxe azpixen be egon zan.
-(Laguna) Hori da.
-Joe, lau eskola?
-Bai. Danetan, danetan be ez nauen asko ikesi. Orduen e, orduen dotriñie euen gerra aurretik. Dotriñie euen gu mutikuek gitzela.
-Euskeraz edo erderaz irakurtzen otsuein dotriñia?
-Euskeraz.
-(Laguna) Euskeraz.
-Ta eskolak?
-Eskolie be euskeraz.
-A, eskolie be euskeraz, e?
-Bai. Ta eskoliek ez auken orduen hainbeste inportantzia. Erreligiñuek bai, zera, dotriñia! Ta harexek...
-(Laguna) Damututa e? Zera.
-Damutute ez, damutute ez nau! Dotriña barik be fedia eukiz gero iguel-iguel irebazten da zerue. Iguel-iguel irebazten da!
-Guk dotriñie asko dakigu, baiña federik ez.
-[Zu gaur be] fan elixara bai, ta asko ikusten dittut [aittaren eitten ez da kristaurik be ikusten]. Barriketan. Ta mezie geraketan danien, kanpoa! Haik daukie fedie? Faten ez danak fede gehixau euki leike faten danak baiño!
-Eta zenbat urte in zittun danera eskolan?
-Ba hamalau urtekin urten nauen.
-Justo gerra aurretxuan, ezta?
-Bai.

2.133. Ospelak eta erlakiztenak

- **Hizlaria(k)**: Sagasta Elorza, Matias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-175/005
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:07:03. **Bukatu**: 00:09:02

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola denboran, erdietan ez omen zen joaten. Hanketan ospelak eta lepoan erlakiztenak edukitzen zituen, eta udazkenetik udaberrira bitartean ia ez zen eskolara joan ere egiten.

Transkripzioa
-Ta eskola denporan egunero faten ziñan eskolara, edo?
-Buuuu… erdixak be ez nitzen faten. Nik gaztetan ibiltten nauen horreik e, hanketan zera, zerak, ospelak.
-A bai.
-Ospelak, ta erlakestenak hemen lepuen ta danien. Ta eskolara ez nitzen fan erdixen denporatan be ez. Hasi e, udazkenetik…
-(Laguna) Negu partien e.
-Hasi, udazkenetik hasi bai, ta haik eta udabarrira arte, udabarrira arte, ez nitzen kasik faten. Erdixetan fango nitzen.
-Ospelak eta erlakestenagatik?
-Ospelak eta erlakestenak. Hamen lepuetan.
-(Laguna) Hotzak e, hotzak.
-Kontxo.
-Hotzak ez! Hotzak ez us… hotzak ez. Klasiek! Norberan klasiek edo izetie, edo ez dakit nik zer.
-Baiña ospelakin ta erlakestenakin etxien lan eittia bazeukatzun?
-(Laguna) Ez, etxien egon.
-Lana?
-Lanik be ez, etxien?
-Bai…! Mutiku hori zer ibili bizan orduen, ta ba, gero be bai, baiña bai, etxe inguruen han ortuen ta ibiltten nitzen, baiña kale aldera ta fan ezin. Baiñe, han ibiltten zien ama ta kipulie, ta niri zertzuk eta medikamentuek be eitten baiñe, bat kendu orduko hiruk urteten ustien barriro.
-(Laguna) Nox arte...? Ta hori, urtero?
-Urtero-urtero.
-(Laguna) Bai, e?
-Bai. Azkena euki nauen… Afrikan egon nitzen. Azkenengo euki nauen Afrikan, hantxen e, Melillan.
-(Laguna) Orduen be bai? Ordura arte?
-Bai, azkenak hantxe urten usten, Melillan. Melillatik 25 kilometrora, ze ginguzen e, [itxaso] gaiñien kosta baten ginguzen. Hantxen hementxe tripa-tripan euki nauen. Eta haxe kendu jaten ta akabo. Baiña ni gaztetan ibili nitzen e buuuu… madre.
-Kontxo, kontxo.
-(Laguna) Ta medikue ze, medikuek ez auen…?
-Medikuek ez usten, zera be ez auen… ez zakixen, medikuek, ezebez. Mondraguen orduen, zein dau ba medikue? Lavajos edo egongo zan.
-(Laguna) Espinosa ta…
-Baiii e…! Hori, [halakorik] ez zakixen ezebe!

2.134. Tipula, erlakiztenak sendatzeko

- **Hizlaria(k)**: Sagasta Elorza, Matias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa

- **Erref**: ARR-175/006
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:09:02. **Bukatu**: 00:09:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena**: Erlakiztenak sendatzeko: zartaginean olio apur batean bigundutako tipula zatia. Tipulak barruko zikina ateratzen du.

Transkripzioa
-Amak ze ipintten otsun erlakestenen kontra?
-En jeneral e, kipulien zera, zati bat kendu, holan orri host... eukitten daue orrixe moduen, haxe. Uretan edo zeretan bigundu apurtxo bat zartagiñan apur-apurtxo bat ta ha ifintten ustien.
-Eta kipuliaren landariaren orrixa edo...?
-Kipula buruena. Ha kipulie zertu ezkero, beran atalak eukitten dittu kipuliek. Holako ataltxo bat epeldu, suten edo, zerekin... olixo apurtxo bateaz. Ta, ze gero freskaketan zanien, ha ifintten usten. Ta harek...
-Esparadrapuakin?
-Harek atara eitten auen puse.
-(Laguna) Ha pusa txupau.
-A, zornia atara harek e?
-Atara eitten auen, bai. Baiña urteten ustien barriro. Buenooo... mutilak...!
-(Laguna) Ta hori urtietan euki zauen?
-Bai.

2.135. Eskola kontuak: abadearen pedagogia; erabiltzen zen hizkuntza

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/008
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:11:50. **Bukatu**: 00:15:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Abadeak ematen zien eskola; oso pedagogia ona zuen. Umeek ez zekiten erdararik eta klaseak euskaraz eta erdaraz ematen zituen. Adin desberdinetako umeak elkarrekin. Zer ikasten zuten.

Transkripzioa
-Eta eskolie emuten oskun abadiek. Pedagogia oso ona auken. Goixien bi ordu, hamarretatik hamabixetara. Atsaldien beste bi, hiruretatik bostetara. Zapatuetan be bai. Eta eskolie zan bilingue.
-Rarue, ez?
-Ez gekixen guk erderaz. Eta orduan esaten oskun: "Aber, etara pizarrak". Pizarrak auzen, zan gerra ostie, oso papel gutxi auen. Eta kuadernue erabiltzen zan ia ikasten zauenien idazten, eta plumiakin eta tinteruen untaute, eta ia hori plumie emuten otsuenien a baziñan zerbaitt, haunditxua ziñen. Eta ia papela emuten otsuenien idazteko, ia norbait ziñen. Orduen ba lelengo ikasten zan pizarran, gero arkatzakin, eta gero

plumie. Eta gero letrak auzen redondilla, eta plumie bihar zen diferentia redondillia idazteko. Gero problemak eta horrek erderaz zien: "Un comerciante compró..." Eta guk ba ez gauen larregi ulertzen; batzuetan zentzua hartzen gutsen. Eta ume danak gengozen klase baten, gela baten. Orduen goixien berak auken sistema bat. Guri eraitten oskun kopixa bat, eta txikixauek hartzen zittuen dotriñie erakusteko, ero a-e-i-o-u erakusteko, leiduten erakusteko. Gero guri ipintzen oskun problemak, horrek "comerciante" eta holakuek. Eta nire sasoikuek zien beste bi mutiko eta ni, mailla batekuek hiru giñen. Eta, "Hi, hemen ipintten jok en total". Azkenien zan: cuanto le costó en total?, edo cuanto tuvo que pagar en total?, edo holako zeozer. "En total, hau sumar ero multiplicar izangok". Ze ez gauen esaten batuketak-eta, horrek zien sumar eta multiplicar. En total sumar eta multiplicar. A, baiña zanien a cómo, ordun garbi-garbi dividir. Oiñ, en total izan leikien sumar edo multiplicar, Hortxe zalantzie, baiña a cómo, a cómo zanien beti dividir. Guk ulertzen gauen akaso zentzu apur bat, baiñe inportantiena bagekixen galderie zala. Eta batzuetan, zu, gauzak zaillek zien: hallar la mitad. Hallar la mitad hori bai zala zaille. Buruz etaraten gauen kontue erdixe zenbat zan, baiña hallar la mitad? Gero igual ba etxera erueten gauen problemie eta; etxien baten bat oso listue-ero, aiztie-ero, anaie-ero, jo!, zenbat ekixen! Bikin dividir eiñ, eta hallar la mitad. Buruz eitten gauena... Holako esturak pasauta ikesi gittun.

2.136. Eskola kontuak: inspektorea

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/009
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:15:25. **Bukatu**: 00:18:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Inspektorea etortzen zeneko kontuak. Abadeak (Don Bonifacio Arenaza) beldurra izaten zuen, umeek euskaraz egiten baitzuten sarritan eta erdara gutxi. Dotrina nola ikasten zuten.

Transkripzioa
-Gero hak abariak inspektoria etorrenerako-eta billurre eukitten auen, ze, klaro, inspektoria etorten zan, ume danak euskeraz eitten gauen, eta erakusten oskun ba hak be norma batzuk. Sarreran ez dakit esaten gauen "Buenos días" edo "Qué tal está usted" edo, "Qué tal ha descansado". Baiña urteixeran beti-betik: "Usted lo pase bien". "Usted lo pase bien!", "Usted lo pase bien!", "Usted lo pase bien!", "Usted lo pase bien!" Azkenien egun baten neskatilla tontatxuen batek esaten dau: "Sagar ustela pase bien!". Gero hak hartu auen zaparradie! Holan ulertzen gittuen gauzak... Irakurtzerakuan bardin. Irakurtzen gauen: "Hijito mío, dijo su mama." "Jo! Ijittuei ijitto mío? Hau zelan leikek?" Holan ikesi gauen gekixen erdera apurre. Eta kantuen be bai. Kantuek be erderaz erakusten oskun. Bestelan dotriñie euskeraz ikasten gauen. Baiña buruz. Nik ointxe be esango neuke dotriñia buruz. Ba, lelengo galderie zan: "Nor da jangoikoa?" Eta hori ikasten gauen hola makillatxo bategaz, joiaz mahixa: "Izan diteken izakirik

bikaiñena, zeru-lurren egille eta jabea, onai betiko zoriona ta gaiztoai betiko zoritxarra ematen dien jauna da jangoikoa". Ze ondo ikasten nauen, e!
-Musika eta guzti.
-Musika eta guzti. Kendu ezkero musikie, ia ez gekixen. Baiñe horrek ondo ikasitta. Eta gero hamaika urte arte han, eta primeran bizi nintzen ni han.
-Eta inspektoria etorten zanien billur haundixa eukitten zeuen?
-Abadiek eukitten auen billurre. Baiña bueno. Esaten oskun: "Ha etorten danien hau esan, bestie etorten danian hori esan". [...] Ez, ez naz akordetan holako zer haundirik euki gauenik.
-Zela zeukan izena abadiak?
-Don Bonifacio Arenaza, baiña danendako zan Don Boni. Izetez karlista gogorra zan, oso karlistia zan; baiñe gukin pedagogia ona euki auen, eta ondo portau zan. Egurretak be emuten zittuen, eta mutikon batzuk ez daue esango nik esaten dotena, baiñe gurekin ondo portau zan. Erakusten oskun Geografia be bai, ipintten zittun mapak, eta kordillerak: "Primero la Pirinéica, segunda la Cantábrica...", holan. Dana soiñuaz ikasten gauen; baiña niri gauza asko geldittu ein jat, probinziak be bai: "Orense, Lugo...", holan, holan ikasten gauen dana, kantuen.

2.137. Jolasteko nahikoa denbora izaten zuten umetan; umetako kanta

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/010
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:18:35. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Umetako kontuak. Nahikoa denbora izaten zuten jolasteko. Oraindik ez zegoen ez telebistarik, ez irratirik, ezer. Abadeak izan zuen lehenengo irratia. Behizain ibiltzen zirenean abesten zuten kanta bat: "Libiri ta labero...".

Transkripzioa
-Gero hamaika urtekin... Eukitten gauen nahikua denpora jolas eitteko, ez euen telebistaik. Radiue abadianien bakarrik. Halako baten Aranen ekarri auen Philips bat...
-Arane badago Koruetan?
-Arane? Gure etxe ondokuek Arane die, honek Nati Altube, Puri Altube. Arane da hori etxioi. Bai, Uxarte be bai, Uxarte be bai.
-[...]
-Eurak eukien beste etxe bat, Barrutikue, oiñ urak hartute dauan lekuen, eta han eukien euren amama, eta hori etxioi gero einddakua zan, Aranekue. Da etxe..., bajutxue da, ez da oso altua. Eta, bueno, ni han ibiltten nintzen etxeik etxe, guk ez gauken behirik, baiñe behizaiñ. Behizain be denporia egoten zan sobra, eta beste zelai baten egoten zan beste behizain bat, eta alkarri burla eitten gutsen, kantau eitten gutsen. Zainddu

biher zien behixak ez zaittezen fan solora, arto-solora ero. Eta adibidez ba kantu bat zan: "Libiri eta labero, kakaganauzaiñe, kakaganauzaiñe; ganauzaiñe logure, aitta ta ama(k) jo gure, Menditxeko ganauek artue gura aiñe!" Eta horrek zien gure entretenimentuek.

2.138. Herriko pertsonaia ezagunen inguruko kontuak, umeen ikuspegitik

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/012
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:20:55. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Aretxabaletako medikuak, Don Tomasek, 3 plazako motorra zuen. Praktikanteak ere motorra zuen. Abadeak erre egiten zuen eta zigarroak berak egiten zituen. Guzti horren inguruko hainbat kontu.

Transkripzioa
-Eta gero baten bat geixoik auenien, indiziñuek be ipintten zien, eta Don Tomas Atxabaletako medikuek auken hiru plazako motorra. Motorra elegantie, sidekarra auken; eta gero beste praktikante batek, harek Guzzi, moto Guzzi. "Hi, Guzzi; gutxi egongo diela holako motorrak, esan gura jok honek". A, eta abadiana. Abadiek erreten auen asko; librillue-edo hori, papela, markie, gaur egun be egongo da hori markioi: Abadie. Eta berak harekin eitten zittuen zigarruak. Kuarteroie eukan eta eitten zittuen zigarruak. Gurien iñork ez auen erreten, aittek ez auen erreten. Abadie. Honek abadiok, e. Pentsau papela be eurendako eukiela. Abadie izenekua, espeziala. Gure gogoetak horrek.

2.139. Erlijioaren garrantzia gizartean

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/023
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:45:05. **Bukatu**: 00:49:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena**: Pentsakera aldaketa. Erlijioaren garrantzia. Acción Católica, La Tercera Orden Franciscana...

Transkripzioa
-Zuk esan dozu oso katolikua zintzela. Oin ez zara hain katolikua.
-Beitu. Ni oso katolikia nintzen, eta uste dot Mondrauera etorri arte ez nintzela izengo hainbeste. Han eleixara fan biher giñen, baiña gure aitte ez zan faten eleixara. Ama faten zan, baiña igual zan sozialki ez euelako oso ondo ikusitta; ez dakit zenbateraiñoko fediaz fango zan; fan eitten zan. Gure etxien ez zan errezetan erresaixoik. Anai bat seminarixora be fan zan. Bi urtetan egon zan seminarixuan eta etorri zan etxera. Osea, libertadie euan etxian: "Nik abare fan gura dot." "Ba fari." Arriue gertatu eta fan. "Nik mezetara fan gura dot." Preguntau biherrik be ez. Eta gehixao da... Mondrauera etorri gintzenien Mondrauen euen eleixarako joera haundixa. Eta gero beste espaziorik be ez geukan emakumak, e. Orduen izen biher ziñen "Acción Catolicakua", edo "de La Tercera Orden Franciscana", eta ni horra faten nintzen, ze hor frailliek eozen, eta frailliek zien euskalduntxuauek. Ez dakit ba, zabaltxuauek edo holan.
-Zer zan "La Tercera Orden Franciscana"?
-Hori ba franziskanuek euken, itxurie, hiru ordena. Bat zan seglarrena, bestiek zien hermanuek edo holan, eta bestiek zien mezakuek. Eta zan como "Hijas de María" edo, holako asoziaziño bat zan "La Tercera Orden". Gaztiek eta zaharrak izeten zien. Eta, klaro, han emuten otsuen bendeziño berezi bat, eta zuk, talde horretakua baziñen, ba pribilegio batzuk zeuketzun, ez dakit zer eta. Akordetan naz San Frantziskoko eleixan, eskapularixo haundixekin egoten ziela gizon nausixek. Eta guk ez gauen ipintten hori eskapularixo haundixoi, baiñe bai faten giñen billeretara, eta izeten zien billerak holan apur bat "tipo social". Gure kontuak komentetan gittuen, eta batez be eukien lokal bat oso ona kalefaziñuekin. Eta guk ez geuken beste lokal bat egoteko eta hara faten gitzen, eta fraille gaztiek egoten zien, eta ondo pasetan gauen.
-Zer pribilegio egoten zien hor ibiltteagatik?
-Gero zerure fatekuek danak. Bai, bai, bai, danak zien zerure fatekuak gero, bai, bai. Eta guk eurai zer aportauko gutsen? Ba San Frantzisko eleixan obrak ein zittuenien hauts pila bat tragau gauen, haxe garbiketan eta holan, baiñe bestelan guri oso tratu ona emun oskuen. Frai Rufino beti han egoten zan prest zeoze ekarteko... Eta bai, bai. Lokala gazterixiendako eukitten geuen eurak itxita. Ze bestelan aiuntamentutik eta holako lekutatik ez euen ezebe, batez be emakumandako. Ez giñen oso konsziente, hori be esan bihar dot. Eta hor ba beti be ekarten oskuen komadrona bat, edo holan txarla batzuk emuteko. Eta nik emakumien anatomia eskolan ez neuen ikesi; hortxe emundako txarlatatik... Eske ez eozen bide asko zabalduta. Bidiek oso-oso mugatuak zien. Eta esaten dotsut oso relijiosuek giñela, ba dana zalako oso..., ezin ziñen joan beste leku batera, ez, hantxen zeukotzun, etxetik kanpora hantxen zeukotzun apoiua.

2.140. Maiatzeko loreak

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/024
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:49:15. **Bukatu**: 00:51:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Maiatzeko loreak; goizero, 06:30eko mezara joaten ziren. Ondoren, lanera kooperatibara.

Transkripzioa
- Eta bueno, gu faten giñen xei t´erdietako mezetara, "Maiatzeko lorak" izeten zien, han be pribilejion batzuk irabazten zien, ez dotsut esango garbi zeintzuk, baiñe goxero faten bazintzen maietzien, orduan Ama Birjiñiakin egoten ziñen ondo; eta xei t´erdietako mezetara.
- Egunero baiña?
- Egunero. Eta egoten zan fraille bat, Abaitua, txiki-txikiñe zan, eta papelak, kantu-papelak emuten oskun, eta aizta bixok faten giñen, "hor egongo don Xague... -Xague esaten gutsen-, Xague papelak emuten". Ilusiñuaz faten giñen, gero kantau eitten gauen. Gaiñera euskal kantuek kantetan zittuen, frailliek euskeraz emuten auen. Eta Ama Birjiñiaz ondo egongo giñen, ez dakit, ni...pozik faten gintzen, ez dakit zegaittik. Eta goixetan jaikittie kosta eitten jakun. Eta aittai esaten nutsen: "Aitte -[pentsau bera ez zala faten mezetara]-, aitte, bixer deittuko dustazu sei t´erdietako mezetarako?" Ze despertadorie be bat egongo zan etxe guztirako. Eta "bai." Ixten oskun hamar minutu gehitxuau ohien egoten. "Xeirek eta hamar!", deiketan oskun. Jantzi, mezetara. Etxera etorri, armozau, eta oiñez Elektronikara. Hotzik barik, e. Gero beratzi ordu lana ein.

3. Familia eta harremanak

3.1. Umeei abestu egiten zitzaien lokartzeko

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/011
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:19:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- **Laburpena**: Ume txikiei asko kantatzen zitzaien lo eragiteko.

Transkripzioa
-Ta zertara jolasten zenduen edo?
-Ume txikixekin? Ba...
-Hori e, pixkat igual nausitxuaua.
-Bai, hori nausixekin. Ume txikixekin jolastu ez zan eitten. Kantau ume txikixei, ba, kantau. Amandriek edo. Orduen kunak be izeten zien oin e, horreik baibendunok. Ba, ba hankiaz eraitten jakon ta, ba, umiei lo eraitteko, kantau itten jakon.
-Zeuk be hori... ez? [...] Ez, hori, lehen esan dozu, ez? Bigarrena anai guztien artian, eta ume pilla bat zaindu bihar...
-Bai.
-...eta lo erein eta guzti hori be zeuri tokatzen jatzun askotan?
-Bai, bai, bai, bai. Askotan, askotan. Ta, ba, bueno, ba, umiei txupetie emon

ta ba... Oin txupetie aguen sartzie be oin e, hori txarra da. Baiña lehenau ez auen holakorik. Lehenau ha txupetia aguen sartu, busti txuaz ondo, ta azukarretan untau ta umiei emuten jakon. Ta umiek ha txupetan euen ta gero kantau itten jakon ta, ba, lo, umiorrek lo. Ta, bueno, hor zenbat kantu, mordo bat azen, nik oin ez jat /etxat/ akordetan asko.

3.2. Ume negartia

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/017
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:23:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: Negar asko egiten zuen umeari amandreak esaten zion esaera zaharra.

Transkripzioa
- Ume txikixak negar asko eitten zebanian, oso negartixa zalako, izenen batekin... zeoze esaten jakon?
- Ez, ez jakon zertzen. Gero, baeuen beste esaera bat –bueno, ez zan esaeria–, umiek negar asko eitten euenien, ba, ya kabrietan zan amandrie edo zainketan ebillena ta esaten euen: "Ixo, ixo ume. Zartakiña bageuko ta urune bagenduke, Otalaazpikotik zartaiña ekarri ta ahixe eingo genduke". Orduen falta zonan zartakiñie, urune ta dana. Dana. Ta horreik izeten zien lehenauko esaerak. Bai. Baiña bestela hola izen berezirik ez jakon esaten.

3.3. Ume txikiekin egiten zen jolasa

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/032
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:41:50. **Bukatu**: 00:42:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Ume txikiei atzamarrekin egiten zitzaien jolasa.

Transkripzioa
- Umiekin-eta kanturik, eskuekin edo atzaparrak edo...
- Bai, hor izeten zan, umien jolasa izeten zan, porejenplo, ume txikixei --ba, ume txiki-txikiñei ez, haunditxuauei--, ba, hor, urte pare bat edo hiru bat eukienian, umie entreteniduteko izeten zan, atzamarra, eskua hartzen jakon ta esaten [euen]: "Oin fan bihar dou plazara". Ta esaten zan: "Plazara", ta "Honek arrautzia ekarri, honek sue ein, honek ipiñi, honek probau, ta honek txarri tripionek dana jan". Ta gero eitten jakon kili-kilixak hemen. Ta hori izeten zan atzamarrekin eitteko beste joku bat izeten zan.

3.4. Ume txikiekin egiten zen jolasa

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/034
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:42:54. **Bukatu**: 00:43:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umeekin egiten zen jolasa. Umearen burua altzoan ipini eta eskuekin umearen bizkarrean emanaz kanta bat abesten zen.

Transkripzioa
Gero erderaz bazan beste kantu bat umia hartzen zan, hola, altzuen ta... oin, ahaztu jat niri... A! Umia hartzen zan hemen, hola. Burua ipintten jakon hemen ta bizkerrien joten jakon: "A la monté, casca la monté, a estrujar, a mangarrenar, aquí pegar", ta umiari emuten jakon, ipurdixen emuten jakon. Hori zurekin be eindda... Bai. Ba, erderazko kantue egoten zan, asko egoten zan.

3.5. Aitajaunaren kantak

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/041
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:46:50. **Bukatu**: 00:47:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Aitak, berak asmatutako kantak abesten zizkien ilobei.

Transkripzioa
Bai, gure aitte zanak gure seme-alabai, hartzen zittun altzuan, ta harek kantetan otsen berak asmautako kantuek kantetan otsen. Ta gure semiei zenbat bider kantau ete otsen, hartu altzuen ta: "Sagar bat erreta ta bestie gordiñik, hire aittejaune bizi dala oraindik". Bersue kantaten otsen. Bai, erdi-bersolarixe zan ta!

3.6. Jolasean hasteko

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/051
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:54:25. **Bukatu**: 00:54:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Rifatzeko: busti ala siku?

Transkripzioa
- "Don-don Beledon" edo, rifatzeko?
- Ez, ez. Ez geuen hori eitten. Eitten geuen "cara y cruz", baiña "cara y cruz" izetia baiño izeten zan "busti ala siku". Bai.
- Eta zelan?
- Ba, harrixa hartzen zan ta ttua botaten jakon ta "busti ala siku". Ta botaten zan harrixe ta ttua eukenai, busti, ta bestiai siku. Ta, ba, "busti ala siku"? Hori bai, baiña bestela ez geuen zertzen.

3.7. Umetako jolasak garaiaren arabera

- **Hizlaria(k)**: Otxoa Abarrategi, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-002/029
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:31:05. **Bukatu**: 00:33:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Umetako jolasak: tortolosak; txirikila. Garizuma garaian zertara jolasten zuten. Garizuma amaitzeko irrikan egoten ziren.

Transkripzioa
- Eta tortolosetan eingo zenduen zuek.
- Bai, guk bai, asko.
- Neskak eta.
- Bai, eta gaiñera eukitten gittuen tortolos batzuk elegantiauek. Onenak apartau, ederrenak ta gero koloriek emoten geuntsen, pinttura berdie, urdiñe, hori papelakin pintteta gittuen, gorri-gorrixek. Galtzen bagauen pena bat, galtzen bagauen. Hain tortolotx ederrak, bat galtzen bagauen be oin bat falta juat.

- Eta kantuak eitxen zian, ez? Jolastu ahala kantatzen joaten zan: “apona bat edo asaje bat”-edo. Zela jolasten zan? Kantuak, zela jolasten zan hori? Ez ba alde zabaletik jausten zanian...
Bai, alde batera ta bestera eitten gauen.
- Eta zelan?
- Lehenengo ifinten zan zutirik, gero etzindde ta irebazteko buelta eindde. Hiru buelta tortolosai eitten jakuen. Baiña kantue ahaztute dauket.
- Eta zeozer, pelotaren bat edo zozer hartzen zan?
- Kanikie. Kanikie bota ta tortolosai buelta erain. Ta harei tortolosai erain biher dotsezun /biotsezun/ buelta ikusi barik, kanikie hartu biher zauen / bizauen/ ta. Ta politte e! Tortolosak poltsan elegante eukitten gittuen guk, euren zintxattugaz estutute tortolak jolin...
- Hori ze izaten zan, garizuman edo?
Bai ta zera be bai, garizuman txirikillan. Txirikillan be, txirikillak eitten gittuen ba egurrezko
txirikillak, kurioso eindda e! Holako luzera bateko txirikillak. Ta danok juten gitsen hola aldatza
euen leku batera eta amantalakin domeka arratsaldietan. Bestela ez gauen amantalik ibiltten eta. Txirikillan eitteko amantalak. Nik prima bat euki nauen artistie. Hak “de todas todas” hartzen zittuen.ta! Geuk bota biher e! Ba txandan eitten zan. Nik sarritten azertau be ez neban eitten txirikillan. Ta hak danak hartu. Harek Zubillagan bizi dan primi horrek. Joe, esaten nauen zelan hazi ditun ba honek neskatilla honek. Holan ule zurixe euken apur bat holakotxe lekuen ta danak e! Terriblie zan hartzen. Ta gero merixendatxuek eta eitten gittuen. Txokolatie edo, lagunen baten etxin. Galtzen auenak “a pagar”. Gure ama koittaue dirue ataraten. Ez zauen eukitten dirurik. Hamar zentimo emoteko be ez zauen eukitten ta.
- Eta esan dozu garizuman izeten zala?
- Garizuman eitten gauen.
- Eta zagaitxik garizuman?
- Ba ez dakit zegaittik. Desietan egoten gintzen garizumie akabetako. Gero hor taberna bat euen goixen ointxe be badau hor tabernie ta restauranak segiduten dau han, horrek akabau zien baiña. Bentanan ondun ifintten nauen gramolie ta danok hantxe dantzan, baiña guk eukitten gauen ilusiñue zera garizumie pasetako.
- Musikie hasteko?
- Musikie hasteko. Ta ordun dantzan eitten zan. Dantzan.

3.8. Umetako jolasak: kanikaka

- **Hizlaria(k)**: Otxoa Abarrategi, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-002/034
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:40:33. **Bukatu**: 00:41:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Kanikaka nola egiten zuten.

Transkripzioa
- Eta kaniketan zelan eitten zan? Joko diferentiak zeren bi edo hiru klase, kaniketan? Edo zelan eitten zan?

- Ez. Nik beti ikusi dot... Potxoluak eitten [gauen]. Potxolo bat ein, lurrien-edo ptxolotxo bat eitten [gauen] ta haraxe azertau bihar zien. Ta urrindik ifiñi ta "tta!", ta barrura sartzen bazien, ha irabazitta euen. Kanpora juaten bazan, fuera!
- Bestiandako.
- Bestiendako. "Una canica", kanpora juaten bazan. Potxolora juaten bazan, noberena. Ta geu be kanikaka asko eindda gaz, e?

3.9. "Toka-torreka" jolasa

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Argarate, Bixenta; Pagoaga Gonzalez, Bixenta; Zumelaga Ozaeta, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-004/006
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:05:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Toka-torreka" jolasten zuten umetan. Bi talde behar izaten ziren jolas egiteko.

Transkripzioa
- Bai, guk toka-torreka ta eitten gauen, toka-torreka.
- Zelan?
- Toka-torre.
- Eta zelan da hori?
- Toka-torreka zan, [arin-arinka ibiltzera]. Ipini alde baten sei mutiko ta bestaldien beste sei mutiko. Eta lehenengoko hara juaten zana hara, ha hormie joten auena, ha zan... Zera, han preso baeuezen batzuk. Zu ariñeke bazebitzen, ezta? Ta bata bestiei [zirkuka] ta. Bati ebaketan eutsen ta eruten euen hara, preso moduen, torrera. Ta zu [haren gaiñetik] edo alde batetik edo bestaldetik han sartzen bazitzen iñok ikutu barik, ha bestia librau eitten [dozun]. […] toka-torreka.
- B: Taka-torreka.

3.10. Umetako jolasak; "Txorro-morro" jolasa

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Argarate, Bixenta; Pagoaga Gonzalez, Bixenta; Zumelaga Ozaeta, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-004/007
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:05:55. **Bukatu**: 00:08:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak. "Txorro-morro." jolasaren inguruko azalpena.

Transkripzioa
- Ta beste bat, beste bat zan… zan "Piku, kallo, ke". Bizenta, "Piku, kallo, ke" zelan zan?
- "Txorro-morro"…?
- "Txorro, morro, piku, kallo, ke".
- Hori, baiña, halan, alkarren gaiñera salto eitten, ezta?
- Bai.
- Zelan eitten zenduen?
- Hori izeten zan: bat egoten zan jarritta, harmaillan jarritta, ezta? Bat. Ta haren azpixen makurtuta bat. Ta haren atzekaldien beste bat makurtuta. Ta hiru edo lau edo holan. Ta gero, saltarixak. Ta saltarixak allegau biher zien han norberagaiño. Ha zan kanpeoia. Baiña askotan buruen joten auen ta "bunba!" ta…
- Ta noiz esaten zan "Txorro, morro" hori?
- "Txorro, morro"… A! "Txorro, morro" esaten zan… Bat… Zu ipintzen [zitzen] holan, ezta? Eta bestia hamen burua azpixen dauela. Ta esaten [zan]: "Txorro, morro, piku, kallo, ke". Ta "txorro" ta "morro" ta… "piku" izango zan ta "kallo", "ke". Ta ez baeuen azertetan esaten [zan]: "Si hubieras dicho [sardinito], si hubieras dicho…"… "Si hubieras dicho sardin-zesto…"… ez naz akordetan oin!… Ez zara akordetan, Bixenta, horrekin?
- B: Txorro-morroka?
- Ez, txorro-morroka da gauza bat, baiña hori bestie zan: "Txorro, morro, piku, kallo, ke". "Txorro", "morro", "piku", "kallo", "ke". Ta zan: azertau ein biher euen bestiak. Zuk atzamarrak holan [baaukozun] "sardin-zesto" zan ta holan [baaukozun] "piku". Ta bestie "kallo" holan ta… Holan zan. Ipini bihar [dozun…] ta azpixen dauenak igarri ein biher [eutsen]. Ta: "Si hubieras dicho sardin-zesto…"…
- B: Txorro-morroka.
- Bai, hori ba. "Txorro, morro, piku, kallo, ke". Ta: "Si hubieras dicho sardin-zesto, si hubieras dicho no sé qué, tara-ri-ra…". Erderaz ez [zakiun] ta!
- Eta hori erderaz zan?
- Bai, hori erderaz zan. Baiña erderaz, zelako erderaz, e! Zelabaitekua!

3.11. Kardu-lorearekin "kalbo ala uledun" jolasa

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Arregi, Modesta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-005/011
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:10:20. **Bukatu**: 00:10:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak eta natura. Kardu-lorearekin ere jolasten zuten. Putz egin eta "kalbo edo uledun" esaten zuten.

Transkripzioa
- Gero, lorakin-eta, margaritakin-eta, ez zauen jolasten?
- Baitte. Margaritakin ez. Kardu… Karduen lorie juan ta gero, ha zurixe eukitten dauenaz "uledun ala kalbo", putz eindde.
- Ta ze zan hori?
- Ba, putz ein ta danak kentzen botsenan, "kalbo". Ta, bestela, ba "uledun".

- Ta holako zomorrotxuekin ta?
- Ez, zomorrotxuekin-ta ez.
- Ez?
- Ez. Ipurtargixek.

3.12. Txatxilipurdika, txirikilarekin; "ahigozue" meriendatzeko

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Arregi, Modesta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-005/026
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:23:10. **Bukatu**: 00:23:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Txatxilipurdika lurrean gutxi egiten zuten. Txirikiletan umeak bakarrik ez, neska-mutil nagusiek ere jolasten zuten. Arratsaldean merienda, "ahigozue" (esnea, azukrea, irina eta kanelarekin egindako ahi moduko bat).

Transkripzioa
- Lurrien-eta, txatxilipurdika-ta, eitten zauien?
- Gutxi, gutxi.
- Diaboluekin eta txirikillan-eta?
- Txirikillan beti. Baiña txirikillan ez umiek, e! Neska-mutillek, nobixa-nobixuek eta eitten jonen orduan txirikilletan. Ta, gero, ahi-gozue baserriren baten. Ahi-gozue ez dakin zer dan... Papilla. Esniekin ta urunaz, kanela zotz bat bota, ta azukerra, ta ahi-gozue. Ha merixendie izeten zonan. Hori haundixek, e!

3.13. Umetako jolasak: txintxauna, kanikak edo puxtarriak, tronpa edo ziba

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Arregi, Modesta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-005/028
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:24:15. **Bukatu**: 00:25:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Txintxaunean. Mutilek kanikekin (puxtarriekin) jolasten zuten. Puxtarriak etxean buztinez egiten ziren eta kristalezkoak oso preziatuak ziren. Puxtarriekin potxoka jolasten zuten. Geroago etorri zen ziba.

Transkripzioa
- Gero, txintxaunien edo?
- Zera... Bat kantetan zonan... Erderaz zonan ta ez jatan akordetan. "Chiquitita y bonita" be bai.

- Ta mutikuek tronpia-ta erabiltten auen?
- Bai, tronpie bai, baiña geruao, e?
- Ta, bestela, kanikak?
- Kanikak beti. Baiña buztiñezkuek, e! Etxien eindda. Ta loradun kanikak Muñoz, Donostiako primuek, aitten primuek, bialketan bazittunan, haik relikixia izeten zonan, horrek, kristalezko kanikak. Bestela, buztiñezko kanikak.
- Eta nun sartu bihar izeten auen gero kanikiek?
- Ba, orduan be potxuen. Tortoliske be bai.

3.14. Tortolosetan nola jolasten zuten

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Arregi, Modesta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-005/029
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:25:05. **Bukatu**: 00:26:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Tortoliske", tortolosetan nola egiten zuten. Harri loredunak.

Transkripzioa
- Tortoliske be bai. Tortolisek dittun billotsen ha belauneko junkurie. Ta haregaz gora botaka be bai eta puntuen be bai. Ta harri loradunekin be bai.
- Zerekin?
- Harri loradunek. Hik zer dien be ez dakin harri loradunek! Fratelen edo tazaren baten zatixek, badakin adornua eukitten dabena? Ba, haik, hola, horma kontra bota ta hormien hurrengo bota dabenak, hurren daukenak, gora bota eta hartzen jittun loradunek. Eta, ba, hik danien galdu badon, hire harri loradunek neuretako.
- Eta gero, gora botaterakuen, ze esaten zauien?
- Ezebez, esan ezebez. Tortolisekin bai. Tortolisekin gora botaka, lau aldetara. Kanikie edo pelotie edo... Pelotie be etxien harixekin einddekue edo. Eta, orduen, botatzen zonan, esate baterako, cara-cruz eta alde bixetara. Ta ha bota ta ha hartu. Eta bat ez badauken heuk hartu bihar donan moduan, ha pelotie bota ta beste eskuaz ha pelotia hartu orduko buelta emon. Ta, ba, ez zonan beste jokorik egoten!

3.15. Umetan jolasean

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/016
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:31:35. **Bukatu**: 00:32:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena**: Umetan eskola gainean bizi zirenez, ume guztiak batera egoten ziren beti, Goroetako eliza aurrean. "Sakamantekaska" jokatzen zuten.

Transkripzioa
- Ta hori, Cuatroviento-ko kontuek, ba, hori, ba, gustora, gustora paseten geuen guk gazte-denporia. Ta gero beste gazte-denporioi, ba, Koruetan bertan. Orduen, ba, esan deutsutena, han lagunekin, ba, Koruetako jolasak edo esaten badotsut, ba...
- Zein zan, holan, umetan, ba, 6-8 edo... Noiz hasten ziñazien lagun-artian ta...?
- Lagun-artien? Klaro, eskolie guk bertan geuken. Eskolie zela bertan geuken, han betik euan jolas zera, jolas-lekua. Eleixie ondo-onduen euen, eleixa onduen dau hori, maistro-etxie eleixa onduen euena, eta, ba, han elixa inguruan ta bueltaka-ta, ba, sakamantekaska-ta eitten gendun. Bat jartzen zan harrapatzaille ta gero harrapetan euen mutikue edo neskatillie, ba, hartzen euen ta alkarri lotute, ba, ibiltten zien bestiek harrapetan. Eta hori zan, ba, "Sakamantekaska" edo esaten geuntsena.

3.16. Pote-poteka

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/018
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:36:35. **Bukatu**: 00:37:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Pote-poteka ere asko jolasten zuten. Pote batekin jolasten zen. Ezkutaketa

Transkripzioa
- Eta beste jolasik ez zeuan garizuman?
- Ez. Bueno... Jolasak bai. Pote-poteka, ta... Pipar-potia hartu, ta han barruen sartu holako harri-koskor batzuk eta gero zertu, aplastau pixkat, ta harekin, ba, ipintzen zan holako punto bat. Borobil bat eitten zan ta haren gaiñien eitten zan potie ipintten zan. Ta gero, ba, guk gordelekue geunken han inguruan, ta gorde. Ta hortarako eitten zan, potia hartu ta han zentrotik harrika jaurti eitten zan. Ta juaten zan, toketan jakonai, topatzaillie-edo, ha juaten zan potie hartzen. Potie hartzen doien bittartien ta ha ekarri, bestiok gorde ein biher zien. E? Beste lagun danak gorde ein biher zien. Eta allegetan zan hara, ta gero, ba, bestie juaten zan topetan. Han ikusten euen ta "Joño! Pote-pote-pote, Joxe pote-pote". "Ta-ta-ta" joten zan ta ya esta, ta Joxek urten ein biher euen ta han egon, harrapauta, ba, sei edo zortzi edo hamar, danak topau arte. Danak topetan zienien akabaten auen. Eta lehenengo harrapau auena, ba, barriro toketan jakon harrike bota ta, ba, abar ta abar.

3.17. Tortoliska

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/025
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:42:30. **Bukatu**: 00:44:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Nesken jolasa zen. Ondo azaltzen du nola jolasten zen. Mutilek ez zuten horrelakorik egiten.

Transkripzioa
- Gero, neskatillak... Neskatillan jolasa zan tortoliska. Tortolisak badakizu zer dien?
- Zelan?
- Die... Billotsan hankako hazur bat izeten da. E? Ta billotsan hankako hazurrek horrek dauke holako forma ezberdiña deko. Ta hartzen die dozena-erdi tortolis esaten dienak, eta pelotatxo bat. Eta lehelengo tortolisek forma bat deuko ta han forman... A! Lehelengo botaten die tortolesak, "rrra!" dozena-erdixek. Botaten die ta batzuk forma baten geraketan die, bestiek bestien, bestiek bestien. Bueno, ba, ein biher da: lehelengo, forma bateko posturan ipiñi, baiñe pelotie gora bota ta ha behera datorren bittartien, "tak!" erein biher dotsezu eta pelotia hartu aidien, pelotia jausi barik. Ta gero, ha forman ipintten dozunien, gora bota hartu eta pelotia hartu. Holan, alde bateko formako danak batzen zien. Gero bigarren formie. Ipiñi gora begire, esate baterako, gora begire danak. Ba, barriro botaten zan ta hari formai buelta emon. Ta danak forma... hara begire ipiñi, bakotxa hartuaz. Ta gero hurrenguen, holan, etzindde egon bada, ta gora begire ta behera begire, albora begire. Alde baten lisue euken, ta bestien potxolotxue. Ba, lehelengo gora begire ipiñi, ta gero bestaldera begire. Holan hartuaz jokue amaittu arte.Ta holan, ba, batzuk abilidade haundixa euken eskuetan hori eitteko. Beste batzuk, ba, gutxiao.
- Ta neskak bakarrik?
- Neskak eitten euen hori.

3.18. Atzamarrekin egiteko jolasa

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/035
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:58:10. **Bukatu**: 00:58:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Honek erosi, honek ekarri, honek ipini, honek apurtxo bat probau, eta honek dana jan".

Transkripzioa
- Eta hau? Hau umetan egitten ostien niri atzamarrakin "Lehenengotxu hor, punta bihatz hori..."?

- Ez.
- Eta oilluena? Arautziena?
- Eta, ezta.
- "Honek txikitxuak..."
- A! "Honek erosi, honek ekarri, honek ipiñi, honek apurtxo bat probau ta honek dana jan".

3.19. 'Harri leunke', harriekin jolasten zuten

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-007/003
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:03:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Harri leunekin ere jolasten zuten. 'Harri leunke'.

Transkripzioa
- Eta gero besteik? Ba, gero harri-leunke. Harri leunek zien, porejenplo, etxien plato bat-edo politta, gustetan jakuna, ez dakitzu? Dibujua daukiena. Eta apurketan zanien taza bat edo holan hareik ondio apurtu gehixao. Ta gero holan, hartu eskuan, hamen ifini, ta "ti-ta", holan. Eta han hartzen bazauen bestaldera, [...]. Ta gero bestiek irabazten bazauen —ez dakit hiru bider edo zenbat zan, ya ahaztuta daukat— eta emuten euskun, ba, bestiek emun ein bihar. Ta zatarrenak apartetan ibiltzen gitzen emutekua zanien.
- Eta horri zelan esaten zetsazuen?
- Harri-launke.
- Eta, orduan, ze zan? Airera bota ta...?
- Harri-leune, ta ifintzen [zeun] hemen esku barruan. Esku barruan ifini, ta gora bota "tink!" ta gero esku gaiñian. Bai, holan.
- Eta zeiñek irabazten zeban?
- Ba, bueno, suertia aukenak edo abillenak, abilidade gehixen eukenak.
- Baiña ze geratu bihar zan, esku gaiñian...?
- Esku gaiñien geratu biher zan eta "cara o cruz" be, zeatik baueken dibujua politta, ta gora geratu, ba, klaro, irabazi eitten euen. Ta gero bestiek emun ein bihar, ta gero bestiek, ba, zatartxuauek, eukenik zatarrena. Nik, behintzat, holan eitten nauen ta beste batzuk be... Beste batzukandik ikasiko nauen.

3.20. Umetako jolasak: tortoloska, alebi-alebika, pote-poteka

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-007/004
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:03:05. **Bukatu**: 00:04:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: tortoloska; alebi-alebika; pote-poteka. 'Pote-pote, txakur txokolate...'.

Transkripzioa
- Eta gero, ba, lehenaoko jolasak zien: tortoliska —"tabas" esaten jakona, tortolisak—, alebi-alebika —alebi-alebi—, pote-poteka... Pote-poteka ze izeten zan? Pote baten —tomate potia edo holan, ezta? Horrek gauzok— sartu harri txikitxuak barruen, ha maspildu muturrien ez zeixen urten harrixak, ha bota urrin eta gero bestiek gorde. Ba, ya kuadrillie juntetan gitzen ta harek bestiek gorde. Ta gero, haren potien billa juaten zan ha, ta potien bille juaten zanien, ya etorten zanien, bota euen lekutik holan joten zan harrixa, ta "Pote-pote". Ta "Pote-pote, txakur txokolate. [Alabako baltza], Martin ipurdi-baltza" ta holako gauzak! Eta, bueno. Gero, klaro, "Han!..." "Pioporla" edo ez dakit zela zan be, e! Holakon bat esaten [gontsen]. Danak ikusi ein biher zien, ta gero barriro potera fan ta barriro "taka-taka" jo ta barriro beste bat hurrengo. Eta hari topetan zauenien eta esaten otsezunian bere izena, bueno, ya hak ez... ha... erretirua. Ta gero beste bati. Eta, klaro, bixen bittartien beste oste batetik hartzen baotsuen etorritta potie, berriro barrixen barri ein biher zauen.

3.21. Umetako jolasak: 'Azkenka'

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-007/008
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:08:15. **Bukatu**: 00:08:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: 'Azkenka'.

Transkripzioa
- "Azkenka" zan: ba, holan kontetan zittuen ta "zuri toketan jatzu". Ta ein biher auen fan ta bati ikutu ta "azken!". Eta bestie ihesi. Ta hankaik bizkorrenak eukenak, ba, ez euen iñok be harrapetan. Eta [mamo] samar euena, ba, "azken", ta gero bera, ta danei jarraika errebentaute. Ta, ba, holakotxiek, holakotxe gauzak.

3.22. 'Atxia-motxia' jolasa eta kanta I

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/012
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:19:35. **Bukatu**: 00:20:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: 'Atxia-motxia' kanta baina beste letra batekin.

Transkripzioa
- Beste bat zan , baiña berdiña da, jolas berdiña da:

"Atxia motxian,
zesteran kotxien,
irrin-arran, kortatxo,
behin topau nuan erbitxo,
atara notsan ezkerreko begi gorri-gorritxo!"

Eta han be atzamarrak. Berdiña da, baiñe leku batzuetan eitten zan, modu baten kantetan zan, eta beste leku batzuetan beste modu baten. Eta hola.

3.23. 'Alabandaka' umetako jolasa

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/017
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:26:10. **Bukatu**: 00:27:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolas eta kanta: 'Alabandaka'.

Transkripzioa
- "Alabandaka".
- "Alabandaka".
- "Alabandaka" zan... "Alabandaka", aber... Eske hainbeste urte die, zu! Hainbeste urte die! Lehenguek ahaztu ta oingorik ikesi ez. "Alabandaka" zan, paiñelo bat, paiñeluakin. Eta... ai! Zela zan hori? "Más o menos", ez dakitzu? Danak antzerakuek izeten zien. Eta... a! Aber... "Alabandaka"... Eukitten euen han batek pañelo bat, pañelua [honan]. Eta bestiek kuadrillan. Ez dakitzu? Kuadrillan egozenak fan ta "alabandaka", fan ta ha paiñelue zeiñi toketan jakon. Han, illeran. Bagenkixen zeiñi toketan jakon, ta toketan jakona fan eta pañelua hartzen. Ta, klaro, hartzen [...], igual gora jasoten otsun, ta gora jasoten otsunien, argi bazaoz, salto ein ta harrapau eitten dozu. Ta hurrengo bestaldera ta holan. "Alabandaka" hori zan. Ta beste jolasik... Etxetik, gaiñera, etxetik [...] ganauak zaindu ereitten oskun. Ha zan ona ha!

3.24. Umetako kantak

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/033
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:49:30. **Bukatu**: 00:50:35

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umea altzoan edo hankalatraba zegoenean kantatzen zitzaizkion kantak.

Transkripzioa
- Umia piskat hasten danian espabilatzen eta hanketan-edo ipintzen dozunian-eta, jolasian, hemen, altzuan, zeoze...?
- A! Holan, zerien, "arre borriquito".
- Bai, zeoze kantatzen zenduen?
- Jarri hor, zerien, ta umiek, ez dakitzu? Ifini hor hankalatraba:

Arre borriquito, vamos a Belen...

- Obatu eskutxuetatik eta umiek pozik.

...que mañana es fiesta y el otro también.

-Ez dakitzu? Erdera nahastua. Hori euskera batua ez, erdi-erdera, erdi-euskeraz, ba...
- Baiña "Arre-arre mandako", bai...

Arre-arre, mandako,
gaur Panplonarako,
bixar Tolosarako
handik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko.

- Ba, hori zuk be badakitzu, ezta?
- Ba, bai, entzunda, baiña... nausixeri.
- Eta gero besterik...

3.25. Txutxurrutxuka gurdiarekin

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/035
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:51:25. **Bukatu**: 00:54:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Txutxurrutxuka; gurdiarekin egiten zen jolasa. Behin jolas horretan zebiltzala mutiko batek min hartu zuen. Emakumeek etxean egin zioten sendaketa. Gurdiarekin jolasean kantatzen zen kanta.

Transkripzioa
- ... "Txutxurrutxuka" eitteko. Pentseizu, beste jolas bat. Beste jolas bat. Burdixa, badakitzu zer dan? "Carro", lehen esan dotena.
- Bai, bai, bai.
- Haga puntie eukitzen dau. Han haga puntie... Han makiña bat bider ibili nitzan. Jarri han puntan, ta han labakue eukitten euen. Ta hari labakuai obatu esku bixekin ta han puntan. Ta bestiek han atzekaldien. Ta han jarri beste hiru-edo, ta beste bat --atzekaldien beste haga bat luzie egoten zan-- hari... Ezpadie, luzieue; bestiek txikixek. Ta han pisue atzekaldien. Ta hari puntan euenai "dranga!" erein biher jakon. Ta harek erein deixela salto. Baeuket... Behin gure primo bat, jolasten bagebitzen, eta "bunba!" ta "bunba!". "Aiba!" ta hurrengokuen haundixaue. Ta "tra!" jo ta, klaro, eskapien euen goixen kapirixua ta [harek] kapirixuak [untzakatxon] bat-edo euki. Gerra denporie edo zan, gerraostie edo zan, ta ni justuen akordetan naz, baiña nausixauek ebitzen ta gu han inguruen juanda. Eta, klaro, buruan, pentseizu! Hasi zan odola darixola...! Badoiela kalera bera --kalekue zan, Mondraukue--, badoiela kalera. Andra danok hasi die jarraike mutikuorri! Buruen ein olixo errie --pentseizu, e!--, olixo errie, ba, [lumiaz], berakatzakin olixo errie desinfektetako. Ahal danik beruena. Mutikuoi kurriska baten! Enee, lehenauko... Lehenao etxien eitten zien kurak eta zerak.
- Eta hor, jolas hori eitteko, segiduan akordauko jatzu kantu...
- Eta gero hari kantetan jakon:

Txutxurrutxu maña,
bixar Santamaiña,
etzi Domu Santu.
Ama negarrez,
aitte dolorez,
abadie kantuen ta
umie zuluen.

3.26. Eskuekin ume txikiei egiten zaien jolasa

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/037
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:54:15. **Bukatu**: 00:54:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Eskuekin ume txikiei egiten zaien jolasa.

Transkripzioa
- Ipuiñen bat, halan, arrautzena edo... "honek...". Holako zeoze?
- A! Bai, hori banekixen, ikesitta nenguen:

Honek arrautzie ekarri,
honek zartakiñia etara,
honek ifini,
honek probau,
ta honek potolo-potolouonek dana jan.

- Hori? Holan? Hori esan gura zeuen?
- Bai, bai, bai. Gaiñera, hori, ez? Batetik bestera, ba, aldatu eitten dira piskat...

3.27. "Txutxurruka", gurdiaren gainean egiten zen jolasa

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-009/022
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:56:45. **Bukatu**: 00:58:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umetako jolasak. "Txutxurrukuka" nola egiten zuten (gurdiaren hagaren gainean gora eta behera). Kanta.

Transkripzioa
- P: Bestela, burdiko haga puntan jarri ta atzetik zapaldu ta gora ta behera. Baiñe harek ez zeuken izenik, e!
- Bai, bat jartzen zan haga puntan ta bestiek... "Txutxurruku".
- A!
- Hori zuan "txutxurruku".
- P: A! Bai, "txutxurruku".
- Bat jarten zan haga puntan eta beste bi edo hiru burdixen atzeko... taketien.
- P: Burdixen atzeko... estakan, taketan. Ta hari obatu ta "rrraa!" gora, ta gero "ra!" jarri ta "brrrua!" behera. Hori da "txutxurrukuka".
- "Txutxurrukuka". Bai, zan jolas bat, e! Gure entretenimentu bat zan hori.
- Ta kanturik eitten zan hor?
- P: Ez, ez, kanturik hor ez, "txutxurrutxuka" ez.
- Ee... Bai, hori, oillarrena. "Kukurruku... ze...? Olatie. Olatie zetako?"...
- Bai, baiñe... han dantzan gabitzela ez. Bestela bai kantau, baiña... han gora ta behera gabitzela bai?
- [...] "Txutxurrutxu, ze biozu?"...
- "... Olatie. Olatie zeiñentzat?", ta bueno...
- Zelan zan?
- Aber:

Kukurruku,
Zer biozu?
Olatie.
Olatie zetako?
Abadiei emuteko
Abadie zetako?
Mezie emuteko.
Mezie zetako?
Zerure fateko.

Danok akabetan gauen zeruen.

3.28. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/006
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:10:20. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: diez-beinteka.

Transkripzioa
- Ta esan dozu lehen eliza-ostian edo, ez dakit, hor inguruan jolasten zenduela...
- A! Bai.
- Zetara jolasten zenduen holan umetan?
- Bueno! Veinte-veinteka. Lau itsutu hola, ta hogei kontau. Ta, gero, kentzen gutsenien, guk harei bateri ebatu ein bihar gutsen. Ta, gero, nun ebatu? Ez genkixen nora juan zan ta! Ta hak ebaketan utsenak, ba, hak irabazi eitten euen. Igual sartzen zien han eskiña batetik norabaittera ta... "Fulano de tal". "Pues, no habéis conseguido agarrarle a ese". Ta han urteten euen. Baiña gu galdute. Ez geuen irabazten. Ikusten ez zoskun itxitten ta... Ta, gaiñera, ignorantiek be bai. Hola tapauta ifini geuk, ta geuk apurtxo bat zabaldu be ez ikusteko. "Muy ignorantes".

3.29. Kromoak, nesken jolasak

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/009
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:12:45. **Bukatu**: 00:14:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Neskak kromoetara jolasten zuten.

Transkripzioa
- Ta beste jolasen bat eitten zenduen?
- Bai, [horik], zerak, "cromos". "A cromos". Kromuek ifini ta hari bueltia emon ta zenbat azertatzen zittun, ba, harendako. Ta, gero, ba, igual isten ziñuen bape barik. Apur bat ondo eitten euenak... Ba, zu bape barik. Bai, kromoka be asko. Kromoka neskak gehixao, e!
- Ta kromuak nun jiratzen zenduezen, ba?
- Kromuek erosi. Kalera juaten zanien ama: "Ekarri kromuek". Ta ekarten oskuen ta... Gero hola ein ta... Batzuk tranpa gehitxuao eukitten euen, holan hartu ta "da!" hola ta... "E! Horrek ez dau balixo!".
- Senarra: [...].
- Bai, pegaute ta... Jolin! Bai. Izeten zan jokue baiñe entretenidue, e! Oso entretenidue.

- Ta zelakuak izaten zian kromuak? Ze dibujo edo...?
- Bai, eukitten zittuen polittek dibujuek. Batzuk kaballuek, beste batzuk...
- Senarra: Katuak, txakurrak...
- Katuek, txakurrek...
- Senarra: Pertsonak be bai, ta mutikuek ta neskatillak eta...
- Bai, umiek eta "de todo". Kromuek oso polittek. Eta emuten euen haik galtzen zienien pena bat...! Bakotxak balixo euen igual bost zentimo edo, ta orduen asko zan. Ta guk: "Ala! Urten dau, urten dau!", ta urteten dauenien, ba, irabazi eitten da. Ta buelta emoten ez botsezun, ba, ezebez, bestiendako. Oso joku zera zan, dibertidue zan, e! Gero, umiek pazientzie tremendue!
- Esan dozu kromuak-eta jirau eitten ziala dendan edo...
- Klaro! Dendan saltzen zittuen.
- Zeuek ez zenduezen eitten, ezta?
- Geuk jueten bagitzen ta dirue eukitten bageuen, geuk erosi be bai. Baiñe dirue euen "al otro lado del océano". Amai-edo esan biher ekarteko. Eukitzen gittuen, gero kajatxo batzuk eta eukitzen gittuen ta gero han gordetan gittuen.

3.30. Garizuman, tortolosetara jolasten zuten

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/010
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:14:52. **Bukatu**: 00:17:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Tortolosak. Aharienak oso preziatuak izaten ziren. Garizuma sasoian egiten zen tortolosetan.

Transkripzioa
- Tortolosetan-eta eitten zenduen?
- Baitte! Tortolosetan be bai. Tortolosak izeten zien...
- Ta zelan izaten zan joko...?
- Tortolosak izeten zien... billotsenak ez zien apreziauek, zerenak zien apreziauek, adarixenak eta hola, haunditxuauek. Eta haik ifini, ta guk gero hartu zera, kanikie, ta bota gora ta hari buelta emon. Ta, gero, ha goixen zan bittartien hartu ta holaxe, jokue. Politte, oso politte jokue.
- Eta kanturen bat zeuan edo...?
- Kantuek, ez geuen eitten kantu asko.
- Ez?
- Ez.
- Holan, kanikia gora bota ta buelta emoteko ta...
- Ez, ez, kanturik ez euen. Orduen haxe. Orduen haxe, buelta emoten bajakon, "al bolso", ta galtzen bazeuen, "Aiii... Akabo! Galdu dot! Galdu dot!". Gero etxera etorten bagitzen galdute, ba, amai... Amak... Jeneralien hamengo amak-eta, juaten zien behi-esniekin kalera. Ta "de paso", ba, "Ekarri kromuek, e, ama. Kromuek ekarri." Ta ekarri ein biher, bestela gerra.

- Tortolosak-eta, esan dozu, adarixanak ziala...
- Bai, apreziauek.
- Margotu edo eitten zenduezen?
- Ez. Zien haundixauek, eta zerenak, billotsenak, txikitxuauek. Ta haundixek balixo euen asko. [Haikin] jokatu be hobeto eitten zan ta... [Bestiek hiru eitten euen batzutan] ta...
- Eta tortolosian alde bakoitzak izenen bat zekan?
- Ez, ez zeuken. Tortolosai tortolosa. Unikamente, kanikan eitten bagauen han... eskola onduen egozen, ba, zer batzuk, harri batzuk. Ta kanikan be bai. Kanikie bota ta hari zera, ta, bestela, gora be bai. Baiña fazillaue zan gora jokaketie. Bestiek salto eitten auenien hartu biher zauen ta. Batzutan iges eitten otsun. Diferentie zan. Oin ez daue eitten horrek jokuk, holako jokuik. Ta galdetu be ez zela eitten gauen be.
- Hori ze izaten zan, urte guztian jolasten zenduen ala urte sasoiren baten?
- Sasoiek egoten zien. Horreik jeneralien garizuman.

3.31. Garizuma garaian, txirikilarekin jolasean

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/011
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:17:20. **Bukatu**: 00:19:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Txirikiletan ere Garizuma garaian jolasten zuten. Eskola urteetan jolasten zen txirikilarekin.

Transkripzioa
- Ta garizuma-denporan, zela esaten zan? Horrek zerok, egurtxuekin eitten zana?
- Senarra: Txirikillaka.
- Txirikilla, txirikilla. Txirikillak zien, ba, zerak...
- Senarra: makilla luze bat eta bestia motxa.
- Makilla luzie ta bestie motxa. Luzie jotekue. Txikixa hartu eskuen ta jo. Ta ha urrin botaten bazauen, ba, irabazi eitten zeuen. Ta hurrien geraketan bazan, ta bestiek hurrao, ba, han hurrekuk galdu. Hori eitten zan garizuman. Bueno...! Horrek...
- Eta hori zenbat urtekin edo izaten zan jolas hori?
- Ba, hori sei urtetik hasta... eskolatik urten arte. Gero ahaztu eitten zan hori. Gero haunditxuek izeten zien. Txikixak izeten zien ibiltzen zienak, baiña haundixek ez.
- Eta, esaten dozu, orduan, zala makilla luze bat eta...
- Beste txiki bat. Hau, haundixe, txikixe joteko. Ta, gero, han egoten zan, futbolistak-eta eitten dauena: una... arraia bat. Ta arraia pasetan bazauen, irabazi eitten zeuen; baiña arraiara llegetan ez bazan, galdu. Ta zuk txirikillie —txirikillie, hori zeroi, palo zeroi, txikixoi— hori zera ein biher, entregau ein biher, galdu zauen ta. Oso...
- Bestiari emon...
- Bestiai emun biher. Ta, gero, askotan galtzen bazeuen, ba, geraketan

ziñen bape barik. Ta, gero, aittei edo amai esan biher—Amai ez, aittei, jeneralien; edo, bestela, anairen bateri—: "Txirikillak [eiñeidazuz], txirikillak [eiñeidazuz]". Ta hor juaten zien norabaittera, egurra eguen lekure, ta harek eitten oskuen. Anaiek-eta eitten oskuen txirikillok.

3.32. Umetako jolasak: diaboloa, txirikila

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/012
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:19:15. **Bukatu**: 00:21:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Umetako jolasak: diaboloa; txirikila. Garizuma bukatutakoan, ez zen gehiago txirikilarekin jolasten.

Transkripzioa
- ... bi makilla ta bi makillen artian...
- A! Hori! Zera...
- Senarra: diaboloka?
- Diablo, bai, diablo. Zer bat hartu, soka bat, ta hori zeroi, diabluoi erdixen ifini ta hareaz. Ta, gero, gora bota ta hartu ta hola. Ha be politte zan jokue. Ez dakit ikusitte eukiko dozuen.
- Bai, ikusitta bai. Eta hori, gaiñera, dendan-edo erosiko zenduen, ez?
- Bai, klaro.
- Txirikillia, ostera, zeuek eitten zenduen...
- Txirikillek etxien.
- Esaten neban, txirikillia... Ba, zuk esan dozuna: lurrian marraren bat edo eitten zan eta egoten zian bi makilla halako kakotx modoko batekin txirikillia bertan ipintzeko edo?
- Ez.
- Halakorik ez?
- Eskuetan hartzen gittuen zerak eta...
- Senarra: Behian harri bi ez zien, ba, egoten txirikillia gaiñien isteko?
- Biharbada hemen harrixak izango zian?
- Harri bi ifintten [zizun] lurrien, eta gero eskutan hartzen [zittuen] haik zer bateaz, kordel bateaz. Ta hareaz kordelaz, ba, "ra-ra-ra" eraitten otsezun, ta seguru [...] botatzen [...] gora.
- Baiña hori diabolua...
- Bai. Ta, gero, hartzen zeuenien-ta, bueno! Hori zan "un triunfo", ha goixen hartzen zanien. Ihes eitten ez baeuen, ba, hartu ta ala! Oso joku... Oin holako jokuik ez da eitten.
- Dibertidua, ez? Gauza gitxikin...
- Baiña oin... Lehen jokuak, ba, polittek. Neri gustetan jaten hori, txirikillan. Hori garizuman, e! Ta garizumie bukaketan zanien ez zan eitten. Ez dakit ze esan gura euen horrek. Garizuma-denporan bakarrik.
- Garizuman, holan, beste jolasik edo eitten zan orduan bakarrik?
- Ez, ez. Txirikillakin, neu akordetan nazela txirikillak. Baiña afan bat... Bueno!

- Eta hori neskak eta mutillak?
- Bai. Danak.

3.33. Umetako jolasak: Losa-losaka; sokasaltoan

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/013
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:21:20. **Bukatu**: 00:23:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: losa-losaka; sokasaltoan.

Transkripzioa
- Gero, "txingurriska" edo eitten zenduen? Edo "losa-losaka" edo...?
- Bai, "losa-losaka" bai. Han markak ein, zera, ta hanka-koja. Han pasetan zittuenak eta, ba, ikuketan otsenak arraiai edo galdu. Hori be bai. Hori asko.
- Ta soka-saltuan be eingo zenduen, ez?
- E?
- Soka-saltuan...
- Bai. Salto, "taka!" Salto. Gaur baiño hobeto.
- Kantuak-eta eitten zenduezen soka-saltuan?
- Soka-saltuen be bai. Soka-saltuen asko.
- Kanturen bat goguan dakazu?
- Bai, "Soy la reina de los mares y tu ya no puedes ser", "trrin-ta-ta-ta!" fuertiao gero ta. Gero polittuau. "Más despacio que aquí no se puede, que se pierde" ta hori rekreoko denporan izeten zan. Dana erderaz eitten geuen. Ta "que es demasiado pronto, que no se puede", ta... Han hankia sartzen bazauen, sokie galdu eitten zeuen. Ha itxi biher zeuen, ba, libre, salto eindde: "taka, taka!". Gauza... Ni akordau be ez nitzen eitten. Ointxe zeuk galdetu dozulako, bestela, horrek jokuok eta... aspaldi juenda dauz! Ta oingo umiek ez daue eitten holakoik. Holako jokuik ez daue eitten.
- Bueno, soka-saltuan pixkat gehixao, ez? Tortolosak-eta ya ez dira ikusten...
- Ez.
- Baiña soka-saltuan...
- Soka-saltuen iguel bai.
- Nik uste dot modak izaten diala, ez?
- Bai, soka-saltuen bai. Mutillek be etorten zien kuadrillara como... eurak gehixao zien moduen. Mutillek zela fuertiauek izeten dien jeneralien... Sartu sokan ta [hanka]! Ta "Ala! Irabazi dotsut!". Iñok ainddu barik etorten zien hareik, "taka!".
- Ta beste, holan, korruan ipinitta mutillak eta neskak eta...?
- Bai, "Al corro de las patatas", pañelotxua hartute. Gero pañelue itxi han ta han ha harrapetan dauenak, ba, irabazi eitten auen.
- Baiña hori... Ze dira, bi jolas diferente. Edo?
- Bai, diferentiek. Korruen jarri ta pañelue ifini erdixen. Ta korruen danok bueltan...

3.34. Umetako, gaztetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/028
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:40:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Jolasak: astoka. "Txorro, morro,...".

Transkripzioa
- Baitte. Astue ifini azpixen, ta salto ein ta... Buuf! Holakuek asko. Muturrez aurrera jausi be bai batzutan.
- Ta "Txorro, morro, piko, kaio, ke" edo...?
- Senarra: Baitta.
- Baitte.
- Zelan izaten zan hori?
- "Txorro, morro, piku, kaio, ke"...
- Ze zan, atzapar bakoitzak izenen bat zekan edo...?
- Kontetan, atzaparrak kontauaz: "Txorro, morro, piko, kaio, ke". Ta, gero, zuk aurretik esan [...] "piku", ba, han geratu ein biher zan. Ta irabazten zeuen. Baiña [...] zan irabaztie. Joku asko euen umiendako ta...
- Tranpak edo ez zian eitten? Atzaparra ez dakit zelan ipiñi despistatzeko edo...?
- Edo gorde edo, ez zeuela han atzaparrik eta...

3.35. Umetako, gaztetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/029
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:40:15. **Bukatu**: 00:41:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Zuhaitz batean soka bat ipini eta txin-txaunean egiten zuten.

Transkripzioa
- Umiak, holan, txintxaunian edo ipinitta, edo altzuan, beste jolasen bat?
- Bai, orduen txintxauek euezen ez oingo modukuek. Soka bat ifini holako arbola baten edo. Han sokan ifini umie, ta hari ondo obatu biher, sokatik ha samur jausten zan ta. Hartu ta "tra!" ta: "Gehixau! Gehixau!". Hori ein biher zauen leku baten bedarra-edo euen leku baten, zeatik jausten bazien, "pues, adiós muy buenas". Ta "Gehixau!" ta "Gehixau" ta... Hortan asko gustetan jakuen umiei, hori jokuoi. Hartu atzekaldetik eta "da!" bota ta... "Urriñao!", ta "tta!" ta ba!... Jausten bazan gero, egundoko arrantzak, "a llorar". Bai, joku asko euen, e! Baiña oin ez da eitten holako jokuik.

3.36. Atxipitxi, atxipitxa, umetako jolasa

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-017/022
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:28:35. **Bukatu**: 00:29:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Atxipitxi, atxipitxa", umetako jolasa.

Transkripzioa
- Eta ze zan hori jolasa esan dozuna?
- Ba, holan, "Atxipitxi...". Danok lerruan ipinitta eta batak bestiai bultzaka: "atxipitxi, atxipitxa"...
- E: "Atxipitxi", eta gero beste aldera.
- "Atxipitxi, atxipitxa", bestekaldera. Pentsau zelan pasetan gauen denporie, "Atxipitxi, atxipitxa".
- Beti umiek eskolan, brillua ataraten bankuei, "Atxipitxi, atxipitxi"...
- Bai, mobimentuen. Holan ipini, "Atxipitxi, atxipitxa", ta ya ixe [puntan jausi biher zanien], bestekaldera.

3.37. Euren garaiko eta gurasoen garaiko jolasak

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-017/026
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:33:35. **Bukatu**: 00:36:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Jolas-orduan egiten zituzten jolasak: sokasaltoan; tortoloska... Urte sasoiaren arabera, jolas desberdinak. Pote-poteka; diaboloa; etab. Amaren garaian, diaboloa eta txirikilarekin jolasten zuten.

Transkripzioa
- Eta jolasorduan, orduan imajinatzen dot neskak bakarrik ibiliko ziñaziela...
- Bai, neskak neskakin.
- Eta ze jolas izaten zian nesken arteko...?
- E: Hanka-koskoka...
- Hanka-koskoka esaten gauen.
- E: segun ze garaia zan.
- Karo, depende. Kanpuen ein leikezun...
- E: Oin ez naz akordetan ondo. Garizuman soka-saltoka.
- Bai, igual hori, ni ez naz akordetan.
- E: Eta tortoloseka be bai udan. Eta bestela...
- Sokie...
- E: Soka-saltoka. Baiñe hori zan garizuman, soka-saltoka. Ez naz

gogoratzen ondo, baiña euezen epokak. Segun ze epoketan ha jokua zan. Eta izenak horrek. Gero, ba, muñekak ziela edo hau ziela... horrek gauzok. Baiña soka-saltoka eta...
- Pelotie be asko.
- E: bai, baiñe...
- Oin ikusten diez umiek orman kontra [pelotiekin] ikusten dotenien, gu be bai holan. Bota ta pasan ta...
- E: Eta gero, bueno, kaleko jolasak izeten zien "a tentes", "tape-tapes", "pote-potes"... horrek gauzok. Baiñe soka-saltoka eta tortolosak urte guztien, baiña soka-saltoka izeten zan, ez dakit zegaitik, garizuman.
- Diabolua be bai.
- E: Bai, diabolua be bai.
- Baiña diabolua nere aman denporetan be bai. Nik nere amari entzunda. Gure ama —ez dakit zure ama, nik nere ama— diabolua eta txirikillak. Txirikilla entzunda eukiko dozue... Txirikilla ta diabolua, nere aman denporakua. Eta bueno. Eta gero ya gu tortolosak, sokia, hanka-koskos...
- E: Bai, nere ama arbixak zerketan. Basarrixan jolas...
- Eingo zeben zeozetxo...
- E: Bai, bai, zeozer bai, baiña...
- Orduan, txirikillia esan dozu amari entzunda, ez?
- Bai, txirikillak.
- Eta "txikola" edo?
- A! ez dakit, igual gauza bera izango da...
- Txirikilliak bi makilla dakaz eta batari esaten zetsen "txirikillia" eta bestiari "txikola".
- A! Hori da. Eske zuk txirikillia eitten dozu, holan ipintzen dozun holan... Nik Beleneri entzunda, e! Ta gero holan beste bat, ta ipintzen dozun holan ta emoten dozun beste [...] "taka!", eta eitten zauen salto. Hori zan. Igual herri bakutxetan esango dotsie "txikola", beste batzuk... Hamen "txirikillas"... Igual deformauta egongo da, e!
- Bai, eske justu Ana Marik esan zestan, ta orduan ez dakit...
- A! Igual Aramaixon be bai. Bai, bai, hori askotan. Onbre, normalien zuk, lehengo... eitten dozun jolas, ba, basarrixen —bueno, kaletarrak igual diferente, baiña basarrixen—, ba, egurrakin, erramakin... zuk daukozun gauzakin. Harrixakin, holan zan jokue.

3.38. Neskek eta mutilek jolas desberdinak

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-017/027
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:36:00. **Bukatu**: 00:38:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Neskek eta mutilek jolas desberdinak egiten zitutzen. Mutilen jolasak: txapak, kanikak, etab. Jolasak non erosten zituzten.

Transkripzioa
- E: Eta gero zan beste gauza bat, mutillak eukien joku batzuk eta neskak beste batzuk. Zeatikan mutillak txapaka, kanikaka... Horrek gauzok neskak

ez geuen jolasten hortara.
- Ez. Honbre, izeten baziñen "mari-chico" esaten dana...
- E: Gero, klaro, pelota eta horrek gauzok ya aparte, horrek deportia. Baiña txapak eta kanikak zien... Eta gero, tronpia, klaro.
- Eta "Txorromorro" be bai. "Txorromorro", hori.
- E: Eta tronpia be zan garizumakue.
- Eta tronpia, txapak, kanikak... Horrek nun erosten zian hemen inguruan?
- E: Bueno, ba...
- Edo ein eitten ziran?
- Txapak gaseosako... gaseosie ta horren txapak. Zu, tabernatik tabernara topetan txapak.
- E: Tabak, ba, segun. Hiltzen zanien zera...
- Batzuk gehixao zaukien, beste batzuk gutxiao...
- E: Klaro, tabak, hiltzen zanien arkumia, klaro, bueno, arkumienak izeten zan —eta diez— bigunak eta txarrak. Ta bestie, hori, gogorra zer da? De...
- Adarixana, ez?
- E: Adarixa. Baiña hori ya, jolin, topetie hori izeten zan gatxa. Gatxa. Horrek zien onak. Eta gero kanikak, ba, Txaparronien eta...
- Bai, Txaparro zan denda hori. Oin, esan dozunien, Txaparro, bai.
- E: Txaparronien...
- Zan apurtxo bat dendak danetarik: aldatu eitten zauen nobelak, kromuek... A! Kromuek be bai.
- E: Kromuek.
- Kanikak... Baiña txapak zan kalien topetie. Txapak zien kaleko gehixao.
- E: Gaseosenak eta... Hori txapak. Eta gero eitten zan holan bide bat...
- Klarioiakin eitten zan holan, eta txapia eruen bihar dozun "taka-taka-taka"...
- A! Bidien eruen biher dozun?
- [...] klarioiakin... Ta ein biher dozun "taka!" emon ta fan biher zan... Kalkulau ein bihar dozu ondo "tik-tik-tik", holan...
- E: Atzamarrakin, e!
- Ta kanikie, ba, hartzen zan "taka" holan, ta... Udaletxien ondion potxuak hor dao. Holan... Klaro, potxotxuek hor daoz. Ta batzuk [zaozien] onauak, bestiek txarrauak... ta "taka" eitteko. Itxoitten danok hartzeko...
- E: Izeten zien aiuntamentuko arkupietan ta elizpeko...
- Baitta, baitta.
- E: Elizpeko zerien be bai.
- Orduan zuek be bai jolasten zenduen horretan.
- E: ez hainbeste.

3.39. Umetako jolasak: hanka-koskoka, sokasaltoan

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-017/028
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:38:00. **Bukatu**: 00:42:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: hanka-koskoka; sokasaltoka. Jolasean egiteko kanta guztiak erdarazkoak ziren. Pote-poteka. Tenteka; tape-

tapes. Umetako kontuak; bizimodua kalean egiten zuten. Txorro-morroka gehienbat mutilek egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta esan dozue "hanka-koskoka". Hori ze...?
- E: "Hanka-koskoka". Ba, hori da lurrien markau joku bat...
- Lurrien holan marguakin ipintzen zan... Iratik be eingo zauen hori jokua.
- E: ... eta gero numerau eitten da, ta hankiekin erun bihar dozu harrixa.
- Bai, lehelengo bota holan "rak!" ta...
- E: Daz diferente... Zuek be eingo zauen holako...
- Bai, bai, "txingor-gaiñian" edo...
- Klaro, eske hori esan [...] izen desberdinñakin...
- E: Eta klaro, igual izena desberdiña izengo zan: "hanka-koskoka".
- "Hanka-koskoka"...
- Bai, hori da.
- Bai, zortzi numerokin edo...
- Edo zazpi edo...
- Edo sei.
- Edo sei edo segun, diferentiek zien. Gero, sokasaltoka izeten zan, ba, "a alturitas, a..."...
- Bai, emoten dozun [jokua], ba, saltoka edo holan ipini tiraka ta salto ta holan...
- Eta soka-saltuan kanturik eitten zenduen? Edo ze izaten zan, erderazkuak?
- E: Baiña erderazkuek, erderazkuek. Euskerazkuek, enee... pentsau be ez!
- "Quisiera ser tan alta como la lu-na".
- Eta "a alturitas" izeten zanien...
- "A alturitas" zan "primera", "segunda" ta horrek zien.
- E: Bai, ta "una vez la caurta y la quinta" mutillak han begira aber gonak noraiño jasoten gauen ikusten.
- Eta beste bat be bai zauen: "Me casé con un [...] solamente por rey, rey, rey... Me subí a una cama alta y no podía..."
- Eta horrek kantuok ze ikasten zenduezen, kalian?
- Bai, ba, batak bestiai; klaro, nausixei entzunda.
- E: Gaiñera, alrebes zenbat gauza estaen zien?
- Klaro, bai.
- Klaro, baiña ulertu be...
- Ulertu be zer esaten gauen be ez. Zenbat kantu ez gekixala zer esaten gauen be ez!
- "Pote-poteka" be esan dozue, ez?
- E: Baita ere "pote-poteka".
- Bai, "pote-poteka" sartzen zien pote baten harri batzuk eta ipintzen zan bat —taldie, eta bat—, toketan jakona, geldittu biher zan potiakin eta gero bestiek ezkutau ein biher zien. Eta gero zuk topau ein bihar dozu. Eta "pote-pote-pote..."
- E: Bai, baiña potie bota biher zan urrin.
- Hori da. Ta gero haren billa fan eta gero topau, ez?
- E: Eta gero haren billa faten diezen bittartien, urtetzen bazan beste bat, ba... Hori da apurtxo bat "tenteka" moduen, e! "Tenteka" be antzerakue zan.
- "Tenteka" zelan zan?
- "A tentes", erderaz esaten dotsie "a tentes".
- E: Ba, hori zan antzerakue, pote barik, baiñe antzerakue zan.
- Ba, bat geldiketan zan, kontau hainbeste zenbaki, bat gelditu eta gero topau. Eta gero, bata bestiei, ez badotsun harrapatzen, eitten dozun komo

kataia leetxe. Ta azkena ez bazauen... —klaro, bestie dabil, bille zabillen— eta suertie zan, ez badotsen topetan, librau eitten zauen ta danok libre berriro. Ta hola ezkutuen ta holan.
- E: Bera faten zan beherutz, ba, goixen euzenak urten eta... "Tenteka".
- Ta gero "tape-tapes" guk be bai.
- Eta hori ze...?
- Hori da... Hori eitten zan asko kalien be bai, eta guk etxe barruen be bai.
- E: Etxe barruen [gehixenez].
- Bai, eta erropakin, ba, igual taldeka ein, ezta? Eta bi gorde biher diez bi. Eta gordetzen giñen igual Espe ta neu eta tapau —bueno, txamarrie be ze eukiko gauen... ba, abrigo bat edo zeoze— . Ba, tapaute. Eta gero etorri biher zan bestie eta azertau zeintzuk zauzien barruen. Ba, hau edo bestie... "Tape-tapes", tapau, "tape-tapes" esaten gutsen.
- E: Bi edo hiru [...] barruen. Ta mutiko [...] batzuk eskue sartzen.
- Bai, aprobetxau eitten zien ondo.
- E: eta gero, oin pentsetan nenguen, "tenteka" igual, hasarretuten giñenien, ba "Te vamos a mandar hasta el cementerio". Ikusi, orduen, kanposantua Arrasaten... Bielketie... Bueno, normalien ez zien faten, zeatik ha zan ya San Prudentziora fatie moduen. Eta oin ikusi nun dauen ya, e! Osea, herri barruen. Ta "Pues te vamos a mandar hasta el cementerio", "Joo.. —negar baten— hasta el cementerio no". Ikusi nun euen "el cementerio", e! Ta oin ya herri barruen geldittu da.
- Bai, jokuek horrek die.
- E: Orduen kalien jolasten gauen, kalien.
- "Txorromorroka" be esan dozue...
- Bai, "txorromorro". "Txorro, morro, piku, kaio, ke". Bata bestiei ipiñi ta zan "Txorro, morro..." Zelan zien atzamarrak? "Txorro, morro, piku, kaio, ke". Ta bestie, behekue, zauena, "Txorro!" ta "Ez!". Baiña hori igual gehixao mutillek, mutillek neskak baiño. Bai, zeatik zauen hortxe... Zelan da? Puritanismo. Zeatik hori mutillen gaiñien jartzie ta hori zan ya... Bueno!
- E: "Como a tape-tapes".
- "Como a tape-tapes". Hori zan ya apurtxo bat ausarta izan biher zan.

3.40. Arrasatek Arantzazura joateko abesti propioa du

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/017
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:12:55. **Bukatu**: 00:14:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Arrasate, oso herri abeslaria. Arantzazura joateko ere herriak bere kanta propioa du. "Goazen poz ta alai Arantzazura...."

Transkripzioa
- De todas formas, Mondrauen kantuen asko ein da, e! Da herri bat beti... Bueno, Euskal Herrixan danien, baiña Mondraue izan da... [Esan biher dotsut...], bueno, elizan, baiña Arantzazura fateko be bai Mondraukuak zaukien bere kanziñua.

- E: Dauko.
- Dauko. Berez, abestu eitten da urtero be bai. Aber:

Goazen poz ta alaiz Arantzazura,
goazen bai mondragotarrak
Birjiña amari txintxo eskeintzera
gure herriaren eskeintzak.

Arantzazun Maria agertu zanian,
Oñati ta Mondrauen zeukan bere aldian
Iñor baiño lehenago geure gurasoak
Arantzazura zituen zuzendu pausoak.

Agur, agur, agur Maria.
Gorde, gorde Euskal Herria.

3.41. Arrasate eta Bergarakoen harremana; honen inguruko kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/019
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:18:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Inguruko herriekin harremana. Arrasatearrak Bergarakoekin betidanik izan dituzte harramarrak. Gai honen inguruan kanta bat gogoratzen dute.

Transkripzioa
- Eta inguru honetan, orduan, Arrasate zeiñekin, ze herrikin gaizkitxuao eruan da edo...?
- Bergaratarrak zien oso txuluak.
- E: Bergarakuak oso gaizki beti.
- Bai?
- Bergaratarrakin bai.
- E: Gure denporan Bergarakuak oso gaizki.

"Bat eta bi,
Mondrauak irabazi,
hiru eta lau
Bergarak galdu dau.
Bergarak egin du
ahalegin guztia
Mondrauak irabazi
urrezko kopia."

- Amorruaz gaiñera, e!
- Bai, eske esan besterik ez dot ein eta ya...
- E: Amorru bat...

- Ta erderaz be bai zan: "Los chicos de Bergara...", gero erderaz be zauen...
- Eta betidanik?
- Bai. Oin igual ya ez...
- Oin igual gehixao gaztiak Aretxabaleta ta hola...
- Zueik dakozue harekin apur bat...
- Bai.
- E: Baiña oin igual ez dakit, zegatik jentiak Bergarakuek eitten dau lana Bergaran, Bergarakuek Mondrauen, Mondrauekuek... batu da.
- Bai, ya gauza diferentiek. Lehen bakoitza bere herrixen; gutxi mobitzen zien.
- E: Baiña lehen Mondrauko bat Bergarara fatie bizitzera oin faten diezen moduen... ezta...!
- Edo nobixia topau ezkero Bergarakua?
- E: A! Hori zan grabe! Euen tartania. Orduen zan... Klaro, ez kotxerik oingo moduen ta ezer. Eta, klaro, batzuk eukien nobixie Bergaran. Eta faten zien, eta gero azkenien etorten zien tartanan, azkenengo momentuen. Eta batzuk akordetan naz behin tartaniei botatzen harrixak topau euelako nobixie Bergaran eta holako gauzak. Gero ya, beuno, hori ya apurtxo bat zertuta, baiñe bai, bai.
- "Tartania" zeri esaten detsazu?
- E: Tartana zan, ba, autobus txiki bat zahar-zaharra. Eta klaro, ba, azkenengo momentuen nobixo danok etorten zien. Mondrautik Bergarara be fango zien! Baiña, normalien, Mondrauko mutillek Bergarara faten zien gehixao, zegatik Bergarako neskak oso elegantiek zien.
- Bai, hori bai.
- E: Eta, orduen, topetan zauen gehixao Mondrauko mutillak nobixia Bergaran alderantziz baiño.
- Señoritak zian?
- Bai, bai, beti, beti.
- "Chulísimas".
- E: Poltsak eta. Ta guk poltsia ez geuken.
- Ke, ba! Poltsak...?
- E: Eta Bergarakuek bai. A! Bueno, akordatzen zara?
- [Ointxe datoz jaixak], ipintzen zian elegante...
- E: Bueno...! Bai.
- Diru gehixao momentu horretan. Igual esaten zaben...
- E: Bueno, esaten zan Bergaran emakumiek eukiela diru gehixao, zegatik zan "la algodonera", ta eitten zauen lana fabriketan. Ta Mondraukuek fan biher zien orduen kanpora lanien. Gero ya fabrikak-eta, baiña Algodoneran eitten zauen emakumiak lana.

3.42. Auzoa nolakoa; baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/003
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:02:45. **Bukatu**: 00:04:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- **Laburpena**: Auzoa, ingurua zelakoa zen. Bizimodu lasaia. Santa Agedako ermita. Aita Arrasatera joaten zen lanera; beraiek baserriko lanez arduratzen ziren.

Transkripzioa
- Eta esan dozu basarri inguruan jaio ta hazittakua zarala...
- Bai, bai.
- Eta zelakua zan auzua edo...?
- Auzua? Ba zan... ai, orduen baserri inguruek zien oso lasaixek, gaiñera, e. Ez abillen automobillik, baserri ba... ganaue mobitzen zan, baiña burdixen hartu ta lasai. Dana... ez zegon oin moduko estresik. Hori lehenengo gauza, ez zegon estresik bat be. Eta gero, ba, gu bizi giñen, auzua euen banatuta Aramaixotik, osea, Azkuaga auzua auen banatuta hiru zatitan auen, eta gu bizi giñen eleixa inguruen. Eta gero beste zati bixek eozen, ba, pixkat urrutiago, nahiz ta danak izen auzo berdiña. Eta toki hori zan ba neretzako tokirik onena. Eta nere etxe inguruen, gaiñera, aukera oindikon hobie gauken. Dau –ondikon be badau– ermita bat zelai batekin, Santa Ageda dana, eta zan toki bat puff... zoragarrixe. Udan batez be, illuntzien, ya gabien, jarri han eta izarrei begira, zoratzekue, sekule ahaztu gabe gelditzen dan gauza bat, sekule... betirako hor barruen gelditzen dan gauza bat. Oin ez dozu hemetik ikusten ez izarrik eta ez... ez beste ezer.
- Bai, toki ederra, ez?
- Toki ederra.
- Basarrixa...
- Baserrixa, bai, bai, bai, nahiz eta bera baserrixa berez ez zan holan lur askokua eta baserrittik bizimodua errez ateratzekue ez zan. Horregatik nere guraso... bueno, nere aita, hemen Arrasaten, gaiñera, fabrikan lanien ibili zan. Baiña, bueno, nahiz eta aitta lanien fabrikan ibili, gainontzekuok baserriko lana, baserriko giruen bizi giñan. Bai.
- Eta ganaua zekazuen?
- Ganaua bai, gutxi, baiña bai, etxeko... behar zan aiña, etxerako, bi-hiru orduan ganauak bai eukitten giñuzen.

3.43. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/008
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:13:35. **Bukatu**: 00:15:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Euskara » Lexikoa
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Umetako jolasak. Garizuma garaian, "asakasak". Txikolan; txirikilan. Sokasaltoka.

Transkripzioa
- Nire umetako...
- Bai, lehen hasi zara kontatzen pixkat zertara jolasten zenduen eta...
- Jo, ba jolasten genuen, e... aber... adibidez, oin sasoi honetan, aber... Garizuma adibidez e... aillegatzen zanien, ibiltten giñen asakaska.

Badakizu hori zer dan?
- Ez.
- Ez? Ba… erakutsiko dutsut /erakutsikouzut/, ekarriko dutsut /ekarrikutzut/ asakasak, kamaran dauket gordeta.
- Zer?
- Asakasak, “las tabas” erderaz, tabas.
- A, a, a… Osea que zuek asakasak.
- Asakasak. Asko jolasten geen guk Garizuma denporan horretan, neska ta mutil.
- Mutillak beb ai?
- Mutillak be bai. Batzuk eozen mutilak oso ondo jolasten auenak.
- Bai, e?
- Klaro, horretxekin ohittuta. Gero baita jolasten geen... txikolan. Makilla... Hori be jakingo dozu. Honezkero norbaitek esango utsun.
- Txirikillia, ez?
- Txirikillia, klaro. Baiña txiriki... txirikillia zan borobillan barruen itten geena, eta txikolan zan... Dana da txikolan, txirikillan, bai, ta guk itten geen bi jolas izaten zien: bat zan borobil baten barruen eta bestie zan, holan, porteri bat bezela markau, eta jolasten zana. Orduen, bixek izeten zien txikola, baiña borobilluen jolastu biher geenien esaten geen "txirikillan".
- Aaaa…
- Osea que, izaten zan ezberdina.
- Bale, bale, bale.
- Hori da.
- Orduan, gero esplikauko dostazu gero hobeto.
- Bai.
- Eta Garizuman besterik?
- E… Eta sokasaltoka, sokakin.
- Hori be Garizuman?
- Hori be Garizuman gehixen. Gero hori e… Gero hori, sokasaltoka, Garizumatik aparte be, eskolako ordu librien, errekreo denboran, jolasten geen. Baiña gehixau zien oin udabarrixen Garizumarekin lotutakuek.

3.44. Eskuetan gauzak ezkutatuz jolasean eta kantuan

- **Hizlaria(k)**: Arregi Onagoitia, Begoña; Iregi, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-035/008
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:09:52. **Bukatu**: 00:10:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Martiartu, Ane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Eskuetan zerbait (harri txikiak, ...) gordetzen egiten zuten jolasa. Zein eskutan gordeta zegoen asmatzeko abesti bat erabiltzen zuten: "Neskato txikixa, esaixu egixa...". Horrela, behin eta berriz, gordetakoa aurkitu arte. Aurkitutakoan, asmatzen zuenari egokitzen zitzaion orduan gauza gordetzea.

Transkripzioa
- Ta zein esan dozue, bestia, eskuena?

- Bai, esku barruan zerbait gorde, adibidez, ba hori, harritxo bat, edo... ez? Eta gero, ba, horrela, aber, Arantxa:

“Neskato txikixa
esaixu egixa
Jangoikuak esan du
hementxe dagoela.”

Aber? Bapez! Ostera ordun! Eta bueno, hori zan jolasa. Zerbait gorde, eta ba aurkitu arte. Eta aurkitzen zauenian, berak egiten zuen hori.

- Bai, hori ezagutzen neban joku hori, baiña kanturik barik. Kantua ez neban.... Ba hori ittiana baita: “nun da?”
- A bai e?
-Baiña kantua hori iñoiz entzun barik nekan.
-Eta hori, ba, Jangoikua esan barik, ba, izena esaten dogu orain. Ba... “Begok esan du hementxe dagoela”, ez? Edo “amamak esan du hementxe dagoela”. Edo bueno.

3.45. Etxezarreta inguruko baserri aberatsena

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/004
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:04:35. **Bukatu**: 00:08:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Etxezarreta baserria zen inguruko inportanteena, jauntxo batena zen eta. Nondik norainoko lur-sailak zituen azaltzen du. Arrasateko mugak non zeuden. Etxezarreta baserriko gizona ingeniaria zen Madrilen. Neskameak izaten zituen etxean eta Joxeparen osabak administratzaile lanak egiten zituen. Era guztietako animaliak zituen etxean.

Transkripzioa
-Kondiena kontaizu.
-A, Etxezarreta. Bueno ba Etxezarreta oindion Etzezarreta han dao. Baiña dauko terrenuek Berga partetik hola mendi bat, eta hola ekin San Prudentzion, San Prudentzion errekiek dibididuten dauela Oñeti eta Mundraue; Oñetiko errekiek separetan dau eta Mundrauekuak..., San Prudentzioko elizaraiño dauko terrenuek. Eta Mundrauera hortxe zereraiño. Hamentxe Arrasatetik kilometro batera, (terdireraiño). Barranko batetik separatzen dau hola kamiñuaz Eroskiraiño, eta Eroskik errekiak separetan auen Mundraue eta zera. Eta hortik harutze dauko oin be San Prudentzioraiño bere terrenuek. Eta hori zerori, auto zerori bertaeiñ daue bere terrenuetan; Artzubi be bere terrenue zan. Zan mutilzahar bat bizi zan kriedakin, eta nire tio euen administrador de..., hor etxeko administradore, eta euken, porejenplo ba pentsau zenbat kilometroko saillek zien terrenuek, ba euken sagastixek, sagarrak. Eta euken hamen klase bat, eta

hamen beste bat, hamen beste bat eta hamen beste bat.
-Ze urte izango zonan hori?
-Bai nik neukenan hamabi-hamahiru urte. Hola honigaz klasiogaz eta honigaz klasiogaz nahastau eta eitten euen bat eta beste bat eta beste bat. Bera zan “Injiniero de Obras y Canales” Madriden.
-Kondia?
-Gizona, mutilzaharra.
-Kondia?
-Ez, ezebez. Ezebe ez zan. Ariza Etxezarreta. Zan mutilzahar bat, hantxe lana itten jonan. Titulua harena zonan “Inginiero de Obras y Canales”. Bai, “Puertos y Canales”. Eta euken bi neska, hiru neska. Ta gero euken bat neskazaharra etxien administradora, eta gurien (gure) tio etxeko kargue eta baserriko kargue. Euken behixek, euken animalixak: pabo realak, euken paittak, euken zerak, euken klase guztietatik, baiña dana holaxe ifinitta, e.

3.46. Etxezarreta baserriko jaunaren "kapritxoak"

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/005
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:08:35. **Bukatu**: 00:10:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Etxezarreta baserriaren inguruetan metal-ura zegoen eta bertako gizonak metal-ura ekarri nahi izan zuen etxera. Horretarako mailak egin behar izan zituen, metal-ura hodietan ekartzea ezinezkoa zelako. Animalientzako nolako etxe dotorea egin zuen azaltzen du.

Transkripzioa
-Gure euen berak etxien eukittie ur... metal-ure. Kamiñuez bestaldera bere terrenuetan beuen, baiña bere etxien falta euen eta gura euen ekartia. Eta metal-ure etxera ezin leike ekarri, zegaittik eze zera jaten dau, burdiñie, burdiñie jan eitten dau eta orduen ezin leike haregaz zertu. Eta zela ekarri? Eta tubuen sartu ezkero metala formetan da, bere zatixa edo zera. Lokatzie, eta zerrau eitten die. Ba pentsaizu zelako lana izengo zan, han goiko puntatik, kilometruek, e!, bere etxe ondoraiño maila-maila-maila-maila-maila-mailak ure, eta egunero-egunero depositue bat juaten zonan garbiketan, tio edo beste bat.
-Beroi ez.
-Ez! Berorrek andrakin nahikue lan jaukenan. Eta resultetan don..., bueno, metal-ure; gero paborealendako hamen bere zera, hamen usuek eta oilluek. Gero eiñ euen ganaudendako korta bat guk etxie baiño asko be elegantiaue. "Con azulejos", ure erateko zerakin, dan-danakin.
-Porzelanazkuek-eta.
-Bai. Eta bueno, ipiñi euen etxe inguru bat! Bere etxie euken...!

3.47. Etxezarreta baserriko kapera

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/006
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:10:25. **Bukatu**: 00:11:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Etxezarreta baserriko jauna ez zen sinestuna, baina hala ere kapera bat zuen etxean eta apaiza ekartzen zuen meza ematera, bertako langileentzat. Madrilen bizi zen eta urtean pare bat aldiz etortzen zen Etxezarreta baserrira.

Transkripzioa
-Baiña zan ateo. Euki euen lelengoko nobixie, eta itxi euen enbarazada eta resultetan da famelixiek ez otsen itxi ezkonketan neskieri ateo zalako. Eta ateo zan, baiñe krierai eta tiuei eta zera, bera hemen euenien, urtien bi bidar etorten zan ha, Gabonak inguruen eta agostuen, julio-agosto.
-Nun bizi zonan ba?
-Madriden! Eta etxera etorten zanien etorten zien kriedok eta zerok, eta San Prudentziotik etorten zonan abadie mezia emoten. Jaukenan kapilla bat ederkixo ipinitte!
-Etxian bertan zekan kapillia?
-Bai.
-Nahiz ta kristaue ez izen... e?
-Bai.

3.48. Inguruetako umeak Etxezarretara joaten ziren

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/018
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:31:40. **Bukatu**: 00:32:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Bere lehengusuak Etxezarreta baserrian bizi ziren, aitak zaintzen zuelako etxea, eta eurak ere asko joaten ziren hara. Noizean behin, txokolatea edo jateko zerbait ekartzen zieten, eta eurentzat festa handia izaten zen.

Transkripzioa
-Hi eskola juaten hintzenan?
-Eskolara baiña Zigarrolara.
-Bera etortzen zonan bakaziñotan?
-Bai, eta hor nire primuak hor bizi zittunan eta ni sarri juaten nintzonan hara, baiñe erresultetan don hola fiestara eurak ekarten zittuenak jaten, ba

sagastiko txabolan (...) eitten gauen sue, ta txokolatie, ta bakizu zelako ederto pasetan gauen! Ta eurak pe bai geure...
-Ze juaten ziñaten, auzokide danak, anai arrebak-eta? Zeu zeiñegaz juaten ziñen?
-Ni, Alberto eta Esperantza. Eta gero Justina Arruena, Julia Arruena, ta gintzonan kuadrillakuek. Baiña guk ondo pasetan gixonan, buenoo!
-Zure primuak-eta han bizi zien, ez, etxia zaintzen zebelako?
-Bai. Bera hill arte, e.

3.49. Zigarrola auzunea; eskolaren ordez baserriko lanetan

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/021
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:37:55. **Bukatu**: 00:41:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: 11 anai-arreba ziren. Zigarrolako auzunean ibili zen eskolan, baina asko ez zen joan eskolara etxean lanak egoten zirelako. Aita "karretero" lanetan ibiltzen zen eta amak 11 seme-alaba izaten zituen bere kargu. Hori dela-eta soroan amari lagundu behar izaten zioten eta baita astoarekin kalera joan eta generoa saltzen ere. Zigarrola auzunea nolakoa zen lehen.

Transkripzioa
-Esan dozu eskolara Zigarrolara joaten zinetela?
-Bai
-Garratzen zenbat anai-arreba ziñeten?
-Hamaike. Ni eskolara ez nintzen asko juan, e. Ez. Juan banintzan be eskolara nik ez nauen ikasi eta ez dakit. Baiña bizixa atara dot eta ia esta, e!
-Bertakua zan maixua ala Zigarrolan?
-Zigarrolan, Ziorrolakua da eta Mundrauekue.
-Baiña maixua edo maistria bertakua zan?
-Bai, Mundrauekue. Zigarrolakue ez, Zigarrola da auzounatxo bat. Baserrixe dauko, oin baserri gutxi dauko, lehen baserri asko (...) baiña. Eta gero euen lehen zerra bat. Oin ia asko daz baiña, enfin. Baiña lehen Zigarrola zan zerrie eta gero hola etxe bat.
-Xerrie eleiza onduan edo ez jauanan?
-Bai. Zerak, horrek etxiak dazen eindde. Zera dauen lekuen, funeraria ta zerok.
-Ta eskolie nun jauenan ba?
-Ba eskolie jauenan etxien. Hola dauena etxie? San Isidroko soziedadie dauan lekuen. Bai. Ha frentekue hola. Hantxe planta bajan jauenan eskolia.
-Eta zu zela ez ziñen ba eskolara juan? Lan asko eukenan?
-Bai. Gure etxien orduan momentu horretan asko gintzonan. Eta nik aitta neukenan oso rektue. Zabaletakuek baiño gehixao izen biher gintzonan. Eta Zabaletakuak aberatsak zittunan eta gu pobriek. Eta aittak ekin jutsenan karratero burdixaz Mundrauetik Elorrixora. Gero hamendik

Elgoibarrera. Eta ba amak sostenidu bihar giñunan hamaika anai-arreba. Eta eitten gixonan guk lan asko zererako, ortuen. Oñetira juaten gintzonan astuaz, Bergara eta Mundrauera. Eruaten gaixonan landarie ta berdurie ta. Eta amak biher jonan gu tentiek izetia. Bera zan moduen.

3.50. Aita alargun geratu eta koinatarekin ezkondu zen

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/022
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:41:05. **Bukatu**: 00:42:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Ama neskame egon zen Bilbon eta senargaia ere bazuen. Baina bere ahizparen senarra alargun geratu zenean, harekin ezkontzera behartu zuten. Joxeparen aitak, aurretik zituen lau umeez gain beste zazpi izan zituen lehenbiziko emaztearen ahizparekin, hau da, Joxeparen amarekin.

Transkripzioa
-Eske bera egon zan krieda Bilbon. “Aña seca”. Eta euken nobixue ta aitta geratu zan alargun eta aittegaz ezkondu erain utsien eta ekarri euen baserrira.
-Zure aitta zure amaren aiztiakin ezkonduta jaonan eta alargundu zanian (...). Tia hil zanian amakin ezkondu erain zotsen.
-Bai. Esaten utsen: “Ha obligau dozu baiña niri ez nauzu burue bajatuko, e!” Aittai esaten jutsenan amak.
-Hiru seme-alaba euki jonan lehenakin, edo zenbat?
-Lau.
-Eta bigarrenakin, Doloresekin?
-Zazpi.
-Oseake hamaika ziñazien baiña lau zien tianak ta beste zazpi...
-Bai, baiña danok gintzen...
-Igualak.

3.51. Senarra plazan ezagutu zuen

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/028
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:52:20. **Bukatu**: 00:54:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Lehenbiziko senargaia karlista zen, baina hura aberatsa zen eta bera pobrea eta mutilari ez zion utzi familiak berarekin ibiltzen. Gerora plazan dantzara joanda ezagutu zuen Tomas, bere senarra izan zena.

Transkripzioa
-Gizona nun ezagutu honan ba, hire gizona?
-Ba lelengoko nobixua izen nixonan karlistie. Bai, toma carajo! Ta ba itxurie danak konforme zittunan baiñe bueno. Erresultetan don Martizen Aratostez zezena, eta zezenien etortzen gintzonan hortik horra, da hor sartzen gixonan kortan eta bixenbittartien labaderora juan eta musue garbittu ta guapa ipiñi-ta. Ta zonan fubolistie eta jaukenan orrazixe eta ipiñi guapo-eta... zerian. Eta bueno, ba del braso ibilliko gintzonan hartalataiko-edo. Ikusi giñunan-ta ni pobrie nintzonan da mutilla aberatsa, eta ez utsien itxitten niregaz ibiltten. Ni baserrittarra ta kriedie ta bera ofizinistia. Eta bueno, etxera juan zanien ez utsien urteten itxi. Ez utsienen (etxetik) urteten ba ni dantzan edo urtengo naixonan plazara ta nogaz juntauko, ia esta! Gero ba ia esta, haregaz akabau naixonan.
-Zeiñegaz juntau ziñan?
-Tomasegaz. Gizonagaz.
-Plazan dantzan orduan?
-Dantzan da zerien da gero handik aurrera nobixo. Ezkondu arte. Gero urten euen gerriek.

3.52. Kalean jaio eta bizi

- **Hizlaria(k)**: Gorostiza Bengoa, Asuncion
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-044/002
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:12:55. **Bukatu**: 00:15:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Kalean, Zaitegi etxean, jaio zen Asun. Baina bere umetako oroimen gozoenak aitajaunaren baserrian igarotako oporretakoak dira, Eskoriatzako Marin auzoan. Ezkondu eta gero etorri zen San Andresko Ibaialde etxera bizitzera eta harrez gero bertan bizi izan da. Asun 1930ean jaio zen.

Transkripzioa
- Zu zeu, Axun, hemen jaixua zara?
- Ni Mondrauen kalien, nire ama zan Begoñakue eta aitte Maringue.
- Maringua. Gatzagara bidian.
- Marin, Eskoriatza. Dauenik auzorik onena. Nik ume denporan pasau dudan denporarik gozuenak hantxe pasau dittut. Bakaziñotan fanda aittajunaz.
- Baiña aitta hona, Mondrauera ezkonduta.
- Aitta eta ama Mondrauen bizi ziren, bata Begoñakue eta bestie hangue... kalien.
- Ze kaletan jaio ziñen?
- Kalien? Zaitegi etxien, Kukuenetik hirugarren atartia uste dot dala. Zaitegi hori...
- Etxiak izena eukan? Ez zan numerua eta hola? Zaitegi etxia?
- Alkilaute bizi ziren, itxuria.
- Errentan?
- Han etxe hortan, eta han jaixo nitzen ni. Gero Bastarretxen bizi izan nitzan, hor beste etxien.

- Beheko etxetxo hortan?
- Gero hortik fan nitzan barriro kalera.
- Baiña hor bizi ziñan aitta-amakin?
- Aittaz eta amaz, umia nitzela, sei-zazpi bat urte arte-edo. Handik aguro etorriko nitzan, kaleko akordurik ez daukat, hemenguak bai.
- Oseake kaletik Basterretxera eta Basterretxetik...
- Basterretxetik berriro kalera, eta kaletik honaxe, berrogeta hamar-berrogeta hamaika urte-edo daroiet hemen. Hemendik ez noia aldaketan ya.
- Zu orduen hona be zeure aitta eta amakin etorri ziñan?
- Ez, aitta eta ama, aitta hildda euen orduen, eta etorri nitzen, ama be honaxe etorri zan, ama eta hiru aizta, lau aizta gare.
- Eta zu ezkondu orduen hemen in ziñan?
- Ez, ezkondu eta gero etorri nitzan hona. Bai, aurretik euen egindda etxia baiña etorri gero.
- Zelan dake izena etxiak?
- Ibaialde, bai, beheko atian dau ipiñitte. Eta gero gure oillotegira doien, oillotegi, lehenago guk oillotegixa esaten gotsen, ortura doian atie, ha aberixau eta arregletako begire dau. Beherutze dagon tartie.
- Atetxo ha?
- Bai. Eta gero harrezkero hementxe bizi izan naz, eta aurretik kalien, eskolan eta, erderaz ikasi-tte.
- Zu ze urtetan jaixo ziñan?
- “Mil novecientos treinta, doce de setiembre del treinta”.

3.53. Eskolako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Ertzilla Arregi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-047/005
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:09:38. **Bukatu**: 00:12:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: 14 urte zituela, hilabete bat egon zen kalera joaten josten ikastera. Eskolan dotrina, idazten eta irakurtzen ikasten zuten. Jolas-orduetan pote-poteka, "a escondites" edo tortolosekin jolasten zuten. Udalako eskola zaharrean ikasi zuen.

Transkripzioa
-Eta orduan zenbitzen josten ikasten?
-Josten ikesten. Egunen batzuk libratzen (bazien) ba josten ikesten bialketan giñuen. Eskolaik ez baiñe josten ikesten gero.
-Nora joaten zinen?
-Arrasatera. Kalien, kalien.
-Hemen ez euen, kalera. Eta kaletik goratxuau konbentue dau, eta konbentu parien, bestiek berutze eta esa ustenien nik enauen ikusi. Illunduta auen, orduan negue zan, xeirak ero zien eta illun-illlun. Nik bidie enauen ikusten ordun aurrien zer nauken be hori esaustienian.
-Eta zenbat denpora egon zinen joskin ikasten?
-Joskiñ ikesten hillabete ero; zenbat ba, asko ez. Justo etxeko zera eitteko.

Justo.
-Eta neska asko juntaitten zineten joskiñ ikesten?
-Bai. Auzotik ez, kalekuek.
-Hori pagau eingo zan, ez?
-Pagau, pagau.
-Akordatzen zara zein zan erakustaillia?
-Ez. Ezautu eitten nauen baiña eztakit hari zelan esaten utsien be.
-Baiña monjia etzan izango?
-Ez, ez, kaleko emakume bat zan, kaleko emakume bat.
-Eta hemen eskolan ez zotsuen erakusten josten?
-Keba! Hemen eskolan justo faten gintzen egunetan eskribidu edo leidu edo zerbaitt. Bestela ezebez besteik.
-Dotriñia bai.
-Dotriñia bai, hori bai, hori seguru auen.
-beste herri batzutan neskatillen eskoletan goizetik emoten eben eskolia eta arratsaldetik puntua eitten.
-Puntau eitten ero, baiñe hemen ez. Guri ez oskun hori be erakutsi hemen.
-Errekreuan ze jolas eitten zenduen?
-Ba, pote-poteka ero. “Eskondites” ero, hurrengo tabakin, segun nundik emuten euen jentiei.
-Zapakonetan eitten zeben?
-Tabak.
-Tabakin.
-Eta zelan jolasten zenduten tabakin?
-Ba batak bestiai segi eta ahal dan moruen, ez gekixen zer zan, danok ahal dan moruen.
-Eta pote-poteka zelan izaten zan?
-Ba gorde ta topetan zanien izena esan eta pote-pote!, eiñ da aide! Hurrengo geratu deilla beste bat.
-Nun zeuan eskolia?
-Goixen, elixa onduen dau,goixen dau, auzuen dau.
-Zuek eskola barrixan ala zarrian ibilli ziñien?
-Zarrian, zarrian.
-Juanitak esan dau gerra denporan barrixa akabau barri euela eta apurtu. Oiñ atzera martxan ipini dabela.
-Bai, ba martxan ifiñi daue, oiñ etorten die kaleko umiek “Medio Ambiente” ero ifinitta daukie ta. Baiñe gure denporan bestie euen.

3.54. Senarra nola ezagutu zuen

- **Hizlaria(k)**: Ertzilla Arregi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-047/010
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:24:20. **Bukatu**: 00:25:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Bere senarra, aramaioarra, Udala auzora bizitzera etorri zenean ezagutu zuen. Auzoko jaietan izaten zen urteko erromeria bakarra Udalan.

Transkripzioa
-Esan dozu gizona Aramaixotik etorri zala.
-Aramaixotik, bai.
-Eta zelan ezaugutu ziñazien?
-Osea, hari aitta-amak hil jakonien, ha auzuen egon zan apopillo. Hemen egon zan taberna baten, apopillo auen.
-Aitta-amak galdu zittuen gaztetan?
-Bai, gaztetan. Umetxuek ziela umezurtz anai-bixek geratu zien, Mallabixen hazi zien primo bateaz, eta gero handik puxkat hazi zienien hemen ospittalien geratu zian, eta ospittaletik ba lanera ero ekin zanien, apopillo etorten zien auzora.
-Eta lan hemen bertan eitten eben?
-Arrasaten frabikan baiña hemendik lanera faten.
-Bizi hemen?
-Bizi hemen. Lo ta hemen. Osea, frabikan ebitzen lekuen hemen auzoko tabernakue han ebillen biharrien eta berak esan utsien: “Ba gure bozue etorri, lo eiñ, eta gero ba geuri basarrixan lagunketa alde eta, eta ezebe eztotsueu kobrauko ta...”. Halan etorritta azen horra.
-Mutiko langilliak orduan.
-Bai.
-Erromeixan baten edo ezautu ziñuan?
-Auzuen, auzuen bertan, erromeixatara faten gintzen, ala? Ez auen, orduen ez auen ezer, e.
-Auzuan etzan egiten erromeriarik?
-Ez auzuen etzan itten. Auzoko fiestetan ero bai, urtien behin ero eitten bazan, baiña. Bestela ez auen hemen ezer. Etxien beti.

3.55. Etxezarretako "Baltza"

- **Hizlaria(k)**: Arregi Liziaga, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-050/022
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:47:26. **Bukatu**: 00:49:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Rafael Arizaga, Etxezarretako "Baltza"-ren inguruko kontuak: Aleman hiztuna; pistolarekin entrenatzen zuen; Euskal Herriko liburutegirik onena omen zuen Etxezarreta baserrian; Estatuko abokatua zen.

Transkripzioa
- Etxezarretako gizona, nausixa?
- Bai, bai Errafael. Justu-justuen akordetan naz. Rafael “Baltza” esaten gutsan guk. “Baltza”. Mokategin “Baltza” esaten utsien.
- Zuek bakarrik ez, guk galdetu dosteun danak “Baltza”.
- Bai.
- Itxuria baltzez jantzitta-edo ibiltten zan.
- Bai, baltza zalako, morenue zalako. Ni akordetan naz pistoliakin-ta tiroka ibiltten zan hor ta mutikuek ba, badakitzu. Hor Kataideko Sagasti zerien, Gaztanaixe esaten dutsau, eta Gaztanaixen egoten zan tiroka. Beti leku batera ibiltten zan han. Entrenetan ibiltten zan pistoliorreaz ta. “Baltza”. Ni justu-justuen akordetan naz. Entierruena be akordetan naz. Eta baiña

bestela... ez naz asko akordetan ze ni mutiko txikiñe nitzen orduen. Nik ha hil zanien zenbat urte eukiko nittuen ba? sei-zazpi urte edo, sei urte edo eukiko nittuen, ta justu-justuen akordetan naz. Badakit hori , ba, tiroka ibiltten zana. Hori bai , ba, hori, badakitzu, hori ez da ahazketan. Eta harek ba… ha zan gizon… [oso mutil] jakintsue zan, asko ekixena bai euskeraz, bai alemanez. Han aleman bat egon zan ,hor, berak ekarritte-o, ta harek alemanak esaten ei euen —nik alemana ez nauen ezautu, baiñe aittei entzunde bai —, harek alemanak, berak baiño hobeto itten auela aleman berba, honek.
- Bai, e?
- Honek, bai. Bai. Eta horrek, ba, edozein moduten be, euskeraz, aleman, erderaz ta bai [frantzez] iguel jakingo auen, e. Hor kriston bibliotekie egon zan e, ona! Hor beorren lobiek esan uzten niri Euskal Herrixen auen bibliotekaik onena hor euela. Gero dana apurtu ta ostu ta, bueno, kriston desastria.
- Oin jausitta dau, ezta...?
- Bai. Gero, ba, ein auen, edozein moduten be, hor e... —ya hori dok beste gauza bat, honek esan ustana— hor horrek liburuok batei emun balutso o saldu balutso batei, ba, ha osorik egongo zala, ezta? Baiña in auena zala, ba, lobiorri-edo emun utsela ta harek e...
- Partidu.
- Bai, gehixen emuten utsena, “hi, hau ze?”,” hau neuretzako” ta harek hartu ta eruten auen hori, lote bat, beste batek beste lote bat, ta orduen danak sakabanatu ziela. Saldu biherrien batei dana, ba, hor fallo haundixe euki euela. Bai. Honeik, e! Honeik bestiok, berak ez. Ha bera abogaue zan, Estaduko abogaue zan.

3.56. "Baltza"-ren arrebaren gorpua ekarri zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Arregi Liziaga, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-050/024
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:52:10. **Bukatu**: 00:54:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Hiltzera zihoala ohartu zenean, Etxezarretako "Baltza" lehengusinarekin ezkondu zen. Parisen "Baltza"-ren arrebak bere burua hil eta gero, haren gorputza ekartzeko sortutako komeriak.

Transkripzioa
- ...hil biher zana beorrek, eta hil biher zana igarri utsenien ezkondu zan bere primiaz, horrekin bergarakuorreaz. Horrekin ezkondu zan eta, ba, hari itxi utsen, ta haren semiei, Mendiatarrai itxi utsen dana. Horrei gero pasau jakon beste hor pasadizo bat horrena, bere arrebie bere buruaz beste suizidau ein zan bere arrebie Parisen, eta ekarri biher auen hona. Hemen kanposantue hemen aukien; bertan ein auen kanposantua horrek, baitte kapillie be. Eta, orduen, ha ekarri biher auen horra enterretan. Eta, klaro, pagauko zittuen diru mordo bat Paristik hona ekarten. Ta zela Bergarakue zan bere primia, enda berak Bergarakin asko, zer asko hori euken, hartuemun asko eta [bagau] be asko eitten auen Bergara aldien, orduen pentsau euen Bergaratik bueltan ekartie hori arrebioi. Enda, jo, Bergarako aiuntamientuek eskau utsen kriston diru pillue han pasetako, handik

Bergaratik pasetako.
- A! bakarrik pasaitteko?
- Bai. Oin be ingo daue hori. Ez dakit zela izeten dan hori. Ez dakit, herri batetik bestera pasetako izeten da dirue pagau biherra, ez dakit zelan dan. Behintzet...
- Hilddeko pertsona bat?
- Bai, bai, bai. Hori bada itxurie. Zeatik ni akordetan naz ekarten dotsuenien anbulanzian, hil barik dauen plantie itten daue. Ez dakit, hildde ez da..., itten daue hildde ez balego bezela. Ez dakit zela... Bai, han itxi biher dozu zuk; hil bada, han itxi biher dozu, bertan itxi biher dozu. Ordun...
- Harik eta jueza etorri arte.
- Bai eta gero bai. Ze ni akordetan naz ni hor...

3.57. Arrebaren gorpua Etxezarretara ekartzeko komeriak

- **Hizlaria(k)**: Arregi Liziaga, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-050/026
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:55:45. **Bukatu**: 00:58:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: "Baltza"-k arreba Etxezarretara ekartzeko egin zituen komeriak. Auzoko jende askori lana ematen zion Etxezarretako nagusiak.

Transkripzioa
- Lehen esan doun bezela, Bergako aiuntamentuek eskatu utsen diru mordo bat handik pasetako, ordun juan zan Oñatira. Oñetikuek ez utsien kobrau txakur txiki bat be. Oñeti pasetan, osea Zumarragatik Oñetittik bueltan ekarri euen Etxezarretanera ta Oñetikuek ez utsien kobrau bape. Eta ein euen, ha ezin leiken eruen, orduen ein euen pistie San Prudentziotik. Ez dakit hori zeatik ein auen, ze bestekaldetik erun leikien, ez dakit orduen zubixe eindde egongo zan edo in barik egongo zan ha zubixe in barik egongo zan igual. Kuestiñua da ein euela San Prudentziotik Etxezarretaraiñoko bidia, ha erueteko, arrebie erueteko hara.
- Oin trenbidia dauen...
- Bai, handik ezkiñatik, bai. Bai, orduen einddeko bidie da hori horretxeatitxek, arrebie erueteko hara.
- Eta gero bide hori aprobetxau euein trenbidie eitteko?
- Ez, bi bide eongo die, bata trenbidie eta bestie zera, bai, bestie, bai. Hori in euen Rafaelek. Rafael e...
- Orduan zubirik ez zan eongo ondion.
- Ez zan eongo, ez zan eongo, zubixe barrixe izengo da.
- Bide bakarra iguel ha hantxe inguruen izango zan.
- Igual zubi zelebren bat eongo zan, ze zubixe ikusten da barrixe dana. Zubixe harlanduz einddakue da eta, ba, igual ez zan eongo, igual ez zan eongo, ez dakit. Holaxe.
- Ta zeatik gure eben ba Bergaratik... A! Zumarragatik Deskargatik Bergara eta gero berriz hona?
- Bai. O... kostatik bueltan etorriko zan edo ez dakit nundik. Orduen oingo erraztasunik ez zan eongo ta bideik be ez zan eongo ta orduen Bergatik

ekarri euen, ekartie gure euen, eta Bergarako aiuntamientuek diru pilluek eskatu utsen. Eta orduen ein euen Oñetira. Ta Oñetittik. Oñetikuek bape ez utsien kobrau, libre, eta orduen bidie in auen hara. Ta…
- Osea, Oñatittik San Prudentziora ta gero erreka kontratik…
- Bai, bai, San Prudentziotik erreka kontratik, errekaik kontra, errekaik kontra, eruen euen zera, pistie. Orduen ez… atxurraz in biher zan /inbizan/ e! Atxurre ta paliaz! Ta… atxurre ta paliaz indde daukou horrek, ha, “Kortagaiñe” esaten dutsau horri mendixorri, atxurre ta paliaz indde dauko mendi guztian, orduen kamioirik be ez auen denporan —harek baekixen kamioiek etorri biher ziena hona—, eindda dau bidie goraiño. Orduen denporan! Atxurre ta paliaz!
- Ta jente pilla bat biheko euen.
- Ba karo, ta harei danai jaten emuten utsen. Joe hori, hori auzuentzako ona izen zan e, oso ona, bai, bai, bai. Oin ba bestekaldetik, ba…
- Gero zuek zeuek irak ekarteko-edo ebalten zeuen bide hori ?
-Ez, ez, ez. Hori berie zan. Hori berie zan. Ez, ez. Horrek e… Bueno, gurekin, Kataidekuekin, ondo portau zan, betik ekarten zittuen… hori da hori mundu guztixen ibilittakue…

3.58. Jolasak eta dantzak

- **Hizlaria(k)**: Altuna Mondragon, Lorentza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-068/006
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:12:03. **Bukatu**: 00:15:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: "Kinkinke", "labanderan" eta holako jolasak azaltzen ditu. Jaietan Aretxabaletako plazara joaten ziren dantzara. Soinujolea, jazbana edota gramola musika egoten ziren dantzatzeko.

Transkripzioa
-Guk? Gauza asko eukitten ginttun guk. Gero, “kinkinke” be bai. Kinkiñek eitten zien egurrekin, kinkiñek eta sartu lurrien ta bat jo ta botaten ebenak irabazten eben ta holako gauzak. Asko izeten zien.
-Horren izena zelan esan dozu?
-“Kinkinke”.
-“Kinkike”?
-Bai.
-“Kinkike”. Oseke egurra…
-Egur trozotxuek, zorroztute eta sartzen zitxuzun lurrien.
-Kutxilluen moduen….
-Bai, bueno, jolasak ugeri izeten zien. Gero “labanderak” be bai. “Labandera” be bai. Aldatzak euzen lekuen ta. Bota potiaz ure ta hankiaz. Aurreku txipristindduaz. Goixen bota ure ta labandu itten zan ta hanka baten gaiñien jarri ta behera.
-Ta hori zelan deitzen zan?
-Labanderan.
-Labanderan.
-Oin bestela egoten die ba, txirritak eta ez dakitzu? Txirritak eta eukitten

dittue umiek. Txirristak. Txirristak eta.
-Toboganak bai.
-Ba guk eukitten ginttuen labanderak. Aldatzian jarri ta ure bota ta urik ez baeuen txixe ein eta beherutze.
-Hanka baten gaiñien fango ziñien.
-Hanka baten gañien, hanka baten gaiñien.
- Ez dosku hondio iñok kontau, niri behintzet holako...
-Guk eukitten ginttuen, bai. Eukitten ginttuen, eukitten ginttuen. Ta gero ba jaixetan ta gero […] jaixetan. Atxabaltara joaten gitzen gaztiek, Atxabaltara. Atxabaltan egoten zan gramolie, plazan. Gramolan jo ta alpargata danak muturrek apurtute hantxe. Hemendik oiñez faten giñen Atxabaltara. Ta gero egoten zien kanbixue, soiñue be bai, Juliana Zabal, soiñujolie. Bai, soiñujolie. Joten eben soiñue. Eta batzutan jazbana be bai, Felipe, zelan zan? Felipe Mondrauekue jazbanistie. Ai, oin ez naz akordauko abizena zelan zan. Felipe, hak be bai.
-Jazbana?
-Jazbana joten eben.
-Eta gero Felix be bai, Felix Aranzabal be bai, soiñue joten. Ta hareik kanbixau eitten euen ta gero gramolie ifintten euen. Danak aprobetxau biher ba.
-Ta gramolan, gramolan, ze musika joten euen, dantza eittekue?
-Bai, bai, trikitixak be bai, bai eta gramolie be bai. Ta bestela dantzan eittekuek be bai.
-Eta ez zeben eukitten problemarik neskak abadiekin eta dantza eittiegaittik-eta?
-Ez, gu, gure sasoireko apur bat baretute euezen.
-A bai?
-Bai, gure sasoireko, baiña kasuik ez zotsaun eingo bestela be.

3.59. Umetako gaiztakeriak

- **Hizlaria(k)**: Altuna Mondragon, Lorentza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-068/024
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:58:52. **Bukatu**: 01:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Umetan egindako gaiztakeriak kontatzen ditu. Etxeko gauzak etxean gastatzen zituzten. Plazara saltzera ez ziren joaten.

Transkripzioa
-Akordetan naz Estradakotik baten e, hemen, beste etxien, hau bizitza bikue da. Ta beste etxien, ba, nire… gizonan lehengusiñie, Miren, oin Malagan bizi da, Fuengirolan bizi da, eta harek bilddotsak hor urrin, hemendik be urrin ezen, hor Illerragorri esaten jakona, Menditzutik aurrera fanda Illerragorri. Ta han bilddotsak eta. Ta haren amak bieldu gindduen bilddotsetan, ta niri esanda nire amak ordu hortan etxera fateko. Ta ni bilddotsetan. Klaro, bilddotsetan fan ta emungo uskun /emunguskun/ zeozer e, amandriorrek eta bilddotsetan. Ta etxera fan nitzenien kriston palizie ta atarteko tronkuen, “castigada”. Holakuek ein dittut nik neuk be, e. Ta oin esaten dittuu, oinguei zerbaitzuk, baiñe geuk be geuriek einddakuek gara.

-[…]
-Geure diabrukerixek einddakuek, bai. Nire anaieri, nire aurreko anaie, ba hamahiru hillebeten aldie daukou nire anaiek eta nik. Harek eingo dittu larogeta lau urte oktubrien, ta nik nobienbrien ingo dittut larogeta hiru. Ez, larogeta lau nik, ta harek larogeta bost. Eta pfff… oillotegixan goixen ta faten gitzen ta, oillotegire ta, harei arrautzak gustetan jakon. “Kas-kas” jo ta zurrut. Eta niri higuiñe emuten ustien ta, “hik ez esan ezer e, hik ez esan ezer amai, e”. Hartu han ta arteixe aldamenien ta arteire fan ta “kas-kas” jo ta “glin” zerak eta. Holakuek eta. Esan, barrez, ezer be ez. Ezer be ez esan.
-Baiña ama konturatuko zan.
-E?
-Ama konturatuko zan.
-Ba, ez zan konturatuko, zegaittik oillo mordue auen ta arrautzak be, ba… hainbeste ez zan konturatuko, baiñe… Behintzet guk gaiztokerixatxuek.
-Zuk zeuk plazara saltzen-ta fan izan zara?
-Ez, ez, ez.
-Ez zarai izan...
-Gu ez gara izen holako artistak.
-Eta zure etxetik iñor ez zan faten plazara edo saltzera?
-Ezta, ezta, ezta… iñor be ez.
-Etxerako orduen.
-Etxerako. Etxerako nahiko. Ez zan faltetan ezer be. Baiñe plazara-ta ez. Etxerako frutie bazan, e… intxaurrek, urrek, gaztaiñak. Gaztaiñak be asko egoten zien, eta frutie be bai. Negue be akordetan naz. Gari-arkak egoten zien orduen. Eta gari-arkatan sartute egoten zien madarixek konpotarakuek be. Eta danetik egoten zan. Ta ogixe be ez zan faltetan. Gerra denporan bai. Akordetan naz, zela egoten gitzen e, Zabalen egon gitzen gu, Zabale goikuen, amandrie Juana bizi zan artien, eta oingo pizzak ekarten dittuenien akordetan naz asko.

3.60. Koba bat dauka etxeak barnean

- **Hizlaria(k)**: Berezibar Ibabe, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-075/005
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:07:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Bere sortetxea Arrasateko lehenengo etxea izan zela dio. Koba bat dauka etxeak. Barandiaran bertan izandakoa dela dio. Harek esan omen zuen lehenengo koban jendea bizi zela eta gero koba hori handituta egin zutela etxea.

Transkripzioa
-Esan dozu larehun urte apellido batekin egon dala etxe hau?
-Hirurehun-laurehun bat.
-Eta etxia zaharraua da hori baiño, edo…?
-E?
-Etxiau zaharraua da hori baiño? Zenbat urte dako etxiak, badakitzu?

-Hau esaten daue, edifiziue, Mondrauen lelengokua.
-Izan zala?
-Esan.
-Bai, bai, bai, bai. Jontxo. Mondrauen kalien lehenengo etxia hau izan zala, e?
-Honek etxionek dauko kuebie. Kueba. Ta hamen egon zan, behin baiño gehixauten egon zan, e...
-Barandiaran igual.
-Barandiaran, ... zela auken be izena... Barandiaranek zela auken izena?
-E...
-Jode, min puntan dauket eta... Parra dutso. Ataungua.
-Bai, bai, bai, bai.
-Harek esan zauen, behin baiño gehixautan egon zan ta, hor kueban jentie bizi lelengo, ta gero hau anpliaziñue zala!
-A, hori kobiori zer dau hamen etxe inguruen?
-Etxe barruen.
-A, etxe barruen daukotzue?
-Bai.
-Aiba! Hori ez nekixen nik hori. Oseake etxe barruen dauen koba horretan jentia lelengo bizi izan zala ta gero hau in eueilla?
-Bai. Esan. Hori e, oin e... zenbat urte izengo da. Mille ta piku urte iguel, e! Ez dakit zenbat urte! Hori historiadore, zueik jakingozue.
-Bai e, nik...
-Mondraueko artxibuetan beittu ta... aiuntamientuek jakingo dau hori, e!
-Jakingo dau, baten batek behintzat jakingo dau.
-Hori da.
-Orduan Barandiaranek esaten eben hamen etxe aurrian daukotzuein koba horretan jentia bizi zala ta gero ein eueilla etxiok.
-Hau bakarrik ez e, beste danetan e, edifiziuek ez auen esistiruten, ba, nunbaitten bizi izen biher izen auen jentiek. Ba, animalixen defensara edo.
-Baiña hori milla urte baiño gehixauko kontua da, e.
-Bai.
-Bastante gehixau.
-Bai.
-Jontxo, jontxo.

3.61. Mutikotako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/009
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:20:16. **Bukatu**: 00:22:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Pilotan eta futbolean jolasten zuten mutikotan. Pilotak nola egiten zituzten azaltzen du.

Transkripzioa
-Ta ze jolas klase itten zittuein mutikuen artien?
-Errekreuen ta?
-Bai.
-Ba pelotan ta fubolien.

-Ez zan besterik, txirikilletan ta holakotan ez zeuen itten?
-Txirikilletan ta hori neskatillak ibiltten zittuan.
-A bai?
-Gu gero ba, ”diez veinte“ka ta. Badakik zer dan? “Diez, veinte“ ta hori...
-...“diez veinte“ka?
-Pote-poteka ta. “Diez, veinte“ ta gordetia zuan. Gorde nunbaitten ta... topetan ta... holako gauzak!
-Geuk be in dittugu holakuak e.
-Bai... pentsetan juat nik. Pentsetan juat. Gero gast... gero hori gastau zittuan e!
-Bai, oingo neska-mutillak ez dot uste holakorik...
-Eeeeeee...! Honeik e... Horreik e...
-[...] ta harrapo-harrapoka ta ibiltten giñan.
-E?
-Harrapo-harrapoka ta.
-A ez jakixat /etxakixat/ hori...
-Ez, ba, bi talde ein ta bata bestiak harrapaittera. Ta harrapaitten zana ikutu ta geldik egon bihar.
-Aaaa horixe bai, ikuketan, ikuketan. Bai, geu be holaxe ibiltten gitzuan! Horretxek jokuok. Gero kanikaka. Kanikak... besterik ez jauan /etxauan/ e.
-Baiña, orduen, zuek pelotan ume-umetatik hasi ziñein.
-E?
-Han, ikastola ondoren ume-umetatik pelotan ia.
-Ume-umetatik. Orduen mun... danak itten gauen baiña pelotan ondo! Danak ondo pelotan. Ta futbolien be bai e. Muti... besterik ez jauan! / etxauan/. Pelota zaharren bat hartu ta futbolien.
-Ta hori nundik, nundik ataraten zittuein pelotak?
-Pelotak? Ba kanika bat edo zerbait hartu eta tal ta... lanazko pelotak-eta itten gittuan, amai lanie kendu eta, ba, lanazko pelotak!
-Gero esparadrapuakin pegau...
-Esparadrapuekin holako zer batzuk ein ta ya esta! Ta beti be amak e ba puntu batzuk emuten uskuan, ta ba ya esta. Horretxek zittuan... Oingo moduen?
-Ia, ia, ia.

3.62. Fidel Castro jaio zen egunekoa

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/001
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Fidel Castro jaio zen egun berean jaio zen Juanito Leibar ere. 1926ko abuztuaren 13an izan zen hori. Joxe Arriaran munduko txapeldun izan zen pilotari arrasatearra ere egun horretan jaio zen.

Transkripzioa
-Esango dostazu izena ta apelliduak?
-Nik daukat izena Eugenio Juan Leibar Guridi. Baiña jente guztiek deituten duste Juan edo Juanito. Juanito, lagun artien eta etxien ta beti Juanito.

Eugenio izen zan ba neure aitte-ponteko Eugenio zan ta ez zan etorri bautizora, zerien euen, soldaduskan, ta ez zan etorri ta orduen, ba, Juan. Ni jaixo nitzen abuztuen 13en, egun baten Fidel Castro ta ni. Bixok daukou 84 urte ein biher aurten abuztuen 13en. Fidel Castrok eta nik.
-13en ala 18xen?
-13en. Ta Arrasaten beste persona bat dau oso ezaune, da Joxe Arriaran, izen zana kanpeon...
-Pelotaixa?
-Bai, pelotaixe. Neure edadekue ta egun batekuek gara hirurok. Abuztue 13, milla bederetzirehun ta hogeita xeikuek.
-Harek igual eztau jakingo Fidel Castron zera dala.
-Ha izen zan "Campeón de España" ta ondion da "Campeón del mundo de saque libre". Gero desagertu zan hori kanpeonatuoi; "de saque libre" bera "campeón del mundo" geratu zan. Pelotan. "Saque libre", oin ez dau, ez da entzun be eiten. Lenau izen zan Atano III ta horreik "saque libre" eitten auen. Edozein ezkiñatxotik tak. Sakez itten zittuen tanto asko. Atano "tercero"k, por ejemplo.
-Nik ez dot ezautu hori.
-Nik bai.
-Sake librie zer da?
-Sake libre. Oin puntu batetik sakia atara biher da /bida/. Ta lehena, sake librien, ba, atara zeiketzuen horma kontraraiño juan añiketan ta ra! Edo atzetik, edozein lekutatik e, sakie.
-Baiña arraiaren atzera...
-Arraiaren atzera, hori bai. Baiñe atara sakie edozein puntotik. Ta hori bastante interesantie zan. Ta oin desagertute dau. Horixe da "sake libre".
-Ta orduen Joxe hau Arriaran hau izen zan...
-Kanpeon geratu zan ta hori ia ez da erabiltzen ta...
-Harrezkero ezkutau in zan?
-Nik ez dot entzun aspaldixan, pelota sake libre. Baiñe Atano III oso famatue izen zan. Makiñatxo bat partido irabazi zittuen sake libre.
-Sakez tanto gehixenak eindda.
-"De saque" eitten zittuen tanto gehixenak. Ra!, ezkiñara, ra!, bestaldera, arrimau ondoraiño...

3.63. Aita Santa Agedako lorezain

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/002
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:02:37. **Bukatu**: 00:04:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aita Gesalibar auzoko Enuzketa (Erenuzketa) baserrikoa zen, eta ama Uribarriko Goiru baserrikoa. Aitak Eibarren eraikuntza lanean jardun zuen, eta gero Santa Agedako ospitaleko lorezaina izan zen. Loretoki izeneko etxea eraiki zuen bertan bizitzeko.

Transkripzioa
-Ta nunguak zittuan aitta-amak?
-Aitta-amak Arrasatekuek, baiña Arrasateko auzue Gesalibarkuek. Aitte izen zan baserrittarra, ta ama be baserrikua. Aitte zan Enusketakue ta ama

Goirukue. Oso baserri famatue zan Goiru. Uribarrin, Goiru. Ondion han dau baserrixe. Ta gero gure aitte ibili zan soldauskan, ta urten auenien ez auen lanik eta Zerrajeratik juen zan Eibarrera. Eibarren ibili zan lanien konstrukziñuen. Ta gero etorri zan Arrasatera, ta Arrasaten Santa Agedako sanatorixuen monjetan, psikiatrikuen, puesto bat hartu auen jardiñe ta horreik gauzok zaintzeko. Horixe izen zan. Ta ama ba etxekue beti, etxekoandrie. Etxe txikitxo bat ein gauen, kanpoko etxe bat, ta hantxe bizi giñen Santa Agedan. Ondion be hantxe dau etxioi. Etxe bat politta.
-Etxe horrek izenik baeukan?
-Loretoki. Oin be Loretoki da.

3.64. Elexgarain jaio eta mutikotan Loretokira

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/003
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:04:11. **Bukatu**: 00:06:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Juanito auzoko parrokia ondoko Elexgarai baserrian jaio eta bizi izan zen sei urtera arte. Loretoki etxe berria senide eta lagun askoren laguntzarekin eraiki zuten. Aitak lorezaintzaz aparte, ospitaleko lan asko egiten zituen.

Transkripzioa
-Ta jaixo ziñan Loretoki horretan?
-Ez, ni jaixo nitzen zerien, Elexgarain. Elexgarai ba Santa Agedako parrokixa onduen dauen baserri bat. Oin iñor ez da bizi han, baiña hantxe jaixo nitzen. Bost urterarte o xei urtearte.
-Oseake, orduen zure aitta-amak ezkondu zien Elexgarai horretara?
-Bai, Elexgaraire. Tan han aukien etxe txikitxo bat monjak itxitte, monjan etxie zan ta. Gure aitte enpliaue zan ta hareik itxitzien etxie bizitteko hantxe. Baiña bost urte bakarrik. Bost urte. Ta bost urte pasauaz, ba, ein gauen etxe barrixa, aitte ta aman konture.
-Elexgarai Santa Agedan euen?
-Bai, bai, parrokixa onduen. Ta etxioi... Etxioi ein zan... Etxe politte da. Ta ha ein zan pariente artien, danak lagundu, batak egurre, bestiek mano de obrie, bestiek diru apurren bat eta holaxe.
-Auzo lanien nolabait, ezta?
-Ba, etxe lana gehixen bet, auzolana be bai apurtxo bat. Auzolana.
-Loretoki orduen.
-Bai. Aitte jardinerue zan ta betik auken etxe inguruen lorak eta. Larrosak eta. Ta gero ortue ta.
-Aitta orduen zan ospittaleko jardiñerua.
-Jardiñerue. Titulue, jardiñerue. Gero beste edozer gauze...
-Danetik eingo eben.
-Bai, danetara. Iketza deskargau, txarrixek hil, ortue zainddu... Danetara.
-Osea ortu eta jardin zain.
-Bai. Baiña kamioi iketza etorten zanien be deskargau, bal-baltz eindde obrero guztiok hantxe. Paliaz deskargau ta bal-baltz eindde. Gero monjak merixendie emuten eutsien /emuteutzien/, aparteko merixendie.

3.65. Gerraostean, San Viatorren

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-155/009
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:17:25. **Bukatu**: 00:17:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Gerraostean, Arrasateko San Viator eskolan ibili zen. Etxeko lanetan lagun behar izaten zuen, eta askotan ez zen eskolara joaten.

Transkripzioa
-Ta gero gerra ostien, ba, eskolara fan biher zan, ta frailliek etorri zien hona, frailliek, ta frailliekin ibilli nitzen, baiña ez gauen asko adelantau. Orduen...
-Frailliek Arantzazukuek?
-Ez, ez, San Viator!
-A, San Viator.
-San Viatorren. Holaxen. Ez noie asko dirigirutenk zeaittik e...
-Orduen, gerra ostien, eskolan ibili ziñan hamen, Mondraguen?
-Bai, Mondraguen, Mondraguen, bai.
-San Viatorren?
-Bai, baiña eskolara asko faltetan gauen, zeaittik etxien lana ein biher zan / einbizan/ ta, etxeko lanak eta holan ta, neuri tokau jaten lanak eittie be ta... holaxen...

3.66. Etxe-erre batzen ibilia

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-155/010
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:17:59. **Bukatu**: 00:20:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: 1942an erre zen Muxibar baserria, eta Esteban zakuaz etxe-erre batzen ibili zen; baserriz baserri zer ibilbide egin zuen kontatzen du (Aramaio, Garagartza...). Gose denbora izanagatik, Aitzorrotz baserrian anea erdi gari eman ziotela gogoratzen du. Gipuzkoa aldean Bruno izeneko auzoko gizon batek lagundu zion etxe-erre batzen. Don Simon abadearekin izandako gorabehera kontatzen du.

Transkripzioa
-Gero etxe-erre batzen be ibili gintzen, etxe-erre batzen be! Etxia erre zan, Muxibar, cuerenta y dos-ien, ta hango zer danak neuk batu... hartu nittuen. Hasi nitzen hamendik e... lehenengo arrebia ibili zan, nire aurrekue, hamen zera, Txaetatik ta hemen Bedoña ta be hori... ni hasi nitzen zeretik,

Azatzatik. Larriño, Azatza, Arientza, ta hortik aurrera, ba, zereraiño, Gatza ta Marin, ta hortik. Gero Aramaixo. Han Untzille ta honeik ta gero Aramaixo dana.
-Ta ze eitten?
-Etxe-erre batzen, sakuaz!
-A, etxe-errie be batu eitten zan?
-Etxe-errie batzen. E?
-Etxe-errie be batu eitten zan?
-Bai...! Joer. Gaiñera diru asko hartzen zan! Jentiek ondo emuten auen. Ta han Atxorrotxpe...
-Hori zan orduko segurua?
-Bai. Ta Atxorrotxpe, zan ha baserrixa. Atxorrotz badakitzu nun dauen?
-Bai, bai.
-Ha lenengo baserrixa han goixen dauena, han emun ustien anega erdi gari, emun usten, anega erdi gari, orduen. Ze gose denporie zan e, "cuarenta y dos"a. Gose denporie. Ta anega erdi gari! Ta batzuk asko emuten auen! Ta gero han batzen zana ba zertu eitten gauen, zentralizau eitten gauen, ba, puntu batzutan isten gauen. Ha bixkarrien ezin ibili beti! Ta holan ibiltzen gitzen. Ta hori danok.
-Orduan etxe-erriek batzen ibiltten ziñan?
-Bai, neu, neu ibili nitzen. Neu. Zerien hartu ta Aramaixo dana, ta Garagartza ta hau inguru guztiau neuk ibili nauen. Danak. Ta orduen, ba, aiudantie, Bruno [...zelai] zan oso gizon ona. Zerien, hamen, Azatza ta hamen Gipuzkua aldien be harek lagundu usten, Brunok. Ta anekdota bat badauket. Arientzako Don Simon zan abaria. Ta han be atie jo gauen, ta ate gaiñien auen bentania, ta goittik abariorrek Brunoi -niri ez usten ezer esan-, Brunoi, ta ostia..."Ta Bruno! Lanien edo eskien hau ba?" Ta hak baiño edukaziño gehixau auken ta, "Lanien, jauna, lanien". Handik gora bajuen beste baserri bat, oiñ ez naz /enaz/ akordetan zelan dan, ondio han dau, baiña oin hutsik dau. Ta... esto... abariaz ta han bidien gora goiezela esan usten: "Horrek badakik zer merezi duan han goixen..." Karabarrixa dauko izena han goiko zerak, han Kurtzebarriko [espaldiek]. Han lenau be baserrixe euen, ba, han be aziendie euen Karabarrixan, hola azienda leunteda bat dau oin be. Ta han, ta...esto... "Horrek badakik ze merezi duan? Aurrien daukena atzien ifiñi ta horra Karrabarrixa ahuntze-zain bielketie!''. Hareaittik...

3.67. Axeri baserrian umezain

- **Hizlaria(k)**: Arregi Letamendi, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-166/008
- **Iraupena**: 0:00:28. **Hasi**: 00:11:52. **Bukatu**: 00:12:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak Lanbideak » Neskameak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Zortzi urte zituela, auzoko Axeri baserrira umezain joan zen. Erosketak egin, behiak zaindu, astoekin errotara joan... ohi zen baita ere.

Transkripzioa
- Ba, etxeko letxe porke jente ona, hobiaurik ezin ez. Ba itten gauen, ba, errekauek ein... Ezauen dendarik auzuen. Errekauek ein, egunen baten behixek zainddu. Eta, ba, astuekin errota fan! Horrek gauzok eitten gauen.
- Eta umezain eta etxeko lanak, ezta?
- Etxeko lanak ez!
- Baserriko lanak?
- Ezta! Lanik ez. Umie zainddu.
- Baina astuakin e...
- A bueno, baiñe... errotara faten gitzen, ba, artue...
- Jo, ixotea...
- Ixotzera.

3.68. 14 urtera arte Axerikoan eta eskolan

- **Hizlaria(k)**: Arregi Letamendi, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-166/010
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:12:27. **Bukatu**: 00:13:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
  Lanbideak » Neskameak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Axeri baserrian umezain zegoela, ahal zuenean eskolara joaten zen. Eskola oso gustuko zuen. Terek ezin bazuen umeak zaintzera joan, ahizparen bat joan ohi zen bere ordez. 14 urterekin, Zerrajeran hasi zen lanean.

Transkripzioa
- Ta orduen, hortik al zebenien etortten ziñen eskola?
- Bai.
- Egunero iuel ez?
- Egunero igual ez. Asko gustaketan jatan eskolie neri. Asko, asko, asko. Baiñe bost neska eta badakitzu ze pasatan dan. Danak ezin! Ta ya hamalau urtekin Zerrajeran sartu nitzen. Ta nere aiztie, hurrengokue, ni gaixotu banitzen beste aiztaren bat faten zan umiek zainketan e! Haura zan... desperdiziorik familixan! Ta ya hamalau urtekin sartu nitzen Zerrajeran.
- Baiña
- Ta ezkondu arte.
- Bai, baiña pentsaitten dot... osea hamalau urtekin orduan eskolia ixten xakon, ezta?
- Bai.
- Ta gero zu, orduen, hamalau urte arte e... Axeikuan ta...
- Bai, bai...
- Ibili ziñan Axeikuan, eskola al zebenien ta hola.
- Bai.

3.69. Kalera joateko aitaren baimean behar

- **Hizlaria(k)**: Arregi Letamendi, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-166/027
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:40:03. **Bukatu**: 00:40:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Oñatira joaten ziren amaren aldeko familia bisitatzera. Bergarako Pazkoetara joaten ziren, baina ez beti; etxean baimena emandakoan soilik. Kalera joateko baimena eskatu behar izaten zion aitari, ezkondu zen arte. 22:00etarako etxean zeuden beti denak. San Joanetan, berriz, 23:00ak arte zuten baimena.

Transkripzioa
- Baiña bueno batzutan... baiña aukiko zauen preferentzi bat, ezta? Ez dakit nik e... Bergarako Pazkuak edo Arantzazuko Ama Birjiñia edo...
- A, bai. Bergarara ta bai! Oñatire ta ez. Oñatire ta faten gitzen, baiña familixakue... ez dakizu /eztakitzu/. Ama zan Oñatiku, ba, Oñatire... baiña bestela bai Bergarara, bai. Baiña ez betik e! Permisu emoten bazotzun e... nahiz ta lana ibili e!
- Oseake, orduan haik eta ezkondu ziñen arte aittari permisua eskatu bihar izaten zotsazun?
- Bai, bai, bai. Hamarretarako betik etxian gaezen danok. Oin, urten zeiketzun gu... atsaldeko lauretan be bai e!
- Baiña hogei urte zittuala be bai?
- Bai, ezkondu arte ixen!
- Ezkondu arte?
- Bai eta... San Juanetan ta hamaikak arte. Oingo gauzak izen bazien!
- Bai, baiña orduen beste modu batekuak zian. Oseake San Juanetan, ordubete gehixau?
- Bai, bestela...
- Bestela, hamarretan.
- Betik.

3.70. Lixiba uretan eragitera, errekara

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/021
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:58:16. **Bukatu**: 01:01:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Udaran arropa errekan garbitzen zuten, errotako urtegia irekitzen zutenean. Lixiba etxean egiten zuten, sutako hautsa eta erramuarekin, eta gero errekan uretan eragin. Arropen ontzia buruaren gainean jarrita eramaten ezagutu zuen Angelesek.

Transkripzioa
- Baiñaitteko potzuren bat edo baeuen bertan?

- Bai, baauen. Honutzau.
- Igari itteko modukua?
- Hainbesteraiño ez baiña bai. Erropia ta, gurien ura egon arren, ura gastau itten zan eta faten gitzen erreka. Errekan. Ta gero errotie zelan auen gure etxien atzekaldien auen errotia eta han, ba, garixa, osea, jaten, josten, joten auenien zera, granuoi, ba, etorten zan ur [haundixe] ur boladie. Eta ur boladie aprobetxetan.
- Eta erropia garbiketako?
- Erropia garbiketako. Klaro, bestela neguen o udan be, ha be murrizttu itten zan. Erropa txikixe bai baiñe erropa haundixe, izarak eta garbiketako. Eta haintxe sartu belaunetaraiño eta...
- Osea ke, errotarixa noiz lanian hasiko zain erropak garbiketako.
- Bai, bai, bai. Gutxi gorabehera jakitten gauen, e? Gutxi gorabehera jakitten gauen. "Bai, erun jittune zorruek eta ointxe, laister etorriko don zera". Ta...
- Ta lixibie edo eitten zauein?
- Lixibie? Bai. Ni lixibiez akordetan naz. Zu akordetan zara? Ni akordetan naz lixibiaz, holako barriñoi, osea, honek barrikan erdixa eta han sartu izerok eta gero zelako lurrune eta botatzen gutsen zera, erramua eta useiña ta han bota urekin, bota, ta gero urteteko...
- Bai, baiña gaiñien ez zeban eukitzen sutautsa?
- E? Bai, hori geruau, ez dakit zetako zan. Baiña hori, ha zikin...
- Jaboia, jaboia.
- Jaboia, bueno. Behintzat hara bota ta.
- (Pilar Bastida) Sutako hautsa.
- Eta gero eruango zittuein, errotarixa lanian ebillenian, harek aklaraittera zerera, ezta? Errekara?
- Errekara. Bai.
- Ze zekatzuen etxetik hurrian edo urrin?
- Ba, ez, bastante hurrien. Solua euen gure solue, bueno, bidetxiurra geunken eindda. Eta, Artzubi, errekara. Bai, e?
- Erropak eta astuan edo bizkarrian?
- Ke ba! Orduen sasoie ta...
- Barriñuan...
- Barriñoian, bai. Barriñoia holan aldemenien hartu ta, buruen ez, e? Baiña aldemenien hartu ta...
- Zuek ezautu dozue gauzak buruan eruaitten hemengo emakumiak?
- Bai, bai. Hemen...
- Zeuek sekula ein dozue?
- Geuk ez, e? Baiña Katalin Antoiñakue, haxe dauket ikusitte buruen. Ta gero beste bat San Prudentziotik etorten zan eta harek be bai, zestue baiña holan, zien zestuek, bai, eta bi zeraaz, jesus, asia erdixen eta bi tapakin horrek zestotxuok, haittek eruaten zittuen buruen.
- Eta buru gaiñien ze jarten auen?
- Bai, holako zer bat, sorji bat edo ez dakit ze esaten utsen.
- Sorjixa?
- Bai. Gurien ez, e? Gurien ez, hori ez dot ezautu.
- Baiña zuk bi emakume ikusitta dakotzu...
- Bai, ikusitta dauket nik hori. Antoiñakue ta gero San Prudentziokue ez dakit zan, Jesusan amama ez dakit ez ete zan. Bai, bai, bi behintzat ikusita daukat.
- Ia, ia.
- Bai. Ta hori kalien be esaten auen, [labadero], orduen ez, klaro, ez zauen etxien zerik eta labaderotara fateko, kalien be jentiek eruaten auela buruen zera.
-(Pilar Bastida) Baldia.

- Bai.
- Baldia orduan erropakin.
- Erropakin.
- Bai, bai, bai.

3.71. Angeles udaletxera ezkondu zen

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/027
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 01:12:21. **Bukatu**: 01:14:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Angeles udaletxera ezkondu zen, bertako inspektorearen semearekin ezkondu zelako, eta bertan etxebizitza zutelako. Angelesen semerik nagusiena udaletxean jaio zen.

Transkripzioa
-Orduen, zerak, kanpaiak, gero ni ezkondu nitzenien, ba, klaro, honeik etxiok hasitte azen eitten. Eta…horreik e, bestiok. Eta, ba, aukien zera, lelengokuek opziñue hartzeteko… etxie, etxie hartzeko, ba ezkonbarrixek eta ezkondutakuek. Ta ni ezkondu ta ama… suegriaz bizi izen nitzen. Bai. Ta hi, zerak esaten dau gurien, Juan Ramonek esaten dau, “E! Ni Mondraueko aiuntamientuen jaixotakue!“. Nire semiek, berak esaten dau “Ni Mondraueko aiuntamientuen jaixotakue!“. Klaro, orduen etxien eukitten zan umie ta. Oin ez baiña.
-Baiña eta zueik aiuntamientuen bizi ziñein ala?
-Ni, klaro, ezkondu, eta, ba, amagiñarreban etxera juan gitzen.
-Eta amagiñarreba, amagiñarrebia nun bizi zan?
-(Laguna) Alguazille zan […].
-A bai, zan inspektorie…
-A!
-Nire gizonan aitta. Inspektorie zan. Migel `Haundi´, ez dakit entzune [dauketzun] be ez.
-Migel haundi?
-Migel haundi. Eta gero, ba auken pisue, emoten utsien horri ta sekretarixueri, etxie aiuntamientuen goixen.
-A jontxo!
-Ta ni hortxe, aiuntamientuen goixen jaixotakue da gure, nire seme nausixena.

3.72. Eskola garaiko jolasak

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/006
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:05:06. **Bukatu**: 00:05:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena**: Eskola garaiko jolasak aipatzen ditu: 'toketorreka', 'tortoliska', sokasaltoan, 'txirikileka', 'hanka kozkoka'... Garaian garaiko jolasa izaten omen zuten. Neskak eta mutilak ez zuten elkarrekin jolasten.

Transkripzioa
-Eta han, eskola denporan, errekreuen, kasigaute ez bazengozein behintzet, ze jolas edo zer eitten zeuein?
-Ba segun ze epoka zan. Batzuetan toketorreka be bai. Hurrengo tortoliska. Hurrengo sokasaltoka. Garizuman txirikilleka. Ta, ze denpora zan, horixe.
-Eta neskak mutillekin batera…?
-Ez, ez! Bakotxa beran lekuen. Ta hanka-koskoka be bai, ein arrai batzuk lurrien, eta gero hankiekin han arraien ez ipintteko harrixa. Harrixe ipintten bazan han arraian, galdu eitten zauen.
-Hanka-koskoka esaten zeuein?
-Bai, hanka-koskoka esaten gutsen.

3.73. Nobio garaia

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/051
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:39:15. **Bukatu**: 00:41:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Senarra nola ezagutu zuen kontatzen du. 25 urte zituela hasi zen senargaiarekin, eta 29 urterekin ezkondu ziren. Nobio garaian, inguruko mendietara joaten ziren. Arantzazura erromesaldian, Bergarako Pazkuetara... joan ohi ziren. Trenez ibiltzen ziren gehienetan.

Transkripzioa
-Eta nola ezautu zeben, ba, zure gizona izango zana?
-E… lanera?
-Nola ezautu zeben.
- Aa! Ba, ba kuadrillan plazan ta lagunek, kuadrillan.
-Zenbat urtekin hasi ziñan nobixo?
-Eneee! Harutze… ba hogeta bost edo.
-Hogeta bostekin hasi.
-Bai. Baiña aurretik, ba, beti kuadrillan.
-Ya. Eta hogeta bostekin hasi ta gero hogeta beratzikin ezkondu esan dozu.
-Bai, bai.
-Eta nobixo denporan mendira-eta faten ziñain?
-Bai, holan, por ejenplo, Koruetara jaixetan eta Udalara ta holaxen, baiña bestela oingo moduen ez, e? Orduen ez auen hainbeste libertade be ez ta… ba ez zan hori holan ibilteko epokie edo, ba ez dakit.
-Bai, bai. Eta Arrasatetik kanpo urteteko ohitturarik, Bergarara edo Arantzazura edo…?
-Bueno Arantzazure beti, peregrinaziñuen. Hemetik San Prudenziora trenien o… bai. Ta gero han hartu trena ta Oñatire, ta gero Oñatittik oiñez Arantzazura.

-Ama Birjiña egunian?
-Bai.
-Ya. Hori urtero eitten zeuein?
-Urtero, bai.
-Eta Bergarako pazkuetara ta…?
-Bai, baitte. Baitte. Bergara be bai. Trenien.
-Trenien ibiltten ziñein zueik gehixenbat?
-E?
-Zueik gehixenbat trenien ibiltten ziñein?
-Beti trenien, bai, bai. Orduen trena euen bakarrik.
-Eta San Prudentzioko jaittara…
-Hara oiñez.
-Hara oiñez.
-Bai. Juan ta etorri.

3.74. Senarraren aitajauna arabarra

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/052
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:41:08. **Bukatu**: 00:41:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Inaziaren senarraren aitajauna Arabatik joan zen Arrasatera bizitzera. Maisua zen, eta `Maisu txiki´ esaten zioten.

Transkripzioa
-Zela eukan izena zure gizonak?
-Lucio.
-Apellidua?
-Velez de Mendizabal. Arana.
-Nuntarra zan bera?
-Hamengue. Aittajaune eukien arabarra. Arrasatera etorri ei zan maistro. Ta txikitxue, ta esaten utsien `Maixo txiki´. Ta ondiokon `Maixo txiki´ segiruten dau.
-Aittajauna orduen zuk, aittak e... zure gizonaren aitta...
-Aittajaune zan arabarra.

3.75. Ezkontza eta eztei-bidaia

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/054
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:42:04. **Bukatu**: 00:43:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

- **Laburpena**: Santa Agedan, Ignaziaren auzoan, ezkondu ziren. Eztei-bazkaria baserrian egin zuten. Donostian, Zaragozan eta Santanderren egon ziren eztei-bidaian.

Transkripzioa
-Eta nun ezkondu ziñain?
-Hementxe, Santa Agedan.
-Santa Agedan?
-Bai.
-Eta bazkaixa-edo nun in zeuein?
-Basarrixen. Orduen etxien akostunbretan zan, ta bertan basarrixen. Koziñerie hametik juan zan geure lagun bat eta...
-Goguen dakotzu zer jan zeuein?
-Eneeeee... ba ez dakit... antzik be ez... ez naz... idearik be ez.
-Eta gero egun bertan juango ziñein biajian, ezta?
-Bai, bai. Zera. Familixakuek kotxie baeukien ta juan gitzen Donostira.
-Kotxian?
-Ez. Zera, handik Santa Agedatik hona kotxien, ta gero trenien.
-Donostira.
-Bai.
-Zenbat denbora in zeuen Donostian?
-Ez, gero Donostitik Zaragozara. Ta gero etxera.
-Zenbat denpora biajia?
-Ba ez dakit, hamabost egun edo. Gero Donostiatik Santanderrera. Han koñatie geuken mojie, ta ha bisittau eta gero etxera.

3.76. Ume denborako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Sagasta Elorza, Matias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-175/009
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:10:22. **Bukatu**: 00:10:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetan, kaniketan eta txapetan ibiltzen ziren jolasean. Pilotan, gutxi. Zaldibarko frontoi handia aipatzen du. Mutikoak mutikoekin eta neskatilak neskatilekin ibiltzen ziren.

Transkripzioa
-Jolasak eta ze jolas klase eitten zeuein?
-Jolasak orduen? Kanikak eta, kanikatan ta, ta txapak edo esaten dutsie, txapetan ta holako gauzatan.
-Ta pelotan ta eitten zeuein?
-Pelotan gutxi.
-(Laguna) Ez auen frontoirik be hamen.
-Zaldibarreko frontoi haundixa.
-(Laguna) A, Zaldibar, Zaldibar. Baiña esan gure dot /gurot/...
-Bai, Zaldibar frontoi haundixe.
-Eta ze egoten ziñain, neska-mutillak alkarrekin edo aparte, edo zela zan?
-Ez, mutikuek mutikuekin eta neskatillak neskatillakin ibiltten gitzen.
-Aparte?
-Bai, aparte.

3.77. Ama, elizkoia

- **Hizlaria(k)**: Sagasta Elorza, Matias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-175/013
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:15:14. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- **Laburpena**: Amari buruzko azalpenak. Matiasen ama oso elizkoia zen: goizetan mezara joaten zen. Etxeko denak errezatu behar izaten zuten arrosarioa.

Transkripzioa
-(Laguna) Nik ezautu nauen ama?
-Bai, bai.
-(Laguna) Zeozer akordua... ze urtetan hil zan? Noiz?
-Ha...
-(Laguna) A, bai, ezautu nauen, bai!
-Ha mezara faten zan hamendik oiñez fanda parrokixara. Buenooo. Hamarretako mezara lenengo. Hamarretako mezara fan. Etxien bazkaldu, etorri hona parrokixatik, barriro Ezpeletara.
-(Laguna) Faten zan.
-Bai. Ta etxien egunero-egunero Errosaixua ordu betekua.
-Amak hori?
-Amak. Danokin, e! Danokin. Ogera faten itxi be ez! “Eee!! Lelengo errezau ein biher dok /bihok/!!“
-Neuk be pasau dot hori. Nik amandriekin.
-Ia...

3.78. Monterroneko kondearentzat lanean

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/030
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:40:01. **Bukatu**: 00:42:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Bixentek lan asko egin zuen sasoi batean Monterroneko kondearentzat; 28 urtean jardun zuen berarentzat lanean.

Transkripzioa
Eta zuk, Bixente, Monterroneko kondiandako lan asko eitten ziñuan, ezta?
A bai! Horrei bai! Leneko lana in otsen herraje aundi bat, honeik´e palaziutan eta eoten die herrajak "que sobresalen de la pared", ez dakitzu, horrek haundixok, hola behitik urtetzekuk, bat euken ta harekin gura euen, kapillia eukon or, oin be han eongo da, ta harakotxe erdi bi indda teillekin

itxi gura euen, ta bueno, in notsen lenengo lana haxe izen zan; ta gero beste antortxa bat eukitzeko holako antxiñeko, bueno, dana antxiñeko gauzie gustaitten jakon. Bera Madrillen bizi zan? Bai, hona etortze zan uran, hemen ez dakit hiru hillabete edo zenbat itten zittuen, ta hemen itten notsenak gehixenak Madrida eruten zittuan, bai, Madriden erregalo itten otsen beste batzui, eurek euren artien erregalua.

3.79. Herriko pertsonaia ezagunak

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/002
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Viteri nor izan zen. Filantropoa. Herriko eskolak berari esker egindakoak. Arano maisua. Pertsonai ezagunak: Etxezarreta; Gerra; eta abar.

Transkripzioa
-Berba egitten genbitzen Viterin eskoletaz. Zein zan Viteri?
-Bueno ba, Viteri izan zan filantropo bat, bere fortuna osua itxi auela eskolak eraikitzeko, eta, nik dakidala, Hernanin, Errenterixan eta Arrasaten. Baiña uste dot herri gehixaotan be badaukela. Egongo da dokumentaziñua nunbaitten. Horra etorri zan Maixu Arano, eta zan maixu bat, berak emuten utsen mutillei eta bere andriak neskai. Eta Viteri fundaziñoko eskoletan emuten zittuen. Orduen Etxezarretako uezaba, eta Gerra, zelan esango dotsut /esangotsut/, leheno egon zan etxe bat zeren aurrian, San Frantzisko eleixian aurrian, bota ein auena...
-[Okorotegi] dauen lekuan?
-[Okorotegi] dauen lekuan ez. Oin etxe barrixak daz, hor panaderixa bat dau han behian. Barberengoatik oin Elkorok dauken lekure. Hor euen kastillo antzeko, muralla eitten euen etxe bat, eta Gerra hori zan ba be bai liberala ero idea ez oso eleixakuek. Horrek zien apur bat..., bueno eukien ikesitta kanpuen Inglaterran-eta, Paristik-eta ibiltten zien-eta, bueno, hemengo jentiek baiño euken ba, kultura gehitxuao euken; hori da. Eta bueno, horrek Maisu Aranon ikasliek izen zienak, jentiek esaten auen kalien igarri eitten jatiela. Ze eukien edukaziño bat, eta modalak be erakusten utsien. Azeran zelan itxi jente nausixei pasetan eta horrek danok be erakusten utsien. Osea, modalak bai, baiña morala be bai.
-Baiña ez moral kristaua?
-Kristau morala ez; etika zentzu gehixauan. Eta bueno, eta horrek eragin haundixa euki auen.

3.80. Koruetako auzo-eskola vs Arrasateko eskola

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/015
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:29:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Koruetako eskola askoz aberatsagoa. Gabonetan jaiotza ipintzen zuten abadearen laguntzaz. Aldaketa handia Arrasatera joan zenean.

Transkripzioa
-Gure denporie ba pasau ein zan hola. Ze nik hamaika urtetik hamalaura bittartien ibilli nintzen hor, ba goixeko eskolie bakarrik. Koruetako eskolie askoz be aberatsaue zan. Eta gero, gaiñera, zeukotzun denpora asko jolas eitteko. Etorten zien Arientzako mutikuek be bai, harekin be jolas eitten gauen. Eta han tremendo pasetan gauen. Gero Gabonetan-eta, Jaiotzaik ez, orduen Nazimentua ipintten gauen. Abadiek ekarten oskun kamaratik kaja baten figurak-eta, betik beste kaja baten, izarra ia eindda auen, hari bonbillia ipiñi, eta piñu baten ipintten gauen, beti bardiña zan. Eta bueno ba, parte hartu eraitten oskun geuri ipintten nazimentuoi, eta bidiek eitten serrautsekin, eta... Niretako izen zan kanbixo haundixa hona etorri giñenien.

3.81. Zarautzera udako oporretan

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/017
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:31:10. **Bukatu**: 00:32:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Medikuaren etxean lanean egon zen denboran, asko irakurri zuen. Udan, Zarautzera joaten zen beraiekin. 14 urterekin ikusi zuen lehenengoz itsasoa.

Transkripzioa
-Han euki nauen aukerie irakurtzeko, bibliotekia eukien etxien. Eta butakak!, butakak eukien. Eta zan etxe zahar haundi bat; hori farmazioi oin bota daue ba, plazako farmazia? Haren goixen bizi zien. Ha beroketako bi estufa. Iketzakin ez, kokakin. Berotasun gehixao emuten dau; bi estufa, bat eukien aurrekaldien eta bestie atsekaldien. Bueno, han deskrubriru nauen hori. Eta gero harek uran faten zien beranietan Zarautzen, etxie eukien, eurak Zarauzkuak zien-eta. Lenengo aldiz itxasua hamalau urtekin ikusi nauen. Bai, hara fanda, klaro. Baiña orduan denporan Mondrauetik faten zan jentie diez y ocho juliuen, jai izeten zana, Santixao egunien... Trenien, ein trasbordue Maltzagan, eta trenien faten zan jentie Zarautzera, plaiara. Niri tokau jaten horrekin fateia, neskatilla zuri-zurixe. Eta gero egun guztie

uretan, egun guztie. Ze, klaro, niñerie nitzen, neskatilliaz batera. Eta harek han eukien lehengusuek-eta. Bai, han ondo pasetan nauen. Bi uratan fan nintzen Zarautzera. Eta gure eskola-kontuek horrek.

3.82. Neskatan eta mutiletan Eskoriatzako plazan

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/018
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:32:50. **Bukatu**: 00:36:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Mutiletan nola egiten zuten. Musika Banda egoten zen jai egun arratsaldean. Mutilak dantza eske joaten ziren. Bi pieza jo ondoren, gramola jartzen zuten. Tarte horretan, neska-mutil asko pasiora joaten ziren. Alguazilak plazan tokia egiten zuen.

Transkripzioa
-Eskola-kontuak aparte itxita, zuk ez dozu ezautu neska-laguntzarik eta?
-Ez, ze ni ia Mondrauen bizi nintzen, eta Grupo San Juaneraiño, baiñe portala egoten zan okupaute. Segun zenbat jente bizi zan, nik suertie nauken, aizta bat bakarrik nauken, eta nire portalien sasoi bardiñeko beste nobixorik ez zan egon. Eta suertie euki nauen. Eta arkupeietan be bauzen eskiñatxuek. Ez dakitzu, oso arranpalue izeten zan portaletan sartzie, ia nobixo serixue euki biher zeuen. Baiña han eskiñatxuek bauzen, eta han auzokuek eskiñak hartute eukitten zittuen. Hori bai, ze izeten zan, bandie egoten zan Mondrauen; atsaldeko xeirek inguruen-edo hasten zan bandie, joten zittuen bi pieza, harek dantzan ein biher zien derrigorrez. Urteten gauen neskak dantzan eta mutillek etorten zien dantzie eske: "Mesedez..." Eta bueno, ezin bazan esan ezetz, zuk ez bazauen gura batekin dantzan eittie, beste batekin gura bazauen, ba batzutan buelta ein eta gero soltau bestiekin fateko, eta holako... holakuek. Eta gero egoten zan gramolie. Deskantsue eukitten auen, bi pieza jo eta deskantsua musikuek. Batzuk geldiketan zien gramolan dantzan, eta beste batzuk, eta gehixenak, estaziñoraiño pasiua. Emuten auen estaziñotik joan eta etorrixa eitteko, barriro bi pieza tanda dantza eitteko. Gero afaittara, afalordua izeten zan, zortzi t'erdiak-edo. Eta barriro beste bi pieza-tanda egoten zien, eta azkenien beti-beti-betik pasodoblia. Mutil batzuk euzen ez zekixienak dantzan, eta azkenengo piezarako ia apurtxo bat entonauta egoten zien txikituekin, eta pasodoblia. Animauena izeten zan haxe. Eta aguazilla egoten zan, jentie plaza erdiraiño faten zan, eta lekue ixteko, makillatxuaz eskiñie joten-joten-joten, leku itteko dantzan itten auen jentiei. Eta eurixa zanien be aterkiñe zabaldu eta dantzan eitten gauen.
-Orduan jentia kabiduzen ez zanien, aguazillak apartatetan zittuen?
-Bai, eskiñara.
-Begiraliek?
-Bai. Eta begiraliek izeten zien ama danak; kontroletan auen... Harekin dantzan... "Aurreko domekan be harekin ibilli zonan dantzan. Enterauko non." Eta gero enteretan zien zerbaitt auen, ez auen edo. Dana auen

kontrolaute; eta handik ezin zeikizun urten. Takolora pasietan faten zienak-eta, ixe exkomulgaute. Hori ia zan... Betik hesixen barruen ibilli biher ziñen.

3.83. Emakumeak eta taberna giroa

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/020
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:37:45. **Bukatu**: 00:39:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Emakumeek txikiteorik ez zuten egiten. 1963 inguruan hasi ziren neskak tabernara bakarrik joaten.

Transkripzioa
-Txikiteue zelakua izaten zan?
-Txikiteuek? Ba beitu, txikiteuena dauket nik kontu hau esateko. Txikiteue emakumak ez geuen eitten. Txikiteue eitten auen gizonak, eta neure sasoien, eta nabil esaten hirurogeta hiruan edo, hasi giñen emakumak tabernara bakarrik sartzen. Eta honek, Pepe Agiriano-eta, ondion be hor Portaloian egoten da hori, horreinddako izen zan izugarrizko eskandalua. Ze euren espazio bat guk hartu ein gauen. Eta akordetan naz behin lanetik urtenda, alkarrekin lana eitten gauen, lanetik urten eta etorri nintzen tabernara; eta orduen Bar Mendi zan ez hola taberna-taberna, hola Plus Ultra zan moduko taberna; zan hola apurtxo bat holan kafeterixa estilora-edo. Eta bueno, Coca Colan bat edo, Kasen bat edo, ze aukerak be ez euzen asko gehixao: ardaue, zurixe, baltza, koiñak hiru edo lau marka, Jerezen bat, Malaga Virgen-eta, ba aukerak be ez euzen asko. Guk Kasa-edo, modernuenak horretxek zien Kasa eta Coca Colia, holakon bat hartzen. Sartu zien gizonok. "Ez jakixau ze ikusi bihar doun, andrak hasi dittuk tabernara sartzen bakarrik eta. Ointxe ez jakixau ze ikusi bihar doun!" Larri.

3.84. Sexuaren araberako desberdintasunak lan-munduan II

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/022
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:41:35. **Bukatu**: 00:45:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Emakumeak kooperatiban sartzen zirenean, ezkonduz gero lana utzi behar izaten zuten. Enpresa kapitalistetan egoera zein

zen. Emakumea ezkontzen zenean, dotea jasotzen zuen. Beraien generazioa, aurrekaria gauza askotan.

Transkripzioa
- Kontratue firmetan gauenien sartzerakuen kooperatiban, ia firmau eitten gauen ezkontzen bagiñen urten ein biher gauela. Baiñe zuk han papelak firmetan zittuenien, zelan ez zeukatzun asmoik ezkontzeko, eta ezta pentsau be sekule aillegau biher ziñenik hara, firmetan zeuen eta sartzen ziñen ba... Baiña klaro, niri pasau jaten moduen, hogeta hiru urtekin ia pentsau nauen ezkonketie, etxie be hartute geuken, eta ezkontzen banintzen soldata batekin geldiketan nintzen. Bueno, hau etxiau alkilau geuen urtebeterako, eta urtebete gehixao; eta nire proposiziñuek zien eleixaz ezkondu; ze, hori bai, oso katolikuek giñen, eta juzgauz ez ezkondu, oin aldrebes eitten dana. Ze juzgauz ezkonketan banintzen, lanera ezin nintzen joan. Baiña hori zan eskandalu gogorra, eta ezta, ezta... Eta Antonek be ez usten ametiduten hori. "Bueno! Hori zelan baiñe!" Bueno, ezkondu nitzen, izen deille gure dana, eta galdu nauen lana, eta nire moduen askok. Ondiok urte batzuk egon zien ba jentiek urten izan biher auela derrigorrez. Ez zan opziñozkue, eta beste enpresetan bai, kapitalistetan zan opziñozkue. Oin, euken tranpa bat: ezkonketan zanai emuten utsen dote bat kapitalistetan, enpresa kapitalistetan. Ba zortzi urte lana ein bazeuen, urteko hainbeste. Eta klaro, antikonzeptibuek be lenengo hartzen hasi giñenak die nire sasoikuek, eta hori medikue bazan zure fabore, ze prohibidute euen ez elixiagaittik bakarrik estauduegaittik be bai. Orduen, klaro, normalena izeten zan ezkondu eta handik urtebetera umia eukittie. Eta ez bazeuen eukitten, mundu guztiek preguntetan otsun: "E, ez dozu balixo, ala?" Hori esaten zan. Orduan jentiek zer eitten auen, ba, klaro, hori diruoi hartzearren, ba urten eitten auen fabrikatik, gehixenak urten eitten auen. Ez baeukien postu on-on bat, edo gero amaman bat umie zainketako. Ba bueno, guri halan tokau jakun. Baiñe gure generaziñue izen giñen lenengo prakak jantzi gittuenak, oso txarto ikusitta. Ikusitta dauket Bilbon, goxeko zortziretako mezetan, San Nikolas eleixan, neska bat, mendirako-ero, prakakin euen. Eta abariek pulpittotik kanpora bota auen ha. Osea ke pentsau zenbat gauzatara adaptau biher izen garen gu. Batzutan pentsetan dot plastilinazkuak garela. Zelan aldatzen diren urte gutxitten...

3.85. Gizarte aldaketa: belaunaldi berriak

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/027
- **Iraupena**: 0:00:15. **Hasi**: 00:53:45. **Bukatu**: 00:54:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Beraien belaunaldia, aurrekaria hainbat arlotan: janzkera; aisialdia; sexu kontuetan; eta abar.

Transkripzioa
-Ba guk lenengoko prakak, lenengo tabernan sartu, lenengoko

antikonzeptibuek, gu izan giñen "los conejitos de Indias". Eta gero begitu zenbat gauza ikesi biher izan doun.

4. Natura

4.1. Ume txikiekin egiten zen jolas-kanta

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/037
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:44:10. **Bukatu**: 00:44:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Natura » Flora
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umeei atzamarrekin edo karduberarekin egiten zitzaien jolas-kanta.

Transkripzioa
- A! Bai. Hori umiai esaten jakon: "Liliritte, margaritte, ta hi sobraritte". Ta izeten zien, holako zerak izeten zien.
- Baiña margarita landare batekin...
- Bai, bai.
- Esplikau hori.
- Hori zan, kardubera bateaz. Karduberiak eukitzen dittu holako... [guatina] moduko batzuk, eta hareik arrankau egitten zien ta "Hau liliritte, hau Margaritte...", ta gero putz eitten zan ta "hau bestiau sobraritte!" Ta egoten zien holako zerak. Pasatzen dana da, oin neuk be gauza asko ahaztuta dauket.

4.2. Txorien kantu ezberdinak

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-010/008
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:14:18. **Bukatu**: 00:17:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Natura » Fauna
- **Laburpena**: Txoriei ematen zizkien jatekoak. Gasteizko txapelketa batera txoriak eraman eta irabazi zuenekoa. Kardantxilo eta Larra-txorien kantuen inguruko aipamena eta "mistua".

Transkripzioa
-Nik ez dakit arrak zenbat urte eingo euen, erdixek inguru bai behintzet. Eta hareik gero jaten dabe, emuten notsen, bueno, normalki arrautza gorringue egosi ta ha izeten zan jan jan hori, normalki hazi arte. Baiña gero eitten notsen arrautza gorringuekin batera nahasketan notsen piper hautsa. Ta piper hautsek gorrittu eitten zittuan. Ta mistuak eurak be, baiña

zelako mistuek atara nittun. Ta lagunek esan eusten: “Hi, Gasteizera juan biher juau /bijuau/ holako egunetan konkursue jak” eta bestie ta eruen gittuen Gasteizera ta lelengo premixua. Laukotien. Oseake, lau eruan eta lelengo premixua atara. Ta holakotxiek gintzen.
-Mistuak zer izeten dira, gehixau Kanarixo estilokuak edo gehixau Kardantxillo.
-Ez, Kardantxilluan estilokuek asko be gehixau. Bai.
-Kolore aldetik eta?
-Kolore aldetik eta bai, bai. Askoz be gehixau, bai.
-Ta kantuan zer eitxen dabe?
-Kantua? Ba kantue, klaro zuk eukitten bozu kanarixon bat ba segittuen Kanarixuana, baiña komeni izeten da mistuei zera erakustia, hau Kardantxillo kantua. Hori da baloretan dauena eurak, kardantxillo kantua. Ta orduan Kardantxilluen aldien euki ta Kanarixue beste leku baten, Kanarixue han ez deixela euki, entzun. Bestela segittuen ikesten dau ba!
-Ta polittaua da…
-Kardantxilluen zera, baña askoz be fuertiaue joten dau gaiñera ta berak. Bai, kantetan askoz be inddertsuaue da.
-Eta Larre-txorixana?
-Larra-txorixana elegantie, urten eusten kolorez ta zerak. Ta ha be dotor, baiña harek kanarixuena ikesi euen ta kantetan euen.
-Orduan, kantua ikasten daue beti entzuten dabenana.
-Bai, entzuten dabenana, bai entzuten dabena gehixo.
-Gehixen bat zer eduki dozuz, Kardantxilluak, honek Larra-txorixak, Kanarixuak?
-Eta horretxek mistuok. Ta gero ba, horreik euko nittuen nik ba ez dait iguel zortzi bat urte inguru baten edo eukiko nittuen etxien. Ta gero ba kanpora ta joan biher izeten gauenien ba problematxue izeten zan. Joe, hareik zainketako ta baten bat biher ta bestie ta ia familixie be hazten ta kanpora gerua ta gehixau urtetan gauen ta. Ta beste aldetik andriek egun baten planteau eusten. Klaro hango alpistie ta karajuekin ba betik zikiñe. Ta hori ni beti garbiketan ibiltten nitzela, beti gaiñien. Ta andriek esaten eban: “Bueno gizon, ointxe, ointxe zerbait pentsau biher dogu /biu/. Edo zeu edo txorixek hemendik kalera”. Ta neure artien: •Bueno bueno, andriekin geraketia hoba izango da txorixekin geraketie baiño!”, ta holaxen itxi nauen. Txorixon emon nittuan. Batai ta bestiai ta. Ta saldu be bai. Mistue ta ondo saldu nittuen gaiñera batzuk. Ta holaxen.
-Eta afiziñua orduan txikitxatik.
-Txiki-txikitatik. Bai, ikusten edo zainketan txorixek-eta. Eta gero zozuei ta bidegarruei ta honek be asko jarraiketan notsen. Bidegarrue be euki nauen zerien, etxien. Bidegarrue hartu afixan ta norberak hazi eta edarto kantetan eban.

5. Aisia

5.1. Inuzente eguneko kanta

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Gallastegi, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-001/048
- **Iraupena**: 0:00:18. **Hasi**: 00:52:34. **Bukatu**: 00:52:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena**: Inuzente egunean abesten zen kanta.

Transkripzioa
Bai, inuzente egunien izeten zan: "Iñuxente, babalora, txakurran buztana gora-gora!" Ta, bueno, ba, bati iñuxente erain ta bestiai be iñuxente erain.

5.2. San Juanetako ohiturak eta kantak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Arregi, Modesta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-005/021
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:17:55. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Herriko jai nagusiena, San Juan. Gonbidapenak. Etxe ondoan San Juan sua egiten zuten beti. San Juan kanta. Umea zenean, antzinako kanta abesten zuten "Igaz ere San Juan, San Juan zan eta". Gerora, kanta berria "Ez dago inon gizonik".

Transkripzioa
Bestie:

Igaz ere San Juan San Juan zan eta
aurten ere San Juan Bautista.
Jesukristoren lehengusua zan
San Juan, San Juan Bautista.

Enda, ba:

Ibai guztiak agortu dira
datorren urtian mutil-koskorrak
nun egingo dute igari.

Ta, gero, ba... Ez. Hori oin barrixetakua...

5.3. Araba eta Gipuzkoa bitarteko mugan estraperloa

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/003
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:01:18. **Bukatu**: 00:03:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Lanbideak » Udal langileak

- **Laburpena**: Arrasaten jaio zen. Lau urte zituela, gerra hasi, eta alde egin behar izan zuten. Lehenengo "Cuatrovientos"era joan ziren, Aramaio aldeko baserri batera. Bertan estraperloa egiten zen. Arrasateko jende asko joaten zen bertara, Arabara, ardo bila, zergarik ez ordaintzeko.

Transkripzioa
-Ta, lau urte nittuela, ba, gerrie etorri zan, eta, gerrie etorri zanien, ba, hamendik alde ein biher izen geuen. Juan giñen Bilbora. Bueno, juan... igix, igixi Bilbora. Bueno, lehenengo juan giñen hemendik “Cuatrovientos”era. Nik “Cuatrovientos”... ez dakit jakingo dozun /jakingozun/ nun dan. Hori dago Gesalibar eta Aramaixo bittartien, baiñe goixen, mendixen dau. Eta hori basarri hori zan e, denpora baten, ba, izatez Aramaixo partia, Araba. Eta han tabernie eukien, ta han estraperlue eitten zan, denpora baten. Ta estraperlue eitten zan, ba, Arabatik Gipuzkuara, han kamiñuan euen e, esaten jakona kataia, esaten jakona. Ta han ordaintzen zan zer bat, diru bat, ardaue-ta ekartzen eutsienai, kentzen utsien, ba, ez dakit zela deiketan utsien be... izen bat berezixe euken. Bueno, ba, han ordaintzen zan. Ta handik pasetan juen. Baiña ha ez ordaintzearren, ba, zer eitten auen? Ba gure aittejauna zanak, “Cuatroviento“ra, ba han tabernia aukan, ta han eukitten auen ardaua. Ta hemendik, bai Santa Ageda aldetik, Garagartza, ta horko jentia, juaten zan euren garrafoiekin ta hara, ta han hartzen [euen] ardaua, ta ezer ordainddu barik, ba, pasetan zan hona. Ta hango anekdotak oso polittek die. Gure badozue /gurebozue/, holako bat be kontauko dutsuet /kontaukutzuet/ nik, e!
-Bai.
-Holako anekdota bat be. Ba, baten, hori, gure ama zanak kontaukua...

5.4. Kutxiloka

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-006/026
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:44:25. **Bukatu**: 00:46:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Mutilek "kutxiloka" egiten zuten, artzainen jolasa. Galtzen zuenak lurrean ondo sartutako ziri bat atera behar zuen ahoarekin.

Transkripzioa
- Gero kutxilloka be bai, kutxiloka izeten zan. Jo, hori be bastante gogorra izeten zan, kutxilloka. Orduen, ba, artzai-eta dezente ibiltzen zien ta artzaiek beti eukitten euen kutxillotxue ta zera, ezta? Ta, orduen, artzaien jolasa dala uste dot nik, baiña behintzat kutxiloka guk eitten gendun. Izeten zan: kutxillua hartu eta holan ifiñi bekokixen, holan, ta buelta emun ta "tak" sartu ein biher zan lurrian kutxillue. Bai. Ta holan. Ta gero bestaldera igual. Barriro kutxillue hola hartzen zan ta atzerutza. "Tak" holan ein ta "tak" , sartu biher zan lurrian. Holan. Ta holan. Ta sartu edo ez sartu. Gehixen sartzen zittuenak, hak irabazi eitten euen. Ta gero ze eitten zan? Holako zotz txiki bat eitten zan kutxilluekin eta ha ipintten zan behien, bedar artien. Eitten zan okotsendako eta surrendako huekua ein

eta han sartzen zan bittartien zotza. Eta zenbat eta gehixao irabazi batek, ba, orduen harek eukan deretxue golpiek emuteko hari zotzai. Ta sartzen euen lurrien. Ba, lehelengo, goittik holan hasten zan --zotza holako altu samarra--. Joten euen kutxilluakin "tak!" eta batzuetan jo-ta lurren barreneraiño. Ha atara ein biher zan gero. Ta ha atarateko zer? Surre eta ahuen huekuen hartu hagiñekin, ta lur ta guzti bokauan atara bihar kanpora. Hori zan beste joku bat.

5.5. Jaiak, dantzak

- **Hizlaria(k)**: Galdos Zubia, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-008/041
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:59:14. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Musika
  Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena**: San Nikolas; Santa Ageda. Santa Agedako plazatxoan hiru korro egoten ziren dantzan, hiru soinujolerekin. Arrasaten Santo Tomas egunean bost korro ere ezagutu izan ditu.

Transkripzioa
-Eta San Nikolasetan edo?
-Ez, horrek harrezkerokuek diez e!
-Horrek berandukuau dia?
-Bai, gure denporan ez. Ez, horreik ya ni haundi ein ta gero be Mondrauen ta be, aurretik ez, eske Santa Ageda bakarrik akordetan naz, Santa Agedak bai. Bai, edurretan kabau ezindde iguel mutillek, ez dakitzu? Klaro bidiek egoten zien horrenbesteko alturakue, alturan edurra eta ha kabau ein biher zan /bizan/. Oin samur batzen daue fan ta automobilekin, baiña orduan Santa Agedatan, baiña edurrek haundixek egoten zien. Etorten gintzen hona Santa Agedara, Santa Agedan ni hiru korro ezautute nau. Santa Agedako plazatxuen hiru soiñu-joilla eta hiru korruek ta klaro baten eitten gauenien, dantzan eitten gauenien, hori akabau eitten zan, ha akabetan gauenien beste aldera, baiña dantzan eitteko amorraketan egoten gintzen. Dantzan agarraue edo hemen sano-sano. “Dantzan eingo dogu /eingu/?”. Ta hurrengo sueltu joteko desietan ta trikitixe eitteko. Eta gero bestiena akabetan zanien bestera ta hiru korro. Ta oin ba, kitto. Oin fan die horrek. Ta Mondrauen Bitterixen jardiñien bost, Santo Tomasetan bost korro, korro zati bat ba soiñu-joillak. Bost, lau bai behintzat ta bost be ez dakit ez dien. Ezautute nau. Bai. Ta batai gustetan jakuen batena ta bestiei bestiena. Ta luego bat akabetan zanien lehen esan dotena, bestera dantzan eitteko. Ta alpargatak, barriz, domeketan pare bat ixe apurketan gauen Atxabaltan. Ta alpargatak be karu. Ta nahiku lan egoten zan e! Hareik erosi ein biher zien /bizien/ ta bakitzu, ez euen orduen dirurik. Ta Atxabaltako plazie, klaro, oin labana da, ze oin daz honek, Jesus! Zelan die? terrazo labokin brillante, bueno, labanak, baiña orduen porlana euen Atxabaltako zerien. Ta porlanak obatu eitten eutsen, lakarra eta alpargata danok bigotiek urtenda. Ama: “Alpargatatako lain be ez jonat /etxonat/ eitten zeukin, alpargatatako lain be”. Ta batzuk esaten euskun gatza ta bustitte fateko ta busti gatzakin eta alpargatak hala be apurtu eitten gittuen. Ta ba, ene, oingo moduen, orduen zapata pare bana e! Uda ta negu ta. Zapata tipo bat

egoten zan orduen. Punto. Zapata tipo bat. Gure gazte denporan. Gero ia nausitxuauek gintzenien zapata abiertotxuek, baiña diskretituek, ez dakitzu? Orpue bakarrik tiratxuaz, abiertotxuek, bajutxuek, eta bueno guk orduko ia eukiko nittuen hamalau bat urte-edo.

5.6. Alanbrezko kaiolak eskuz eginak

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARR-010/007
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:12:16. **Bukatu**: 00:14:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Patxik berak egiten zituen alanbrez kaiolak. Harrapatutako txoriak kaiolan kanarioarekin jartzen zituen umeak ateratzeko.

Transkripzioa
-Nik euki nittuen, igual hirurogei bat euki nittuen baten, e! Zeaittik neuken, bueno, kaixolak neuk eitten nittuan hau alanbre kuadrikulau hau hartu, honeik alanbre kuadrikulauek saltzen dienak zerien, ferreterixatan-ta. Hartu ta haretxekin ein kaixola dotore gaiñera ein, holan ta ein departamentuek euren zerakin, hau, zela da? Parrillakin ta hola eta ein nittuen ta ba lau hor ta beste bi neuken balkoien beste aldien ta sei. Oseake, lau kanarixa zerakin, kanarixuekin ta beste bi mistuekin neuken. Ba mistue bat kardantxillua, elegante bat, Bedoñan harrapaukua. Udabarrixen hartu eta astebete barru kanarixiekin taka ein dau honek. Ta bakitzu zela? Kanarixie nik kanarixua arra eukitten nauen kanarixakin ez, beste leku baten ta harek ez eban entzuten. Arra kantuen ta ibiltten zan. Baña kanarixak euezan ondora eruten nauenien, ekitzen zan han zeluen kantetan eta kanarixue entzuten auenien kantetan zera kanarixie, emie, jarten zan zerien, zeluen eta zela kardantxilluekin euen joan da segittuen. Bai, neuken baiña kardantxillo bat baiña holan,pelikulakua, e! Demasa, edarra!
-Bedoñarra?
-Bedoñarra, bai. Ta harekin atara nittun zerak, umiek. Ta gaiña zortzi. Bi kamada. Zortzi e! Lau ta lau ta danak hazi.

5.7. San Juanetako abesti zaharra

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-017/036
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:53:00. **Bukatu**: 00:54:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: San Juanetako abesti zaharra.

Transkripzioa
- Ikusi, hau da. Hau da Mondrauen abesten dana, danak dakixena: "Ez dau iñun gizonik San Juan..." Ta hau da bestie, "herri-heresia" esaten [...] Eta hau da:

Iaz ere Sain Juan Sain Juan zanetan,
aurten ere Sain Juan Bautista.
Jesukristoren lehengusua zan
Sain Juan, Sain Juan Bautista.
Hau da egia, da nagusia
konsolatutzeko mundu guztia.

Ibai guztiak agortu dira,
arrai gaixoak egarri.
Datorren urtean mutikotxuak
nun egingo dute igari?
Hau da egia, da nagusia
konsolatutzeko mundu guztia.

- Oso politta.
- Hau da zaharra esaten dana, e!

5.8. Taberna jarri zuten Udalan

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/005
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:11:04. **Bukatu**: 00:14:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Udalara errepidea egin zutenean jaiotetxera itzultzea erabaki eta taberna jarri zuten baserrian. Ganaduak kendu zituzten eta gizonak Amat-en eta Juanak tabernan egiten zuten lan. Txorizoak ere egiten zituzten.

Transkripzioa
-Eta gero Udelara kamiñue ein bihe euela, Udelako baserrire kamiñue ein bihe euela; eta han bizi zien hiru anai-arreba solteruek, bi anai eta...
-Zeuriak?
-Bai. Hareik etorri zien kalera bizi izeten, erosi auen etxe bat politta Zarugalden, eta ba etxie libre euen. Eta egon zien han urtebetien edo bixen hortik Kastillerrittik etorritako batzuk pe.
-Errentero?
-Bai, errentero. Baiñe haik pe joan zien eta etxie hutsik euen. Da ba gure euenak etxie hartu, hak esaten euen ba kamiñuen dirue pagau ein biha zala baiñe gure euenak hartu ta... Iñok pe ez auen besteik, e, eta guk ipiñi gauen tabernie. Guk ipiñi gauen tabernie... Aurretik be taberna moruen gure etxie... bizi. Matonena esate eutsenetik pe bai. Guk gure akordu guztien be taberna moruen egoten zan. Ba baten bat etorten bazan saldatxo bat domeketan, eta txorixo bokadillotxon bat edo, ardaue edo, gure euena. Hoixe bakarrik, e. Eta ba joan giñen eta ein gauen obratxo bat

taberna bezela, oso kurioso geldittu zan da eta oiñ han dau; zazpi urte. Ni, egixa esanda, ni penaz etorri nitzen. Jente asko ezauketan gauen. Lana ondo eitten zan. Honek pe lana kantidadie ein (...) han.
-Eta tabernatik bizi zineten?
-Ez. Gizona Amat-en. Entzunda daukozu Amat? Amaten gizona. Eta Udelatik Amatera be..., orduen etxauan automobillik, e. Ez euan automobillik. Egon bai, baiñe guk ez gauken. Eta ibiltteko bideik pe ez, ze nire gizona etzan hasi ikesten be ta. Nik esaten nauen beti be baiñe astixe be nun euen ba ordun? Ez geukenan astirik. Eitten gittuen txorixuk etxien. Txarrixa askotan, hamabost egunero txarritxo bat hill eta ostera ekarten oskun. Gero tokau jakun oso ondo, karnazero bat bizi zan gure etxien errentan, da harek karnazeruek gertu ekarten oskun txarrixe hildde eta bueno, lan asko behintzet kendute. Eta azkenien euki gauen urtebete bat edo gehixo iguel, hamabost egun baiño lehenao ostera hil biherra. Eta ekarten oskun etxera ta. Bueno, lan asko ein geuen, ogixe be bai etxien itten gauen.
-Txarrixak zeuek gastatzen zittuein edo?
-Ez, ez, ez, ekarri itten oskun hildde. Ez, ez, ez, guk ez gauken txarririk.
-Ganaurik?
-Ezta, ezta, ezta. Ezebez. Kortan almazena bezela ipinita geukan dana. Kortie zan lekue, ganauena, oin be almazena dauke.

5.9. Udalatik berriz kalera

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/006
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:14:20. **Bukatu**: 00:16:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Ez gizona eta ez alaba ez ziren tabernaren zaleak eta berriro joan ziren kalera bizitzera. Ordura arte taberna izan zena elkarte bihurtu zen.

Transkripzioa
-Oiñ soziedade bat dao eindde han, goiko pisue libre daukou baiñe behien soziedadia.
-Etxe hori da Garaikua esaten xatzuena?
-Bai, hortxe jaixota gaz gu. Hortxe etxien.
-Aintz: Lelengo kalian bizi izan ziñazen eta gero ipiñi ziñuen taberna moduan?
-Bai, baiña gero nire alabak (ez euen) gure tabernaik, e. Eiñ auen gero, eskolan bahebillen. Itxi etsen eskoliei ta etortzen zien maixu batzuk, askotan etorten jakon, etxeko bezela. Ta Axun, gure bozu ointxe joan hori... A, ba ni joango nitzake ikastolara. Baiñe harek ez euken ikastolakua eindde, esan gurot, hak ez euken eindde, maistra izeteko karreraik ez euken. Eta bueno, harek hori gogue hartu euenen eta deziziñuoi, eta nire gizona be tabernarixe etzan. Gustetan jakon asko ardixek, zaldixek eta mendixen ibilli, baitte perretxikuten da zuzetan da holan, holan esateko moruen lelengo kategorixakue. Baiñe tabernaik ez jakon /etxakon/ gustetan. Ta nik pena neuken tabernie ixteko, baiñe... Ba itxi ein biher, eiñ

geuen soziedadie horregaz. Handik urten baiño lenau, eta oin hogeta hamar urte baiño gehixao doaiau, hogeta hamalau bat-edo, hamahiru-edo, ez dakit zenbat dien, holakon bat izengo die etorri giñela. Erosi gauen beste pisu bat kalien. Ta hantxe etxien bizi izen gare.

5.10. Angiozarko Felix soinujolea

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/017
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:50:44. **Bukatu**: 00:53:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Angiozarko itsua soinujolea etortzen zen San Estebanetako jaietan. Halakoetan Juanaren baserrian egiten zuen lo eta bere kasa oso ondo moldatzen zen etxe barruan, itsua izan arren. Oso etxekoa zuten Felix Angiozarkoa. Auzoak ordaintzen zuen soinujolea.

Transkripzioa
- Ze jai klase eta ze eitten zeben?
- San Esteban.
- Egun batekoa izaten zan ala bikua?
- Baitte hirukue be. Angiozarko itxue ezautuko zauen zuk.
- Bai.
- Felix. Ha etortzen zan. Izar be bai, Izar be etorritte dau. Izar soiñujollie, Angiozarkua ha be. Ha etorritte dau. Baiña Felix itxuek gurien lo iñ bai, eta behien komune ero komunan moruko bat aittek eindde ero baeuen eta iñok esan biharrik ez euken, e.
- Andrea:Topau eitten zeuan berak.
- Makilliaz. Eneeee. Eta etorten ero bidien be hori. Han Juanitan (barri) etorri da ta. Ointxe dator Juanita. Eta gure anaiekin..., eta anaiek obera hoienien da lagunketie gure izeten euen, ta “nik etxuat biher lagunik, nik bajakixat nun dauen ohie”. Zu, hori da eukittie burue, e.
- Itxuari musikia joteagaittik auzuak pagaitten eutsan?
- Auzuek pagetan utsen.
- Dantzan eittetik ez zan kobraitten txakur haundixa edo zerbait?
- Ez, ez, ez. Udelako mutillek hortan... Ba guk be han egoten zalako eta jaten euelako ta ez (guntsen) xemeikoik kobrauko, e! Keba! Ha be San Estebanen honraz eta alabantzaz joango zan. Da gaberdi artera arte edo. Ta gero ipuiñek kontetan be itxue ona zan. Txistiek kontetan itxue... Jentiek txalo batzuk eta joten zittun ta bueno! Kristonak, kristonak eitten euen. Baiñe hak gure etxezarreko kontue pasillotik kuartora joenda ohie zabaldute eukitten auen baiñe hak dana ekixen, e. Ez giñen joan entierrora bez eta gaiñera enterau be ez gitzen eiñ, hola joatekon moruen ez gitzen hori eiñ, baiñe oso etxekue (gauen) Felix. Da gero Andresak beran arrebie, Jesusa, lagun haundixe.

5.11. Tabernako lanak

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/019
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:55:49. **Bukatu**: 00:58:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Bazkariak ematen zituzten tabernan. Ortu, oilo eta untxiak ere bazituzten. Hamabostean behin hiltzen zuten txerria txorizoak egiteko. Juanak, ahizpak eta alabak egiten zuten lan tabernan.

Transkripzioa
-Zuek tabernan jaten emuten zenduen?
-Bai, bai.
-Baiña bazkarixak eta...
-Baitte, baitte. Geukena.
-Eta garai hartan orturik edo, oillorik edo bazeunken?
-Oilluek? Bai. Oilluek eta konejuek be bai.
-Ganaurik ez baiña...
-Bai, bai, bai. Guk tabernie ipinitta gero ez. Ganaurik ez gauken. Baiñe aurretik beti egon zien. Anai-arrabak, hiru anai arrebak egon zienien be beti egon zien.
-Eta tabernia ba etxerako oilo eta koneju eta zer?
-Bai, bai. Gero kendu gittunan guk oilluok? Bai, taberna ipinitta gero bai. Lan asko gaukan tabernan, ene! Zenbat tripiki! Eta zenbat makaillau! Eta asteazkenerako gertaketan gittun kantitadie. Eta esateotsut, itten gittunien hainbeste txarri, hamabostien behiñ txarrixa hildako hillek euki gittun, e. Eta dan-danaz itten gauen txorixuk. Txarri danaz txorixuk. Bai, txorixuk saltzen gittunen (...) Baiña orduen irabazi etzan ezebe itten baiñe. Enee! Lana bai, jotake ta jotake ta jotake!
-Lana etzan kobraitten.
-Ezta kobretan, keba! Baiñe nire gizonai etxakon gustetan tabernako... mostradorerik eta ez. Alabai be etxakon gustetan.
-Tabernan zeintzuk egiten zenduen, zuk?
-Bai, eta horrek be bai makiña bat. Gure Axunek be asko eiñ euen lana. Da geu bixok.
-Eta gizonak?
-Gizonak bai baiñe gizonak gutxi.
-Tabernan ez.
-Tabernarako bai, baiña tabernan ez?
-Tabernarako be ez pentsau, e.

5.12. Izara bidez komunikatzen

- **Hizlaria(k)**: Markaide Pildain, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-069/028
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:36:17. **Bukatu**: 00:37:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Gerra amaitu ostean etxean gelditu zen. Lagunekin jaietara joateko gelditzeko, izara baten bidez komunikatzen ziren. Izara jarriz gero joango zelan esan nahi zuen.

Transkripzioa
- Eta ia behin gerria akabauta, etxien ia ze basarrittar, basarrittar petua ia?
- Bai. Handik be, ba, plazara faten nitzen ta etxeko lanak ein ta etxeko, […] lagunek be banauken ta lagunekin fiesta zanien gure telefonue badakitzu ze zan? Haik ipintten eben, ona edo txarra, ipintten zeben ixera bat, denporie be ona in biheko eben, edo bazoiez, zuk bazekixen ipinitte euena edo ez euena. Zuk be hola in bihe zeben. […]
- Izaria ifintten bazeben…
- Bai, ixerie.
- Fango ziñan eta bestela ez.
- Bai. Ba, fateko ordue ipinitte zeuken. Fan biher bada, han eongo zan.
- Ia eta nora juateko ohitturia zeukotzuein?
- Ba, Ziorlara San Isidruetan ta, holakotxe gauzatxuek, gauzatxo batzuk.
- Bai, bai. Eta hamen San Juanetan ta?
- Ba, bueno, bai.

5.13. Arrasate inguruko jaiak eta feriak

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Sagasta , Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-073/009
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:21:54. **Bukatu**: 00:24:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Auzoetako eta inguruko herrietako jaietara joateko ohitura zuten, batez ere Arrasatera, Bergarara eta Elorriora. Baita ferietara ere. Domeketan ez ziren kalera jaisten, baina Arrasateko feriara hilero joaten ziren. Traktoreak azaldu aurretik ere, Arrasateko feria galtzen hasita zegoen. Elgoibarkoak eta Arrasatekoak omen ziren Gipuzkoako feriarik onenak.

Transkripzioa
-Zure gazte denporan auzoko jaixak edo hola erromerixeta ta nora juateko joerie zeuketzuein?
-Ba auzoko jaixak hemen bertan izeten zien-ta. Udalara-ta, Udalan agostuen izeten zien San Estebanak ta horra. Gero beste zona bat hor goixen San Migel de Monte.
-Hori ze herrittakua?
-Hori Bergara partera heltzen da ta horra be bai.
-Elorrixo aldera ta?
-Elorrixo aldera ta be bai, Ferixa Nausikutan ta faten giñen.
-A, ferixara Elorrixora ta.
-Ferixa Nausikuek die Elorrixoko fiestak, septienbrien lelenguen, lelengo domekan izeten die ta faten giñen Elorrixora-ta. Ta Mondrauen San Juanak eta Santo Tomasak-eta.

-Ta bestela holan domeketan ta kalera fateko ta ohitturaik?
-Pentsau, gaztetan pentsau bez. Bertan auzuen.
-Ta musikaik eta eukitten zauen hemen?
-Keba, ez euen hemen musikaik.
-Ta tabernie edo holan?
-Ezta, ezta, ez euen.
-Dantza eittea orduen jaitten ta hola bakarrik?
-Jaitten ta holaxe bakarrik.
-Ta pagau biherrik izeten zauen?
-Bai, honbre, korruek egoten zien ta pagau ein biher zan /bizan/ dantzan eittie.
-Musikarixek pagaitteko.
-Musikarixek pagetako.
-Eta ferixak eta, norako joerie izeten zauen?
-Ferixie Mondra, Mondra.
-Hillero.
-Hillero, bai.
-Norbaitek kontau ostan, traktoriek eta hasi zienien ferixak hondatu ein ziela.
-Aurretik be bai ia Mondra galdute euen traktoriek eta hasitte baiño Mondran ferixa ona eitten zan e! Ganau asko juntatzen zan. Ta baiña apurke-apurke galduaz fan zan, traktoriek eta etorri orduko be galdute. Makiñarixie gero egoten zan azkenien ta. Bestela, ganau asuntue, idi ta behi ta hori Mondran ferixa ona eitten zan. Esaten daue Elgoibar ta hurrengo Mondra zala ferixaik onena eitten zana hemen Gipuzkoan. Hala esaten daue. Gaiñera Mondran tratante asko egoten zan idixekin-ta.
-Zuek idi probatan ta sekulo hartu dozue parteik?
-Ez, ez ,ez, ez.

5.14. Pilotan lehenengo urratsak

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/004
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Mutikoa zenean, Juan Bautista Azkarate "Mondragonés" pilotariarekin ikasi zuen pilotan egiten. Futbola eta pilota omen ziren orduko kirol bakarrak. "Mondragonés"ekin Bergaran entrenatzen zegoela, pilota enpresari batek eman zion bere aurrenengo partida jokatzeko aukera.

Transkripzioa
-Ta hori izan da zure ogibidia denbora danian?
-E?
-Bizi danian izan dozu hojalaterogintzia ogibidia?
-Gero, orduen, pelota asuntue-ta ez euen e, oin moruen ez euen. Enpresa batzuk euzen, eta hareik ainddu ta dana eitten auen haitxeik. Ta gero... hor egon... ni pelotan zela hasi nitzen? Guk geuken hemen `Mondragones´, pelotari haundixe, kanpeoie izendakue, e!
-Izenez `Mondragones´?

-`Mondragones´. Juan Bautista Azkarate. Ta ha entrenetan zan egunero. Ta gu, mutikuek, ta faten gitzen ha entrenetan. Ta pagie emoten euskun.
-Beakin pelotan eittiagatik?
-Entrenetiagatik bai, bai, bai. Pagie. Ta gu pozik faten giñen. Orduen erriela-ta diru asko zan, e! Erriela emuten euskun.
-Kontxo!
-Bai, egun bitik behin erriel bat. Ta hori zan diru mordue!
-Ta zenbat lagun faten ziñein beakin pelotan eittea?
-Ba... ni baiño...ni, gaztiek ni ta beste bat. Baiñe bestiek zaharrauak. Ta partiduek itten gittuen.
-Bea danon kontra edo...?
-Ez, ez, ez. Bai...! Hamen mutillek pelotan ondo eitten auenak euzen, e!
-Bai, e?
-Uuuuu, hamen euzen pelotan eitten auenak baiñe...gaur pelotari izengo litzekienak. Asko.
-Eta gero eurak ez zien izen pelotaixak...
-Ez, por ejemplo, Divino. Oso ona zan ta futbolistie zan. Hor Realien ta Santanderren ta ibili zana. Patri, Realien fubolista izen zana, oso ona pelotan ha be! Ta mordue euen, e! Orduen beste deporteik ez euen. Fubola ta pelotia. Ta bizikletak be gutxik, jente gutxik euken ta bizikletie be ezebez. Fubola ta pelotie zan. Ta Mondrauen egoten zien futbolistak-eta baiña onak, e! Onak! Ta pelotarixek be bai e! Lo que pasa que... Ez euen aurrera... ez euen ta, ez euen. Ta ni faten nitzen... `Zurdo Mondragon´ek eruten nindduen ni Bergara, entrenetan. Mano manoko kanpeonato bat ebillen, ta nik orduen eukiko nittuen ba hamazortzi urte edo hola. Ta egun baten entrenetan gabitzela, enpresaixuek suertau zien han, reunixo bat eukiela edo, ta han agertu zien. Ta ni ikusi nindduen pelotan, ta `Zurdo´i preguntau utsen aber ni nor nitzen. Ta, ba, esan utsen `Zurdo´k zein nitzen ni. Ta hurrengoko astien pelota partidue ipini eustien /ipinistien/.
-Mekatxis.
-Bai.
-Hantxe zeu pelotalekuen pelotan ikusitta...
-Bai, bai.
-Ondo ingo zeben zeuk be orduen!
-Itxurie, itxurie. Ta hasi nitzen profesional ta... ba, ni gazte hasi nitzen, e! Nik... hamazortzi urte ta erdixen gebitzela... banebillen ni pelotan!

5.15. Pilotari profesionala

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/005
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:13:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Pilotan profesionaletan jokatzen zuen, baina iturgintza zuen ogibide nagusia. Aurrerago saneamenduko biltegia jarri zuen. Joxek bere lehenengo pilota partida Ondarroan jokatu, eta irabazi egin zuen.

Transkripzioa
-Eta zuretako pelotia ogibidia izan zan? Edo…
-Baiñe pelotan… ta gero lana eitten neben nik aittekin, lanien hojalatero, e!
-Bixak?
-Bai, bixak, hi! Ta gero be bai, e! Ta gero nik euki nauen almazen bat saneamientokua, ta nire anaie Pako dediketan zan hojalateixara ta ni almazenien. Baiña lana beti ein dou /einddou/ guk, e!
-Oingo pelotarixek eitten daue?
-Oinguek ondo bizi die, gizona. Baiñe lengue ta oingue, ez dauko konparaziñoik be ezetan ez dauko baiña. Lengo bizimodue ta oingue? Bueno, bueno, bueno…
-Eta zer moduz fan zan lenengo partido hori? Hori enpresarixuek, zera esan dostazu, hurrengo domekarako ia partidua ipiñi otsueilla, lelengua.
-A bai! Lenengo partida, akordetan naz gaiñera! Zan Zugadi, mutil haundi bat. Ta ni txiki flako bat nitzen. Ta Ondarrun jokatu gauen, manoik mano bixok. Ta neuk irabazi nutsen, bastante samur.
-A bai, e?
-Gero lagun haudixek izen giñen, e! Berak be iñ euen gero profesional pelotan. Ibili zan. Gero lagun haundixek izen giñen.
-Ta zuei pagau itten otsuein ezer holako partiduengatik?
-Joe, pagau barik...! Zela fango gitzuan, ba?
-Ez dakit, ni ez naz sekula pelotarixa izan.
-Bueno, baiña profesionalak zittuan horreik, e! Klaro pagetan euskuela. Ordurako ba gutxi zuan, baiña asko!
-Eta zela ezkonketan zittun lana ta entrenamenduak ta?
-Joder ba…lana ta entrenamentuek? Samur. Samur. Lau terdiek-bostak inguruen faten zuan Mondragonesa ta aittek esaten eustan “hala, zoiez“. Ta fan, entrenau, ta gero holako zer, garbittu mosue garbittu ta ostera obrara. Ta holaxe. Ta gerora ez, gero ia hobeto, gero profesional… Ta gero soldau fan nitzen, fan biher… Porke ordureko ni pelotan ondo nebillan. Ez jak /etxak/ ondo esatie nik, baiñe, ondo nebillan...primerakuekin ta nebillan ia.

5.16. Beste garai bateko pilota jokoa

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/007
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:15:55. **Bukatu**: 00:18:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Joxek gogoratzen duen partidarik gogorrena "Zurdo de Mondragón"en kontra Bergaran jokatu zuena izan zen. Sake librera jokatzen zen orduan pilotan. Garai hartako frontoiak, pilotak eta arauak ezberdinak ziren.

Transkripzioa
-Zein da zeuk goguan daukotzun holan partidorik gogorrena, edo esangusatsuena edo?
-Bueno, hainbeste izen dittuk… buuuu… Nik bat, gogorrena… `Zurdo Mondragon´ek eta nik manoik-mano jokatu gauena Bergaran. Jodeeee… ixe hil ein gitzuan.

-A bai, e?
-Puf! Hori Zurduoi gogorra zuan ta pufa! Ni baiño zaharraue zuan Zurdue e. Ni baiño... beratzi urte gehixau jauken hak. Ta orduen nik zenbat urte eukiko nittuan, ba, hogeta bat urte edo.
-Ta kriston palizia hartu zeuen?
-Puf!
-Zenbat akabau zan partiduoi?
-Hogeta bana iguales, ta neuk irabazi. Orduan sake libre zuan, e! Sake libre badakik zer dan?
-Arraia barik?
-Sakie joteko hik gure doken /guroken/ lekutik. Pasak bai. “Tres y medio y siete”. Baiñe gero sakie hik gure doken lekuen ein, txapa onduen gure badok eta, hik gure doken /guroken/ lekuen.
-A, aurretik be atara zeiken, e?
-Bai, bai, bai. Aurretik ataratie, libre horixe dok ba.
-Aaaa.
-Sake libre horregatik dok.
-Joño. Baiña, osea, hiru ta erditik atzera bota biher zeben.
-Karo. Ta pasa pasa, ta falta falta. Baiñe sakie hik gure doken /guroken/ lekutik botatie. Zabaletik, zulotik, hik gure doken lekutik. Orduen diferente zuan dana.
-Ta hor zailaua izengo zuan sakia restaittia, ezta?
-Joder!
-Eta oingo...
-Baiñe frontoiek be diferentek, e!
-Bai, ta oingo pelota zer pentsaitten zatzu zuri?
-Oingo pelotak ba... larreikuak jabitzak.
-Bizixeixak, ezta?
-Larreikuak, larreikuak. Larreiko pelotak dittuk horreik. Gero frontoiek be diferentiek dittuk. Lehen losak jazan, ta oin zera dok, aglomerau bat dok eta, diferentiek. Dana diferentie.
-Lehen potrak be gehixau, ezta?
-E? Bai ba, a koxkie? Bai, beti be koxkie ta.

5.17. Inguruetako erromeriak

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/020
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:44:07. **Bukatu**: 00:46:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- **Laburpena**: Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko erromerietara joaten ziren batzuetan. Bedoña auzora joateko senda gogoan du Joxek. Otalora Zelaita, San Prudentzio eta Santa Agedako erromerietara ere joaten ziren. Auzoetako jaietara joateko baimena erraz lortzen zen lantegietan garai haietan. Jendea zoriontsuago bizi omen zen, behar gutxiago zeudelako.

Transkripzioa
-[Eta beste herri batzutako jaittan, edo auzotako]... ta fateko ohitturarik izaten zeben?

-Nik gutxi. Baiña bai, izeten juen! Baiña nora, Bergara! Oñatira, Atxabaltara. Ta holakotxietara, gehixau ez jauan /etxauan/ hi! Ez jauan / etxauan/ baiña ezer! Ez jauan /etxauan/ ezer.
-Eta auzoko jaittara, Bedoñara edo...
-Ba, gutxi. Bai, batzon batzuk bai baiñe jente gutxi. Ta oiñez fan biher zuan e. Ta... Bedoñarako senda bat jauan bakarrik e. Ta burdi bide bat. Gehixau ez jauan /etxauan/ ezer. Oin jazak karreterak eta, lehen ez jauan /etxauan/.
-Baiña orduan igual dantzia gusto gehixaukin ... janaldixa lelengo zera ta...
-A holakuek ta bai, Otala zelaira ta hori bai. Gero zerera, San Prudentziora askotan. San Prudentziotan oiñez jentia! Santa Agedara be bai! Santa Agedara ta orduen... Santa Ageda egunien atsaldien jai hartzen juen jente askok e.
-Kontxo.
-Bai, erromerixara, horraxe!
-Baiña jente asko herri danekuak edo Santa Ageda auzokuak bakarrik?
-Ez, ez, ez, herri... Mondrauekuek be bai. Santa Ageda atsaldien. Orduen jai be samur emuten zuan e. Permisue eskatu ta harako dala edo bestie... samur emuten zuan orduen. Gaur papelak eta erun biher dittuk /bittuk/, baiñe orduen... Orduen ez jauan /etxauan/ halakorik. Orduen ez jauan / etxauan/ halakorik. Orduen beste modu baten bizi gitzuan. Ta gaur baiño gauza gutxiaugaz, baiña nezezidaderik be ez gaukan guk, ez gaixuan ezauketan ta! Entendiruten dustek, ze esaten jaken, e?
-Bai, bai, horixe, horixe bai.
-Ez gekixan, bai. Eta konforme.
-Ba bai. Hor ez kotxerik ez...
-Beeee... konforme. Oin uste dok gu baiño hobeto bizi diela honeik? Ke ba! Honek jaukiek guk ez gauken gauza asko, ta onak, gaiñera.
-Baiña gauzak bakarrik.
-Baiña... konformidaderik ez jaukiek /etxaukiek/!. Gu, barrez, "Joñooooo nun egon zara?" eta "Bergarako fiestetan!" ta jodeeee iasta, iasta! Oin barrez fiesta egunero jaukiek.
-Bai. Ta alde guztietan.
-Eguakotx guztietan, "pum" urten ta zapatue ta akabo. Baiña len? Tira, tira, tira, tira. Len domekie domeka zuan, ta oin, barrez, ezer be ez. Diferente dala dana, dana, dana.

5.18. Pilotari esker ezagutu zuen emaztegaia

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/022
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:49:10. **Bukatu**: 00:52:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Azkoitiko Enkarnazion Elortza hartu zuen emazte. Seme bi ditu. Pilota partida baten ostean ezagutu zuen emaztegaia.

Transkripzioa
-Eta ezkondu ein za?
-Bai.
-Noiz ezkondu ziñan?
-"El año cincuenta y dos". Azkoittiko bateaz.

-Azkoittiar bateaz?
-Bai. Encarnación Elorza.
-Aiba, neu be Elortza naiz.
-Ba, ezkondu nintzuan. Ta jaukat bi seme. Bat hau, nausixena, ta bestie Mondrauen lana itten dauena, Mondrauen bizi dok ha. Ha be ezkonduta jak, e.
-Ta azkoittiar hau, zure andria izen zana... da? bizi da ondiok?
-Ez, hil zan, hil zan. Hil zan ointxe... nobienbrien hamabost urte.
-Ta hau zer ezautu zeben, pelota asuntuegatik edo?
-Zela ezautu nauen? Ba... Azkoittira Andramarixetan pelotan fan gitzuan, eta Bergarako enpresarixuak erun nindduan. Porke Mondrauetik Azkoittire fatie problemie zuan, e. Problemie.
-Ez euen han trena zerien, e...?
-Trena?
-... Urolatik?
-Urolatik? Bai, baiña Zumarragara? Mondrauetik Zumarragara fan biher hitzen e.
-Karo, karo.
-Urolako, Zumaiakua hartzeko. Ta, enpresarixuak deittu justan ta “Etorri hai hona ta neuk erungo haut” ta “Bale”. Ta berakin.
-Kotxien?
-Bai, bere kotxien. Ta pelota partidua jokatu, ta han ez dakit zer ein biher auela ta aiuntamientuekin egon biher auela ta ez dakit zer, ta esan justan: “Hamen afalduko juau, e”. Ta hantxe afaitten. Horreik jaukien tabernie ta restaurana ta... Orduen zera izeten zuan, oin "ostala" baiña orduen "fonda".
-Fondia, bai.
-Ta haren etxien ta tal, ta. Ta hurrengoko egunien baton batek partidua jaukan ta suspendiru in jutsan. Ta esan justan: “E! Bixer hemen jokatu biher dok /bihok/ ostera. “Baiñe ez dauket baiñe nik erropaik be ta” ta “Erropakin arreglauko dustie hemen”. Ta eurak garbittu justien erropak eta tal, ta lo be bertan in naixuan, ta hantxe ezautu naixuan.
-Ha etxe haretakua zan?
-Bai, alabia. Ta hantxe ezautu naixuan. Ta tal ta. Ta gero, ba, berbetan bere aittekin ta, bera ta, ba, taberna kanpuen jarritte. Han egon nintzuan eurakin. Ta gero, zer zuan? A! Gero... Nun ikusi naixuan gero? A, Lekeition! Lekeitiora fan gitzuan pelotan ta bera be hantxe jauan. Abarie jaukan anaie. Ta Lekeition jauan abare. Ta haren etxien jauan. Ta han ibili gitzuan ta tal ta, hantxe hasi ta, ba, akabo. Gero ezkondu.
-Azkoitiarra.
-Bai.

5.19. Pilotaria eta iturgina

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/023
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:52:42. **Bukatu**: 00:55:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
  Lanbideak » Negozioak, dendak

- **Laburpena**: Pilota partida jokatu eta hurrengo astelehenean obrara joaten zen, iturgintza lanetara. Orduko iturgintza gogorragoa zen gaurkoa baino.

Transkripzioa
-Ta, orduan, ogibidez betik izan za hojalaterua?
-Gero?
-Almazena edo…
-Bueno, gero almazena, saneamentos, euki naixuan nik, ta Pakok itten juan hojalatero ta nik zera. Baiña beti euki juau hojalaterixia, e. Guk beti. Ta ni gero be, pelota partidue jokatu ta, hi, astelehenien obrara, e! Holaxe.
-Orduko hojalatagintziak ta oinguak badaukie bape antzik?
-Bueno, tira, tira, tira, tira, tira. Orduen holakotxe tubotxuei be roskak emun biher jakuen alde bixetatik. Holakotxe tubuei be bai. Baiña hori hola, e, terrajiaz, e! Eta baiñerak-eta eruen biher zittuan eskilleretatik holako badakik, holako obratan zelan ipintten dien eskillerak? Handik gora, kriston pixuekin. Bi edo hiru lagunek eruen biher. Eta horreik danok, e. Gaurko moduen? Gruak eruen, bestie… bueno, bueno, bueno… bueno, alde, e! Gero, tubue pareta barr… zera tapetako, mallukiaz ta zintzelakin, harei kanala ein [bihoken], e. Ladrillo danai kanala, e. Ta han... han sartzeko… Oin, barrez, “truu, truu”. Konparaziñorik be ez! Oin, barrez, oin, barrez, tubo guztiak dittuk e, latoizkuak. Kobrie jabik oin. Kobrie hartu, sartu holaxe, soldadurie be lotu ta “trrrok!” bera sartzen dok, likido bat ein, “pin-pan-pon”. Ebateko holako katxarro txiki bateaz nehikue dok /nehikuok/. Ai, ai ai, ai, ai. Lehen "llave inglesa", "llave esparrago", alikatiak... Tripodie, tripodiei eutsi ein biher… Jo, joder… Konparaziñorik be ez ezetarako. Alde guztietan, gauza guztietan, e!

5.20. Tertulia eta karta jokoak

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/002
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:01:39. **Bukatu**: 00:03:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Jokoak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Angelesen ama auzoko Kataide baserrira joaten zen tertulietara. Arrasateko Sorgin kaleko andreak atarte ondoan eseri, eta karta jokoan jarduteko elkartzen ziren.

Transkripzioa
- Kataiden, klaro ba, bezinuak edo, ba, hurrien, hurrien. Gurien ama gero, ba, trenbidie kendu gauenien ta, ta ba Bittori ta, ba, famosuak izeten zienak, haik Bittori ta, haik mutilzaharrak eta neskazaharrak, bueno, kontutan eukitten auen! Eta juaten zien atzaldetan gure ama Artzubiko Nikolasakin, ba, Katiaidera. Gaiñera…
- Tertulixara.
- Tertulixia eitten. Bai. Haraxe tertulixatxue itten auen, denpora ona baauen ta ondo baauen behintzet ama, haraxe faten zien. Bittori. Ta Bittorik kontetan oskun kontu mordue esaten oskun guri.
- Bittori, Bittori zan Kataide?

- Kataidekua.
- Eta zure ama Zeletakua eta bestia?
- Bestia...
- Artzubikua esan dozu.
- Bai, baiña ha, ha hor arabar aldekue zan. Andria. Euskalduna baiña...
- Ze izen euken Artzubiko horrek?
- Artzubikue Nikolasa.
- Osea, Nikolasa ta zure ama...
- Bai, Nikolasa ta gure ama...
- Zure amak zela euken izena?
- Nire ama Rufina.
- Nikolasa ta Rufina faten zien Bittorigana tertulixan eittera.
- Tertulixen eittera, bai. Bai.
- Lehen holako ohitturak eozen, oin ia... oin ia holako gauzaik ez da eitten.
- Ke ba!
- ... [...] Zu bizi zaren modoko torre baten, zu faten zara aldekoa edo bestea, hiru-lau juntau baten etxien ta kafetxo bat hartu?
- Ke ba!
- Hori ez da eitten ia.
- Hori ez da eitten horreik. Horreik ez dia eitten. Eta lehen Mondrauen, lehen, hor Sorgin kalia esaten dutziena, ba, andrak sillak atara ta jokuen kalien. Klaro, hainbeste kotxe bez, ezebez. Han ez zan pasetan ezebe. Eurak bakarrik.
- Kaliak dia ibiltzeko, ezta?
- Klaro, kaliak ibiltteko. Haik atara, atarte onduen jarri eta haintxe kalien, han ilerako andrak jokuen.
- Bai, bai, beste garai batzuk, ezta?
- Bai, beste garai batzuk, beste garai batzuk, "ya lo creo".

5.21. Soinujolea asto gainean

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/024
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 01:06:05. **Bukatu**: 01:08:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Auzoko jaietan futbol partida jokatzen zen herriko futbol zelaian. Angiozarko itsua asto gainean soinua jotzen, eta neska-mutilak saltoka kantuan inguruan joaten ziren futbolera. Era beretsuan bueltatzen ziren auzora. Asto horren eskultura bat dago gaur egun Eroski ondoan.

Transkripzioa
- Esan dostazu jaixa, San Isidrotan ze egoten zan mezia ta erromerixia?
- Mezia ta erromerixia, bai. Ta gero jokuek be egoten zien, e?
- A bai?
- Bai. Jokuek be egoten zien. Eta bigarren egunien astua, astuekin... klaro, hau, itsua zan soiñujoillia Ainguzarkua.
- Angiuzarkua bai.
- Bueno ba, harek joten auen zera asto gaiñien jarritta eta gu danok obatu alkarri ta bueno ala! Kanpofubolera! Mondraue dana pasau ta

kanpofubolera. Baiñe, baiña neska ta mutil baiña asko e?
- Aingiuzarko itsua asto gaiñien soiñua joten.
- Soiñua joten.
- kontxo!
- Bai. Eta gero ba, fubola itten auen han zaharrak gaztiekin edo ez dakit zela zan, fubola. Eta gero ostera...
- Atzera buelta?
- Atzera buelta, baiña...
- Soiñujolia asto gaiñien?
- Klaro! Hara fateko baten bat biher auen ta ba asto gaiñien jarri ta berak obatuta etorteko baiña soiñue behintzat edo geuk joten gauen, geuk kantau ta fan danok baiña ileran, e? Ene... alpargatakin ta, e?
- Bai, baiña Angiuzarkuoi asto gaiñien soiñua joten eben?
- Joten auen soiñua. Ez dakit nik lotu itten auen edo zela itten auen baiña joten auen soiñua.
- Hoixe ba politta!
- Ta horregatik horrek astu horrek, hor dau astua, horregatik dau. Hor ez, ez. Eroski onduen dau asto bat.
- Bai.
- Horixe signifikaziñuoi da astua. Horretxegatik da.
- A, kontxo!
- Bai. Ha astuek hori dauko. Asto bat juaten zan, ba ez dakit nundik, orduen astuek oin baiño gehixau dazen.
- Bai.
- Eta, ba, asto gaiñien ta gu ala! Saltoka.
- Eta kanpofubola nun euen orduen? Oin dauen lekuen? Ez...
- Ez, ez, ez. Arrasaten. Han Zarugalde, Arrasaten, eskola profesionala dauen lekuen.
- Bai.
- Bai.
- Bai, bai, bai. Bai, fotografixa bat ikusi nauen liburu baten oin aurrekuen ta...
- Bai.
- Bai, bai. Osea ke, orduen, Ziorlatik hara astuen atzetik...
- Bai, bai. Astuen, astue erdixen hartute ta pentzau zeike hainbeste oin ezin zeike halakorik in, baiña orduen bai. Noiz pasauko zien ba kotxiek? Eta bueno, guretzako zan hori...

5.22. "Aramaitteko" kanpaiaren ordez, bederatzietako trena

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/025
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 01:08:40. **Bukatu**: 01:10:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Gaztetan igandetan Bergarako San Prudentzio (Elorregi) auzoko erromeriara joaten ziren. Bederatzietako trenak egiten zuen "aramaitteko" (abemariatako) kanpaiaren lana, etxera joateko ordua. Erromeriak arratsaldez izaten ziren orduan.

Transkripzioa
-Eta beste, beste jolasik, beste jokurik edo zer eukitten zeuein jaittan?
-Ba ez dakit, mutikuek zerbaitzuk eitten zittuen, ez naz akordetan horretxegaz.
-Eta aizkolari, edo bertsolari, edo...?
-Ez, ez horreaz ez, gero, geruau bai ,baiña orduan gure denporan ez.
-Eta auzoko jaixak kenduta, beste nora fateko joeria zeukatzuein?
-Ba domeketan San Prudentziora. Haxe hurren auen ta!
-A, zuentzako kaleko plazia baiño San Prudentzio hurrau?
-Bai.
-Bai, e?
-Bai. San Prudentzio, bueno, haxe, zegatik kalera etorten ez uskun isten ta! Gerotxuaura arte!
-Aaaa.
-Bai. Eta, beratziretarako, oin ez e! Beratziretarako, gurien holan beratzirek jota edo baazen gurien aitte hala, erromarara urten ta, kamiñue pasau ta han, zeozer eitten dabillen moduen, baiña... aber... zelan gatozen gu.
-Zueik aramaittekuek-eta ez ziñuein entzuten?
-Aramaittekue gurien izeten zan... trena, beratziretako trena pasetan zan. Trena.
-Ta ha zaukotzuein aramaittakue?
-Ta ha zan aramaittakue. Santa Agedara be faten gitzen e, zerera. Baiña lelengo kunpliru ein biher zauen /einbizauen/ e! Esandakua. Eta ba guk eitten gauen, ba “Hau sartu biher don /bion/, berakatza eta...“ sartzen. Klaro, orduen, neguen. Eta “Hori eitten badozue /bozue/, itxiko jatzue“. Buuuuu, ein! Zer ez ein! Santa Agedara! Ta Santa Agedan ein nehikue dantza, zapata danak baltzittu... Karo, Santa Agedara, eurixe einnde baauen, ta han ez auen plaza... bueno, plazie baauen baiña e, ez e... ez auen han zementorik eta ezebe! Lokatzia. Eta etxera. “Etxera, beratziretako trena pasetan danerako etxera, e!“ Baiña, karo, orduen baiña, oingo moduen, oin hasten die gabeko... berandu!
-Bai, bai, bai.
-Jaixek.
-Baiña orduan arratsaldian.
-Ta ba orduen atzaldien! Laurek inguruen edo hasten zien eta, edo lehenau igual!

5.23. Familia giroa: jatorria

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/028
- **Iraupena**: 0:05:15. **Hasi**: 00:54:00. **Bukatu**: 00:59:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea
- **Laburpena**: Aitajauna, Amaitermingoa zen. Kubako gerrara joan eta gazterik hil zen bertan. Amandrea, alargun eta seme txikiarekin Koruetara joan zen serora bezala. Gerora maisuaren etxera joan ziren bizi izatera. Amandreak denda-taberna txiki bat ireki zuen.

Transkripzioa
-Aittajauna zeatik ez zan faten eleixara?
-Bueno, beitu: gure aitte geldittu zan aitta barik oso gazteik, zazpi urtekin-edo. Eta orduen bere...
-Nungue zan bera?
-Aittaitte zan Amaitermingua. Amaitermin dao Otxandixo eta Urkiola bittartien. Eta Eleixaz zien otxandixarrak, ze bautizauta auen Otxandixon, eta juzgauz edo aiuntamentuz zien Abadiñokuek. Ze Abadiñon terrenuek die Urkiolaraiño. Eta bere aitte zan "peón caminero", eta eukien etxe bat, kamiño bazterreko etxe bat, eta seguramente hori pribilegio hori eukiko euen bere aittek egon zalako Kubako gerran. Baiña han gerran egon zien danak gazteik hil zien, eta nire aittite be gazteik hil zan. Eta orduen amama geldittu zan zazpi urteko mutikuaz alargun, eta fabrikara fateko aukerarik ez auen eukiko, eta krieda fateko semiagandik separau ein biher zan, eta etorri zan Koruetara "amakasa", Don Valentin Madinabeitia baten, uste dot zala, etxera. Orduen abadie, ba... prediketan zittuen gauza asko relijiñuei buruz, baiñe etxian ipintten zan babalapikue, eta babalapikuei sartzen jakon urdaixe eta txorixua. Txorixo osue jaten auen abariek, eta urdaixe erdibana jaten auen amakasiek eta mutikuak. Eta, klaro, dotriñie ondo auen, baiña ha mutikuei ez jakon gustetan asko. Abariek eraten auen ardaue; amakasiek be neurtute ardau apurxo bat, baiña mutikuei ez jakon emun bihar, eta mutikuek be gureko auen ardaua, baiña begiratu eitten utsen bakarrik ardauai. Eta holan mutikue konturatzen zan abadiek eleixan prediketan auela gauza bat, baiñe etxien harek ez ziela ipintten praktikan. Eta gero berak hamalau urte eukienien edo holan, hartu auen maistroetxie alkilerrian, eta amama, nire aitte eta bere ama, pasau zien maistroetxera bizitten. Abariek emuten zittuen eskolak maistruen ordez. Eta, hau esan biherra dau, ha maistrue bialdu ein auela abariai traba eitten utselako, ze bi jauntxo lartxo zien auzo baten, eta orduen abariek erabaki auen berak klasiek emun, eskolak emun eta haren etxian errentia be berak hartu. Eta orduen nire aittan amak auzoko esniek batzen zittuen, hiru astokin etorten zan Mondraueraiño, Mondrauen saltzen zittuen esniek. Gero, han euken dendatxo bat, eta Mondrauetik, almazenen batetik eruengo zittuen atxikoria, bolauek... Bolauek badakitzu zer dien? Azukarraz eitten zien holako boillotxon batzuk moduen, eta urei botaten jakon ha, eta segittuan urtuten zan; eta ha txokolatiakin, txokolatiai bultzaketako, ur azukardune. Gero gailletak be bai: gailletak bi klase egoten zien, orduan ez euen hainbeste aukera: barkillozkuak eta mariak. Eta "pastelak" esaten gutsen, ez gailletak, pastelak esaten gutsen guk. Eta lejia, jaboie... holako denda bat. Holako denda bat, eta tabernatxo bat moduen be bai, ardaue eukitten auen, eta orduan auzoko agurak hara faten zien jokuen eitteko edo merixendateko edo; batez be neguen. Eta domeketan zabalketan auen bere dendioi, mezetara etozenak, ba lapikokara salda be eukiko auen, eta andrak han eitten auen tertulixie eta agurak be bai, eta bueno. Ondo. Eta bizimodue atara auen holan nire amamak, e!

6. Euskara

6.1. Erdara ikastearen garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/004

- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:07:25. **Bukatu**: 00:09:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Erdaraz ikastea garrantzitsua zen gurasoentzat; baina euskara asko maite zuten. Aita Arabara joan zen gaztetan erdara ikastera.

Transkripzioa
-Orduan inportantie izaten zan ez, erderie ikastia eta?
-Bai oso inportantie.
-Gurasuendako be inportantie izango zan ez? umiek...
-Gurasuk baserrittarrak eta torpe samarrak zien. Baiñe nik esan dotena, ama kalien hasitte euen ta erderaz ondo ekixen. Baie ume askok ez ekixien amak eta ez zotsien eitten erderaik eta. Eta asko gehixa kostetan jakuen harei erderaz ikestie. Eta hor baserri goixen bizi zienak eta be bai “mas torpes” ikesteko erderaz. Sekule entzun ez bozu. Zuk alemana ta moduen, zuk sekule entzun ez bozu ez dozu ikesiko, baiñe entzun bozu ta bai.
-Orduan gurasuak eta nahi izaten zeben erderaz ikastia umiak eta?
-Bai, baiñe euskara maitte izeten zan e! Euskeri be e! Euskerie be asko gustetan jakun. Erderie be bai, ikestie bai. Hareik baekixien erderiek be hemendik kanpora falta eitten euela ta.
-Erderia eskolan ikastia eta etxian euskeraz, ez?
-Euskeraz bai, etxien euskeraz.
-Esaten dozunian euskeria asko maitxe zala ta, zegaitxik edo, zuk ikusten zenuan? Igartzen zenuan etxian?
-Etxian beti euskeraz. Etorten bazan kanpotik bat edo bat, parienten bat edo baten- bat edo ez ekixena euskeraz ba harekin erderaz ta eitten gauen. Hor Donostin ta bageunken familixie ta. Baiña bestelan etxien euskeraz betik.
-Hemen inguruen eta jentia edo gaztiak eta joaten zian Arabara erderia ikastera?
-Gure aittek esaten euen bera juenda euela. Bai, bestela asko ez e! Ez zan joaten. Baiña aittek esaten euen: “gu Arabara bialdu ginttuen”. Zera, erderaz ikesten. Han zela ez zan eitten euskeraz. Ta oin Araban eitten da euskeraz e!

6.2. Gaztetan sarritan erdaraz hitz egiteko joera

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-012/007
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:11:15. **Bukatu**: 00:11:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: 6-14 urte bitartean eskolan ibiltzen ziren. Hasieran euren artean euskaraz egiten zuten, baina erdara ikasi ahala, horrela hitz egiten hasi ziren.

Transkripzioa
-Sei urtekin sartzen gintzen eskolan “hasta catorce”.

-Eta zeuen artian erderaz eitxen zenduen ala?
-Lelengokuen ez. Baiñe gero ikesten ta juen gintzenien ba bai. Samurre da erderie. Erderie samurre da.
-Nesken artien gehixau ala mutillen artien?
-Neskak die mas.
-Bai? Erderara errezau?
-Bai.

6.3. Ume-berbeta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/044
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:44:25. **Bukatu**: 00:47:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- **Laburpena**: Ume-berbeta. "Paitxie"; "Bekerreke"; "bapo"; "po-po"; "no-nua"...

Transkripzioa
- Lehen esan dozue ume-berbetia ta zeuek behintzat eitten zenduezela halako... Ba, hori, ez? Okeliari ez dakit zelan esan ta...
- E: Bai.
- Nik hamen zerrendatxo bat dakat eta ia batzuk behintzat ezautzen dozuezen. Bueno, ahatiari zelan esaten detsazue hemen? Ahatia, animalixari...
- Paittiai...
- E: Paittia, ba, normala.
- "Bilixa" ez?
- Ez, paittak.
- Amaittu?
- Bukatu.
- Akaberia edo bukatu.
- Baiña umiari zelan esaten jako? "Amaittu dozu?"
- E: Ez...
- "Bapo", ez?
- E?
- Bapo...
- Bapo, bapo-bapo. A! Klaro, oin esan dozunien... Bapo, bai.
- E: Bukaketan zanien jaten zauena, "bapo".
- Edo be bai igual jan ta ondo gelditu bada, "Bapo-bapo gelditu zara, e! Bapo-bapo". Bai, hori bai. Hori espresiñue bai.
- Eta ardixari?
- Bekerreke.
- E: Bai, hori, bekerreke.
- Bekerreke?
- Bekerreke, bai.
- Arrautziari?
- Arrautze, ez?
- "Txu-txu"?

- E: Ez, arrautza.
- Autueri?
- E: "Po-po".
- Behixa?
- E: Ixoin, baeuken, e!
- Ez dakit, "takatan" edo, ez dakit.
- Ez! Ez naz akordaten, baiña baeuken.
- "Aida", "mu-mu"...?
- E: "Mu-mu", "mu-mu". "Nonua" behixai ez, animali guztiei "nonua".
- Daneri, bai, "nonua". Bueno, igual, "nonua" ez igual txakurrei, e! Baiñe igual astuei edo behixe, edo animalixe... edozein animali "nonua".
- Gero, besuetan hartzeko orduan, "aupa" edo...?
- "Aupa".
- Esan dozue, "Arreborritxiko". "Arrekonkon"?
- Ez.
- Eta...
- "Arrekonkon" zer don, ba?
- Ba, "Arreborritxiko", baiña beste moduren baten...
- A!
- Bizkarrian hartuta ta holan saltoka-saltoka? "Trakatan-trakatan"?
- "Trakatan-trakatan".
- Jausten zianian edo jausittakuan umia, "punba", "punbala"...?
- "Punba".
- E: "Punbala" gehixao, bai, "punbala".
- Eta jarri?
- "Apitxi".
- E: "Apitxi", hori. "Apitxi", "Apitxi", bai.
- Esniari "ninia" edo...?
- E: "Nenia", "nenia", bai.
- Ezkutau?
- Gorde.
- E: Ez, gorde ez...
- "Kuku"...?
- E: "Kuku", bai.
- Bai, bueno...
- "Kiki", "kuku"...?
- "Kuku".
- Gauza zikiñari? "A! Hori zikiña dao!"
- Bai, baiña...
- Kaka. Kaka, erderatik igual kaka. Ez dakit, e!
- Okeliari eta arraiñai esan dozu "txitxi", ez?
- "Txitxi".
- Eta ume txikixari "ninia", "txetxe", "txotxo"...?
- "Txetxe".

6.4. Ume-berbeta: "erakutsi" eta "tati"

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/048
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:53:30. **Bukatu**: 00:54:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- **Laburpena**: "Erakutsi eta tati".

Transkripzioa
- E: Eta aber: "Ikusi eta tati".
- Zelan?
- E: Aber, "tati" da bigarrena. "Erakutsi ta tati". "Erakutsi ta tati".
- Eta hori esaten jako edozer gauzari? Nahi dot esatia...
- E: "Tati" ez dakit zegaittik, osea...
- Baiña zuk olixuan ejenplua ipini dozu ta...
- E: Lehengunien ondion... zegatik hori nere ama zanak esaten zauen: ba, olixue gutxi zertu biher dala, zegatik bestela gizendu...
- Baiña lehen ez zauelako, lehen ez zauelako.
- E: Lehengunien ondion neuk esan [neuen]: "Bai, nere ama zanak esaten zauen moduen gose denporan: erakutsi ta tati". "Erakutsi ta tati".
- Oso politta...
- "Tati" ez dakit zer zentzu dauken hor, baiña bueno, hor dao.

6.5. Eskola erdaraz; euskararen erabilera zigortua

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/007
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:11:15. **Bukatu**: 00:13:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Eskola erdaraz ematen zuten. Jolas-orduan euskaraz eginez gero, zigorra. Irakasleak.

Transkripzioa
- Ene... Hori ya beste arazo bat zan, erderaz, eta guk erderaz tutik be ez, tutik be ez erderaz.
- Orduan, esfuertzo doblia, ez?
- Doblie. Apur bat ikesten hasi orduko, ba, pentsau zer zan. Eta [ondikon] maistrak egoten zien –niri beti maistrak tokau jaten– egoten zien, batzuk nahiko goxuak, suabiak izaten zien, baiñe beste batzuk errekreo denporan be ez oskuen izten euskeraz berba eitten. Eta hori izeten zan zigorrik gogorrena, hori gogorra izeten zan.
- Bai, gaiñera, zeuen artian...
- Klaro, ez gakixen beste modu baten berba eitten! Guk gure bizi guztien, nik oin be esaten dot, nik titixe baiño lehenau euskeraz entzun neen, titixe hartzen hasi baiño lehenau euskeraz entzun neen. Zelan eingo dot ba berba? Niri ez dust beste modu baten berba eittie urteten! Ni oin be edozeiñekin –batez be umiekin– jarten banaz, izango die erdeldunik haundixenak, euskeraz urteten dust. Eta ya está.
- Ez jatzu urtetzen...
- Ez, ez, ez dust urteten erderaz .
- Eta esaten dozu batzuk xuabiauak-edo zirala...
- Bai, maistrak bai...honbre !

- Eta bestiak ze eitten zeben, gaiñera, zigorra moduan...?
- Bai. Gogorrak.
- Zigorra moduan...
-Bai, gogorrak zien, makilliaz egoten zana be baeuen eta eskuetan makilliakin emon be bai. Bai. Ta gero, ba, zien pertsona batzuk ee…batzuk egon zien, gaiñera, holan ee... zigortuta bieldu balittue bezela toki horretara. Ze, klaro, asignauta etorten zien Arabatik. Aramaixo dau Arabako mugan. Orduen, etorten zien Arabatik, o Gasteiztik. Eta, klaro, hainbeste herri egon eta Aramaixoa bialtzie zan zigor bat horrentzako. Ta, orduen, etorten zien oso... batez be bi-edo dauket goguen berez oso agresibak zienak.
- Erreta, ez?
- Bai, bai, ta zan... hori zan arrazoie. Hori zan arrazoie. Oin, gero beste bateaz gogoratzen naz oso ona izen zan. Gasteizkue bertakue zan eta harek bai... oso-oso...
- Danerakuak egongo zian.
- Bai, bai. Eta izan zan denpoa batzuk... Ez, baiña berez rekuerdo ona dauket.

6.6. Euskaraz "j" soinua berria

- **Hizlaria(k)**: Arregi Liziaga, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-050/002
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:02:07. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: "J" (iota) ez omen zuten erabiltzen lehengo euskaldunek. Hainbat adibiderekin azaltzen digu hau Jabierrek. Toponimian ere aldakuntza handiak izan dira.

Transkripzioa
- Honek esaten dau "pegauko jatzun", eta nik esaten dot "pegauko xatzun".
-Bai, bueno. Nik e, hor zurekin nau. Zueik hobeto [...] "xatzun" hobeto dauela esanda "jakun" baiño. Ze hori "j" hori oingue da ta.
-A! Hori oingue da?
-Bai, bai, bai.
-A bai, e? Zuk gaztetan ez zeben ebalten hori?
-Bai, nik bai. Baiña ez gure gurasuak. Nik bai. Gure gurasuek, beitu. Hemen euen Arangune (Aranguren).
-Bai, Bixentekin egon giñan.
-Bai, bueno, bueno. Bixentek ez dau jakingo. Bixenten aittejaunen aitte zan Joxe `Txiki´. Enda... Baiña Joxe behin be ez utsien esaten. `Otxetxin´. `Otxetxin´ esango dou Joxe `Txiki´, ezta? Guk oin esango gauke. Baña "txin" hori, ba txikixe da, e? Ta `Otxetxin´. Eta hori hari. Ta hemen Saburdixen auen beste bat, andra bat, Joxepa. Hari sekule ez utsen Joxepa iñok esaten. `Opa´. Hori oingue da. Hori oingo-oingue da. J hori, hori ez da gurie, ez da hemengue.
-Ta Joxepari `Opa´?
-`Opa´, `Opa´. Bai, "j" hori ez... Goizuetara faten bazara, Goizuetan sekula ez daue esaten "j"rik. "Xaboie" edo... dana hori, "j" kendute. Ez dau... ez

da... "iaso", "jaso" biherrien... Eta hemen ez euen. Hemen oingue da. Seguru, ziur e! Hori esaten dutsut neuk hori badakittetela, `Opa Saburdixeko´, `Otxetxin Aranguneko´, eta hola, horreik gauzok esaten zien, orduko komestaziñuek holan zien, e. Eta orduen, ba, hori oingue dala esaten dot nik. Baiña ez bakarrik hori gauza... hemen egongo die aldakuntzak egongo die seguramente, ziur asko egongo die aldakuntzak, ba, aspaldittik. Zegatik hau, "Leintze" esaten dutsau, ezta? Eta seguramente izengo da "Leanitz". Zegatik zuk begiketan badutsezu Gatzatik hona goittik-behera, hau dana zulue da. Dana leie da. "Le" badakitzu zer dan, ezta? Zulue. "Le" zulue da. Orduen Gatzatik hona begiketan badutsezu, dana zuloz beteta dau, dana mendi zuluek die. Orduen nik uste lehengo hizkuntzie izengo zala "Leanitz". Ta "Leintze" esaten dutsau oin.
-Hizkuntza danak aldaketan die.
-Aldatu asko. Asko aldaketan die, asko.

6.7. Kalean jaio, baserrian hazi

- **Hizlaria(k)**: Arregi Liziaga, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-050/005
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:06:08. **Bukatu**: 00:09:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Jabier kalean sortua eta Kataide baserrian hazi eta hezitakoa da. 1925eko azaroan jaio zen. "Zemendixan ardixa jan eta akitixan" esaera zaharra.

Transkripzioa
-Hasteko, bueno, izena eta apelliduak esango dozuz? Jabier...?
-Bai. Arregi.
-Arregi.
-Arregi. Ta bigarrena?
-Liziaga. Liziaga.
-Liziaga?
-Bai. Lizeaga ez da e, Liziaga. Ni... ez dakit hori abizenau, hau hor Hernani aldien-eta Lizeaga da...
-Bai.
-Eta nik dauket Liziaga. Ta ni seguru nau ba nire aittejaunen aitta, Eskoriatzakue, horreik etorri zien Betelutik. Enda, orduen, Naparra Liziaga da, eta igual Gipuzkuakue, hori... hori, bai ,hori Amezketako abizena da hau, Lizeaga. Eta igual Liziaga egon leike degeneraute edo ez. Dana dala, ez dakit hola izengo dan, ze hemen Koruetan dau Lixiatz. Ta igual izengo da Lixiatz e, zera, berdin.
-Ia, Lixiatzetik kanbixauta.
-Bai, bueno ez, esan gure dot /gurot/ ba...
-Edo hortik datorrena.
- Bai, ba, antzerakuek diela. Eta, ba, guk "lixia" ez dou esaten, "ixia" esaten dutsogu honei, erderaz “junco“ esaten jakonai. Ez dakit hori esan gure dauen edo, nik uste "lixia" "zulue" esan gure... zul...
-Guk "ihixak" esaten dou.

-Bai "ihixak", guk be bai. Nik uste dot "lixia" izengo dala "zulo sakona".
-Lezia modura?
-Bai, lezia estilora, bai. Lixie, zulo luze samarra edo holako bat.
-Bai, guk leze-zuluak esaten dosteu.
-Bai. Bueno, leze-zulue kuebia.
-Bai.
-Berutze dauena.
-Sima, edo...
-Bai, hori da, hori da, bai... Bueno, ba, hola. Ni naz Arrasaten kalien sortua, eta gehixena baserrixen hazi ta hezi. E? Horreik gauzok baserrixen in dittut.
-Ze urtetan jaixo ziñan?
-Milla bederatzirehun eta hogeta bostien.
-Hogeta bostien.
-Bai.
-Ze egunetan?
-Lau, e, azaruen lauen.
-Zuek zemendixa sekula esan dozue?
-Bai. Aber akordatzen nazen oin e... aber... Samilixen... hori, hori, hau ez da hemengua e, hori da zerekue. Nik amai-ta entzunde hori. Ta hor Arkarazo aldien, hor jaixek izeten die, ta hor esaten daue: “Samilixen, idixek hartu ta zemendixen –uste dot dala–, ardixe jan ta akitixen“. Uste dot holako zer bat dala e. Antzerako bat, bai.
-Ardixa jan ta akitixen?
-Bai, akitixen. Akitixen badakitzu zer dan?
-Ez, ez.
-Ba akitixen, guk akitixen esaten dutsou beti. Akitixen da ipur-saltoka. Ganauek eitten daue, ganauek eta bihorrak-eta saltoka ibiltten diena. Akitixen. Akitixen hori etorriko da aker-etik. Akerra, badakitzu, saltakarixek die. Orduen hortik etorriko da. Bai. Guk hala esaten dou, akitixen. “Ganauak akitixen dabitz“.

6.8. Meza latinez, sermoia euskaraz eta gazteleraz

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/006
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:10:39. **Bukatu**: 00:12:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Eskolako jolas-orduetan erdara erabiltzera behartzen zituzten, baina ez politikagatik, erdaraz egiteko ohitura hartzeagatik baizik. Elizan meza latinez ematen zuten, baina sermoiak euskaraz eta gazteleraz.

Transkripzioa
-Guk gauken obligaziñue errekreuen ta urteten gauenien, erderaz ein biher gauen /inbigauen/.
-Zeuen artien be?
-Geure artien obligaziñue, erderaz itteko. Baiñe hori ez zan “por

patriotismo ni franquismo“ ta. Hori zan, guk dana euskeraz itten gauen kalien, ta ba oittura bat hartzeko erderaz eitteko. Ez zan, politikarik ez auen hor. Nik ondo pentsetan nauen hori. Hori ondo pentsau… Oin beittu ta ondo pentsetan nauen.
-Baiña gero etxian, etxian euskeraz.
-Oin be jueten bazara ingles ikesten kolegixo batera ta dana ingles ta esaten dutsue “bueno, errekreo denporan be ingles e, hamen danok ingles“. Inglesak garelako ez baiñe, horixe, ikesi en biher. Guk erderaz ikesi biher gauen /ikesibigauen/, euskeraz ezkiña guztietan, etxien, kalien… esto, eleixan be euskeraz eitten zan e. Gero Francon denporan be euskeraz. Sermoie erdixe euskeraz ta beste erdixe erderaz. O lenengo erderaz, ta gero euskeraz.
-Jente danak entenditteko, ezta?
-Bai, bai, bai. Baiñe zelan orduen mezie-ta latiñez esaten zan, dana latiñez... sermoie bakarrik euskeraz, edo erderaz. Beste dana, ebanjelixue ta “Dominus Vobiscum“ ta meza dana-dana-dana, badakitzu, ni akordetan naz, dana latiñez zan. Horixe zan bakarrik euskeraz, sermoie. Euskeraz ala erderaz. Hori beste leku askotan be, Arrasaten, ta Burgosen ta Madrillen be mezie betik latiñez izeten zan. Dana latiñez.
-Iñok ulerketan eben, zerak, abariek latiñez esaten ebena?
-Bueno, ba ba… ez zan… inportantziaik ez auken. Sermoie ondo entzun ezkero, bestioi, ba, mezie, ba, badakitzu.
-Oin be antzera itxurie.
-Norberak errezau ta…
-Honek oingo aitta santu honek antzea, latiñez emutia gure dittuk mezok.
-Bueno, badauz, badauz hortarako ondion, dana latiñez eitteko…

6.9. "Txori he visto..."

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-155/018
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:28:52. **Bukatu**: 00:30:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: San Viator ikastetxean erdaraz ikasten zuten. Maristek izen ona zuten, eta inguruko herrietako mutiko ugari elkartzen ziren bertan. Gelako ikaskide bati buruzko pasadizoa kontatzen du: mutiko bat berandu iritsi zen eskolara txoriak harrapatzen ibili zelako, mutikoak erdaraz ondo jakinez eta honako azalpena eman omen zion maisuari; "¡Señor maestro! Txori he visto. Harri he tirau. No he acertau. Tirando, tirando denporie pasau!".

Transkripzioa
-Eta Maristetan euskeraz itten zeuein edo erderaz?
-Erderaz.
-Gerra aurretik be bai e?
-Bai, bai, bai. Erderaz itten zan, erderaz itten zan.
-Eta zer moduzko maisuak zien e, ondo ikasten zeuein edo…?
-E?

-Kastigo asko egoten zan edo…?
-Kastigau? Ez, jente ona zan, zera, mutil onak zien, gero ondo portetan gitzen jeneralmente ez dakitzu? Jente, jente noblie, bamos. Ta anekdota bat kontauko dutzut /kontaukutzut/. Ba bat aillegau zan berandu. Hor e, Mendiola ta horko inguru guztiek, Mendiola, Arientza, ta Bolibar ta horko kontorno guztie ba halako jente... ba ha zentralizetan zan, ba ez auen besterik ta ba haxe. Eskoitzatik be jente asko etorten zan ta. Maristak famosuek zien orduen. Tan holan, ta… egun baten aillegau zan mutiko bat berandu. Udebarrixe. Ta txorixek itten dittu umiek, ta esan utsen “¿Qué ha pasau?“ ta “Don maestro, txori he visto, harri he tirau, no he azertau, tirando tirando denporie pasau.”
-Eta entendidu euen maistruak, edo?
-Karo, ze ingo utsen /ingutsen/, ba, barre. Ze eingo auen ba. Ba mutikuen zera, bersiñue, badakitzu. Distraidu, ez dakizu? haxe intenziñua txorikumak hartzeko ta ze ta ordun...

6.10. "¡Yo y madre idixko kale!"

- **Hizlaria(k)**: Errarte Erzilla, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-161/015
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:12:41. **Bukatu**: 00:13:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Auzo-eskolako maisuarekin erdaraz egin behar izaten zuten. Behinola, mutiko bat berandu iritsi zen eskolara, eta maisuak zergatik berandutu zen galdetu zion. Mutikoaren erantzun: "¡Yo y madre idixko kale!". Idia herrira eraman zutela esan nahi zion, alegia.

Transkripzioa
-Mutiko bati preguntau utsen, erderaz preguntau utsen “¿Dónde has estado hasta ahora?”
-(Senidea) Tarde juen zan.
-Berandu juan zan ta. Ta mutikuorrek preguntau dutso...
-(Senidea) “He buscau un…“
-“Yo y madre, idixko kale!”
-(Senidea) Señor maestro.
-Idixkue kalera eruten juen ziela. Ta horregaittik doiela berandu. Ta bueno, ez utsen /etxutzen/… parkatu utsen.
-Idixko kale?
-Idixko kale.
-Harek erderaz ondo eitten eben e?
-Bai.

6.11. Fabrikan lan egiteaz gain, errementari

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/015
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:22:30. **Bukatu**: 00:23:18

- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Lexikoa
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Errementariaren lanak zeintzuk izaten ziren: goldak, gurdiak konpondu; baserriko lanabesak.

Transkripzioa
- ...basarriko jenerue, osea, basarriko erreminttie eitten zan, goldak, burdixek, arreglau... dana! Bueno, baserriko gauza dana.
- Zeuk bakarrik eitten ziñuan?
- Bai, neuk bakarrik.
- Lana ein fabrikan ta...
- Ugartenien, ta gero hona etorri ta hemen. Hogeta hamar urte ein nittuen fabrikan, ta, ba, hogei bat urtien eingo nittuen han [lana ein], etorri hona ta hemen ardau trago bat ein, ta [...] hemen lanian gabeko hamarrak arte!
- Ordu mordo bat... A! Gabeko hamarrak arte?
- Bai. Ta gero afaldu, [holaxe] apurtxo bat [ein], ta goizeko seiretan jaiki, ta barriro oindio apurtxo bat igual zazpitterdiak arte. Gero lanera barriro hara. Puf...! Lana? jo...
- Baiña ezaun da lanak ez dabela gizona zahartzen, zeaittik zu oso ondo zare!

6.12. Bixentek baserriko tresnak egiten zituen

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/017
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:23:41. **Bukatu**: 00:25:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Lexikoa
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Baserriko tresnak egiten zituen: igitaia; artarea; burdinarea; goldak.

Transkripzioa
-Ta ze erramintta eitten ziñuzen?
-Ba itten nittuan, ba artaria, burdiñaria... Laixaik orduan ez zan itten, arreglau bai batzun batzuk, ezta; gutxi, ia laixia itxitta euen. Geo goldak, "arado graman" esate akonak, horreik golda haundixok; ba horrek puntak eta kutxillak eta zapatak eta gastau itten akue, ta harek berriztau ta barrixak ifiñi ta. Kutxillak gastata zienien, beste punta zarrak ebai, ta haekin pegau, ta haekin kutxillak eta. Geo etorten zien indda, ta geo inddakuk be ba preparauta ifiñi ta antxe ibiltze giñan; osea dana: artaria, burdiñaria, goldia, goldatxikiñak, dana, dana, gauza asko; batien tornillo bat biher zala, bestien ez dakit zer biher zala ta ba danak, danei obatu, obaketa gotsan.

7. Herria, azpiegitura

7.1. "Behin joan nitzen azokara..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Aranburuzabala Amozarrain, Isabel; Lizarralde Gallastegi, Espe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Pagoaga, Irati
- **Erref**: ARR-018/024
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:26:10. **Bukatu**: 00:27:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Beste kanta batzuen erreferentzia; "Behin joan nitzen azokara..." kanta.

Transkripzioa
- Aber, kantuak... "Zenbat diran, hamar dira..."?
- Ez.
- "... oillua kakarixetan, oillarra..."?
- Ke, ba, ez.
- Holakorik ez? "Behin joan nitzan azokara..."?
- Bai, baiña hori umiena izan dana, ez? Nire umiek, nere neskatilliak ikastolan ikasitta. "Behin joan nintzen...", Zelan da? "... azokara. Topatu nuen txakur txiki bat. Txakur txiki hori uau, uau, uau. Hauxe gaba pasatu nuen nik". Holan da, ez?
- E: Bai. Baiña hori ya Itxarok-eta eskolan...
- Nik uste dot ya gehixao da... Igual izan lehendik igual gero [etara], baiña...
- Bai, ze kantua oso zaharra da, baiña...
- Bai, izan leike. Igual gero ikastolak hasi zienien...
- Baiña zuk esan dozun azkenengo esaldixa zein izan da?
- Aber, zela...? Eske ez dakit.
- "Txakurra uau, uau..."...
- "Behin joan nitzen azokara"...
- E: "Katua miau, miau..."... Osea, gero etorten da katua, txakurra, osea...
- "...txakur txiki hori uau, uau, uau. Hauxe gaba pasatu nuen nik".
- Ez, eske hori ez...
- Azkenengo zatixa ez dao.
- E: Eta gero etorten da katua, ta [...] zaldia, ta...
- Txorixa ta...
- "Behin joan nitzen azokara"... Gero zoiaz aldatzen. "A ze gaba pasatu nuen nik". Hori, igual, "A ze gaba pasatu nuen nik", animalien zarataz edo... depende, txakurra uau, uau; katua miau, miau; txoriak pio, pio... Ez? "A ze gaba pasatu nuen nik". Bueno, igual disparatiak gabiz esaten.
- Ez, ez, ez.

7.2. Musakola auzoa nola aldatu den

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/003

- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:00:55. **Bukatu**: 00:04:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Garratz baserrian jaio zen, Musakola auzoan. Euren etxe inguruan lehen baserriak besterik ez zeuden, baina orain industrialdea eta Iberdueroko transformadorea dituzte aldamenean. Auzoko baserriak izendatzen ditu.

Transkripzioa
-Eta kalian jaio ziñan?
-Ez, baserrixan.
-Nun?
-Garratzen.
-Nun dago?
-Hori baserrixori dao ba oin ein daue zera, baiñe zeretik Ber... zatozela, Musakolako auzuan, entre San Prudentzio ta Zigarrola. Horren aurrekaldien dao oin industria eta aldamenien dauko zera, Ibarduero. Lehen baserrixak zien bakarrik, baiña oin dao dana industria. Bera da baserri bakarrik.
-Zu umia ziñanetik asko aldatuko zan inguru hori.
-Puf, dana! Lehen ez zan, baserrixa ta kitto. Baiña oin noberan baserrixa zan lekuan be dana dau, ba zela gu errenteruek giñen, saldu ein euen lelengo zererako, zela da hori, autobusen garajie ein euen, eta gero ba fabrikak, bi edo hiru fabrika daz aldamenien, eta bestaldera (Iberdrolako) trasformadoria.
-(...) Herrixe osua aldatu da.
-Herrixe eta auzue dana (aldatu da), auzuen ba ez dau baserririk ia. Gero zan ba baserri asko, ein daue Eroski, ein dittuen fabrikak eta han bizi garen baserrittarrak... gu bai oindion, Zabaleta be bai, baiña Zabaletak be ez dauko ezer, eta Ibardrola eta bestaldera dauko -ez jakiñat zela esango utsien zerari- fabrikak, hiru fabrika.
-Zenbat baserrirekin akordatzen zara?
-Lehen? Ba giñen gu geure parajien geu, ez da, hola, eta gero aldamenien Zabaleta. Gero aurrekaldien Olatxo, eta harutzatxuau Omu, eta harutzatxuau Kataide. Hola. Eta oin hori danori da industria. Eta gero hola beherutz goiazela Bergarutz, errebuelta bat pasau ta eozen bi baserri; Artzubin oin zeroi ein daben lekuan, autopistan zerori, han eozen baserri bi. Eta beste bat honutzatxuau hiru. Eta gero Arruena, bi etxekue. Eroskigaz hori desaparezidu zan.

7.3. Etxezarreta baserriko panteoia noiz egin zen

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/010
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:15:55. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

- **Laburpena**: Etxezarreta baserriko jauntxoa bergararra zen izatez. Arrebak bere buruaz beste egin zuen Parisen izan eta handik itzultzean. Bere buruaz beste egin zuenik ezin zenez lurperatu hilerrian, arreba 15 egunean etxean eduki zuen brontzezko kutxan eta gero etxeko lurra bedeinkatu ostean panteoia egin zion. Panteoia egiteko Elgoibartik lau gurdikada zementu ekarri omen zituzten.

Transkripzioa
-Bera hemengua zan?
-Bergarakue. Eta hor euken txaleta. […]. Landariek euken holakotxiek. Sagarran letxe dauko terreno guztiek gauza espezialakin. Eta bere jardiña ta zera. Es más, arrebie juan zan Parisera egun baten eta itxurie ein euen biharreztanen gauzatxoren bat eta etxera etorri ta suizidau ein zan. Tiro bi emun utsen bere buruari. Eta orduan gure izen auen, Bergan euken panteoie, eta Bergako panteoien, eta orduen suizidaurik ezin leikien sartu zerien, eta orduen ze pasau zan? Euki euen hamabost egun pasauen etxien arrebie, hildde, kaja zerien sartuta, brontzezko kajan. Bai, eta euki jonen etxien. Eta konsegidu euen bere etxien bereinkatu lurre eta bere etxien sartzia. Ein panteoie ta. Gure etxien aittak esaten jon, ze papel eukiko euen harek kajan barruen, ha kajia ez zala busti bihar. Eta Elgoibartik berak ein zittuela lau biaje zimentue ekarten, Elgoibartik, idixekin. Ein jonen. Eta gero ein jonen gaiñien...
-Porlana ekartzen zer egiteko, panteoia?
-Panteoie. Eta zela erreka onduan dauen, urek urteten jonan eta ez zonan biher umedaderik. Eta benga semento eta “benga semento para que no salga agua”. Eta gero ha ein jonen eta sartu jonen han. Baiñe zeriagaz ekarri jonen, burdixaz leran. Eske zan bronzezko… Eta hori oindion hor jan!
-Panteoia?
-Bai.

7.4. Etxezarretako gizonaren janzkera; hil zenerako dena prest

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/012
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:20:50. **Bukatu**: 00:24:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Etxezarretako gizonak etxeko panteoian berarentzat zuloa prestatuta utzi zuen hil aurretik. Horrekin batera, notarioari bera hildakoan gauzak nola egin aginduta utzi omen zuen. Etxe inguruetan zebilenean kamisoiarekin eta kapa beltz batekin jantzita ibiltzen omen zen. Etxean esaten zieten berorika hitz egiteko Etxezarretako gizonari.

Transkripzioa
-Gure aittak esan ei jutsanan: ”Eta hau bigarren zuluau zetako dok pa, zetako edo zer?”, eta “ba neu hiltten naizenien neu enterretako”.
-Ia aurretik planeauta zeukan.
-Bai. Eta aillegau zonan bere zera ta hamabost egun lehenao ezkondu

zonan, ein jittunan papelak, ta bueno ba, joan gintzonan, alargunduta gero hil zonan, eta joan gintzonan erresarixora, eta hor jaton erresarixua errezetan gazela Bergako notarixue. Eta esaten jutsen, bajauenan “con su uniforme de marinero”, trajiakin. Baiña trajie zan hola zera, e. Eta bera bakitzu zela ibiltten zan? Eta guri etxien esaten oskuen ba berdurie edo etorten zienien ba tiok esaten usten, zanahorixak edo zeoze erueten juaten gintzonan Kataideko gaztaiñadittik bueltan, kamiñotik ez. Ta bera pasietan ibiltten zonan-ta, gure ordenie zan, topetan bagauen bidien, esateko: “Egunon bedorri, jauna!”, o “arratsaldeon bedorri, jauna!” Eta guk esan baiño lenao hola... Baakin ze(re)n tipokue zan? Holakotxe bat. Hamen holakotxe perillie, hamen puntillazko kamisoie, eta behian puntilla bistan eta kapa bat, kapie abierto, ta kamisoiaz!
-Egun guztia?
-Bai. Gero jantzitte juaten zonan kalera baiña. Bere terrenotan bere kamisoi horregaz eta beronen zer horregaz hola.
-Azpittik ez zeban ezer eruaten, frakarik-edo?
-Keba! Pelotok aidien ibilliko zittuen-edo, kaltzontzillue-edo, ez dakit baiña.
-Ze kapa? Azul marinua?
-Baltza. Kapatxo bat, liso-liso bat, zeoze tapetako.
-Egunero?
-Egunero.
-Udatan etortzen zan?
-Uda ta negu ha ez jonan kentzen. A, eta bueno, hil zan, jantzi utsien uniforme hori eta ipiñi euen kajan hola, etorten don notarixue eta esaten jon: “Que no le hace falta ningún crucifijo, ningún traje, ningún esto.” Bakarrik falta eitten dutsela atzenengo momentuen egon zan kamisoia eta ia esta. Gehixo ezebez, e. Kajie be kruzifijo eta ezebe barik. Pentsa ein zelako...
-Hori idatzitta itxi jonan?
-Notarixua etorri zonan ordenie emoten. Hori notarixan testamentue indda jaukenan, zela enterrau ta zela ein bera..
-Bera lurperatu baiña...
-Bere kamisoiekin.

7.5. Izebaren gorpua baserririk baserri Arrasatera

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/016
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:28:40. **Bukatu**: 00:31:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Bere izeba Etxezarreta baserrian zegoela hil zen. Etxezarreta baserriko bidea Bergara partera irteten zen. Handik joanez gero Arrasatera, elizari "deretxoak" ordaindu egin behar izaten zitzaion. Bere izeba hil zenean, ez ordaintzearren, bizkarrean eraman zuten baserririk baserri Arrasatera. Orduan egin zuen bidea baserritik Arrasatera, berriz horrelakorik gerta ez zekion.

Transkripzioa
-Nire tia hor hil zonan, bai, eta hil zan eta, klaro, bere bidie da kamiñora

urteteko Bergarara urteten dau. Entendiduten dustazu, errekie pasetan dau eta da Bergara. Eta pagau bihar zittuan deretxuek elixieri, e, Bergara pasau eta Mundrauera etorteko. Ba ez! Ekarri jonen Kataideraiño bixkarrien, Kataidetik pasau jonen Garratzera ta Garratzen ipiñi jonen automoillien eta eruen jonen tia kanpasantura.
-Eta hil zan bere etxian?
-Bai.
-A, klaro, bide haretatik Bergarara ailegatzen zara?
-Bai. Errekie pasau ezkero, zubixe pasau ezkero Bergaran hao.
-Eta ezin jonan?
-Bai, baiña deretxuek pagau bihar jittunan. Elixieri, ez deretxuek pagetearren elixieri Kataidetik bueltan. Burdibidien, bai.
-Ez dago biderik Mondraerutz bere etxetik?
-Gero, bai, Zabaletako zubira ein jonan, orduantxe ein jonan. Beste deretxorik pagau barik ibiltteko, ein euen bidie, Zabaletako zubixa esaten jakona.
-Berez bidia jaukanan berak Bergaratik.
-Bai.
-Mondrauerutz ez jaukanan.
-Ez. Beorrek ezebez. Bergatik. Bere bide printzipala zonan kamiñotik.
-Kataide zonan han behien euen baserrixa? Han zer jauenan Etxezarretaraiño?
-Ba zera, gaztaiñadixe eta zerak, gauzak, lurre, arbolak eta solo apur bat eta ganauek ibiltteko parajie.
-Etxezarretako bidera urteten daben zubi hori gero ein jonan?
-Tia hil zanien. Ez gehixao holakorik pasetako, ein auen bidie Zabaletako zubittik San Pruentzioraiño. E! Bere terrenuetatik, baiñe Mundraueko terrenuetatik.
- Ez pagatziarren.
- Bai. Ba, beste behin ba horixe pasau ez dain.

7.6. Epele errekak bereizten zituen Bergara eta Arrasate

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/020
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:36:30. **Bukatu**: 00:37:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Lur-sailen mugak. Oñati San Prudentzioraino sartzen da, baina Bergara eta Arrasate Kanpazartik behera datorren Epele errekak bereizten zituen.

Transkripzioa
-Oñati aillegetan da San Prudentzioraiño bakarrik.
-Baiña Bergara bai, ala?
-Bai, Bergara aillegetan da, Bergara separetan dau Kanpazartik datorren bidiek. Bidie ez, errekiek. Eta hantxe Artzubin hola eitten dau Epele Errekak hola, eta hola eitten daueneian, ia hori geraketan da Mundraue eta hau Berga.
-Barrena eta Bergara dia.

-Bai.
-Zigarrola bera be Bergara da ala?
-Mundraue, Mundraue. Zigarrola. Artzubin badau ba hori oiñ, ipiñi daue ba rotondie, hortxe separetan da Bergara. Hortxe dao Bergaran atzenie, hortxe goittik behera dator errekie.
-Errekia, ni akordatzen naiz txikittan-ta baiñatzera ta juaten giñala.
-Bai. Epelera, honbre! Guk terrenue geukenan hor da bueno. Gu betik bizi izen gitzonan ba hortxe.
-Udalaitzetik etorriko zonan hori.
-Kanpazartik. Gero Bizkaixe separetan jon...
-Kanpazarko gaiñak.
-Bai. Asi eske handik hola ta hola.

7.7. Santa Agedako gaixoak baserrietan

- **Hizlaria(k)**: Leibar Kortabarria, Asuncion; Olabe Leibar, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-042/006
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:16:06. **Bukatu**: 00:19:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Garagaltza, Gesalibar, Santa Ageda eta Uribarri auzuneei buruzko azalpen batzuk ematen ditu Arantzak. Santa Agedako ospitalean 1.500 emakumeraino egon ziren garai baten. Ospitalea izan aurretik bainuetxea zen Santa Agedakoa. Canovas del Castillo bertan hil zuten. Arantzak gogoratzen du garai batean Santa Agedako gaixo askok inguruko baserrietan lan egiten zutela. Hori horrela izan da orain dela 10-12 urtera arte.

Transkripzioa
- Eta Gesalilbar auzua da hau, ezta?
- (Arantxa): bai. Santa Ageda da, “patrona de Santa Ageda”. Lokepasa esaten dogu, lehen Gesalibar, Santa Ageda ipiñitakua dala sikiatrikuak-eta etorri ziranien-o.
- Izena da Geslibar.
- (Arantxa): bai.
- Ni oin aurrekuan zurekin egon, eta gero fan nitzan medikura eta atzera etorri nitzan zeatik fan bihar nitzan Bazterrazpikora. Eta Bazterrazpikuan ikusi neben fatxadan Uribarri auzua.
- (Arantxa): bai.
- Eta neri esan nostain zu ziñala Garagartza, Santa Ageda-Garagartza.
- (Arantxa): ni naz jaixotez Garagartzakua porke hau da Garagartza zan.
- Zu ez, zure etxia.
- (Arantxa): bueno, hau etxiau. Etxe bixok.
- Osea lehen Garagartza zan orduan.
- (Arantxa): bai. Lokepasake guk Santa Agedara betik, hor zela piñudixa egoten zan, oso gauza illuna zan, betik Santa Agedan itten gauen bizimodua. Eta bueno, ba gero kamiñua in zanien be Santa Agedatik in zan, eta ze in gauen ba elizaz kanbixau, Santa Ageda izan biharrien, edo

Garagartza izan biharrien, Santa Ageda. Jaixotez ni Garagartzan bautizauta nau, e? Neure umiek ez baiña ni bai, eta horreik be bai.
- Oseake Garagartzak orduen parrokixia eueken?
- (Arantxa): eta oin de badauko Garagartzak parrokixia e?
- Oñatin be hiru parrokixa bakarrik dagoz, Araotzen, Ursulan eta parrokixia Oñatikua.
- (Arantxa): a, bai e? Uribarrin be parrokixia, Garagartzan be bai. Urbarrin hemen, hemen, eta Santa Agedan, bai.
- Oñatin hiru bakarrik.
- (Arantxa): hemen, Santa Agedan orduen ba klaro, oin jente gutxi dau baiña Santa Agedan orduen jente mordua egoten zan e? Igual emekumetan mille ta bostehun lagun inguru.
- Bai, e? Herrixa izateko moduan zan.
- (Arantxa): bai, izan lekien. “Por habitantes” izan lekien.
- Santa Ageda ospizio edo ze horretan…
- (Arantxa): bai, sikiatrikuan dauen jentiakin eta…
- Milla ta bostehun esan dozu?
- (Arantxa): emakumiak mille ta bostehun bat bai egongo ziren sasoi baten.
- (Asun): artien balnearixua euen e? Hemen goiko etxien balnearixua.
- (Arantxa): bai baiña hori sikiatrikuok etorri aurretik.
- […] jentia urak hartzera etorten zan?
- (Arantxa): itxuria, ez...
- (Asun): “agua sulfurosa” euen.
- Bai, urak hartzera. Han Ursulan be badago, bi be bai.
- (Arantxa): Santa Agedan asko dau sulfurosa e?
- (Asun): ba honaxe etorten zan.
- (Arantxa): Mojan entrada batien pasaten bazara, ondiok Santa Ageda eugenien, edo ostegunien, jun nitzan bai eta usain bat! Hemen oso asko dau hori urori.
- Orduen horren inguruen sortuko ziren hemengo ospittala eta zera.
- (Arantxa): bai. Lehen aurretik balnearixua zan Santa Ageda, e? Canovas del Castillo Santa Agedan hil zan, hil auen. Eta orduan haren zerian gero montau ziren sikiatrikuak, eta emakumiak asko be gehixago egoten ziren gizonak baiño. Milletik gorago ziren betik.
- Zuk betik ezagutu dozu sikiatrikua?
- (Arantxa): bai. Eta betik ezagutu dot eta ointxe ez. Baiña lehen betik geixuak baserrixetan lanien ibiltten gittuan.
- Bai, e?
- (Arantxa): bai, bai, bai.
- Terapia modura-edo?
- (Arantxa): jeneralien izaten zan baserriko jentie hor ingresauta euena, ba orduan baserri mundua zan. Eta ni akordetan naz garixa jotekuen, garixa ebagitteko, lan eta fijo be bai egunero, lo itten barrura baiña goizien etorten ziren armozetan eta afaldu eta gero barrure. Onddiok zenbat urte arte ba, hamar-dozena bat azkena? Urtain hil zala? Ez, hil zan e?
- (Asun): zein?
- (Arantxa): Urtain.

7.8. "Salbokonduktoa" trenez bidaiatzeko

- **Hizlaria(k)**: Gorostiza Bengoa, Asuncion
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-044/015
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:57:56. **Bukatu**: 01:01:13

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Ama joaten zen Maringo gizonen arropak garbitzera. Trenerako txartela hartu aurretik, kuartelean jaso behar izaten zuten ibiltzeko baimena, "salbokonduktoa". Alabaina, oinez joatea libre zegoen.

Transkripzioa

- Baiña hola samur marietekua izan naiz betik e? Umetan be, bueno, ni Mariñera fan baiño gurau izaten neuen oiñez fatia. Eta gustau itten jatan hara fatia, e?
- Baiña oiñez, kotxien ez.
- Gero trenien faten nitzen, eta trenien fan barik be geldiketan gitzen e? (…) Falta itten otsen amari… Gure amak fan biher izaten auen hango erropak garbiketan hillien behin-edo. Jeneralien gaiñera faten zan eurixa hasten zanien, orduen etxien be ez euen urik, han baserrixen ez auen urik. Ta bai, errekara, bertantxe auen eta ondo. Baiña faten zan eurixaz, ta kanpuen hartzen auen eurixori zerien, teillatutik, berotu, bota zerori te ba han garbiketan ziren erropok eta gero labaderuen edo zerien aklarau eta ya esta. Eta orduen faten zan trenera, eta trenien falta itten utsen estaziñuen kartillia-edo… zer euen, zerori hartu aurretik, billetia hartu aurretik, zela esaten jakon, salbakondukto-edo atara biher zan, eta […] sekula be.
- Salbokonduktua hemendik Mariñera fateko?
- Hemendik eta Mariñera fateko, behin baiño sarrixago buelta egindda nau.
- Eta hori nok emuten eben hori?
- Kuartelien. Akordetan naz gaiñera azkenengoko aldiz fan nitzanien, nire aiztiek nik baiño lau urte gutxiago euken, oseake nik baneuken zorzi ha lau, eta harek ekarren, nik poltsie erropakin tte holako gauzakin, poltsie, eta amak ha aupaz zuela, eta fan gintzen kuartelera, azkenengoko aldiz akordaten naz. “Me tienes que hacer el la salvaconducto para poder ir a eso”(…) eta emun eta aide, eta gero ya bixartik etorri ahal izaten zan. Baiñe ha be eukitten zauen egunetarako, eta gero hurrengoko egunien fan biher zauen edo handik zortzi-hamar egunera, barriro barrixa. Eta halako baten ahaztu zan hori, e? Eta gurien aitta faten zan Mariñera eta horixe ez ataratia arren, oiñez faten zan.
- Ha, baiña oiñez fatia libre zan baiña trenian fateko…
- Trenien fateko harek falta itten otsen. Eta oiñez faten zan ba hemendik Atxabaletara faten dan letxe, eta gero Atxabaletatik Eskoriatzara eta Eskoriatzatik Mariñera neu be fanda nau oiñez hara. Trenik eta ezer ez euen denporan. Trenik barik be egondakua da ta.
- Zuk ezagutu zeben hemen trena ifiñi zanien?
- Hemen? Honbre, ondion noiz kendu daue? Umiek be akordetan dira gurien neskatilla-mutikuak be.
- Baiña zuk esan dozu trenik ez euenien akordaitten zariela.
- Klaro, trenik ez euen ba ez euelako, “que si la guerra, no guerra, y estaba sin tren”.
- Baiña bestela zu umia ziñanetik…
- Ni umia nitzanien trenien faten nitzen hara. Ta Atxabaletan sartu orduko ya…

7.9. San Esteban jaiak

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/018
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:53:33. **Bukatu**: 00:55:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
  Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Arabatik eta Bizkaitik etortzen ziren Udalako San Esteban jaietara. Iturriko uretan freskatzen zituzten tabernan saltzeko garagardoa eta ardo zuria. Bola-jokoan asko jokatzen zen jaietan. Euren etxe ondoan egin zuten eskola berriak pilotalekua ere bazuen.

Transkripzioa
-Eta hara san Estebanetan kaleko jentia edo beste auzo batzutatik...
-Eneeee! Hasi Bizkaittik bai ta Aramaixokuek, Arrazolakuek, Elorrixokuek... Nik eztakit ze jente juntetan zan. Guk ze zerbeza saltzen ete gauen! Eta epeltxuek egoten zien, epeltxuek ero ba korrientiek eta. Ekarri bai itturrittik ure, eneeee! Hantxe freskaketan zien.
-Zerbezia freskaitteko?
-Saltzeko.
-Baiña zerbezia fresko saltzeko.
-Bai. Eta ardau zurixe goxetan erateko han labaderotxo bat euen han gure etxe aurrien, hori eskolatxo hori, lehen esan dotena, eta hantxe ure, baiña oso freskue egoten zan, ur korriente haundixe euan-da; eta hantxe saltzen zittuen garrafoiek. Ardao zurixe eta hori freskue. Hareik zittuan frigorifikuek, e...
-Eta aixkora probarik edo boletan ero.
-Bai, kristonak boletan, hemen inguruen ez euen... Eta jokatu be asko eitten zan. Diru asko jokatu be bai, e. Beuen, beuen. Eskola eder horrek frontoie be ederra euken. Ta dauko.
-Eskola barrixori frontoiakin danakin ein eben.
-Bai, bai, bai. Eta entrada bat eta! Baiñe haundixe. Harek terrenuek be asko jaukene, e. Eskolie haundixe eta gero bere ingurue be haundixe. Tokauko bagiñe behiñ udelan erakutsiko geuzkizu gustora hango geure gauzok. Oiñ eztau soloik eta ez... Ortutxo bat bai.

7.10. Errepide berriak, gurdi berriak

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Joxe Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Erref**: ARR-052/003
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:03:25. **Bukatu**: 00:06:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Baserrian egunero lana egin behar da, baina norberak nahi duenean hartu dezake egun librea. Hamar bat ganadu buru izaten

zituzten Muxibarren. Esnea banatu ondoren joaten zen mutikotan eskolara. Errepide zaharrean gurdiek ibiltzen ziren, baina brea jarri ziotenean gurdien burdinazko gurpilak debekatu zituzten. Harrezkero, astoa kendu eta zaldiak bultzatutako gomazko gurpildun gurdia erabili zuten.

Transkripzioa

-Holan izengo da, seguru. Bueno bizimodueee…
-Diferentia ezta?
-Diferentie dok e, fabrikeko bizimodue eta kanpokue diferentie dok. Hor alde haundixe jak, bizmoduen, alde haundixa, norberak gure dauenien libre be bai egoten dok eta… Domekan eta [katiuen…] baiñe, beste egun batzuk hartzen dittuk, norberak gure dauenien. Gu Bitorixara, ni Bitorixara asko fanda nak, Villefrankara be bai. Ibillitte asko nak. Baiñe hor egonez gero ezin fan. Ez dok /eztok/? Ta hola.
-Bai, domeketan igual lana ein biher baiña…
-Bai, domeketan lana seguru, basarrixen domeketan lana ein biher dana, hori ez jat /etxak/ dudarik. Lehen… lehenau moduen, barrez, behixek eta esnedunek eta eukitten zienien, orduen derrigor ein biher zuan lana. Noixien behin jarein normal, astegunien letxe esnie batzeko eta kalera erueteko ta. Esnie kalera eruten gaixuan guk, saltzeko. Ta upa danien…
-Zer zeukain ganau asko etxien?
-Ba eukitten gittuan lau-bost bat behi edo, hola. Bai hori, idixek be eukitten gittuan, ta hortik eta hemendiko ba hamar bat buru edo egoten zittuan. Ez zuan /etxuan/ baserri haundixe geuria e.
-Bueno baiña hamar buru ia…
-Bai, hamar bat buru egoten zittuan. Bai. Baiña akordetan nok e, esnie mutikue, eruen kalera ta, astuen, goixien esnie partiru, ta gero eskolara faten gitzuan. Eskolara. Ta gero eskolatik urteten gauenien barriro astue hartu ta etxera etorri, bazkaitteko. Ta hola.
-Ta astua nun isten zeben, ba?
-Astua, han korta bat bagaukan guk, etxe zahar bat kalien. Ta han jauan korta bat, ta han egoten zuan astuoi, lotuta.
-Ta zueik jaztetxia ta eukitten zeuein?
-E?
-Jaztetxia.
-Ez, jaztetxerik ez.
-Oñatin, Oñatin…
-Jaztetxerik ez.
-Oñatin mendiko baserrittarrak eukitten eben herrixan jaztetxia esaten xakon…
-Ez, ez, ez.
-… jaztetxia esaten xakon.
-Etorri Txaber! Etorri hona! … Jaztetxerik ez.
-Ez.
-Ez, han ez jauan /etxauan/ hamen jaztetxerik. Mondrauen ez jauan /etxauan/. Eskolara faten gitzuan ta kitto. Erueten zien erropekin, abarka zahar batzukin ta, fraka zahar…
-Baiña zure aitta-amak domeketan mezetara faten zienian ta… Karo, hau ez da, hau ez da mendixa, ezta? Hau kale hau.
-Hau kale hau, kale hau nibelien ta, hemen kamiñue beti egon dok. Kamiñue nik beti ezautu juat. Brea barik ezautute nak e, hau kamiñuau, brea barik. Brea bota barik ezautute nak kamiñuau.
-Zu hor ibilliko ziñan idixakin, ezta? Eta burdixakin.
-Bai, bai, burdixekin. Burdi korrientiekin ibiltten zuan jentie orduen

kamiñuen. Gero brea bota zanien etorri zuan errubera burdiñezkuok ez ibiltteko zera ta... orduen e...
-Gomazkuak?
-Bolantiek bai, bolantiek ondio burdiñezko erruberak aukienak, txirinkak e, aruek! Aruek, horreik ibiltten zittuan ondio. Baiñe bestiok kendu jittuen. Ta gero, gomazko karruek-eta agertu zittuan, guk e... guk karrue bagaukan e, errubera hortaikue. Ta gero ifiñi gaixuan gomazkue. Gomazko erruberakin, kaballuaz. Esnie erueteko. Hola.
-Ia zaldixekin? Astuekin ez?
-Zaldixekin. Zaldixekin karrue ibili ta karruen andrie faten zan karruen. Plazara ta danera karruen. Karro elegantia, zerakin, gomazko erruberakin. Espeziala.
-Bai, baiña zuk esan dozu mutikotan esnia eruen astuekin...
-(Biloba) Aitita!
-Ta eskolara fan gero!
-Bai, baiña oin esan dozu zaldixekin karruan...
-(Biloba) Aitita!
-... karruan ia zaldixakin.
-Gero zaldixekin. Gero zaldixe ifiñi gaixuan astue kendute! Ixilik egon e, Txaber! Ixilik egon! Ta hola.

7.11. Arrasate askoz txikiagoa ezagutu zuen

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Urrutia, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Erref**: ARR-053/002
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:02:14. **Bukatu**: 00:04:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- **Laburpena**: Esnea kalean saltzen zuten. Zigarrola aldea handitu zenean, kalera gutxiago joaten ziren. Bera mutikoa zenean bizpahiru etxe eta lantegiren bat besterik ez zeuden Zigarrolatik Arrasate barreneraino. Pedro umea zenerako Zerrajera martxan zegoen. Pedro 1947. urtean sartu zen Zerrajeran, 3.554 langile zenbakiarekin. Kooperatibak 1955 urte inguruan sortuko ziren.

Transkripzioa
-Esnie eta erueten zeuen kalera?
-Ba hooombre! Ha zan ba gure zeroi. [...] porruek eta. Zigarrolako andrai.
-A, Zigarrolako andrai? Ez ziñan faten kaleraiño?
-Kaleraiño? Ez.
-Kaleraiño ez?
-Gure aman denporan bai, baiñe gero hau puxkat haundittu zanien, ez gitzen faten ez. Hau puxkat haundittu zanien, ez gitzen faten.
-Eta Zigarrolan ze euen azokia? Edo etxerik etxe ibiltten ziñan?
-Hor ibiltten zien horreik e, andra bi edo hiru edo, lau edo. Bai, hemen jente asko dau. Hemen lehenau be, ni mutiko denporan, urten hemendik

eta Mondrauen, Maala esaten jakon barreneraiño, ez auen etxe bat be. Ba horixe, “Casa hierro“, gero Bidekurtze edo esaten jakona beste bat, ta ba akabo. Fabrika bat edo bi, Elma ta holako batzuk eta… ez auen, kaleraiño ezer be ez auen.
-Ta hor zerria ta noiz ipiñi euen, Zerrajerakuek?
-Ba ni nire… akordua baiño lehenau, e. Bai. Nik ez dakit /eztaitt/, horrek liburua leirute dauket, baiñe ez dutsut esango seguro. Hori ba Zerrajerie fundau zanien-edo izengo zan horreik.
-Ia, oseake zu umia ziñerako Zerrajeria ia martxan euen?
-Hombre! Zerrajerie ez dakit ze urtetan fundauko zan, baiñe nik e… sartu nitzen Zerrajeran “En el año mil novecientas cuarenta y siete“ ta eitten nauen “tres mil quinientos cincuenta y cuatro“ numerua.
-Langille numerua?
-Bai.
-Baiña ta danok ez ziñain ibilliko?
-Baaa batzuk hildde egongo zien! Bueno, gero Zerrajerie bakarrik ez zan! Zerrajerie, Roneo, Altos Hornos, Olate Oñetikue be Zerrajeriena zan.
-Bai, bai.
-Ta ba hor e…
-Oseake oingo kooperatibak baiño jente gehixau ixa!
-Eske orduen koperatibarik ez auen e! Koperatibie fundauko zan “en el año mil novecientos cincuenta y cinco” edo holako bat? Ni soldauskatik etorri ta gero. Bai.

7.12. Eztei-bidaian Madrilera

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Urrutia, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Erref**: ARR-053/024
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:57:30. **Bukatu**: 01:00:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- **Laburpena**: Bost seme-alaba izan dituzte. Arrasaten ezkondu ziren. Madrilen hotelera sartzeko "libro de familia" eskatzen zuten. Ordubetean iritsi ziren Madrilera hegazkinez, baina "El Rápido" trenean itzuli ziren, eta ia egun oso bat eman zuten bidaian.

Transkripzioa
- Zenbat ume hazi dittuzue?
- Bost. Bat hil in jaten, oin lau. Hiru neska ta seme bat. Alabie zerien dabil, Oñatin, palillosenien.
- Koiño.
- Han bizi da, Oñatin bizi da, gaztiena. Ta beste bat hor zerien dabillena, Axun, hau zelan da? Hau liburutegixen edo?
- Bai, liburutegixen […].
- Ta gero beste bat eta semie, [Sugian] dabiz, Altunanien. Bai.
- Ta orduko ezkontzak nolakok izaten zien?
- Ba, nik ez dakit ezkontzak…
- Banketek eta eitten zien…
- Zeuek nun ezkondu ziñein?

- Mondraon.
- Mondraon kalian?
- Parrokixan bai.
- Hamen ez zeuen, mezaik ez zeuen emuten?
- Ez, hori da Aramaixokue ta hor Mondrauen aon krieda edo neskame edo ta hor zertu gitzen. Ta gero libro familiarra ta ez dakit zer ta faten zitzen, Madrillera fan gitzen gu ta lehenengo libro familiarra eskaketan otsuen, bestela ez otsuen habitaziñoik emoten ezkonduta zeuezeneko gauzek eitteko. Oingo moduen ez, edozein hartute fan ta...
- A, hori zan ezkonduen karneta?
- Bai. Bai.
- Nora ein zeuen biajiori?
- Lehenengo Bilbon in gittun egun bat edo bi edo ta gero abioien Madrillera. Bai, ta Madrillen zortzi-hamar egun ez dakit ze egin gittun ta...
- Lehenengo aldiz abioian ibiltzen ziñala?
- Lehenengo ta azkenengo hoixe naz ibilitta. Gero handik Donostiara. Abioien urten bostetan Bilbon ta xeietako Madriden. Ta auen denpora bat... bueno! Zoragarrixe. Han fan biha gauen hotelera taxista batek eruen oskun maletok eta gauzok eta hurrengo goixien jaiki gitzenien eurixe! Bota ahala guztien! Guk ez dakit zortzi-hamar bat egun ein gittun Madriden eta egun bat ez zauen pasau euririk in barik. Ta eurixa itten aben baiña gero ostera segiduen zertu eitten auen, jaso itten auen ta euzkixe iguel. Maietza zan. "Veintisiete de Mayo" ezkondu giñen. Ta gero han zertu gitzen ta beste lagun bat be, bi pareja fan giñen hemendik Mondrauetik eta harek andria auken Valladolizkue ta gure eban Valladolizera etortie ta trenien. "El rápido" esaten otsien tren horri. Urten gauen Madriden, ez dakit ze ordutan urten gauen, egun dana baiño gehixau ein gauen trenien Donostiara etorten. Bai. "El rápido".
- Ordun zibillezko ezkontzaik eta izaten zan?
- Ez.
- Ez, ez? Ez zan izaten.
- Ta zuek ezkondu ziñaiñien, banketia edo eitten zan?
- Bai.

7.13. Argindarra Uba errotatik; ura etxean

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Sagasta , Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-073/004
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:07:05. **Bukatu**: 00:10:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Argindarra auzoko Uba errotatik (gaur galduta) etortzen zen. Udaran ez zuen indarrik izaten, ur eskasiagatik. Indarrik ezean karburoarekin edota kandelekin argitzen zuten. Etxe barruan ura beti ezagutu du Patxik.

Transkripzioa
-Orduen eskolatik hamahiru urtekin urten ta zu garai hareitan etxian goguen daukotzu ura ta inddarra ta euen edo ez?
-Ure? Ure gutxi. Inddarra be bapez edo gutxi. Inddarra hor beheien euen Uba baserri bat, errotie. Ta neguen zeozer. Holan, gorrittasun bat etorten

zan. Ta udan urik ez zan egoten ta bapez.
-Bapez. Eta esan dozu egon zala errota hori. Oin ez dau ya?
-Oin ez dau errotarik ez.
-Zelan eukan izena horrek?
-Uba.
-Uba?
-Uba, bai.
-Uba errota.
-Bai. Ta hortik emoten euen arginddarra ba neguen.
-Zer eukien hor, saltua?
-Saltue euen bai. Hortxe beheien dau zera, Mondraueko herriko uren tomie.
- Uba errotako kontuakin.
-Bai, hor dau errotie ta lehen esan dotsutena, neguen ure egoten zan ta udan ez zauenien ba ezebez. Etxien jarri ta ezelako argik bez.
-Argirik ez euenien, zer eitten zauien? Karburuekin edo?
-Karburaue ta kandelie ta. Bai, karburue generalien karburue.
-Eta etxe barruen ure?
-Etxe barruen ure, ni jaixo, aittekin; nire aittek ekarri eban hortixik goittik, mendi tontorren batetik holako itturri txikitxo bat zan ta hantxe justo-justo. Orduen asko biher be ez zan. Oingo beste biher izen ezkero hartarako bez, baiña. Zeozer etxe barrureko ure bai, nik beti ezautu dot ure. Bai, nik beti ezautu dot ure etxe barruen. Aittek ekarri eban handik goittik.
-Noz sartu jatzuen benetako argixe, hemen?
-Joe, Iberduero, zenbat urte da ba ondion?
-Ordura arte beti gauzak errotakuakin?
-Ez, Iberduerona bai, baiña pobrie etorten zan. Hor beherao euen trasformadore bat ta ez euen biher dan /bidan/ beste argirik emoten. Por ejemplo ba bizarra kentzeko makiñie be ibili ezinke egoten zan. Biher dan / bidan/ moduko argixe sartu dala hemen izengo die, hogeita hamar bat urte. Oin hogeita hamar bat urte ia Iberduerok berak hartu zitxuen zer danak-eta. Hemen euen hor beheien transformadore bat euen ta aurretik euen lineako hor errotakuek, alanbrie be ahal dan modukuek eta errotako argi horreaz /argixorreaz/ egoten zanak eta.
-Edozein haixe boladaz botateko.
-Edozein boladak eta gero ba ez euen zertute, neutralizaute be. Auzen ba iguel zenbat eta urriñau ta alanbre meheiaue ta. Zatike inddako lana ta urriñera ta ez zan ezebe ikusten, gorrittasun bat bakarrik.
-Ipurtargixa baiño gutxiau?
-Antzea, antzea.

7.14. Trenbide zaharrak; salbokonduktoa

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/021
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:46:49. **Bukatu**: 00:49:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Gasteizen pilota-partida jokatu eta azkenengo trena galdutakoan, bertan egin behar izaten zuen lo. Gasteiztik Maltzagarainoko trenbidearen geltokiak aipatzen ditu. Gerra denboran,

Mazmelara trenez joateko, ibiltzeko baimena atera behar izaten zuten udaletxean.

Transkripzioa
-Hik preguntau dustek zelan faten gitzien gu pelotan-ta ta. Je! Trenian hartu, Bitorixan jokatu, gabeko trena galdu eta bertan lo ein biher! Bertan lo ein biher! Holaxe faten gitzuan.
-Karo, gabian be, ba, igual hamarretan edo hamaiketan izango zan azkenengo trena.
-Zer, gabien? Azkenengoko trena honako? Zortzi tt'erdietan!
-A bai, e?
-Karo! Beratziretan Mondrauera aillegetan zuan. Ba, zortzietan azkena. Zortzietan, porke...
-Hori trenori e, Bitorixatik Mondrauera nundik pasaitten zan? Gatzaga ingurutik edo?
-Gatzaatik.
-Nik idearik trenbide horrenik...
-Bitorixatik Landara. Landatik Mariñera. Bueno, Gatzaa. Gatzaa, Marin, Mazmela, Eskoriatza, Atxabalta, Mondraue, ta Maltzagaraiño.
-Hor erripa haundixa egongo zan, ba, ezta?
-Bai. Buelta haundixek, hola, bueltaka. Bueltaka. Erripie baiño, buelta asko, kurba asko. Ez dakit zenbat zera. Ixa ordubete itten juan Mondra... zeretik, Bitorixatik Mondrauera. Bueno, geratu be leku askotan e, trena.
-Bai, orduan auzo danetan.
-Bai, bai. Mazmelan be geraketan zuan ta. "Apeadero" edo deiketan jutsien horreiri.
-Hori da. Eta gerra denporan, Mazmelara juateko ta, ez zeuen biher izeten salbokonduktua ta?
-E... hamen egoten zuan... gerra denporan Eskoritzan egoten zuan zera, kontrola. Ta Mazmelara fateko-ta bai, bapel bat biher zuan, aiuntamientuen atarata.
-Salbokonduktua.
-"Salboconducto", hori dok. Salbokondukto.
-Bai, niri jende askok komentau dost.
-Bai, bai, bai. Salbokonduktua. "Nora fan biher dozu?" ta aiuntamientura fan ta salbokonduktua atara biher. "Caguen la puta leche... San Dios..." Holakorik ondio, holakorik ondio...

7.15. Komuna eskailera puntan

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/022
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 01:01:55. **Bukatu**: 01:03:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Argindarra beti ezagutu du etxean. Komuna ukuiluaren gainean zegoen. Ipentza baserrian, berriz, eskailera baten gainetik egiten zen, jartzeko lekurik gabe. Norbera garbitzeko terreina handi bat erabiltzen zuten.

Transkripzioa
-Ta zueik etxian arginddarra ta bazeukotzuein?
-E?
-Arginddarra.
-Bai, bai, bai, bai.
-Betik ezautu dozu?
-Nik pentsetan dot, bai.
-Eta kumunik?
-Komuna, bueno. Bai. Gauken baiña kortara, e. Atetxo bategaz eindda kortara. En kanbio, Ipintzan, Ipintzan gero in zan zera, baiña Ipintzan auen holan eskillera bat moduen, eta handik ein biher zan, eskilleran jarri ta ein biher zanoi.
-A, zulo barik eta…?
-Bai, zulo barik eta.
-Jarteko leku barik?
-Bai. Eta gero, gero nunbaitten ein auen han tiok, zertu auen, sortu auen zera erredonduori, pat… zer baten…
-Jazarritta eitteko.
-Bai, kaka. Ez, guk hori bagauken e. Hara fan aurretik.
-Oseake zueik Ipentzan “a pulso?”
-“A pulso”, klaro.
-Ondo da, han beittu, kortara fango zan ha.
-Kortara, kortara. Klaro geuk be atia be bagauken, eta bere zuluaz…
-Bai, bai, jazaritta eitteko.
-… ba jarteko lekua.
-(Laguna) [Goixan] ”Cuarto Baño”.
-Bai, hori gero, obrie ein zanien. Baiña ha beheko komuna, asko usetan gauen guk. Karo, danok zerien, ta gora fateko zera baauen baiña…
-Ta zueik zeuek garbiketako zela eitten zeuein?
-Ba barriñoi haundi bat ipini, urakin. Eta, ba, ogixe eitten zan lekuen, oso paraje zera zan, bentana txikitxo bat auken e, eta ogixe eitten zan lekuen, haraxe eruen, eta zerrau atioi. Atiek be orduen zien bat behien ta goixen bestia.
-Bai.
-Ta haik bixek zerrau, eta hantxe, jabondu, eta, ba, hantxe, hantxe.
-Eta mutillak be igual eitten euein?
-Mutillak faten zien errekara edo.

7.16. Iturria, patinak eta ur-andela

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/023
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 01:03:46. **Bukatu**: 01:06:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Etxerako ura bi patinatatik ateratzen zuten. Edatekoa iturritik ekartzen zuten. Sukaldean uraska bazegoen. Iturburu batetik betetzen zen ur-andela ere bazuten.

Transkripzioa
- Mutillak faten zien errekara edo, ta gurien azen bi patin. Bata auen

behien ta bestie auen goixen, ta goikue zan, oso hotza ura urteten auen. Eta, ba, handik, ba, udan ta…
- [makiñia] Zera, ura ataratekua?
- Ke ba! Eskuz! Botaten gauen baldie buruz behera, bete ta sokiaz atara eta erregetako be dana holaxen, e?
- Ta horri be patiña esaten xakon?
- Patiñe, patiñe, bai, zulue.
- Patiña ez zan hola bonbia…
- Bai, ta… baiña ez, ez. Karo, ha zan zeraue. Patiñe, baiña ez, ez. Horrek bestiok zien behera zulua aukien, e? Behera, behera. Eta han…
- Gero gaiñien, osea ke ze, […] bueltatxo zera ein eta...
- Ez, guk…
- Sokiakin hola jasotzekua?
- Bai. Geuk sokiaz bota baldie ta jaso eta gero handik surtiduten gitzen garbiketako ta.
- Eta erateko, erateko…
- Erateko ez. Erateko faten gitzen metalitturrixe, haraxe. Hori be ipini auen horrek jauntxu horrek ipinitta auken depositue auen bere bestekaldien ta zera zan, metalezko ura. Gozua, e? Gu faten gitzen egunero ta uda partien, ene!
- Eta sukaldien fregaderia bazekatzuein?
- Bai. Fregadera, akordetan naz illun samarra zala. Orduen, e? Gero ipini zan ia bihe dan moduko fregaderia. Bai.
- Eta ura ze zekotzuein teillatuko urak […] batera edo?
- Ez, ez. Itxurie zeren bat auen, zelan esaten da horrei? Jaixotzako…
- Manantiala edo…
- Manantial hori auen han, piñudixen edo, han topau auen behintzat guriek eta handik ekarri zan depositora ta depositto dezentia auken, e? Uda partien, ba, ha be gutxittu itten zan. Bai. Ta bestela mutillek errekara zerera, igeri eitten. Orduen errekak etorten zien baiña garbixak, e?
- Baiña, baiña neguan ez zien errekan garbittuko?
- Ez, ez.
- Neguen […]
- Neguen ba, ba, ahal dan moduen haik be, askara fan ta…

7.17. Koroeta auzoa: baserriak; errota

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/005
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Koroeta auzoan jaiotakoa. Urkulu errota. Bertan zeuden baserriak; izenak.

Transkripzioa
-Ni jaixo nintzen Koruetan. Urkulu zan errota bat auena oin zubixa moruen

dauen lekuan. Hantxe behian auen errota bat. Oin marketan dauena zera, oin marketan dauena ure noraiño dauen-eta. Horman, haxe dauen lekuen, hantxe zuluen. Oiñ badao ba txabolatxo bat eta han ikusten dana neurtzeko eta? Hantxe inguruen auen Urkulu. Eta hor auzen Urkulu, Biziondo -beste bi baserri-, Uxar Txiki, Uxar Haundi, Gixats, Errotazar goratxuao, gorau Errotazar; oiñ ardixek-eta ibiltten dien lekua, Marketegin parien, hor behien euan Errotazar, eta, Mari Pilar-eta nunguak die?, Mendikurtz. Mendikurtza guztiz ez auen hartu urek, baiña bestiek bai. Eta hor errotakuek, Urkulukuek ekarten oskun guri esnie; eta esne ona ekarriko oskun, ze gure amama ibilli zan esniek ekarten Mondrauera, eta itxi zittuenien esniek ekartiai, gure etxerako ekarten gauen, horko Urkuluko esnie ekarten gauen, orduan Koruetako esnerik onena Urkulun egongo zan, pentsetan dot nik. Egunero ekarten oskun guri eta abariai. Ze beste danak baeukien etxian. Eta oso relijiosuek zien, etorten zien mezetara, mutikuek izeten zien monagilluek.

7.18. Neguan musika eta dantza merkatu plazan

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/019
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:36:20. **Bukatu**: 00:37:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Severo Altube plazan, merkatu plaza zegoen. Neguan han egiten zen dantzaldia. "Berduri dantz".

Transkripzioa
-Eta gero, oiñ Sebero Altube dauen lekuan euen berdura-plazia, eta neguen han ipintten zan dantzia. Berdura-zestuek eta danak ipintten zien eskiña baten, eta han euzen aulkixek eta hori danak, eta joten auen Bitoriak, Bitoriak joten auen horrek tanborrok egoten dienak, baterixia. Hiru ero lau. Eusebio Gomez zan beste..., eztakit tronpetie edo zer joten auen. Ha bai, ha zan..., baile zerraua zan ha! Baile zerraue. Eta gero ba izena be ipiñi biher jakon baile zerrauei. Eta bakitzu zer izen ipinitta euken? El Verdury. Verdury Dance (Dantz) zan. Eta al Verdury faten gitzen neguen, berdura-plazara dantzan. Behien egoten zan arrain-usaiñe ta; goixen berdurie egoten zan, han be zeozen usaiñe egongo zan, baiña bueno. Abrigo eta guzti hantxe dantzan.

8. Iritziak

8.1. "Katalamixiliko" abestia, eskuekin jolastuaz

- **Hizlaria(k)**: Axpe Elejalde, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARR-019/020
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:40:14. **Bukatu**: 00:41:37

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umeei abesten zien erdarazko kanta. Altzoan jarrita "Katalamixiliko..." abesten zitzaien, eskuekin jolas eginda.

Transkripzioa
- Dana dala, bai esan dozu lehen, ez? Umiak lokartzeko edo... umiekin badakazu, holan, kanturen bat?
- Aber, umiekin? Ba, bai. Adibidez, bat dau hor be erderazkue. Kuriosue da. Zergatik ete da, e? Aber, erederaz dauena da: aber, itten jakon umiei hartu. Hartu altzuen umie norberen altzuen jarrita, ta bere bi eskuak hartu eta itten zan, edo bai bere aurpegira, edo aman edo altzuen aukenan pertsonian aurpegira, bere bi eskuak hola ebatuta, eta eitten zan:

Katalamixiliko,
sopitas de leche
ya comería
si no me lo das
Kas-kas-kas-kas-kas!

- Eta hori umiei asko gustatzen jatien, e! Nik goguen dauket hori, bueno...! Nik bai nere umiekin ta bai lobakin, txikixekin, eta hori, esaten dotsut, hori, bueno! Eta erderaz da hori be!
- Bai, baiña oso...
- Dauko...
- Soiñu...
- Bai, bai. Eta gestue. Eske zan horixe, eurakin lotura gehixao. Eurakin zeozer eitten zenien, lotura gehixao zan. Kantaute bakarrik ez zauken hainbeste.

9. Lanbideak

9.1. Neskame zela, gose zelako egindako gaiztakeria

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/024
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:43:30. **Bukatu**: 00:45:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Neskame egon zenean zeraman bizimodua azaltzen du. Goseak egoten zen; eta, behin, harategitik okela erosi zuenean, bat beretzat gorde zuen. Nolanahi ere, nagusia jabetu egin zen.

Transkripzioa
-Ba zan kale etxie, komedorie, han bazkaitten geuen ta zera. Ta ha garbittu

ta hango lanak eta kuartobaiñue ta zerak ondo ipiñi eurak jaiki baiño lehenao. Eurak juaten zien beratzietako mezetara. Eta bueno, etorten zien eurak, armozetan jonen eta nik itxoin bihar izeten naxonan esnedune etorri arte. Eta esnedune etorten zanien armozau eta ia esta, harek emuten joskunan katilluan eta ya esta.
-Esnie, besteik ezebe?
-Kafesnie zerakin, ogixakin.
-Azukrie bai?
-Bai. Baiñe neu be izengo nintzen, baiñe ba... gaiztokerixek eitteko. Hori da inozentie izetie, baiña ein neuen egun baten hiru lauren filete karnezerixatik erosi ta filete bat ostu.
-Euretako?
-Bai. Eta zerien gorde, esterapeien. Ta juan nintzenien ba zela falta zan; zela, ez dustiela emun ondo. A ba juango nintzela. Bueltan hartu zerien, juan karnazerixara, Marianokin egon, Mariano karnazeruanian zonan da, Marianokin egon barriketan, etorri tta, “barkeske eskatu dost, ez dala akordau ta”. Ya esta.
-Azpitik hartu eta...
-Bai ba. Ipiñi...
-Konturatu zan?
-Bai, eske baiña zeu ez zara konturaketan zer ein dozun argi euela falta zana! Baiña iñozentia.
-Gosia bazeukazun zeoze ein bihar, ondo urtetzen bazeban...

9.2. Bi neskameren artean, nagusiei egindako gaiztakeria

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARR-039/025
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:45:40. **Bukatu**: 00:48:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Etxeko nagusiak ahizpa Madrilen bizi zuen. Mutikoak jaunartzea egin behar zuela eta, Madrilgoak etorri ziren eta ez zeukaten denak mantentzako lain genero. Eurak ere goseak egoten ziren. Madrilgo neskamearen eta bien artean egindako gaiztakeria azaltzen du.

Transkripzioa
-Madriden euken famelixie, ba aizta bat han bizi zauen ta alargun geratu zan. Muxibarko Txuluen koiñetie. Geratu zonan alargun eta juan zittunan ha zainketan bi aizta, eta han bizi zittunan, eta ba Primera Comunión in bihar jonan mutikuorrek eta etorri zittunan juniuen. San Inazio egunian ein biher jonen, eta bueno. Gero gerriak urten jonan eta handik etorri zittunan lagun asko eta danok manteniduteko biderik ez jauanan. Eta orduen zerak ein jonan, Madrideko kriediek ein jonan: guri emuten oskun esnie etor ekarrenien, ezta?, eta gero hoztu eta geraketan zan telie, natie eindde. Pentsa ein ze ein geuen egun baten, esniei zer ein guntsen: lastue sartu, esnie edan, eta ahuen ure hartu eta ure bota. Pentsa ein neurri barik zer.

Hurrengoko goizien...
-Zelan nata azpixen ez zan ikusten...
-“Ene!” Baserrittarrak zera jaukenan izena, Joxepa, “Joxepak ze esne txarra ekarri duskun, ze pasau ete da?”. “Ze pasau...” . Aillegau in gintzonan. Bueno ba nik ez jakiñat zetatik akordau jakon edo lehenao eindda euken edo niri lastorik eta holako gauzarik ez jatenan akordau.

9.3. Neskame Zestoan

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/003
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:05:02. **Bukatu**: 00:08:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: 18 urterekin joan zen lehenengo aldiz Zestoara hotelera lanera. Jai eta astegunetan, gau eta egun egiten zuten lan. Atzerritik bezero asko etortzen ziren Zestoara.

Transkripzioa
-Eta hantxe hamahiru urte eindde gero, da aurretik be basarrixen makiña bat lan eindde ta, nun ez lana; euen lekun.
-Eta zenbat urtekin joan zinen lehenengo aldiz.
-Lenengoko aldiz joango nintzen hamazortzittik hemeretzire.
-Eta ze langintza klase egitten zeuen hotelian?
-Hotelien lelengo kuartuetan eta, kuartuek-eta garbiketan da; baitte jantokixetan eta hori be bai. Baiñe zazpi urtien kafeterixan egon nitzen (...).
-Eta uda partian bakarrik?
-Bai, uda partien bakarrik. Eta gero ni pozik joaten nitzen (...). Han etxauan lorik eitteik, e. Han lo gutxi eitten zan.
-Zestuan?
-Eneee!
-Beti juergan?
-Juergan bai, juerga edarra jauan. Jaiki ezkero behin lanien; da gau ta egun. Esan be ezin leike iñ hango kontuik. Haik holan ixtie hoba da.
-Asko egongo ziñazien, ezta?
-Bai, langille asko. Udako denporan agostuan da dana beteten zanien da asko. Baiñe eindde, e! Eneee! Esaten eusten niri beste neskak, “hi ondo ikusitta hao”.
-Langilliena, ezta?
-Eztakitt, eztakitt zegaittik. “Hi ondo ikusitte hao baiña”. “Egon laikek bai holan”. Bai, eindde, eindde kristonak, e.
-Zuek han orduan aberaskilluak eta ezautuko zittuein, ezta?
-Asko! Eneee!, urtero-urtero etorten zienak pe kantidadie euen Zestonara. Urtero-urtero etorten zienak. Eta eurek esate oskuen “ene, qué alegría” ikusten giñunien han gengozelako. Baeuzen portuges batzuk etorri zienak bost urtien illeran-da ekarten oskun Oporto.
-Ardaua, goxo-goxua.
-Bai. Eta danetakuk egoten zien, jentie danetakue dau. Guk asko ezauketan gittun batzuk eta batzukin lagun haundixek gintzen, beste batzukin

hainbeste ez, baiña. Eta gero Ameriketako jentie be jatorra. Ameriketako jentiaz asko lan eitten euen han hotelien.
-Zer zien, amerikar euskaldunak ala inglesak?
-Asturianuek izetez. Han egoten zien hiru-lau famelixa edo; baiñe kantidadeko jentie. Urte askuen etorri zien eta asturianuk zien. Asturianuk edo gailleguk edo asturianuk, horkotxe jentia.
-Gerra ostian juandakuak?
-Bai, bai, batzuk bai. Baiñe oso jatorrak, e. Harekin be lagun haundixauek beste batzukin baiño, baiña bueno, bueno.

9.4. Soraluzera neskame

- **Hizlaria(k)**: Altuna Mondragon, Lorentza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-068/011
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:24:50. **Bukatu**: 00:27:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Hamazortzi urterekin Soraluzeko Meltxiorrena taberna jatetxera joan zen neskame. Hilean hamabost ogerleko ordaintzen zizkioten. Ostegunetan kanoi-lantegiko kafetegira joaten ziren kafea hartzera.

Transkripzioa
-Bueno… eta esan dozu orduen e, eskolie akabau, ta gero etxien ta gero fan ziñala serbiruten.
-Gero, hamazortzi urtekin, Plazentzira fan nitzen, taberna batera.
-Zela… izena taberniek, zela auken?
-Meltxorrena.
-Meltxorrena.
-Meltxiorrena esaten utsien, Meltxior. Meltxorrenera.
-Ondiok badau taberna hori?
-Ba ez dutsut esango, Santana kalie zan ta ez dutsut esango, ez dutsut esango. Eurek hillik izengo die, baiñe alabie zan, ta ez dot uste eukiko dauenik tabernie.
-Ze, ze lan klase itten zeben zuk? Etxeko lanak, edo tabernako lanak, edo dana?
-E… “De todo”. Tabernan, mostradorien, e… janak…
-A, jaten emuten ebein?
-Jaten emuten euen, obreruek-eta egoten zien, ta gero bazkaixek-eta be egoten zien, afaixek-eta be bai. “De todo”. “De todo” itten naben nik. Menos sukaldien koziñera... Koziñerie egoten zan. Baiñe bestela “de todo”.
-Goguen dauketzu zenbat, pagaitten baotsuein, zenbat pagaitten otsuein?
-E? Eneeeee, pentsaizu. “Setenta pesetas”.
-Egunien, astien, edo hillien edo…?
-Hillien. “Setenta? Setenta y cinco” Hirurogeta bost, zenbat da? “Setenta y cinco”? Hirurogeta hamabost pezeta. Ta nire aurrekuek esaten…
-Hamabost duro.
-Hamabost duro. Eta bestiei, nire aurrekuek esaten eben, berai hamar euro… hamar…
-Hamar duro.
-Hamar duro.

-Oseake hamabost duro eta…
-Oseake pentsaizu.
-Eta […]
-Bai, bai, bai. Ba, pentsaizu, zenbat aurreratuko geben guk. Noixbaitten urteten bazeben “pues adiós“. E?
-[…]
-Guk lana ugeri in dou /inddou/, baiñe dirue aurreraketan ez dou ikesi. Horixe ez.
-Dirue aurreraketako lehenengo euki in biher da /inbida/.
-Euki in biher da /inbida/. Egixe hori da, hori da, hori da. Gu betik izen gara [hainbakuek] eta holan segiruten dou ondiokan be.
-Eta orduan Plaentxin bizi ziñala, beti be egunen bat libre eukiko zeuein, ezta?
-Ba ez dakit… Ni akordetan naz eguenetan zelan faten gitzen e… han euen kaiñoi fabrika bat. Ta han euen komedorie edo ez dakit zer ta hara faten giñen kafia hartu-ta itten, eguenetan.
-Illunkaran?
-Bai. Baiña bestela, bestela ez geben eukitten jairik.
-Ez? Hara, Maltzagako erromerixara-eta ez ziñen faten?
-Ez, iñora be ez. Hantxe. Noxbaitten ariñeka bat plazara eitten bageben zeozer euenien, kitto.
-Ez euen gramolarik Plaentxin?
-Ez, ez, ez. Ez euen gramolarik. Plaentxin ez euen gramolarik.
-Ez zan egoten domeketan dantzarik plazan?
-E, bai. Egongo zan, egongo zan.
-Ta zuek lanian?
-Bai, guk ez geben eukitten. Ez geben eukitten.
-Kontxo.
-Gu hantxe, kieto parau. Kieto ez, kieto ez…
-[…]
-Kieto ez, baiña…
-Ta zenbat, zenbat denbora egon ziñen, zenbat urte?
-Ba, hiru bat urte. Hiru bat, igual gehitxuau, hiru t’erdire igual ez zien aillegauko, baiña holaxe egon nitzen.

9.5. Joskin eskola Uribe baserrian

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Goitana, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-146/017
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 00:41:55. **Bukatu**: 00:46:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Goikoetxea abokatuaren emazte Julirekin ikasi zuen josten. Uribe baserrira ere etortzen zen Juli irakastera. Mariak hogei urterekin joskin eskola eta tailerra jarri zituen baserrian. Hamar urtez jardun zuen joskin eskolarekin. Santa Agedako moja bati ere irakatsi zion, errezo artean.

Transkripzioa
- Josten ikastera nora fan ziñan?
- Ba, josten ikestera, hoixe, abogauen andrie zan modistie. Estom Ignacio

Goikoetxea zan, hil zan. Ta hointxe hil da semie, ointxe urtebete bat hil da. Haren semie be abogaue ta aitte-semiek bixek gazterik hil zien, bate bestien atzien. Abogaue, Jose Ignacio. Mondrauen bizi diez eta atzenengo zera artien. Bai, eta, holakotxe...
- Eta gero ze, joskin ibili ziñen gero?
- Bai. Gero etxien be, ikesi nauenien, gizona, abogauek modistiorri, niri erakutsi ustenai, ez utsen ixten "siempre hilos!" tartamudo zan apur bat "por el pasillo y la alfombra y quítame eso". Abogaue ta ondo irabazten auen ta bestie modista eta neskak etxien, ba, abogau horrek, enda "fuera, fuera!", bialdu. Neu atzenengoko bialdu nindduen. Erakutsi usten "corte y confección" enda gura euen neuri erakustie "corte y confección", titulue etaratie Bilbon. Hiru hillebete esan ostien. Etxien ez ustien itxi, esan ostien "ba, modista ta zera ta bestie ta". Bueno, abogau horren andriorrek ahalegin guztiek ein usten berak lagundu usten. Gero etorten zan basarrire, hemen Mondrauen bizi, hementxe, Arrasate gaiñien, eta etorten zan Uribera neuri erakustera. Frakak ebai, alkondarak ebai...
- Etxera etorten xatzun, e?
- Etxera, bai, modistioi. Oso, Juli, hil zan kottaue. Enda, emon usten neuri, titulue letxe emon osten neuri. Hartu nittuen hiru-lau neska, soltera, neuken hogei-hogeta bi urte. Esto... hogei urte neuken akabau nauenian jostioi. Hasi nitzen neure kontura lau-bost neska egunero aukitten nittuen basarrixen, ifini gauen kuartotxo bat, hantxe sartzen nitzen neskakin eta fabrikatik, Mondrauetik etorten jaten ikesten asko, basarrire. Edozer lana! Abadiei sotanie be eindde nau, nobixiei ezkonketako soiñeko zurixe koliaz be bai. Ipiñi bihe zien, ipiñi bihe zien, ipiñi bihe zien danetarakuek. Ointxe nauen moduen, gizona aurrera atarateko zerien.
- Gaiñera, orduen, orduen zu ibili ziñan joskin etxian.
- Etxien joskin erakusten, erakusten bai. Joskin erakusten bost urtien soltera. Gero, xeigarren urtien ezkondu nitzen, beste bost urte... in nittuen soltera bost urte joskin ta beste bost urte ezkondute ume bikin zerien, kalien in nittuen. Beste bost urte, ez! Bost urte soltera ta beste bost urte ezkondute gizon honeaz ezkondute neskakin ta bi umetxokin in nittuen Uriben, basarrixen josten. Santa Agedako zera auen, frailietan auken kosturerixie eurak neskak, auzoko neskak eta juaten zien hara ta preparau nittuen hiru-lau bat preparau nittuen hara josten juateko, bai, zorue, ba, gizakuma harentzako kantzotzilluek edo fraka edo ein bihe zienak edo arreglua apurtu iguel itten zittuen ta, ba, josten neu. Hamar urte neskakin ta oin hemen nabil.
- Hamar urte horreik erakusten Uriben in zittun?
- Bai, Uriben in nittuen erakusten neskakin. Moja bati be bai, erakutsi nutsen, Santa Agedatako mojatatik urten auen ta preparau nauen neuk, Sole, hortxe bixi da, eta preparau nauen ta hari be erakusten be beti be errosaixue errezau, mojietatik etorritta auen ta, errezau, aingeruei ta kantau ta holaxe. Oindikan saludetan nau, ointxe dau, alargundute dau, eta ezkondu be in zan mojiori, bertako enfermero bateaz ta hemen Mondrauen bizi zan. Enda sarritten ikusten gaz bixok eta "E? Akordetan zara, Sole?" esaten dutset "errosaixuek errezetan gittunien?" "Bai! Bai!".

9.6. Auzo-eskola, etxe ondoan

- **Hizlaria(k)**: Arregi Letamendi, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-166/006
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:09:32. **Bukatu**: 00:11:20

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena**: Terek lau urte zituela, Oñatitik Arrasatera joan zen familia bizitzera. Auzo-eskola etxearen ondoko atean zegoen; sei urterekin hasi zen eskolan. Zortzi urte zituela, auzoko Axeri baserrian umezain hasi zen; lo egitera etxera bueltatu ohi zen.

Transkripzioa

- Bueno, ta orduen etorri ga Oñatin ta zu ya hasi za pittin bat gauzakin akordaitten, ezta?...
- Ez, bakarrik...
- O... Etorri ga Arrasatera...
- Bai.
- Bost bat urtekin.
- Bai, bost ez nauen eukiko. Ez dakit, "del treinta y dos al treinta y seis..." lau bat, bost itteko. Bai, ya gero ya hamen.
- Ya. Eta orduen, zu hona etorri ta laister hasiko ziñan eskolan, ezta?
- Ba, eskolia zan aldamenien, "derecha-izquierda". Gure atien beste kaldien eskolak zien.
- Aiba.
- Auzokuek. Eskolie zauen aldamenien.
- Kontxo.
- "Derecha-izquierda" eskolie.
- Ya, ya...
- Eta eskolan.
- Auzoko eskolia, osea etxeko ondoko atian.
- [...] Bai, atian. Hor ibili gitzen eskolan. Denpora askuen ez porke zortzi urtekin fan nitzen Axeikora, hor baserrixe zauen, oin etxi dauena... umezain... Bueno, ez... bai.
- [...] Oseake auzo-eskolia zan hau, oin gauzen lekuen?
- Bai, bai, bai eskolie. Geo, jubilauena egon zan be bai.
- Hemen?
- Hortxe, bai. Aldamenien. Hori in arte.
- Auzoko eskolara, oseake etxe onduan.
- Bai.
- Eta hemendik, eskolara ta... zenbat urtekin jungo ziñan zu?
- Sei urtekin, sei urtekin eskolara, bai.
- Eta umezain hasi aurretik...
- Eskolara faten nitzen, klaro.
- Ta zenbat denpora ibili ziñan?
- Ba, hor be bai! Etorten gitzenien, baiña askotan umiek edo gaixorik zazela edo baserrixen lan asko, ba, lanara fan bihar nitzen! Bueno, lanera! Zainketan, lana ez porke nauen etxien letxe. Porke baserrixe, jente ona. Ez dakizu /eztaitzu/, jente ona.
- [...] Jan ta lo bertan itten zen?
- Ez, ez, ez. Lo itten etxera egunero. Jan ta bertan. Horretxeaittik esaten dot gerra denpora gosie ta... nik goserik ez neban pasau.
- A, klaro. Zu baserrixan, ezta?
- Hor basarrixen ez zeuan goserik.
- Zela eukan izena baserri horrek?
- Axeri.

- Axeri.
- Axeikua.

9.7. Arrasateko dendak

- **Hizlaria(k)**: Arregi Letamendi, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-166/012
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:14:01. **Bukatu**: 00:17:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Zigarrola auzoan ez zegoen dendarik. Erosketak egitera herrira joan behar izaten zuen. Aixkoranera, Paskualanera, Kukura, Erguin ahizpenera... joan ohi zen erosketak egitera. Erguin ahizpen dendan kafe ederra egoten zen, eta oiloak dendan zehar ibiltzen ziren. Zerrajerako ekonomatoa Erdiko kalean zegoen.

Transkripzioa
- Ta esan dozu gaiñea... Klaro, auzuen ezauela... ezeuela dendarik.
- Hamen auzuen ez. Gero in zauen.
- Eta [...] kalera.
- Herrire. Herrire, bai.
- Ta kalien ze denda eozen garai hartan? Han kalien...
- Ba, ya bastante denda. Bastante denda.
- Zu zeu zein dendatara [...].
- Ainketan ostien lekure.
- A ezaidazu hiru-lau bat aber?
- Ba bat... Ba, ba, Axkoranera edo Paskualanera edo zela da Kukure eta neskazaharrak... Erguiñeko neskazaharrak oiluek eta eukitten zeban mostradorein ta danien.
- Bizirik?
- Bai, bizirik. Kakarixoka... Eta... baiño kafie ta ona eukitten zauen.
- A.
- Eta horren amaiginarrebak, Juanjonak, enterau ei xen, ba, hango kafie ta gustaten jakon. Oso kafe, gauza ona zaukien. Hauraxe faten nitzen kafetan.
- Oilluak ze eitten eben ba...
- Bizirik, dendan.
- Baiña etxeko oiluak?
- Etxekuek. Beriek. Neskazaharranak.
- Saltzeko ez, oseake hantxe...
- Eurekin bizi zien! Neskazaharrak, Erguinenak, oilo ta guzti! Ondo!
- Eta eurak... kafia eurak erraitten ebain?
- Ez dakit, hori, baiña kafe ederra e!
- Han kafe usaiña egoten zan?
- Ederra.
- Iual eurek aukiko eben kafia...
- Ez dakit, hori ezin neike esan. Por ejenplo, nik dakit Axkorak kafie orduen Ferixanekue dau zauen atzien... Ez dakizu /eztaitzu/ aldatute dau Arrasate.

Ta berak erreten zauen kafie han akordetan naz... gaztik gitzela, baiño horrek ez dakit... baiña kafe ona horrek aukitten zauen. Ta Axkora be bai. Axkora be famosue zan, baiña neskazaharrak bizi zien bittartien, neskazaharrak.
- Erguiñekuek.
- Erguiñekuek. Erguiñenak esaten otsien.
- Erguiñenak?
- Bai.
- Bai. Eta kafie bestiek ez zeben saltzen dendan?
- Ez, beste gauza asko!
- Aaaa... ta eta oiluak han!
- Bai, nik oiluakin akordetan naz.
- Oilluak dendia zainketan.
- Bai, mostradore gaiñien...
- A, bai?
- "Muy felizes" zien. Oso pozik bizi zien.
- Eta horrek, Erguin ahizpa horrek ze ozen... kale etxe baten edo kale baserri baten edo ze?
- Ez, dendie zaukien.
- A, dendie. Kale-kalien, orduen.
- Kalien. Hori, goixien. Hori, [...] igo baiño lehenau atzenengoko dendan. Kukuena eta eurena. Hantxe dendie. Akordetan naz denda haundi bat zan, patixora gero emuten zauan... Oilluak handik etorri zien, eta... normala zan. Herrixen, normala.
- Dendan sartu eta...
- Bai... oilluek eta... bai.
- Oilluak han lurrien ta...
- Bai, bai... nik baserri... Bai, nik baserrittik ohittute ettaten efektorik itten.
- Ya, ya. Eta arrautzak be salduko zittuen orduen?
- Salduko zittuen.
- Klaro, klaro.
- Baiña arrautzetan enoztien bialketan; basarrixan eurek zeukien oilluak eta...
- Oseake Aixkora, Erguiñenak... beste ze...
- Paskualana be bai...
- Kukuena...
- Kukuena.
- Kukuena zer zan? E...
- Kuku...
- Ultramarinosa?
- Bai, oso famosua izan da herrixen.
- Bai, entzun dot. Beste batzuei be entzun [...]
- Bai, eta gero Zerrajeriek zauken, guk etxekuek eta itten gauen Zerrajeriek zeuken ekonomatua...
- Ekonomatua...
- Porta... Erdiko kalien... gero kanbixau zan dana ta handik.
- A, Zerrajerien ekonomatue be kalien euen?
- Bai.
- Nik ez dakit zeaittik pentsaitten nen fabrikak bertan egongo zala!
- Ez! Gero, hamentxe auzuen ipini zauen be bai. Meneta badau ba?
- Bai.
- Hor be Zerrajerian auki zauen gero ekonomatue. "Como..." Eroski.
- Bai, bai, bai.
- Herrixen hasi zan, eta San Antoniñeko piso bajo baten zaukien be bai eitten.

9.8. Errazionamendu garaian, okindegian neskame

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/035
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:31:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra ostean, errazionamendua etorri zenean, Arrasateko Azkarate okindegian zegoen lanean. Okindegian lan egin arren, ez zuten ogi zuririk jaten; "zegoena" jaten zuten. Irina Zaragozatik ekartzen zien.

Transkripzioa
-Baiña zuk, razionamentua etorri zanien, ondiok soltera zeuntzen, ezta?
-Bai, bai.
-Ta orduen nun bizi ziñan?
-Ba orduen be kriera zerien, panadeixan.
-A, panadeixan.
-Bai.
-Eta han razionamentua zeuk jasoten zeben edo? Zeu faten ziñan razionamentua jasotera?
-Hor panadeixan ez, eurei e... urun zakuek ekarten zittuen eta. Zera, molde batzuk eta. Ene, ia ez naz /enaz/ akordetan zertzuk partiruten gittuen.
-Ta zueik han panaderixan ogi zurixa jango zeuein, ezta?
-Ba euenien bai, baña bestela ez, ez, euena.
-A ez, e?
-Ez.
-Segun ze urun euen?
-Bai, haxe.
-Ta ze urun klase ekarten euein hain ogi baltzak eta [itsusixak] eitteko?
-Ba nik ez dakit nunguek. Gero Zaragozatik etorten zien. Gero atzenengoko urunek Zaragozatik. Baiñe bi klase etorten zien. Batek ogixe eindde aguantetan auen gehixau, bestiek gutxiau. Ta segun ze kamioi etorren, hasarre egoten zien "Ña!Horreik be bajatozak oin be“. Ta bestie gurau.
-Urun hobia.
-Bai, bai, gehixau kundiruten auena.

9.9. Erreminta ongi zorroztearen garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/020
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:27:44. **Bukatu**: 00:28:37
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Zorrozteko harria; zorrozte prozesuaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa
- Bestela lehen hankiakin eitten zan ?
- Bai, hankiakin, gaiñera bera harri haundixa zela dan, behin hasi ezkero bere pixue, bere pixuekin, ezta? Fan eitten da, norberak lagundu apur bat ta bere pixuekin buelta eitten dau. Aizkorak ondo zorrozketan zien, edarto; gozue emoten otsen aizkoriai, gozue, ez dakitzu? Ha, ha... Honek beste zerok harrixakin ta [zorroztuta] ez die, ta ha gozue da... aizkorie sartu ta egurrai obatu berak aizkoriek eitten dotsa, ez dakitzu? Dja! obatu berak. Ha gauzie e? Ha gauzie! Hori aizkolarixek eta badakixe, [ezta], dabixenak. Oin, ba, ez da eitten. Lehenao basora ta faten zienak-eta be, ba, betik, ba, egurra botatzen-ta aizkorekin dana. Ta harekin dda! dda! ta harek igerri eitten otsen, e? Igerri! Bai. Zela zorroztuta [euen] igerri eitten [otsien]. Oin ez, baiña orduan bai.

9.10. Arrasateko medikuaren etxera kriada 14 ureterekin

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/016
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:29:00. **Bukatu**: 00:31:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: 14 urterekin D. Calixtoren etxera joan zen kriada. Arrasateko mediku ezaguna izan zen. Ospitale zaharraren zati bati, "Dispensarioa" esaten zioten; biriketako gaixotasunak zituztenak joaten ziren bertara.

Transkripzioa
-Eta gero ba ia haundi eingo nintzen, ia hamalau urtekin Don Kalistrorengana kriada. Harek be baeuken neskatilla bat Kukaratxatan, eskolan; haren bille etorri eta gero hari etxera lagundu, eta ha entretenidu biher izeten neuen gabeko beratzirak arte.
-[Zein zan Don Kalixto?]
-Don Kalisto? Don Kalistro Mondraueko mediku famoso bat izen zan. Aramaixoko-eta jente danak don Kalistro deiketan utsien. Itxurie euskal problemie hobeto [ezauketan] jakon. Izetez zarauztarra zan. Gizon bat... dispensarixuen ein auen lana. Dispensarixue orduen zan, zelan egon zien pulmoiko geixotasun asko, ba Mondraue izen herri bat holako geixotasun asko egon zana, eta horreik aislauta egon biher zien bestiengandik kontajiosue zalako, eta ondo zainddute eta garbittasunakin eta hori. Eta Mondrauen auen, oin "La Ventana" badau ba txutxerixak-eta saltzen diena? Hortxe, horixe izan zan. Bai hospittal zarrian zati bat, zati haundi bat zan dispensarixuendako. Horrek izen zien dispensarixuendako. Holaxen deiketan jakon. Eta hor bakarrik egon zien pulmoittik eozenak. Bueno ba haren etxera. Maria Elena auken neskatilliak izena. Beste bi mutiko be

baaukien, baiña harek egoten zien Bitorixen interno Marianistetan. Erropia zikiñe eta garbixe, paketie bialketan jatien rekadistiekin eguenetan. Eta harek mutikuek be ez zien etorten, bakaziñuetan bakarrik etorten zien, han eukitten zittuen. Gurasuek astien behin-edo bisitatxon bat eitten utsien, eta han.

10. Politika

10.1. Gorrien dirua

- **Hizlaria(k)**: Leibar Kortabarria, Asuncion; Olabe Leibar, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-042/002
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 00:01:28. **Bukatu**: 00:06:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gorriei ardiak saltzen zizkieten diru truke. Miliziano gaixoak edukitzen zituzten etxean. Horietako bat, mortero-hotsa entzun orduko, "gorrien dirua" eskatzen hasi zen.

Transkripzioa
- (Arantxa): hemen euki auen kuartela eta orduen honeik ardixak aukien eta beorrek kontaitten (di)ttu kriston istorixak, zela ardixak kentzen otsien eta, gurien por ejenplo diru gorrixa badau, Euskadiko dirua, lehengo... Eta zela azkenien batek in utsien, emun dirua bestela... beorrek kontaitten (di)ttu.
- (Asun): hola ez zan. Nire aittajaun zan baserrittar haundi bat eta gaiñera karlistetako gerran ibilixe. Eta harek esaten auen, guri esaten oskun: “zuek ondiok gorrixak bizi biher duzue, gorrixak, ogirik be ez dozue euki biher eta artorik be ez jateko”. Hola esaten oskun. Nik hori ez notsan sinisketan eta gero hasi zan abanziori eta nire amak hemen famelixia gordetan guk gorrixakin egon gintzen, eta gorrixak itten auen famelixak euki ba hiru-lau lagun-ta. Durengon ta hor eukienak hamabostian behin emoten otsien permisua etxera fateko saldaueri eta esaten auen, ba komo hor zelan da Bilbon ez dauen ezer, eta Durangon be ez dauen ezer, ba hemen ardi bat hil ta zakuen sartu eta erueten zittuen famelixarako etxera. Eta hola egindda geuken guk diru apur bat.
- A, baiña ordainddu egitten zittuein.
- (Arantxa): bai, bai.
- (Asun): eta orduen ba ardixorrekin eta tortillak itten zittuenak etxien eta geixo batzuk eukitten gittuan etxien ogia ipini bai, eta...
- (Arantxa): bai, nazionalistak geixorik egozenak.
- (Asun): eta dirua ba esan dotena, gorrixen dirua esaten otsen, eta ondiok be badau. Eta azkenian abanzia hasi zanien, gerran abanzia hasi zanien, nire aittajaunek gerrikua ibiltten auen, hola fotografixia hor dago ondiok nere aittena, aittajunena, gerrikua eta beti pipia ezpanien, eta miliziano bat euki gauen hamabost egunien, geixorik euela […] esaten otsein izena eta “servirme un café con leche, servirme un caldito de puerros”, eta marikito bat euki gauen. Abanzia hasi zanien eta entzun auenien, Larratxutik hasi zan abanzie, hasi zan bonbardeua, ta ziren morteruek esaten gotsen orduen, ta morteruok, batek hementxe ate aurrekaldien

errebentau auen eta ezebe ez zan pasau, eta beste bat harutzatxuau. […] gizon horrek, lehenenguan salto in euan, “ya voy”, ta aittak, nire aittajaun hemen, aitta idixakin junda euen hortik zihar, eta nire aittajauna hemen, ez erderaz eta ez erlojurik igarten, eta ezebe ez akixen. Amari “suelta las vacas que tienes en casa, suelta!, todas, que vamos a llevar a Vizcaia”, harek. Amak holaxe jarri eta ¿“Serás capaz de hacer eso a mí, depués de tantos días que te he tenido en la cama?” “Si, si, si señora si, si”. Ha jun in zan. […] eta beste bat Mondrauekua […] Mondraueko bat etorten jaku. Nire anaie […] Etorri jakun etxera eta esan oskun: “zuek eukiko dozue ba gorrixan dirua, eukiko dozue ba”. “Bai, bai, eta zueri ez dotsue balixo biher eta hori diruori emun iguzue eta zeuen semiari eruen goutsou Bilbora”. Eta aittajaunek: “zer esan jon horrek?”, “emuteko dirua, semiari eruengo dotsala Bilbora ta”. Eta bestiak: “dirua gordeteko leku gutxi biher dok”. Hartu amari eskutik auken diruek amak semiendako emuteko gordeta eukena, hartu amari eskutik diruori eta sartu gerrikuan ta pentsaten dot hil artian eduki ete deu han gerrikuan diruori. Ondiok hementxe daz hareik diruk, hementxe.

10.2. Gorriak (soldaduak) etxean

- **Hizlaria(k)**: Leibar Kortabarria, Asuncion; Olabe Leibar, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-042/014
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:43:17. **Bukatu**: 00:46:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra denboran errotak zigilatu egin zituzten. Frontea Gesalibarren egon zenean, Enuzketa baserrian miliziano gorriak egon ziren. Baserria biltegi bihurtu zuten; kontserbako janariz, oinetakoz eta bestelakoz bete zuten.

Transkripzioa
- Gerra denporan?
- (Asun): bai, bueno, gerria aurrera jun zanien, baiña berandu artien ez. Baiña guk etxien garixa zelan hartzen gauen, ba etxien, baiña gero honeik […] errotia geuken guk hor, etxien garixa hartzen gauen, errotan garixori ixo eta etxien ogixe itten gauen. Baiña gero hasi ziren errotia prohibiuten.
- Bai, prezintau in zittuein.
- (Asun): prezintau. Eta ha prezintau auenien, baserrittar bakotxairi ez dakit zenbat anega aiuntamientuan entregau eragitten oskun. Ha aiuntamientuara entregatera juan in bihar neguen. Patatak be bai, eta milizianuak, gorrixek, egon gintzan denpora dana, geu; sukaldia aukien Santa Agedako medikuen etxien, sukaldia aukien hona janarixak igoteko, astuakin janarixak igoten otsien soldauari. Ba hauxe zan, alde bat, pittin bat haunditxuagua hor […] hau egon zan toperaiño beteta, toperaiño, atun latak, antxoak, sardiñak, eta txokolatie torriek, torriek e.
- Gorrixentzako?
- (Asun): Gorrixendako ekarritta. Eta tabakuak, bueno, nik ez dakit zenbat, zelako kajakadak tabakuak etorri.
- Eta zenbat soldau inguru egozen ba hemen?
- (Arantxa): hemen zera euen…

- (Asun): frentia eukien.
- Frentia ber-bertan egon zan?
- (Asun): ber-bertan, ba Larratxutik hau, Larratxu… hementxe, hemen zuk igo zauen ba Baztergaiñera? Han Baztergaiñen ha lautada bat badau ba?
- Bai.
- (Asun): handik lautadatik, Larratxutik lautadatik Murugaiñera zerraduria in euen.
- Zerraduria e?
- (Arantxa): nazionalak alde baten eta bestiek beste aldien.
- (Asun): reketiak pasau ez daittezen bestiek hara, zerradurie, hemengo gizon guztiek ibili ziren […] hareik zerradurak egitten, eta hemen etxien orduentxe sartu ziren katiuskak.
- Soldauak katiuskakin.
- (Asun): soldauentzako katiuskak, baiña…
- Hemen abarkak, ezta?
- (Arantxa): honbre! Fabrikako gure denporan be bai e?
- (Asun): katiuskak, zelako katiuska pilluak, zakukadak e! […] danak errepartiu ziren.

10.3. Ogia garesti gerra osteko gosetean

- **Hizlaria(k)**: Leibar Kortabarria, Asuncion; Olabe Leibar, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-042/015
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:46:20. **Bukatu**: 00:49:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra osteko gosetean, eurek patata-hazia sartu zuten soroan; baina, gauez, norbaitek hazi guztiak atera eta eraman egin zituen jateko. Ogia lortzeagatik, Asunek bere bizia arriskuan jarri zuen.

Transkripzioa
- (Asun): Baiñe falta, falta gerra denporan geuk esateko moduen, falta izan gauena izan zan ogixe, ogirik ez.
- (Arantxa): Honbre, baserrixen holako situaziño baten, bueno oin be ogixe eta olixue faltauko leixkio. Zer jana ba ez dakit. Guri faltetako, beste askoi be faltako litxakio, ez?
- Guri Oñatin baserritar batzuk esan doskue gerra ostetxuan kaletik, kalien jentiak dirua bai baiña jatekorik ez. Eta faten zirela eske baserrittara, zerbait jateko faborez.
- (Arantxa): Honek esaten dau, patatie erein eta hazixe atara gabien.
- (Asun): Patata-sailla sartu guk…
- Eta hazixa etara, jateko?
- (Asun): Gabien. Patata-sailla dana patata-hazixe dana atara, eta bape barik itxi.
- Hori sekula entzun barik neuken.
- (Arantxa): Hemen bai, esaten daue.
- (Asun): Eta gorrixek, eta... bueno, reketiek zien hona etorri zienak lehenengo, haik ez zien personak e? Hareik salabajiek zien.
- (Arantxa): Kontuz berba eizu, bestela kartzelara igual erungo zaue eta.
- (Asun): Erueten banaxone, ez jak... urtebeteko bizixe jaukenat eta. […]

Eta ogixe falta gauen. Gu gintzonan, zenbat? Hiru, lau, sei neska. Sei neska gu etxien, eta aitta-amak eta aittajaun-amandriek. Eta hor ikusten dou reketien banderie Murugaingo puntan. Eta ordurako Mondraueko miliziano bat hil euela Untzillen eta beste ez dakit nun hil euela beste bat eta horreik danok entzunde eta banderie ikusi gauenien, " ene ba! Horreik ogi zurixe jakarrek". Guretako ogi zurixe zan, besteik ez geuen falta guk, ogixe. Ta gu sei neska, hor […] beste sei, danok urteten dogu kuadrillan, ogitten, zera, Murugaiñera, eta ikusten gaue Larratxutik […] ekiten dosku /ekitosku/ tiroteue, goiko puntatik etorri zien aiñeke geuana reketiek, hil in biher giñuela ta: "esos niños le van a matar". Ta etorri ta ebatu oskun ta “¿pero a dónde vais?” ta “a por pan blanco”, erderaz be ez gekixen, “a por pan blanco”, ta motxillatik atara eta holako txusko bana emun oskuen eta buelta ein ta etxera.
- Zenbat urte zeukatzun zuk orduan?
- (Arantxa): Hamahiru-hamalau, ez?
- (Asun): Hamalau ez, hamahiru urte. Hamahiru. Baiñe orduko gauzak goguen gehixau atzokuek baiño.
- Bai, akordaitteko modukuak dira horreik, e?

10.4. Bonbardaketak hurbil

- **Hizlaria(k)**: Gorostiza Bengoa, Asuncion
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-044/010
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:39:50. **Bukatu**: 00:42:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra denboran lagunekin tortoloska jolasean egoten zen etxeko larrainean, 100 metrora bonbak erortzen zirela. Etxe inguruan zegoen kobazulo baten gordetzen ziren bonbardaketak izaten zirenean.

Transkripzioa
- Eta holaxe nire ume denporia. Eta gero gerra denporan, bueno, “de la Ceca a la Meca”, bueno. Baiñe sarrittan esante dot, oin ikusten duanien jentia ariñeketan eta zerien, gerriak ez dotsu personiari billurrik emuten. Neure ustez e? Porke ni akordetan naz Zerrajeran bonbak botaten, ta Etxaluze baserri bat euen hor, oin barrixe edo zeozer itten badabitz ba hor? Hor euen baserri bat, eta hori soluori eta hori danori ba garbi auen, dana solua zan, artue eta garixe eta holaxe landuta egoten zan. Eta hor garbi. Eta han larraiñien holako arbola zer bat euen, kastaiña arbola baten zatixe, eta hankalatraba jarri han eta tortolizka egoten gintzen. Eta gu tortolizke apurtuaz haintxe e? Eta bonbak botaten Zerrajeran berrogeta metrora, eta gu “tan felizes”. Ta akordetan naz gure amak hemendik uluke, “baiña zereri deiketa otse andriorrek?”, esan be e? Esan be, eta eukiko nittun nik zortzi-beratzi,zazpi-zortzi urte-edo, asko gehixau ez. Ta bertan behera, bertan tortolizok itxi eta etxera ariñiketan. Etxera etorri, ez zare enterau be in! Ez zare hau be in! Ez dozu hori be in! Ba, asko gekien guk…
- Zuek orduen bonbardeua etxe onduen euki zeuein.
- Hori Etxaluzen zan. Zerrajeran, ba berrogeta hamar metro, ehun metrora, eta Bastarretxe hemen beste berrehun metrora, hori danori euen bistan, zabalik, ikusi itten zan gaiñera. Uluke bentanatik etxera etorteko, eta ni

enterau be ez.
- Zuek trankil.
- Horixe trankil.
- Baiña bonben zaratiakin entzun be ez.
- Ez, entzun be ez gaiñera, entzun be ez. Ta han bonba botaten han, eta gu zerien, bueno. Eta holakuak in eta gero han, oin klaro, ez daz horreik gauzok baiña kanteran be bai euen beste kobazulo bat, han be egoten gintzen. Aittajauna euen gaiñera nausixa orduan, eta ha larriketan zan bakoitzien etxetik hara faten zan, txabolara. Eta oin ya etxabolak be tapauta edo ez dakit zela dazen. Eta gero alde batetik sartu eta bestetik urten itten gauen. Ha be zarraute dau.

10.5. Gerran ihesi

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/009
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:23:02. **Bukatu**: 00:26:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Bera umea zenean, ganaduak eta soroak bazituzten Garaikoan; orain, ordea, pinua sartuta dago denean. Gerra denboran ihes egin zuten Arrazolara, ganadu eta guzti; handik Lezamara joan ziren eta gero Zamudiora.

Transkripzioa
-Garai hartan ganaurik-eta bazeukazuen?
-Bai! bagauken. Ez holako..., holakuek ez, ez, baiñe euzenak. Ganaua baaukun, beti eukitten gittun ganauak.
-Eta garixa ta...
-Baitta, artue ta garixa-ta be bai. Oin harek danak piñu sartute daz.
-Beste leku askotan modura.
-Bai, gurien be danak piñu sartute daz. Da bueno, etxioi goikuoi libre dau baiñe. Bastante kuriosotute dauku, diru asko gastau dou. Eta soziedadie dau behien.
-Orduan umetan ittaurren ibilittakua izango za.
-Ittaurren? Bai, ondo. Hari preguntaixok! Horrek esaten dau sekule iñok ez dutsala emon holako zartateko aittak emun utsen modukoik. Ittaurren (...).
-[...].
-Gerra denporan be gorrixek ikusi gittun guk, ene!
-Osea ke frenta egon zan bertan?
-Egongo ez zuan ba? Handik Zamudio, bakizu nun dauen Zamudio?
-Bizkai partian, ezta?
-En Lezama. Ez dakitzu entzunde? Lezamatik hurrengoko herrixe. Hantxe geldittu giñen gu. Lelengo joan giñen Arrazolara. Arrazolan egongo giñen bastante denporan.
-Zer egin ziñuen, iges?
-Iges ez. Burdixagaz-da ganauekin-da danakin joan gintzen.
-Iges ez, hanka.
-Hanka edo. Eta baserri baten euki gittun behixek, geu egon gintzen,

aiuntamentuek emun oskun etxie Arrazolan; eta guk ez gaukun mutillik eta, aitte bai, baiñe mutillik eta ez gauken iñor etxien. Mutil bi hemen geldittu zien, beste mutil bat, beste anai bat soldau euen, nun jaonan? Huescan? Bai, Huescan, eta orduantxe gerrie urten euenien gari ebaten harrapau euen, eta ene!, gerrie urten euela ta, berak joan ein bihe dauela. Da joan ein zan, joan ein zan da hantxe egon zan. Da gero sarjentotzaraiño aillegau zan anaie. Baiñe billurgarrixe. Gero Arrazolatik joan giñen Lezama. Han emon oskun etxe bat, eta Lezamatik joan giñen Zamudio. Hori dau Derioko kanposantun pare-parien. Da oin aeroporture noizbaitten joan nazenien ero ikusteko gogue neukan aber zelan dauen, eta nik ez dotsat / etxotsat/ hartu lengo itxurian arrastoik pe ez. Diferentie topau neuen gauzie.
-Zenbat urte dia?
-Eneee! Hirurogeta hamar...
-Eta zuk uste dozu Mondrauetik kanpo pasau baziñuzen hainbeste urte ezautuko zeuela Mondraue bueltan?
-Ezta, ez, ez. Ni Mondrauei enutsen eretxi diferentzie baiñe hari neuk esan nutsen (...), aber aillegetan garen, ba nik hoixe ikusteko gogue daukat, gerra-denporan egon giñen lekue ta. Han etxauan ezta ni rastro!, ezebe ez geuen ikusi.

10.6. Gerran ihesaldi luzea eta gogorra

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/010
- **Iraupena**: 0:04:54. **Hasi**: 00:26:54. **Bukatu**: 00:31:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerra garaian ihesean ibili ziren. Zamudiotik Larrabetzura, handik Apatara eta azkenean etxera itzuli ziren.

Transkripzioa
-Etxera, han hartu giñuen nazionalok, bai, San Antonio egunien uste dot hartu giñuela. Gerria ebillen eta nire gizonak-eta ardixek euken, eta bezperan joan giñen hori, orduen nobixuek ez gintzen izengo baiñe lagunek bai, lagunek txikitati, eta esan nutsen: “Txomin, hemen abioiek datoz bai, eta horrek marminttok esnie eruteko, esnie batute eruteko etxera horrek brillo larregi dauke, ta tapauta egongo biheko gare (...) batzukin edo zeren batzukin. Hori hartu aurretik, e! Honek joan zien Bilbora Frantziara joango ete zien, bi aizta. Ta niri amak esan eusten, “Juanita, etorri ume!”, ta uliek danak hola neukela, hola neukela jata dana zera ein esten. “Zu zazen neskatilla ederra ikusten bazaue eruen igual eingo zaue bai tta oiñ hoixe ein biotsut.
-Ulia ebagi ein zotsun?
-Ebai ez, dana morroskillotu. Eskuek busti uretan-da dana jota zisko itxi. Hori ein isten nire gizonan amak. Artien nik hamabost eneuken, e. Baiñe (...) Etorri giñen, gau bat Larrabetzun eiñ, oiñez dana, e, handik. Larrabetzun lo ein geuen gau hartan, ba erdi kanpuen baiñe han kuadrille haundixa geuazen. Eta hurrengoko egunien etorri giñen Apatamonasterio.
-Apatara.

-Apatara. Hortarako esan oskun batzuk, bide erdi inguruan, eztakit zela esaten utsen hari, bueno, herritxo bat zan; Durengotik hara ta. Bai, gu horrutze ta. “Bazkalduta zoiaze?”. “Ez”. “Ba hor joaten dan danai emute utsie”, eztakit ze izengo zan etxioi, joaten dan danei emuten dotsie bazkaixe zeozer bai tte, ezpozue zuek batera joan gure gauzok eta hori itxitta, aurreko egunien gure aitte ta bi lagun geldittu zien da gu ogixa emuten euela ta, gu ogi hartzen joan giñen baiñe guretako etzan ogirik egon. Etorri orduko gure aittei tte beste emakume bati, koittauei, euzen alkondarak, tabakua, da euzen dan-danak, hemendik honek oonak zien soldauok, hemendik joandakuok, ta haretxek oonak..., dan-danak erun zittun. Honutza gatozela, e! Eta hantxe emon eskuen platerkara bana lenteja. Etorten gare Apotamosteixora, ta basarri baten geldittu giñen ba jota akabauta. Zuk bakitzu zelako etorrialdixa ein geuen oiñez handik Larrabetzutik eta Apotamonasterixora. Eta esan utsen e, nire gizona han euen eta aizta zarrena ni baiño hamar urte zarraua. Aitte ta ama harenak eta aitta ta ama geuriek euazen han. Horretxek gengozen. “Hi, Benantxi, bahauken poxpoloik?”, eta esan utsen: “zetakoittun ba pospoluk?”. “Geuk urten eta honetxi etxi honi su emon”. Hori nire aizpak esan utsen nire gizonai, e. Geuk bizi (..) han geuazenak zeaittik behixan atzekaldera bialdu giñuen lo eitten. Da esan eutsen: gerra denporako honuzkoko bueltie horretxegaz akabau zan. “Badauken pospoloik?”. “Zetako?”. “Bauken pospoloik, Txomin”. “Zetako don ba pospoluek, Txomin? Geuk urten hemen gazenok eta etxiei su emoteko. Pentsaizu nire aizpa, ni baiño hamar urte zarraue, hemendik baiño gorao eindde euen ordukotxe.
-Eta orduko gerria akabauta ala oindio martxan?
-Akabaute..., martxan! Oindio Bilbora aillegetako euzen, Bilbo hartu euen San Juan bezpera baten hartu euen. Honek Bilbon hartu zittuen, honek Bilbon hartu zittuen.

10.7. Kanoikada bat baserrian

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/011
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:31:48. **Bukatu**: 00:33:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Baserria kanoikada batek hondatu zien. Aurrezki kutxako diruak berreskuratzeko, arazoak izan zituzten. Bilbora ihesean joandako Juanaren bi ahizpa ere itzuli ziren etxera. Gerra garaia beldurgarria izan zen.

Transkripzioa
-Eta gu etorri giñen etxera. Etxiek euken kaiñonazo bat! Hau lekue ezebe ezta, honen aldien haundixe. Eta anai bat habillen, anai gaztiena ia fabrikan sartute, harek gixajuek hantxe eitten euen bere bizimodua.
-Eta kaiñonazua etxe barrura sartu zan?
-Sartuko etzan ba? Dana zisko eindde. Ta lelengo-lelengo aittek eta amak pentsau euen lelengo-lelengo ba esan arotza ero igeltserua ero bihe dana ta hori iñ. Itxurie danez aittek euken aurretik hamen diru apur bat kaja ahorrosien edo bankuen edo gure dan lekun. Eta kanbixau ein bihe zan,

etxien dauken dirue be kanbixau ein bihe zan, klaro, dirue bihe zan eta. Salbokondutua eskatu (...) horra joateko, Durengo baiño harutzatxuagoko herri baten eitten zittuela salbokonduktuak eta. Aittei esan utsien eztauela harentzako salbokonduktoik. Eta guk aber zer janda zer eranda egongo giñen gu? Ta honek etorri zien, honek aizta bixok etorri zien San Juanetatik zenbat egunera? Lau egunera? San Juanetatik lau egunera etorri zien Bilbotik, baiña honek guk baiño komenentzia hobie euki euen, automobillien honek Mietzeraiño, Kanpazar ondoraiño, eta guk oiñez ein geuen ha biajie gerra denporakua. Gerra denporie billurgarrixe zan, e.

10.8. Aita preso

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/012
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:33:42. **Bukatu**: 00:36:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Etxea konpondu beharrean zegoela eta soro eta ortuak artean hutsik, aita, nazionalista izateagatik, espetxeratu egin zuten. Ondarretan egon zen sei hilabetez preso. Beste senide bi ere hil zizkioten Juanari.

Transkripzioa
-Gero gerra ostien etorri zan gosie hemen. Zu etzara akordetan horregaz.
-Ni jaixo barik oinddio.
-Jaixo barik, bai, bai. Zuen amak eta aittak be ikusiko zittun.
-Bai, baiña haik goserik ez eben pasau.
-Ez eben pasau?
-Ez hola esatekorik. Harek basarrixan bizi zien.
-Bai, geu be basarrixen.
-Frentia Oñatin etzan egon. Nazionalak egon zien, batzuk afusilau zittuen, baiña han bertan burrukarik... Udana partian-da apur bat baiña... (...)
-Guri hil oskuen prima bat enbarazada euena nazionalak hemen. Eta primo bat, karnalak, e, primo bat Zerrajerako ofizinan ebillena. Horrek Hernanin edo eztakitt nun hil zittun. Hernanin, ezta? Eta aitte kartzelara gure aitte. Etorri giñenien Bizkaittik, horrek diru kontuok eztakitt zela soluzionau zittun, bai ba, dirue derrior bihe zan harek zuluok tapau ta bizi izeten jarteko han, e. Eta ez ortuen eta ez soluetan ezta ezebe-ezebe-ezebe hantxe ez euen. Ha miserixe haundixe zan, e! Eta aitte kartzelara. Eta aitte...
-Zer egin eben ba aitta horrek?
-Aitte... Han beste gizon bat baeuen ba, nazionalistie zalako. Beste kulparik ez euen, e, nazionalistie zalako. Xei hillabete ein zittun Donostiako Ondarretan.
-Baiña zuen aittak gerran ez euen parte hartu.
-Ez, ez euen hartu. Gaiñera gure aittek estomaguen ultzerie eukan bai, eta gorrixek ikusten joan zan Donostiara joan zanien be. Orduen operau be etzauen eitten oingo moduko erreztasunaz, ta bueno, dana dala.

10.9. Senideen elkartasuna

- **Hizlaria(k)**: Okina Zeziaga, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-046/013
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:36:04. **Bukatu**: 00:38:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Añorgako osaba batek asko lagundu zien. Aitak, espetxean gaixorik zegoela, ospitalera joatea errefusatu zuen, espetxe-zigorra luzatuko ziotelako ospitaleratutako egunek.

Transkripzioa
-Eta guk gauken tio bat Donostien, Donostien ez, Añorgan, aitten anaie, bazonan ha zeoze, katapaza ero orduen esaten utsien gure tio horri. Oso emonkorra zan. Haretxek lagundu oskun bizi izeten, e! Zeozer bai, zeozer baiño gehixao. Aitte eztauela ondo eta handi kendu ein biheko zala. Da joan zan tio besten batzukin, eta esan utsen, ez; bazkaixe ta afaixe behintzet restaurant batetik erueten utsen. Tiok pagaute, e, guk pagaute nun (...), ez gauken xemekoik eta. Aittei pagetan egon zien bazkaixe ta hori, ta gero esan i otsen aittei: “Gure bozu erungo zaut ospittalera, eta ospittalien beittu daizula ta hori, baiñe gero beste lagunek, zugaz etorri zien lagunek juntetan zanien etxera, zuk urten ospittaletik eta kartzelan (egon biozu) (...) eurokin nauen ezkero, gure aittek esan ei utsen, separetie baiño. Honek haundixek ein zittun, horrek haundixek die baiña horrek baiño haundixauek ein zittun. Eta nik hori hari gizonai egun baten esan ei utsen, gurien aiztak oindion nik baiño zorrotzauek, da: “Zelan, gure aitte zelan eruan daue kartzelara?”. “a neuk esan naixonan nazionalistie, baiñe zer dauke zerikusirik ezpautse iñoi kalteik eiñ”. Baiñe gizonak jakin-jakiñien, harek bai eta beste bi gizon be bai horrek. Eruen zittuen tio, gure aitten anaie ta gure aitte, eta beste bezino bat, handi auzoti, Udelati, haintxe ein zittuen. Ta gero zortzi..., astian behin guardozobilletara etorteko. Eta medikuana joan giñen eta esan guntsen ze pasetan zan, “no, no, no, no tiene porqué” Aittei eingutseu zertifikaue ezin leikela bajatu...

10.10. Aramaiora estraperloan

- **Hizlaria(k)**: Ertzilla Arregi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-047/008
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:22:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerraostean garia udaletxera eramatera behartuta zeuden. Garia estraperloan ehotzeko Aramaiora eramaten zuten, gauez, astoan kargatuta, basorik baso. Beste auzotarren batekin elkartuta, gauez joan, garia eho, eta gauez itzultzen ziren.

Transkripzioa
-Zer gehixao jaten zenduen lehen?
-Lehen? Beste ezebe ez auen, esnie euenien pozik.
-Etxian ganaua bazeukazuen...
-Bai, etxien etxakun falta izen. Baiñe jentiek esaten auen esnie kapritxue zala, e. Guri etxakun falta izen.
-Beste batzuk esan izan doskue kaleko jentiak dirua ba baiña jatekorik ez, dirua ezin jan.
-Jatekoik ez, dirua ezin jan, eta garirik ezpaauen diruaz ze itten zauen? (Basrrixan?) ba betik egoten zan. Biheko emun. Biheko emun, bestela badakitzu ze auen eta. Biheko emun aiuntamentuan parte. Guk garixe beti hartzen gauen, eta urune ba eitteko ba erueten gauen Arrasaten, eruen da ixoten oskuen. Geurie zan ero beste batena emuten oskun eztakigu baiñe urune ekarteko.
Hemen be errotak itxita egon zien gerratian?
-Bai, bai. Itxitta egon zien, bai.
-Ez eben ametitten inork eruaterik?
-Ez, ez, erueteik. Ixillien Aramaixora gabez da, e. Gaiñera hona bez, Aramaixora, e. Astuen hartuta gabez Aramaixora.
-Nundik zihar joaten ziñazien?
-Besaidetik ziher, basotik. Basoik-basoik.
-Gabaz fan eta gabaz etorri.
-Gabaz etorri. Gabez, dana gabez in biha zan-da.
-Eta sekula harrapau zintuzten?
-Ez, sekula etxakun zerik. Apuro edarrak pasau bai, e, gabez ta ze zarata sometan zienien-da zera, baiña. Sekula ez oskun hartu.
-Zeu joaten ziñan?
-Bai.
-Bakarrik joaten ziñan edo anaiakin?
-Ez. Besten bat edo beste auzokue ero juntau ta ba faten gintzen.
-Bi edo hiru?
-Bai, astuekin hartu ta aide.
-Baiñe susto galantak pasauta gabez, e.
-Orduan fan ixo eta ekarri?
-Ekarri. Gabez. Ta holakuek be eiñ in biha zien-da...

10.11. Gerraosteko miseria

- **Hizlaria(k)**: Okina Bengoa, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-048/009
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:27:41. **Bukatu**: 00:30:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Eusebioren lehen soldata eguneko 5,50 pezeta izan zen. Garai hartan 60 pezeta ordaintzen zen arrautza dozena bategatik, eta arrautza batekin egiten zen zazpi lagunentzako tortilla. Udaleko gestioak eta horrelakoak baserritarrek baserriko gauzekin ordaintzen zituzten, dirurik ez zutelako.

Transkripzioa
- Geuk be ze irabazten gauen. Nik hamalau urtekin kutxerixara fan nitzen

lanien bai, "cinco cincuenta" irabazten naban egunien-egunien. "Cinco cincuenta". Ta gizona, ni mutikue nitzen, gizona, famelixako gizonak jornal bat zeuken "siete cincuenta". Aber, ta zelan bizimodua atara zeikien. Ta dozena bat arrautza bakitzu zenbat balixo auen "hace sesenta años"? E?
- Zela jakingo dot ba.
- "Sesenta pesetas". Dozena bat arrautza.
- Dozena bat arrautzak?
- Bai. Arrautza, arrautzie, arrautza batekin zazpi lagunendako in biher tortillie, ze ba? Bakoitzak biñe, ala? Ez zauen! Orduan oilluek arrautza onak bai, baiñe kanpuen dabitzen arrautzak eta holaxe. "Recurso de caserío" lehenau zan arrautza batzuk eta oillasko batzuk hazten badittuzu, ba, jaten zittuen parrokuek eta, aiuntamentuko sekretarixuek eta, horretxik. Haretxi erun bihar.
- Eruen, erregalau? Edo...
- Erregalau, ba zeoze. Zuk zeoze, por ejenplo, Donostiera in bihozu, ba, jestiñon batzuk in biher dittuzu, ba, edo semie libretagatik soldauskatik edo igual papelen batzuk eta zeuk ostera bialketan dozu aiuntamentuko sekretarixue igual ta haren hobarixe, ba, zeoze erun in biher. Donostiera ta zein fango zan ba orduen? Donostiera, joe!
- Osea ke, Donostiara fan biharrien sekretarixuak...
- Sekretarixuek itten auen ta ostien, ba, faten zan sekretarixue astien bi-hirutan hemengo papeleuegana faten zan de pasuen, derrigor fan biherra, aiuntamentu konture edo gure ahala, ta bittartien horreik lanok hartzen zittuen berak parte, itteko.
- Oillasko danak eta arrautza danak.
- Abadiei dana, arrautzak eta dana, zerketako. Hoixe. Ta "recurso de caseríos", esne apurtxo bat, behixei batzen akon esne apur bat eta horretxek arrautzak eta oillaskon batzuk eta horixe izeten zien. Bati, frakak erosteko mutikon bati, bestiei alpargetak, hurrengo alkondarie edo. Zera, holaxe, holaxe bizi zan jentie lehenau.

10.12. Errepublikan langileria hobeto

- **Hizlaria(k)**: Okina Bengoa, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-048/010
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:30:06. **Bukatu**: 00:33:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Sindikatoek indar handia omen zuten errepublika garaian. Langileek ondo irabazten zuten, baina enpresariek ez zuten langile gehiago hartzerik nahi. Lana ba omen zegoen, baina jende gazte asko lanik gabe zegoen gerra hasi zenean.

Transkripzioa
- Nik, dudaz akaso ez jatzu gustauko esatie baiñe esan biher dotsut, republika denporan lanien zabillena, oin baiño hobeto abillen, fabrikan lanien abillenak. Republika denporan.
- Republika denporan.
- Bai. Baiñe zein abillen lanien? Ez zeuen hartzen iñor. Zerrajeriek eta

entzunde dauket, lana, pediduek ein ezinke bai eta obreroik ez zauen hartzen.
- Hori zeatik?
- Ba hundidu gura euen naziñue, gerran bat edo zeoze urtetie gure. Ta mutillek, hamazortzi-hogei urteko mutillek eta, gerrara fan arte, gerra eguna arte, golpeik be in barik. Ez zauen lanik iñun hartzen. Horretxegatik. Baiñe lanien abillena, horreik sindikatuok eta obligau itten utsien ta pagetan utsien ondo. Baiñe bai, ondo pagetan utsien. Lanien abillenak eta ez abillenak, astien hiru edo lau bider tabernan billotsa ta angulak janda abillen Zerrajeran biherrien, lanien abitzenak, e? Ta bestiek, holaxe, asko. Nik [darabiltten], nire aldamenien, gure han bezino bi gauken etxien bai ta azen bi anai, bestiek gaztiauak zien, bi anai gerrara fan zien gero bixek, batek hogei urte auken eta bestiek hemeretzi, urtebeten diferentzie, etxien. Nunbaitten ezebe, baten batek nunbaitten kriau edo zeoze lanik jiratzen baotsen, haretxek, lanik ezin topau iñun be, jornalerako lanik. Ta gero gerriak urten auen ta gerrara danok hamazortzi urtekin, atzenengo, atzenengo kintia hamazortzi urtekin fan zan gerrara. Xei urtien gerran. Ta holaxe zan baiñe horreik lana Zerrajeran eukien, orduen Zerrajerie bakarrik euen ta Elma, ta kutxeixie hasi, ba, zerien baiñe. Lana asko, baiñe ez gure hartu jenteik. Pediduek retxazau gure ta holakuek entzunde nik. Ta jentie ezin kolokau iñun. Ta nik tio bat dabitteten Zerrajeran ta harek Donostien Maria Kristinan bakaziñuek pasatzen zittuen. Zerrajerue zan ta afaldu kalien egunero. Ta beste batzuk...
- Ta ze zan, jefia? Edo...
- Ez, ez. Zerrajero bat, zerrajero normal bat. Bakaziñuek be orduen hamabost egun edo ze emoten otsien republika denporan be. Baiñe sindikatue ez, presionau itten auen ba patronuek ta haik ez zeban gure presionaik peik. Ta gero ba ez auen hartzen jenteik. "koiño, hori be bai? Ba ez juat hartuko. Pediduek retxazauko jittuet eta kitto, bapez". Ta "a hundir".
- Hori herrixa hundittia da.
- Herrittikan bi ez, hundidu, hundidu, ba, zertu, hundidutie gure, baiñe eurak jodidu itten zittuen sindikatuek eta.

10.13. Guardia Zibilen maltzurkeriak

- **Hizlaria(k)**: Arregi Liziaga, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-050/007
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:11:40. **Bukatu**: 00:13:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Guardia Zibilek nahita garia oker neurtu eta 1.500 pezetako isuna jarri zioten Kataide baserriari.

Transkripzioa
-Han Kataiden pasau zan, multie bota biher utsien zelabait, Kataidekuei, eta arkatan egoten zan garixe, neurtute. Pasetan zan e, gariz bete, eta gero pasetan zan regla bat. Pasetan zan arka gaiñien. Ta orduen, anegak egoten zien justo, arkie izeten zan, esate baterako, ba, hogei anegako arkie bazan, ba hogei anega, hogeita hamar anega... hogei-hogeita hamar ez zien ba, hogei-hamarrekue, hamarrekue edo gure dana. Pasetan zan regla bat eta justo egoten zan. Ba etorri zien guardia zibillak, multie

botateko, botateko asmuekin, itxurie dauenez, eta zer ein utsien? eskatu utsien anega erdixe, esaten jakon, neurri bat. Anega erdixe e, bueno. Orduen hasi zien neurtzen, enda anega erdixe ba reglie pasau bautsien ondo urtengo eben, baiña zer ein auen? bete ta, bueno, tontortute auela, botaten auen beste leku batera, eta, orduen, ba, garixe falta zan. Ta falta zalako bi mille ta bostehun pezeta orduen denporan bota utsien multie Kataidekuei. Joe, asko zan! Falta zala. Gaizki neurtute. Falta zalako. Gaizki, eurak gaizki neurtute. Ta ezin esan ezer be, bestela...
-Igual apropos, gazki neurtuta.
-Bai, bai. Apropos, apropos. Bai, bai, bai. Gureta.
-Ta zuk esan dozuna, ezin ezer be esan.
-Ba ezin, ezin, bestela... gero haundixaue bestela. Pagau ta kitto. Hori akordetan naz horrekin.
-Hori diru asko izan go zan orduen e?
-E?
-Diru asko izango zan.
-Horixe ba! Ikeragarri. Joe. Asko, asko, orduen. Bai, bai. Horreik gauzok pasetan zien lehen, gose denporan. Horreik eta gehixau, klaro.

10.14. Arrasaten Oreja hil zutenean

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Joxe Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Erref**: ARR-052/004
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:06:48. **Bukatu**: 00:09:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zuatzubizkar, Karmele
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
  Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
  Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena**: Gerra aurrean "iraultza" egon omen zen Arrasaten, Oreja eta beste bat, Zerrajerako ugazabak, hil zituztenean. Egun horretan, bera esnearekin zihoala, esnea kendu eta etxera bidali zuten eskopetadun arrasatear gizon batzuk. 1934. urte inguruan izango zen, errepublika garaian.

Transkripzioa
- Da hola, gerra aurretik reboluziñue egon zuan Mundrauen. Oiñ beste kontu batzuk esango jittuau. Reboluziñuek urten juan Mundrauen.
- Gerra aurretik?
- Gerra aurretik, orduen bota jittuen bi gizon, bat Dagoberto da bestie Oreja, hor bota jittuen Mundrauen, Ferixelekuen.
- Zegatik?
- Ba, reboluziñue, zerien, Zerrajeran jabitzan eta Zerrajerako ugezabak zittuan horreik da, ba, ez zittuan arregletan itxurie eta reboluziñuek urten juan, da hartu eta etxetik eruen jittuen, eta han bota jittuen txarri-ferixa lekuen, Oreja da Dagoberto. Dagoberto gizon zuzena zuan, bañe Oreja esaten juen, ba, okerra zala esaten juen, etxakixat okerra ala zuzena ze izengo zan.
- Bañe bota, hil eiñ zittuen?
- Bota eiñ jittuen, hil eiñ jittuen. Orduen egunien, goxien, esniekin baninddoian, da hor Arrasate gañien, Arrasate badakik zeinddan?, Arrasate

hau entradiau dok Arrasate, panaderixie jauan hor, hamen kruzien entraran, herrireko entraran, ez eskumetik, lelengo karreteratik, Santa Agedara hartzen dan hau...
- Hor zea dauena, Fagor Electronica ero dauena...
- Bai, hor ezkerrera hartu, da hori zuan kamiñue, lenau etxauan hori bestiori kamiñuori, gero einddekue dok, da hortik aurrera jauan kamiñue eta hortik, zeera, Arrasate gañera ta handik Erdiko Kalera sartzen zuan da karretera jenerala joian Zarugaldetik, hortik Kanpazarrera doien aldetik, hortik joian karretera jenerala, hortik pasetan zuan. Da ni, ba, astuekin baninddoian, dapa-dapa, da, zerien, Arrasate gañien "-Alto!", eskopetakin-dde jasan, Txaparro eta akordetan nok zeintzuk zien, ezautu nittuan nik zeintzuk zien, da esnie hartu eta kendu justien, da marmittek hustu eta marmittek hutsik etxera, da esniek han hustu zittuan...
- Lurrea?
- Lurrea ez, han bertako bezinuei emon jutsien.
- Da, zu, mutikue, eta esnie hartu mutikueri...
- Ni, mutikuei, kendu justien esniok eta ni, mutikue, etxera. Orduko esniok kobrau barik geratu zittuan. Da orduentxe hil jittuen Oreja ta Dagoberto, orduentxe hil jittuen, Mundraueko Ferixelekuen, zerien, txarri-ferixa lekue jauan ganau-ferixie baño entraratxuau, da hantxe bota jittuen.
- Eta zeintzu zien horreik, osea, ze-ze grupo...?
- Ba horreik grupue zittuan ba, sozialista hortaiko jente gorrixe, jente gorrixe zittuan, jente rebelde-antza.
- Eta hori gerra aurreko kontue esaten dozu?
- Gerra aurrekue, hori zuan el año, el año treinta y cuatro izengo zuan?, oktubrien zuan.
- Osea, errepublikie euela orduen?
- Republikie euela, artien republikie jauan.

10.15. Kupoarekin tranpak

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Urrutia, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Erref**: ARR-053/010
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:21:34. **Bukatu**: 00:23:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Gariaren kupoa ordaintzerakoan, behin aitak zorroak urarekin busti zituen, gehiago pisatu zezaten. Den-denarekin itzuli behar izan zen Pedro etxera gurdiarekin. Ia ekoizpenaren erdia entregatu behar izaten zuten. Eguneroko gosaria artoa, taloa edo morokila esnearekin izaten zen.

Transkripzioa
- Ogixa beste arto ingo zittuen.
- Eta ordainketan zauein zera, gerra osteko, basarrittar danak garixa ta [...]
- Eruen eraitten oskuen, bai, Arrasatera. Hoixe, biheko pagau... Akordetan naz behin, txarri zikiñok, gure aitte difuntuak ure bota utsen zakueri, harako preparau zittuen zakuok eta pixatu deixen gehixau ta neu fan nintzen entregetan ganauokin ta...

- Ura zeuek botata?
- Bai, pixatu deixen gehixao garixek ta ostera bueltan danak etxera.
- Ze, garixa hondatuta igual.
- E? Ostera sikue eruteko ordenie. Bai ta pagetan auen miserixa bat. Miserixa bat. Han [Arrasateko] esaten akona, bai.
- Ta ze eruan bihar izaten zauen, jasotzen zauein dana edo zati bat edo...
- Deklaraziño bat edo eingo zan, ni ez naiz horrekin ondo akordetan baiña pentzatzen dot deklarauko zala ta handik ba porziento bat. Bai, bastante! Erdixe ez zan eruengo baiña zati haundixe, zati haundixe. Ni akordetan naz iguel xei bat zaku edo, hor berrogeta hamar kilo edo hirurogei kilo ingurukuek. Bai. Neu fanda nao ganauekin ta zerakin erueten.
- Eta ez bakarrik garixa, arto ta...
- Ez, artuekin ez naz akordetan, garixe. Ta patatie be nik pentzetan dot hartu, hartu eitten zala baiña gero gordeta etxien euki biher izeten zan ta holako istorixa batzuk euzen. Bai.
- Ta razionamentua izango zan ordun, ez?
- Razionamentue ogixana. Ogixe ez, holako, holako zer bat, boillo bat...
- Baiña ez zauen...
- Ha baiño hoberik gaur txakurrari emon ta ez dau jaten. Ha, bueno, ha menos ogixe edozer gauza zan, e? Bueno! Ta gero, ba, artue, artue ona itten zan ta goixetan jeneralien jaiki ta artue ta esnie, talue ta esnie, morokille be bai. Artue ta esnie nik gustora jaten nauen ta talue be laztxuaue baiña bueno, baiñe morokille ez jaten sartzen. Morokille, pof! Nik oin be hemen badakitzu ze afan egoten dan talue ta jaixe ta... Bo, nik talue ikusten dotenien apartau itten naz.
- Lehenao nahikoa einda ia.
- Bueno.
- Nik gustora jaten dot ba. Igual izango da txikittan ez [dotelako jan].
- Ez, egunero jak! Nik sarri esaten dot nik beste jan [baleukie] ez zittuen hola jarriko.
- Eta estraperlorik itten zan hemen?

10.16. Gose denborako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Sagasta , Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-073/006
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:12:52. **Bukatu**: 00:15:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Fagorren jardun zuen lanean jubilatu arte. Etxean sei senide bizi ziren. Gerra ostean Arrasateko alondegira eramaten zuten eman beharreko gari kuota. Gose denboran etxean ez zuten goserik izan, baina kaleko jende asko etortzen zen jateko eske.

Transkripzioa
-Ta gero ia Fagorrera?
-Bai.
-Ta Fagorren ia jubilau arte, ezta?
-Jubilau arte. Hogeta hamahiru urte.
-Zenbat jente bizi ziñain etxien?
-Etxien? Amama, aitte, ama ta neu. Ta aurretik aman aizta bat be hemen

auen ezkondu arte. Ha ezkondu zan Mondraguera, kalera.
-Tia?
-Tia, bai. Ba haixeik. Ta kalera ezkondu zan ta...gero ba arrebie, aitta, ama ta neu. Ta amama.
-Tropa haundixa be ez orduen oso.
-Ez, ez.
-Ta hainbeste ganau zainketako aitta ta zeu?
-Aitte ta neu. Ta amak-ta be... hamen lana kristo danak eitten auen, ez auen barriketarik. Toketan zana, danetik ein biher zan /bizan/.
-Soruetan ze eukitten zeuein?
-Soruetan ba garixe ta, artue ta. Patata apur bat eta.
-Garixa entregaitten zanien-ta akordaitten zara?
-Bai.
-Asko entregau biher izeten zebein?
-Segun ta ze eraitten zauen, ze deklaretan zauen ta haren proporziñuen ta, iguel hartu baiño gehixau.
-Bai, entzunda dakot.
-Hartu baiño gehixau.
-Erosi ein biher...
-Entregetako. Patatie be erain ta deklarau, zenbat erain dozun. Ta hartu ostias, ezebez. Ta entregau ein biher hainbeste kilo ta etxien ez. Txikixe eruen ta "de vuelta". Barrixe erueteko gehixau, hobie.
-Nora eruten zebein zueik?
-Alondigara, Mondraguera.
-Hori Alondiga hori nun euen? Udaletxe inguruen?
-Bai, Udaletxe azpixen.
-Gerra osteko gose denporak eta horrek zuk ezautuko zttuen, ezta?
-Bai, apur bat ezautu nauen, bai.
-Baserrittan ez zan gose haundirik pasau, baiña...
-Nik neuk e, holan gosie gosie...bai, [hasirik] baiño gehixau, baiñe holan derrigorreko goseik ez dot pasau. Ogi apur bat bada be betik egoten zan jateko, artue edo ogixe edo. Etxien eindde. Etxien eitten zan.
-Kaleko jenterik ez zan etorten eske?
-Eske? Buah. Kendu barik, baiñe ze eingo eutsezun /eingotzezun/ ba, ez auen ta. Emun, ezin emun. Ez auen ta ezin emun.

10.17. Aitajauna karlisten gerratean

- **Hizlaria(k)**: Elorza Heriz, Dominika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-076/005
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:11:12. **Bukatu**: 00:14:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Aitajaunak karlisten gerratean borroka egin zuen. Dominikaren etxea Monterrongo kondearena zen, eta karlisten gerratean erre egin zen. Berreraiki zutenean, Dominikaren aitajaunak bertan artaldea jarri eta bizitzera etorri zen. Auzotar batekin ezkondu eta familia sortu zuen.

Transkripzioa
- Politika asuntuen gurien ez zan inor sartu. Aittajaune, hemengo, hemengo aittajaune gerra denporan, karlistako gerra denporan, gerran ibilitta euen ez dakit zenbat urtien.
- Karlista denporan, karlista gerran.
- [Gerra...lehen...] Karlistako gerria, lehengo gerran, ez oin. Nacionala, treintaisesekue ez, aurrekuen. Ta zan, Garagartzan Jaiberriko semia ta zien, ez dakit zenbat esaten euen gure amak, beratzi o hamar seme-alaba. Ta anaie etxera, nausixena orduen ezkonketan [segixue] ta apelliduek eta orduko denporak. Enda semeik zaharrena Garagartzan, bere anai zaharrena, ezkondu ta ez dakit zenbat, xei urtekue edo mutikue etxien ta ez dakit zenbat urte, xei o zortzi urte edo ez dakit zenbat gerran eindde euen aittajaune etxera etorri barik ibilitta.
- Koño.
- Ta orduaintxe soltero, hau gerratien erre, hau kondiena ei zan. Hau...
- Hau zeuen etxiau?
- Hau etxiau "Conde Monterrón". Enda hau gerratien erre, bera gerra ibili zan urtien erre, enda ein deu barrixa. Barriztaute.
- Hori zan mila zortzirehun ta pikuan, ezta?
- Nik ez dakit...
- Hau erre zan gerrate karlistan?
- Bai, enda hau barrixa eindda eta hemengo errenteruek fan edo ez dakit zer pasau zan, hori ez dauket... Enda hau euen hutzik, hau etxiau, ta Garagartzan Jaiberrittik soltero hona etorri ardi errebaiñuekin ta artzain bizimodue ardixekin lehenengoko urtiek. Artzain bizimodue ta hemen, bertako alabia...
- Segi, segi berbetan. Bertako alabia...
- Hemen bertako alabia, hemen auzokue zan. Horreik eozen ez dakit, hiru aizta edo ta anaie ez dakit. Horrein anaie be euki eben baiñe ez dakit, hiru aizta edo soltera ta ez dakit zela. Enda krieda batien ta bestien. Enda haregaz gero ezkondu hemen. Soltero etorri, ezkondu ta errentan segidu euen hemen nire anai zaharrena jaixo arte. Alabie ezkondu ta ez dakit zenbat urtien hemen. Ta...
- Hori zan zure, zure...
- Aittajaune.
- Zure aittajuna.
- AIttajaune, hori in dauena.
- Hamen auzokuakin ezkondu...
- Bai, auzoko alabak.
- Ta gero zure ama geratu zan etxian.
- Bai, gero nire ama etxera ezkondu zan.
- Ia ia ia ia. Eta zuk...
- Eta nire...

10.18. Nazionalak Arrasaten sartzen

- **Hizlaria(k)**: Elorza Heriz, Dominika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-076/008
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:18:56. **Bukatu**: 00:22:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena**: Irailaren 26ko nazionalen aurrerakada ondo ikusi zuen etxetik. Kurtzetxikin bonbardaketa, eta milizianoak San Kristobal ermita ondotik ihesi zihoazen, ahal zuten moduan.

Transkripzioa
- Zuek gerra denporan etxian egon ziñian edo bialdu ein ziñuein?
- Ez etxe…
- Edo […]
- Ez etxien egon gitzan ta ez bialdu ein giñuen.
- Eta orduan zer?
- Asi ke zela esplikauko dotsut. Nire aitte zanak anaie zaharraue bizi euen hemen San Kristobal edo erminttie hor dau Kondekuen goixan ta hortxe errentan andriaz ta berak fabrikan lana eitten euen. Ta klaro, anaie hemen kalien bizi izen zien Ziorlan lehenengo haik ezkonduta baiñe gero hor Kondekora ez dakit amistadie aministraziñotik edo, ein zien San Kristobalerako. Ta gero San Kristobalen, ba, andrie basarrikua auken Atxabaltakue ta famelixa haundixe beratzi, zortzi edo beratzi seme-alaba baeukenak. Enda hortxe bizi izen zien. Ta gerriek urten auenien hogeta… dieziotxuen urten euen gerriek enda hogeta seixan sartu zan Mondrauera, abanzie etorri zan. Enda milizianuek hemetik behera, ba, gerrie zer zan ez ekixen, ez euen radiorik, ez euen telebisiñorik, iñun moduen ezebez, gerria, zerbait. Ta tiruek sentidu zien hor, Atxabaltatik, Kurtzebarrittik, hor behera ta arieplanuek bonbardietan ta abanzie. Gerria. Oin telebisiñuen ikusten dittugu horreik. Enda tio, ta ba, lanera barik eta geratute, goixien, hamen aurretik, aurreko egunetan fabrikan, Zerrajeran tio lanien ta fan zala esaten euen, nik ez naz akordetan hori zela zan orduen, porke ni gaztie nitzan ta orduko gauzak, enda tio, ba, ekin zienien Kurtzebarrittik behera, ta batzuk kurrixkeka, oin pinudixe dao dana ta ez da ikusten baiñe orduen pagodixek edo hareztixek eta gaiñetikue garbi zela euen, ikusi ta, Kurtzebarrittik behera, edo Kurtzetxikittik Zerrajera ostera goittik behera ta, batzuk "ai mi madre!" batzuk erderaz ta beste batzuk euskeraz, ta kurrixkeka, ta ariplanuek botaten, ta eurak San Kristobalen, ba, holaxe aurrekaldetik, ezta? Ta ha ikusi euenien, begixek be ifiñitta eukien, ta urtietan hor San Kristobal… Nik ez nauen ezautu noiz etorri zien, ez dauket goguen ni gaztie nitzala. Lotu behixek enda koltxoiek eukenak bota, atiek itxi ta jentie gero, ba, pasue haundixe San Kristobaldik gora ta hemen be bai pasue haundixe, milizianuok eta, batzuk geratu ta esan zer etorren ta beste batzuk ikusi ta geratu ta han azpittik gora. Ikusi han Zarugaldeko panaderixia lehen han, harrobixa esaten akon lekutik bidie zeuen San Kristobalerako ta, gorako, San Kristobalerako bide zabala, burdibidia, enda handik eta han atajue, ahal euenak ahal euen lekutik gora. Ta hemetik pasue auela ta aurrera. Danak hemengo pasuen. Beste batzuk ahal euenak ahal euen lekutik. Ta gu be urtenda.

10.19. Gerratik babes bila

- **Hizlaria(k)**: Elorza Heriz, Dominika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-076/009
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:22:40. **Bukatu**: 00:25:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

- **Laburpena**: Gerrak gari-jotzen harrapatu zituen. San Kristobal ondoan bizi zen osaba babes bila etorri zitzaien Etxaldebarrira, bere familiarekin, zeharo larrituta. Izebak umeentzako zerbait ahaztu zuen San Kristobalen, eta haren bila joan zen. Ordurako nazionalak han zeuden, eta etxera itzultzeko arriskurik ez zegoela esan zioten. Izeba Etxaldebarrira bueltatu, eta familia biak San Kristobalera joan ziren.

Transkripzioa
- Ta gu be urtenda ta […] Klaro, zan hemen sartu ziena setienbrien hogeta xeixa ta jentiek gari joten ta hemen lanien ebillen.
- Gari joten harrapau zindduain gerriak, e?
- Gari joten ta hemen, ba, gu ez dakit zela eongo zan. Tio ta tia, ifiñi, lotu ganauek, burdixe ifiñi, umien trastiek eta burdixen hartu ta etorri zien honaxe. "Ene! Holakoik ez izu ein!" Ta ez dakit nunbaitten, kamaran bada be lo eingo doula, edo eingo zeuela ta sartu zien larrittute. Akabo! Itzitte munduoi etorri zien. Enda geu hemen bagaz ta ezin. Hori, ba, eguardixe, bazkalostie, bazkalburue o goxa zan, goxetik. Ta ziñon, umie txikixe baten bat, zeozer itzi in euen etxien, San Kristobalen ahaztute edo […]. Ta "tia, fan in biha naz" ta ez fateko, ta harako goitti beheran Modrauera sartu zeinien, paradie jentiek puxkat, ha, ha [anbroillie] ta haik abioiek eta haik ametralladorak eta haik zaratak hainbeste ez. "Fan in bihe naz, ni hemetik eta hortik eta fango naz" ta fan zan tia. Ta fan zan tia ta, ba, ia San Kristobalera soldauek igota, behetik gora tropakuak.
- A bai? Nazionalak.
- Nazionalak igota. Enda San Kristobalera soldauek eta han eozenien ta ba esplikau itxurie larrittu bera ta, ba, erdi erdera erdi euskera, zelabait, baten bati esplikau utsien. Ez zien entendiduten, zerokin, nausixoi edo aurretik etorri zana horrera. Soldauen bat ekarri han inguruen euena, enda entrebistau, esplikau utsien kasuoi, enda soldauek zien, esplikau utsien kasuoi, enda tiari, sartu zan etxera, hartu bibiroia edo ez dakit zer zan, zerbait han ta hartu ta etorri zan. Ta zela eozen hemen ta zera, esplikau otsen ta dana, ta juateko, etxera juateko. Ia ez eukiela peligrorik, ez zauela ezer, juateko esan utsien. Enda "zueik be etorri" esan oskun, "geuk ein doune, kamaran geuk ingou, lotu idixek enda zueik be etorri". Eurak ein euena geuk, geuri ein, zu. Hartu koltxoiek, hartu trastiek, atiek itxi ta aide! Ba hurrengoko egunien edo hurrengorakuen. Oso ondo hartu auen tia, osea ke entrebistau, ta oso ondo esplikau utsien edo entendidu utsien edo konprendidu utsien. Fan giñen, enda klaro, orduko denporan…

10.20. Militarrak etxean

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-082/009
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:15:50. **Bukatu**: 00:17:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: 20 soldadu inguru egoten ziren etxean. Jatorduak beraiek prestatzen zituzten, baina ofizialek etxeko bi logelatan egiten zuten lo; tropak ganbaran, lasto eta garo artean. Kristinak esku-bonbak bere eskuetan eduki zituen.

Transkripzioa
-Militarrak ganaurik edo txahalik edo kendu ez otsuen ein?
-Ez, ez uskun kendu. Eurak e...
-Zenbat soldau inguru eukitten zittuein etxian?
-Ba eongo zien e, ze esango dutsut /esangutzut/ nik, hogei bat bai. Denpora baten.
-Ta jan da lo ta?
-Eurak eitten zittuen, bai, han atzekaldien, eurak eitten zittuen. Oin e, Kapitana ta hori etxien, ohien. Ta gu beste kuarto baten danok, ba, koltxoie bota lurrera ta batzuk goixen ta beste batzuk behien. Baiña eurak bi kuarto behintzet eurakin.
-Ofizialentzako.
-Bai, ofizialak ohien, ta bestiek kamaran.
-Soldauak kamaran bonbakin eta...
-Bai, ira artien ta lasto artien harek. Baiñe ha kamarie zan... nik ez dakit zela ez auen errebentau ezek e!
-Edo erre, edo erre, su emun zigarro batekin.
-Pu! Baitte. Zegatik eze ez auen beste... lastue ta irie besteik, kamaran! Ta han ibiltten zien, esaten dutsut /esateutzut/, nik haik bonbak eta... ontxe be akordau eitten naz. Zelan e... jausi eitten gitzen, ta bai e, ta estropezau ta “pom!“ Ta ze jo ta, ha agerketan zuan. Bonbak. “Bomba de mano“, ba, lata modu batzuk zien, zer bateaz, anillo bat eta zintta bat. Eskuetan be asko euki dau. Ta botateko moduen! Ze esango dutsut /esangutzut/ nik ba.
-Deskuiduen han estropezu eindda... anillai tira ein, edozer gauza, eta “pumba!“
-Ya esta! Ein gotsen. Baiña ez dakit, bastante zerak gitzen itxurie dauenez, ezta? Bestela...
-Bai, bai, nik ez dot hori pasau, ez dakit.
-Bai, nik e... eskuetan hareik ibilitte nau.
-Pentsaizu, zortzi urteko umia!
-Bai. Ta...
-Zela itxi leikixo hola ume batei holako gauza bat!
-Horixe! Konturatu zienien ekarri nindduen etxera! Baiña ordureko ia, han hilliek pasau gittuen eurakin. Baiña, esaten dutsut, ha izen zan izugarrizko gogorra.
-Jontxo, jontxo, jontxo...

10.21. Aita Kubako gerran egona

- **Hizlaria(k)**: Arregi Egidazu, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-082/012
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:22:24. **Bukatu**: 00:26:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea
  Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Etxetik irteteko baimena (salbokonduktoa) udaletxean ematen zuten, eta 15 egunerako edo hilabeterako izaten zen. Herritarren batek salatuta, aitak hiru epaiketa jasan behar izan zituen, baina onik irten zen. Aita Kubako gerran egondakoa zen. Itsasontzia bertaraino arraunez eraman zutela esaten omen zuen.

Transkripzioa

-Baña zueik, karo, zueik bizi baziñain Garratzen, karo, salbokonduktua kalera etorteko biher bazebein, zelan etorten ziñain? Lehenengo salbokonduktua…
-Aiuntamentuen ataraten gauen. Etorri ta, ba, zertute auenien, kadukaute auenien…
-A, renobaittera?
-Ba hor, aiuntamentuen edo hor ataraten gauen.
-A, salbokonduktua izaten zan egun batzutarako?
-Pasue bai, hilebeterako edo hamabost egunerako edo emuten auen, ta hareaz ibiltten gitzen. Harek barek ez auen urteixerarik. Oseake… Ta gero gure aitteri be bota utsien hor kulparen batzuk.
-Aitteri?
-Bai. Zera zala ta, hor izugarrizko… hiru juizio euki zittuen.
-Aittek?
-Ta atzenien urten auen ondo. Bai, zera zala…
-Baiña ze, ze salaketa edo ze leporaketan otsain?
-Ba sozialista edo zer, ez dakit ba lehen zer zan. Reketie ez zan izengo ta.
-Ia, ia, igual ez.
-Bai…
-Baiña berak…
-Baiña zerak, etxe… hamen herriko zerak ein auen e.
-Baten batek denunziau, ezta?
-Bai, denunziau ein auen.
-Bai hori leku danetan pasau zan, bai. Ta zure aitta gerrara ez zan fan.
-Ez, ez jakon /etxakon/ tokau.
-Etxien egon zan?
-Ez jakon /etxakon/ tokau. Bueno, Kuban-ta egon zan, bere gazte denporan.
-Kubako gerran egon zan?
-Bai. Kuban. Gaiñera esaten auen barkuen eurak erremaute fan ziela.
-Bai zea fango zien Kubaraiño!
-Bai, bai! Pentsaizu! Berak esaten auen. Gaiñera…
-Baiña haik zerak eukiko zittuein…
-Txandaka-txandaka, baiña zerakin ibiltten ziela. Remuekin fan ziela.
-Kubaraiño?
-Kubaraiño, bai. Kubako gerran egonda…
-Estropadetarako onak izengo zien orduan!
-Bai. Bai, ba ta ez dakit zenbat egunien egon zien itsasuen.
-Remaitten?
-Allegau barek. Allegau eziñik.
-Aiba! Ta ze, zenbat denpora in eben Kuban?
-Ba ezt dakit, baiña urte batzuk bai. Urte bat ero bi bai, ein zittuen.
-Ta han gerran eongo zan.
-Gerran, gerran, gerran.
-Baltzak hiltten?
-Ba, itxurie. Baltzak egongo zien. Eurak zurixek izengo zien ta.
-Eurak, zera, zeure aitta horrek ze kontu ekarri eben Kubatik? Ze kontaitten otsuen zeueiri?
-Harek? Kubari buenooo, boniatuek jaten zittuela, besterik ez auela jateko. Boniatue. Boniatuoi ez dakit zer zan, baiña…
-Boniatua, patatian antzera.
-Patata modukue ezta? Ba hori, boniatue besterik, eta gero ba frentien betik zerakin. Eta bastante txarto pentsetan dot pasau auela.
-Orduen egongo zan erregie Españan, ezta?
-Itxurie.

-Bai, karo. Haik zien koloniak.
-Koloniak. Ba hor juan zan. Ez dakit oin auzokorik bateronbat fan zan, edo berari tokau jakon herrixen edo zerien.
-Beste norbaittek kontau nostan, ez dakot goguan zein, fan eta handik gutxira bialdu ein zittueilla. Oseake ia gerria akabaitten edo bestiok irabazi eueiñien bialdu ein zittuein.
-Bai, horreik be bialdu ein zittuen.
-Horreik hilebete besteik ez eben ein. Zure aitta lehenau fango zan?
-Bai ba honeik e... tokau jakon bastante denpora.
-Eta ze tokau xakon soldauska garaixa?
-E?
-Soldauska garaixan tokau xakon edo bestela?
-Ba ez dakit ze esango dutsuten /esangutzuten/, baiña berak zelan bere Kuba auken. Besterik ez euen zerketako, esateko. Kuba! Ni Kubako gerran. Ta Kuba ta hau buenooo, Kuban aldien e, askogatik be hobiaue zan, hau gerriau hamen ikusten auena, Kuba baiño. Berak esaten auen moduen. Ez dakit Kuban zer ikusiko auen. Baiña...
-Oseake harentzako, orduen, hemengo gerria bigarrena zan ia.
-Bai, itxurie bai. Oin, hamen ez jakon /etxakon/ tokau, zeozegaittik libre urten auen.

10.22. Gerraostean euskara baztertu

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/008
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:18:05. **Bukatu**: 00:20:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Gerrarekin ikastolak kendu eta eskoletan euskaraz mintzatzea debekatu zuten. Maisuak jartzen zizkien zigorrak gogoan ditu Joxek.

Transkripzioa
-Eta bueltauta ikastola garaira ta. Zu ikastolan hasiko ziñan hogeita hamaikan, edo hogeita hamabixan edo...
-Bai, holako baten.
-Ze giro... osea, klaro, euskerazko klasiak ba ordutxetik haik eta ikastolak hemen hasi zien arte ba...
-Ordurarte.
-Ba berrogei ta... ba hirurogeixan ixixa. Hirurogeixan ixa hasi zien atzera ikastolak hemen.
-Hirurogei baiño geruau.
-Mmmm hirurogei ta akaberan...
-Gerrie, gerrie akabau ta segittuen hoik ikastolak ta honeik fuera! Honeik danok. Hori izen zuan e... ta Euskeraz ezin ein! Ta guk kanika bat eukitten gaixuan. Viatorista batek emon, ta baten bati entzuten badutsek errekreuen euskeraz, hik hari emon biher utsan /bitzan/. Ta bestiek bestiei. Makiña bat bider egon nok ni, kastigaute! “No hablaré más en Euskera, oooo en Vascuence“. Orduen Vascuence zuan.
-Bai. Ta hori eskribidu biher?
-Jooder. Kastigaute.

-Zenbat bider?
-Baaa ordubetien igual.
-Hori eskribitten?
-Bai, bai.
-Oseake San Viatorren...
-San Viatorren itxurie ez dok...
-Fraille, fraill...
-Frailliak! Frailliak ez hittuan, mezadunak ez hittuan. Zuan leguek, baiña frailliek.
-Eta kanikiakin, e?
-Jooodeeee, ha izeten zuan e...
-Ez, baiña aurretik ikastolan, karo, zu umia izango ziñan baiña e...
-Gure aurrekuek be iguel-igual!
-Baiña eskola-giro jatorraua zan gerra ostekua baiño? Eskola girua. Edo antzerakua zan?
-Iguela! Bata erderaz ta bestia euskeraz. Girue iguela! Maixue maixo, eta hori, errespetue ta... eskolan letxe, beste eskolatan letxe, iguel-iguel.

10.23. "Bittor hojalateruena" denda

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/013
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:29:10. **Bukatu**: 00:31:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Arrasaten gerraostean gosea ezagutu zuten; Joxeren familiak ez hainbeste, baserriko gauzei esker. Amak denda zuen, eta baserritar askorekin harreman ona. Denda horri "Bittor hojalateruena" deitzen zioten.

Transkripzioa
-Ta zuk goguan daukotzu garixa ta artua ta entregau biher izaten ziela ta gero, gerra ostian?
-Bai, bai.
-Arrazionamentu garaixa ta.
-Bai.
-Zueik kalian bizitta arrazionamentua sufriruko zeuein, ezta?
-Mondrauen gosie pasau zuan. Gosie. Guk, Jaungoikuei eskerrak...
-Bai, basarrixa, ezta?
-Basarrixekin ondo arreglau gitzuan. Ondo arreglau gitzuan. Ta gero, guk e, suerte haundixa euki gaixuan, orduen gure etxera gauzak erosten-ta basarrittar asko etorten zuan. Gure denda bat jaukan amak, han egoten zittuan e, ba, behixak batzeko zerak ta, zerak eindde ta, gauza guztiek egoten zittuan. Baldiek eta, barriñoiek eta, danerakuek jauan han. Eta hara jente asko etorten zuan ta guk... beti ekarten juskuan zerbait. Batak zera, patatie ta bestiek ez dakit zer, ta... beti ekarten juskuen. Ta hor basarrittik asko.
-Karo igual diruekin ordez, janakin...
-Bai, bai, bai. Nik uste juat e, nik hola uste juat arregletan ziela.
-Ta zela eukan izena denda horrek?
-Ba Bittor hojalateruena. Ta ez jaukan /etxaukan/ izenik gehixauan. Bittor

hojalateruenak zittuan gure ezaguntze... gurie be gero pelotarixek in gitzelako baiñe... ”Horreik zeintzuk dittuk?” eta ”Bittor hojalateruen semiek”.
-Aja. Oseake dendia Bittor...
-Rosa, Rosa. Ama Rosa zuan.
-Baiñe dendia Bittor hojalateruarena?
-Bueno, hojalaterixie ta dendie leku baten jauan ta... bai. Bittor hojalateruan etxie deiketan juskuan hari.
-Aja. Orduan, denda horretan, zerak, balde ta barriñoi ta holako zerak?
-Bai.
-Ta behixak batzeko zer esan dozu ibiltten ziela?
-Zerak e, ardixek batzeko badakik zer. Aittek itten jittuan horreik gauzok! Hojalatiekin. Katxarruek.
-A! Aittek berak itten zittun?
-Berak itten jittuan!
-Osea, baldia esan gure dozu.
-Baldiek eta horreik berak itten jittuan.
-A joño.
-Bai.
-Hori soldiuta edo?
-Soldiauta. Txapa galbanizauaz posalak eta. Horreik. Ekarri be bai, eta in be bai itten zittuan.

10.24. Gose larria Arrasaten gerraostean

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/014
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:31:58. **Bukatu**: 00:34:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Arrasaten gose larria ezagutu zuten, jendea hiltzerainoko bestekoa, dio Joxek. Falangisten "Auxilio Socialen" banatzen zen errazionamendua. Joxek pilotan jolasten ziharduela, frontoian bonba bat erori zen.

Transkripzioa
-Eta esan dozu, orduen, gose asko pasau zala Mondraguen?
-Mondrauen bai, Mondrauen bai. Hil be bai jentia, gosiekin.
-Gosiak, e?
-Bai, bai.
-Bai?
-Bai. Hil be bai. Orduen gose haundixa jauan, e.
-Hori razionamientuoi zer moduz fan zan?
-Razionamientue, ba, hantxe plaza aurrien emuten juen. Gaur zapaterixa bat jak han. Ta hantxe egon zuan. “Auxilio social” edo zer zuan ha? “Auxilio social” edo deiketan jutsen. Falangistak emuten juen. Mondrauetarrak e! Falangista jantzitte ta... Emakumiek eta... Baiñe fan ein biher haraxe.
-Egunero?
-Egunero, klaro.
-Ta zer partitten euen?

-Ba, dauena. Babak edo. Patatak edo. Ez jakixat /etxakixat/ nik zer emuten juen. Gu ez gitzuan faten, e.
-Klaro, zueik nehikua zeukatzuein...
-Bai, bai. Baiña jente asko, e! Jente asko, e!
-Ta artien be gaixki!
-Artien be gaixki. Joer. Hamen gogorra izen zuan e! Gerra denporie gogorra e. Ez zuan bromie gero, e!
-Ta zu, gerrie bera izen zanien, zer egon ziñan, Mazmelan egon ziñan edo?
-Gu gerra denporan... hor kaiñonazo bat etorri zanien, gu pelotan gabitzan frontoi haundixen. Oin ba jak ba frontoi haundixe? Ta hantxe horman jo juan.
-Kontxo! Ta zeuek pelotan.
-Pelotan! Guk gerrie ta zer gakixan ba guk! Zer gakixan ba. Hor ez jakixat / etxakixat/ nundik bota juen zera ta horman jo juan ta. Jausitta egon zuan urtietan ha! Gero arreglau juen baiñe. Ta orduentxe...
-Ba susto gogorra hartuko zeuen, ezta?
-Bai. Baaa zera, gu refugixora ”echando chispas” ta kitto.
-Nun euen refugixo hori?
-Refugixua jauan hor e, portalepeien. Maixorren etxie. Ta hara sartzen gittuan gu.

10.25. Etxeko umeak Eskoriatzara babesera

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/015
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:34:00. **Bukatu**: 00:36:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gorriek Arrasate bonbardatzen zutenean, nazionalek herriko plazara ateratzen zituzten preso zituzten gudariak. Joxe eta bere anai-arrebak aitaren baserrira eraman zituzten orduan, Eskoriatzara.

Transkripzioa
-Hor bonbardeo zerak-eta hasi zienien... bonbardeue be egon zuan hor. Presuek atara jittuen plazara, e! Ta abioie etorri zanien bota be bai bonbie! Ta ez juan /etxuan/ errebentau!
-Kontxo.
-Ez juan /etxuan/ errebentau!
-Osea, presuak, nazionalistak?
-Karo, karo.
-Osea gudarixek?
-Gudarixek-eta, ba, gudarixek edo gure danak! Behintzet frankistak edo españolistak ez zienak, hor kartzelan jazan. Ta atara itten jittuen, e! Plazara, e!
-Ta, osea, haik aber harrapaitten zittuen...?
-Bai! Ta bota juen bonbie, baiñe hantxe itturri bat jauan ta hantxe kanpuen jo ta apurtuta hantxe egon zuan. Guk ikusi gaixuan. Ta gero gure aitte-ta sustau zittuan ta eruen gindduan basarrire.
-Ta ha Mazmela inguru haretan trankillau egon zan?
-Bai...

-Handik be batzuk ihes in bihar izan euein.
-Bai, bai, baiñe hor e...
-Hor Urezaundiko, Urezaundiko...
-Urezaundikuek-eta bai, bai.
-Hareik hanka in biher izan euein e.
-Bai, bai. Eta hor be gero Mazleman be pasau zuan, hemen Kurtzeta hemen jak! Ta Mazmela hortxe jak! Ta hor egon zittuan holako zerak eta, gabetan etorten zittuan gorrixek harutze ta... ni mutikue baiña akordetan naz zerbaitteaz... zerbaitzuaz akordetan nintzuan. Ta hantxe egon gitzuan gu gero. Hantxe.
-Ia, kalian baiño trankillau.
-Karo, Mondraue peligrosue jarritte jauan ta.
-Aitte ta ez e. Aitte ta ama etxien. Ta gu hor, nunbaitten.
-Eta zuk hor Etxenagusin e, Etxenagusin ez daukotzu goguan ganaurik kendu ein otsuein edo...?
-Ez, holakorik ez zuan /etxuan/ pasau.
-Etxe askotan pasau zan hori.
-Ez, holakoik ez, hor ez. Hor ez zuan /etzuan/ holakorik pasau. Ba, beste leku batzuetan bai.
-Eta, orduan, Etxenagusin, denpora dana etxian egon ziñein? Zuek ez zeuen euki soldaurik etxian ta holakorik?
-Ez.
-Ta lapurretarik eta ez zeuen euki.
-Ez, ez, ez, ez.
-Zegatik baserri batzuk ba igual hor ola beste auzo batzutara fan ta baserrixa hutsik itxi ta bueltan dana...
-Ez, ez, ez, holakorik ez zuan /etzuan/ pasau Mazmelan. Mazmelan-ta ez zittuan pasau holakorik.
-Ia. Oseake bonbazua orduan pelotan zabitzeilla.
-Bai, mutikuek gabitzan, ba, hantxe!
-Joe.
-Ta beste baten Portaloipeien errebentau juan beste bat ta hil zittuan Kortabarria ta... bi edo hiru hil zittuan Mondrauen e. Bi edo hiru hil zittuan.
-Eta bonbak etozen, zera, Elorrixo aldetik, edo?
-Kanpazar aldetik esaten juen. Hala esaten juen.
-Bai, han egon zien ba Elorrixon ta...
-Bai, bai, handik esaten juen...
-... gudarixak, milizianuak edo...
-Bai, bai, handik esaten juen.

10.26. Gerran senidea galdu zuen

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/017
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:37:58. **Bukatu**: 00:40:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gorriek lau eskopeta besterik ez zituztela dio Joxek. Osaba bik hanka egin behar izan zuten, eta beste bat, udaletxeko diruzaina, fusilatu egin zuten Oiartzunen.

Transkripzioa
-Eske hor pasau zuan e... egunez sartzen zittuan zerak, hamen be, Kurtzetan-ta letxe e, egunez militarrak sartzen zittuan ta gabien bestiek bieltzen jittuen, ta hola ibili zittuan hemen. Hamengo gerriek e, zelebrie... bueno, ordurako gerrie zuan, baiñe gaur zelebrie izengo litzakek. Gaur zelebrie izengo litzakek.
-Bai, gaur jenderik ez da biher izeten ta.
-Zera, tira tira, tira.
-Makiñekin, ta abioiekin ta zerakin...
-Karo. Orduen bonbamanosak eta botaten... [horixe] zuan gerrie. Ta honeik gorrixok ze aukien ba, lau eskopeta aukien ta. Joe.
-Bai. Ba, neri kontau izen dostai, karlisten gerratan, oseake hemezortzigarren...ez, hemeretzigarren gizaldixan, makillakin itten eueilla...
-Bai, bai, bai, bai.
-... ez ezpataik eta ez...
- Hau be antzerakue zuan, hau be, e. Hau be antzerakue. Eskopetakin ta... ze, ze jaukien ba? Ze jaukien ba?
-Zeuk seniderik ez zeben /etzen/ euki gerran?
-Bai, gure Mazmelakuek eta bai ibili zittuan. Ta zerak bai, gero, primuek-eta bai. Ta baiñe nire primuek-eta alde in biher izen juen. Batzuk fan zittuan, tiuek eta, bata Galiziara-edo fan zuan, tio Juan Cruz. Ta...
-Baiña ihes indda, edo...?
-Iges eindda, iges indda. Gero tio Andres fan zuan Venezuelara edo, Carakasea edo. Ta niri tio bat afusillau eustien.
-Kontxo.
-Anaie, aman anaie. Horretxekin abariokin.
-A bai... horreikin batera? Oiartzunen edo...
-Bai, bai, bai...
-Ze pekatu [euken] ba?
-Ze pekatu?
-Tio horrek.
-Ha zuan “no se qué de fondos del ayuntamiento“, ta harek iges in juan, ta diruek eruen in jittuan. Ta Durangoraiño allegau zuan, ta esan eutsien / esautzien/ lagunei “E! Ni ez naixuek, ni honeaz, ni diru honeaz ez naixuek. Nik honeik entregau ein biher jittuat /bijittuat/“, ta “Ez ai fan, ez ai fan, garbittuko haue ta. Hiltten jabitzak eta ez ai fan". Ta bestiek ezetz. Berak entregau ein biher auela /einbiauela/, eta etorri in zuan, ta entregau in zuan. Entregau jittuan diruok.
-Hamen, hamen, udaletxien?
-Bai. Ta etxea fateko esan utsien /esautzien/ ta fan zuan etxera. Hurrengoko egunien erun juen ta “hasta hoy. Hasta hoy“. Pentsaik. Gero honraue izen biher hazela /izenbihazela/. Bai, bai...

10.27. Oiartzunen arrasatearrak fusilatu

- **Hizlaria(k)**: Arriaran Aranburu, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-084/018
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:40:50. **Bukatu**: 00:42:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- **Laburpena**: Osabarekin batera hiru abade fusilatu zituzten Oiartzunen. Hirurak ezagutzen zituen Joxek.

Transkripzioa
-Ta horreik Mondraueko abariok? Horreik hirurok ezauketan nittuan nik e! Don Josegatik, parrokuegatik esaten juen nire zaharrak, ni pelotan hasi nitzenien, tasixien ta faten gitzuan, ta ni irueten nindduen. Ta harein konbersaziñuek eta, ta hori Santue zuan e! Hala esaten juen e. Don Jose Joakin Arin. Bestie Markiegi ta bestie Guridi.
-Guridi Oñatikua.
-Guridi Oñatikua. Luixen taberna, Luisen tabernakue.
-Eta jo, neri, ez dakot goguen nok, baiña preguntauta ia ze pekatu in euein abare horreik, batek esan ostan euskaldun ikastola antzerako zerbait ipiñi eueilla horreik euren zerien. Euren abaretxien edo...
-Abadetxien, ikastolie jauan!
-Ba, ta hori ba eurak ipiñitakuan...
-Ta hori dok zera?!
-Garai baten hori...
-Delitue hori dok?!
-Garai baten hori delitua zan.
-Bueno, bueno, bueno...
-Falangistentzako bai.
-Bueno, bueno, bueno... Lotsarik be ez jaukiek /etxaukiek/ ta.
-Ezta bape be.
-Lotsarik pe ta...

10.28. Eskoriatzako marianistekin desfilatzen

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/007
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:12:37. **Bukatu**: 00:13:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena**: Hamabi urtera arte, auzoko eskolan ikasi zuen. Gero Eskoriatzako marianisten eskolara joan zen. "Balneario de los marianistas"en lau urtez ikasi zuen. Gerra denbora zen, eta desfileak egiten zituzten Eskoriatzako parrokiara, Francoren garaipenak ospatzeko.

Transkripzioa
-Eta, orduen, sei urtetatik hamalau arte eskola horretan ibili ziñan.
-Ez, hamabi urtera arte.
-Hamabi urtera arte.
-Gero Marianiste sartu nitzen, han, Eskoitzan, Eskoitzako kolegixuen. Ta hor egon nitzen lau urte. Oin hori kolegixue desagertute dau. Hori zan balnearixue, Eskoitzako balnearixue. “Balneario de los Marianistas“ esaten zana, ta hor zauzen Marianistak.
-Ta bañuetxien ikasi zeben zuk?
-Ha zan kolegixue.
-Marianisten bañuetxia.

-Bai. Hor lau urte ein nittuen.
-Lau urte. Eskoriatzan, ezta?
-Bai.
-Eta hor be... karo...
-Dana erderaz. Gerra denporie zan ta, joe, erderaz ta. Gero zeozer baauen, Francon tropak holan, ba, Tarragonara edo sartu ziela, o Bartzelona hartu auela, danok desfilie eleixara, Eskoitzako parrokixara. Han “Tadeum“ ta iñun dienak kantau ta gero plazara, ta han mitiña plazan. Gu mutikotxuek hamabi, hamahiru ta hamalau urteaz ta, ba, dana aurrera. Holaxe zan.

10.29. Santa Agedako frontea

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/008
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:13:56. **Bukatu**: 00:15:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerran, nazionalak Arrasateko herrian zeudela, gorriak egon ziren Santa Agedan zazpi hilabetez. Bonbardaketa asko bizi izan zituen Juanitok. Ospitalea gurutze gorri handi batekin babesten zuten. Eurak ospitaleko sotoetan babesten ziren.

Transkripzioa
-Nik hara fan aurretik, esango dutsut /esangutzut/ gehixau ondion. Eskoitzan sartu aurretik, hamar urteaz, hamaika urteaz, Santa Agedan... bueno, Santa Agedan gorrixekin gelditu giñen gu, e. Zazpi-zortzi hillebete egon gitzen hamen Arrasaten Francon tropak, hamen Erguiñen ta hamen bertan, hortxe zauen frentia hementxe bistan, Olandixo ta Erguiñen, ta gu Santa Agedan gauzen gorrixekin. Esaten zan orduen "gorrixak". Han auzen nazionalistak. Gehixenak ezaunek, Arrasatekuek edo... Ta gero egon giñen, ba, “en primera linea“. Gu bonbardeo ta, guk bonberdeuak be geure gaiñien hartu gauen. Asko ez zan... hillik ez zan egon, e. Zarata asko, baiñe hautse ta burrundarie, baiñe gehixau ez.
-Ta ospittala be atakau ein euein?
-Ospittala auen kruz roja haundi bateaz ta defendirute auen, baiñe bonbardeuen bonba batzuk jausi zien ospittalien be. Hor egon zan ospittalien, este, ”Desperdicios“, oso periodista famoso bat, “Director de la Gaceta del Norte”, Bilbokue. Aureliano Lopez Becerra. Ta zoratute moduen, baiñe hortxe sartute fraillien artien egon zan. Hortxe salbau zan, e. Bueno, ta esaten noien. Gero egon gitzen beste hillebete “En medio de los dos frentes“. Hor Santa Ageda abandonau auenien gorrixek, ta bestiok ezin sartu, egon zan Madril inguruen, ba, abanze bat. “Tropas de choque en Belchite“ edo ez dakit nun izen zien, ba, hau frenetako apurtxo bat. Ta hau gelditu in zan, tropak eta hara bieldu zittuen. Ta gu erdixen zertu giñen, etxetik urtenda, etxetik iges indde. Manikomixo barruen lelengo, ba, hango sotanuetan-ta lo eitteko eta, ba, zelabaitt.

10.30. Mutikoak instrukzioa egiten

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/009
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:15:58. **Bukatu**: 00:19:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gorriek alde egin eta nazionalak Santa Agedan sartu zirenekoa gogoratzen du. Gero mutikoek instrukzioa egiten zuten, eta desfileak egitera eramaten zituzten kalera, "Flechas y Pelayos" jantziekin.

Transkripzioa
-Gero, sartu zienien, gero Francon tropok sartu zienien Santa Agedan, ez naz akordetan zela sartu zien. Han tanke bat etorri zan Aramaixotik, ta mutikuek han elexpeien ta kamioi bat eta. Ba, ogixe edo zeozer baakarren ta ogixe emun uskun /emuskun/ ta mutikuek jarri giñen talde bat eta hasi giñen...bueno, esan uskun /esauskun/ esateko “España sí, Rusia no, España sí, Rusia no“. Bueno, ta holakuek. Ta gero, gero ia... Franconak, Franconak giñen. Santa Agedan ez zan egon holan gauze espezialik.
-Eta hor gorrixak nora ein... nora fan zien hortik?
-E?
-Gorrixak hortik nora fan zien?
-Gorrixek hortik fan zien Arrazolara.
-Arrazolara, e?
-Ta gauzela sortu zan... Aramaixoko... hor auen bidie Aramaixotik Bilbora, Aramaixotik Olandixora, holan bidekurtze bat eiñ auen ta hortik manejetan zien Aramaixora etorteko. Generue, ogixe, jentie, lentejak eta iñun dienak hortik etorten zien. Baiñe hori kortau auen abanzien ta automobillek eta bi tanke ta anbulantzia bat be, Santa Agedan, aber Santa Agedatik pasetan zien. Baiña zelan, ezin leikien pasau! Mendirik mendi, ezin leikien. Ta hortxe su emun utsien ta hortxe, hortxe erre zien. Tanke bat hor egon zan urtietan errekara botata, ta ba hantxe, tanke bat. Bueno, ta gero, Francon denporan, esto... mutikuok instrukziñue ikasi gauen. Hamen egon zan bat, Julio Markaide. Ba hak e, soldauskara juen biherrien, ba, zeozer, kultura apurren bat baauken ta, ha nobixie Santa Agedakue auken ta ha bialdu auen Santa Agedara guri instrukziñue emuten. Ta gero jueten gitzen Mondraguera desfilera, desfilie egoten zan. Egurrezko fusillaz ta bixkerrien ta instrukziñuek... soldauek letxe! Soldauek letxe! Jo-ta bueno... Jantzixe be, arkondara kakixa, Reketiek moduen, ta beste batzuk, mordoxko txikitxo bat, falangistak. Haik Falangistak zien, ”Flechas". "Flechas y Pelayos“. Gu pelayuek giñen, ta bestiok, holan talde txikitxo bat, flechas.
-Falangistak.
-Falangistak, bai. Ta egoten giñen ba zeozer auenien, ba desfilen... edo etorten zan, hilddekoren bat igual, batonbat frentien hilddako bat, eta bueno, Arrasatera desfilia. Atxabaletako, pasau zanien urtebete, Atxabaleta hartu auena, Atxabaletara desfilera. Ta mutikutxuek han, hamaika-hamabi urteaz, ra! Fusillokin ta iñun dienokin. Hori holaxe da. Pentsau, oin pentsau eta ezin leike...
-Hori instrukziñoori eskola ordutan hartzen zebein edo...
-Ez, hori eskolatik aparte. Eskoliek ez auken zerikusirik horrekin.
-Ta bihartuta zeunzein fatea?

-Nora?
-Instrukziñora derrigorrez fan biher ziñain?
-Nik uste dot obligaziñue zala e, danok jueten gitzen ta. Aber zein… atzera botatie oso arriskutsue izeten zan ta… aurrera. Guk, hamar-hamabi urteko mutikuek ze ingo dozu /ingozu/ ba…
-Eta bixen bittartien hor, Loretoki…

10.31. Aitaren baserrira babes bila

- **Hizlaria(k)**: Leibar Guridi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-153/010
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 00:19:21. **Bukatu**: 00:23:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Loretoki etxean oiloak eta untxiak zituzten. Ortuan hazitako marrubiak ospitalera saltzen zituzten. Gerra auzora zetorrela eta, Erenuzketa baserrira joan ziren babestera. Han pasatu zuten hilabetean euren etxea garbitu egin zieten. Arrasateko guduari buruzko azalpenak.

Transkripzioa
-Etxe horretan ganaurik edo…?
-Ez, ganaurik ez gauken.
-Oillo edo holako…
-Oillo, oillo eta konejuek, baiñe ganaurik eta… Ortue eta mailluki saille gauken galanta, ta ortu txiki bat be bai ta. Maillukixek saltzen zien. Gure aittek eta amak mailluki… eta saltzen zittuen zerera, mojetara, sanatorixora.
-A! Saldu?
-Dirua, dirua atara biher eta. Ezta? Akordetan naz urte baten, ez dakit, berrehun ta berrogeita hamar kilo edo hartu zien, maillukixetan. Holan, espalda baten, e? Ez eizu pentsau. Dana sasi artie zan ta aittak ta amak atxurraz, ba, lanen puruz ba… Ta etxiau zan… guk etxie abandonau in gauen. Akordetan naz e. Egun baten, ba, abanzia atorrela eta, arratsaldeko xeiretan edo, aitte, ama ta lau seme-alaba, hartu eskuen ahal dauena ta hor auen mendira, Enusketara. Ha geraketan zan “un poco” holan “campo neutral” e? Peligro barik. Ta haraxe juen giñen ta zortzi bat egun in gittuen ta gero bajatu giñen sanatorixora. Han segurantza haundixaua euen, han… ba zoroetxietan ez zien sartuko iñor, ezta? Ta hantxe egon giñen. Ta hillebete bat pasau gauen ta barriro Lore Tokira. Ta etxie dana… apurtute ez baiñe dana sakeaute auen. Dana garbittute.
-Zenbat denpora egon ziñain kanpuen?
-E? Hillebete inguru.
-Hillebetien garbittu in otsuein?
-Etxera sartu barik. Etxera… Bilddurra gauken ta.
-Ta topau zeuein dana…
-Han tirue, tirue auen, tiro bixen erdixen. Murugaiñetik, zera, Francon tropak, eta bestaldetik bestaldekuek, ta han ezin geiken ibili. Holaxe.
-Ya. Ta nork sakeau otsuen ba zera?
-Sakeua, ez gauken ezer be ta, zer hartu… Erloju bat, erloju bat auken

“Longiness” aitten eskontza-denporakue, ta hantxe ahaztuta itxi ta… Ta, ba, bestela, ba… ez dakit izeraren bat edo zeozer eruengo auen. Baiñe, bestela, etxie ba pinttau auen OHP ta iñun dienak ifini zittuen ta… gorrixek e, gorrixek etorten zien, ba, etxie bisittetan, gabez ba aber zeozer aber harrapetan auen hanka in baiño lehen. Horreik e, hemen Santa Agedan egon zien bi talde. Bat zien honeik, nazionalistak. Arrasatekue, ta beste errelebue, uste dot Legazpikue zala. Baiñe hamen Udalan auzen gorrixek baiñe gorrixek. OHP ta horreik asturianuek ta santanderinuek, horreik ez utsien… nazionalistak zien “como retén, defensa del pueblo”, ezta? Ta horreik ez utsien itxitten bajaketan Santa Agedara. Horreik ibiltten zien Udalatik, ta Udalatik Arrasaterutz eta… Egon zan egun bat zartada haundixa urten auena. Pentsetan auen desfilie moduen Udalatik Arrasatera sartu biher ziela /biziela/, baiñe hor, hamentxe bertan, ba bertako gauzak die, hamentxe Santa Anan hamentxe, Uribarriko auzuen, trill ein auen, ta zan San Andres egune, ta izugarrizko tiroteue, ta hortxe ebai zan. Frentiok. Ni lelengoko egunetan, ba, lelengo hillebetietan, ba gerria hasi zan juliuen, ezta? Baiñe abuztuen ta zerien, iraillien, ni ninguen mutikotxue tion etxien hamen Uribarrin. Ta gorrixen aldien gingozen ta etorten nitzen Arrasatera, reketiek auzen, soldauek auzen lekura. Ba! Esate baterako, ez auela holan “una línea cortada como frente”, baiñe San Andresen egunetik aurrera ya dana itxi zan ta… a tope egon giñen.

10.32. Gerra denboran, "beti tiropean"

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-155/020
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:31:23. **Bukatu**: 00:33:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Estebanek bederatzi urte zituen gerra etorri zenean. Fronteak aurrera egin bitartean, senide batzuen etxera joan zen Esteban. Egunero jaisten zen kalera astoarekin: etxe ostetik irtenez gero ez zuten arriskurik izaten; etxe aurrea, ostera, fronteko tiroen jo mugan zegoen. Iluntzetan, tiro-hotsa izaten omen zen. Azerikua baserrian, Estebanen amaren jaiotetxean, granada bat sartu zen kortan, eta ganadua gobernatzen zebilen Estebanen lehengusua bertan hil zen.

Transkripzioa
-Beratzi urte zeukatzula, gerria etorri.
-Bai gizona, kauen diez.
-Ta esan ostazun, esan dostazu fan ziñala […]
-Bai. […] ra bai.
-Ta han egon ziñala denporada baten.
-Bai, karo, gerrie zertu arte, ebakuau arte hemendik. Hemendik abanzau arte.
-Eta gerria zala, kalera etorri be ez ziñan itten?
-Bai, kalera bai, kalera egunero. Astuekin egunero kalera. Zegatik e, etxostetik urten ta gero ia frentie ez auen hartzen, etxostetik urtenda,

baiña etxe aurrie-ta beti abatidute. Ta akordetan naz e, noxbaitten ilunkeran edo zertu te “txax!“. Han “bakun!“ eitten auenien txistuek, “Xast! Xast!“ norberan inguruen balak, e! Ni batek be ez nindduen jo. Baiña beti tiropeien. Beti batirute.
-Ta hola lanian edo zeretan ebillen jenterik, heriuta izan zan baten bat?
-Ez dakit, bateron bat izen zan... a bai! Axerin!
-Axerin?
-Gure aman etxien, Arregi, hor Axeriko etxien, sartu zan granada bat kortan, ta hil auen mutil bat ta ganau bi o hil zittuen. Bai, nire primo bat, Tomas.
-A, mutille etxekue, gaiñera?
-Bai, hogeta bi, hogeta bat urteaz edo holaxe.
-Kontxo.
-Ta mutikue, mutikue garbi. Karo, kortan abillen ganaue gobernetan o batzen, o gure dana. Ta sartu zan granadie ta errebentau auen ta hantxe garbi. Ganau pare bat ta bera mutille be fuera! Bai, kortan e. Sartu zan zeroi ta benga!
-Ta etxia zutik geratu zan?
-Bai, etxie ez zan, ez auen, ba ha ingo auen destrozo apur bat, baiña, etxie zertu zan, etxie geratu zan.
-Ta hori zer zan, zure amaren...
-Aman etxien. Aman jaixo-etxien.
-Bai, bai, karo, hori zan amaren ilobia?
-E?
-A, karo, zure primua izateko...
-Nire primue, karo! Ni e...
-Orduen amaren ilobia.
-Eske gintzen, doble primuek gintzen. Nire aitten arrebie fan zan Axerire, ta nire ama zan Axerikue ta etorri zan Muxibarrera, oseake primo doblez. Kruzaute gengozen. Kruzaute auzen.

10.33. Nazionalak Muxibarren

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-155/022
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:33:43. **Bukatu**: 00:34:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Muxibar baserrian nazionalak egon ziren. Bertan zeuden kanoiak, eta handik tirokatzen zuten Untzillara (Aramaio), Muru gainera, Udalara eta Elorrio aldera.

Transkripzioa
-Zuk zeuk e, militarrak eta ikusten zittun?
-Mekauen... etxien gauken militarrok! Han auen kozinie ta han auen dana...
-Muxibarren? Muxibarren edo...
-Muxibarren, Muxibarren egon zan baterixiek e... zerak egozen, krisi mediko... esto... kañoiek egon zien han! Ta jode, kriston zera.
-Ta handik tiroka?
-Handik tiroka eitten auen zerera, Untzillara ta, horra. Handik tiroka eitten

auen.
-Horreik zer, horreik zien, nazionalak izengo zien, ezta?
-Nazionalak, nazionalak. Gero bestiek...
-A oseake gero Muru..
-Muru ta ha, ha, hara tireketan auen, hara tireketan auen. Hara ta hona zerera Udala ta zerera, Elorrixora eta be bai tireketan auen. Handik, handik tireketan auen. Zelan ez auen hartzen, ba handik zera, handik goittik, bueltan ra! Botaten auen. Bai.
-Ta horreik denpora askuan euki zittuein etxien?
-Hori... etxoizu, esango dutsut /esangutzut/. Este, abanzadie ba... pare bat, hiru... itxoizu...

10.34. Gerra osteko miseria

- **Hizlaria(k)**: Arregi Letamendi, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-166/017
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:23:29. **Bukatu**: 00:24:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra ostean, ez zuen goserik pasa Axeri baserrian umezain zegoelako, baina gauzen beharra sentitu zuen (arropak, oinetakoak...). Tereren ahizpek gosea pasa omen zuten. Aitak Zerrajeran egiten zuen lana, baina ez zuen asko irabazten. Ortua eta untxiak zituzten etxean, eta amak gutxirekin gauza asko egiten omen zuen.

Transkripzioa
- Ta zuek zeuek... hamen etxien ez zeuen /etzeuen/ orduan estutasunik pasau?
- Miserixie?
- Bai.
- Haundixe. Esaten dozu gurien... aiztak eta esaten daue, bai... Nik goserik ez dot pasau. Gauza askon nesedidie bai; ez dakizu /eztaitzu/, jantzixek, oinetakuek... horretxena bai. Gosie, ez. Enitzen jatune be e... baiñe goserik ez. Baiña gurian aiztak eta bai.
- Bai? Gosia pasau...
- Bai.
- Baina klaro... zu gehixen bat Axeikuan...
- Baserrixen, bai.
- Klaro.
- Baserrixen.
- Ta aittak ze langintza edo euken?
- Zerrajeran za... eitten zeuan lana, baiña asko ez zan ibarazten be, ta bost alaba! Badakitzu, andrie... Ortua be baunkun ta konejo batzuk be bai ipinitte. Eta, ba, zerbait. Gurien ama kozinera ona zan, eta gutxikin be asko atatzen zauen, baiñe horixe... kostata.
- Ya, ya...
- Lan asko einddekuek danok gero. Lana tokau jaku, baiñe ez zat /ettat/ garbaketan.
- Bai, bai, bai, bai...

- Ez dot garbaketan.

10.35. Militarrek etxetik irteteko agindua

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/005
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:09:38. **Bukatu**: 00:13:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Latorre jenerala auzoko Etxezarreta baserrira etorri zen. Bertako jauna zaldi gainean ibiltzen zen bere lursail zabaletan. Egun batean, Latorre jenerala Zeleta baserria ikustera joan zen; eta, hurrengo egunean, etxetik alde egin behar izan zuten. Oñatira joan ziren.

Transkripzioa
-Gero, lelengo, zegatik e hori, esan nutsun nik, jeneral Latorre, etorri zan zerera, horra etxe haundire, Etxezarretara. Etorri zan.
-A, hori, aberatsen edo…
-Bai, hori.
-Madrileñua edo nungua zan hori?
-Ez, berori, nik pentsetan dot, nik ez dakit, o Madridera etorri bazien be holan hemen txikitxotan edo etorritte edo izengo zien. Baiña bestela horreik beti hor bizi izen zien e. Eta gero ezkondu zan hori, hori, mutil zaharra ia, ezkondu zan alargun bat… señora, baiña zelakue? Guapie e. Xei… zenbat seme-alaba? Bost bai. Bi neska…
-Bergararra edo ez zan hori?
-Ez, ez. Honeik, berau bizi zan hor Hernanin edo, Tolosa aldien-edo bizi zan hau alargunau. Han auken txaleren bat. Eta ez dakit nundik, behintzat hori e… Jesus Mendia orduen gerra denporan auela esaten auen alkate, eta haren bittartez-edo ein auen behintzat hori ezautu auen. Ta hori señoriaz etorten zan asko. Baiña nik holan ezautu bera, nox hil zan ta…ez naz akordetan. Kaballuaz ibiltten zana bai. Zegatik bidiek auken, hasi Etxezarretan eta zereko, ixe zereraiño, itturrixe baeuen ba Arruenekue edo? Ixe haraiño. Euren holan erromarak zerrauta. Eta paseolekuak eta gero bestaldetik ixe San Prudentzioraiño.
-(Laguna) Ta mendira gora be…
-A, mendira. Ta zelako bidiek eindda? Kamioiek-eta igoten auen. Ta Sagastira ta. Zelako sagastixek gaiñera! Bueno.
-Bueno, baiña…
-Bai!
-Bueltau gaittezen, el jeneral hori…
-Bai! Hori, hori. Jeneral, a, bai, hori. Ba jeneral hori etorri zan horra. Eta egun baten, gure etxera. Atie jo auen ta… eskerrak klaro tia Bitori ta tia Euxebia azen etxien. Hiru ume bakotxak. Bi. Tiak bi te bestiek hiru. Eta… “Quiero ver esta casa“. Ta karo, ha etorten zanien, edo pasetan zanien be bilddurrez danak. Igo auen ta… “Casa ventilada, muy ventilada…“. Eta klaro, etxe barrixa ondion, zenbat denpora zan ba, einddakua?
-Hori Zeleta?
-Hori Zeleta. Eta… Zeleta lehen zan bi pisokue. O… bi bizitzakue.
-Bi bizitza?

-Bi bizitza. Baiña gero, gure aittek edo erosi auenien, ba, ein zan bat. Bai. Ta haundixa, haundixa, leku haundixek han buenoooo azen.
-Akatzuen ura.
-Bai, ure. Depositтuen, bai.
-(Laguna) Depositтuekin ura etxien.
-Etxien.
-(Laguna) Gero baiñeria, baiñua, kuarto baño.
-Bai. […] Eta honek…
-Etorri zan, eta ikusi euen etxioi eta…
-Etxie ikusi auen eta ba “Casa ventilada“. “Casa ventilada“… hurrengoko egunien lelengo bieldu zittunak Osiñakuek zien. Osiña, ia ha be, desapareziru ez baiña familixie geraketan die hiru edo lau baiña haik be ez dakit nun egon zien, gaiñera. Gu Oñetire juan gitzen.

10.36. Arrasatetik Oñatira ihesi

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/006
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:13:11. **Bukatu**: 00:15:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Zeleta baserritik Oñatiko Zañartu auzoko Ipentza baserrira joan ziren. Bost hilabete pasatu zituzten bertan. Ganaduekin eta gurdi batean garraiatu zitezkeen gauzekin joan ziren Oñatira. Zaldia eta orga ere eraman zituzten. Gerrako lehenengo tiroketak azaltzen ditu.

Transkripzioa
-Oñatin auken e, gure aittak eta amak aukien koñetia. Koñetuek han, bai. Tio Santi Upain. Ez dakit ezautuko zauen.
-Santi…?
-Santi Upain ez, Santi… zelan zan? Etxia aber… Zaiñartun…
-Ipentza esan ostazun ezta?
-Ipintza!
-Bai.
-Bai, ezauketan zauen Santi zuk…
-Ez, Santi ez dot uste.
-Antonio igual.
-Ipentza nun dauen bai.
-Bai, baiña oin ez dau e, oin kenduta dau Ipintza handik.
-Ez dot uste…
-Bai, nik bai, pentsetan dot baietz. Ta gero bestaldien Jardinguek azen. Horreik bi bizitza.
-Ta zueik han egon ziñain gerran?
-Eta gu egon gitzen Ipintzan. Gerra denporan.
-Zenbat denpora egon ziñain han?
-Egon gitzen ba erregen bezperan bieldu, eta maietzara arte edo.
-Eta ganauek-eta hara erun zittuein?
-Bai, haraxe erun gittuen. Eta oge bat be erun gauen. Karo, burdi baten zer kabiruten zan ba! Eta kamarie, gurien aittek esaten auen sekule holako kamararik, arto kamarie… ta dana hantxe itxi biher. Eta gero, ba, zaldixe ta karrue gauken. Ama plazara juaten zan Bergarara ta Mondrauera astien

birritten behintzat bai. Eta esnie ekarteko, egunero, ama karruen etorten zan Mondrauera.
-A kalera?
-Kalera. Bai. Eta baiña gerra denporan salbokonduktue-edo atarata e.
-Esnie ekarteko be?
-Bai, bai, bai. Zegatik edozein denporatan azen zerak, guardixak itten. Eta akordetan naz gu eskolan ta ama etorri zala, jarri zutik kaball... zerien, eta kaballueri emonaz... porke hasi zien zera, frentie. Tiroka. Eta gurien aitta, eta Joxe Mari, zerien, goldan ta garixe eraitteko preparetan. Eta jausten zien balak. Eta balak ikusi zittuenien, sustau ta aitte-ta erretirau zien etxera. Eta ama...

10.37. Lehenengo tiroketak

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/007
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:15:20. **Bukatu**: 00:18:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Ama kaletik ihesi etorri zen orga gainean zutik. Umeak eskolatik bidali zituzten. Anporreta aldetik botatzen zituzten tiroen artean iritsi ziren etxera. Anaia bi gudariekin joan ziren.

Transkripzioa
-Etorri zan zeretik e...
-Kaletik zaldixa...
-Kaletik zaldixan karruen kasi zutik jarri ta makilliorreaz emoten zerari, lau gaiñien zera, disparate bat eitteko e! Eta gu, eskolatik atara gindduen, “Ah, vayan ustedes, porque hay tiroteo y no sé qué” ta urten. Eta gu...
-A, zuek be karruen sartu eta etxera?
-Ez, ez, ez, ez. Gu etxera zeretik. Urten ta han Mojategiko iturrixa, eta soluek, eta sometan gauen “Txu! Txu!“ Balak zertzen ziela errekan.
-Mekatxis la mar.
-Bai. Eta gu holan makurtuta e. Makurtuta. Muna ertzien, munie bastante...
-Zigarrola alde hortan edo izengo zan. Bai, bai, osea, Zigarrolatik errekarutz doie, errekia.
-Bai, esan gure dot /gurot/, hora balak nundik etorriko zien ba?
-Hor, hemen, hemen, hemen zerien azen, eee... Anporretan. Anporreta dau hor bat. Eta ba ez dakit nik gero Kanpazartik edo, behintzet balak etorten zien.
-“Plos, plos, plos” hantxe.
-Bai. Eta errekan geuk entzun. Eta, bueno, ia pasau gauenien zera, gero e, mutillok, hartu neskatillok bixkerrien ta errekie pasau gauen, eta bueno, aillegau gitzen behintzet etxera. Sano.
-Kontxo.
-Bai.
-Eta hori zan hogeta hamaseixan, edo hamazazpixan?
-A, horixe bai ez dakittetela!
-Zuk esan dozu errege inguruan fan ziñeila...
-Bai, errege inguruen.
-Ba hori izango zan hogeta hamazazpixan.

-Bai, holakon bat.
-Tiroteuena aurretik?
-E?
-Tiroteuena aurretik?
-Bai, bai, bai, bai, hor e zertu gauena…
-(Laguna) San Andres eguna zan. Abanzia egon zana.
-Ba nik ez dakitt nun, ze egun zan.
-San Andres eguna?
-Ba, balitteke.
-(Laguna) Bai.
-Hori da abenduan, ezta?
-Abenduan hogeta hamaikan.
-(Laguna)… egon zan ta Zigarrolaraiño ixa etorri zien.
-A, militarrak bertan egon zien?
-(Laguna) Milizianuak.
-A, milizianuak.
-(Laguna) Etorri zian Zierrolaraiño ixa.
-Bai.
-Ta zuk esan dozun jeneral hori, zuen etxia ikustera etorri zana, Francona zan edo gorrixena?
-(Laguna) Francona.
-Franconaaaaa! Francona!
-Oseake ia abanzia ia etorritta, ia gorrixok eta bialduta hemendik, ezta?
-Bai, bai, bai, gurien ze… nire anaia ta, anai bi, juanda eozen. Zegatik akordetan naz, gaiñera, etorri zan Arrueneko Martin. Etorri zan etxera, gure etxera, eta esan auen, karo gure etxien ba azen nerbioso, “Nora fan dittun horreik, nora, nora zetan? Nora fan diela?“ eta esan utsen: “Hi, fan dittuk e. Igo juek zerien gora“. Han, gure Arrotik gora, zeretik Antoña, ta “Saburdittik gora fan dittuk haik Kanpanzarrera edo norabait. Fan dittuk“ Eta…
-Hori zure anaiak eta?
-Nire anaiak. Bai. Hori, egun baten.

10.38. Gerrak familia sakabanatu

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/008
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:18:19. **Bukatu**: 00:21:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra garaian, amandrea, gurasoak, hiru anai-arreba eta izeba soltera bat geratu ziren etxean. Beste hiru osabek hanka egin zuten, senide bat fusilatu zutenean.

Transkripzioa
-Ta hurrengokuen, gurien ez dakit zelan etorri zan tia Euxebin-ta zer bat. Primo bat edo ez dakit zer zan, Villarealtarra. Eta zelan gizona, Villarrealkuek auken tiak, ba, juan zan gurera, etorri zanori. Eta etorri zanien gurera, esan auen, hartu ba Angel, ontxe hil dana, eta Joxe Mari be bai, eta bera eta Kanpazarrera. Kanpazarrera, hartu ezkero Kanpazar ta gure etxetik zuzen fango zien Kanpazarrera. Eta esan auen. Mutikuorrek

esan ei utsen Joxe Mariri: “Ene mutikua fan hadi etxera, etxera fan hadi. Hi ondion mutikue haz ta. Gaztie ta fan hadi etxera.“
-(Laguna) Hamabost urte.
-Eta etorri zan etxera. Eta, bueno, ba, gero geratu gitzen hori, Joxe Mari, Nikasio ta ni. Etxien. Ta aitta-amak, ta amandrie be bizi gauen ta beste tiak be bai, soltera ondion. Eta gero, ba, etorri zien etxera, tia bat, zeatik gizonok bixok juanda hortik ziher. Zeatik gurien tio etxien auen, baiñe abixau utsien tiori urteteko etxetik. Hurrengoko egunien bere koñetu bat hil ein auen. Klaro, hartzen zittuen automobilletan, automobilletan ez, kamioietan, ta zutik pasetan zien, gure etxien behera ikusten gittuen. Eta Migel hori, ba, gero afusillau ein auen. Ta gure tio, ba, abixue urteteko. Ta gabien urten, eta Uribarriko abadetxie, abade hak bieldu auen abixua, hak baekixen zer, `Matxakito´, esaten auen txapelgorrixaz ibiltten zala, karlistia edo ez dakit zer zan, e. Eta hak abixau, urteteko etxetik.
-[Garbittu eingo ebeilla bestela].
-Bai. Ta hurrengoko egunien billa. Ta ha fan zan… Bilbon gero egon zan Edurnen-ta etxien. Anaia eukien han, Bilbon, eta haretxen etxien egon zan gero Angel, nire anaia, eta tio Benito eta tio Juan, hantxe. Eta, bestelan, haik hartu bazittuen, bai, bai, hilko auen.
-Bertan garbittu ta kitto.
-Bertan... bai, bai, bai, hartu ta eruen e, horra Donostiara edo ez dakit nora erueten zittuen, Oiartzunen edo esaten auen.
-Oiartzunera. Hemendik berrogetaka erun zittuen.
-Bai. Eta, hil ta kitto.

10.39. Denbora-pasa Ipentza baserrian

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/010
- **Iraupena**: 0:03:59. **Hasi**: 00:22:36. **Bukatu**: 00:26:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Kartetan jokatzen zuten Ipentza baserrian, Usako eta Upaingoa baserriko lagunekin. Oheak ganbaran jarri zituzten. Zeleta baserria eta inguruak oso hondatuta utzi zituzten soldaduek.

Transkripzioa
-Bueno ta bagoiaz Oñatira, ta Oñatin ze eitten dou?
-Ba aber zer eitten doun Oñetin? Ba Oñetin, ba, tio Santi zan buenoooo! Ta juntetan zien, klaro, ni neskatillie, eta han Usa… zereko, Usakokuek, Upaingue Nati, eta… han besteren bat be bai. Bueno, kartetan. Zazpi tt‘erdixen. Baiñe zelan! Zazpi tt’erdixen! Hantxe zapaixen jarri bai, eta buenoooo, gu begire.
-Barkatu, Nati zu baiño zahartxuaua izengo zan ba?
-Pentsetan dot baietz.
-Bai.
-Baiña bai ha bai, zahartxuaue zan. Izengo zan urte bat o bi… Maxima ta zera be ezautu nittuen, karo danak, eta hori…
-Maxima, Maxima igaz, aurten edo igaz? Igaz, igaz hil zan Maxima.
-Igez hil zan, bai. Eta Upaingo Juanito eta aldemeneko Gregorio,etorten zien gure, gu gingozen etxera, zegatik gure… gu geu, eta gero hori tio

Juanen andria, ume bikin auen, neskatillaren bat ez dakit zenbat hiru bat urte eta gero beste bat urtie eitteko-edo dauena. Eta haik be, ba, Ipintzan. Ta han kamaran be ohie ipinitta e, egon gitzen. Pentsau zeike, hamahiru lagun edo. Eta...
-Ilbaltzetik maietzera esan dozu, ezta?
-E?
-Ilbaltzetik maietzera.
-Bai, bai, maietzera. Eta, ba, lelengo klaro, pfff, etorri zien aitte ta ama horra ikusten, eta ba egon biher auen, pfff, ondo zainddu ei auen, ondo, zerak, Donostiako reketiak edo ez dakit zer esaten utsien, e Oriamen... Oriamendi ez. Oriamendi izengo zan? Bai, izen leike. Eta haik ondo zainddu ei auela, eta esaten auena "Qué pena, ¿dónde estará esta familia?" Hori esaten auela sarritten e, "Dónde estará?". Ta gero, gero gu etorritta ta klaro, itxu... egon biher zan /bizan/... ta gero haren ostien sartu zien soldauak. Ta soldauak? Bueno, itxitta, hango... bueno... esaten auen lotsagarrikeixie zala ha. Eta guri etxa e... ez uskun itxi etorten, ama ta aitta etorri ta batonbatzuk, lagunen batzukin, ba, garbittu edo itxuratu auen etxiori. Etxiori ta, ba, inguruek, inguruek be bueno danak... potaje guztiok be botata, sobretan zienak eta bueno bueno bueno, esan auen...
-[...] ezta?
-Bai.
-Eta Oriamendiko horreik, horreik zer zien milizianuak edo?
-Ez, ez, reketiak.
-Reketiak?
-Lehenengo aillau zienak?
-Bai, Reketiek... zien. Ta horreik itxurie Donostiako jente holan e, zera izen biher auen. Eta gero, egun baten, o gehixauten be bai, geratu izen die "Hombre, vamos a saludarle a esta gente". Gero e, denporie pasau eta gero. Eta esaten "queremos conocer, o hablar con vosotros". Ta zer ete zan edo zer ta, ba, zelan egon zien hor, eta eurak akordetan ziela, baiña hau etxiau ikusitta, zelan, zelan bieldu leike honeik, ze motibo? Esaten auela. Eta gero, ba, preguntez. Bai, bai behin baiño gehixauten geratu kamiñuen, karo, kamiño ondo-onduen auen ta gurie.
-Bai, bai.
-Horixe da gure etxia, hor dauena!
-Aja.
-Bai. Loba batek pinttau auen, hamabost urte eukiko auen, bai, gehixau ez.

10.40. Aita egun pare batez preso Oñatin

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/011
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:26:35. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Zañartuko mojategiko eskolan ibili ziren Angeles eta anaia. Zelai bat ikustera joan ziren batean, guardia zibilek aita eta osaba Santi atxilotu zituzten.

Transkripzioa
-Eta, bueno, ba, holaxen. Eta gero Oñetin, esan dozune, segiru. Gu

eskolara juaten gitzen…
-A Oñatin be bai?
-Esko… bai, ha Zaiñartu, Mojategira!
-A, Zaiñartun e?
-Mojekana. Ez, ez gauen…
-Ha Upain ostien dauen zera?
-Bai, haraxe faten gitzen. Eta, ba, behintzet hantxe! Guk galdu ez gauen ein, eskolie be, zeozer ikesi behintzet in gauen. Eta ba, Nikasio tan ni. Joxe Mari ez, Joxe Mari ez dot pentzetan faten zanik e. Ez dakit. Eta han gingozela, ba, hor egunen baten akordau jako Santiri, edo bateron batek esan utsen e ”Hantxe xaukat nik zelaixa, eta bedarra gure badok /gurebok/ ebai han zerien” edo. Ta bueno, ta ”Hi, juan biher xuau /juanbixuau/ harexe”, Nikolas auken gure aittek izena eta ”Haraxe juan biher xuau / juanbixuau/” ta juan zien bixek, bueno, ba, terrenuoi edo gauzioi ikusten, han ba o ganauek erueteko edo… ta “ba, hemendik hartuko xuau” ta kanposantutik, klaro lehen auen bidie han Santipillau ondotik…
-Bai, bai, ondiok han dau bidia. Oin ia kotxiak pasaittekua.
-Eta, hor aillegau die kanposantuen parera ta “Alto!“ ta hartu ta kartzelara bixek. Bixek kartzelara Oñetin egonda daz kartzelan. Gurien aitte ta tio Santi. Ta tio Santi, bueno… ”Atara [gaittezan]!”. Gure aitte, barriz, bueno zan nerbiosue! Lo ezta…! Bestie mokarraza baten esaten auen e. ”Santik ein jittuuuuk mokarrazak!“ Berak ezta ezta… begirik batu be ez! Eta, tio Santik, han bentana txikitxuek ohi azen, han Kartzelan, ontxe be han egongo da igual, ez dakit.
-Baiña kuartel zaharrien, edo aiuntamientuen, edo nun euki zittuen?
-Aiuntamientuen! Han. Eta esniekin juan zanien Juli, ni baiño urtebete, edo nire edade ingurukue zan, juan zanien esniek erueten hara, ikusi dau “Juliiii!“ han.
-Bentanatxotik?
-Bentanatxotik.
-“Juliiiiii!!!“, “Ez dakitzu zelako lotsaixe pasau doten nik. Zelako lotsaixe pasau doten!“, “Sakakortxue ekarri! Sakakortxue!“ itxurie batonbatek erun utsien…
-Ardau botillia?
-Ardau botillaren bat edo, eta bueno, baiña guk esaten gauen eneeeee… Karo, gurien amak eta bagekixen zelan sartzen zienak orduen eruen eta hiltten zittuena… ikusten dozu ama negarrez ta ba…ba ez dakitzu, ez dakit ez dozu ondion pixe… zeraketan hori zerori, ardura…
-Bai, bai, bai. Eta joe, egonezina ezta?
-Bai. Eta, bueno… eta ondion orduen, gaiñera, zan egun bat esan auena e “Ein biher dittuu /bidittuu/…“ zerak, ez dakit ba zan Kandelaixo egune edo holakon bat zan, “…torradak eta pellak“. Tiak eta esan auen “Ein ein biher dittuu“ aber horrek datozenerako preparaute, holakotxe platokarie preparaute, ta ba agiri ez ta, agiri ez ta…

10.41. Anaia gudari biak preso

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/012
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:33:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Oñatiar batek aita eta osaba salatu zituen. Egun pare bat preso egin ostean etxeratu ziren. Bi anaiek Amaiur batailoian borrokatu zuten. Legutioko frontetik anaia baten nortasun agiria bidali zuten etxera. Hiltzat jo zuten anaia hori, harik eta Gurutze Gorritik, bizirik zegoela esanez, berriak iritsi ziren arte. Larrinagako kartzelan zegoen preso, eta beste anaia Santoñakoan.

Transkripzioa
-Natik abixue, Nati Upaiñek: “Bai, esan dabei zera, Santi, Santi Upaingo sartu dauela kartzelan“. Ta klaro, Santikin [“así“] Nikolas. Eta gero aittak esaten auen “Aiii, horretxek sartu gindduen gu kartzelan“. Bizikletan etorten zan Zerrajerara lanien eurak denunziau eta sartu zittuena. Oñatikue.
-Han auzokua?
-Oñatikue. Ta aittek ikusi in auen e. Ikusten auen. Klaro, egunero pasetan zan ta. “Horixe zuan ba“.
-Eta kartzelan egon zienian egurrik edo hartu euein, edo?
-Eeeez! Egurre? Keba! Han? Han egurra? Kebaaaa! Kartetara [jolasten] ta han ibili zien, bueno! Zazpi tt’erdixen, neska ta mutiko.
-Han kartzelan be?
-E?
-Han kartzelan be?
-A, kartzelan eeeez ez ez.
-Kartzelan ia egurrik hartu…?
-Aaaa! Ez, ez, ez, hori ez. Hori ez.
-Eta ze egon zien denpora asko?
-Keba. Karo, eske iñundik ez euen ezer ta batonbatek ez dakit zer eingo auen, bieldu zittuen hurrengoko egunien edo hurrengokuen, ez dakit zenbat… egun bat edo. Baiña haik, ha eguna be pasau ein biher zan e / einbizan/.
-Bai. Hareik eta zueik.
-Ta gu, gu, klaro. Ikusten gittuen ama-ta negarrez, ama-ta negarrez…
-Bilddurrez...
-Eta… Bilddurrez, ez dakitzu?
-Eta bixen bittartian esaten dozu zure bi anaiak frentian eozela?
-Ez, nire anaiak Bilbon. Baiña errez… klaro, Amaiurren azen bixek, baiñe separaute itxurie, o bata lehenau sartu, zegatik ha kartzelan, Angel Santoñan egon zan. Eta gero hara, ba, Bilbon sartu zienien edo hor Gernikan…
-Santoñan preso?
-Preso, preso, ez. Bai, hartu ta Santoñan preso. Eta zera, Larrinagan egon zan Sabino kartzelan. Eta gurien amari abixau utsenien… a! Ta hori, aurretik frentie egon zanien Villarrealen, hori, Villarrealen, ba, buuu asko hil… pentsetan dot asko hil ziela orduen, esaten dauenetan.
-Ha oso gogorra izen zan bai.
-Eta har bateronbatek ekarri dutse gure Sabino, zan zaharrena anaia, karneta edo. Karo, ha karneta ikusi auenien gurien amak, eta aittak…
-Adios.
-Pues adios. Hil juek. Eneeeeee…! egunero negarrez, badakitzu zer dan hori, egunero negarrez ikustia. Eta gero, ba ez, itxurie ba nunbaittetik ziher e bateronbatek ein zittuen jestiñoren batzuk eta nunbaittetik ziher jakin gauen bide… zerak… e, Jesus, esango ete dot! Kruz Rojako zerakin. Abixua.

Abixua edo notizia, bizi dala.
-Preso.
-Bai, Sabino.
-Preso euela.
-Bai. Ta orduen bueno, ba, [oin behintzet] aber nun dazen ta. Hurrengoko zera izengo zan ba hartu auenien Bilbo, ba Larrinagan kartzelan, kartzelan edo bai, han egon zan behintzat. Eta bestie Santoñan.

10.42. Anaia "Batallón de Trabajadores"en

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/013
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:33:16. **Bukatu**: 00:36:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Santoñako kartzela oso egoera txarrean omen zegoen. Soldaduska egiteko atera zuten kartzelatik, eta Toledoko frontera eraman zuten. Beste anaia "Batallón de Trabajadores"en egon zen. Aitak idiekin militarrentzako garraioan jardun zuen Arrasaten.

Transkripzioa
-Santoñan, gaiñera, zala kartzela bat...! Humedadie danien humedadie, beti bustitta. Eta lurrien be etzin be... ta, bueno, baiña gero hak soldautzie eitteko auken, eta atara auen soldautzarako. Eta ha iruen auen militar, Toledon ifini auen, frentie Toledon be. Eta Toldedon egon zan Angel.
- Baiña baiña, frentian edo “Batallón de Trabajadores”en?
-“Batallón de Trabajadores”en egon zan zaharrena.
-A.
-Bai.
-Eta bestia frentera?
-Bestie frentera erun auen. Klaro, soldautzie ein barik, ba soldau jantzi eta frentera. Iñok, guk ikusi be ein barek e! Soldau, handik eskribiru edo...
-A, kartzelatik hartu eta...
-Klaro! Klaro, zuzen. Eta Sabino-ta, ba, “Batallón de Trabajadores“. Eta gero, “Batallón de Trabajadores“etik erun zittuen kamiñuek eitten zerera, ha... Kanariasera.
-Jo, haraiño, e?
-Bai. Eta hantxe ibili zien. Asko, gaiñera, mondrauetarrak eta! Asko! Hemen e... bai... asko. Ta behintzat handik kamiñuek ez dakit akabau zittuen. Etorri zien behintzat banaka-banaka. Esaten auen gurien aittek “Hauxe dok ona!“ gero Jua... Iñigo, Jesus Iñigo ez, Joxe Mari be soldau. Klaro, hartu auen ha be soldau. Eta berak, aittek, kontaute auken zenbat hillebetien bere semiek egon zien, ba, kartzelan eta mil...e, soldau. Ez dakit zenbat hilebete, ahaztu... horixe ahaztute daukat. Baiña asko e...!
-Bai, bai, hor batzuk eon zien.
-Ta geu bakarrik.
-Zortzi eta beratzi urte-ta pasau zittuein e.
-Bai.
-Soldauskie, gerrie edo zeran...
-Bai, bai, bai, bai. Eta hiruren artien ez dakit zenbat urte.
-Urte pillia, hirun artian.

-Aittek kontetan auen.
-Bai, bai, bai, bai.
-Bai.
-Mekatxis la mar.
-Ba ta ama, o aitta, ba... klaro, biherra auen itxurie ta gurien aitteri abixetan utsien zera kargixe... kargie jasoteko Anporretara. Anporretara eta hor, San Kristobalera be bai. Ta orduen ez auen kamiñorik! Eta buenooooo dana lokatzie, dana etorten zan ta...
-A burdixakin?
-Bai, burdixakin. Burdi e bai, honeik tronkuok e, beste... burdixe da diferentia. Motzaua burdixa, errubera bi eta zer batzuk lotzeko, tronkuek arrastretako.
-A arrastrian erueteko, ia, ia.
-Eta ba zeroi be, hor auen gurien auen hori itxurie ta erun auen kaiñoiren bat edo, jasoteko horra be eruen auen be, aittari deiketan utsien. Eta...
-Idixak zeukotzuein etxian?
-E?
-Idixak etxian?
-Etxien idixak! Ta hor geratu zien idixok, ez dakit...

10.43. Batzuk Oñatira eta besteak Bergarara

- **Hizlaria(k)**: Garai Arregi, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-167/014
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:36:13. **Bukatu**: 00:39:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Amandrea eta izeba bi Bergarara joan ziren gerratik ihesi. Angelesen familia eta beste izeba bat ume birekin Oñatira joan ziren. Idiak eta behi bi eraman zituzten eurekin. Beste behiak auzoan utzi zituzten, eta oiloak eta bestelakoak etxean geratu ziren.

Transkripzioa
-Zuk esan dostazu e, pittin bat atzeratxuau fanda, esan dozu fan ziñeilla Oñatira burdixakin eta zaldixakin ta karruakin, ezta?
-Ez, karriz... ama, ama... amama, amandria, amandria, orduen amandria. Amandria, nire tia, eta beste tia solterie ta tia beste bi umekin hirukin auena, juan zien, ba, hor gauken ha, Telleixa aldien gure amandrien aldetik familixia. Eta juan zien hara. Eta egun baten egon zien egun batzuk e... egun batzuk ez... eee Telleixan, eta gero handik topau auen... eta Isasi baserrixa, han egon zien tia Euxebi ta.
-Telleixa hori hamengua, Arrasatekua?
-E? Bai, hori Arrasaten bizi zana.
-(Laguna) Baiña Tellerixa Bergaran auen, ezta?
-E?
-(Laguna) Bergaran auen Tellerixa, ezta?
-Telleixie zan Bergan, Altos Hornos. Bergara fan zien. Haik fan zien Bergara.
-Orduan Zaiñartun be baeuen Tellerixia.
-Eta gu egon gitzen Zaiñartun. Eta tia be. Ta gero tiak be, klaro beste ahizta bat aukena, nausixena, auen zerien, Renterixan. Ta tiak esan auen, hak esaten utsen: “Etorri zaittez honaxe“. Ta juan zan neskatillakin hara,

baiña ez dakit zortzi egun ein zittuen. Bera tia Rufinan etxera, ta tia Rufinan etxera. Gure ama. Eta gure ama, pentsau zeike orduen ez auken etxie, baiña... gingozen Ipintzan eta Ipintzan itxurie gustau in jatien neskatillai. Karo, honeik egunero-egunero gabien etorten zien Juanito Upain eta Gregorio aldemenekua...
-(Laguna) Mugartzakua?
-E bai, zerekua, Jardingua esaten utsiena, aldemenekua, Ipintzan gurien aldemenekua. Eta haretxek erakutsi utsien zerari, Josuneri, ibiltten. Jarri sukaldien han bai? Eta “Aber, etorri ona!“ ta. Haik be gaztiek orduen. Eta sukaldien hantxe neskatilliorrek segittuen ikasi auen, Josunek. Bai.
-Eta, baiña esan dozu ganauak be erun zittueilla.
-Ganauek bai. Eta...
-Burdixakin, burdixakin fan ziñain...
-Burdixekin fan gitzenien idixek, idixek e, burdixen.
-Baiña ganauek orduan erun zittuein?
-Ez, anai batek soka bategaz eta bestiek beste bategaz. Bi ganau behintzat eruen. Ba esnie daukena edo. Ta bestiek, pentsetan dot, Kataidera eta Artzubira erun zien. Bai. Repartiru, ba zeozer. Karo, ha bakarrik...
-Zenbat zeukotzuein orduan?
-E?
-Zenbat behi?
-Ba beste bi bai behintzat. Bai bi edo hiru bai.
-Eta bi erun zittuein Ipentzara eta bestiak...?
-Bai, bestiek e ba... hor egongo zien. Bai.
-Orduen ganaurik ez zeuen galdu behintzat.
-Ez, ez, ganauek ba zeo... bateronbatek zerera bai, mataderixara hiltteko erun auen o idiskua edo txahalen bat edo hori bai. Baiña bestelan ba ganauek e baazen.
-Eta honeik, klaro oiluak eta danak etxien geratuko zien?
-A klaro! Oiluek eta guk zerak ez... auskalo!
-Bueltan hor egozen edo...?
-Keeeba! Ez dakit nik... keba!
-... be ez igual.
-Bai... ideaik be ez, ideaik be ez zer ingo zan han. Bai.
-Joe.
-Arto kamarie esaten auen aittak ikusgarrixe dauela... eta, klaro, ha ezin eruen...
-Talo pillia ingo zittuein soldauek, ezta?
-E?
-Talo pillia.
-Bai, bai.

10.44. Errepublika etorri zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/009
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:07:56. **Bukatu**: 00:08:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

- **Laburpena**: Errepublika etorri zenean Ignaziak 14 urte zituen. Egun horretan, Santa Agedatik oinez joan zen Arrasateko jostun eskolara, baina etxera bidali zuten; dena itxita omen zegoen.

Transkripzioa
-Bueno, bueno, eta orduen zuk, hamalau... Orduentxe errepublikia etorten.
-A, bai, errepublikie etorri zan egunien, ni etorri nitzen Santa Agedatik. Oiñez, e! Eta... ixilik, iñobez kalien ta, batek esan uskun “Nora etorri zara?“ ta "Eskolara". “Republikiek urten dau eta juan zaittez etxera“. Eta barriro buelta ein ta juan nitzen Santa Agedara, baiña...
-Eskola barik.
-E?
-Eskola barik.
-Klaro. Dana zerraute, ixil-ixilik, iñobez ta "Jesus, ze jak?" eta ez dakitt andraren bat edo nor zan, esan usten /esausten/ “Zetan etorri zara?“ ta "Eskolara". “Republikiek urten dau ta...“ Nik ez nakixen /enakixen/ republikie zer zan, eta etxera barrido. Orduen radioik-eta be zelan ez euen ba...

10.45. Errepublika eta erlijioa

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/010
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:08:49. **Bukatu**: 00:11:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Errepublika garaiaz hitz egiten du. Eskolan, gurutzeak kendu zituzten. Eskolan jarraitu ahal izateko, etxekoen ohar bat eman behar izan zuten: oharrean zer jartzen zuen aipatzen du. Kalean manifestazioak egin omen ziren eskoletan gurutzeak ez kentzeko eskatuz.

Transkripzioa
-Eta zuk goguen daukotzu iñungo aldaketarik edo iñungo kanbixorik edo, zeozer republikien inguruan? Jairik edo...
-Ba ez naz /enaz/ akordetan. Gu baserrittik etorri be ez. Ta kendu uskuen krutzifijuek e, eskolan. Ta gero eskolan segiruteko barrido erun biher gauen /bigauen/ nota bat etxeko... etxien permisue, ta gure etxien nok? eta batek kopixau nusten “En mis últimos acontecimientos quiero que mi hija... que aprenda... o... que aprenda la doctrina, o que esté el cristo” o holako gauza bat zan.
-A, berriz ipintteko kurtziok?
-Bai.
-Hor manifestaziñon bat edo egon zan, ezta?
-Bai, manifestaziñuek-eta bai, baiña guk ez gauen ikusten.
-Karo, zuek...
-Gu baserrixen. Ta han.
-Eta manifestaziñuak ze egon zien hemen kalien edo auzotan edo zelan?
-Kalien, kalien. Auzuetan... Han... Guk, gaiñera.... Ez, Santa Agedan-ta ez auen holakorik.

-Orduen etxetik eskatu otsuein... orduen hori zelan izen zan, auzuen zera, edo abadiak eskatutakua edo?
-Ez dakitt. Guri aiuntamientuek edo ez dakit nok behintzet guri hori obligaziñuoi eruen uskun, papel bat, gure bagauen barrido dotriñie ikesi eta kristua han egotia. Horretxekin akordetan naz.
-Kontxo. Holakorik ez dost iñok kontau. Manifestaziñuena ta horreik gauza horrek bai, baiña...
-Guk, manifastaziñuena, ez da fazil, gu baserrittik... Oin, hemekuek jakingo daue. Baiña ni horrena, papel bat ekarri nauena eskribirute “En mis últimos órdenes de mi hija quiero que siga aprendiendo o...“ Bai.
-Kontxo, kontxo. Eta zer, jarri zittuein atzera, edo?
-Bai, bai, barriro segiru nauen.
-A, lehenetara jarraittu zebein? Dotriñia ikasten eta.
-Bai, bai, gero lengo moduen.

10.46. Etxeko giroa: aita gazterik hil, anaiak soldadu gerran...

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/013
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:13:28. **Bukatu**: 00:14:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena**: Umetan, egunero joaten zen eskolara. Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen goizetan eta opor garaian. Ignazioaren aita gazterik hil zen, biriketako gaixotasun baten ondorioz. Aitak behin lepoan hartu zuela gogoratzen du. Aitajauna eta andrea, ama eta zortzi anai-arreba bizi izan ziren baserrian. Anai-arreba zaharrenak lantegira eta neskametza lanetara joan ziren. Anaia gazteenak, berriz, gerran ibili ziren.

Transkripzioa
-Eta zuk baserrixan, eskola denporan ta, eskolara egunero faten ziñan, edo?
-Egunero, bai.
-Eta ittaurren in biher zanian?
-Bai! Eitten gauen, hori be! Bakaziñuetan ta, goixien edo... “de todo“ eitten gauen /eittegauen/ e.
-Zer zeukotzuein, ganau asko etxien?
-Ba ez, askorik ez, ez dakit nik, lau edo. Gero aittejaun-amandriek euzen. Aitte ez e. Aitte ez nauen ezautu.
-A ez, e?
-Ez. Lau urte edo neukaten. Akordetan naz behin lepuen ibili nindduela. Bestela ez.
-Eta ze pasau xakon ba?
-Pulmonixiaz hil. Neguen, ta gaurko moduko adelantorik be ez, ta... bai. Baiñe gazterik e.
-Oseake gaixorik hil zan?
-Bai.
-Ia, ia. Baia. Orduen zeuntzein aittajaun-amandrak eta ama eta zazpi

umiak?
-Bai, bai. Ta gero nausixenak ta be kriera, eta anaiek fabrikara ta... nausixena e, gaztienak gerran ibili zien, ez eukien lanik. Ta gero gerra ostien lana ein auen, baiñe aurretik ez.

10.47. Gerra hasiera

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/019
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:17:30. **Bukatu**: 00:19:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, neskame zegoen Arrasateko familia baten etxean. Donostia eta Trintxerpe aldetik emakume armatuak, milizianoak, Arrasatera joan zirela gogoratzen du. Arrasaten militarrak zauden, eta Santa Ageda aldean, berriz, "gorriak"; hori dela eta, ezin zuen baserrira joan.

Transkripzioa
-Gerria, gerria hasi zanien nun zeontzen zu?
-Gerrie, ni hamen kalien ninguen.
-Kriada?
-Bai, bai.
-Zeiñen etxien zeontzen orduen?
-Ba ia ez die bizi, Gorosabel apellidetan zien, baiñe ia... ez die bizi. Loban bat edo bai, baiña, bestela, eurak ez die bizi.
-Eta zu etxien zeontzela etorri zien lehenengo tiruok, edo?
-E, ba, gu kalien gazela “gerriek urten dau, gerriek urten dau“ eta en segida etorri zien zeretik, Donostiatik, Trintxerpe, Trint... zelan da?
-Trintxerpe?
-Bai. Handik emakumiek eta danak, miliziano jantzitte ta eskopetakin ta. Gu sustauta. Emakumiek eta.
-Baiña emakumiek soldauek?
-Emakumiek pistolakin, eskopetakin! Hortik Donostiatik etorri zien.
-Horrek milizianuak izengo zien.
-Ba milizianuak, orduen ez gekixen guk zertzuk zien milizianuok be ta.
-Eta gero horreik, zu hamen kalian geratu ziñan edo etxera fan ziñan?
-Ez, ez, hemen, hemen. Gero, hau euen militarrakin, ta Santa Ageda euen gorrixekin. Orduen gorrixek esaten jakuen. Ta ezin juan.
-A karo.
-Ez, ez.
-[Ezin pasau harutz, ezta?]
-Ezin, ezin, ez.

10.48. Tiro eta kanoikadak

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/020

- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:19:03. **Bukatu**: 00:20:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Gerra hasiera. Arrasaten milizianoak zeuden. Gero, herria militarrek hartu zutenean, erreketeak jarri ziren bertan. Murutik tiro eta kanoikadan izan ziren. Neskame zegoen etxea tiroz jo zuten. Beldurrez egoten omen ziren beti.

Transkripzioa
-Baiña hemen hasiera baten milizianuok egongo zien, ezta?
-Baaai, milizianuok be egon zien. Ta gero hau militarrak hartu auenien, ba, Reketiek edo soldauek eta gero orduen tiruek hortik Murutik eta, orduen kaiñonazuek etorten zien.
-Ta zu ze kaletan zeontzen lanian?
-Hortxe, hortxe Zerrajera onduen, Garibaixen.
-A Garibaixen?
-Bai. Garibai edo Biteri, hor e...
-Bai, bai, bai, badakit nun dan. Eta ze bizi ziñan, piso baten?
-Pisuen, bai.
-Zenbatgarrena zan?
-Hirugarre... hirugarrena.
-Hirugarrena. Eta han, bertan, bentanatik tirorik edo sartu xatzuen?
-E bai, bentana onduen be bai. Bentana onduen be tiruek zertu auen. Disparau auen.
-Ha izango zan bilddurra, ezta?
-Bai, bai, beti bulddurrez, kaiñonazuek etorten zienien be bai.
-Eta errekauak itteko eta holako gauzak?
-Ba bilddurrez, ixilik euzenien.

10.49. Gerra denborako kaleko giroa

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/025
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:22:13. **Bukatu**: 00:22:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra denboran, kalean zer giro zegoen kontatzen du. Kalean isil-isilik ibili behar izaten zen, goiz erretiratzen zen jendea.

Transkripzioa
-Eta kontaidazu, zu akordauko zara, kalera urten ta militarrak eta. Ze giro euen hemen gerra denporan?
-Ba ixil-ixilik kalien soldauek e... [iguel] reketen batzukin edo soldauen batzukin berba ein ta ixil-ixilik ibili. Goix erretirau, eta...

10.50. Maixor etxearen beheko aldean, ospitalea

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/026
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:22:38. **Bukatu**: 00:23:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena**: Gerra denborako oroitzapenak. Maixor etxearen garajean ospitalea zegoen, gerrako zaurituentzat.

Transkripzioa
-Tiroz min hartutakorik-edo ikusi zeuein, edo?
-Ez, auen hor Maixorrena, oin dendie dau, Maixorren dendie, ta haren garajien auen zera, anbulantzia edo ospittala. Oin dendak dauz, “Caja de ahorros“a ta horreik, ezta? Ta hor zan, ba, Maixorrenak zien Mondraueko jauntxuek. Zerrajerakuek. Eta garajie behien eta han garajien ipiñi auien zera…
-Ospittal antzeko…
-Ospittala, bai.
-Eta hori soldauentzako zan, edo?
-Heriduentzako, heriduek, gerran e… han heridu…
-Bai, heridute zeotzenendako.
-Bai.
-Ia, ia, ia. Zeuri ez xatzun /etxatzun/ tokau faterik?
-Ez, ez, ez…gu e, ez jakun /etxakun/ holakorik pasau.
-Osorik urten zebein?
-Bai, bai.

10.51. Arrasaten Oreja hil zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/027
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:23:37. **Bukatu**: 00:25:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
  Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Errepublika garaian, Oreja hil zutenekoa gogoratzen du. Egun horretan, goizean, dendak itxi egin zituzten. On Rikardo Azkuagaren ihesaldia kontatzen du. 1934. urte inguruko gertaera da.

Transkripzioa
- Eta hemen horreik, zuk goguan daukatzu Oreja hil ebeiñien ta?
- Bai.
- Zela izan zan?
- Ba, goixien danak zerrau zittuen, dendak eta danak eta ogixe ta dana, hamen Malan auen trinketie esaten utsiena ta juan bihe zan horra ogixe edo zerbait hartzen. Eta gero Oreja ta ekarri zittuen hona errekara, hamen oin erreka bat zerraute badau ta hor zabalik bistan eta horra errekara ekarri zittuen eta ba "Ene! Oreja ta ez dakit nor hil dauela ta ixilik" eta kuartelera tiro baten denpora guztien. Eta gero batek, Don Rikardo, ia

horreik be juanda daoz, harek hona errekara salto in auen, hortik errekatik urten auen horra, horrutzatxuau, Zarugaldera, ta hortik urten auen kalera eta zer bat, autobus bat soldauekin ta hari alto in utsien eta esan utsien nora zoiazen ta Eibarrera ta harek hartu auen, harek kamioiek edo autobus horrek hartu auen Eibarrera, zera, Don Rikardo Azkoaga. Ha be zan jefia ta ha be detenidu auen ta gero Eibarren, Eibarkuek deittu auen zerera, Bittorixara esanez Mondrauen ze pasetan zan ta arratzaldien etorri zien soldauek eta gero orduen soldauok, zerak, urten auen dana mendire, baiña, mendittik bajau ein biher ta gero ba, detenidu zittuen.
- Baiña hori zan Oreja hil auenien?
- Bai. Hori zan, republika denporan izengo zan. Treinta y...
- Bai, hogeta hamalauan.
- Bai, republika denporan zan hori. Bai.

10.52. Kanoikadak Muru eta Udala aldetik

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/029
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:26:07. **Bukatu**: 00:26:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra denboran, soldaduak Bizkaia aldera joan ziren arte beldurrez egon ziren. Murutik, Udala bidetik... kanoikadak botatzen zituzten. Ignazia neskame zegoen etxea ez zuten kanoikadek jo, baina tiroek bai.

Transkripzioa
-Eta gero ia gerra denporan...
-Gero gerrie barrido.
-Hamen zenbat denpora egon ziñain, bilddurrez, edo?
-Ba nik ez dakit zenbat denpora izengo zan. Haik eta urten euenetik barrido Elorrixora, horra, Bizkaire juan zien bittartien. Orduen botaten zittuen kaiñonazuek, ba, Muru, hortik Murutik, Udala bidetik... hortik botaten zien.
-Eta zuen etxien ez an jausi, kaiñonazorik, e?
-Kaiñonazorik ez. Oin zera...
-Balazuek?
-Balazuek bai.

10.53. Santa Agedako mutilak fraideengana aholku eske

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/031
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:26:52. **Bukatu**: 00:28:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena**: Ignaziaren anaia gazteenak gerran ibili ziren. Santa Ageda aldeko mutilak fraideengana jo zuten gerran zeinen alde egin aholkua esketzeko. Han esan zien militarrek, Francoren aldekoek, irabaziko zutela gerra, eta haiekin bat egin zuten auzoko mutil gehienek. Auzoan, hainbat hildako izan ziren.

Transkripzioa
-Eta esan dostazu anaiak ibili ziela, ezta?
-A ba anaiek ibili zien... klaro, orduen iñok ez ekixen gerrie ta zer, nok irebazi te zer. Ta Santa Agedako mutillek juan zien fraillietara. Ba han medikuek eta jente ilustraue eta zerren, zeiñen alde eingo auen, pentsaizu. Eta han akonsejau zittuen militerrak irebaziko auela. Eta hobeto euela militarren alde eitteko. Eta horregatik pasau zien hona Santa Agedako mutil danak. Ta han Zabolain edo, hortik ez da ikusten, hor geratu zan, hari ezin abixau. Ta ha geratu zan gorrixekin. Ta ha hil ein zan. Baiñe gero ha, Garagartzakuek, Santa Agedako bat be hil zan, ta Garagartzako maistruen semie ta batenbatzuk hil zien, baiñe asko ez.
-Eta, orduen, zuen, zure anaiok Francokin geratu zien.
-Bai, bai. Ta haretxen letxe Santa Agedako danak.
-Eta ze egon zien, gerria bukatu zan arte?
-Bai. Eta hiru anai zelan zien, bat, nausixena, etorri zan etxera. Ta bestiek egon zien.
-Eta noiz arte egon zien?
-Ba, gerrie akabau arte egongo zien. Ni ez naz akordetan.
-Eta ez euen euki heridarik edo...?
-E?
-Ez euen euki problemarik, heridarik edo?
-Ez, ez, gero normal, normal.

10.54. Okindegia eta errazionamendua

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/042
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:35:38. **Bukatu**: 00:36:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Gerra bukatu zenean, errazionamendua jarri zuten. Ogi beltza izaten zen. Azkarate okindegian egiten zuen lana denbora horretan: okindegian ez zuten errotarik, labea bakarrik. Irina kanpotik ekartzen zuten. Errazionamendua ere bertan partitzen zuten.

Transkripzioa
-Bueno, gerrioi akabau da, eta gosia. Razionamentua eta...
-Bai, dana razionamentua. Ta ogixe be bal-baltza. Bueno ogixe be ez zan izeten. Ez dakit zekin eitten auien.
-Eta zeuek be panaderixan ha jaten zeuein?
-Bai. Bai, bai.
-Ta ez zan etorten baserrittarren bat garixekin edo?

-Ba ez dakit, baiñe molid... ixo ta ez...
-A, karo, zueik errotia ez zeukein, ezta?
-Ez.
-Bakarrik labia.
-Labie, labie, bai. Urunek kanpotik etorten zien, razionamentuaz, gaiñera. Hainbestentzako, razionamentuaz.

10.55. Nazionalak sei hilabete Arrasaten

- **Hizlaria(k)**: Berriotxoa Muñoa, Elbira
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-176/017
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:20:01. **Bukatu**: 00:21:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Nazionalek sei hilabete egin zituzten Arrasaten; udazkenean iritsi eta udaberrira arte. Denbora horretan, soldaduek behar zuten guztiak ematera derrigortuta zeuden herritarrak.

Transkripzioa
- Eta bueno, egun argiz Kurtzetxikittik behera ikusi zittuein etorten eta...
- Hogeta xeian.
- Bastante denpora egon zien, ezta?
- Xei hilebete. Udazkenien etorri ta udabarrira arte. Hasi zan ordun abanzie, ez dakitzu? Hor Intxorta aldetik eta juan zien. Ta ordun hamendik juan zien. Baiña horrek xei hilebetiok eurei falta itten otsen dana, emun ez, eskatu itten zauen ta obligau itten zauen laguntasuna biher bazauen laguntzeko.
- Ta ordainddu itten auen?
- Ordainddu? Pistolan bat ez baotsun erakusten, pozik! Ordainddu? Zelan ordaindduko zuten ba? Ez, ez, ez. Baiña ixi-ixilik gaiñera, e?
- Eta abusorik edo ein auen zuenien? Zerbait ostu edo baten bat jo edo...
- Ez, ez, ez, ez. Nahiko errespetokin egon ziren, bai. Ez, ez. Ez zan hola, ez naz gogoratzen. Ni gaztie nintzen baiña ez nutsen entzun be ein beste batzuri zeoze pasetan jakunik, e? Ez, ez. Eurakin be itxuria etxekuek ondo errespetuakin eta eurak be bai. Bai.

10.56. Soldaduak etxabean

- **Hizlaria(k)**: Berriotxoa Muñoa, Elbira
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-176/018
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:21:06. **Bukatu**: 00:21:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Soldaduak herrian egon ziren denboran, etxe azpiko lokala utzi behar izan zien; bertan, ospitale bat prestatu zuten, eta mediku eta erizainak egoten ziren. Elbiraren familiak janaria gordetzeko erabiltzen zuen etxabea.

Transkripzioa
- Ta zuek euki zebein militarrik etxien lo eitten ta hola?
- Ez, ez, ez. Pentzau bez!
- […] egon zien…
- Bai, bai. Ez, ez, gurien ez. Horreik bajuok, ba, lehenau ba, gure etxien, ba, janarixakin ta egoten zien, ezta? Ha dana kendu eta eurek eukitten zittuen han gauza guztiak. Eurendako hartuta modun aukien ta ixil-ixilik.
- Ta esan dozu ospittala jarritta eukiela […]
- Bai, bai. Holan egoten zienien baten batek min hartuta edo guregana, ba, hona etortzen zien. Medikua ta enfermeruak eta azen hemen behien, e?
Bai. Baiña errespetua…

10.57. Anaia eta lehengusina bonbak jota hil

- **Hizlaria(k)**: Zulueta Uribe, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-177/003
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:07:39. **Bukatu**: 00:09:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Bonba batek etxea zulatu zien eta anaia eta lehengusina bonbardaketan hil ziren. 1937ko martxoan berriz ere etxera itzuli zen.

Transkripzioa
-Ze rekuerdo daukotzu zuk, gerra denporakua?
-Jolin.
-Zuen etxien edo etxe inguruen bonbarik edo jausi zan?
-Bai, geure etxien be bai. Bonba bat... jo auen ta etxien holakotxe bokete [...] haundi bat ein uskun, ta gero fan gitzen, ba, nire amen etxerutza.
- [Alera]?
- Bai, Ale. Hara fan gitzen. Ba bittartien, ba, han ezin leikien egon, ze tiruek beti "pom, pom" tiro danak hara [jatozan]. Eta gero, ba, hantxe egon gitzen hasta, militarrak juan arte, hasta... abanzie izen zan "el treinta y uno de marzo del 37", ta ordura arte han egon gitzen. Ta ordurako gero hormiai zera ipini utsien, tapau auen bere boketiori ta atzera etxera, bertara.
-Etxe barrua ez eben apurtu bonbiak? Zulue bakarrik?
-Ez. Zulue, pum! Ta zera. Eta gero nire anaia, bat, anai bat neuken lau urtekua, ta bonbardeuan hil zan.
-Kontxo, han etxien jausi zan bonba horrek harrapau ein eben?
-Bai.
-Ta zer zan, zu baiño gaztiaua?
-Bai. Nik ordurako... nik hamalau urte nauken... hamabost urte nauken nik!
-Ta anaiek?
-Anaiek lau, lau.
-Lau urte? Joe. Ta bera bakarrik euen etxian edo?
-Ez, kalien, hantxe zerien, kalien, hantxe etxe aurrien. Ta metrailliek...
-(Senidea): Bera ta bere lehengusiña.
-Bera ta beste lehengusiña bat.
-Ha be umia?
-Bai. Bai, ha be bost urte, sei urtekue, ez dakit.
-(Senidea): Manueltxo.
-Bai.

10.58. Zerrajera gerrarako materiala produzitzen

- **Hizlaria(k)**: Zulueta Uribe, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-177/007
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:16:47. **Bukatu**: 00:18:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- **Laburpena**: "Unión Cerrajera"n gerrarako materiala produzitzen hasi ziren 1937ko udaberrian. Gazteak ere lanean hasi ziren orduan, gau eta egun.

Transkripzioa
-Gero sartu gitzen zerera. Gero e, eta gero militarrak juan zienien, hamen Zerrajeria hasi zan proiektilak eitten. Proiektilak, artillerixarako. Proiektilak zeretako be bai, morteruendako be bai. Ta gero abiaziño bonbak, abiaziñuendako kontenedoriek eta... osea. Ta orduen sartu gitzen danok militarizaute, zegatik e...
-Baiña zu ondiok Zerrajeran hasi barik zeuntzen, ezta?
-E? Bai ba! Gu kalian...

-Elementaletik [...] atara eta...
-Ta sartu gitzen, e... Militarrak abanzien hasi zienien, gu sartu gitzen biherrien. Ta egunien itten gauen milla... tamañuak, zerena, proiektillenak zien “tamaño de siete y medio y seis y medio“. Eta "siete y medio" itten gauen milla, ta "seis y medio" beste milla. Beste milla morteruendako.
-Egunian?
-Bai. Ta gau ta egun biharra, e. Eta jaixak eta danak. Orduen ez zan pekatu domeketan be eittia biharra! Klaro, "por la cruzada"... Badakitzu.
-(senidea): Horreaittik irabazi eben gerrie.
-Eliziek [buldak] emongo zittuen, ezta?
-Kruzadak, kruzadak. Dana libre.
-(senidea): Horreaittik irabazi eben Francok gerrie, hainbeste biher eindda...

10.59. Zerrajeraren ekoizpena, zerrailez gain

- **Hizlaria(k)**: Zulueta Uribe, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-177/009
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:19:35. **Bukatu**: 00:23:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- **Laburpena**: "Unión Cerrajera"n zerrailez gain, erramintak, butanoak, gurpilak eta beste gauza asko egiten ziren. Lan-prozesua azaltzen du.

Transkripzioa
-Zu han "Escuela de Aprendices"en hasi ziñanian, ondiok be armak eitten... edo proiektilak eitten euzen Zerrajeran?
-Ez, a, bai ba! Ez, hasi gitzenien ez. Orduentxe itxi fabrikaziñuari ta treinta y nuevien gerria bukatu zan ta gu hasi gitzen eskolan.
-Eta gero ze produzitten jarraittu eben Zerrajeriak?
-E?
-Hortik aurrera Zerrajeriak ze produzitzen...
-A zerak, atzera gero serraillak eitten, ta zerien. Fuera. Ia gerriek ez auen biher, bonbaik ez auen biher ezetako.
-Eta zu ibilli ziñan orduan serraillak...
-Bai, serrailla, ta laminaziñuan ta, hor danien.
-Serraillak aparte Zerrajeriak beste ze lan, beste ze produkziño euki dau [...]?
-Zerrajeriek orduen eitten zittuen, kataloguen auken bi milla ta piku klase serrailla. Eitten zien "de todo". Hasta matxetiek, "caña de azucar" ebaitteko Kubarako be bai.
-Oseake erraminttak be eitten zan orduan.
-Bai. De todo.
-Baiña aizkora ta atxur ta holakorik?
-Ez. Hori Oñatin.
-Klaro, hori guk eitten geben...
-Hori Oñatin, Oñatin.
-Baiña matxetiak be Oñatin be eitten zian.
-E?

-Oñatin be eitten ziala matxetiak.
-Bai.
-Ta zuek itten zittuein serraillak, matxetiak eta beste zer? beste erramintta klaserik?
-Ez dot uste. Baiña asko. Klase asko.
-Eta hor ze eitten zan, flejia ekarri eitten zan, edo bertan eitten zan flejia edo?
-Ez. Bergaran, Altos Hornosen eitten zan flejia. O sea, totxua, ta gero laminau flejia. Hotzien... o beruen esan gure dot /gurot/. Beruen. Ta gero ekarten zan Zerrajerara flejia ta hor hotzien laminetan zan.
-Gero serraillak eitteko.
-Serraillak edo gure dana, ta klientiek be bai. Ta fabrikak be, fabriketara.
-A, handik laminaziñoko asko eindda gero zueik hotzien zeueik eitten zotsain...?
-Karo. Haik beruan. Han eitten zittun, fundiduten auen, totxuak atara, eta gero laminau eitten auen. Beruen. Labien eukitta, gori-gorixa zala, zera, laminau. Baiña gero harek, ha flejia ,egoten da neurrixak be karo... ta gero egoten da flejia kaskarilliekin ta zerakin. Ta gero hamen dekapetan zien azidotan haik rolluak, eta laminau, neurrixetara, enpresetarako.
-Oseake, orduen, serraillak aparte laminaziñoko lanak...
-A, bai, bai. Bueno, hamen eitten zien serraillak aparte gero gauza asko. Butanuak eta. Bueno. Ta erruberak kotxiendako ta.
-Llantak?
-Llantak.

10.60. Gerra sasoian nondik nora ibili zen

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/008
- **Iraupena**: 0:04:11. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:14:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena**: Gerra Zibila: Arrasate; Gasteiz. Gerran nondik nora ibili zen kontatzen du. Bixenteren ugazaba, Zaldieriako kuartelean albaitaria zen; gerra sasoian han hasi zen lanean Bixente, zauritutako zaldiei ferrak ipintzen.

Transkripzioa
Olaxe antxe jarraittu neban gero gerria akabau arte ero. Gerria asi zan, da setienbrian, veintiseis de setienbre, au Mondrau artu uen eguna, ortik Bedoñatik sartu zien tropak, eta orduantxe nie kintia deittu uen, "la quinta del treinta y dos", ta oixe, Bitorixa geldittu zan Francon alde.

11. Ekonomia eta industria

11.1. Lanean ezkondu arte

- **Hizlaria(k)**: Gorostiza Bengoa, Asuncion

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-044/006
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:26:18. **Bukatu**: 00:28:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: 14 urterekin utzi zion eskolari Asunek. Umezaintzan eta horrelakoetan aritu eta gero Roneoko "La Imprenta" lantegian egin zuen lan zazpi urtean. Gero ezkondu eta lanari utzi zion. Umezaintzan Zarautzen ere ibili zen, arrasatear batzuentzako. Lantegian hatz bat galdu zuen lan-istripuan.

Transkripzioa
- Gero ya eskola denporia pasau zan ta gero, gero “mas aburrido” gero. Ni eskolan gustora ibili nintzen, Donostiko maistriorreaz oso ondo gaiñera.
- Hemen etxian ortua eta holako gauzak bazeukatzuein orduan?
- Lehenau hementxe etxia dauen lekuan, gure aittek euken hemen ortue. Ta oin daukogu hor azpixen, eta neu kapazidade barik nauenetik gehixau (...), ezebez. Azak eta danak ipintten dittu baiña ganora barik. Beste suntantzia bateaz, klaro mutikua da, mutilla da sekula in ez dauena be bai, e? Ba ezin eskatu ezin lekienik, eta norberak kapazidaderik ez, ba... (...)
- Orduan esan dozu hamabi urte arte edo hola eskolara, eta gero...
- Hamalau urte arte.
- Hamalau urte arte?
- Bai, hamalau urte udazkenien kunpliuta neuzkan eta aittari esan notsen: “jolin aitta, eskolara fan biher dot berriro? Hamalau urte dauket eta”. Eta esan usten: “ez, ez, nik baiño gehixau dakin tte eskolara barik”, eta gero umezain ta halan ta holan eta pasau nitzan. Eta gero fabrikara, gero han ibili nintzen beste sei-zazpi bat urte.
- Zein fabriketan?
- “En la Imprenta”, bai, hemen kuartel onduen euen, bai, hortxe. Eta gero ezkondu eta gero ya sustantzie bariko zerak, bueno, sustantzia barikuek-edo, umezain eta hara eta hona-eta.
- Eta kriada-edo sekula ibilli zara?
- Kriada umezain, Zarautzen.
- Bizi be han.
- Bai, bai. Bueno, hemengue zan izen, baiña hemendik faten zan udan hara, eta egon nintzan urtebete pasau, lanera hasi arte.
- Kriada Zarautzen.
- Gero Roneora, “La Imprenta”. Inprentan be ba ondo berriro. Atzamarra be kendu nauen eta.
- Atzamarra galdu zeben?
- Bai, hemen, eskumia gaiñera.
- Prentsiak harrapota-edo?
- Bai, eta han txintxilizka geldittu jatan, eta bueno ba. Harrezkero atzamar barik.

11.2. Elma lantegia eta Biteri eskola

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Arregi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa

- **Erref**: ARR-155/015
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:24:48. **Bukatu**: 00:27:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- **Laburpena**: 14 urterekin, Elma lantegian hasi zen lanean. Handik lau urtera, 18 urterekin, lanean zebilela egun erdiko eskolak jasotzen hasi zen, doitzaile (ajustadore) ikasketak egiteko, gaurko Biteri plazan zegoen Biteri eskolan (geroago eta beste toki batean Eskola Profesionala izango zena).

Transkripzioa

-Gero, hamalau urteaz, fan nitzen fabrikara, Elmara. Ta han ofizial ein nintzen. Ta gero, hamazortzi urteaz, fan nintzen eskola profesionalera. Zera, “Escuelas de Biteri“. Eskola profesionala fundau zanien, orduentxe hasi gitzen gu eskola pro… hor Biterin hasi gitzen eskolan. Ta ia han ein nauen zera, esto, ofizialie. Ta gero maestria.
-Baiña Biteri zan, edo profesionala?
-Lelengo Bite… Biteri, “Las Escuelas de Biteri“ hasi zan, fundau zan eskola profesionala. Ta gero fan zan hara, zerera, esto… oin ospittela dauen lekure. Gero fan zan. Lelengo Biterin ta zertu, arrankau auen. Bai.
-A, eskola profesionala ez zan, ez da betik eon oin dauen lekuen?
-Ke ba! Hamen?
-Bai.
-Bai zera! Hor Biterin, hor zerien, hortxe plazan, hori badau bai gasolinerie hori katxarruoi? Hortxe auen Biteri! Hortxe auen Biteri. Ta oin torrie dauen lekuen auen Biterin estatua, ta ha Biterin estatua oin dau han San Juango han zerien dau, han parkien. Biteri hortxe auen.
-Eskola profesionala Biterin hasi zan?
-Biterin hasi zan, ta gero pasau zan zerera, esto, ha baezan e, han estaziño ostien, bamos, oin ospittal ostien, ospittela badau, oin ospittela da, han atzekaldeko pabelloie, orduen han egon zan barriro. Eskola profesionala. Ta gero haundi in zanien, barriro ba gero hona pasau zan.
-Eta zu Biterin ibili ziñanerako Don Jose Maria baebillen hor?
-Bai, Don Jose Mariak fundau auen hori. Don Jose Mariak fundau auen, bai. Don Jose Mariak fundau auen. Orduan hamengo [industrialok hasarre egon zien], joder! Bai.
-Baiña zu Biterira fan ziñan Elman ia lanien ibilitta?
-Bai, bai, ibilitte, hamazortzi urteaz!
-Hamazortziaz?
-Hamazortziaz. Gero, hor akabau nauenien, gero soldau.
-Oseake Biteri Eskolara, gero profesionala izengo zana.
-Bai.
-Eta hori Biteri eskola hori euen hamen San Andresen?
-San Andresen ez, hortxe zerien, gasolinerie dauen lekuen. Gasoliñerie ha trastie zelan da, ha zera, hor plazan, zera, hor.
-A, gasoliñeria! Baiña eske gasoliñeria, bueno, Gasoliñera izena dakona, ezta?
-Bai. Bai, bai.
-A, osea plazan bertan euen.
-Bertan, hortxe auen.
-Horrek, horrek zela dako izena plaza horrek? Lehen ze izen eukan?
-Lehen plaza Biteri, oin ez dakit zelan dan. Ez dakit /eztaitt/.

-Biteri plazan.
-Hortxe auen, bai.
-Eta zuk, oseake Elman hamalau urtekin hasi ta hemezortziaz eskolara fan eta lanari itxi in zotsain edo lana egun erdi?
-Ez, ez, ez, egun erdi lan eta beste erdi eskolan.

11.3. Emakume ezkonduek ezin lanean jarraitu

- **Hizlaria(k)**: Arregi Letamendi, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-166/020
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:30:31. **Bukatu**: 00:32:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Lehen, emakume ezkonduek ez zuten lanik egiten. Terek Zerrajeran zortzi urte lanean eman eta gero, lana utzi egin behar izan zuen ezkondu egin zelako. Garai hartan, normala zen emakume ezkonduak etxean geratzea.

Transkripzioa
- Zuk kandaugintzan... ya urte pillatxua ezta?
- Ba in gauen "hasta" ezkondu arte. Ixe... zenbat urte nauen? "En el ciencuenta y cinco" urten nauen ya Gabonetan. Eneruen ezkondu nitzen "en el cincueta y seis"... Horretxek, urte batzuk in nauen. Zortzi edo beratzi edo... Zortzi.
- Bai, hamar igual! "Cincuenta y seis"-ien urten?
- E?
- "Cincuenta y..." zu hasiko ziñan hogeta hama... berrogeita seixan.
- Berrogeta zazpixan.
- Zazpixan.
- "En abril, el 8 de abril". Eta urten nauen e... Gabonetan... "el cincuenta y cinco".
- Zortzi, zortzi urte pasatxo.
- Bai.
- Eta zeatik urten ziñan, ba, ezkondu ziñanian?
- Ba, orduen ezkondute derrigor urten biher zauen.
- Ezeuen emuten lanik?
- Ezkonduek, kalera. Danak. Ezkondute ezin zeikien geratu, segi lanien.
- Serixuek Zerrajeran...
- Bai, bai, bai... "Todos fuera". Han matrimonio bat zauen hori legia etorri aurretik ezkondute, eta enbarazaute zauela be bueno... danak mimau eitten zauen! Eta familixia ta auki ta gero segidu zauen jubilau arte, baiña ezkondu danok "todas a la calle", danok urteten gauen.
- Osea, ezkonketia zan lan barik geraketia?
- Bai, bai. Ya ezin zeiketzun lan ein.
- Ta zuk ze moduz hartu zen zuk hori? Normala pentsaitten xatzun edo...?
- Dana zan... Nere aurrekuek danak zien, normala zan. Ya etxien geraketan zitzen.
- Oseake ez zeuen besteik?
- Ez, ez. Etxeko lanak ein eta etxie... kasu ein.
- Eta umiek ekarri.

- Umiek ekarri.

11.4. Zerrajerako lan-baldintzak

- **Hizlaria(k)**: Arregi Letamendi, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-166/023
- **Iraupena**: 0:00:27. **Hasi**: 00:33:08. **Bukatu**: 00:33:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Zerrajerako lan-baldintzei buruz hitz egiten du. Gizonek eta emakumeek lana berdin egin arren, emakumeek ez zuten gizonek irabazten zutenaren laurdenik ere irabazten. Larunbatetan lanera joaten ziren. Langileak Gizarte Segurantzan alta emanda zeuden.

Transkripzioa
- Eta irabazi antzea itten zeuen, gutxiau itten zeuen edo zela zan?
- Oso gutxi. Gizonak eta emakumiak lana berdin eindde... larenik be ez gauen irabazten guk.
- Laurdenik bez?
- Oso gutxi. Eta orduen ez zauen "ni puentes ni sábados...". Beti lanien!
- Eta seguruik eta bazeukotzuen?
- Bai, seguridad soziala.
- Bai. Hasieratik auki zen?
- Bai, bai, bai, bai.
- Seguridad soziala, bai.

11.5. Zerrajerako lanaz gain, etxean lagundu behar

- **Hizlaria(k)**: Arregi Letamendi, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-166/026
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:39:08. **Bukatu**: 00:40:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Lagun taldearekin mendira joan ohi zen, baina gutxitan. 20 urte zituela ama hil zitzaion, eta, alaba zaharrena izanik, astean zehar Zerrajeran egiten zuen lana eta etxean ere lagundu behar izaten zuen.

Transkripzioa
- Ta mendira ta hola juateko ohitturaik?
- Bai, kuadrillatan bai. Mendire ta bai, baiñe gutxitten e! Klaro, ama hil

jaten hogei urtekin... nauketela. Danok hori... familixa haundixe. Ta aste guztien lana indde, lana in biher zan be bai! Erropak eta konpondu in biher zien hurrengoko egunerako! Fabrikarako batie gertie ta gertatu in biher zan, ta petatxue biher bazan betetxue bota! Orduen, "dos por tres" ez zauen /ezauen/!
- Bai, bai, bai...
- Eta...
- Orduen, pittin bat zuek hartu zauen etxeko ardurie edo...
- Klaro. Aitte geratu zan bost neskakin. Bat Oñatire eruan zauen tiak... hori txikiñena, bigarrena Oñatin eon zan... Hori ya Oñatin doie... berrogeita hamar urte bai! Edo gehixau! Gehixau igual. Eta, hori. Ba, ya esta. Astirik bez ezetako be.
- Ya, ya, ya, ya...

11.6. Umezain, Arrasaten

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/011
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:11:04. **Bukatu**: 00:13:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Eskola bukatu zuenean, 14 urterekin, umezain hasi zen Arrasateko familia batean. Hiru-lau lekutan egon zen neskame: azkena, Azkarate okindegian aritu zen lanean. Zer lan egiten zituen eta zenbateko soldata zuen kontatzen du.

Transkripzioa
-Bueno, eta eskolok bukatu zienien?
-Gero kriera. Umezain.
-Nora fan ziñan?
-Hamentxe, Mondrauen, kalera. Arrasaten. Arrasatera bai.
-Baiña jan ta lo bertan, ezta?
-Bai, bai. Dana.
-Noren etxian egon ziñan?
-Ene ia ez die bizi.
-Hori zer, eskolia akabau ta segidan? Hamalau urtekin?
-Bai, hamalau urtekin.
-Eta zelan eukein izena? Horreik, zure nagusixan izan zienak?
-Ba bat e, andrie zan Fakunda Abarrategi.
-Kontxo.
-Bai.
-Abarrategi batzuk ein dittut.
-Bai. Hori Udalakue zan. Ta gizona zan Velez de Mendizabal. Nire gizonen tio bat.
-Aja.
-Bai, baiñe geroko buenooo, hamalau urtetik hogetaka urtietara...
-Egon ziñen, kriara?
-Bai, kriera bai. Baiñe hiru-lau lekutan e. Atzenengo panaderixa baten, ogixa emoten.
-Ze panaderixatan?

-Zarugalden, oin ez dau, Azkarate.
-Azkarate?
-Bai.
-Eta kriada lanetan e, umezain ibiltten ziñanian, ze itten zeben, umezain bakarrik, edo…?
-Ez, lanak eta fregaue eta… ba danetik, danetik.
-Eta sukaldien itten zeben? Edo hori ia etxeko andriak itten eben?
-Eee ba segun, batzuetan noberak be bai. “De todo“.
-Eta zenbat e, pagau itten otsuein, bape be?
-Bai, pagau bai, baiña gutxi e. Zazpi duro. Ta zapata pare bat erosteko bi hilebete pasa.
-Zazpi duro hillian pagaitten otsuein?
-Bai.
-Eta zapata pariak hamabost duro balixo…
-Ez! Zan hamabost pezeta pagau eta zapatak zazpi ogerleko.
-Aaaa, hiru duro.
-Bai, hiru duro.
-Hiru duro hillien irabazi, eta zapata pariek zazpi balixo eben?
-Bai.
-Mekatxis la mar.

11.7. Zerrajera kooperatibara erosketak egitear

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/022
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:20:09. **Bukatu**: 00:21:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
  Lanbideak » Neskameak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Gerra hasieran, dendak zabaltzen zituzten. Parrokia ondoan zegoen Zerrajera kooperatiban egiten zituen erosketak. Ignaziaren nagusiak bertan egiten zuen lan. Gerrak aurrera egin zuen moduan, jatekoa falta izan zen.

Transkripzioa
-Eta dendak-eta eregitta euzen orduan?
-Bai, zabalketan zien, bai.
-Ze dendatara faten ziñan zu errekautan?
-Ba, orduen, ba, Zerrajetak euken kooperatibie.
-A bai?
-Eta kooperatibara.
-Nun euen kolokauta Zerrajerian kooperatibia?
-Ba, bat euen hor, parrokixien onduen, euen bat, ta gero etorri zan hona Garibaire, horra, aurrera.
-A, parrokixa inguruen, Erdiko kalien edo?
-Erdiko kalien. Oin taberna bat dau. Hantxe.
-Eta zure nagusixak Zerrajeran itten eben lan?
-Bai.
-Eta, orduan, zer moduz arreglaitten ziñain jatorduak preparaitteko ta?

Nehiko gauza euen?
-Ba, gauzak egon zien, gero faltau zien, ia handik gerora. Aurretik, ba, ondo. Orduen potajie-ta ez zan gaurko beste... zer ipiñiko ez euen orduen gure gauen beste gauza ipintteko.

11.8. Azkarate okindegia

- **Hizlaria(k)**: Llodio Bengoa, Inazia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARR-174/036
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:31:25. **Bukatu**: 00:32:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Lanbideak » Neskameak
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Gerra ostean, Azkarate okindegian egin zuen lana. Ogia saltzeaz arduratzen zen. Bi anaiena zen okindegia, eta txandaka aritzen ziren lanean. Ignazia bertan bizi zen. 15 ogerleko irabazten zituen.

Transkripzioa
-Ta zuk panaderixan, zer itten zeben ogixa saldu edo ogixa eitten be lagunketan zeben?
-Ez, ez. Saldu bakarrik.
-Saldu bakarrik?
-Bai.
-Zela esan dozu, Azkaratena esan dozu, ezta?
-Bai.
-Hor, Zarugalden.
-Bai.
-Ta hor ze euen, familixa dana panaderixan?
-Eurak bai.
-Eta zu ze ziñan, kriada bakarra edo...
-Bai, ni panaderixan dependiente. Eurak, bi anaienak zien, egoten zien, ta txandaka eitten auen.
-Eta zu dependienta bizi be bertan bizi ziñan edo?
-Bai, bai.
-Orduen ia hamabost pezeta baiño gehixau irabaziko zeben, ezta?
-Ordu... bai, orduen e, ez dakit, hamaxei edo zien, hamabost duro edo.
-A, duruek ia?
-Bai, oberlekuek.
-Ia. Oseake lehenengo hasi ziñanian hamabost pezeta ordainketan otsuein.
-Bai.
-Eta hor ia hiru duro.
-Bai, bai.
-Hamabost ogerleku.

11.9. Errementari lana; lan-baldintzak

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide

- **Erref**: ARR-184/002
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:00:15. **Bukatu**: 00:03:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Bixente Barandiaranek errementari lanbidea noiz eta nola ikasi zuen kontatzen du. Lan-baldintzak. Soldadutza egitera joan eta bueltatu zenean lanbide berri bati ekin zion: perratzaile.

Transkripzioa

- Bixente, kontau pixkat zela hasi ziñan ofiziua ikasten. Ze urtetan eta...
- Bai, bai. Ba nik neuken hemezortzi urte. Ezta? Ugartenien fabrikan nebillen lanien ta atsalde baten, ba, hor Zarualden banindoiela haruntza pasio bat eitten, handik etorri zan beste mutil bat, orduen errementerixen kriau ebillen. Ta, joño! Ba sekula [berbarik in barik egongo nitzen ta, joño, "Keai!", "Keai!", [hola]. Ta "nora hoie?" "Ni kalera, ta heu?", ta "ba, ni hor pasio bat eittera". Hola. Hola [pasa...] Ta gero baten akordau jaten "joño! Ikusi ein bihar juat ze lan eitten dauen horrek edo...zerien, taillarrien, errementeixen". Fan nitzen ta han ebillen suteixen ta, uezaba sutei baten ta bera beste baten ebillen lanien. Ta ni begira egon nitzan berakin. Ta begira egon apur baten ta "[...] " ta urten ein nauen. Ta uezabak esan [eutsan]: "Zein zuan hori?" ta "hori? Hor... zerien, [Don Turion] jardiñen atzekaldien bizi da hori" ta "A! Bai, joño! Horren aitta ezauketan juat. Bai, gure [aittakin igeltsero pioi] eitten juan. Ezauketan juat. Ta nun jabik lanien?" ta "Ugartenien", "Joño, Ugartenien?" "Bai". Itxuria kriaua bihar euan berak be ta esan eutsen, mutillorri esan eutsen: "Ikusten duanien esaixok gure badau etorri hamahiru erriel egunien pagauko [deutsatela] ta ofiziua erakutsiko [eutsala] ta gaiñera, goixian zazpiretan hasten gaittuk lanien, ta armozua emongo [deutsatela]". Juntau [giñuan] kalien ta esan eusten hori. Ta etorri nitzen etxera ta esan notsen aittai: "Aitta, hau hola ta hola" ta "Joño! Bai, joño!" Bera pioia zan, gure aitte, ta "Bueno, ba... Balixo badotsu, ez badotsu, fan ta ikesi errementari!" Fabrikan nebillen ta hango enkargauai esan [neutsen]: "Juanito, zera, errementari ikesten [Zarualdera] fan bihar dot", "Joño! Ondo jak! Bai, ikesi! Ikesten duanian etorri e, hemen egongo dok lana hiretako ta!" Orduen fabrikan be lan asko eitten zan errementeixen suteixen. Ta holaxe fan nitzen, holaxe [pasa be]. Ta hor ibili nitzen, ba, soldau fan arte. Urte bi ein nittuan. Nik hemezortzi urte naukan ta [...]. Ta hau beste kriauau urte bete zaharrao zan ta hau fan zan [soldau]. Ta ni ta... uezaba ta bixok gabizala, uezaba... kanzerra formau jakon estomaguen ta hil ein zan. Ta ni bakarrik [geratu] nitzen suteixen. Eta semie euken hamabi urtekue ta amak esan eutsen: "bueno, ba, oin fan hari Bixenteri lagunketan". Ta hamabi [urteaz] hori hasi zan neri lagunketan ta bixok ibili giñan lanien. Gero, ba... ni soldau fan biherra tokau jaten. Ha etorri zan ta ni soldautzara fan nitzan. Gero handik etorri nitzanien, ba, hemen hiru lagunendako, ba, lana... badakitzu, hiru lagun asko zan, ta gutxitxo. Ta ibiltten giñen, ba, batek egun bat sartu, bestiek beste bat ta hola ibiltten giñen. Denpora gutxixen ibili nitzan. Ni, anaie igeltserua zan ta hor [Kanpazarrien] mikeletiak euezen, zera euen... Ta harek etxia eitten [...] ta haretxeaz pioi ibili nitzen apur baten. Ta hemen Mondrauko beterinaixuek, Erradorrek, ba zerien, Vittorixan, beterinaixo batek euken zaldixak perratzeko perratokixe, ta gero ifiñi euen, ba, perratokixe ganauandako. Ta perratzaillia biher [...] bat baeuken, baiña bi biher zittuen ta honi esan eutsen, aber, bat topetako. Ta horrek esan

eusten: "Hi, Barandiaran, [joño, ba han], Vittorixen, hantxe Portal del Rey-n Romaldo Errauskin beterinaixue, eskatu eustek zer bat, perratzaille bat fateko ta fango bahitze..." ta "Beno, fango naz".

11.10. Perratzaile lanean nola hasi zen

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ARR-184/003
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:03:54. **Bukatu**: 00:06:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Perratzaile lanean nola hasi zen.

Transkripzioa
Da olaxe fan nitzen. Da aprobia in biaostala ta egun bat in nauen, da ezostan ezebe esan; bigarren eunien, atsaldien, esa osten e: "Oiga Barandiaran, bueno ya le hemos visto trabajar y le voy a pagar ocho pesetas al día". Da gaiñera emendik urten ezkero zortzi pezeta gutxitxo zan, apopillo; esa notsan: "Mire usted Don Romualdo, yo por ocho pesetas no salgo de casa", da amasei pezeta pagau osten, ta etorri nitzen etxera. Bueno, bagabiz lanian ba anaiakin pioi tta ola, andik illabete batera ero deittu ostan barriro: "I Barandiaran, oiñ an beste betenarixo batek esaostek Bitorixako batek perratzaillie falta uela, perratzaillie biaula, ta fango baitze", esa ostan: "Fari, oso frankue dok a gizona, oso frankue dok eta". Da bueno, eguen baten Bitorixan egoten zan eguenien ferixia, da fraka azulekin fan nitzen, da amarderdi inguruan da, bueno probau in bioula ta, bai, asi nitzan lanian, bixok, bestia ta neu, da di-da, di-da!

11.11. Sexuaren araberako desberdintasunak lan-munduan I

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/021
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:41:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Emakume eta gizonezkoen arteko desberdintasunak. Lanean ere, nahiz eta lan bera egin, soldata desberdina izaten zuten.

Transkripzioa
- Lanera fateko ez oskuen esaten hori. Lanera fan ezkero, faten giñen lanera, irabazten gauen lanpostu bardiñien, eta hori kooperatibetan!, erdix.., bueno, gutxitxuau. Ehuneko ehun ez geuen irabazten gizonan moduan. Orduen, akordetan naz. euen konsejillo sozialian Altamirako

Bixenta. Eta zan andra langillie; eta, klaro, lan bardiñe eitten auen, gutxiao kobretan auen, betik euen horrekin. Eta gaiñera euken, segurue euken "una caja de compensación". Osea, ez zan seguru bat seguridade soziala. Orduen ezkonduek eukitten zittuen gastu gehixao. Umiek eukitten zittuenak, umien geixotasune... Eta solterak ba ez gauen eukitten hainbeste gastu, eta solterak bardin pagetan gauen, eta eitten zan "caja común". Eta gero gehixao gastau auenak geldiketan zien urtien hasieran parien bestiekin. Bueno, hori holan. Akordetan naz behin gizon batek bosgarren semie euki auela, eta: "familixie euki dou", eta "zorionak!" eta "zorionak!" ebitzen eta. Eta esaten dutso Bixentak: "Hi, bosgarrena? Nahikue dok, e! Ze itten dok hainbeste ume eukitteko?" "Hi, ze eingo junau ba, jangoikuek emuten joskun eta." "A, bai, e? Kontseziñoko mojei ez jutsiek ba emuten ba jangoikuek! Eta niri be ez, niri be ez justek emuten".

11.12. Kooperatibako jangelako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/025
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:51:05. **Bukatu**: 00:52:05
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Kooperatibako jangelako kontuak.

Transkripzioa
Han bertan euen sukaldie, eta bazkaixek be bertan eitten zittuen. Ni lenengo fan nintzenien hara bazkaitten, jo!, jente danak esaten auen bazkaixa txarra zala. "Honeik etxien ze jango ete daue?" Bazkai ederra! Lentejak, babak, oso ona; okela gisaue... Baiña handik hille bire jan danak eukien gusto bardiña. Lenengo okela gisauei hartu nutsen iguiña. Gero lentejai, gero babai. Azkenien bakarrik ogi bollotxue... A, eta ardaue emuten oskuen, baso bat ardau be emuten oskuen gure geuenai. Haxe ogixe eta ardaue jan-eta... Gero etxetik erueten be beste denporaldi bat eitten gauen. Gero barriro jangelara.

11.13. Lan baldintzak kooperatibatan

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/026
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:52:05. **Bukatu**: 00:53:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Lan kontuak. Kooperatibatan, "sábado inglés".

Transkripzioa
-Gauza baten giñen pribilegiauek kooperatibakuek: geukela "Sábado Inglés". "Sábado Inglés", zapatu atsaldia jai. Ondion orduan, nabil esaten hirurogeta bigarren urtian, hemengo ba Zerrajerakuek-eta Elma-kuek-eta ez eukien, zapatu atsadetan be eitten zan lana xeirek arte, xeirek arte lana. Eta gaiñera danak batera sartzen zien eta danak batera urteten auen. Joten auen adarra esaten jakona, bozinia, adarra esaten gauen guk; eta hiru adar joten zittuen zortziak laren gutxiautan, zortzirak bost gutxiautan, eta ia zortziretan. Eta ia atiek ixten zien, eta ia guardie atien gero. Eta kooperatibak modernotxuauek, harek ia erlojue piketako, tak!, ala! Eta "Sábado Inglés". Oiñ sartu biher bazien orduek –beratzi ordu eitten zien egunero- "Sábado Inglés" etarateko. Lan bat bukatu biher bazan, ezin zan esan ezin naz geldittu, ze hori oso gaixki ikusitta euen. Eta gero etzan kobretan igual. Lenengoko urtietan behintzet etzan kobretan. Eta holan.

11.14. Aitaren nondik norakoak gerra garaian

- **Hizlaria(k)**: Goikolea Zabala, Esther
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikolea, Danel
- **Erref**: ARR-188/030
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 01:01:45. **Bukatu**: 01:05:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Aita Zerrajeran hasi zen lanean. Frontetik Bilbora zaurituak eramaten zituen bere autoan. Gerrako kontuak. Santoña; "Puerto de Santamaría"ko kartzelan egondakoa. Kartzelatik itzuli zenean, ezin izan zen Zerrajeran sartu berriz lanera.

Transkripzioa
-Gero hasi zan Zerrajerara etorten. Ordureko zelabaitteko sindikatuek egongo zien Zerrajeran, eta gure aittei tokau jakon gero gerrara fateie.
-Ordurako kotxia euken?
-Bai, aurretik euken kotxia. Eta tokau jakon fateie... Ez, ez zan fan gerrara zertute, zelan esaten da...
-Deittute.
-Deittute ez zan fan. Joan zan borondatez, eta ibiltten zan frentetik Bilbora erueten heriduek bere kotxiaz. Orduan... heriduek eta hilddakuek, hilddakuek kanpasanture, baiña batez be heriduek. Eta guk gauken tia bat, tia Juliana, Uribarrin bizi zana, Bilbon; harek euken hiru seme frentian, eta gure amak be hemendik ihes ein euenien, haren etxien egon zan. Orduen aitta gerrara fan zanien, eta ibilli holan, ba azkenien abanzadak egon zienien eta ezkutau ein biher izen zanien, kotxioi itxi auen garajen baten edo, ez dakit zan Bergarako garajen baten edo, eta bera ezkutau ein zan, ezkutau zan Somorrostro aldeko pariente batzuen etxian; pariente...

ospizianuek zien, baiña bai. Eta eurak delataute, hartu nauen. Eta gero han ein utsien holako juizio morukon bat, eta, klaro, etxeko jabiai be, klaro, delatau ein auen, baiña delittua euken, eta orduen ba gure aittak esan auen: "eske ez daki irakurtzen, eta nik presentau dutsat papel batzuk esanaz legal nenguela eta hori, eta ez dauko delitturik berak". Baiña gure aitte eruen auen Santoñara lenengo, eta gero Puerto de Santa Mariara. Eta, bueno, gero gerra denporan ba gorrixetara pasau zien edo gorrixak zien. Efektu danetarako gure aitte zan gorrixa. Eta kartzelatik etorri zanien Zerrajeran ezin izan zan sartu gorrixa zalako. Orduan abariaz erueten zan oso ondo, baiña eleixara ez zan faten.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Arrasaten jaiotako txinarra (101-008/002)

Aurkezpena

2. Gurasoak txinatarrak (101-008/004)

Gurasoak txinatarrak ditu. Zonalde beretik etorritako txinatar asko ezagutzen ditu.

3. Dakizkien hizkuntzak (101-008/006)

Euskara, gaztelania, ingelesa eta txinera hitz egiten daki.

4. Ama hizkuntza (101-008/009)

Arrasaten senideekin nola hitz egiten duen.

5. Ikastolan ibilia (101-008/010)

Arrasaten jaioa da eta ikastolan ikasi zuen euskaraz.

6. Mandarinera Txinan ikasi zuen (101-008/011)

Txinera mandarinera Txinan ikasi zuen, oporretan joaten zenean.

7. Jatetxe txinarra (101-008/012)

Jatetxe txinatarra dute Arrasaten. Txinako gastronomia hemengora egokitu dute.

8. Jatetxe txinarra (mandarineraz) (101-008/014)

Txinako gastronomia hemengora egokitu dute beren jatetxean. (mandarineraz)

9. "Udaberriko biribilkia" (101-008/015)

"Udaberriko biribilkia" ez da frijituta jaten Txinan.

10. Ezagunak eta lagunak (101-008/016)

Beste txinatar batzuekin duen harremana: ezagutzen ditu baina ez da asko egoten. Bere lagunak ikaskide ohiak eta kanpotik etorritakoak dira.

11. Hemengo erara ohituta (101-008/018)

Txinako janaria ematen du faltan hemen. Urteberri txinatarra ez dute ospatzen baina bazkari berezi bat egiten dute. Bestela, hemengo erara bizi dira erabat.

12. Hemengo bizimodua nahiago (101-008/020)

Hemengo bizimodua nahiago du Txinakoa baino. Hemen ditu lagunak. Toki askotako jendea ezagutzen du: euskaldunez gain, marokoarrak, ekuadortarrak...

13. Belaunaldi berriak irekiagoak (101-008/021)

Adineko txinatarrak asko egoten dira etxean (horregatik esaten da ez direla integratzen), baina bere adineko gazteak irekiagoak dira.

14. Zaletasuna: musika ekoiztea, lokalean (101-008/022)

Zaletasunak. Saskibaloian ibili zen umetan. Lokalean egoten da denbora librean, lagunekin. Tecno eta deep house musika ekoizten egoten dira lokalean.

15. Kotxean batera eta bestera (101-008/024)

Tabernetan ibiltzeko ohitura ere badu, lagunekin. Arrasaten, Gasteizen, Bilbon... musika elektronikoa jartzen duten lekutara, batez ere. Kotxean ibiltzea ere gustatzen zaio.

16. Sare sozialetan murgilduta (101-008/025)

Sare sozialak asko erabiltzen ditu. Argazkiak igotzen ditu. Snapchat zer den azaltzen du. Gurasoei ez zaie arritza egiten teknologiaren mundua; urte asko daramatzate hemen eta ohituta daude.

17. Jatetxean, asteburuetan lana (101-008/026)

Jatetxeko lana oso lotua da. Denetik egiten du. Asteburutan libratzea zaila dauka. Astelehenean libratzen du. Badaki zer den lo egin gabe lanera joatea.

18. Ostalaritza ikasten ibilia (101-008/027)

Bere anaiak Enpresaritza ikasi zuen eta txinerako itzultzaile gisa dabil. Gasteizen Ostalaritza ikasten ibili zen Ding; ondo moldatzen da sukaldean.

19. Oinarrizko hitz batzuk mandarineraz (101-008/029)

Oinarrizko hiztegia mandarineraz.

20. "Kotxea" mandarineraz (101-008/031)

"Kotxea" mandarineraz.

21. Skatea zaletasun (101-008/033)

Skatea du zaletasun moduan. 10-11 urterekin hasi zen. Skate pista ireki dute kiroldegian.

22. Pelikulak eta musika (101-008/034)

"Ocho apellidos vascos" filma gustatu zitzaion. Youtuben ikusten ditu bideoak eta bestela zinemara joaten da. Musika ere jaisten dute Internetetik.

23. Txinan itxiagoak? (101-008/035)

Txinako eta hemengo ohiturak alderatzen ditu. Han karaokea egiten dute lagunartean. Txinan itxiagoak direla uste du. Hala ere, Txina asko aldatu da azken urteetan, modernizatu.

24. Lagunekin gaztelaniaz (101-008/037)

Gutxi egiten du euskaraz lagunekin, gehiago gaztelaniaz. Lanean eta lagun jakin batzuekin (ikastolako lagunekin) egiten du euskaraz. Arrasateko taberna batzuetan gutxi entzuten da euskaraz.

25. Umetako jolasak (ARR-001/009)

Umetako jolasak: itsu-itsuka; diez-beinteka; tokatorreka; alebi-alebika; pote-poteka; txorro-morroka; pañuelitora; sokasaltoan; alturitas; txirikila... Jolasean egiten ziren bihurrikeriak.

26. Garbitasuna baserrian (ARR-001/019)

Garbitasunarekin zerikusia duten azalpenak: umea noiz, nola aldatzen zen; jabonadura errekan egin beharra...

27. Amandrearen esaera (ARR-001/021)

Umea oso lasaia, ona zenean amandreak esaten zuena.

28. Umeak mina hartzen zuenean (ARR-001/024)

Baserriko tresnaren batekin zaurituz gero, erremedioa zein izaten zen. Ez zen medikuarengana joaten derrigorrezkoa ez bazen. Umeari, negar egitean arima zauritik irteten zela esaten zioten.

29. Haginak jausitakoan (ARR-001/025)

Haginak jausten zirenean ez zitzaion garrantzirik ematen.

30. Bataioetako ohiturak (ARR-001/026)

Bataioetan "boluek" botatzen zituzten. Aidean botatzen ziren goxokiak eta dirua (txakur handiak). Umeen artean abesti edo esaera bat ere egoten zen, gutxi jasotzen zutenean kantatzen zutena.

31. San Nikolas (ARR-001/027)

San Nikolas egunean, abestu egiten zen. Bezperan kantuan irteten ziren umeak, baserriz baserri.

32. Santa Ageda (ARR-001/028)

Santa Ageda bezperan, kintoak irteten ziren kantuan.

33. Diru-batzeak (ARR-001/029)

Ordena desberdinetakoak (pasionistak, kaputxinoak, Dorletako beata, Arantzazuko fraideak...) eskean ibiltzen ziren. Auzoko sakristauak, gari-kanpaia joten zuen eta garia batzen zuen. Konjuruaren bedeinkapena.

34. Ur bedeinkatua (ARR-001/030)

Ur bedeinkatua Pazkoa biharamunean eramaten zen. Arimen egunean hainbat meza entzun behar izaten ziren. Ur bedeinkatua noiz eta zertarako erabiltzen zen.

35. San Juanak (ARR-001/031)

San Juan bezperan suak pizten ziren. Ohitura izaten zen kanta labur bat kantatzea eta suaren gainetik salto egitea. San Juan egunean gurutzeak egiten ziren. Erramu egunean ere gurutzeak egiten zituzten.

36. Ume txikiekin egiten zen jolasa (ARR-001/033)

Ume txikiekin egiten zen jolasa, hanka-gainean hartuta, "txintxonien".

37. Haurtzaroa gerraostean (ARR-001/035)

Umea zela erdarazko kanta asko ikasten zituzten.

38. Bertsopaperak (ARR-001/042)

Bertsopaperak. Zaletasun handia zegoen; eta, gainera, nahiko erraz ikasten zituzten.

39. Belaunaldien arteko harremana (ARR-001/043)

Aitajaunak-amandreak umeekin izaten zuten harremana.

40. Oñatiko txokolate lantegiak (ARR-001/044)

Txokolate lantegi asko Oñatin: Loiola; Zahor; Gereka; Maiztegi; Elgorriaga. Arantzazuko Ama Birjinaren irudia txokolatean.

41. Erregen eguneko kantak (ARR-001/047)

Erregen egunean elizako kantak abesten ziren eta, normalean, gaztelaniaz izaten ziren. Euskaraz "Trakatan, trakatan, hiru errege... " kanta.

42. Jolasean hasteko (ARR-001/052)

Bat, bi, hiru ta lau.

43. Egutegiaren inguruko esaerak (ARR-001/055)

Egutegiaren inguruko esaerak: martxoa; abendua.

44. Hilabeteen izenak (ARR-001/056)

Hilabeteen izenak.

45. Animaliak ume-eske (ARR-001/057)

Animaliak ume-eske daudenean hartzen dituzten izen desberdinak.

46. Gizartea eta naturaren arteko loturaren etena (ARR-001/058)

Naturari ez zaio garrantzirik ematen.

47. "Drin, dron corderito de vino..." kanta (ARR-002/013)

"Drin, dron corderito de vino..." kanta.

48. Amandrea eta umeak (ARR-002/018)

Amandrea umeekin beti abesten.

49. Umetako jolasak (ARR-002/032)

Umetako jolasak: pote-poteka edo diez-beinteka.

50. Gabonak (ARR-002/035)

Hagina jausten zenean gorde egiten zen. Gabonetako opariak. Umetan zelan zelebratzen zituzten Gabonak.

51. "Txintxurrin" (ARR-002/044)

"Txintxurrin" egiten zuten. Gurdiaren partikan egiten zen jolasa.

52. "Kuku-miku" (ARR-002/045)

"Kuku-miku".

53. "Txikitxo polit hori..." kanta (ARR-002/048)

"Txikitxo polit hori..." kanta.

54. Bedoña auzoa; Arrasaterako joera (ARR-003/002)

Bedoña auzoa lehenago Aretxabaletakoa zen; gerora Arrasatera pasatu zen. Arrasaterako joera izan dute beti. Lehenagoko egoera zein zen: biderik ez; etab.

55. Bedoña auzoa; Aozaratzara eskolara (ARR-003/004)

Bedoña auzoa asko aldatu da. Lehenago ume asko izaten ziren baserri bakoitzean. Eskola kontuak. Irakaslearekin arazoak. Aozaratza (Azatza) auzora joan behar izan ziren gerora eskolara.

56. Umetako jolasak: tortolosak, kanikak... (ARR-003/007)

Umetako jolasak: pote-poteka, korroan, etab. Kanikaka; tortolosetan ere egiten zuten.

57. Umetako jolasak: tortolosetan; pote-poteka (ARR-003/008)

Tortolosetan nola jolasten zuten. Pote-poteka nola egiten zuten. Eliza inguruan jolasten zuten.

58. Bere gaztaroko Arrasate (ARR-003/025)

Umetako kontuak. Bere gaztaroko Arrasate nolakoa zen. Korrikalari ezaguna herrian, Zeferin Mendizabal. Arrasateko historia. Santa Barbara. San Juanetan

zezenak egoten ziren bertan. Pedro ume-umea zela, globo bat egon zen bertan.

59. "Txarlotada" ikustera aitarekin (ARR-003/026)

1914an jaiotakoa da Pedro. Umetako kontuak. San Pedro egunean aitak "Txarlotada" bat ikustera eraman zuenekoa.

60. Pilota partidak; pilotari ezagunak (ARR-003/029)

Pilota partidak noiz izaten ziren. Pilotari ezagunak; "Mondragonesa".

61. Pilotarako zaletasuna haur eta helduek (ARR-003/030)

Pilotarako zaletasuna umeen artean. Nola jolasten zuten. Helduek ere lanera joan aurretik pilotan jokatzen zuten.

62. Garizuman txirikiletan (ARR-003/032)

Garizuman, txirikiletan egiteko ohitura. Nola jolasten zuten azaltzen du.

63. Jolasak: diaboloa, kanikak... (ARR-003/033)

Jolas mota asko zeuden. Neskak diaboloarekin, mutilak kanikaka egiten zuten. "Cuentos de Calleja".

64. Umetako arropa (ARR-003/034)

Umetan erabiltzen zuten arropa nolakoa zen.

65. Kanikatan nola egiten zen (ARR-003/035)

Kanikatan nola egiten zuten. Hasieran buztinezkoak ziren, gerora kristalezkoak.

66. Garizuman txirikiletan egiten zen (ARR-003/036)

Txirikiletan nola egiten zuten; zenbat eta urrunago bota, hobe. Garizumako jolasa zen.

67. Gaseosa botiletako kanikak (ARR-003/037)

Gaseosa botilek izaten zuten kanikarekin jolasten zuten.

68. Cross country-a, orduko kirol famatuena (ARR-003/039)

Cross country-a, orduko kirolik famatuena zen.

69. Arrasaten bi zine, baina joateko dirurik ez (ARR-003/040)

Arrasaten bi zine egon ziren garai batean. Umetan zinera joateko dirurik ez. Ematen zituzten pelikulak nolakoak izaten ziren. San Juanetan zinea doan izaten zen.

70. Hamar urterekin tiple gisa korura (ARR-003/042)

Umetan, elizako kantak abesten zituzten. Hamar urterekin sartu zen tiple koruan.

71. Euskal Eguna; euskararekin lotutako kontuak (ARR-004/008)

Umeek erdarazko kantak ikasi behar izaten zituzten; hizkuntza menderatu ez eta demaseko astakeriak esaten zituzten. Maiatzeko loreak; Euskal Eguna. Pedrok Xabiertxo liburua erabili zuen eskolan. Dotrina ongi jakiteagatik saria jaso zuten. Argia aldizkarira harpidetza. Azkue sarritan egoten zen Arrasaten.

72. Azkue Arrasatera etortzen zeneko kontuak (ARR-004/009)

Azkue ezagutu zuen. Haren inguruko kontuak aipatzen ditu. Arrasatera zertara etortzen zen. Herriko beste pertsonaia ezagun batzuekin batera tertuliak.

73. Herri euskaltzalea; maiatzaren 1a (ARR-004/010)

Herri euskalzalea. "Primero de mayo" eguna nola ospatzen zen.

74. Merzedarietako eskola; sor Maria Jacinta eta sor Aurelia (ARR-005/002)

Arrasate asko aldatu da. Eskolara, mertzedarietara joandakoa. Baserrian lan asko egin behar izaten zen eta eskolara joateko denbora gutxi izaten zuten. Oporrak. Irakasleak: Sor Eulogia ume-umetan eta gero Sor María Jacinta Uribesalgo eta Sor Aurelia.

75. Umetako jolasak; jolaslekuak (ARR-005/003)

Lagunekin jolasean non ibiltzen ziren. Errekak banatzen zituen lagun-taldeak. Beraiek Iramendin jolasten zuten. Igande arratsaldetan bakarrik jolasten zuten: buleka (harrapaketan); tokatorreka, tapetara... Ez zuten animaliekin jolasten eta askotan neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren.

76. "Hanka-koskoka" jolasa (ARR-005/008)

Hanka-koskoka ere jolasten zuten. Lurrean laukiak margotzen zituzten eta hankarekin harri leun bat laukitik laukira eraman behar izaten zen.

77. Eskolako txangoak; eskolan erdaraz (ARR-005/009)

Eskolatik behin Bilbora joan ziren. Orduko kontuak. Mojekin abesten zituzten kanta guztiak erdaraz izaten ziren. Eskolan ere dena erdaraz ikasten zuten.

78. Baserriko lanak eta ohiturak; angelusa, aramaitakoa (ARR-005/010)

Baserrian egiten zituzten lanak umetan: arta-zuriketa; gari-ebatea; gari-jotzea; baba-batzea; arbi orriak batzea... Eguerdiko 12:00etan angelusa errezatzen zen; iluntzean aramaitako kanpaia entzuten zenean ere errezatu egin beharra egoten zen. Elizakoak eramaten zirenean, kanpaiak jotzen zituzten elizan. Lan egiteari utzi behar izaten zitzaion eta errezatu egiten zuten.

79. Ipurtargiekin jolasten zuten (ARR-005/012)

Zomorroekin ez zuten jolasten, baina ipurtargiekin bai.

80. Errekako jolasak (ARR-005/013)

Errekan igerian. Jolasak. Zuhaitz batetik uretara salto egiten zuten.

81. Esaera zaharrak eta ipuinak ahoz aho (ARR-005/014)

Esaera zaharrak, egun, ia galduta daude. Garai batean, etxeetan ipuin kontakizun ugari pasatzen ziren belaunaldi batetik bestera.

82. Urteko eliz-ospakizunak (ARR-005/016)

Ospakizunak. Urte-egunak. Gabonak nola ospatzen zituzten. Olentzero. Garizuman fraideak etortzen ziren eta familia guztia mezara joatea ohitura izaten zen. Ama Birjina Kontzesioko bederatziurrenean ere guztiak joaten ziren mezara.

83. Auzoko jaiak; San Josepeko eliza (ARR-005/017)

Auzoko jaiak: Patriziño Eguna (Pazkotik hirugarren igandea). San Josepen eliza ederra zegoen (gaur egun jausita dago) bi kapera handirekin: alde batean Ama Birjina Zuriarena eta beste aldean San Joserena. Ama Birjina Zuriaren Egunean lehenengo meza "txikia" (arrunta) egoten zen eta gero hiru abadekin beste bat. Katilukada bat txokolate ogi zatiaz ematen zitzaien mezara gerturatzen ziren guztiei. Beraien etxean, Intxaustin, aintzinatik (birraitonaren denboratik gutxienez) gordetzen zuten San Josepeko elizako giltza. San Josepeko elizan, eskuan gurutzea alderantziz zuen San Andres txiki bat zegoen, eta Aretxabaletatik, Eskoriatzatik, Bergaratik... jende asko joaten zen santuarengana euren umeek hitz egiten ikas zezaten eskatzera. Horretarako, erroskillak jartzen ziren santuaren gurutzean.

84. San Nikolas; "bolue" (ARR-005/019)

San Nikolas eguna beti ospatzen zuten. San Nikolas abestu ondoren "bolue" (boloa) egiten zen. Don Toribio Agirreren etxeko balkoian hiru neska egoten ziren, kofia eta guzti, boloa botatzen: gaztainak, sagarrak eta erdikoak txakur handiak botatzen zituzten.

85. Santa Ageda bezperako lagun-taldeak (ARR-005/020)

Santa Ageda eguna beti ospatzen zen. Hamasei urtetik gorako lagun-talde ugari irteten ziren. Ezezagunei arrautza bat edo ematen zitzaien.

86. Udaberri eta udazkeneko konjuruak (ARR-005/022)

Konjuruak egiten ziren udaberri eta udazkenean. Kanpaiak ere jotzen zituzten. Hodea etorri ez zedin; zomorroetatik babesteko, eta abarretarako. Ez zuten bedeinkazioa ulertzen; dena latinez izaten zen.

87. Bedeinkazioak; iluntzean arrosarioa (ARR-005/023)

Bedeinkazioak. Bazkaldu aurretik, beti errezatzen zuten. Iluntzean arrosarioa.

88. Umea jaiotakoan egin beharreko ohiturak (ARR-005/024)

Umeak jaio eta beranduenez hurrengo egunean bataiatzen ziren aita-ama pontekoekin. Inudeak eramaten zuen umea. Bataio ostean, aita-ama pontekoek txokolatea ematen zien etxeko umeei. Ospakizunetan ez zen kanpokorik egoten. Ama indartutakoan, "elizara sartu" behar izaten zen bere umearekin. Ohitura zaharrak. Lehen jaunartzea zazpi urterekin izaten zen.

89. Umetako jolasak; hanka-koskoka (ARR-005/025)

Umetako jolasak. Denbora gutxi izaten zuten jolas egiteko. Hanka-koskoka egiten zutelako etxean amak haserre egiten zien, abarketak apurtzen zituztelako. Errifatzeko esaerak egoten ziren, baina ez ditu gogoratzen.

90. Estraperloa eta Mikeleteak Aramaio eta Arrasate bitartean (ARR-006/004)

Cuatrovientos inguruan Mikeleteak egoten ziren, Araba-Gipuzkoa bitarteko muga zaintzen. Estraperlo kontuak ugari izan ziren. Bere aitak kontatzen zuen ipuin bat kontatzen du Patxik, Arrasatear batzuek nola sartu zieten ziria Mikeleteei.

91. Mikeleteek zaintzen zuten Araba eta Gipuzkoa arteko muga (ARR-006/005)

Mikeleteek zaintzen zuten Araba eta Gipuzkoa arteko muga. Han katea bat zegoen, eta hantxe ordaindu behar izaten ziren zergak. Arrazola aldetik ere joaten ziren ardo bila. Arrazolar baten ipuina kontatzen du. Mikeleteak gerra denboran amaitu ziren.

92. Gerraostean etxea galdu eta amandrearen etxera Goroetara (ARR-006/007)

Gerraostean, Bilbotik Arrasatera itzultzean, etxea errekisatuta zuten. Amandrea Koruetakoa zen (Goroeta, Aretxabaleta), eta hara joan zen familia guztia bizi izatera. Aita kartzelan zegoen. Patxik 21 urte bete zituen arte Goroetan bizi izan zen.

93. Goroeta eta Urkulu ingurua gerraostean (ARR-006/008)

Urkulu inguruko auzoen berri ematen du: Goroeta, Larrino, Aozaratza... Goroeta herri modukoa zen. Asko aldatu da. Sasoi hartan dena baserriak ziren. Labasua etxe guztietan, garia ereiten zen, trilak egiten ziren...

94. Gari-jotzeak eta larrainak (ARR-006/009)

Labasua etxe guztietan, garia ereiten zen, trilak egiten ziren... Baserri guztietan ereiten zen garia, eta larrainak egoten ziren baserri atarietan, garia joteko lekuak. Bekorotzarekin "korotznaixe" egiten zen, eta horrekin garbitzen zen larraina. Bertan egiten ziren gari-jotzeak. Trilua erabiltzen zen horretarako. Umeek bekorotzak batzen ibiltzen ziren. Garia jotzeko makinak gerora etorri ziren, Patxik 15-16 urte zituela. Pare bat klase ezagutu zituen. Hori aurrerapen handia izan zen, makinak egiten zuelako lanik gehiena: lastoa, garia eta alkotza banatu, garia ganbarara bidali, eta abar.

95. Goroetako eskola, maisu-etxea eta abadea (ARR-006/010)

Maistru-etxean bizi ziren. Goian bizi ziren, eta behean zegoen eskola, Goroeta auzoko eskola. Gerra aurretik maisua bizi zen bertan, baina erak ez zuen maisurik ezagutu; gerraostean abadea bera zen maisu lana egiten zuen, Don Boni. Kaskarreko ederrak ematen zituen, "e 'tzan iñor salbetan".

96. 10 urtez egunero bizikleta hartu eta eskolara Arrasateraino (ARR-006/011)

11 urte zituela aitak bizikleta erosi zion, eta Arrasatera hasi zen jaisten eskolara, fraideetara. Goizean herrira jaitsi, osaba-izeben etxean bazkaldu, eta iluntzean Goroetara berriro. Udan ondo, baina neguan komeriak: euriak, hotzak, eta arropa gehiegirik ez. Etxera orduko iluna. Bideak ere ez ziren gaur egungoak; malda handia, harriz eta arantzaz betea. "Holan ikasten da bizitzen!". Horrela 10 urtean, 11 urte zituenetik, 21 urte bete arte. "Larre motxian hazikuak!".

97. Txikitatik astoa hartu eta Arrasatera sagarrak saltzera (ARR-006/012)

Goroetako maisu-etxean bizi ziren. Sagarrak zituzten, eta Arrasaten saltzen zituzten. Astoa hartu eta herrira sagarrak saltzera.

98. Oporretan baserrira (ARR-006/013)

Udan 3-4 hilabete ez zen eskolarik egoten, eta "oporretan" amaren baserrira joaten zen, "Cuatrovientos"era, Aramaiora. Munduko parajerik onena zen beretzat hori. Osabekin jolasean, eta baserriko lanetan...

99. Igandeetan familia guztia elkartzen zen baserrian, eta jai handiak egiten zituzten (ARR-006/014)

Amandrea oso bertsozalea zen. Txirrita, Pedro Mari Otaño, Bilintx.. Denetik zekien, eta berekin hartu zuen bertsozaletasuna Patxik. Igandetan familia guztia elkartzen zen baserrian, osaba-izeba guztiak, eta sekulako jaiak izaten ziren beraienean.

100. Aretxabaletako tabernetan asko kantatzen zen (ARR-006/028)

Bere ustez, Goroeta inguruan gutxi kantatzen zen. Aretxabaletara jaisten hasi zenean, behin nagusiagoa zela, harritu egin zen Aretxabaletan asko abesten zelako. Euskal abestiak, eta abar. Tabernarik taberna.

101. 'Mendaro Txirristaka': bertsopaperak banatzen zituen kalean (ARR-006/030)

Mendaro Txirristaka ezizeneko gizon bat etortzen zen batzuetan Aretxabaletara. Bertsopaperak banatzen zituen kalean.

102. Lehenagoko ahozko transmisioa (ARR-007/001)

Bizimoduaren aldaketa. Lehenago ahozkotasunak zuen garrantzia. Afalostean, arrosarioa errezatu eta ipuinak kontatzen ziren.

103. Trapu zaharrekin egindako kopinak (panpinak) (ARR-007/002)

Umetan jolasik ez. Kopinak (panpinak) trapu zaharrekin egiten zituzten.

104. Garizuman txirikilarekin jolasten zuten (ARR-007/005)

Garizuman, txirikilarekin jolasten zuten. Jolasaren inguruko azalpenak.

105. 'Alebi-alebika' jolasa eta kanta (ARR-007/006)

Alebi-alebika. 'Alebi, txakurrak buztan bi...'.

106. Esnea saltzera, kalera; nesken hezkuntza (ARR-007/009)

Umetako bizimodua. Esnea saltzera Arrasatera joaten ziren goizetan asto gainean. Bedoñan, Sakristauarenera joaten ziren irakurtzen ikasi arte. Abadearekin dotrina ikasten zuten. Nesken hezkuntzak ez zuen garrantzi gehiegirik izaten.

107. Artazubiaga baserriaren historia (ARR-007/010)

Artazubiaga baserrian jaiotakoa da. Baserriaren historia kontatzen du. Artazubiagako kondearen nondik-norakoak.

108. Amak kontatutako ipuinak; bizimoduaren aldaketa (ARR-007/011)

Amak kontatzen zituen ipuinak; gauza asko galdu egin dira. Lehenagoko bizimodua eta oraingoa. Emakumeen egoera.

109. Ahozkotasuna; gurasoak kontalari finak (ARR-007/012)

Ahozkotasunaren garrantzia etxeetan. Aita eta ama biak ziren oso kontalariak; ama batez ere. Ama oso fededuna zen. Gurasoen mentalitatea.

110. Elizaren indarra gizartean; bederatziurrenak, pazkoakoa... (ARR-007/013)

Elizaren indarra gizartean. Astero-astero konfesatu beharra. "Nobenak", "Primer viernes"ak, etab. Garizuman fraideak etortzen ziren sermoiak ematera. "Pazkoakoa".

111. Abadeen sermoiak, gogorrak (ARR-007/014)

Erlijioaren inguruko kontuak. Mezara joatea derrigorrezkoa zen. Abadearen sermoiak, oso gogorrak. Diziplina handia.

112. Mezak; bezperak; sermoiak (ARR-007/015)

Igandeetan egiten zituzten lanak. Goizean goiz mezara joan eta ondoren kalera joaten ziren esnea banatzera; edo etxeko lanak egin behar; etab. Gurasoak meza nagusira joaten ziren. Mezak nolakoak izaten ziren. Igande arratsaldetan, "bezperak" egoten ziren. Sermoiak.

113. Elizaren indarra gizartean (ARR-007/017)

Elizaren indarra gizartean.

114. Elizaren indarra; auzoko baten kontuak (ARR-007/018)

Auzoko gizon baten inguruko kontua. Elizara ez joatearen inguruko kontuak.

115. Bizimoduaren aldaketa; elizarekin lotutako ohiturak (ARR-007/019)

Etxean entzundako ipuinak. Arimen inguruko pasadizoak. Aramaitako kanpaia entzun eta etxera joan behar izaten zuten. Aurreko belaunaldien bizimodua oraindik gogorragoa zen. Gurasoek ikusten zuten bizimodu-aldaketa.

116. Lehenagoko bizimoduaren inguruko kontuak (ARR-007/022)

Lehenagoko bizimoduaren inguruko azalpenak. Aitak egunkaria irakurtzen zuen. Oinetakoak, abarkak.

117. Lehenagoko bizimoduaren inguruko azalpenak (ARR-007/023)

Lehenagoko bizimoduaren inguruko azalpenak.

118. Sakristauanean ikasten zituztenak (ARR-007/024)

Sakristauanera joaten ziren irakurtzen ikastera. "Katona" ikasten zuten bertan. "Fleurixe" eta "manuskritue".

119. Eskolara oinez; bideen egoera (ARR-007/025)

Dotrina euskaraz ikasi zuen lehenengo; gerora erdaraz ere ikasi behar izan zuen. Bederatzi urtera arte Bedoñan ikasi zuen; harrezkero Arrasatera jaisten ziren oinez. Bideak nolakoak ziren.

120. Medikua auzo guztietara (ARR-007/026)

Aretxabaletako auzoak. Medikua auzo guztietara joaten zen.

121. Ume jaioberrien inguruko ohitura eta esaerak (ARR-007/027)

Haur jaioberria bataiatu gabe hiltzen bazen, "linbo"ra joaten zela esaten zuten abadeek. Emakumeak umea izan orduko etxekoek bataiatzera eramaten zuten.

122. Sinesmenak: elizakoak eramatea, konjurua... (ARR-007/028)

Hiltzen zegoen gaixoaren etxera abadea joaten zen azken bedeinkazioa ematera, elizakoak eramatera. Kanpai desberdinak. Baserrietan konjurua ere egiten zuen abadeak, soroak bedeinkatzeko.

123. Olatak hilerrietara (ARR-007/029)

Animako igandeetan olata eramaten zen hilerrietara.

124. Hilarriak eta hauen inguruko ohitura zaharrak (ARR-007/031)

Hilarriak nolakoak ziren; ohitura zaharrak.

125. Hildakoen inguruko ohitura zaharrak (ARR-007/032)

Hildakoen inguruko ohitura zaharrak.

126. Baserriko bizimodua; abereen inguruko azalpenak (ARR-007/033)

Baserritarrak kalean nola ikusita zeuden. Baserriko bizimodua; abereen inguruko azalpenak. Hezkuntza.

127. Aitak bizitzaz zuen ikuspegia; elizaren indarra (ARR-007/034)

Aitaren pentsaera; bizimoduaz zuen ikuspegia. Erlijioaren, abadearen indarra.

128. Elizakoak; arima salbatzea (ARR-008/001)

Elizakoak. Pertsona bat oso gaixorik zegoenean, abadea etxera joan eta gure Jauna ematen zion. Kandelak; jendea belauniko... Garai batean abadeari izaten zitzaion errespetua. Arima salbatzearen garrantzia.

129. Bataioaren garrantzia (ARR-008/002)

Bataioaren garrantzia. Jaioberriaren ama ez zen bataiora joaten; inudeak eramaten zuen. Aita puntako eta ama puntako zeintzuk izaten ziren. Berrogeialdia pasa eta ama-haurrak elizara joan behar ziren; abadeak bekatua kentzen zion amari. Umea izan eta hurrengo 40 egunetan emakumea ez zen teilapetik irten behar.

130. Umetako jolasak (ARR-008/004)

Umetako jolasak: tortoloska; txorro-morroka. Neskak eta mutilak elkarrekin jolasean, baina gehiegi gerturatu gabe.

131. Eskola kontuak (ARR-008/005)

Eskolan, neskak alde batean eta mutilak bestean. Umekeriak. Abadearen haserreak eta zigorrak.

132. Umetako jolasak (ARR-008/006)

Umetako jolasak. Kopinekin jolasten zuten.

133. Umetako jolasak (ARR-008/007)

Goiti-beherak. Asto-gainean. Zuhaitz-gainetara ere igotzen ziren.

134. Tortolosak (ARR-008/009)

Tortoloska zelan egiten zuten.

135. 'Atxia-motxia' jolasa eta kanta II (ARR-008/013)

'Atxia-motxia' kanta zenbat urterekin abesten zuten.

136. Izotz-garrangekin jolasean (ARR-008/039)

Umetako kontuak. Neguak gogorrak izaten ziren. Izotz-garrangak eta "xirixolak" urtero-urtero egoten ziren baserrian.

137. Gabonak (ARR-008/040)

Gabonak nola ospatzen zituzten. Kapoia, turroiak, konpota... Gariak erein eta "galafaria" egiten zen. Erregenetan behar ziren gauzak oparitzen zizkieten. Orduan ez zuten kantatzen Gabonetan.

138. Biografia; eskola kontuak (ARR-009/001)

1943-06-16an jaiotakoa Koruetan, Aretxabaletan. Anai-arrebak. Hasieran maistro-etxean bizi ziren. Eraikin berdinean zegoen eskola. Gerora eskola berria egin zen. Eskola kontuak: mahaiak nolakoak, abadea; gurutzea; Francoren argazkia; e.a. Dotrina euskaraz ikasten zuten.

139. Eskolako ordutegia; gizartearen aldaketa (ARR-009/003)

Eskolako ordutegia. Gaurko egoerarekin alderatzen du orduko bizimodua. Etxeko giroa; e.a.

140. Abadea izaten zen irakasle (ARR-009/004)

Abadeak egiten zituen irakasle lanak. Tabakoa erretzen zuen; kuarteroiak.

141. Don Tomas medikua; parterak (ARR-009/005)

Auto gutxi pasatzen ziren bertatik. "Letxeroak" zuen kotxea. Don Tomas medikuak Sidecar-a zuen. Praktikanteak emagin lana ere egiten zuen. Hark Guzzi markako motoa omen zuen.

142. Elizaren indarra gizartean; erlijioarekin lotutako ohiturak (ARR-009/006)

Elizak zeharo egituratzen zituen guztien bizitzak. Udaberrian misioak izaten ziren. Orduan ikasitako kanta. Emakumeak, "lau orrixen ikeraz". Umeentzat ere egoten ziren misioak. Garizuma; Pazkoa eguna; Pazkoakoa. Eliza garbitzea.

143. Etxeko garbiketa lanak (ARR-009/007)

Etxeko garbiketa lanak.

144. Koruetako eliza; hilarriak (ARR-009/008)

Koruetako eliza. Hilarriak. Erresponsoa. Ohitura zaharrak. Manta beltza; argizaria; Hilarriak nolakoak ziren. Elizan nola esertzen ziren.

145. Meza; liturgiak zuen eragina (ARR-009/009)

Meza nola ematen zuen abadeak. Monagiloek ikasten zituzten errezoak. Liturgiak zuen eragina. Esaerak.

146. Garizuman gurutz-bidea egiten zen (ARR-009/010)

Elizan gurutz-bidea egiten zen Garizuman.

147. Santixauak, herriko jaiak (ARR-009/011)

Uda garaian, herriko jaiak izaten ziren, Santixauak. Erromeria izaten zuten auzoan. Soinujolea. Karameleroa.

148. Jaioberriei gatza botatzen zitzaien ahora (ARR-009/012)

Auzoaren inguruko azalpenak. Baserri batzuk oso urrun geratzen ziren. Bataioak. Ohitura zaharrak. Jaioberriari gatza botatzen zitzaion ahora, "la sal de la vida".

149. Umeen jaiotzaren inguruko dena sekretua (ARR-009/013)

Noiz konturatzen ziren umeak nola jaiotzen ziren. Gai honen inguruko guztia sekretua izaten zen.

150. Hiletak Koruetan (ARR-009/014)

Hileta-elizkizunak nolakoak izaten ziren Koruetan. Hildakoa mortajarekin; bulak.

151. Elizakoak eramatearen inguruko ohiturak (ARR-009/015)

Elizakoak. "Untziñuek". Auzoko bati elizakoak eramaten zizkionean abadeak, baserri bakoitzetik pertsona bat joaten zen kandelarekin gaixoaren etxera. Arrosarioa latinez. Elizaren eragina.

152. Don Bonifacio Arenaza abade eta maisua (ARR-009/016)

Don Bonifacio Arenaza, abade eta maisua. Lehen jaunartzeko argazkia. Eskolan jaiegunak noiz izaten ziren. Zapatuetan ere eskola izaten zuten. Arantzazura erromes oinez.

153. Eskolan dena gaztelaniaz (ARR-009/017)

Jatorriz Koruetarra izan arren, 11 urterekin Arrasatera joan ziren bizi izatera. Eskola kontuak. Klaustroetan lehenik; Viteriren eskoletan gero. Zer ikasten zuten. Dena erdaraz ikasi beharra; beraien artean ere ezin euskaraz hitz egin. Euskaraz hitz egitearren ez zuten zigorrik izaten Merzedarietan.

154. Gizartean zer baloratzen zen; gizartearen aldaketa (ARR-009/018)

Koruetako eskolan gehiago ikasi zuela uste du. Gizarte baloreak: emakumeak nolakoak izan behar ziren; zer jakin behar zuten; e.a. Gizartea erabat aldatu da.

155. Umetako kantak gaztelaniaz (ARR-009/019)

Umetako kanta guztiak erdarazkoak izaten ziren.

156. Abere bakoitzaren "umeske" garaiko izena (ARR-010/001)

Abere bakoitzaren "umeske" egoteari nola esaten zaion azaltzen du: susa, alta, arkera, etab.

157. Umetatik txorietarako zaletasuna (ARR-010/003)

Umetatik sortu zitzaion txorienganako zaletasuna, aitonak haien inguruko istorioak kontatu ohi zizkion. 15 urterekin lehenengo txoria harrapatu eta kaiolan nola jarri zuen azaltzen du, "kardantxiloa".

158. Kardantxilo harrapaketa (ARR-010/004)

Arrasatera bizitzera joan zenean, kanario bat erosi zuen. Anekdota bat aipatzen du. Udaberrian Bedoñako gainera joan eta kardantxiloak harrapatzen aritzen zen sarearekin.

159. "Zinbela", txoriak harrapatzeko tresna (ARR-010/005)

Kardantxiloekin erabiltzen den "zinbela" zer den azaltzen du.

160. "Larra-txoria"ren inguruko kontuak (ARR-010/006)

"Larra-txoria"rekin Muru mendian pasatakoa.

161. 22 kardantxilo harrapatu (ARR-010/009)

Domu Santu egun batez Bedoñara joan eta 22 kardantxilo harrapatu zituenekoa.

162. Txori harrapaketa sarearekin (ARR-010/010)

Sarez nola egiten den harrapaketa azaltzen du.

163. Karrantxaren inguruko azalpenak (ARR-010/011)

Karrantxa zer den azaltzen du.

164. Amuarrainetan errekan (ARR-010/013)

Gaztea zela errekara joan eta amuarrainak harrapatzen aritzen ziren igandeetan meza ondorenean. Errekaren kokalekua aipatzen du. Behin aingira bat harrapatu zutela kontatzen du.

165. Akiso baserrian jaiotakoa (ARR-012/001)

Jatorria. 1921ean jaiotakoa, Akiso baserrian. Baserriaren inguruko aipamenak. Ama antzuolarra zen, Agirre lehendakariaren lehengusina.

166. Gurasoak Antzuolatik Arrasatera joandakoak (ARR-012/002)

Amaren gurasoak, Antzuolatik Arrasatera joan ziren bizitzera eta ama bertan hazitakoa zen. Akisora ezkondu eta bertan baserriko kontuetaz arduratzen hasi zen. Aitaren jatorria. Miren Donostian egon zen garai batean, baina baserrira itzuli zen. Baserriko lanak, gogorrak. Familia kontuak.

167. Eskolan hiru auzotako neska-mutilak elkarrekin (ARR-012/003)

Eskolaren inguruko kontuak. Euskaraz hitz egitea debekatuta zuten; erdaraz ikasi beharra. Maisua Aretxabaletako baserri batekoa zen. Arrasateko udaletik inspekzioa. Hiru auzotako umeak ibiltzen ziren elkarrekin: Uribarri eta Santa Agedakoak ere beraiekin. Urteetara neskendako eskola egin zuten.

168. Eskolan hiru auzotako neska-mutilak elkarrekin (ARR-012/005)

Eskolan ume guztiak elkarrekin; baina neskak eta mutilak banatuta jartzen ziren.

169. Eskolako lagunak (ARR-012/008)

Neskak eta mutilak batera jolasten zuten. Eskolako lagunak, bereziak.

170. Aita bertsozalea (ARR-012/031)

Aitari bertsotan egitea asko gustatzen zitzaion.

171. Gabonak familia giroan (ARR-012/038)

Gabonak familia giroan. Jaiotza; erregaloak; turroia; etab. Errege Eguna ospatzen zen, baina Olentzerorik ez. Urteberri egunean, elizako kantak abesten zituzten.

172. Inguruko auzoetakoak batera eskolara (ARR-015/006)

Eskola kontuak. Auzo-eskolara 6 urterekin joaten ziren. Neska-mutilak elkarrekin. Garagartza, Santa Ageda, Udala eta inguruko beste auzo batzuetako umeak joaten ziren bertara. Maisua nolakoa zen. Jolas orduan ere banatuta neska-mutilak.

173. Neskak eta mutilak eskola desberdinetara (ARR-015/007)

Neska-mutilek ez zuten ia harremanik izaten eskolan. Gerra aurrean Garagartza eta Santa Agedarako beste eskola bat egin zuten. Hortara, neskak eta mutilak eskola desberdinetara joaten hasi ziren. Klaseak erdaraz izaten ziren. Zigorrak.

174. Gerra ostean eskolan abesten zituztenak (ARR-015/008)

Gerra ostean, Cara al Sol, Gloria, Por Dios por la patria... ikasi zituzten. Eskua altzatuta eta zutik abestu behar izaten zituzten.

175. 12-13 urterekin dibujo lineala ikastera (ARR-015/010)

15 urte zituenean, bere adineko mutilak Arrasatera joaten ziren ikasten jarraitzera. Joxe 12-13 urterekin dibujo lineal ikastera joan zen. 14 urterekin lantegira sartu zen.

176. Teodora Garagartzako eskolara (ARR-015/012)

Teodora Ugarte Orue. Santa Agedan hasi zen eskolan. Urbana izan zen bere lehenengo maistra. Garagartza eta Uribarri auzokoak ere bertan ibiltzen ziren. 14-15 urterekin eskola amaitu zuen.

177. Aita lantegira eta bera baserriko lanetan (ARR-015/013)

Baserriko bizimodua. Aitak fabrikan lan egiten zuen eta berak egiten zituen baserriko lan gehienak. Bi ahizpa 18 urterekin Fagorren hasi ziren lanean; beste batek josten ikasi zuen.

178. Garagartza eta Santa Ageda auzokoen arteko pikeak (ARR-015/014)

Auzoen arteko haserreak; Garagartza eta Santa Agedakoen artekoen harremana.

179. Garagartza eta Santa Ageda auzokoen arteko pikeak (ARR-015/015)

Garagartza eta Santa Agedakoen artekoen harremana ez zen batere ona. Egoera horren arrazoiak zeintzuk izan zitezkeen. Santa Agedan moja eta fraide asko zeuden. Santa Agedakoak kultura, musika kontuetan adituagoak. Gehienak lantegietan lan egiten zuten. Garagartzakoak berriz, baserriko jendea zen batez ere.

180. Denek ontzi batetik jaten zuten baserrian (ARR-015/016)

Garotara baba-lapikoarekin Pilar egunean. Baserrian erditik (ontzi batetik) jatea ezagutu dute.

181. Baserrian egunero babak bazkaltzeko (ARR-015/017)

Jatekoa baserrian. Baba gorriak aste guztian. Igandetan, garbantzuak.

182. Sarri baserriko lanengatik eskolara joan ezin (ARR-015/018)

Encarna Orobengoa Orue. Eskola kontuak. Irakasleak: Urbana eta Isabel. Maistra nolakoa zen; zigorrak. Neska asko gela bakoitzean. Sarritan baserriko lanak egiten behar izaten zituzten eta eskolara joan ezin. Garotara edo egurretara nora joaten zen. Aita lantegian hasi zen lanean. Anai-arreba gazteagoek eskola gehiago izan zuten.

183. Baserriko lanak egin bitartean abestu egiten zuten (ARR-015/019)

Baserriko lanak egiten zituzten bitartean, askotan elizako kantak abesten zituzten. "Magnifica"; "Atoz pekataria".

184. Basora lanera joaten zireneko menua (ARR-015/020)

Basora lanera joaten zirenean, porru-patatak eraman eta ondoren perretxikoak batu eta erreta jaten zituzten. Pago-sail handiak.

185. Aitajaunarekin harremana (ARR-015/021)

Umetan amandrearekin egoten ziren. Aitajaunarekin harremana oso ona zen. Ogia tostatu eta gainetik azukrea botatzen zion.

186. Aitajaunaren aitak Santa Kurutz apaizarekin harremana (ARR-015/022)

Aitajaunaren aitak Santa Kurutz apaizarekin harreman estua izan zuen. Orduko kontuak aipatzen ditu. Gaitzizena "Karraskaintxo" zuen.

187. Eskolako kontuak; zigorrak (ARR-015/036)

Eskola kontuak; maisua oso gogorra zen. Zigorrak.

188. Kartetan, tortoloska; mezak eta bezperak (ARR-015/037)

Kartetan jende nagusiak egiten zuen gehiago. Tortoloska. Igandetan 7:00etarako mezara joan behar izaten ziren. Bezperak. Etxe-garbiketa. Lan-baldintzak.

189. Emakumeen lana baserrian (ARR-016/005)

Antzinako bizimodua. Auzoko emakumeak errekan garbitzen zuten arropa. "Pujetie". Ehunezko izarak. Baserriko lanen banaketa emakumearen eta gizonaren artean.

190. Arrasateko kaleak (ARR-017/002)

Arrasateko kaleak; alde zaharra: Iturrioz, Erdiko kale eta Sorgin kale (edo Ferrerias).

191. Kanpai-klaseak: letxuga-kanpaia, aramaitakoa, su-kanpaia... (ARR-017/014)

"Letxuga kanpaia" (maiatzaren 3tik irailaren 14ra arte), eguerdian izaten zen. Albakoa (40 kanpai); angelusa; aramaitakoa. Agonia kanpaia. Su-kanpaia; trumoi-kanpaia. Kanpaien doinuarekin bizi ziren lehenagoko belaunaldiak.

192. Umeak beldurtzeko Sakamantekasen ipuina (ARR-017/030)

Umeak beldurtzeko, "Sakamantekas" en ipuina kontatzen zen.

193. Urtea kantu eta jaien arabera antolatuta (ARR-017/035)

Amak kanturako zaletasun handia. Urtea jaien eta kantuen arabera antolatzen zen. Santa Ageda; garizumako kantuak; maiatzean Ama Birjinaren abestiak; ekainean San Juanak; San Ignazio; San Nikolas; Gabonetako kantak; etab.

194. Araozko biztanleen inguruko kontuak (ARR-018/031)

Araozko biztanleen inguruko kontuak.

195. Araozko biztanleen inguruko kontuak (ARR-018/034)

Araozko biztanleen inguruko kontuak.

196. Ume-berbeta (ARR-018/045)

Ume-berbeta. "Tilin-talan"; "Xigua"; "Mixi"...

197. Ume-berbeta (ARR-018/046)

Ume-berbeta. "kukurruku"; "Purra"...

198. Euskararen egoera Frankismo garaian (ARR-018/051)

Euskararen egoera Frankismo garaian. Beraien belaunaldiko neska-mutilek erdaraz ikasi behar izan zuten.

199. Jatorria; familia handiak baserrietan (ARR-019/001)

Aramaion jaiotakoa, Azkoaga (?) auzoan, 1946ko uztailaren 1ean. Familia giroa nolakoa zen. 11 anai-arreba; inguruko baserrietan ere ume asko.

200. Umetako bizimodua baserrian: jolasak; lana (ARR-019/002)

Umetako jolasak: saltoka, harrapaketan, pote-poteka. Baserriko lanetan lagundu behar. Udazkeneko lanak: arbia, erremolatxa, garo-batzea...

201. Baserriko ekonomia; inguruko herrietara esne-saltzen (ARR-019/004)

Aramaion bazegoen pertsona bat baserriz baserri joan eta esnea batzen zuena; gero Arrasatera eramaten zuen bildutako esne guztia. Etxaguen auzokoak Otxandiora, Abadiñora joaten ziren baserriko produktuak saltzera. Baserriko ekonomia.

202. Neska-mutilak elkarrekin eskolan; baserriko vs kaleko umeak (ARR-019/006)

Eskola kontuak. Bere garaian, eskolara joatea barneratuagoa. Kaleko, baserriko umeak. Kalekoak beti hobetotxuago prestatuta. Adin desberdinetako umeak, neska-mutilak, guztiak elkarrekin.

203. Pote-poteka nola egiten zuten (ARR-019/009)

Urtaro guztietan, pote-poteka. Jolasaren azalpena.

204. Tortolosetan nola egiten zuten (ARR-019/011)

"Asakasak". Sei behar izaten ziren jolastu ahal izateko. Kanika bat ere beharrezkoa. Jolasaren azalpena. "Asakas", "pones", "kukus", "carnes", tortolosen alde desberdinen izenak. .

205. Tortolosak edo asakasak nolakoak ziren (ARR-019/013)

"Asakasak" ateratzen ditu eta jolasaren inguruko azalpenak ematen ditu.

206. Garizuman, tortolosekin jolasten zuten (ARR-019/014)

"Asakasak", garizumako jolasa. Non jolasten zuten.

207. Txirikilia eta txikola; jolasaren azalpena (ARR-019/015)

Garizuman, txikolan egiten zuten. Txikolan eta txirikilan. Bi makila erabiltzen ziren, bata handia eta bestea txikia; punta zorrozduna, "txikola" izaten zen. Jolasaren azalpena. Bi jolas desberdin egiten ziren txirikilarekin.

208. Txirikilarekin nola jolasten zuten (ARR-019/016)

Txirikila. Jolasaren azalpena.

209. Dotrina ongi ikastearen garrantzia (ARR-019/037)

Eskolatik irten eta egunero dotrinara joan behar izaten ziren. Abesti asko ikasten zituzten bertan. 14 urtera arte dotrinara joaten ziren. Jaunartzerako oso ongi prestatuta egon behar ziren.

210. Santo Tomasetako erromeria (ARR-021/001)

Bidea egin zutenekoa eta inguruko eraikuntza eta tokien aldaketa. Jardin batean irudi bat nola zegoen eta Santo Tomasetan erromeria eta ganadu feria nola egiten zen bertan azaltzen du. Erromeriara joan eta tabernara sartu ziren batekoa; neskak ez ziren tabernetara sartzen.

211. San Andres eta Santa Ageda auzoak (ARR-021/002)

San Andres auzoa, zerra, dendak, etab. Santa Ageda inguruko baserri, errota, etab. Lehengo eta gaurko kale eta eraikuntzen aldaketa.

212. Erromeriatik etxera hamarretarako (ARR-021/003)

Gazteak zirela erromeriara dantzara joaten ziren eta pieza batetik bestera pasiatzera joaten ziren estazio aldera. Gaueko 10etarako etxeratzen ziren.

213. San Juanetako erromeria eta sokamuturra (ARR-021/005)

San Juan bezperan, sua egiten zuten, eta belar batzuk bildu eta bedeinkatu, behiren batek errapea gogortua zuenean igurzteko. Sua plazan egiten zen eta 3 eguneko jaia izaten zen; erromeria, musika-banda eta sokamuturra izaten ziren, besteak beste. Sokamuturrean zezenarekin gertatutako anekdota bat.

214. Aramaion zeudela hasi zen gerra (ARR-021/006)

Erromeriak aipatzen ditu, Santa Ageda egunekoa, Santo Tomasak, Urkiolako eguna... Santa Marina egunez, aitaren jaiotetxera joaten ziren Aramaiora. Hara joandako urte batean, gerra nola atera zen eta basabidean oinez nola bueltatu ziren kontatzen du.

215. Gerra denborako pasadizoak (ARR-021/007)

Gerra atera zenean, soldaduak heldu bitartean, gorriak egon ziren; eta erosketak egitera Arrasatera joaten zirenei, "salvoconducto" deiturikoa eskatzen zieten. Gerra denboran pasatako estutasun eta pasadizoak aipatzen ditu.

216. Gerra, soldaduak, tiroketak... (ARR-021/008)

Gerra denboran, etxea utzi eta Amerikanoen etxera joan ziren ihesi. Soldaduak etxe ondoan ikusi zituztenekoa eta aitari eskopeta eskatu ziotenekoa kontatzen du; eskopeta entregatu eta etxera bueltatzen utzi zieten. Soldaduek egin zuten bidea azaltzen du; tiroketetan harrapatutako baserriak eta hildako jendea izendatzen ditu.

217. Tiroketa garaian, auzotarrak elkartuta ezkutuan (ARR-021/011)

Askotan suertatu ziren tiroketen erdian, baina sekula ez zen etxeko inor zauritu. Auzokoekin batera non ezkutatzen ziren aipatzen du.

218. Gurdiarekin jolasean: "Kukurruku" (ARR-035/003)

Gurdira, kabitzen ziren umeak, 6 edo 8 bat, igotzen ziren eta endaitzera edo pertikara (gurdiek aurrealdean, bertan abereak lotzeko, duten haga luzea) ume bakarra. Gurdian zeudenek pisu gehiago zutenez, endaitzean zegoen umea altxatu egiten zuten. Goikoek, orduan, behekoei oihu egiten zieten: "Kukurruku". Gurdian zeudenek erantzun: "Zer behar duzu?". Pertikan zegoenak nahi zuena erantzuteko aukera zuen: adibidez "Txokolatea". Gurdikoak: "Norentzako?" Pertikakoak, gurdian zegoen ume baten izena esan behar zuen. Izena esandakoan, gurdiko ume guztiak gurditik jaitsi, eta, pisurik ez zegoenez, pertika gainean zegoena beheratu egiten zen. Izena esandako umea zen endaitzera igotzeko hurrengoa. Gurasoek debekatu egiten zieten jolas hau arriskutsua zelako eta ezkutuan ibiltzen ziren. Gurasoen aurrean

antzerako jolas bat egiten zuten, baina, gurdia erabili beharrean, zuhaitzetako enborrak erabiltzen zituzten. Auzoko ume guztiek elkarrekin jolasten zuten, adin desberdinetakoak nahasturik.

219. Ume txikiekin altzoan (ARR-035/004)

Mantarreko umeekin (ume txikiekin) egiteko erabiltzen zen jolas hau. Umea altzoan hartuta, hankak gurutzatzen zitzaizkion abesti baten doinuan: "Txakolin, txakolin, txakolinak on egin...". Abestiaren jatorriaren inguruko azalpenak ere eskaintzen ditu.

220. "Txalo pintxalo" (ARR-035/005)

Txalo eragiteko kantua: "Txalo pintxalo..."

221. Altzoan egiteko kanta: "Kukurruku, zer duzu?..." (ARR-035/007)

Amagandik zuzenean jasotako abestia. Umea altzoan hartuta, helduak umea aurrera eta atzera mugitzen zuen abesti bat kantatuz: "Kukurruku. Zer duzu? Buruan min..."

222. Kaka nork egin duen salatzen duten haur-kantak (ARR-035/010)

Kaka usaina sumatu zutela adierazteko abestiak erabiltzen zituzten: "Maringo landetan, kukua kantetan.." eta "Ai Miguel, Miguel, errotapean..." . Abestietan ez zen zuzenean izenik aipatzen, baina kaka zeukana harrapatuta zegoela konturatzen zen.

223. Umetan gertatutako anekdota (ARR-035/013)

Begoren auzoan ohitura handia zegoen belarrietatik oratu eta gora jasotzeko. Behin, auzoko batek jaso zuenean, esan zion itsasoa ikusiko zuela, eta bera ahalegin guztiak egiten ibili zen.

224. Gabonetako kantak (ARR-035/015)

Gabonetan abesten zituzten kantak: "Gabon Gabonetan..." eta urtebarri egunean: "Urtebarri, barri...". Erregetan: "Errege, Errege..."

225. Urdelardero eguna (ARR-035/016)

Eskoriatzan berreskuratu egin da euren gurasoen eta euren gazte denboretako ohitura zaharra: Urdelardero Eguna. "Eguen Gizen" edo "Eguen Zuri" (Ostegun Gizen) egunean umeak eskean ateratzen dira bakoitza ziri luze batekin. Zirian, txorizo zati bat, ogi zati bat eta urdai zati bat sartzen dira. Gaur egun umeak auzoetara joaten dira eskean abesti bat kantatuz: "Urdeilardero, urdeixe janda bazkaixa gero..."

226. San Nikolas eguna (ARR-035/017)

Umetan Arrasaten ikasten zuenean urtero San Nikolas eguna ospatzen zuten. San Nikolas eguneko abestia gogoratzen dute.

227. San Joan suaren inguruan kantatzen (ARR-035/019)

San Juan suaren inguruan abesten zuten kantua: "San Juan, San Juan, arraultza bi kolkuan..." Eskoriatzan, baserri bakoitzak bere sua egiten zuen. Gainera, baserri bakoitzak bere belar santuak zituen sutara bota eta

erretzeko. Elorrion, aldiz, auzoka egiten zen San Juan sua. Egun guztian zehar gauzak batzen egoten ziren ahalik eta su handiena egiteko.

228. Marigorringoari kantatzen zitzaiona (ARR-035/021)

Amona mantangorri edo marigorringoarekin egiten zuten jolasa. Marigorringoa esku gainean jarrita galdetzen zioten: "Marigorringo, zurigorringo, bihar zer egingo? Euria ala eguzki egingo?" Marigorringoak hegan egiten bazuen eguzkia egingo zuela esaten zen eta aldiz, inora joan gabe eskuan gelditzen bazen, euria.

229. Eskutik helduta kantatzeko kanta (ARR-035/023)

Kalera edo beste lekuren batera joan behar zenean kantatzen zuten abestia. Eskutik helduta, ilaran joaten ziren pertsona bat aurretik zela abesten: "Goazen, goazen baratzera..."

230. Zotz egiteko kantak (ARR-035/025)

Zotz egiteko eta banatzeko erabiltzen zituzten abestiak: "Dona, dona, katona. Sutondoan aitona..." eta "Don, don Kikilikon, hortxe dator don Ramon...".

231. "Pagoka" jolasa (ARR-035/027)

"Pagoka" jolasa. Taldean jolasten zen. Talde guztia ezkutatu egiten zen eta bat gelditzen zen. Gelditzen zenak kontatu egiten zuen eta besteak ezkutatu egiten ziren bien bitartean.

232. Zotz egiteko kanta: "Arriola, marriola..." (ARR-035/028)

Banatzeko edo zotz egiteko erabiltzen zuten beste kanta bat: "Arriola, marriola, orratza zorrotza..."

233. "Rekuerdoa"-k nola egiten zituzten (ARR-035/030)

"Rekuerdoa" edo oroimena. Udaberri sasoian egiten zuten batez ere. Lurra pixka bat baztertzen zuten eta egindako zuloan loreekin koadro bat egiten zuten; gero, koadroa kristal batekin estali eta lurra jartzen zuten berriro ere gainean. Handik astebetera edo, bakoitza bere "rekuerdoa"ren bila joaten ziren.

234. "Ainkes" jolasa (ARR-035/031)

"Ainkes" jolasa. Lur zati bat lehiakideen artean banatzen zen. Iltze handi baten antzeko burni zatia bota eta hura lurrean sartu behar zen. Ondo sartzen zuena lur-zati haren jabe egiten zen eta lur-zati handienarekin geratzen zenak irabazten zuen.

235. Orratzekin egiten zuten jolasa (ARR-035/033)

Orratzarekin egiten zuten jolasa.

236. Kromoak gordetzeko kaxak: "subekajia" (ARR-035/034)

Kromoak gordetzeko kaxak: "subekajia". Kromotan ere jolasten zuten. Kromoak ahuspez edo beherantz begira jartzen ziren eta gero eskuarekin buelta eman behar zitzaion. Buelta emandako kromoak irabazi egiten ziren.

237. Tortolosen inguruko azalpenak (ARR-035/035)

Tortolos batzuk ardiarenak ziren eta beste batzuk ahariarenak. Ahariarenak gogorragoak ziren eta hobeak. Tortolosak nolakoak ziren probatzeko haginen kontra kolpatzen zituzten. Tortolosak azazkalak margotzeko esmaltearekin margotzen zituzten.

238. "Txorro, morro..." mutilen jolasa (ARR-035/037)

"Txorro, morro, piku, kaio, ke". Garai batean mutilen jolasa izan zen neskek debekatuta baitzuten.

239. Neskek eta mutilek entretenimendu desberdinak (ARR-035/038)

Nesken eta mutilen jolasak egoten ziren. Neskek eta mutilek aparte jolasten zuten eta aparte ibiltzen ziren eskolan. Mutilek baloia eta pilota asko. Mutilak errekara joaten ziren eta neskak ez. Mutil guztiek igeri egiten zekiten eta neskek ez. Neskek inbidia ederra pasatzen zuten; desiratzen egoten ziren, baina ezin.

240. Bizkarrean eramatea: "arreburritxiko" (ARR-035/040)

Bizkarrean eramatea: "arreburritxiko".

241. "Txintxaunean" (ARR-035/042)

"Txintxaunean". Eurek egindako "txintxaun"etan ibiltzen ziren. Soka batekin eta zaku bat jarrita egiten zituzten, zuhaitzen adar baten edo habepetik pasatuta.

242. Txorokilekin jolasean (ARR-035/043)

Helduek artaburuak urkuldu edo aletzen zituzten beheko suaren inguruan. Artaburua guztiz garbitzen zenean, hau da, hostoak, bizarrak eta aleak kentzen zitzaizkionean, txorokila gelditzen zen. Umeek txorokilekin asko jolasten zuten: etxeak, mendiak, dorreak, eta hainbat gauza egiten zituzten.

243. Imajinazioa landuz, inguruko edozerekin jolasean (ARR-035/044)

Lehen panpinak kartoizkoak izaten ziren. Umetan zerekin jolasten zuten: "muñekak" (panpinak) eta "katxarrotxuak"; zapatei lustrea emateko kaxak ziren euren lapikotxoak. Belarrak ere jateko desberdinak izan ohi ziren eurentzat. Inguruan zeuden baliabideak eta imajinazio handia erabiltzen zuten jolasteko.

244. Gaztainekin egindako koroa eta soinekoak (ARR-035/046)

Gaztaina orriak erabiltzen zituzten koroak eta soinekoak egiteko. Gaztaina orria zabala zen eta zotz batzuekin lotzen zituzten. Loreekin lepokoak egiten zituzten. Sasiko marrubiak belar baten sartzen zituzten eta behin belarra beteta zegoenean, denak batera ahora eraman eta jan egiten zituzten.

245. Ume-berbeta animaliekin; ardiei abesteko kanta (ARR-035/050)

Umeen berbeta animaliekin: txakurra "toto", katua "mitxina", ardikumeari "bekerekea". Artalde bat ikusten zutenean abesten zuten: "Bekereke, ahuntzak umia jango nauke".

246. Aho-korapiloa (ARR-035/053)

Aho-korapiloa: "Neskatilla, maratilla, ipurdixan korapilla".

247. San Nikolas batzea (ARR-040/006)

San Nikolas batzean ere baserritar eta kaletarrak aparte joaten ziren. Egun honetako pasadizo batzuk kontatzen ditu.

248. "Piperrak" eskolan (ARR-040/007)

Eskolara gutxitan joaten zen. Batzuetan etxean lana zegoelako eta bestetan "piper" eginda. Severo Altubeko eskolan, don Martin Calvo maisuarekin bi urtean ikasi zuen Bixentek berak daukan eskola guztia. Maisua hil zen eta bera hamabi urterekin etxean geratu zen. Bere aurreko belaunaldikoek, Arano izeneko maisu famatu batekin ikasitakoek, ordea, beraiek baino eskola gehiago zutela dio Bixentek.

249. Lantegitik landetxera (ARR-040/009)

Lantegian hamar urte besterik ez zituen egin lanean, lantegikoari esklabotza mota bat zeritzon eta. Bizi guztia eman du baserrian eta ardiekin. Bere jaiotetxera ezkondu zen. Arangurenen ez zuten ikusten etorkizunik eta gaur bizi diren baserria erosi zuten. Autobiak jan zituen Arangurenen lur-sail gehienak. Gaur egun, artaldeaz gain, turismo landetxea dute erosi zuten baserrian.

250. Lehen saltzen zirenak orain ezin saldu (ARR-040/011)

Barazki, txorizo, gazta eta ogia saltzen zituzten plazan. Horietako gauza batzuk ezin dira lege barruan saldu orain, egun seinalatu batzuetan izan ezik. Egun batzuetan bai eta beste batzuetan baimenik ez izateari ez deritzo bidezkoa Bixentek. Beraiek lau azokatara joaten ziren astean, eta badakite bezeroek ez dutela iruzurrik onartzen.

251. Ohitura aldaketa jatekoan (ARR-040/012)

Auzoan, Arrasaten, Oñatin eta landara garaian Gasteizen saltzen zituzten etxeko gauzak. Baina gaur jendeak erosotasunera jotzen du eta prestatutako gauzak izaten ditu nahiago ortutik zuzenean datozenak baino. Jateko ohiturak asko aldatu direla dio Bixentek.

252. Artzainek txantxetarako parada (ARR-040/018)

Ardiak jeztetik berandu etorriz gero lagunen txantxak jasan behar izaten zituzten. Beste pasadizo batzuk.

253. Artilezko abarka-sokak; haria (ARR-040/022)

Artilezko abarka-sokak nola egiten diren azaltzen du Bixentek. Haria nola egiten den, berriz, erakutsi egiten digu.

254. Sua belartegian (ARR-042/001)

Etxeko belartegiak su hartu zuen, baina lortu zuten itzaltzea. Horren ondorioz elektrizitatea kendu zuten belartegitik.

255. Santa Agedako gaixoak tripa-truke lanean (ARR-042/007)

Tripa-truke egiten zuten lan Santa Agedako gaixoek baserrietan. Etxean eta etxekoekin bazkaltzea besterik ez zuten eskatzen, eta tabako apur bat. Gaixo gehienak alkoholikoak ziren. Baserrietako oinordetza eskubideak galdu eragiteko ere eramaten omen zituzten batzuk, gezurrezko aitzakiaz. Enuzketa baserrikoek ikusi izan dituzte gaixoak goseak edota zigor latzak jasaten.

256. Gerraosteko Santa Ageda (ARR-042/011)

Lehenago harreman handia izaten zuten Santa Agedako gaixoekin, batez ere baserrira lanera etortzen zirelako. Orain, ordea, gaixoak askoz ere gazteagoak dira eta beste baldintza batzuetan bizi dira. Asunzionek dio gerraostean egunero hiltzen zirela gaixoak gosez. Dirua aurrezteko hilkutxa bakarra erabiltzen zuten hildako guztien gorpuak hilobi zuloetara eramateko.

257. Enuzketan izan zuten azken gaixoa (ARR-042/012)

Eskulan merkea zen, baina denen onurarako, bai gaixoentzat eta bai baserritarrentzat. Gaixo batzuk urteetan langile finkoak izan ziren Enuzketan. Baserriko lan guztietan jarduten zuten gaixook. Azkenengoa duela hamabi urte inguru izan zuten. Edana zaindu behar izaten zioten bakarrik. Azkenengo Enuzketan egon zen langile hau anaiarekin haserretutako maiorazko bat zen.

258. Asuni tiroa gerran (ARR-042/013)

Asunzion 1924an eta Arantza 1947an jaio ziren. Asunek tiro bat bota ziotenean hartu zuen sustoa kontatzen digu. Gerra zenean, bizimodua ahal zenik eta era normalenean egiten zuten, egunerokoak eginez, gerra girora ohituta.

259. Arropa zuriak zelaian zabalduta (ARR-042/016)

Lehengo baserritarrak bizi zitezkeen baserritik, baina oraingo bizimoduarekin ezinezkoa da. "Lexibia" egiten zuteneko kontuak. Etxean ez zeukaten urik.

260. Argi gutxi etxean (ARR-042/017)

Argia Santa Agedako zerratokitik ekartzen zuten Iberduerok linea jarri zuen arte. Karburo kriseiluak ere erabiltzen zituzten.

261. Txiza loreontzietan (ARR-044/004)

San Juanetan ikasle guztiek jasotzen zuten oparitxo bat eskolan. Komunera joateko baimenik ematen ez bazieten, loreontzietan egiten zuten txiza.

262. Puzkerra prozesioan (ARR-044/005)

Donostiako Lolita Sotillo izan zen Asunentzako maistrarik onena. Josten ere ikasten zuten eskolan, baita arrosarioa errezatu ere. "Sagrado Corazón" eguneko prozesiora eskolatik joaten ziren; halako prozesio batean abadea bedeinkazioak ematen zegoela, norbaitek puzkarra bota eta algarak sortu ziren. Hurrengo egunean izan ziren kontuak eskolan.

263. Euskaraz egiteko beldurrez (ARR-044/007)

Aretxabaletako eta Bergarako erromerietara joaten ziren gaztetan. Kalean isilean eta beldurrez berba egin behar izaten zuten euskaraz bazebiltzan.

264. Baserrian aitajaunarekin (ARR-044/008)

Maringo Iturrate baserrira neguan joaten zenean, talo paketearekin itzultzen zen etxera. Bere aitajauna gizon jakintsua zen. Aitajaunarekin joaten zen Marinen alde guztietara.

265. Duro bat egunean (ARR-044/013)

Destajoan ez bazuen lan egiten, egunean bost pezeta besterik ez zuen irabazten "Inprentan". Enbalajerako kutxak egiten zituen Asunek. Astero eskuan jasotzen zuten soldata.

266. Lanean hatza galdu (ARR-044/014)

Hatza galdu zuenean, Roneotik Zerrajerako erizaindegira eraman zuten, ez baitzegoen inongo ospitalerik Arrasaten. Osatu eta gero bidali zuten Donostiara eta han egin zizkioten azken konponketak bere hatzari.

267. Domeketan meza eta arrosarioa; auzoko tabernak (ARR-047/012)

Auzoko jaietan, San Estebanetan, izaten zuten Udalan dantza egiteko aukera bakarra. Igandero mezara goizez eta arrosariora arratsaldean joan behar izaten zuten, bestela errieta etxean. Hamarretan meza, lauetan arrosarioa eta zortzietarako etxean egon behar. Kalera joateko astirik ere ez zuten izaten. Lau taberna zeuden auzoan: Matonena, Pildain, Uxarte eta Larrain Etxe. Azken bi hauek lanean jarraitzen dute oraindik.

268. "Bedeinkatu" gabeko esnea (ARR-047/013)

Arrasateko azokan denetik saltzen zuen. Esnea (hogetaka litro) eramaten zuen egunero kalera. Noizbehinka udaltzainek esnearen laginak hartzen zituzten aztertzeko. Artetan ez zuten esnea "bedeinkatzen".

269. Baserritarrak azokan (ARR-047/014)

Azokan pezetaren bat edo bi ordaintzen zuen postuagatik. Baserritar asko elkartzen ziren azokan. Bizkaitik ere etortzen ziren saltzaileak. Astoa karga-karga eginda joaten zen azokara. Salmentak bukatu, erosketak egin eta etxera itzultzen zen.

270. Gurditik kamioira (ARR-047/015)

Soroan gari, arto, baba eta beste hainbat gai ereiten zuten. Garai hartan baserritarrek batak besteari asko laguntzen zioten. Orain ohitura hori galduta dago. Diputazioak Udalarako errepidea duela 50 bat urte egin zuen, orduan hasi ziren kamioiak egur garraioan eta. Ordura arte dena idiekin egiten zen.

271. Bataioa eta jaunartzea Udalako elizan (ARR-047/016)

Bataioa eta lehen jaunartzea Udalako elizan izan zituen Milagrosek. Gaur egun abadea jaiero igotzen da meza ematera.

272. Lehen jaunartzea (ARR-047/018)

Don Tomas abadea lehen motorrean joaten zen Udalara. Oraindik ere berak ematen du meza Udalan. Don Tomasen aurretik beste hiru abade ezagutu ditu. Lehen jaunartze egunean ez zen orduan egoten ospakizun berezirik. Jauna hartzera jaiero joatera behartuta zeuden garai hartan.

273. Ezkontza Udalan (ARR-047/019)

Ezkondu ere auzoan egin zen. Ospakizunera ahaide hurbilenekoak bakarrik joaten ziren. Zaragozara joan ziren ezkon-bidaian autobusez.

274. Ura eta argindarra etxean (ARR-047/021)

Ura beti ezagutu du etxean eta baita argia ere, "ipurtargiak beste argi" ematen zuen arren. Santa Ageda aldetik ekartzen zuten argia. Lixiba egin eta gero auzoko labaderora joaten ziren arropa garbitzera. Xaboia etxeko zaharrek egiten zuten.

275. Mila pezetako limosna (ARR-048/002)

Garai bateko mezetan abadeek "zaratarik gabeko" limosna eskatzen zuten elizan emateko. "La Industrial Mondragonesa"n ("Kutxaraderixia") egin zuen lan Eusebiok 1944an hasita 14 urtean, Karrikirri gerente zela.

276. Neskame edo moja (ARR-048/003)

Parroko zaharrak ba omen zituen infernuari buruzko zalantzak. Lehenagoko jendea bihotz hobekoa zela dio Eusebiok, jendeak orain eskola gehiago duela baina berekoiagoa dela. Umeak ere gehiago ekartzen ziren lehen; abadeek hala eskatzen zuten eta telebistarik ez zegoenez... Ume larregi elkartzen zirenez etxeetan, batzuk morroi edo fraide-mojatzara bidali behar izaten zituzten.

277. Aho asko eta jateko gutxi (ARR-048/004)

Ume asko izan zuen familia bat ezagutzen du Eusebiok. Denentzako jatekorik ez eta anai-arrebatatik bik moja eta beste bik fraide joan behar izan zuten. Horrela ziren kontuak orain dela 70 urte. Hala ere, orduko jendea hobea zela oraingoa baino dio Eusebiok. Lehenago elkar laguntzeko ohitura gehiago zegoen orain baino.

278. Arrasate edo Mondrague (ARR-048/005)

1929ko abenduan jaio zen Eusebio San Andres auzoko Etxaburu baserrian. Bere herriaren Arrasate izena ez du inoiz ezagutu Eusebiok, baina gogoratzen du umetan bazegoela okindegi-irindegi bat Arrasate izenarekin. Horra eramaten zituzten gari kupoak gerraostean. Bere ama zen Etxaburukoa; aita, berriz, Apotzagako Urigarai baserritik etorri zen.

279. Eskolan, 'Cara al Sol' abestu behar (ARR-048/006)

Eskolan lehenengo Viteri-n hasi zen eta gero "Calvo"nean jarraitu zuen, Don Martin Calvo Sanabria militar ohia maisu zuela. Eskolan erdaraz berba egin behar izaten zuten, eta baita falangisten kantu ugari abestu ere.

280. Neskak eta mutilak aparte (ARR-048/007)

Maisu zorrotza eta gogorra zen Calvo jauna. Ikasgela batean egoten ziren adin guztietako ikasleak, adinez bereiztutako taldeetan. Berrogei bat mutil egoten ziren gela batean eta maisu batekin. Neskak beste gela batean. Elizan ere emakumeak emakumeekin eta gizonak gizonekin egoten ziren; emakumeak behean aulkietan eta gizonezkoak koruan, normalean. Baina zinean denak nahasi ere egon zitezkeen.

281. Funtzionarioek soldata osatzeko klase partikularren beharra (ARR-048/008)

San Viator eskola zaharra errepublikan eraikitakoa omen da. Neskek eta mutilek eskolako jolasaldietan ere aparte egon behar izaten zuten. Mutilek maisua eta neskek, berriz, maistra izaten zituzten irakasle. Funtzionariek soldata eskasa zuten eta irakasleek eskola partikularrak emanez osatzen zuten irabazia.

282. Koilarategitik Ulgor-era (ARR-048/011)

Gerraostean lana denentzako zegoen, baina oso baldintza txarretan. Diru gutxi langileentzako eta ugazabak, ordea, aberastu. Koilarategitik Brasilera ere bidaltzen zituzten koilarak. 1944an hasi zen koilarategian, eskolatik irten zenean. 14 urte han egin eta gero Ulgor-en hasi zen lanean, bazkide gisa. 85 pezeta irabazten zuen egunean, eta larunbatean ere lan egiten zuen.

283. Etxetresnen aurrerapena (ARR-048/013)

Beraiek egindako hozkailua erosteko hiru hilabeteko irabazia behar zuen Eusebiok. Gas sukaldea izan da etxetresna berrietatik aurrerakoiena Eusebiorentzat.

284. Baserritar petoa (ARR-048/015)

Lantegian eta baserrian egin behar izaten zuen lan. Lau behi zituzten eta esnea kalera saltzen zuten. Marmitak eseki zituztenean hasi omen ziren txahal onak hazten. Senideen nahiaren aurka oraindik ere zaintzen ditu behi pare bat, bestela aspertu eta gizendu egingo zela dio eta.

285. Kalean eta baserrian (ARR-048/016)

Eusebio kalera ezkondu zen, baina baserriarekin lotura mantendu du. Bere emaztea nafarra da, umetan Arrasatera etorritakoa.

286. Txakurra lakioan ito (ARR-048/021)

Azerientzako jarritako lakio batean auzoko baten txakurra hil zen. Lazoarena delitu handia dela deritzo Eusebiok.

287. Inguruko erromerietarako joera (ARR-048/023)

"Patrocinio de San José" egunean ziren San Andres auzoko jaiak. San Andresko ermita zaharrean meza eta erromeria izaten zen, ilundu arte. Arrasateko jende asko joaten zen bertara. Erromerietarako zaletasun handia zegoen Eusebio gaztea zenean. Bergarako erromerietara oinez joaten ziren. Aretxabaletako Otalora Zelaikora ere joaten ziren. Baita Goroetako Santixauetara eta Gatzagako Ama Birjinaren jaietara ere. Baina garizuman ez zen izaten jairik, Pazkoak arte.

288. Umetako jolasak (ARR-048/024)

Garizuman beste jolas batzuk egiten zituzten, pote-poteka edo txirikiletan, esaterako. Futbolerako baloiaren ordez txerriaren puxika puztuta erabiltzen zuten. Pilotan egiteko ez zegoen pilotalekurik eta kaleko hormetan jolasten bazuten, aguazilek egurra banatzen zuten.

289. Kataide-aduana (ARR-050/006)

Kataide baserria aspaldi bota zuten. Baserriaren izenaren gorabeherak azaltzen ditu. Gose denboran hiru baserrietako gariak ebakitzen zituen garia gero udalari emateko.

290. Ikastolatik eskola nazionaletara (ARR-050/011)

Gerra aurretik ikastolan ikasi zuen, batzokiko eskoletan. Gero abade etxean egon ziren, baina gerrak geratu zituen eskolok. Eskola nazionaletan jarraitu zuen geroago. Erdara ez jakiteagatik makilakada asko jasotzen zituzten ikasleek.

291. Errepublikan, ikastola pribatua zen (ARR-050/012)

Ikastolan lasaiago ikasten zuten, hizkuntza bietan. Ez zegoen diziplina gogorrik. Dotrina abade batek irakasten zuen, baina bertako maisuak ziren beste gaiak irakasten zituztenak. Errepublika garaian eskola publikoa eta ikastola ezberdinak ziren.

292. Ajustadore lanean Elma-n (ARR-050/013)

Zerrajerako Julio Markaiderekin jasotako klase partikularrak ditu gogoan. Lanetik irten ondorengo klase horietan ikasi zuen asko Jabierrek. Elma-n hasi zen lanean 14 urterekin. Ajustadore (doitzaile) lana ikasi zuen Elma-n. Irabazitakoa amari ematen zion.

293. Elma-tik Goizuetara meategira (ARR-050/014)

Elma-n zortzi erreal kobratzen hasi zen. Seigarren urtean 6,25 pezeta irabazten zuen egunean. Soldadutza egin eta gero Goizuetako meategietara lanera joateko eskatu zioten. Beruna eta zinka ateratzen zuten meategian. Bost urtean egon zen Goizuetan.

294. Meategian bost urte (ARR-050/015)

Mekaniko lanetan aritu zen meategian, garbitegi eta makineriak muntatzen. Goizuetan ezkondu zen. Bost urte igarota itzuli zen Arrasatera.

295. Igelak egiten (ARR-050/016)

Itzuli zenean bere kontura lanean hasteko gogoa zuen. Artoa aletzeko makinak eta txanpon jokorako igelak egiten zituen.

296. Igelak nonahi (ARR-050/017)

Elma-koak eta bere kontura egiten zituen lanak ezin ezkondu eta Elma-tik irtetea erabaki zuen. Penintsula osoan saltzen zituzten txanponen jokorako igelak. Venezuelara ere bidali zituen batzuk. Tabernetako terrazetan jolasten zen orduan igelari txanponak botatzen.

297. Kataide baserri handia (ARR-050/019)

500 metro karratuko baserritzarra zen Kataide, zatika handituaz joan zena. Belaunaldika handituaz joan zen. Azken hiru belaunaldiak zortzi anai-arrebakoak izan dira Kataiden.

298. Arratoiak gobernatzen (ARR-050/020)

Gari eta arto asko ereiten zuten. Arto uztaren erdia arratoiek jaten zuten. Behin teilatu azpiko arratoi habian, arratoikumeak freskatzeko errekatik eramandako harri handiak aurkitu zituen.

299. Arratoientzako lanean ez (ARR-050/021)

Hegoaldean ez bezala, Ipar Euskal Herriko baserritarrek badituzte arratoien kaltea saihesteko baliabideak.

300. "Baltza"ren sagarrondoak (ARR-050/027)

Mundu guztiko sagar-landareak ekartzen zituen Etxezarretako nagusiak. "Baltza"k Kataidera ekarritako azken sagar-landareak Guardia Zibilek tiroz hondatu zituzten.

301. Guardia Zibilak uxatzen (ARR-050/028)

Guardia Zibilek tiro ariketak egitera Kataidera etortzeari nola utzi zioten.

302. Gerra denboran, artzain (ARR-052/005)

Oreja hil zutenean, beste batek ihes egin zuen, errekara salto eginda. 14 urte zituen Joxe Bixentek gerra hasi zenean. Urtebete lehenago, mendira joan zen ardiekin, Deguriara, artzain. Gazta eskuz egiten zen orduan. Deguriara gerratik ihes egindako gizonak zeuden han; eta, haiek gobernatzeko, talo eta ardi-esnea ematen zien.

303. Menditik ardiekin alde egin behar (ARR-052/006)

Gerra indartuz joan zen, jendea armatuz eta trintxerak eginez. Artzainek menditik jaitsi behar izan zuten ardiekin. Mendiola auzoan egon zen Joxe Bixente hilabete batzuetan. Arabako gudako kanoikada hotsa entzuten zuen Joxe Bixentek menditik.

304. Erreketeekin (ARR-052/007)

Ardiak Degurian utzi eta etxera zetorrela, errekete konpainia batekin egin zuen topo Aretxabaleta inguruan. Ez zioten utzi etxera joaten, han gorriak zeudelako. Aretxabaletako osaba batek jatekoa eman zion, eta berriro Deguriara itzuli zen.

305. Bala artean Deguriara bidean (ARR-052/008)

Bedoñatik zehar bilatu zuen bide seguruagoa etxera etortzeko. Arientza auzoan meza entzun ondoren, Santa Luzia bezpera batean trintxeran gorde behar izan zuen; eta, bala artean, Deguria aldera joan zen.

306. Ardiekin Araotzera (ARR-052/009)

Ardiak ezin zituzten etxera ekarri, frontea Arrasaten zegoelako. Horregatik, Oñatiko Araotz auzoko Agerre baserrian egon zen Santa Agedak arte ardiekin. Bildotsak jaiotzen hasi zirenean itzuli zen etxera artaldearekin.

307. Lantegiek bukatu zuten morrontza (ARR-052/011)

Maisu batzuek jo egiten zituzten ikasleak, baina gerra aurreko eskolan ez zituzten euskaraz egiteagatik zigortzen. Sei urterekin hasi zen Joxe Bixente eskola publikoan. Eskola utzi eta artzain joan zen mendira. Lantegiak ugarituaz batera, morrontza bukatzen hasi zen.

308. Kooperatiba aurretiko industria Arrasaten (ARR-052/012)

Kooperatibak 60ko hamarkadan hasi ziren. Honen aurretik Arrasaten bazihardutenZerrajera, Elma eta Asan lantegiek, baita galdategi batzuk ere.

309. Ardiak eta txerriak (ARR-052/014)

120 bat ardirekin hasi zen artzaintzan. Urte batzuetan 200dik gora ere izan ditu. Txerriak ere hazten zituen gazurarekin. Etxeko txerriak Joxe Bixentek berak hil izan ditu betik.

310. Baserria erre egin zitzaion (ARR-052/016)

Bera soldadutzara joan aurretxoan, Muxibar baserria erre zen. Hernia bategatik libratu zen, baina bi urte geroago mobilizatu egin zuten berriro.

311. Goseak ostera bultzatu zuen jendea (ARR-052/017)

Gose handia izan zen gerra ostean. Jendeak bildotsak osten zizkieten artzainei. Estraperloan aritu zen Joxe Bixente. Arabatik garia ekartzen zuten Deguriara, gero herrian saltzeko. Errotak prezintatu zituztenean, eurena ez zuten erabat geratu.

312. Ogia etxean egiten zuten (ARR-052/018)

Artoa eta garia txandaka ereiten zituzten soroetan. Ogia etxean egiten zuten, labesuan. Ogi integrala ere egiten zuten, 'basailoria' esaten ziotena. Artoa, taloak eta morokila ere egiten zituzten.

313. Bisigua merke omen zegoen (ARR-052/019)

Garai hartan arraina 'harrika' egoten omen zen. Arrain-saltzailea bere orgatxoekin etxerik etxe ibiltzen zen. "Patrocinio de San Jose" egunean ospatzen dira auzoko jaiak. Harrobiko lanek erorarazi zuten auzoko ermitatxoa.

314. Artzaintzak etorkizunik ez (ARR-052/021)

Gerra ostean herriko plazako erromerietan, dantzako txakur handi bat ordaintzen zioten soinu-jotzaileari. Muxibar baserrian eman du Joxe Bixentek bere bizi guztia. Sei anai-arreba izan ziren, eta berak ere sei seme-alaba ditu. Seme batek jarraitzen du ardiekin, baina Joxe Bixentek ez du etorkizunik ikusten lehengo erako artzaintzan.

315. Ardiak jezten eta mozten (ARR-052/022)

Ardi jeztea oraindik eskuz egiten du, baina orain eserita, makurtu gabe. Ardi moztea ere etxekoek egiten jarraitzen dute, baina orain moztaile elektrikoarekin. Artileagatik lehen ondo ordaintzen zuten, baina gaur ezer ere ez. Lehen traperoak eramaten zuten artilea. Ardi mutur beltza izan dute beti Muxibarren.

316. Fraide-eskolatik aprendizetara (ARR-053/004)

Aurretik Zigarrolako eskolan ibilita zegoen. Baina "aprendizetan" hasteko, aurretik San Viatorreko eskolatik pasatu beharra zegoen, eta hemen urte pare bat egin zituen. 1990. urtera arte egin zuen lan Zerrajeran Pedrok. Zerrajera lantegiak bi kilometroko luzera hartzen zuen, behetik gora. Hiru ur-iturri natural zeuden lantegi barnean.

317. Lehengo eskolak eta gau-eskolak (ARR-053/005)

Eskolan euskara ez zen libre. Etxera joan aurretik Cara al Sol abesten zuten. Etxean lana zegoenean ez zen eskolara joaten. Neska-mutilak elkarrekin ikasten zuten, zazpi urtetatik 14 urte artekoek, 30 lagunetik gora elkarrekin. Beranduago banatu zituzten neskak eta mutilak. Gau-eskolan ere ibilitakoa da Pedro, egunez ezin zenean joan. "Don Fulgencio" maisua gogoratzen du.

318. Eskolako zigorrak (ARR-053/006)

Irakurri, idazten eta oinarrizko kontuak ikasita bukatzen zuten orduko ikasketa 'karrera'. San Viatorreko eskola ordaindu egiten zen; erdia Zerrajerak ordaintzen zuela. "Bachiller" ikastera aberatsak bakarrik joaten ziren. Hango maisuak ez ziren denak oso onak. "Perrochato" izeneko maisu bat gogoratzen du. Paretan beso-zabalik, kontu asko egin eragin edota jo ere egiten zituzten zigortuta zeudenean. Jotzeko makila baserritar ikasleak eramaten zuten. Maistra, Elisa Lasa, ona bezain gogorra omen zen.

319. Aprendizen eskola (ARR-053/007)

Eskola bukatzen zenean, arratsaldeko bostetan, denak formatuta abesten zuten Cara al Sol. Eskolan ez zuten asko errezatzen, baina dotrina asko ikasten zuten. Gero aprendizetan, eskola eta tailerra ikasten zuten lehenengo urtean. Bigarrenean norberak aukeratutako lanbiderako prestatzen ziren. Hiru fraidek eskolak eman eta bertako ofizialak ziren tailerra irakasten zutenak. Eskola Profesionala bazegoen ordurako, baina Zerrajeratik aparte.

320. Zerrajerako biltegian eta baserrian lanean (ARR-053/008)

Baina aprendizetako lau urteak eginda, ez zeuden prestatutako langile guztientzako lan-posturik Zerrajeran. Maisu eta aprendiz asko Fagorrera joan ziren gero. Pedro Zerrajerako biltegian geratu zen, jubilatu arte. Bian bitartean, gurasoekin eta osaba baten laguntasunarekin, Pedrok baserria ere aurrera atera zuen.

321. Estraperloa Arabatik (ARR-053/011)

Irina eta patata ekartzen zuten estraperloan Arabatik. Patata-zorroak trenetik bota etxe inguruan, eta gauez astoarekin jasotzen zituzten. Aitak Arabatik astoarekin ekartzen zuen irina.

322. Guarda zibilekin harremanak (ARR-053/012)

Ez zituzten inoiz guardia zibilak harrapatu estraperloan. Guarda zibilekin izandako pasadizoak kontatzen digu Pedrok.

323. Gerran etxetik Bergarara ihesi (ARR-053/013)

Gerra denboran, Francoren aldekoak etxera etorri eta hurrengo goizeko zortzietarako etxea uzteko agindu zieten. Ganadu eta guzti Bergarako

Isasizabal baserrian egon ziren lau hilabetez. Ganadua goseak zegoen, baina ezin zuten Bergaratik Arrasatera etorri. Etxeko arbi guztia Francoren aldekoak ostu zioten.

324. Bidegintzan auzolanean (ARR-053/014)

Etxera itzuli zirenean, etxea oso hondatuta zegoen. Gurdientzako ziren orduko bideak, eta lehenengo GMC kamioientzako bidea, aitzurrez eta palaz, 50eko hamarkadan egin zuten, auzolanean. 1989. urtean, etxeraino bide ona egiteko 700.000 pezeta ordaindu zituen Pedrok.

325. Lehengo prezioak eta jornalak (ARR-053/016)

Gerran, Bergaratik itzuli zirenean, etxeko ganbaran zegoen artoa ez ezik, beste guztia eraman zutela ikusi zuten. 1926. urtean, baserria erosteko, 25.000 pezeta ordaindu zuen aitak. Zerrajeraren hasieran, Pedrok 74.50 pezetako jornala zuen asteko. Zapatuetan jasotzen zuten jornala, bakoitzak bere langile-zenbakidun potean. 70 pezeta amarentzat izaten ziren, eta 4.50 berarentzat.

326. Mutikotako jolasak (ARR-053/017)

Errepidean jolasten zuten futbolean igandetan; arratsalde osoan kotxe bakar bat ere ez zen pasatzen. Uda partean errekan egiten zuten jolas asko. Txorro-morroka, 10-20ra, kui-kuika, txirikilletan edo pote-poteka ere jolasten zuten. Udaberrian txori kaiolak topetan ibiltzen ziren.

327. Bizikletaz inguruko herrietara (ARR-053/018)

Baserritarrak kaletarrakin ez ziren ondo konpontzen, burlak eta borrokak izaten ziren. Asteburuetan lan egiten zen. Igandean goizeko seietako meza entzun, gosaldu eta ganadua zaintzera joan behar. Santa Agedan eta San Prudentzion erromeria handiak egiten ziren. San Prudentzioko taberna eta bola-lekua ditu gogoan. Angiozarrera eta Oñatira ere joaten ziren, euren bizikleta zaharrekin.

328. Auzoko jaiak antolatzeko, mutilek bosna ogerleko (ARR-053/020)

San Isidrotan ospatzen dituzte auzoko jaiak. Bergarako San Martzialetan aguazilak soinu-jotzailea jo zuenekoa kontatzen digu Pedrok. Erromerietan dantza egiteagatik pezeta bi ordaintzen zuten mutilek. Auzoko jaiak antolatzeko mutil bakoitzak bost ogerleko ematen zituen. Felix itsua soinu-joltzaiea ekarri zuten urte askoetan. Bertsolari onak Arrasateko Santo Tomasetan egoten ziren.

329. Inguruetako ferietara joaten ziren (ARR-053/021)

Feria handiak egiten ziren orduan. Santamasetan Arrasaten, Santixauetan Gasteizen, Erramu Zapatu egunean Bergaran, Santa Lutziatan Zumarragara oinez, kuadrillan, joaten ziren behorrak edota astoak saltzera.

330. Bizikletak, motorrak eta gidabaimena (ARR-053/022)

Eurek eginiko bizikletatan ibiltzen ziren. Lehenengo erosi zuen bizikleta Eibarko Orbea lantegitik ekarri zuen. 27 kilo zituen bizikletak. Beranduago GS motortxo bat eta Lanbretta bat izan zituen. Oraindik ere Vespa zahar batekin ibiltzen da. Gidabaimena, 500 pezeta ordainduta eta azterketarako bere motorra berak kamioiez bidalita, atera zuen Gasteizen.

331. Traktorez zein motorrez bai; kotxez ez (ARR-053/023)

Traktorearen gidabaimena ateratzeko Beasaingo Salbatorera eraman behar zen traktorea, norberaren kontura. Horretarako kotxeko gidabaimena atera zuen, nahiz eta sekula kotxerik erabili ez. Motorrez ibiltzen da, kotxez ibiltzeak beldurra ematen dio-eta.

332. Soldaduak etxean; eskolako kontuak (ARR-066/002)

Soldaduek alde egin eta gero, eskolan dotrina ikasten hasi zen Leintz Gatzagako don Fermin Fernandez de Arroiaberekin. Katona eta kontuak egiten ere ikasi zuen. 100 soldadu inguru egon ziren etxeko aterpe batean hamar bat egunean.

333. Ganaduekin etxetik irten behar (ARR-066/005)

Soldaduek etxetik irteteko agindu zieten, eta Oñatiko Urzabal baserrira joan behar izan zuten astebeterako, ganaduak hartuta. Aita basoan gordeta egon zen, baina osabak frontean ibili ziren.

334. Eskolara oso gutxi joan zen (ARR-066/006)

Facundo zen anaiarik zaharrena. Eskolara joateko aukera handirik ez zuen izan, etxean lan asko zegoelako. Gorriak Kanpazartik Bilbo aldera joan ziren.

335. Esnea banatzen zuen eskolara joan aurretik (ARR-066/008)

Lehenengo jaunartzearen ondoren, Aretxabaletan jarraitu zuen eskolan. 50 mutiko inguruk ikasten zuten gela batean, hiru adin-taldetan banatuta. Eskolara joan aurretik, etxetik astoan eramandako esnea banatzen zuen.

336. Bedoña auzoa udalerriz aldatu zenekoa (ARR-066/009)

Orduan Bedoña auzoa Aretxabaletako udalerrian zegoen. 50eko hamarkadan udalak Bedoñatik errepidea egiteko dirurik ez zuen eman. Arrasateko udalak egin zien errepidea eta udalerriz aldatu zen orduan Bedoña.

337. Bedoñatik Arrasateko eskolara (ARR-066/010)

Arrasatera pasatu zirenetik Bedoñako neska-mutilak Arrasaten eskolatu izan dira. Auzoko zaharrenak ez omen zeuden erabat ados, baina Arrasaten geratu zen Bedoña, errepidearen truke.

338. Eskola utzi eta etxera lanera (ARR-066/011)

Hamar urterekin eskola utzi eta etxean geratu zen lanean. Idiak ere bazituzten etxean. Aita "karretero" lanean ibili zen, egur garraioan. Umeak amarekin egoten ziren etxeko lanak egiten, soroan edo ganadua eta beste abereak zaintzen.

339. Errotak itxita egon zirenekoa (ARR-066/012)

Errotak prezintatu zituztenean, Oñatiko Araotz auzora ere joaten ziren garia ehotzera. Arabatik garia eta patatak estraperloan ekartzen zituzten, gauez. Etxeko gari, arto eta babarrun ekoizpenaren zati bat udalari eman behar izaten zitzaion.

340. Oñatiko Araotz auzora garia ehotzera (ARR-066/013)

Arrasate, Uribarri eta Marulandako errotak prezintatuta eta zainduta egoten zirenez, Oñatiko Araotz auzoko errotara joan behar izaten ziren.

341. Garia baino arto gehiago etxean (ARR-066/015)

Arrasate Okindegiko errotan garia besterik ez zuten ehotzen. Artoa ehotzera Marulandara eta Bolinagako errotetara joaten ziren. Kupoa entregatu ondoren, etxean arto gehiago geratzen zen garia baino.

342. Bedoña auzoko jaiak (ARR-066/016)

Bedoña Arrasatera pasatu zenetik, Aretxabaletan ez zituztenez ondo ikusten, erromerietara-eta Arrasatera joaten hasi ziren bedoñatarrak. Santa Eulaliatan ospatzen dituzte auzoko jaiak. Auzoko mutilak bi kuadrillatan banatuta zeuden, eta bakoitzak bere erromeria izaten zuen. "Aramaiteko" (ave Mariatako) kanpaiak gauero jotzen zituzten.

343. Deguriako artzainak (ARR-066/018)

Deguria mendian artzain asko zeuden garai batean. Gaztak egiteaz gain, txerriak hazten zituzten artzainok. Kurtzebarrin Piloto ezizeneko Bedoñako artzaina egoten zen.

344. "Malbe"ri buruzko pasadizoak (ARR-066/019)

"Malbe" Bedoñako pertsonaia ezagunaren kontu batzuk azaltzen dizkigu Facundok.

345. Malbetarrak eta "Viuda Alegre"rena (ARR-066/021)

"Malbe" eta bere inguruko beste kontu batzuk.

346. Irurar batekin ezkondu zen (ARR-066/022)

Tolosaldeko Iruratik Zerrajerara lanera etorritako emakume batekin ezkondu zen Facundo. Lau seme-alaba dituzte. Nahiz eta etxetik kanpo lan egin urte askoan, oraindik ere badute ganadua etxean.

347. Umetako jolasak: txirikiletan, take-torreka... (ARR-066/023)

Txirikiletan, take-torreka, astoari buztanean poteak lotuta eta horrelako jolasak egiten zituzten. Uda denboran Txaretara joaten ziren igeri egitera.

348. Jolasak, erromeriak eta bekatuak (ARR-066/025)

Aretxabaleta eta Oñatiko mugako Txareta errekan egiten zuten igeri. Elizako horman pilotan egiten zuten. Gaztetxotan kalera Aretxabaletara joaten ziren; mutiltzen hasi zirenean, ordea, Arrasatera. Dantza egiteagatik erreal bat ordaintzen zuten gau osorako (mutilek bakarrik). Abadeen bekatu-mehatxupean bizi izan ziren gaztetan. Hijas de María eta luistarren kongregazioak ez omen zeuden oraindik hedatuta Facundoren lagunartean.

349. Umetako jolas ezberdinak (ARR-068/005)

Gogoan ditu eskolako mahai handiak, euren tintontziekin. Hamabi urterekin bukatu zituen eskolak. Gero baserrian geratu zen. "Harri-launke" umetako jolasa azaltzen du. Beste jolas asko aipatzen ditu.

350. Senargaia arrantzalea izan zuen (ARR-068/013)

28 urterekin ezkondu zen Lorentza. Senarra umetatik ezagutzen zuen. Groenlandian bakailaoa harrapatzen ibilitakoa zen. Koinatua ere arrantzale ibilitakoa zen. Lorentzari barkuek beldurra ematen diote. Nobiotan bost hilabeteko aldiak egiten zituen senargaiak etxera etorri gabe.

351. Etxean urik ez (ARR-068/014)

Lorentzaren jaiotetxean, etxe ondoko teilape batean zuten ura, eta bonbaz jasotzen zuten posadera batean. Arropak garbitzeko harraska ere bertan zegoen. Argindarra beti ezagutu du etxean. Txomin "alanbrerua" etortzen zen Aretxabaletatik argia kobratzera. Ezkondu zen etxean ura patina batetik ateratzen zuten, baldez. Gero ur-andela jarri zuten.

352. Malbe famatuaren kontuak (ARR-068/016)

Malbe izeneko pertsona ezagunaren kontu batzuk azaltzen ditu.

353. Malbe famatuaren istorioak (ARR-068/017)

Malbe izeneko pertsona famatuaren istorio batzuk.

354. Bedoña, Aretxabaletakoa edo Arrasatekoa? (ARR-068/018)

Aretxabaletako auzoa zen Bedoña Arrasatera pasatu zen. Bedoñatarrak Arrasatera joateko joera zuten, nahiz eta Lorentza gaztetan dantzara Aretxabaletara joaten zen. Herri aldaketaren garaiko iskanbilak gogoan ditu Lorentzak, baina berak ez zien kasu handirik egin.

355. San Andres eta Bedoña auzoetako kontuak (ARR-068/019)

Lorentza Arrasateko San Andres auzokoa izanda, lehenengo jaunartzea Aretxabaletako Bedoña auzoan egin zuen; Bedoñatarrek, berriz, Arrasaten egiten zuten garai hartan. Gaur egun Lorentza bizi den Otamendi baserrikoak alde bietakoekin ondo konpontzen dira.

356. San Josepe ermita (ARR-068/020)

San Andres auzokoek ermandadeko bilerak San Josepe ermitan (gaur galduta) egiten zituzten. Jaietan ere han biltzen ziren auzotarrak. "Patrocinio de San José" egunean ospatzen zituzten jaiak, maiatzaren lehenean.

357. Emakumeak auzolanean (ARR-068/022)

Harri otzara eta aitzurrarekin auzolanean bideak konpontzera joaten zen Lorentza, San Andres auzoan bizi zenean. Auzoko beste emakume batzuk ere joaten ziren berarekin. Muxibar eta Atxena baserriak erre zirenean ere ibili zen auzolanean.

358. 1921an jaioa Uribarriko Olanbarri baserrian (ARR-069/001)

Uribarri auzoko Olanbarri baserrian jaio zen 1921eko martxoaren 12an. Aita bertakoa zuen eta ama Udala auzoko Erregena etxekoa.

359. Eskolan mojak; dotrinan abadeak (ARR-069/003)

Sei anai-arrebatatik gazteena da Gregori. Eskolara, mojetara, joan zenean ia erdaraz bazekien galdetu zien eta berak erantzun zien bakarrik "si"eta "no" zekiela. dotrina abadeekin ikasi zuten. Abadearen ortua-eta garbitu behar izaten zuten. Abadeari gorrotoa hartu ziola dio.

360. Arrasatera eskolarako eta edozertarako (ARR-069/006)

Mojetan ez zuten ikasmahairik-eta izaten harmailetan esertzen ziren. Arrasateko ospitalean zegoen orduko eskola. Denetarako joaten ziren Arrasatera. Lagunak ere bertan zituen, ez auzoan.

361. Neskame Bar Canuton (ARR-069/007)

Neskame egon zen Bar Canutoko etxean, eta gero arratsaldez eskolara joaten zen. Ama gazte zela hil zenez bera eta ahizpa neskame aritu ziren.

362. Aita arotz lanetan (ARR-069/011)

Ama hil zenean, nebak soldadu eta morroi egon ziren. Aita ez zen beraietaz arduratzen, etxean gizon bat gehiago zen. Pertsona ona zen baina ez zuen ardurarik hartzen. Arotz lanetan aritzen zen. Herriko beste arotz batzuei laguntzen aritzen zen, arotz horiek aipatzen ditu. Dirua lortzeko beti lanean aritu da, umetatik.

363. Hamabots urtetatik plazara (ARR-069/012)

Hamabost urterekin hasi zen plazara joaten eta gaur egun oraindik jarraitzen du. Hasi zenean erosle erdaldun asko zegoela dio, euskaldunak gero hasi zirela.

364. Baserriko lanak (ARR-069/015)

Baserrian beti zegoen lana, lur guztian lantzen ziren. Baserrian egiten zituzten lanak aipatzen ditu. Mutilek eta neskek askotan zeregin ezberdinak zituzten.

365. Plazako kontuak (ARR-069/017)

Gerra aurretik babak, ilarrak eta esnea eramaten zuten plazara. Bezero finkoak zituzten. Orduan ere askotan, azkarren zebilenak saltzen zuen gehien. Plazako diruarekin etxerako gauzak erosten zituzten: olioa, azukrea, kafea...

366. Jatorduak (ARR-069/019)

Letxuga azukrearekin eta ozpinarekin jatea gustatzen zaio, lehen ere horrela jaten zuten eta. Domeketan garbantzuak eta zopa jaten zuten. Gehien baba, urdaia jaten zuten.

367. Errazionamendu libreta eta errotariak (ARR-069/023)

Errazionamendu libreta erakusten du. Hor errotariak hartutako kopurua apuntatzen zuen, ezin zizutelako harrapatu libretan agertzen zen kopuruarekin baino gehiagorekin. Uribarriko Markulete errotako Basilio eta Arrasateko errotako Teresa eta Periko aipatzen ditu.

368. Morteroa Arrasateko okindegian (ARR-069/024)

Udalan frontea zegoen eta Olanen ematen zitzaien soldaduei jaten. Arrasateko okindegian mortero bat bota zuten eta bere ahizpak handik alde egin zuen Arrasatera.

369. Ama non lurperatu zuten jakin barik (ARR-069/025)

Ama zauritu zenean, lehenengo abadeari abisatu behar zitzaiola esaten zuen Gregoriren ahizpak. Osatuko zela esan zieten arren, Bergarara eraman zuten eta bertan hil zen odolustuta. Ez dute sekula jakin non lurperatu zuten amaren gorpua.

370. Eskolan erdaraz (ARR-069/030)

Eskolan erdaraz ikasi zuen. Denak pilatuta egoten ziren. Sor Maria Jacinta aipatzen du. Ez zutela askorik ikasi dio.

371. Senarra ganadu-azoka zalea (ARR-069/034)

Bere senarrari azoketara joaten gustatzen zitzaion. Azoketan zer jaten zuten azaltzen du. Behiak eta txahalak saltzen zituen. Saltzen ez zuten esnea gazta edo gurina egiteko erabiltzen zuten.

372. Arrasateko okindegiko panpota (ARR-069/040)

Arrasateko okindegian ogi pila bat egiten zuten. Panpota egiten zuten: ogi txiki errea. Txokolatearekin-eta jaten zen ogia. Okindegian aritu zen sasoi batean lanean, hala ere ez zen ausartzen ogi pusketarik hartzera nahiz eta goseak egon.

373. Matxakito Uribarriko abadea (ARR-069/045)

Uribarriko elizara joateko egiten zuten bidea kontatzen du. Matxakito deitzen zioten abadeari.

374. Meatzerreka auzoan galdu diren baserriak (ARR-073/005)

Hainbat baserri-etxe galdu egin dira edo hutsik daude gaur egun Meatzerreka auzoan. Laurogei bat ardi eta dozena bat ganadu buru izaten zituzten Meatzaga baserrian. Idiekin etxeko lanetan eta egur garraioan jarduten zuten. 26 urterekin Fagor lantegian hasi zen lanean.

375. Auzolana ondo antolatuta (ARR-073/010)

Auzoko bideak konpondu, mendi bideak garbitu eta auzoko ermita zaintzea auzolanean egiten zen. Hamabost ira-gurdi inguru ekartzen ziren urtero, ukuiluko azpietarako.

376. Ganaduaren asegurua ermandadeetan (ARR-073/011)

Ganaduen asegurua auzoko ermandadeak betetzen zuen. Meatzerrekako ermandadea desegin zenean, Bergarako Goimendi auzo mugakidekora pasatu zen Patxi. Ermandadeko "komenziñuak" (konbentzioak) ezartzen zuen gaixorik edo hil zorian zegoen ganaduaren balioa.

377. Arrasateko zabortegia Meatzerrekara (ARR-073/012)

Francoren garaian auzo-alkatea Udalak izendatzen zuen, sarritan urte askotarako. Udalak Arrasate herriko zabortegia eta gero errausketa-instalazioa auzoan jarri zizkien. Ondorioak larriak izan ziren auzoarentzako: kea, arratoiak...

378. Gaurko pinudiak lehengo larre guneak (ARR-073/016)

Gaur egun zaintzen dituzten abere bakarrak ardiak dira. Gazta egiten jarraitzen dute. Gaur pinuak dauden basoetan lehen ira eta larrea zegoen, eta baita haritz banaka batzuk ere. Lur-sail gehienak libre zeuden, itxiturarik gabe. Urrian ebakitzen zuten ira; ihartu, gurdia kargatu eta etxera ekartzen zuten. Txerri, untxi eta oiloak ere bazituzten.

379. Eskolan hamaika hilabete bakarrik (ARR-074/002)

Justa jaio aurretxoan hil zen aita. Eskolan hamaika hilabete besterik ez zituen egin. Arrasateko Ascensionista mojen eskolan ibili zen, Sor Carmen maistra gernikarrarekin. Amandrea hil zitzaionean eskola utzi eta handik gutxira gerra hasi zen.

380. Gerran etxetik ihesean (ARR-074/003)

Zazpi ganadu burureki n, milizianoek Udalako mikeleteen etxera eraman zituzten bera, ama eta izeba. Handik Elorriora, osaba baten kale-baserri batera joan ziren. 1937ko urtarrilean etxetik irten eta urte bereko San Prudentzio egunean itzuli ziren.

381. Etxera itzuli zirenean (ARR-074/004)

Etxea hondatuta zegoen, oiloak eta beste lapurtuta, baina hil eta gero lurpean sartuta utzi zuten txerria ondo kontserbatu zen. Hamaika komeria eta gero, eraman zizkieten hiru behiak berreskuratu zituen amak.

382. Etxera sartzeko baimena eskatu behar (ARR-074/005)

Elorrion Arrasatera joateko salbokonduktoa eman zieten, eta Arrasaten etxera itzultzeko beste bat eskuratu behar izan zuten. Izeba, ama eta Justa bera bakarrik zeuden etxean. Teilatuko bala-zuloak konpondu behar izan zituzten lehenbailehen.

383. Gerra denborako miseriak (ARR-074/006)

Elorrion esnea saltzen zieten milizianoei. Baina handik ekarritako dirua Arrasaten entregatu behar izan zuten. Garirik erein gabe geratu ziren, eta ganaduekin bakarrik aurrera egin behar. Elorrion denentzat zegoen errazionamendua, baina Arrasaten ez.

384. Baserria ordaintzen lanak (ARR-074/007)

Baserria erosita baina zatika ordaintzeko zegoen. Justa ezkondu zenean bukatu zituzten ordainketok. Justa etxera ezkondu zen, Elorrioko Iguria auzoko Uhalde baserriko Maximorekin.

385. Meza Arrasaten, baina dantza Kanpazarren (ARR-074/008)

Umetan jolaserako denbora askorik ez zuten izaten, lana egin behar zelako. Meza entzutera kalera joaten ziren. Arratsaldean Kanpazarrera joaten ziren, han sarritan egoten zelako auzoko soinu-jotzaile batek alaitutako erromeria.

386. Garia ehotzera Elorriora (ARR-074/009)

Justa ezkondu zenean hiru behi zituzten etxean, txerri eta enparauekin. Garia eta artoa ehotzera Elorriora eramaten zuten estraperloan, Arrasatera eramanez gero, erdiarekin errotaria geratzen baitzen. Gari, arto, patata eta arrautza kupoa eman behar izaten zitzaion Udalari.

387. Esnea saltzen zuten kalean (ARR-074/010)

Izeba bere baserrira itzuli zenean, ama-alabak geratu ziren etxean, osaba baten laguntza apur batekin. Esnea eramaten zuten kalera. Bezero bati kafearen truke ematen zioten esnea.

388. Abioien erasoetatk ihesi (ARR-074/012)

Elorrion, abioiek erasotzen zutenean, elizan edo beste soto batzuetan babesten ziren. Elorrioko jendeak asko lagundu zien ganaduak zaintzen eta gobernatzen.

389. Gerran hildakoak (ARR-074/013)

Elorriar gehienek senideren bat frontean zuten. Gerran hildakoak ikusten ziren bide bazterretan. Ermandadeak ez zuen ordaindu gerran galdutako ganaduagatik.

390. Ura eta argindarra (ARR-074/014)

Salturri baserri ondoko iturri batera joaten ziren arropak garbitzera. Etxerako ura ere bertatik ekartzen zuten astoan. Argindarra auzoko errotatik zetorren. Karburua eta kandelak ere erabiltzen zituzten. Lehenengo irratia ezkondu eta gero izan zuten. Radio Vitoria eta Radio San Sebastián bakarrik entzuten zituzten orduan.

391. Lehen jaunartze osoa (ARR-074/015)

Arrosarioa ez zuten errezatzen. Amonak irakatsitako dotrinarekin egin zuen lehen jaunartzea. Bederatzietan jaunartzea, hamarretan meza nagusia, kalean bazkaldu eta arratsaldean bezperetara joan zen egun hartan.

392. Baserriaren historia (ARR-074/016)

Osaba bat kalean ezkonduta zuen. Bere Aita Udala auzotik etorritakoa zen eta ama etxekoa bertakoa. Baserria birraitonak eraiki zuen; eraiki eta saldu, berriz erosteko eskubidearekin. Justaren aitak erosi zuen berriro.

393. Justaren jatorria Zaldibiatik omen dator (ARR-074/018)

Zaldibiatik Meatzerreka auzoko Arremena baserrira etorritako artzain baten ondorengoa dela dio Justak. Artzain horren familia nola eta nora zabaldu zen azaltzen digu.

394. Santa Ageda jaiak; jaunartzea (ARR-074/021)

Santa Agedako jaietan Arrasateko lantegietan jai izaten zen. Erromeria jendetsua ospatzen zen. Amonak etxean irakatsi zion dotrina, euskaraz, eta abade-etxera joan zen ikasitakoa parrokoak azter zezan. Lehen jaunartzea euskaraz izan zuen. Parroko hura, gerran fusilatu zuten.

395. Herrietako jaietara (ARR-074/023)

Aretxabaletako Andra Marietara, Oñatiko Arrosario jaietara eta San Antonioetan Urkiolara ere joaten ziren.

396. Senarra non ezagutu zuen (ARR-074/024)

Frantziaren erasoen beldur, Francok kintak altxatu zituen 1942ko azaroan. Mobilizatu aurreko egunean senarra izango zena ezagutu zuen Justak Kanpazarren.

397. Joxe Miguel Barandiaranen indusketak etxean (ARR-075/006)

Barandiaranek indusketak egin zituen baserrian. Bera begira egoten zen, umea zen eta. Behin galdetu omen zion Barandiarani mugarriak, haitzetan egindako gurutzeak, denborarekin zergatik handitzen ziren. Gastatu egiten zirelako, erantzun omen zion.

398. Behiak eta ahuntzak zituzten; garia ereiten zuten (ARR-075/009)

13-14 urtera arte egon zen eskolan. Gero, etxean lan egiten zuen. Behiak eta ahuntzak zituzten. Behiak uztarrian erabiltzen zituzten. Gari-jotzeari buruz berba egiten du. Aurrerapen teknologikoak etorritakoan utzi zieten garia ereiteari.

399. Ogia egiten zuten etxean, integrala ere bai (ARR-075/010)

Astean behin ogia eta artoa egiten zituzten. Ogia integrala ere egiten zuten; latza izaten omen zen.

400. Kalera esnea eta barazkiak saltzera jaisten ziren (ARR-075/011)

Kalera saltzera jaisten ziren; esnea, barazkiak... Oinez egiten zituzten gora eta beherakoak, marmitak eskuetan hartuta.

401. Soroetako lanak eskuz egiten zituzten, behien laguntzarekin (ARR-075/012)

Baratzean, behiak jezten, soroan... denean jarduten zuen. Eskuzko lana izaten zen soroetakoa, behiak uztarrian hartuta.

402. Bi fronteren artean zegoen baserria (ARR-075/015)

Gerra sasoiaz, gehiago gogoratzen du entzundakoa, bizi izandakoa baino. Etxea bi fronteren artean zegoen. Leiho eta balkoiak koltxoiekin itxita zituzten. Abereak barruan izaten zituzten. Baserritik bota eta Bilboraino joan behar izan zuten.

403. Etxeko gauzak lapurtu zizkieten (ARR-075/016)

Gerra sasoian etxetik aterarazi zituzten, eta abere eta guzti joan ziren. Behi bakarrarekin itzuli ziren etxera. Etxe barruko guztia lapurtu zieten kanpoan zirela. Lagun batek eman zion altoa aitari Bilbotik etxera bidean.

404. Kobetan ibiltzen ziren jolasean (ARR-075/017)

Igande arratsaldetan batzen ziren auzoko umeak jolasera. Kobetan sartzen ziren, lastoari su emanda, bidea argituz. Mutikoak ibiltzen ziren horretan. Kartetan ere egiten zuten, baita dirua jokatu ere.

405. Argindarra eta ura beti izan zuten (ARR-075/018)

Auzoko argindarra zuten, uraren indarraz sortutakoa. Karburoa eta kandela erabiltzen zituzten udan, ur gutxi zetorrenetan. 1935ean ipini zuten sukaldera ura. Aurretik askan eta iturrian izaten zuten ura.

406. Kaletarrek baino gose gutxiago izan zuten gerraostean (ARR-075/019)

Baba gorriak egunero jaten zituzten aste barruan; eta, igandeetan, garbantzuak okela zati batekin. Kalean baino gose gutxiago izan zuten baserrian. Baratzetik lapurtu izan zizkieten barazkiak. Gerragatik etxetik irtenarazi zituztenean, ondo jan zuten.

407. Erromeria izaten zuten Kanpazarren (ARR-075/020)

Kanpazarren erromeria egiten zuten. San Inazio egunean ospakizun berezia egiten zuten. Soinua, gramola, filarmonika izaten dituzte orain ere. Inguruko auzoetara joaten ziren jaietan. Elgoibarko azokan ezagutu zuen emaztea.

408. Auzotarrak batu egiten ziren auzoko kontuak konpontzeko (ARR-075/022)

Auzolanean batzen ziren abereak galduz gero laguntza izateko. Kofradiak jabetzak izaten zituen eta irabaziekin elizak konpontzeaz arduratzen ziren, besteak beste; elizak beretzat hartu zituen kofradiaren jabetzak.

409. Mikelete-etxean eskola, mikeletea maisu (ARR-076/002)

Kanpazarko Mikelete-etxeko eskolan hasi zen ikasten, mikelete bat maisu zuela. Eskolatik egunero kalera jaisten zen, jaunartzea egiteko dotrina ikastera. Mikeleteak Bizkaiko mugatik Arabakora pasatu ziren, Arrasateko Santa Agedara.

410. Eskola urte bi kalean (ARR-076/003)

Eskolara bidean amandreak laguntzen zion. Mezetara ere amandrearekin joaten zen. Gerra aurreko bi eskola ikasturteak kalean egin zituen, Santa Barbaran eta Biterin.

411. Eskolak erdaraz (ARR-076/004)

Kanpazarren neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten, baina kalean aparte. Aldundiak Mikelete-etxe ondoan eskola berria eraiki zuen. Mikelete maisua euskalduna zen arren, eskolak erdaraz ematen zituen.

412. Ama ezkondu zen etxera (ARR-076/006)

Dominikaren osaba bakarrak ez zuen nahi baserrian geratzerik, eta mikelete joan zen. Dominikaren ama ezkondu zen etxera. Osaba mikeletea Azkoitira ezkondu zen.

413. Gerraostean eskolarik ez (ARR-076/007)

Gerrarekin bukatu zitzaion eskola Dominikari. Ganaduak eta ardiak zituzten etxean. Aitak idiekin garraioan ere jarduten zuen.

414. San Kristobalen babestuta (ARR-076/010)

Oiloak zakuetan sartuta eraman zituzten gurdian. Bidean soldaduak zeuden, ogi eske. Dominikak eta familiak San Kristobal santuaren ondoan egin zuten lo egun batzuetan.

415. Tiro artean itzuli ziren etxera (ARR-076/011)

San Kristobalen zeudela, alde bateko eta besteko soldaduen kantak entzuten zituzten gauez. Errepublikanoen kantu bat gogoan du oraindik Dominikak, eta abestu egiten du. Euren etxera itzultzeko baimena lortu zuten; eta, bidean datozela, milizianoek tiro egin zieten. Ozta-ozta iritsi ziren etxera.

416. Babes-etxea aldatu behar (ARR-076/012)

Etxean ez zeuden seguru, San Kristobalera ezin ziren itzuli; horregatik, beste etxe batera, Lorokora, joan behar izan zuten. Lorokoa berreraiki berria zegoen, aterik eta ezer gabe, eta hilabete egon ziren bertan. Han ere tirokatu egin zituzten. Tropen arrantxoen soberakinak jaten zituzten.

417. Anaia gaztea tiroz zauritua (ARR-076/014)

Lorokoan egon ziren bitartean, nazionalek aita kalera eramaten zuten, guardiak egitera. Anaia gaztea, aitari ganaduekin laguntzen zebilela, tiroz zauritu zuten. Erreketeek eraman zuten kalera sendatzera. Bala aldean zuenez, mokor hezurrean sartuta, Tolosako ospitalera eraman zuten.

418. Ganaduak eta ardiak Eskoriatzara (ARR-076/015)

Aitaren senidea zen errekete bati esker, ardiak eta idiak Eskoriatzako Mendiola auzora eraman ahal izan zituzten. Ihesi zihoazen auzotar batzuek Etxaldebarri hutsik ikusi zuten eta sartu egin ziren, baina tiroak hasi eta Lorokora joan ziren.

419. Baserria hondatuta eta hutsik (ARR-076/016)

Senidea zuten errekete baten laguntasunarekin, Dominikaren familia azkenean kalera joan zen. Etxaldebarri baserria nahiko hondatuta geratu zen gerran, eta etxean zeuden gauza guztiak ostu zizkieten. Tropak Bilbora iritsi ziren arte, kalean egon ziren. Maiatzean etxera itzuli, eta aurreko urtean ereindako artoa batu zuten soroan. Oilo batzuk jarri, ganaduak berriro ekarri eta aurrera egin zuten.

420. Aita eta amandrea kartzelara (ARR-076/017)

Arrasaten, Kondearen etxearen behealdean zegoen gerra-babeslekua gogoratzen du. Behin amandrea larritu egin zen eta berak bakarrik ihes egin zuen kaletik baserrira. San Kristobalen zegoela, semea joan zen bila eta biak harrapatu eta kartzelara eraman zituzten, espioitzat hartuta.

421. Familian ezbeharrak (ARR-076/019)

Amandrea 1938. urtean hil zen, eta aita Elma lantegian hasi eta bertan jasan zuen infartu batek eraman zuen 1939. urtean, laugarren semea jaio eta urte bira. Dominika neskame joan zen Gasteizera, baina laster etxera itzuli behar izan zuen.

422. Dominika etxera ezkondu zen (ARR-076/020)

Anaia zaharrenari ez zitzaion baserria gustatzen. Ama 1950. urtean hil zen, eta lau anai-arrebak geratu ziren. 1946. urtean ezkondu zen Dominika Bergarako mikelete baten semearekin. Deban jaio eta Meatzerreka auzoan hazitakoa zen senarra. Seme bat izan zuten.

423. Jolasak eta erromeriak (ARR-076/021)

Hanka-koskorka, sokasaltoka, "kuika" eta antzeko jolasetan jolasten zuten eskola denboran. Lagun gutxi elkartzen ziren jolaserako. Kanpazarko erromerietara joaten ziren. Auzoko jaiak San Valeriotan izaten ziren, urtarrilean. San Juanetan eta Santamasetan kalera joaten ziren.

424. Esnea diru-iturri (ARR-076/022)

Kalean saltzen zuten esnea zen diru-iturri nagusiena. Arrautzak ere eramaten zizkieten bezeroei. Dominika ez zen plaza-andrea izan, baina bere amak eramaten omen zituen gauzak plazara.

425. Haurtzaindegitik mojetara (ARR-080/003)

Haurtzaindegi antzeko batean egon zen urte pare batez, "Señora Palacios"en zaintzapean. Gero mesedetako mojen eskolara joan zen, zortzi urtera arte.

426. Erdarak ematen zizkion arazoak (ARR-080/004)

Mojen eskolatik "Don Lucio Portillo"renera joan zen, 14 urtera arte. Eskola denak erdaraz jaso zituen. Erdara ahoskatzeko arazoak izaten zituen.

427. Jolasleku ugari (ARR-080/005)

"Kalistruetan" (klaustroa), elizpeetan eta Zentro Katolikoan egiten zuten jolas. Pilotan tantoa egiten zuenari xemaikoa ematen zion galtzaileak. Futbola eta pilota ziren jolas nagusiak.

428. Antzerkizalea eta koruko abeslaria (ARR-080/006)

Zazpi urterekin koruan sartu zen, musika ikasi eta soprano ahotsarekin abestera. Berrogei urtera arte egon zen koruan. Gaztetan antzerkietarako atzealdeak margotzen zituen. Txinatarren istorioak antzezten zituzten. Eskolatik goiz irteten zuten, eta Santa Barbara parkera joaten ziren jolastera.

429. Mutikotako kontuak (ARR-080/007)

Kuadrillako "kapitaina" Modesto Otadui zen. Ganaduak zaintzen laguntzen zioten, eta gero txakolina edaten zuten ezkutuan, infernuko istorioak kontatzen.

430. Zizurkilen jaio zen Julio (ARR-080/008)

Krisialdi baten ondorioz, gurasoak Zizurkil aldera joan ziren lan bila, eta bertan jaio zen Julio. Bera jaioberria zela, Eibarrera joan zen familia, baina laster itzuli ziren Arrasatera, Resusta kalera. Gerraostean Erdiko kalera aldatu ziren.

431. Industria maisutza ikasten (ARR-080/009)

Biteri eskolan margotzen ikasi zuen, eta Udalaren beka baten bidez industria maisutza ikasi ahal izan zuen. Bergarara joaten ziren azterketak egitera.

432. Gerrak ikasketak eten betirako (ARR-080/010)

Ikasketen azkenengo mailan zeudela, gerra hasi zen eta betirako eten ziren ikasketok. Eskolako praktikak egitera Bergarara joaten ziren. Portillo irakaslearen eskola non zegoen azaltzen du.

433. Arrasaten fusilatutako abadeak (ARR-080/013)

Gerra denboran, Iruñera eraman zuten soldadu. Arrasaten fusilatu zituzten hiru abadeak ezagutzen zituen. Euskaraz irakastea izan omen zen abadeok egindako bekatua. Juliok eskolan zegoela jakin zuen abadeak atxilotu zituztela.

434. Musikarako zaletasun handia (ARR-080/015)

Txistularia ere bada Julio. Txistu eta koru entseguek denbora asko hartzen zioten. Mendizalea ere beti izan da.

435. Gerran Arrasaten hildakoak (ARR-080/016)

Gerratik libratu zen, ikusmena mugatua zuelako. Arrasaten geratu zen, eta bertan hildakoak oroitzen ditu.

436. Iruñera soldadu (ARR-080/017)

Arrasateko falangista-talde batean parte hartu zuen hilabete batzuetan. Gero Iruñera joan zen soldadu.

437. Teruelgo frontetik Mahonera (ARR-080/018)

Iruñetik Teruelgo frontera bidali zuten. Gerra bukaeran, Mahongo irlara bidali zuten. Eta handik Iruñera etorri zen berriro.

438. Iruñeko kartzelan eskribau lanetan (ARR-080/019)

Iruñean eskribau jardun zuen, presoen izenak eta datuak hartzen.

439. Sevillako katedralean kantari euskalduna (ARR-080/020)

Teruelen elurra zen, eta hotzak jota gaixotu zenez, baja eman zioten. Bajan zegoela, Zaragozara eta Sevillara eraman zuten. Sevillako katedraleko koruan Aretxabaletako lagun batek kantatzen zuen.

440. Ciudad Realen soldadu (ARR-080/022)

Gerra denboran, bere ibileren egunkaria idatzi zuen, eta margoak ere egiten zituen. Gerra bukatu eta gero, Ciudad Realen egon zen soldadu. Hango ardandegi batean euskaldun artean egiten zituzten ezkailu-janak gogoratzen ditu. La Manchako ardo ederra edaten zuten.

441. Gizonezkoen parean lanean (ARR-082/004)

Kristina pinu botatzen jardundakoa da, trontzan gizonezkoekin. Ganadua zaintzen ere ibiltzen zen. Eskolara gutxi joan omen zen.

442. Gerra denboran kalera (ARR-082/005)

Gerra denboran, soldaduak etxeko ganbaran egon ziren, euren bonba eta guzti. Orduan ahizpa baten etxera joan zen kalera, eta Mesedetako eskolan (Mercedarias) ikasteko aukera izan zuen. Arrasateko bonbardaketak eta hildakoak gogoratzen ditu.

443. Anaia galdu zuen gerran (ARR-082/006)

Aita gerra denboran etxea zaintzen geratu zen. Anaia bati Teruelgo batailan oinak izoztu zitzaizkion. Etxera bidali zuten, baina Elgoibarko ospitalera eraman, eta bertan hil zen.

444. Elurteak lanak zaildu (ARR-082/008)

Ganaduak eta behorrak zituzten Garratzen. Amak goizero behorrek tiratutako organ ekartzen zuen esnea kalera. Elurtea bazen, behorrari saskiak jartzen zizkioten esnea ekartzeko. Lehen elurra gehiago sendotzen omen zen. Soldaduek ez zieten ganadurik kendu.

445. Auzoa erasopean (ARR-082/010)

Militarrek auzo guztia hustu zuten, Garratz baserria kenduta. Etxe inguruak erasoak izan zituen. Bonba batzuk ez omen ziren lehertzen. Kanpazar aldetik etortzen ziren bonbok. Urruneko bonbardaketak ere entzuten zituzten. Frontea aldendu eta gero, etxetik kalera joateko baimena (salbokonduktoa) behar izaten zuten.

446. Aita salatu zuten (ARR-082/013)

Herritar batzuek salatuta, hiru epaiketa izan zituen aitak Arrasaten, Bergaran eta azkena Burgosen. Libre irten zen, eta salatzaileen izenak eman zizkioten.

447. Lehertu gabeko bonbak (ARR-082/015)

Garratz baserri inguruan, gerran lehertu gabeko bonbak egongo direla uste du Kristinak. Orduko bonbardaketak gogoan ditu. Garratz izan zen auzoko baserri bakarra etxekoak bidali ez zituztena. Anaia beste bandoan zegoelako, agian.

448. Behorrarekin Oñatiko plazara (ARR-082/017)

Ama Arrasateko eta Oñatiko plazara astero joaten zen, behorrarekin, etxeko gauzak saltzera. Behorren trikimailuak azaltzen ditu Kristinak.

449. Erreka etxean sartu zitzaienekoa (ARR-082/018)

Gerra denboran, urik ez, baina argindarra bazuten etxean. Arropak errekan garbitzen zituzten. Etxe ingurutik pasatzen zen erreka Anporreta menditik

gainezka etorri zen batean, etxeko ate batetik sartu eta beste batetik irteten zen; ukuiluko abereek igeri egin omen zuten.

450. Arrasateko uholdeak (ARR-082/019)

Kalean uholdeak izan ziren garai batean. Uholdeak egin zituen kalteak azaltzen ditu. Etxeko soroetan urarentzako bideak egiten zituzten, kalteak gutxitzeko.

451. Etxezarretako jauna etxeko lorategian ehortzia (ARR-082/020)

Etxezarreta etxeko ugazaba aberatsa zen. Bi neskame zituen. Sagardoa egiten zuen etxean. Kristina batzuetan hara joaten zen jolastera, panpinak zituzten eta. Etxeko jauna hil zenean, elizkoia ez zenez, etxeko lorategian lurperatu zuten.

452. Etxezarretako lursailak (ARR-082/021)

Etxezarretako jauntxoa hil eta gero, bere senideren bat egon omen zen bertan bizitzen, baina etxea utzikeriak hartuz joan zen. Ganadu eta soro asko omen zituen. Lursailak San Prudentzioraino ailegatzen ziren.

453. Etxezarretar aberatsak (ARR-082/022)

Trajez jantzita ikusten zuten Etxezarretako jauna. Bere alabari "la señorita" deitzen omen zioten. Kristinaren osaba, Etxezarretako zaintzailea zenez, bere familiarekin etxe nagusiaren ondoan bizi zen.

454. Gerraosteko industria-garapen zaila (ARR-084/024)

Arrasaten gerraosteko industria-garapena zaila izan zela dio Joxek, ezerezetik sortu zirela tailer asko.

455. Lanera, hodiak hartuta, bizikletaz (ARR-084/025)

Arrasaten sei auto besterik ez zeudenean, Joxek hodiak eta tresneria bizikletaz eramaten zituen obrara. Citroen "dos caballos" izan zen Joxeren lehenengo lanerako autoa, "cuatro-cuatro" baino lehenago irtendakoa. Pilota partidetara joateko Volkswagen bat zuen.

456. Pilotari modernoa (ARR-084/026)

Joxek izan zuen moduko Volkswagena, Oñatin bat eta Bergaran beste bat besterik ez zeuden garai hartan. Urik gabeko kotxeak ziren.

457. Auzoko eskolan eta Zornotzako karmelitetan (ARR-087/002)

Auzoko eskolan ibili zen. 11urterekin Zornotzako karmeliten kolegiora joan zen urte bi eta erditan. Gerrak bere ikasketa sasoia eten zuen.

458. Don Javier Belazadi abade-maisua (ARR-087/004)

Don Javier Belazadi abade zarauztarra izan zen bere maisua auzoko eskolan. Abade ona zela dio. Nazionalistekin gudari ibili zen. 2-3 urtez kartzelan egon zen. Handik eta hemendik ibili ostean Txilera joan zen. Hainbat kontu kontatzen ditu.

459. Fraideetan euskara eta latina ikasgai (ARR-087/007)

Eskolan ikasitakoa fraideetara joaterakoan dena ahaztu zitzaiola dio. Fraideetan latina eta euskara baino ez zuten ikasten. Tolosako maistra bat izan zuten auzoko eskolan.

460. Gerra sasoian, dena apurtuta (ARR-087/008)

Gerra sasoian dena apurtu zuten: eliza, eskola... Beraien etxea ere jo zuten. Senitarteko batzuk kalera joan ziren (bera tarteko) eta beste batzuk bertan gelditu ziren. Geroago, Elorriora egin zuten alde. 7 hilabete iraun zuen gerrateak.

461. Errepublikazaleak etxean (ARR-087/009)

Errepublikazaleak bere etxean egon ziren. Gorriak eta erreketeak non egon ziren azaltzen du. Auzoko guztiak Bizkaira bidali zituzten, eta etxearekin gelditu ziren. Gerratik bueltan, etxera bueltatu zirenean, dena hondatuta aurkitu zuten.

462. Gerra ostean etxean hutsik (ARR-087/010)

Gerra aurretik bost-sei idi zituzten etxean. Idiak mantendu zituzten gerra sasoian Elorriora eraman zituztelako, baina behorra ez, behorra galdu egin zuten. Gauza guztiak ostu zizkioten etxetik.

463. Ganadua auzotarren laguntzaz babestu (ARR-087/013)

Artzainek ere alde egin zuten: Bilbo aldera, Karrantzara... Ganadua auzotarrek lagunduta eraman zuten Elorriora.

464. Ogi-banatzaile lanetan (ARR-087/016)

Gerra sasoian, aita eta bera kalean egon ziren. Aitak Pio Azkarateren okindegian egiten zuen lan orduan, eta bera ere bertan aritu zen ogia banatzen.

465. Zerrajeran lanean (ARR-087/018)

Gerra ostean etxera bueltatu eta 16 urterekin Zerrajeran hasi zen lanean. Zerrajeran egiten zuen lana azaltzen du. Bederatzi urtez aritu zen bertan lanean.

466. Basoko lanetan 15 urtez; ostean Roneon; eta, azkenik, Zerrajeran (ARR-087/019)

Zerrajeran aritu eta gero 15 urtez basoan aritu zen lanean. Gero Roneon hasi zen lanean postu ezberdinetan. Roneo txarto egon zenean Zerrajerara bueltatu zen.

467. Zerrajeran granadak egiten; Arrasateri eraso egin ziotenekoa (ARR-087/021)

Zerrajeran granadak egiten zituzten: 10.5 eta 7.5 tamainakoak. Zerrajerari eraso egiten saiatu arren, inoiz ez zuten lortu. Erasoak hasterakoan, kanpaiak jo eta babeslekura joaten ziren arineketan. Kontzesioko komentua zegoen Guardia Zibilen kuartel ondoan, eta kanoikadaz egin zioten eraso.

468. Eskola berria eraiki zutenekoa (ARR-087/024)

Eskola apurtu eta berria eraikitzeko gorabehera asko egon ziren. Orduan gertatutakoa kontatzen du, sasoi hartan alkatetzan egon ziren batzuk eta bestela partu hartu zuten batzuk aipatuz.

469. Sakristau lanetan; mezak latinez (ARR-087/028)

Sakristau lanetan ibili izan da urte askoan. Bere aita ere izan zen. Bost urte zituela hasi zen abadeari laguntzen. Orduko mezak latinez izaten ziren.

470. San Esteban eguna (ARR-087/030)

"Heladeruak" izotza saltzen zuen eta San Esteban egunean goizez abadeak limonada egiten zuen. Elur-zuloan izaten zuten izotza eta astoz ekartzen zuten. Hamaiketan meza izaten zen. Bolalekua ere egoten zen Bi taberna eta bolalekua zeuden. Gonbidatuak izaten zituzten etxean, ganbaran egin behar izaten zuten lo.

471. Auzolana (ARR-087/033)

Auzolanean bideak konpontzen zituzten. Zelan konpontzen zituzten azaltzen du: abereen laguntzarekin.

472. Abadeek ez zuten askorik irauten bertan (ARR-087/035)

Urte berri egunean auzoak 18 ogerleko eman zizkion sakristau zela maiordomoarekin batera. Txandan zen maiordomoa. Abadeak beraien etxean egoten ziren apopilo. Abadeek ez zuten denbora asko irauten bertan, errepiderik ez zegoelako.

473. Zumarragan moja sartu zen (ARR-129/004)

20-21 urterekin moja sartu zen Zumarragan. Nobiziatua egindakoan, Oiartzunera joan zen. Han eskolak ematen aritu zen umeei.

474. Azkue eta Lekuonaren irakasle (ARR-129/005)

Hainbat famaturen irakasle izan zen; Jose Manuel Azkue organujolea eta Juan Mari Lekuona izan zituen ikasle, besteak beste.

475. Oiartzungo konbentua erietxe gerran (ARR-129/006)

Gerra garaian Oiartzunen zegoen. Irundik herria bonbardatzen zuten eta haien etxea ere jo zuen bonba batek. Emakume soldaduak gogoan ditu, beldurtu egiten zen haiekin. Zaurituak sendatzen aritzen ziren.

476. Eskoriatzan 25 umezurtz konbentuan (ARR-129/009)

Eskoriatzan gerraostean oso egoera txarrean zeuden komentuan. 25 neskatila ekarri zituzten Madrildik bertan hazi eta hezteko; gehienak fusilatuen alabak. Haien gastuak estatuak ordaintzen zituen.

477. Saturrarango kartzela (ARR-129/011)

Eskoriatzatik Santanderrera joan zen, arrantzaleen auzora. Handik Saturraranera joan zen. (Hango bizipenei buruzko pelikularen aipamena egiten du).

478. Saturrarango kartzelan lanean (ARR-129/012)

Saturranango kartzelan egon zen moja. Ekonomatuan lan egiten zuen. Emakumeak preso zeuden bertan, haien umeekin. Asturiaskoak ziren asko.

479. Santanderreko kartzelan lanean (ARR-129/013)

Santanderreko kartzelan lanean aritu zen, tabakaleran. Ia lau mila preso zeuden. Oso gauza gogorrak ikusi zituen, garrote bilarekin presoak hiltzen, adibidez. Preso euskaldun bati lagundu ziola gogoan du.

480. Santanderreko kartzelako ekonomatua (ARR-129/015)

Santanderren Tabakaleran egon ziren presoak. Bera ekonomatuaz arduratzen zen. Zer saltzen zuten eta nola azaltzen du.

481. Gaztetan debekuagatik dantzarik ez (ARR-129/018)

Erromeriara dantzara joatea debekatua zegoen eta ez zen joaten. "Mariaren Alabak" kongregaziokoa zen. Jai egunez zer egiten zuen kontatzen du.

482. Orotariko giltzaren asmatzailea (ARR-129/019)

"Unión Cerrajera"ko kontramaisua eta akzioduna zen aita. Hark asmatu omen zuen orotariko giltza.

483. Saturranango kartzelan 30 preso (ARR-129/023)

Saturrarango kartzelan ekonomatuan lan egin zuen. 30 emakume preso zeuden, beraien umeekin. Lau kartzelatan lan egin zuen.

484. Garagartzako eskola eta dotrina (ARR-144/002)

Zazpi urte ingururekin hasi zen Garagartzako eskolan. Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten, bestela "egurra" jasotzen zuten. Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen, eta ez zen egunero joaten eskolara. Don Joakin apaizarekin eta Don Ziriako maisuarekin ikasten zuten. Dotrina ikastera elizara joaten ziren.

485. Ume garaiko jolasak (ARR-144/003)

Eskola garaiko jolasak. Ipurdi topeka nola jolasten zuten kontatzen du. Kaniketan, txori-habi bila, txirikiletan... ere jolasten zuten.

486. Garagartzako eskola eta Arrasateko gau-eskola (ARR-144/004)

Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen, eta, horregatik, ez zen beti joaten eskola. Juan gustura egoten zen eskolara joan gabe. Eskolan, ekainean egiten zituzten azterketak. Luma nola oratu behar zen, lau erregelak, irakurtzen, ortografia... ikasten zuten. Eskolan ematen zizkien liburuak. Gero, bi-hiru hilabete egin zituen Arrasateko gau-eskolan.

487. Zapo kale (ARR-144/009)

Juan Zapo kaleko Lazaruena baserrian bizi da. Kalearen izenari buruzko azalpenak ematen ditu. Kale horretako errekan zapo eta arrain ugari izaten omen zen lehen.

488. Garagartzako zazpi kaleak (ARR-144/011)

Garagartzako zazpi kaleen izenak aipatzen ditu: Zapo kale, "Añue" kale, Ezti kale, "Euzki" kale, Matxin kale, Elizondo kale eta Zabalbide. Bizilagunen arteko harremanei buruz hitz egiten du.

489. Gari-lanak (ARR-144/013)

Zemendian (azaroan), lurra bueltatu eta hazia botatzen zen. Martxo inguruan, trailua pasatzen zuten lur horretan. Ekaina-uztaila aldera, garia ebaki, lotu eta metatan biltzen zen. Larrainean garia nola jotzen zuten azaltzen du.

490. Garia entregatu behar (ARR-144/016)

Garia entregatu egin behar izaten zuten (udalera, abadeari...): 25 kiloko hiru zaku. Etxerako ez zitzaien gari asko geratzen. Irina Markuletetik eta inguruko errota batetik lortzen zuten.

491. Artotza (ARR-144/017)

Etxeko labean erretzen zuten artoa. Arto gehiago jan ohi zuten garia baino. Arto-irinarekin morokila, taloa, tremeza eta artotza egin ohi zituzten. Artotza: arto-irinarekin ore bat egin, txapan erre eta bi aza-orritan bilduta jan ohi zuten.

492. 16 urterekin, basolanean hasi (ARR-144/020)

16 urterekin hasi zen basolanean Juan. Normalean, inguruko basoetan aritzen zen lanean. 50. hamarkada hasieran, Jaizkibel aldeko baso bat erre zen, eta hango basoetan lanean aritu zen hainbat hilabetez. Lau urte egin zituen basolanean.

493. Soldadutza, Marokon (ARR-144/021)

Alcazarquivirren (Ksar el-Kebir), Marokon, egin zuen soldadutza. Juanen amaren ahizpa bat moja zegoen han, eta, haren eraginari esker, "bizimodu ona bota" zuela eta soldadutza guztia kale-jantzian egin zuela kontatzen du. Ospitalean asistente lanak egiten zituen goiz partean, eta bertan erretiratzen zen gero. 20 hilabete egin zituen Afrikan.

494. Zerrajera eta Etruk ermandadea (ARR-144/026)

Soldadutzatik bueltan, Zerrajeran lanean hasi eta bertan aritu zen jubilatu zen arte. Zerrajeran zer lan egin zituen azaltzen du. Zerrajerako Etruk ermandadeari buruzko azalpenak ematen ditu: langileen artean diru-bilketak egiten ziren beharra zutenen artean banatzeko... Zerrajerako hainbat ugazaben abizenak aipatzen ditu.

495. Lezetxikiko artzaina eta lamia (ARR-144/034)

Korrioneko artzaina Lezetxiki inguruan bizi zen lamia batekin maitemindu zen. Artzaina nahigabearekin hil zela kontatzen du.

496. Feria eta esnea (ARR-144/038)

Hamabostean behin egiten zen feria Arrasaten. Juanen aita joan ohi zen tratua egitera. Esnea eramaten zien Santa Agedako moja eta fraideei.

497. Aitajauna gizon gogorra zen (ARR-145/002)

Aitajaunak ez zekien erdaraz berba egiten. Meatzerreka auzoko Txakuena baserrikoa zen Jorge Arana aitajauna. Gerra denboran, familiak ihes egin zuen, baina aitajauna etxean geratu zen. Bere lehengusuari esker, General Tablas ezizenez ezaguna, etxea zaindu ahal izan zuen.

498. Izeba fusilatu zuten Oiartzunen (ARR-145/003)

Gerra denboran, Bilboko Begoña auzora ihes egin zuten; baina aitaren atzetik zebiltzanez, Santanderrera joan ziren. Handik hanka egin behar izan zuen aitak, bizirik jarraitzeko. Aita abertzalea zen. Bere arreba Paula Oiartzunen fusilatu zuten.

499. Ama pontekoa bonben azpian (ARR-145/004)

Aita gerran beti ihesi ibili zen. Bilboko Begoña auzoan gordeta zeudela, etxean ume bat jaio zen. Pilar izan zen ama pontekoa, eta gogoan du elizara bidean gertatu zen bonbardaketa. Aitajauna zen Pilarren aita pontekoa, eta ezkondu eta gero ere egiten zion "karapaixoa" (Pazko-opila).

500. Begoñako baserri batean babestuta (ARR-145/005)

Begoñan baserri batean egon ziren, eta Bilbora esnea banatzen laguntzera joaten zen Pilar. Hasieran, baketsu zegoen Bilbo; baina, Artxandatik bonbardaketak hasi zirenean, Santanderrera joan ziren.

501. Bonbardaketa egunean Durangon zeuden (ARR-145/006)

Bilbon tuneletan gordetzen ziren. Durangoko bonbardaketa egunean, Pilar eta bere familia Durangon zeuden. Bonbardaketa beldurgarria izan zela dio. Begoñatik Santanderrera autobusez joan ziren, beste hiru senar-emazte arrasatearrekin. Santander hiriburuko kale-etxe batean egon ziren.

502. Fraideak aita salatu zuenekoa (ARR-145/007)

Sei hilabete zeramatzaten Santanderren aitak ihes egin behar izan zuenean. Aitajaunari deitu zioten eta honek kudeatu zuen familiaren buelta Arrasateraino. Fraide karlista batek aitari salaketa jarri zion tailerreko dirua lapurtzeagatik. Dena gezurra zela frogatu zuten.

503. Bataiatu gabeko umeak linbora (ARR-145/010)

Igandero egoten zen dantza herriko plazan, musika bandak girotuta. Pazkoetan Bergarara joaten ziren. Gasteizera eta Bartzelonara ere joaten ziren ezkondu eta gero. Ez omen zuten umerik ekartzeko astirik izan. Umeak bataiatu gabe hiltzen baziren, linbora joaten zirela esaten zuen erlijioak. Begoñako bataiora bidean, arbolapeetan etzaten ziren bonbetatik babesteko.

504. Asa lantegian gehienak emakumeak (ARR-145/013)

Asa lantegian botikak eta kremak sartzeko edukiontziak egiten zituzten. Alanbrezko eskuilak eta garbitzaile metalikoak ere egiten zituzten, besteak beste. Arrasateko emakume guztiek egin zutela lan Asa-n dio Pilarrek. Amaginarreba hil zitzaionean lana utzi eta etxean gelditu zen.

505. Gerra aurretik ondo jaten zuten (ARR-145/016)

Gerra aurretik barazkiak, arraina edota okela izaten zuten egunero jateko, baina oilaskoa San Juanetan eta Gabonetan bakarrik izaten zen. Plazan erosi edo baserritik ekartzen zituzten janariak. Esnea eta taloak beti baserrikoak.

506. Gerra aurreko dendak (ARR-145/017)

Denda asko zeuden Pilar gaztea zenean. Zarugalden bi okindegi zeuden; arraina plazako arrandegian eta okela Miraballesen haraategian erosten zuten. Beste denda batzuk eta euren izenak aipatzen ditu.

507. Zerrajerako kooperatiba (ARR-145/018)

Erosi ahala ordaintzen zuten, dirutan. Zerrajerako kooperatiban ere egiten zituzten erosketak. Olioa, ikatza eta sutarako egurra handik hartzen zuten. Zarugaldeko sukaldean ekonomika bazuten.

508. Errazionamenduan arazorik gabe (ARR-145/019)

Puru bat eta berarentzako gozokia erostera bidaltzen zuen aitajaunak plazako Urionanera erreal batekin. Errazionamendu kontuak aipatzen ditu. Eurak ondo egon ziren, baserritik eta Zerrajerako kooperatibatik gauza asko lortzen zituztelako.

509. Laztanak emateko beldurrez (ARR-145/023)

Ignorantziaren eraginez laztan bat emateko beldurrez egoten ziren nobioak. Takolo-ra joaten omen ziren bikoteak gordean ibiltzeko. "Lo que el viento se llevó" filma ikusi zuten guztiak aldaretik eskumikatuak izan ziren hurrengo igandeko hamaiketako mezan.

510. 'Hijas de María' komunitatean (ARR-145/025)

Hijas de María komunitateko kidea izan zen Pilar. Hilean behin elkartzen ziren abadearen hitzaldiak entzutera, euren lazo eta ikurrekin.

511. Debako hondartzara (ARR-145/027)

Batzuetan amak Debako hondartzara eramaten zuen. Bidaia trenez egiten zuten. Belaunetarainoko bainujantziekin egoten ziren hondartzan.

512. Aita aramaioarra eta ama durangarra (ARR-146/002)

Baserrian errenteroak ziren. Ugazaba Santa Agedako ospitaleko Añibarro medikua zen. Aita Aramaioko Berasategi baserrikoa zen, eta ama Durangoko hargin baten alaba, 14 urterekin Santa Agedara etorritakoa.

513. Baxabenatik Eguskitza baserrira bizitzera (ARR-146/003)

Ama Baxabena baserrira ezkondu zen, Zerrajeran lan egiten zuen aramaioar batekin. Aita auzoko ile-apaintzailea ere bazen. Baxabena baserria bota eta okindegia eraiki zuten Santa Agedako mojek. Mariak zazpi urte zituela, etxeko gauzak gurdian hartu eta familia Uribarri auzoko Eguskitza baserrira joan zen bizitzera.

514. Mojek aitajauna ezin baserritik bidali (ARR-146/004)

Maria umea zenean, Santa Agedan bainuetxea zegoen. Mojek, okindegia eraikitzeko, Mariaren aitajauna ezin izan zuten bere etxetik bidali harik eta hil zen arte.

515. Semea lan istripu batean galdu zuen (ARR-146/005)

Zortzi urterekin hasi zen eskolan, kaleko mojetan. Amat, Gautxori, Nieto eta beste lantegi batzuen kokapena azaltzen du. Nieto lantegian Mariaren semea istripuz hil zen.

516. Urte bi eta erdi bakarrik eskolan (ARR-146/008)

Uribe baserria nola erosi zuten azaltzen du. Bost anai-arrebatatik zaharrena zen Maria. Gazteena izan zen mutil bakarra, eta ez zuen nahi izan baserrian geratzerik. Burgostik etorritako "Damas de la Asunción"en eskolan ikasi zuen Mariak. Urte bi eta erdi egin zituen eskolan.

517. Uribarrin eraso militarra (ARR-146/009)

Gerra hasi zenean, aitak Zerrajeran egiten zuen lan. Ama eta lau alaba zeuden etxean. Nazionalek Uribarri auzoari egin zioten eraso. Santa Ana baserriko gizona ganbaran gorde, eta aitajauna, andrea eta umeak Eguskitzara etorri ziren babes bila.

518. Nazionalak eta gorriak (ARR-146/010)

Maria beste baserri batera joaten zen esnea eramatera. Gorriekin egin zuen topo eta haiek galdetu zioten zein etxetan prestatzen zuten nazionalek arrantxoa. "¡Viva España!" batzuk entzun, eta gorriok Eguskitzan babestu ziren.

519. Kalera ihesi (ARR-146/011)

Goizeko seietan, kalera ihes egin zuten. Olaben etxean jaten ematen zieten, baina ezin zuten bertan lo egin. "Bar Errasti"ko etxea hutsik zegoen, eta bertan egon ziren abenduko hogeita bat egunetan. Handik Arrasate okindegi ondoko etxe zahar batera pasa, eta zazpi hilabetez egon ziren, Eguskitza baserria bista-bistan zutela.

520. Baserria gerran suntsituta (ARR-146/012)

Babestuta zeuden lekutik Eguskitza eta etxeko oiloak ere ikusten zituzten, baina ezin zuten bertara joan. Ganaduak harategira saldu zituzten. Aitak lanean jarraitu zuen, baina nazionalek gauez guardiak egitera behartzen zuten. Eguskitza baserria suntsituta geratu zen gerran.

521. Baserria berreraikitzen (ARR-146/013)

Baserria berreraikitzeko materiala astoz eramaten zuen Mariak etxera, eta morteroa eskuz egin. Baserriak asegurua bazuen, baina gerrako kalteak ez zituen ordaintzen. Baserria berreraiki eta laster aldatu ziren Uribe baserrira bizitzera. Bertan bizi izan dira Garaia Berrikuntza Guneak terreno guztiak hartu zituen arte.

522. Urte bi neskame (ARR-146/014)

Elma lantegiko Julio Agirrebeitia ugazabaren etxera joan zen neskame. 30 pezeta ordaintzen zizkioten hilean. Luko txaletean umeak zaindu, etxeko lanak egin eta behiak jezten ere egiten zuen lan.

523. Neskametza utzi eta buelta etxera (ARR-146/015)

Oso pozik zegoen neskame lanetan, baina familiak hala eskatuta etxera itzuli zen. Etxera bueltatu eta amak josten ikastera bidali zuen. Urtebetean ikasi zuen josten. Eskolan erdaraz ez jakiteagatik izan zituen arazoak gogoratzen ditu.

524. Santua laztanak zaintzen (ARR-146/022)

Nobiotan laztan bat emateko beldurrez.

525. Semea elektrokutatuta (ARR-146/023)

Bere semea lanean elektrokutatuta nola hil zen azaltzen du.

526. Arrasateko bilakaera industriala (ARR-146/024)

Arrasateko enpresetako koadrorik onenak, Don Jose Mariak Fagorrera eraman zituela dio Mariak, eta horrek enpresa horien gainbehera ekarri omen zuen. Semea galdu zuenean Don Jose Mariak hartu zuen jarrera azaltzen du.

527. Legutiotik Arrasatera (ARR-148/002)

Urtebetez Legution eskolatu zen, erdaraz. Gurasoek erdaraz hitz egiten zien, nahiz eta haiek euskaldunak izan. Gero, ama hil egin zen, eta osaba-izekoekin Arrasatera joan zen bizitzera. Arrasaten, abadetxeko eskolan hasi zen. Luisek ez zekien euskaraz mintzatzen, baina eskolak euskaraz ematen zituzten, eta eskolako kide guztiak euskaldunak zirenez, berehala ikasi zuen hizkuntza. Dotrina euskaraz ikasteagatik sari bat jaso zuela aipatzen du. Garai hartan, Arrasaten ez omen zen erdaldunik.

528. Mutikotatik Soroetxen lanean hasi (ARR-148/004)

Mutikotatik hasi zen lanean Soroetxe izenarekin ezagutzen zen 'Alberdi y Cía' lantegiko bulegoan. Larru zurrategi lanez aparte, esmeril-harriak ere egiten zituzten Soroetxen. 16 urterekin, Zerrajerako bulegoan lanean hasi eta bertan jardun zuen erretiroa hartu zuen arte.

529. Gerra gertutik bizi (ARR-148/005)

Luisek 16 urte zituela etorri zen gerra. Zarugalden muga jarri zuten: Zarugaldetik aurrera "gorriena" zen, eta Zarugaldetik herri aldera Francoren aldekoena (Luis alderdi horretan geratu zen). 18 urte zituela, Francoren tropekin joan zen gerrara. Luisen aita Legutioko udaltzaina zen, eta, gerra denboran, "gorriek" kartzelaratu egin zuten. Anaia bat "gorrien" bandoan zegoen, eta beste anaia bat, berriz, "Gora Euskadi!" esan zuelako Gasteizko kartzelan sartu eta ez zuten gehiago haren berririk izan. Arrasaten preso hartu eta Oiartzun aldean fusilatu zituzten pertsonei buruz hitz egiten du.

530. 'Alberdi y Cía' lantegiko kontuak (ARR-148/007)

'Alberdi y Cía' lantegian (Soroetxe izenarekin ezagutzen zen) zer lan egiten ziren azaltzen du: larru zurrategi lanak, esmeril-harriak, alpargatak... Leonardo

Alberdi zen lantegiko nagusia. Esmeril-harriarekin langile batek izandako lan-istripu bati buruzko azalpenak ematen ditu.

531. 'La Quinta del Biberón' (ARR-148/010)

18 urte zituela, soldadutzarako deitu zuten Luis: 'La Quinta del Biberón' ziren beraiek. Gerrara deitutako soldadu gazteenak zirelako jaso zuten deitura hori. Gerran nondik nora ibili zen azaltzen du: Gasteiztik Nafarroa aldera, handik Guadalajarara... 18 urtetik 24 urtera bitarteko sei urteak "denbora galdua" izan zirela dio Luisek; etxeratzeko baimena ematen zien, baina behin baino gehiagotan deitzen zien gerrara joateko.

532. Soldadu denboran, eskribiente (ARR-148/012)

Soldadu denboran, nondik nora ibili zen azaltzen du. Gasteizen zegoela, Burgostik deitu zioten "Subinspección General de la Sexta Región"en eskribiente aritzeko. Traje zahar batekin bidali zuten Burgosera, eta, handik, berriz ere Gasteizera bidali zuten "Burgosera traje dezenteaz joateko" agiduarekin. Logroñon egon zen denboran, lan ordezkaritzan aritu zen lanean; jatorduak, kuartelean egiten zituen.

533. Guadalajaran, gerra bukatu (ARR-148/013)

Gerra denborako kontuak. Luis soldadu denboran eskribiente lanetan ibili zen batean eta bestean. Soldadu gisa Guadalajarara bidali zuten, baina bera iristerako bukatu omen zen gerra. Behin Guadalajaran, batetik bestera ibili ziren lurrak okupatzen. Luis bi aldiz egon zen soldadu: lehenengo, gerra zibilerako deitu zuten; eta bigarren aldian, II. Mundu Gerrarrako.

534. Erromeriak, musika-banda eta dantza-eskea (ARR-148/017)

Gazte denboran, Garagartzako eta Santa Agedako erromerietara joan ohi zen Luis. Domeka goizetan, musika-bandak kalejira jotzen zuen kalean; arratsaldetan, Otxoa danbolinjolea egoten zen lehenengo, eta, gero, musika-bandak jotzen zuen. Gazteak, pieza pare bat dantza egin eta estazioraino joaten ziren paseoan. Gero, plazara bueltatzen ziren dantzara. Plazako dantza-eskea nola izaten zen kontatzen du. Arrasateko mutilek ohitura handia zuten Bergarara joateko andregai bila; trenez egiten zuten joan-etorria.

535. Trenak, geltokiak eta ibilbideak (ARR-148/018)

Lehenengo, ikatzezko trena zegoen. Eta Francoren denboran, tren elektrikoa jarri zuten. Trenak, Maltzagan egiten zuen Donostiara edota Bilbora joateko gurutzaketa. Mekolalden, trenek Zumarragarako eta Gasteizerako norabidea har hartzen zuten. Tren-geltokiak eta ibilbideak zein ziren azaltzen du.

536. Hainbat egunkaritako korrespontsal (ARR-148/021)

Hiru-lau egunkaritako korrespontsala izan da Luis: Pensamiento Alavés eta El Diario Vasco egunkarietarako kronikak idatzi izan ditu, esaterako. La Voz de España egunkariko korrespontsal izateko proposamena jaso zuen, baina uko egin zion. Orri osoko hainbat kirol-kronika idatzi zituen Pensamiento Alavés egunkarirako.

537. Iturriotz kalea (ARR-148/025)

Luis Arrasatera bizitzera joan zenean, Jose Maria Resusta kalean bizi zen, abadetxea baino pixka bat beheraxeago. Gaur egun, Iturriotz izena du kale

horrek, eta gerra aurretik ere hala zela dio. Kontzezioko iturriko ur hotzagatik hartu omen zuen kaleak izen hori.

538. 1934ko matxinada eta tiroketak I (ARR-148/027)

1934ko matxinada. Gizon bat tiroka hasi eta Luisen etxeko leiho ertze batean tiro batek jo zuela kontatzen du. Antza, etxeko teilatutik iraultzaileengandik ihesean zihoan gizon bati zuzenduta zeuden tiroak (Zerrajerako ingeniaria bera). Matxinada hartan, Marcelino Oreja eta Dagoberto Resusta enpresariak hil zituzten. Iluntze aldera iritsi siren Gasteiztik tropak Arrasatera, eta "reboltasoek" ihes egin zuten mendi aldera.

539. 1934ko matxinada eta tiroketak II (ARR-148/031)

1934ko matxinadari buruzko azalpenak. Iraultzaileek preso hartu zituzten Marcelino Oreja, Dagoberto Resusta eta Rikardo Azkoaga 'Casa del Pueblo'n. Gasteizko armako tropak Arrasatera heldu zirenean, iraultzaileek hiru presoak askatu eta atzetik tirokatu zituztela kontatzen du Luisek. Azkoagak ihes egitea lortu zuen.

540. Anaia atxilotuta eraman, eta gehiago jakin ez (ARR-148/036)

Luisen aita Legutioko udaltzaina zen, eta, gerra denboran, "gorriek" kartzelaratu egin zuten. Anaia bat "gorrien" bandoan zegoen, eta beste anaia bat, berriz, "Gora Euskadi!" esan zuelako frankistek Gasteizko kartzelan sartu zuten, eta ez zuten gehiago haren berririk izan. Frankistak Legution sartu zirenean, herriari 'Baluarte Heróico de Álava' izendapena eman ziotela dio.

541. Aita santuari ezpata-dantza egindakoa (ARR-148/040)

1932an, Donostian ospatutako Aberri Egunean, ezpata-dantza dantzatu zuen Luisek. 1957an, Pio XII aita santuaren aurrean ezpata-dantza dantzatu zuen Erroman, Arrasateko Acción Católica taldearekin joanda. Erroman organojole zegoen Olatxo agustindar oñatiarrarekin ibili ziren.

542. Jolasak: txirikiletan, diez-beinteka... (ARR-149/003)

Ume garaian, sokasaltoan, txirikiletan, diaboloarekin, "al corro de la patata", "anboato", tortolosetan, diez-beinteka... egin ohi zuten jolas.

543. Elizako ospakizunak (ARR-149/004)

Egunero, arrosarioa egoten zen zazpietan. Eliz giroko hainbat ospakizun aipatzen ditu: 'Hora Santa', maiatzeko Hijas de María, nobenak, Ama Doloretakoa...

544. Errekara, zapaburuak batzera (ARR-149/008)

Aramaio aldetik etortzen zen errekak gaur egun baino ur gehiago izaten zuen. Mutilak bainatu egiten ziren; neskak hankak bakarrik sartu ohi zituzten uretan, zapaburuak batzeko. San Agustin kaleko garbitoki eta putzu inguruan bainatu ohi ziren mutilak. Neskak, berriz, hiltegi aldera joaten ziren.

545. San Agustin kaleko garbitokia (ARR-149/011)

15 urterekin utzi zituen ikasketak. Etxeko lanetan amari laguntzen zion. San Agustin kaleko garbitokira joaten zen arropak garbitzera. Herrian hiru garbitoki zeuden. Jende asko biltzen zen garbitokian; hango giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

546. Joskintza ikasten (ARR-149/013)

18 urterekin, Mala kaleko jostun batekin hasi zen aprendiz moduan. Bi urte egin zituen joskintzan, eta, gero, oihala mozten ("corte") ikasteko Rosi Larrañaga jostunarekin aritu zen urtebetez.

547. Etxeko jostuna (ARR-149/015)

Etxerako josi ohi zuen Milagrosek. Galtzontziloak, soinekoak, alkandorak, bonbatxoak, prakak, barruko gonak, etxerako matalak... josi ohi zituen.

548. Kanpazar aldetik botatako bonbak (ARR-149/017)

Milagrosek 17 urte zituen gerra hasi zenean. Garai hartan, San Frantzisko kaleko etxetxo batean bizi zen familiarekin. Mendi batek babesten zuen beren etxea, baina pareko etxeetan Kanpazar aldetik botatako bonbak jausi zirela gogoratzen du.

549. Herriko dendak (ARR-149/020)

Gerra denboran dendak irekita egoten ziren; "orduan jan faltarik ez zegoen, gero etorri zen errazionamendua". Herriko hainbat denda aipatzen ditu: Kukuena, Garmendia, Zerrajera...

550. Udako egunpasa eta erromeriak (ARR-149/023)

Gaztetan, uda partean, Debara eta Kanpazarrera joaten ziren egunpasa. Santa Ageda, Garagartza, Uribarri eta Zigarrolako erromerietara joan ohi zen dantzara.

551. Domeka eta jaiegunetan, zinemara (ARR-149/032)

Domeka eta jaiegunetan zinemara joaten ziren; etxeetan ez zegoen telebistarik. Gurea antzokian antzerki eta abeslariak ere izaten ziren.

552. Ferrerias kaleko jaiak (ARR-149/034)

Santa Anatan, Ferrerias kaleko jaiak ospatzen ziren. Kaleko mutilak etxerik etxe joaten ziren erromeriarako borondate eske. Herriko beste kale batzuetako jaiak noiz izaten ziren kontatzen du.

553. Inguruko herrietako jaiak (ARR-149/035)

Santa Agedako, Bergarako eta Aretxabaletako festetara joan ohi zen lagunekin. Arrasateko bandak Bergarako Pazko jaietan eta Aretxabaletako Ama Birjinetako festetan jo ohi zuen, eta herriko jende asko joaten zen jai horietara.

554. San Frantzisko kaleko etxea (ARR-149/037)

San Frantzisko kalean bizi ziren etxeak bi solairu zituen. Bigarrengoan, inkilinoak zituzten. Abereak eta ortua ere bazituzten etxe ondoan. Kale horretan bi solairuko sei etxebizitza zeuden.

555. Garai bateko Arrasate (ARR-149/048)

Garai batean Arrasate nolakoa zen kontatzen du. Hainbat kale aipatzen ditu: Ferrerias kalea, Erdiko kalea, Agerre kalea... Zigarrolan, San Andresen eta Uribarrin dena baserriak ziren.

556. Gerra garaian Oñatiko kolegioan (ARR-150/006)

Gerra garaian Oñatin egon zen kolegioan. Bere anaiak bi soldadu eta bat kartzelan egon ziren.

557. Arrasateko eta Hondarribiko mojen eskoletan (ARR-151/002)

Umetan amaren baserrira sarritan joaten ziren. Mesedetako mojen eskolan hasi zen zortzi urterekin. Hondarribira joan zen gero, Hijas de la Cruz moja frantsesen eskolara. 14 urterekin bukatu zituen eskolak.

558. Juli sasoi onean (ARR-151/003)

Sasoi onean omen dago Juli; titiko umeak bezain ondo lo egiten duela dio. Mesedetako mojen eskolak errezo, kantu eta jolas artean pasatzen ziren. Hondarribian hasi omen zen irakurtzen eta idazten; oso gustuko du idaztea.

559. Oñatira ihesi, eta handik Hondarribira (ARR-151/004)

Hondarribian, senide batzuen etxean bizi zen. Hango oroitzapen onak ditu. Arrasatetik Oñatira ihes egin zuten, eta handik Hondarribira joan zen Juli. Gerra baretu zenean bueltatu zen etxera.

560. Oñatiko uztargilearen etxean (ARR-151/005)

Oñatin orduan Alzaa eta orain Kale Zaharra den uztargilearen etxean egon ziren babestuta. Senargaia gudari joan zen gerran. Gerrak ezjakinean harrapatu zuen. Senargaia hiru urtez egon zen gerran, eta gero "Batallón de Trabajadores", egurra eta lanik eza ezagutu zituen. Gutun asko idazten zizkion senargaiari.

561. Erromeriazalea zen (ARR-151/008)

Julik prozesioetan ez omen zuen parte hartzen, baina erromerietan bai. Ostegunetan eta igandetan zinera joaten ziren, eta igandero zortzi pieza dantzatzen zituzten. Oraingo aldean zoriontsuak zirela eta ondo pasatzen zutela dio. Bergarako eta San Prudentzioko jaietara trenez joaten ziren. Arantzazura ere urtero joaten ziren.

562. Ogia estraperloan (ARR-151/009)

Errazionamendu garaian, Adrian Garmendiaren okindegian estraperloan egiten zieten ogia jaten zuten.

563. Aita harakina (ARR-151/010)

Juliren aitak harategia zuen Resusta kalean, orain Iturriotz kalea dena. Juli jaio aurretik hil ziren bere lau anai-arreba. Aita harakin oso ezaguna omen zen. Harategia Pedro Salturrirena izenarekin ezagutzen zen.

564. Gerra aurreko harategiak Arrasaten (ARR-151/012)

Harategian Julik egiten zituen kobratze lanak. Bezero batzuek hurrengo astean ordaintzen zuten dendan hartutakoa; pobrezia handia omen zegoen. Okela besterik ezer ez zuten saltzen harategian, txahalena edo txerriena. Arkauzena eta Txantxotena ziren herriko beste bi harategiak.

565. Harategian obusa sartu zenekoa (ARR-151/013)

1937ko Santa Ageda eguneko bonbardaketan, obus bat sartu zitzaien harategian, eta Oñatira egin zuten ihes. Esekita zegoen txahala metrailaz beterik geratu zen. Senargaia Amaiur batailoian zegoen, eta bonbardaketan Juli hil egin zela esan zioten. Obusak ez zuen kalte handirik eragin harategian.

566. Senargai gudariak zituzten neskak (ARR-151/014)

Soldaduak etxean hartzera behartzen zituzten militarrek. Haietako batek "Episodios Nacionales" liburua ahaztu zuen etxean. Senargai gudariak zituzten neskak nazionalen arropak garbitzera behartzen zituzten. "Margaritak" deitzen zieten neska haiei.

567. Herritarrak artillerian adituak (ARR-151/015)

Beldur handia pasatu zuten gerran. Tiroei "pakun"ak esaten zieten. Egiten zuten zaratagatik ikasi zuten ze kalibretako kanoikadak ziren; morteroa zein zen... Gernikako bonbardaketa egunean, Arrasate gainetik hegazkin asko pasatu ziren.

568. Anaia gudaria tanke gidaria (ARR-151/016)

Gorrien eta nazionalen fronteetako soldaduen artean oihuka egiten zituzten berbaldiak argi entzuten zituzten gauez. Anaia bat izan zuen gudari; tanke gidaria zen eta onik bueltatu zen etxera. Gorriek Arrasate bonbardatzen zutenean, nazionalek plazara ateratzen zituzten ziegan zituzten gudariak.

569. Errepublika etorri zenekoa (ARR-151/018)

Errepublika etorri zenean bandera jarri zutela gogoan du. Eta baita Centro Republicanoko gramolak nola jotzen zuen errepublikanoen himnoa egun osoan.

570. Ezkontza Rerre-ren jatetxean (ARR-151/020)

Arrasaten ezkondu zen. Rerre-ren jatetxean izan zuten ezkon bazkaria. Arroza, legatza eta oilaskoa bazkaldu zuten. Senarrak Zerrajeran egiten zuen lan. Hiru seme-alaba izan zituzten.

571. Urte askoan bizitako Salturritarrak (ARR-151/021)

Konfesatzera astean behin joaten ziren. Aita zahartu zenean, egunero joaten zen berarekin mezara. Aitari "Salturri Zaharra" esaten zioten. Salturritar denak urte askoan bizi izan ziren. Gerra denboran, aitarekin egun batzuk pasatu zituen Salturri baserrian. San Valerioetan ere joaten ziren. Baserritar peto eta errugabe asko hil omen zituzten gerran.

572. Salturrira jende asko babes bila (ARR-151/022)

Salturri baserrian jende asko zegoen, gerratik babestera joanda. Gerra oso txarra dela dio Julik. Zenbat sufrimendu jasan zuten ama koitaduek senarrak kartzelan zituztela.

573. Oñati oso lasai gerra garaian (ARR-151/024)

Oñatin egon zirenean, gerratik babesteko ondo pasatu zuen. Handik Hondarribira joan zen, patrikan lau zilarrezko ogerleko zituela. Oñatiko lasaitasuna gogoratzen du. Lau senide egon ziren Uztargilearen etxean babestuta.

574. Harakinak eta esnedunak ziren (ARR-151/025)

Hondarribia oso lasai zegoen gerra denboran. Harresira joaten zen paseoan, han babestuta sentitzen zelako. Julik ez du orturik edo ganadurik zaindu inoiz. Aitak Bergaratik esnea ekartzeko orga eta zaldia zituen. Esne hori etxean saltzen zuten. Jendea lanera joan aurretik etxera etortzen zen esne bila.

575. Harategian askatasun gutxi (ARR-151/026)

Harategia ez zaio inoiz gustatu Juliri. Igandetan ere ireki egiten zuten, aurretik seietako meza entzunda. Lagunek inbidia zioten okela nahikoa eta dirua zuelako. Julik, berriz, lagunen askatasunaren inbidia zuen.

576. Aitarekin Urkiolan (ARR-151/027)

Kuadrillan bazuten mendira joateko ohitura, baina Julik harategian lan egin behar izaten zuen. Behin, aitarekin joan zen Urkiolara oinez. Aitak Urkiolako sakristauari sartu zion ziria azaltzen du Julik.

577. Aita oso pikaroa omen zen (ARR-151/029)

Aita tratulari ona omen zen, eta oso pikaroa, gainera.

578. Aretxabaletako bainuetxea gainbehera (ARR-151/031)

Hamasei urte zituela, Aretxabaletako bainuetxera bizikletaz joaten zen, azaleko gaitz bat artatzera. Bera joan zenerako bainuetxea erortzeko zegoen. Bainuontzia betetzen zioten, baina ez omen zegoen beste zerbitzurik.

579. Ozaeta baserriko kontuak (ARR-152/004)

Bederatzi urterekin Arrasateko mesedetako ikastetxea utzi, eta amaren jaiotetxera, Udalako Ozaeta baserrira, joan zen "jan aldera". Ozaetan baserriko bizimodua eraman zuen familiarekin. Ortuko landarak saldu ohi zituzten Durangon astoan joanda. Dozena erdi behi baziren baserrian, eta behi-esnearekin gazta egiten zuten; geratzen zen esnea kalean saltzen zuten Bixenteren izebek.

580. Monagilo "derrigorrean" (ARR-152/005)

Aiton-amonekin Udalako Ozaeta baserrian bizi izan zen denboran, monagilo lanetan ibiltzen zen Bixente. Udalan abade egondako Don Jose Maria Badiola aizpurutxoarra eta Don Joakin Murua bergararra aipatzen ditu. Udalan abade-etxea zegoen, eta Badiola abadea amarekin bertan bizi zela dio.

581. Udalan, mezak latinez (ARR-152/007)

Udalan monagilo egon zen garaiko kontuak. Monagilo moduan zer eginkizun zituen kontatzen du. Bixenteren aitona eta osaba sakristau lanetan ibiltzen ziren. Mezak latinez izaten ziren, eta elizabarrutiko gutunak gaztelaniaz irakurtzen ziren; meza entzutera joaten zirenek ez omen zuten ezer ulertzen.

582. Aretxabaletara, izebarenera (ARR-152/009)

Udalako Ozaeta baserrian aiton-amonekin urte eta erdi egin eta gero, Aretxabaletako Galartza auzoko Errartena baserrira joan zen bizitzera. Han amaren ahizpa eta haren familia bizi ziren, eta baserriko lanetan aritzen zen. Ez ziren asko baserrian, eta lan asko egin behar izaten zuen. Morroia ere bazen baserrian; bederatzi urterekin joan eta 86 urtera arte bertan bizi izan zen.

583. Mancebo lantegian, erromatar balantzak egiten (ARR-152/010)

Aretxabaletan, izebaren baserrian, urte eta erdian bizi izan eta gero, Arrasateko Mancebo lantegian hasi zen lanean 13 urterekin. Lantegiko ugazaba eta haren familia zein ziren azaltzen du. Erromatar balantzak egiten zituzten lantegi horretan. Sei lagun aritzen ziren lantegian. 17 urtera arte ibili zen lanean Manceborenean.

584. Soldadutzako banda militarra (ARR-152/012)

Bixenteren etxean musikariak ziren: aitak eta bost anaiak Arrasateko bandan jotzen zuten. Bixentek Donostian egin zuen soldadutza, Loiolan: "Regimiento de infantería. Cazadores de montaña. Número 8". Soldadu egon zen denboran, banda militarrean tronpeta jotzen zuen. Banda militarrean lantegian lan eginda baino 100 pezeta gehiago irabazten zituen hilean.

585. Aita eta bost semeak bandako kide (ARR-152/014)

Bixentek, aitak eta lau anaiak Arrasateko musika-bandan jo zuten. 16 urte betetzeko zituela hasi zen sartu zen bandan Bixente; bandarekin egindako lehenengo irteera, Bergarako Pazko jaietara izan zen. Arrasateko bandari buruzko hainbat datu ematen ditu: 1921ean sartu zen, eta Bixenteren aita sorreratik zer bertako kide. 11 anai-arreba ziren, horietatik bost mutilak. Bost anaiek jotzen zuten bandan; garai hartan, neskek ez zuten musika-bandan jotzen.

586. Hainbat musika-bandatan jotakoa (ARR-152/016)

Donostian soldadu egon zen garaian, banda militarrean jotzen zuen Bixentek. Banda militarraz gain, ordea, auzoetako (Bulebarrean, Alde Zaharrean...) berbenetan izaten ziren banda txikietan ere aritzen zen tronpeta jotzen: banda horiek koartelean errefortzurako musikariak eskatzen omen zituzten. Inauterietan, Tolosako txarangak laguntzera ere joan ohi ziren banda militarreko musikariak.

587. Sei hilabete gehiago soldadutzan (ARR-152/017)

Soldadutzan zenbat denbora egin zuen kontatzen du. San Inazioren bosgarren mendeurrena zela eta, Francok Loiolara joan behar zuen, eta hari "martxa reala" jotzearren bandan jotzen zuten soldaduek sei hilabete gehiago pasatu zituzten soldadutzan. Franco edota haren emaztea Aieten egoten ziren

denboran egunero jotzen zien bandak. Burgos, Irun eta beste hainbat herritako jaietan ere ibilia da Bixente banda militarrarekin.

588. Gerra denboran, Oñatin (ARR-152/019)

Gerra hasi zenean, Bixente eta beste anaia bat Oñatiko izeba baten etxera eraman zituzten, eta han egon ziren gerrak iraun zuen denbora guztian. Bixenteren familiakoak Oñatiko Kale Zaharrean bizi ziren, eta oraindik gogoan du etxeko sarrera nolakoa zen.

589. Gosete handia (ARR-152/023)

Gerraostean, gose handia pasatu zuten Bixenteren etxean. Hasieran, dirua egon arren ez zegoen jatekorik; eta, gero, jeneroa iritsi zen, baina dirua falta zen. Errazionamenduko ogia nolakoa izaten zen eta "Jesus katilu" zeri esaten zioten kontatzen du.

590. Gosaltzeko, txikoriatan bustitako karamelua (ARR-152/024)

Gerraosteko gosetea du hizpide. Bixenteren etxean 11 seme-alaba ziren. Gabon gau batean zer azaldu zuten kontatzen du: etxeko bakoitzak txapa gainean erretako hiru arto ale jan zituen. Gosaltzeko amak txikoria lapikokada prestatzen zuen, eta karamelu txiki bat txikorietan bustita ematen zien umeei. Karamelua 11 ahotatik pasatzen zen, eta anaia txikienak geratzen omen zen gozokiarekin. Amak mendira bildatzen zituen gaztainak eta egurra biltzera. Egurra saldu egiten zuten gero. Bixenteren aitak Zerrajeran egiten zuen lan, "nikelean". Gerra denboran ez zuten lantegi hori itxi.

591. Kalean, "gorriak" ikusitakoa (ARR-152/025)

Gerraostean herrian zer giro zegoen azaltzen du. Auzoko neska batek ogi zati bat eman ohi zion ezkutuan Bixenteri. Kaleko jendeak "gorriak" ikusi zituela dio. Bixenteren bi arreba umetan hil ziren, eta amak esaten omen zuek haiek azukrea zer zen probatu gabe hil zirela.

592. 16 urterekin musika-bandan hasi (ARR-152/026)

16 urterekin hasi zen Bixente Arrasateko musika-bandan tronpeta jotzen. Garai hartan, estatuak izendatzen omen zituen banda zuzendariak, eta Arrasatekoa Munarriz olitearra zen.

593. Lau urtez solfeoa eta instrumentua ikasten (ARR-152/028)

11-12 urte zituela hasi zen solfeoa ikasten musika-bandako zuzenariordearekin, eta 16 urterekin sartu zen bandan. Hasieran, mutiko mordo batek eman zuen izena solfeoa ikasteko, baina 13 baino ez omen ziren geratu.

594. Soldadutzan, kontserbatoriora joan behar (ARR-152/029)

Soldadutzan Bixentek banda militarrean jotzen zuen. Musikari profesionalak ez zirenak derrigortuta zeuden kontserbatoriora joatera soldadutza guztian. Guztira 12 urte eman zituen solfeoa eta instrumentua (tronpeta) ikasten.

595. 'Metalúrgica Cerrajera'n, sarrailagile (ARR-152/032)

'Metalúrgica Cerrajera' lantegian sarrailagile lanetan aritu zen anaiarekin batera. Zer lan egiten zituzten azaltzen du.

596. Zerrajerako lanak (ARR-152/034)

Zerrajeran lanean hasi zeneko aurreneko egunei buruz hitz egiten du. Zerrajeran zer lan eta kargu izan zituen kontatzen du. Besteak beste, butano bonbonak eta automobilentzako hagunak ("llantak") egiten zituzten lantegi horretan. Egunean, 3.000 bonbona egiten zituzten. Era guztietako garraionetzako hagunak egiten zituzten.

597. Zerrajerako kontuak: butano bonbonak (ARR-152/035)

Zerrajeran butano bonbonak nola egiten zituzten kontatzen du. Bonbonek jariorik ba ote zuten jakiteko zer proba egiten ziren azaltzen du.

598. Zerrajerako kontuak: hagunekin gorabeherak (ARR-152/036)

Zerrajeran gorabeherak izan zituzten automobilentzako hagunen ("llanten") ekoizpenean. Lantegian Oñatitik zetorren ura erabiltzen zuten argia egiteko, baina ur horrek ez zuen behar adina presio, eta, ondorioz, gurpilak ez ziren behar bezala itsasten. Bartzelonako auto-lantegi batetik kexa jaso zutenean jabetu ziren arazoaz. Handik aurrera, Iberdrolako argindarra erabiltzen hasi ziren lantegian.

599. Musika-bandarekin batera eta bestera (ARR-152/039)

Musikari izanda, inguruko herrietako jaietara joan ohi zen Bixente musika-bandarekin. Elorrio, Bergara, Aretxabaleta... eta beste hainbat tokitako jaietan jo ohi zuten. Elorrioko jaiak oso gogoko zituen Bixentek. Oinez, trenez edota kamioiz ibili ohi ziren batera eta bestera.

600. Santa Marina auzoren sorrera (ARR-152/044)

Bixente Arrasateko “Distrito 33”ean bizi izan da urteetan. Lau auzune zituen barruti horrek, bakoitza bere berezitasun eta jaiekin. Bixentek bultzatutako auzolan bati esker, lau auzuneek bat egin eta Santa Marina izeneko auzo bakarrean elkartu ziren. Santa Marina izenaren jatorria zein den azaltzen du.

601. 'Brotxas' barberua (ARR-152/049)

Mutikotan, 'Brotxas' ezizeneko barberuarenera bildatzen zuen amak ilea moztera. Barberuak dirua ekarri al zuen galdetzen zion Bixenteri, eta honek amak ordainduko ziola gero esan ohi zion. Barburuak orduan, ilea mozten hasi eta erdi bidean tabernara joan eta txikito bat hartzen omen zuen.

602. Arratiara maisu (ARR-153/013)

Batxilergoa bukatzeko oso zaila zen "Examen de estado" azterketa egin eta gainditu egin zuen. Handik Arratiako Igorrera bidali zuten maisu. Organo-jotzailea ere bazen. Igorren Hilario Soroeta abade ospetsua ezagutu zuen.

603. Abadea ez zen, maisua bai (ARR-153/014)

Juanito ez zen abadetu. Bera maisu hutsa izan zen. "Maestro Nacional" titulua Iruñean atera zuen. Jesus Guridi musikariak egin zion titulurako musika azterketa.

604. Arrasateko Eskola Profesional Politeknikora (ARR-153/024)

Cadizen urtebete egin eta gero, 29 urte zituela, Arrasatera itzuli eta Eskola Profesionalean hasi zen lanean, "Don Jose María"rekin. Juanitok eskolaren izena aldatu zuen, Eskola Profesional Politeknikoa jarriz.

605. Juanitoren etxean beata bat (ARR-153/026)

Juanitoren amaginarrebaren izeba Klara Ezkurra, Erguin baserrikoa bera, gerra denboran hil zuten, eta Aita Santuak beata egin zuen. Gaur egun Aretxabaleta eta Arrasateren artean bost dohatsu (beato) dituzte.

606. Nazionalek Arrasate hartu (ARR-155/023)

Nazionalak Arrasatera nondik sartu ziren azaltzen du. Baziren soldaduak herria hartzerako ihes egindakoak. "Gerra denboran, masakrea egin zuten hemen: 45 pertsona hil zituzten" dio Estebanek. Hildakoen artean, hiru abade hil zituztela kontatzen du.

607. Frontea etxe atarian (ARR-155/024)

Gerra denboran, egunero jaisten zen kalera esnea banatzera. Nahiko lan izaten zuen astoarekin etxetik ateratzeko: etxe aurrea, fronteko tiroen jo mugan zegoen, eta etxe atzetik buelta irten behar izaten zuen. Bildotsak gauez ateratzen zituen larrera. Denbora horretan, Estebanen anaia zaharrena Araotzen egon zen ardiekin. Muxibarren senide batzuekin egon zen Esteban.

608. Aitonari buruzko kontuak (ARR-155/027)

Estebanen aitonak mendian ibiltzen ziren ganadu guztiak ezagutzen zituen (nongoak, norenak... ziren). Aitonak behor bat galduta zebilkien arabar batekin izandako pasadizoa kontatzen du.

609. Arrasatetik Elizondora ardiekin oinez (ARR-155/028)

Kontrabandoko kontuak. Estebanen aitajaunak eta beste gizon batek ("Martin frantsesak") ardiak eramaten zituzten Arrasatetik Elizondora (Nafarroa). Okelatarako 300 ardirekin joaten ziren oinez. Behin Elizondon, ardiak basoan uzten zituzten, eta ardiek muga zeharkatzen zutenean Martinek jasotzen zituen ardiak.

610. San Andres auzoan galdutako baserriak (ARR-155/030)

San Andres auzoan galdutako baserrien izenak: Atxa, Etxaluze, San Andres, Solozer, Orondixo, Estradakoa, Otamendi, Muxibar (bestekoa) eta Isazelaia. Hainbat baserriren kokalekuari buruzko azalpenak ematen ditu.

611. Elma lantegian, "ajustadore" (ARR-155/032)

Elma lantegian hoditarako osagarriak, janaria txikitzeko makinak eta beste tresneria batzuk egiten zituzten. Esteban doitzaile ("ajustadore") lanetan aritzen zen.

612. Gatzagara, landarak saltzera (ARR-155/038)

Mutikotan, landarak saltzera joaten zen Gatzagara. Domeketan, goizeko lauretan jaiki eta astoarekin joaten zen Gatzagara: gerora, gurdiarekin joaten hasi zen. Tomateak, piperrak, letxugak... saldu ohi zituen. Tomateak dozenaka eta porruak zientoka saltzen zituen.

613. Hamabi urterekin eskola utzi (ARR-156/002)

Hamabi urterekin utzi zion eskolari, etxean lan asko zegoelako. Taberna izateaz gain, etxean Zerrajera lantegirako lanak egiten zituzten. Julik zazpi urte zituela "Bar Central" hartu zuen familiak.

614. Txotxuena taberna hartu zuten (ARR-156/003)

Zerrajeran lan egiten zuten Aramaioko eta Bergarako apopiloak izaten zituzten etxean. 1934. urtean taberna eskualdatu zuten, eta gerraostean betiko ezkutatu zen. Taberna hori Txotxuena izenez ezagutu zen Juliren familiak hartu aurretik.

615. Kondearen etxean tailerra (ARR-156/005)

Errepublika etorri zenean ospakizun eta bandera asko egon ziren. Taberna utzi zutenean, lehengusina ile-apaintzaile batek eskatuta, ilerako urkilak egiteko tailertxo bat jarri zuen aitak. Tailerra 40 langile izatera iritsi zen. Tailerra jartzeko kondearen morroien etxea (gaur Juli bertan bizi da) erosi zuten.

616. Tailerreko langileak presoen emazteak (ARR-156/007)

Hasieran lan guztia eskuz egiten zuten, eta makina automatikoak ekarri zituztenean, langileak kaleratzeari ekin zioten. Langile guztiak emakumezkoak ziren; gehienak senarrak preso zituztenak.

617. Tailerrerako materiala kupoaren bidez (ARR-156/008)

Gerraren frontea Arrasatetik joan zenean, aitak jarri zuen ilerako urkila tailerra. Kupoaren bidez lortzen zuten tailerrean lantzeko materiala. Bilbotik trenez bidaltzen zieten. Kupoarekin lortutakoa nahikoa ez bazen, estraperloan lortzen zuten gehiago.

618. Paketatzea mojen lana (ARR-156/009)

Urkilentzako trokelak Arrasateko lantegietan egiten ziren. Urkilak altzairuzko alanbrearekin egiten zituzten. Tailerreko lan banaketa azaltzen du. Paketatzea Kontxesioko mojek egiten zuten.

619. Lana soman (destajuan) egiten zen (ARR-156/010)

Hasieran, Irungo Palmera lantegiak hartzen zien ekoizpen guztia. Geroago, merkataritza-agenteen bidez saltzen zituzten urkilak. Kontabilitatea Juliren ardura zen. Lana somara (destajuan) egiten zen, eta egunean seitik hamabi pezetara irabazi ahal izaten zuten langileek.

620. Sindikatuaren kexa (ARR-156/011)

Sindikatuak kexa bat jarri zuen tailerraren kontra eta inspektorea etorri zen aztertzera. Tailerra zegoen eraikuntza Artazubiagako kondeari erosi zioten. Tabernari eta industriari familiakoa da Juli. Ezkondu zen arte jardun zuen etxeko tailerrean.

621. Esnearekin zihoala, bonba-eztanda (ARR-156/012)

Esneduna Santa Ageda bideko trintxeraraino etortzen zen, eta bezeroek han jasotzen zuten esnea. Juli, esnearekin etxera zetorrela, bonba bat oso hurbil lehertu zen. Etxean hiru senide gaixorik zeuden, eta familiak ezin izan zuen ihes egin.

622. Morteroa etxe barruan lehertu (ARR-156/013)

Mortero bat etxean sartu zen amandrearen logelan, bera ohean zegoela. Orduan, Oñatira joan ziren, baina denbora gutxirako. Oñatin Joxe arotzaren etxean egon ziren.

623. Gerran ere plazara dantzara (ARR-156/014)

Gerra denboran, plazako erromeriak ez ziren eten. Bonbardaketak hasten ziren arte, jendeak dantza egiten zuen.

624. Julik ez zuen kalabazarik ematen (ARR-156/016)

Dantzara joatea gustatzen zaion, baina amak goiz etxeratzeko agintzen zion. Mutilek dantza "mesedez" esanda eskatzen zuten. Julik ez omen zion inori kalabazarik ematen. Bera umea zenean ez zegoen abade-etxerik; abadeak etxe arruntetan bizi ziren.

625. Ilerako urkila ezberdinak (ARR-156/018)

Urkilak margotzeko aireztapen oneko lokala behar zuten, eta horregatik erosi zioten etxea kondeari. Urkila mota ezberdinak aipatzen ditu. Martin Bedia zen tailerraren izena.

626. Herriko dendak (ARR-156/019)

Orduko denda batzuk aipatzen ditu. Azkarateren okindegia. Salturriren harategian erosten zuten etxerako okela. Urionena gozo-denda, "Café Universal" ostatua. Estankoa. Ehun eta hari denda.

627. Dendako ordainketak atzeratuta (ARR-156/020)

Dendan erositakoaren ordainketa atzeratzea ohikoa omen zen garai haietan. Dendariak liburuan idazten zituen zorrak, eta bezeroek kintzena kobratzen zuenean berdintzen zituzten zorrok. Amarengandik jasotako sukaldaritza jakinduria du Julik.

628. Eztei-oturuntza etxean (ARR-156/021)

Arrainduna etxeko ateraino etortzen zen. Senargaia auzotarra izan zuen. Parrokian ezkondu eta bazkaria etxean izan zuten, amaren lagun oñatiar sukaldari batek prestatutakoa. Juli ezkon-bidaian dirua gastatzearekin penatuta zegoen, baina Madrilera joan ziren hamabost egunerako.

629. Bizi guztia salmentan jardundakoa (ARR-156/024)

Ezkondu eta gero Julik bere kasa jarraitu zuen salmenta negozioan. Aurkitzen zituen gauza guztiak erosi eta saltzen zituen, gehiena estraperloan. Tabakoa, alanbrea, edozer. Euskal Herrian zehar ibiltzen zen salmentan.

630. Senarrarekin ondo konpontzen zen (ARR-156/025)

Bilbora jai egunetan joan behar izaten zuenean, berak lanean zihartduen bitartean senarra futbola ikustera joaten zen. Alaba bat izan zuten, Julik 42 urte zituenean.

631. 7.000 ogerleko etxeagatik (ARR-156/026)

Bera gaztea zenean bazter guztietan tailerrak sortzen ziren. 7.000 ogerlekogatik erosi zioten etxea kondeari.

632. Garagartzako eskolan, 100 umetik gora (ARR-161/013)

Garagartzako auzo-eskolan neska eta mutilak elkarrekin ikasten zuten. Ziriako Jauregi zen maisua, eta 100 umetik gora zituen bere kargu. Maisua "gogorra" zela diote.

633. Morroiak, erdaraz (ARR-161/016)

Karmenen etxean morroia zuten, eta hark erdaraz egiten zuten. Auzo-eskolan hasterako, erdara zerbait "geratu" zitzaiola dio. Etxean, bestela, euskaraz aritzen ziren; aitajaunak eta amandreak ez zekiten erdaraz hitz egiten.

634. Itaurrean gustatu ez (ARR-161/020)

Baserriko umetako lanak: itaurrean nola ibiltzen zen azaltzen du. Karmeni ez zitzaion itaurrean egitea gustatzen; "idi ezkerra okerra" zen, eta zazta egiten zion atzetik.

635. Soroko lana (ARR-161/022)

Baserri inguruko soroak nolakoak ziren: "lauak eta erripan". Soroan zer ereiten zuten: artoa, baba, garia, patata, erremolatxa...

636. Gari-jotzea (ARR-161/024)

Gari-jotzeari buruzko azalpenak. Larraina nola prestatzen zuten kontatzen du. Lehenengo, gari-azaoak losa edo oholen baten kontra jotzen zituzten. Garia jo ondoren, makinan "garbitzen" zuten lastoa eta alea bereizteko. Makina, 15 bazkideren artean erostitako zen.

637. Gari-jotzea, larrainean (ARR-161/025)

Garia larrainean jotzen zuten, idi-parea eta trailuarekin. Umeak arpel gainean joatzen ziren, pisua egiteko, eta bueltaka-bueltaka ibiltzen ziren dena "karandu" (aletu) arte. Idien gorotzak zartagin zahar batekin jasotzen zituzten gariarekin ez nahasteko.

638. Lete baserriko erlategia (ARR-161/027)

Lete baserria, Karmenen jaiotetxea, gerra denboran milizionoek erre omen zuten, erlauntzean eztia ateratzen ari zirela. Erlategi ona zuten baserrian; Karmenen aita eta aitajauna erlezainak ziren. Auzoko eta senideei abaoa eman ohi zien, eztia izan zezaten. Karmenek kontatzen du bere amak eztia nola ateratzen zuen.

639. Gerra denboran, urtebete Eltziegon (ARR-161/029)

Gerra denboran, Karmenek urtebete Arabar Errioxako Eltziego herrian pasatu zuen Arrasateko familia batekin. Han egon zen denboran euskara ahaztu zuen,

eta etxera bueltatutakoan ez omen zuen euskara ulertzen. 12 urte inguru zituen orduan.

640. Oñatiko Aloñan zerbitzari (ARR-161/040)

15-16 urte zituela, Karmen neskame egon zen Oñatiko Aloña tabernan. Ines Iñurrategi zen tabernako etxekoandrea, eta harekin egiten omen zuen lo Karmenek. Tabernan eta jangelan zerbitzatzen zuen Karmenek. Urtebetez egon zen Oñatin.

641. Baserrian, gurasoekin (ARR-161/041)

Bost anai-arreba ziren; anaia mutikotan hil zen. Ramonaren hiru ahizpak neskame joan ziren, eta bera geratu zen baserrian, gurasoekin.

642. Autobusean esnea banatzera (ARR-161/042)

Egunero joaten zen kalera esnea partitzera. Esne-bezeroak zituen, eta etxez etxe banatu ohi zuen esnea. Esnea sobratuz gero, kale kantoietan jartzen zen sobratutako esnea saltzen. Hiru-lau behi zituzten baserrian. Autobusez joan ohi zen Arrasatera esnea saltzera. Autobus horrek Aramaio eta Arrasate arteko bidea egiten zuen, Jauregi esaten zioten.

643. Ostiraletan, plazara (ARR-161/044)

Ostiraletan plazara joaten zen. "Azelgak" (zerbak), tipulak, tomateak, arrautzak... eraman ohi zituen saltzeko.

644. Ahateak eta ahate-arrautzak (ARR-161/047)

10 ahate zituzten, eta ahate-arrautzak saldu ohi zituen Ramonak plazan. Baserri ondoko errekan ibiltzen ziren ahateak, eta, iluntzean, artoa edota garia ematen zien eta baserrian egiten zuten lo. Egunero jartzen zuten arrautza, baita neguan ere.

645. Milizianoek ganadua eraman (ARR-161/048)

Gerra denboran, milizianoek ganadua kendu zien. Milizianoek familia guztia atera arazi zuten baserritik, baina Ramona eta ama baserrira bueltatu ziren. Iluntze horretan, bi miliziano agertu ziren baserrian, eta ea han zer egiten zuten galdetu eta komoda gaineko Jesukristoren irudia puskatu zutela kontatzen du. Abere faltan, gosea pasatu zuten.

646. Ganadu eta ardiak, beste baserri batzuetara (ARR-161/049)

Gerra garaian, Karmenen etxekoek baserriko ganadu eta ardiak Uribarriko eta Arrasateko bi baserritara jaitsi zituzten. Aitajauna ardiekin Uribarriko baserri batean geratu zen. Karmenen guraso eta anai-arrebak Arrasatera jaitsi ziren. Amona, berriz, auzoko Garzia baserrian geratu zen. Denbora horretan, Karmen Arabar Errioxan zegoen.

647. Gerra denboran, familia banatu (ARR-161/051)

Gerra denboran, Karmenen guraso eta anai-arrebak Lete baserritik Arrasatera jaitsi ziren familiako baten etxera. Aitona, berriz, beste baserri batera joan zen. Karmen Arabar Errioxara bidali zuten.

648. Adolfo Gomezekin Eltziegora (ARR-161/052)

Gerra denboran, Karmen Arabar Errioxako Eltziego herrira joan zen Adolfo Gomez musikariarekin. Gomez Karmenen amaren esne-bezeroa zen, eta beraiekin eraman zuten 15 egunerako, baina urtebete inguru egin zuen han. Eltziegon, gerrako hegazkinak pasatzen bakarrik ikusten zituzten. Herriko errepublikar batzuk hil zituztela kontatzen du.

649. Goxokien paperekin jolasean (ARR-163/004)

Jolasorduan zein jolasetan aritzen ziren kontatzen du: pilotan, ezkutaketan, harrapaketan, txirikilletan garizuman, jaurtiketan... Neskek goxokien paperekin zela jolasten zuten azaltzen du.

650. Umetako eta gaztetako lanak baserrian (ARR-163/005)

Eskolan ez zebilenean, ganaduaz arduratu behar izaten zuen. Zortzi urte ingururekin eskolara baino lehen esnea eramaten zion izeba bati kalera eta ogia jasotzen zuen etxera. Eskola bukatutakoan, baserriko lanetaz arduratu zen, 24 urterekin fabrikan hasi arte. Zer egiten zuen zehazten du.

651. Behiak uztarrian (ARR-163/007)

Lau behi izaten zituzten etxean, uztarrian erabiltzekoak. Goldean, simaur-gurdiak, gurdi-irak...

652. Auzolanean bideak konpontzen (ARR-163/008)

Auzolana asko egiten zen. Irailean hiru egunez kale-bideak txukuntzen zituzten eta beste egun batez basabideak.

653. Kainoikadak baserrira (ARR-163/010)

Gerra garaian, kainoikada bik baserrian zulo handi bi egin zituzten eta etxetik alde egin zuten, Arrazolara amaren ahizparengana. Handik amaren jaiotetxera, Elorriora, joan ziren. Eguna Elorrioko gordelekuan ematen zuten beste askorekin batera.

654. Gose garaian, artoa xehetzeko makina (ARR-163/011)

Bizimodu gogorra izan zuen. Gose garaian ez zeukaten ia ezer jatekorik. Arto-zahia jaten zuten. Aramaiora joaten ziren errotara, debekatuta bazegoen ere. Artoa xehetzeko makina zeukaten etxean eta harekin ere moldatu behar izaten zuten.

655. Fabrikan giltzarrapoak egiten (ARR-163/013)

Baserria gustoko zuen baina fabrikan hasi zen hogeita bost urte ingururekin. Orduko lan-baldintzak hobeak zirela dio. Aranzabalen erretiratu zen. Kandauak egiteko prozesua azaltzen du.

656. Giltzarrapoak egiteko prozesua (ARR-163/015)

Aranzabal fabrikan zer lan egiten zuten azaltzen du, fundizioan, muntaketako prozesuan eta bukaeran. Muntaketan 18 lagun inguru aritzen ziren, gehienak neskak. Bulegoan ere neska bat izaten zen.

657. Soldata igoerak eskatzeko grebak (ARR-163/016)

Hiru hilabeteko greba izan zuten fabrikan 70. hamarkadan soldata igoerak eskatzeko. Bi-hiru asteko grebak ere egin izan zituzten.

658. Garagartzan eta Santa Agedan eskolan ibilia (ARR-164/004)

Karmen umetan Garagartzako eskola mixtoan ibili zen, don Ziriako Jauregi maisuarekin. Eskolako hainbat lagun aipatzen dituzte. Gero, Santa Agedako eskolan ibili zen. Eskolak gaztelaniaz izaten ziren.

659. Santa Agedako "Escuela Católica" (ARR-164/006)

Soledadek Gesalibar auzoko Santa Agedako "Escuela Católica"n egin zituen ikasketak. Eskola 1935ean egin zuten. Eskola egiteko lurrak Elorrioko Urkizuko damek eman zituzten dohaintzan. Maistra izandako bat aipatzen dute. Eskolagatik hilean pezeta bat pagatzen zuten Karmen eta Soledaden gurasoek.

660. Elorrioko Urkizuko damak (ARR-164/007)

Elorrioko Urkizuko damak Uribarri auzoko hainbat baserritako ugazabak ziren, tartean Ibarretagainekoa baserrikoak. "Grandes señores de Bizkaia" zirela diote, eta Bizkai aldean jabetza handiak zituzten.

661. Errentaren ordainketa (ARR-164/008)

Ibarretagainekoa baserriko ugazabak Elorrion bizi ziren, baina administraria zeukaten Arrasaten. Errenta kontuak. Ama Birgin Eguneko aurreko eguenean oilanda parea eta dozena bat arrautza entregatu behar izaten zuten Elorrion. Bi oilanden artean sei libra pisatu behar zuten. Gero, ugazabek bazkaria ematen zien errenteroei. Santo Tomas aurreko eguenean kapoi parea entregatu behar izaten zien. Ugazabek bakailaoa ematen zien Gabonetan jateko. Horretaz gain, Kontsezioko astean 36 anega gariren balioa dirutan entregatu behar izaten zuten.

662. Ugazabak eta maizterrak (ARR-164/010)

Errenta kontuak. Ez dute gogoratzen gari anega zenbatean zegoen. Gerraostean, gobernuak garia entregatzeko tasa jarri zuen. Eta errenta, berriz, dirutan ordaintzen zuten. Ugazaben eta errenteroen arteko bereizketaz hitz egiten dute.

663. Errepublikanoen bandera beharginen autobusean (ARR-164/012)

Karmenek gogoan du Aramaioko beharginen autobusa errepublikako bandera handi batekin ikusi izana. Jauregi esaten zioten autobus hari.

664. Eskolan gurutzea kendu (ARR-164/013)

Errepublika garaian, gurutzea kendu zuten Garagartzako eskolan.

665. Niceto Alcalá-Zamoraren harrerara joan ez (ARR-164/014)

Niceto Alcalá-Zamora II. Errepublikako presidentea Arrasatera joan zeneko pasadizoa. Eskola umeak presidenteari harrera egitera joan behar zuten,

baina abarrategitarren etxean ondo ikusten ez eta ez zituzten bidali hiru alaba (tartean, Karmen) presidenteari ongietorria ematera. Eskolako beste ume batzuk ere ez ziren joan. Harrera egitera joan ez ziren ume batzuk jolas-ordu gabe zigortu zituzten Garagartzako eskolan.

666. Aita Deustuko unibertsitatean ibilia (ARR-164/019)

Eskolak gaztelaniaz izaten ziren, baina ez zuten arazorik hizkuntzarekin. Izan ere, aita Deustuko unibertsitate sukaldean pintxe ibili zen eskolak hartzen zituen bitartean, eta aitarekin ikasi zuten gaztelaniaz hitz egiten. Aita Deustuko unibertsitatean nolatan ibili zen azaltzen dute.

667. Bi maistra (ARR-164/020)

Eskolako kontuak. Lehenengo eduki zuten maistra falangista zen. 'Cara al Sol' abesten zuten eskolan. Bigarren maistra ona zen: urtean behin bazkari bat egiten dute harekin.

668. Maistrak "egurra" (ARR-164/022)

Eskolako kontuak. Lehenengo eduki zuten maistra falangista zen. Soledad behin ere ez zuen jo, baina beste ikasleei "egurra" ematen zien.

669. Karlos Eraña beatoa (ARR-164/024)

Karlos Eraña marianista Karmen eta Soledaden amaren anaia zen. 1936an gorriek hil zuten. Gero, beatifikatu egin zuten.

670. Garagartzan lau hilabete (ARR-164/026)

Gerra denborako kontuak. Ibarretagainekoa baserria utzi eta Garagartzan lau hilabete pasatu zituzten senide batzuen etxean. Ganadua ere eraman zuten Garagartzara, baina abantzea egon zenean, soldaduek ganaduak kendu zizkien.

671. Etxea nola topatu (ARR-164/027)

Gerra denborako kontuak. Garagartzan lau hilabete pasatu eta Ibarretagainekoa baserrira bueltatu zirenean, etxea nola topatu zuten azaltzen dute.

672. Gerra denborako giroa (ARR-164/028)

Gerra denborako kontuak. Malatesta Batailoia Udalan egon zen. Inguruko jendea errepublikanoa zen, eta harreman ona zuten haiekin. Gudariak baserrira joaten ziren, eta taloa eta esne ematen zien jateko.

673. Ibarretagainekora bueltatu (ARR-164/029)

Gerra denborako kontuak. "Gorriek" ganaduak kendu zizkien. Garagartzatik Ibarretagainekoa baserrira bueltatu zirenean ezer gabe zeuden. Lurrak lantzeari ekin zioten. Ahal zuten tokitik lau behi inguratu zituzten, "sekula lotu gabekoak".

674. Buztin-lurrak (ARR-164/030)

Ibarretagainekoa baserri inguruko lurrak buztin-lurrak ziren. Ez zuten garirik ereiten lurrak lautadan zeudelako. Lautada izatean, urak garia ito egiten zuen. Artoa eta baba ereiten zuten. Buztin-lurrari buruzko azalpenak.

675. Gerraren etorrerako bizipenak (ARR-164/031)

Nola bizi izan zuten gerraren etorrera. Gerra hasieran gudariak etorri ziren: eurenean egondako gudari batzuen izenak aipatzen ditu Karmenek. Dragoien batailoia eta Malatesta batailoia. Aita soroan lanean zebilela tiroak bota zizkien, baita baserriko atera ere. Ibarretagainekoa baserria bi bandoen erdian zegoez, Garagartzara joan ziren.

676. Uribarritik kanpora, babes bila (ARR-164/032)

Gerra denborako kontuak. Ibarretagainekoa baserria bi bandoen erdian zegoez, etxeko 12 senideak Garagartzara joan ziren senide batzuen etxera. Uribarri auzotik ihesi joandakoen baserritakoeko izenak esaten dituzte.

677. Behiarekin tratua eta gorrien dirua (ARR-164/034)

Gerra denboran, sei-zortzi behi zituzten baserrian. Abantzea etorri baino lehen, behi bat eraman zuten Santa Agedako ospitalekoek. Bale batekin egin zuten tratua (dirua zutenean kobratzekotan). Gorrien dirua gordeta dute oraindik etxean.

678. Behiak saldu behar, ezinbestean (ARR-164/035)

Gerra denboran, aita Elorriora joan zen hiru behirekin. Elorriotik Gernikara joan zen gero. Gernikan saldu zituen hiru behiak, ezinbestean.

679. Aitarekin elkartu (ARR-164/036)

Gerraostean, senide guztiak onik elkartu ziren. Aita baserrira iritsi zeneko unea ondo gogoratzen du Karmenek.

680. Aita batetik bestera, salmenta egitera (ARR-164/039)

Durango, Gernika, Markina, Elgoibar, Deba, Mutriku eta Ondarroara joaten zen aita, gehien bat tipula-landareak saltzera. Neguan, Gasteizera joaten zen. Lehenengoetan, astoarekin oinez joaten zen batera eta bestera. Gero, trenez. Arrasateko plazara izeba joaten zen. Gaztainak eta sagarrak ere saltzen zituzten.

681. Salmenta kontuak (ARR-164/041)

Durango, Gernika, Markina, Elgoibar, Deba, Mutriku eta Ondarroara joaten zen aita, gehien bat tipula-landareak saltzera. Neguan, Gasteizera joaten zen. Lehenengoetan, astoarekin oinez joaten zen batera eta bestera. Gero, trenez. Zer saltzen zuten. Aitak saltzen zuen babak fama ona zuen.

682. Etxeko diru-iturriak (ARR-164/042)

Aitagandik ikasi zuten ortuko ofizioa. "Ez zegoen beste kintzenarik" diote. Osaba bat lantegi batean aritzen zen sereno lanetan. Herri askotara joaten ziren landareak saltzera.

683. Eibarrera, marrubiekin (ARR-164/043)

Soledad askotan joan da Eibarrera landareak eta marrubi-loreak saltzera. Bolada batean marrubi asko eduki zuten, Donostiara ere bidaltzen zuten.

684. Marrubiak eta sagarrak (ARR-164/044)

Lehen ez zen kanpotik frutarik etortzen. Baserrietan bildutako fruta ondo saltzen zen. Marrubiei buruzko azalpenak. Eguzkibegian hazitako sagarrak hobeto saltzen ziren: eguzkibegiaz sagarra gozatu egiten da.

685. Marrubia (ARR-164/046)

Etxean hazten zuten marrubi-landarea. Neguan, sartzen zuten landarea. Lehenengo urtean gutxi ematen zuen. Bi-hiru urte pasatutakoan, belarra irtetzen zitzaion eta lana izaten zen. Negu partean, belarrak kendu behar izaten zituzten. Marrubi alea, maiatzaren lehenengoetan.

686. Barazkien gaineko zerga (ARR-164/047)

Plazara saltzera eramaten zuten barazkiengatik zerga bat ordaindu behar izaten zen. Gasteizen, kiloko erriela. Eibarren eta Arrasaten, berriz, txakur handia. "Arbitrios"en ordaindu behar izaten zen zerga. Trenetik jeneroa ateratzearekin batera, otarrak pisatu eta zerga ordaindu behar izaten zen. Barazkia ordaindu egin behar zen, landarea ez. Baserritar batzuek tranpa egiten zuten: barazkiak landare azpietan ezkutatzen zituzten.

687. Marrubi-bilketa (ARR-164/048)

Marrubi alea maiatzaren lehenengoetatik San Juanetara bitartean biltzen zuten. Hilabete eta erdiko zikloa izaten da, gutxi gorabehera. Gerora, urte osoan marrubiak ematen zituzten landareak eduki zituzten, baina ez ziren lehengoak bezain gozoak. Etxerako landatzen zituzten.

688. Marrubi-saila eta landarearen zikloa (ARR-164/049)

Marrubi-landareak lau-bost urte irauten dute. Gero, zahartu egiten dira: kendu eta beste leku batean sartu behar dira. Marrubi-saila, 1.000 metro ingurukoa.

689. Ibarretagainekoa baserriko lursailak (ARR-164/051)

Ibarretagainekoa baserriko lurrei buruzko azalpena. Baserriaren bueltan, 10-11 hektareako saila zeukaten. Gipuzkoan hiru baserri zeuden gisa horretakoak.

690. Eibarren, "samarritarrak" (ARR-164/054)

Eibarren jende mihinluzeak baserritarrei "samarritarrak" esaten ziela dio Karmenek.

691. Eibarrera, tipula-landareekin (ARR-164/055)

Eibarrera joaten zen tipula-landareak saltzera. Berriz aldeko jendeak erosten zizkion landareak. Udazkenean, Berrizko jendea etxera ere joaten zitzaien erostera.

692. Donostiatik Oñatira gerratik ihesi (ARR-166/002)

Gurasoek Donostiako Mirakruz gaineko Arzak taberna kudeatzen zuten, eta ama sukaldaria zen. 1936an, Donostiatik Oñatira joan ziren aitajauna eta amandrearen etxera, gerratik ihesi. 1938an, berriz, Oñatitik Arrasatera bizitzera joan zen familia, Arrasaten errenta merkeagoa zelako. Bost ahizpatik bi Arrasaten jaiotakoak dira.

693. Gereziak, akaranak eta sagarrak harrapatzen (ARR-166/015)

1947an, Zerrajeran hasi zen lanean. 17 urte ingurura arte ez zen joaten herrira dantzara. Zigarrola auzoko neskak auzoan bertan ibili ohi ziren, elkarrekin. Gereziak, okaranak eta sagarrak harrapatzen zituzten auzoko baserritarren lurretatik.

694. Ume garaiko entretenimenduak (ARR-166/016)

Ume garaiko entretenimenduak. Sokasaltoan aritzen ziren askotan. Errekara joan ohi ziren bainatzera. Arrain txikia, karramarroak, ezkailuak... harrapatzen zituzten errekan. Karramarroak potetik ihes egin zienekoa kontatzen du. Terek arrainak harrapatu arren, jaregin egiten zituen. Tereren aita arrantzak eta ehizan ibiltzen zen.

695. 14 urterekin, Zerrajeran lanean hasi (ARR-166/018)

14 urte zituela, Zerrajeran hasi zen lanean. 700 lagun inguruk egiten omen zuen lana han, eta hasieran lotsa handia pasa zuen. Zer lan egiten zuen azaltzen du.

696. Ama atxilotu zutenekoa (ARR-166/030)

Gerra denboran, Oñatiko bizilagun batek Tereren ama salatu zuenekoa kontatzen du. Kuartelean zela, Donostian bizi ziren garaitik ezagutzen zituen militar batzuei esker aske utzi zuten ama.

697. San Isidron ezkondu (ARR-166/033)

San Isidron ezkondu zen, eta auzoko elkartean egin zuten bazkaria. Bazkaritzan, sarrerakoak, legatza, oilaskoa eta postrea jan zuten. Lehen, ezkontzetan ez zen dantzaldirik izaten. Eztei-bidaian, Donostian eta Bilbon ibili ziren. 10 eguneko bidaia egin zuten.

698. Villafrancako kondea eta Zigarrola (ARR-166/036)

Zigarrolako etxean errenteroak ziren. Etxean argia, ura eta komuna zituzten. Etxea Villafrancako kondearena zen, eta urtero joaten zitzaien bisitan. Etxea erosi zuteneko garaiaz hitz egiten du. Kondeak lur ugari zituen Zigarrolan.

699. Zigarrolako garbitokia (ARR-166/037)

Arropak garbitokian garbitzen zituzten. Arropak "barrinoian" hartu, xabondu eta garbitzen zituzten. Gero, ortuan zituzten alanbreetan esekitzen zituzten lehortzeko. Garbitokian zortzi harri zeuden, eta astero aldatzen zuten bertako ura.

700. Deabruak euskaraz ikasi ez eta... (ARR-166/038)

Behinola, Zigarrolako garbitokian sei emakume ari ziren arropa garbiketan. Haietatik hiru euskaldunak ziren (tartean Tereren ama eta oñatiar bat), eta euskaraz ari ziren berriketan. Beste emakume batek galdegin zien ea zergatik ez zuten gaztelaniaz hitz egiten. Oñatiarrak zer erantzun eman zien kontatzen du.

701. Garbitokiko giroa (ARR-166/039)

Garbitokian zer giro sortzen zen kontatzen du. Kontuz ibili behar izaten zen politika kontuez hitz egiterakoan.

702. Armagintzak behera (ARR-169/002)

Lehenengo Mundu Gerra bukatutakoan, armagintzak behera egin zuen Eibarren eta alde egin behar izan zuten Arrasatera lan bila. Eibarren tailer txikietan lan egiten zen.

703. Errepublikaren ospakizuna Maltzagan (ARR-169/003)

1933an iritsi zen Arrasatera. Gogoan du Errepublika aldarrikatu zenean, Maltzagako (Eibar) eskolara joaten zela eta zelako ospakizuna egin zen. Ziorla auzoko anekdota bat kontatzen du.

704. Olatxo inguruak (ARR-169/008)

Olatxo baserria desagertuta dago baina garai hartan ingurua zelakoa zen deskribatzen du. Etxeko abereak eta ortuko jardunean zela moldatzen ziren kontatzen du. Egurrezko estufak erabiltzen zituzten.

705. Ogia Bonbuluri erosten zioten (ARR-169/009)

Olatxon ez zuten ogirik egiten eta erosi egiten zioten Bergaratik etortzen zen Bonbuluri.

706. Harri-loradunekin jolasean (ARR-169/010)

Eskolatik irtendakoan, autobusa pasatu arte bide bazterrean egoten ziren. Tortolosetan,"diez-veinte"ka eta beste hainbat jolasetan aritzen ziren. "Harri-loradun"ekin jolasean ere ibiltzen ziren; protzelanazko zerbait apurtuz gero, margoa zuten zatitxoak zaku batean gorde eta harekin egiten zuten jokoan, kromoak erosi egin behar izaten ziren eta.

707. Gerra hasi aurretxoan (ARR-170/003)

Gerra hasi aurretik, milizianoak iritsi ziren Arrasatera eta eskolatik alde egin behar izan zuten. Etxean lo egiten zuten soldaduek. Etxekoek mojetara bidali zuten Oñatira, badaezpada.

708. Uniforme beltzagatik ezizena (ARR-170/006)

Oñatiko eskolatik etorrita, hamalau urterekin "Colegio de la Asunción"en hasi zen. Non zegoen azaltzen du. Uniforme beltza zutenez, "las cucarachas" deitzen zieten.

709. Lantegiak bonbardatzen (ARR-170/008)

Gerra hasi aurretik, milizianoek lantegiak bonbardatu zituzten. Umeak babeslekura joaten ziren.

710. Erreketeen koronela etxez etxe (ARR-170/010)

Gerra garaian, erreketeen koronela etxez etxe ibiltzen zen. Beraien etxean izan zenekoa kontatzen du.

711. Ezkonduta ezin lan egin (ARR-170/013)

Bederatzi urtez aritu zen "Unión Cerrajera"n lanean, bulegoan. Gero etxean torlojuak egiten zituen. Umeak hasi eta gero, lan bila hasi eta ezin izan zuen lanik egin ezkonduta zegoenez legeak debekatzen zuelako. Enpresa titulazioa atera zuen bere akademia jartzeko.

712. Senarrarekin etxeko ardurak banatzen (ARR-170/014)

Takigrafia, mekanografia eta kontabilitatea erakusten zituen. Egun osoz aritzen zen lanean. Senarrarekin adostu behar izan zuen umeen zaintza partekatzea eta hainbat etxeko lan.

713. Takigrafia erakusten (ARR-170/015)

Akademian lanerako neska bi hartu zituen. Takigrafiari buruzko hainbat azalpen eta anekdota kontatzen ditu.

714. Emakumeen itxura lanerako (ARR-170/016)

Takigrafia biltzarretan eta lantegietan erabiltzen zen. Lanpostuetarako emakumeentzat itxura oso kontuan hartzen zen.

715. Arrasateko lehenengo akademia (ARR-170/017)

Arrasateko lehenengo akademia jarri zuen 1963an. Artilezko jertseak egiten aritzen zen. Belarri batetik entzuteari utzi zionean, lana laga zuen eta bere alabak jarraitu zuen.

716. Erreberua (ARR-170/022)

Erreberua zela hartzen zuen kontatzen du. Aurretik errapeak ur epelez garbitzen zituen tiok eta lehenengo esnea berak edaten zuen.

717. Gerra hasitakoan, etxetik kanpora (ARR-171/005)

Bere amak hiru gerra ezagutu zituen. Gerra hasitakoan, baserritik bidali zituzten eta ganadu eta guzti Garagartzara joan ziren. Santa Agedara barazkiak eramaten zituzten bidea itxi aurretik.

718. Garagartzara ihesi (ARR-171/007)

Gerran baserritik bota zituztenean, Mardona baserrira joan ziren Garagartzara. Non dagoen azaltzen du.

719. Garagartzarren artean beldurra (ARR-171/008)

Gerra garaian hiru hilabetez Mardonan egon ziren. Beldurra zegoen garagartzarren artean.

720. Garagartzatik Elorriora joan behar (ARR-171/009)

Gerra garaian, Mardona baserritik ere atera egin zituzten. Elorrioko Iguria auzora joan ziren, behiak Besaiden lagata eta hilabete eskas egin zuten bertan. Gauez ezkutuan lo egiten zuten neskek.

721. Elorrion fronteak (ARR-171/010)

Elorrioko Iguria auzotik Santa Luziara joan ziren eta ermitan lo egin zuten. Fronteak non zeuden kontatzen du.

722. Laguna soldaduarekin ezkondu (ARR-171/011)

Errazionamendukoarekin eta etxeko janekin moldatzen ziren. Soldaduek laguntzen zieten joan etorrian eta haietako batekin ezkondu zen Iguriako nesketako bat.

723. Kontzentrazio esparrutik zorriz beteta (ARR-171/013)

Anai bat kontzentrazio eremuan eduki zuten Gasteizen. Etxeratutakoan zorriak ekarri zituela gogoan du. Lixiba zela egiten zuten kontatzen du.

724. Erreketeek behia jan (ARR-171/014)

Gerra garaian, etxeko behi bat hil eta jan zieten erreketeek. Garagartzan arropak, izarak eta abar laga behar izan zituzten alde egitean eta beste batzuek harrapatu zizkieten.

725. Urkiolara abarketa zaharrekin (ARR-171/018)

Urkiolara erromeriara joaten ziren: abarketa zaharrekin joan, haiek bota, hankak garbitu eta berriak jantzi.

726. Plazara saltzera (ARR-171/020)

Zapatuetan Bergarara joaten zen tratura eta ahizpa berriz, Oñatira. Domeketan Arrasatera joaten ziren plazara. Sasoikoa saltzen zuten.

727. Gasteizera marrubiak saltzera (ARR-171/021)

Garia bi motatakoa ereiten zuten. Goizagokoa maiatzerako helduta egoten zen. Marrubi garaian, Gasteizera astean lau egunez joaten ziren saltzera trena hartuta. Ama gaztea zenean, astoarekin joaten zen.

728. Astoa bete porru (ARR-171/022)

Elgoibarrera, Debara eta Gernikara ere joaten ziren azokara. Arrasaten hamabostero egiten zen azoka eta jende asko izaten zen. Amaren garaian, astoa bete porrurekin hemeretzi txakur handi irabazten omen zituen. Anekdota bat kontatzen du.

729. Tifusak jota etxekoak (ARR-171/025)

Tifusa pasatu zuten etxeko kide gehienek. Bakunak garestiak ziren. Kalera jeitsi behar izan zuen umeekin. Etxetik irten gabe egon behar izan zuten.

730. Abadiñoko eskolatik Durangoko maristetara (ARR-172/002)

Zazpi urte inguru zituela Abadiñoko eskolan hasi zen. Maisuak belarrondoko bat eman zion, eta, orduan, amak bizikleta bat erosi eta Durangoko maristetan hasi zen. 1933an 300 pezeta balio zituen G.A.C. bizikletak. Abadiñoko maisua nor zen aipatzen du. Abadiñoko eskolan bi urte eta Durangoko maristetan beste bi urte egin zituen. 11 urterekin, Gasteizko seminariora bidali zuten Felix.

731. Maisuak jo (ARR-172/005)

Abadiñoko eskolako maisuari buruz hitz egiten du. Maisuak ikasleak jo egiten zituen. Maisuak baserrietako mutilei zumeak ekarrazten zizkien, eta, gero, haiek jotzen zituen mutikoak.

732. Abadeak bandera kendu errepublikazale bati (ARR-172/006)

Errepublika garaiko oroitzapena. Abadiñon "castellano" bakarra omen zegoen: Errepublika goraipatzen hasi zen kalean, bandera batekin. Abadeak bandera kendu eta apurtu egin zion.

733. Orejaren hil-autoa pasatzen ikusi (ARR-172/007)

Errepublika garaiko oroitzapena. Arrasaten hil zuten Oreja politikari eta enpresaria Bizkaiko herri batean ehortzi zuten. Haren hil-autoa Abadiñotik pasatu zenean, Felix eta lagunak bide bazterrera irten ziren hura pasatzen ikustera.

734. Elizara, maristekin (ARR-172/012)

9 urtetik 11 urtera bitartean Durangoko maristen eskolan ibili zen Felix. Orduko oroitzapen onak ditu. Ospakizun erlijiosoren bat izaten zenean, Santa Maria elizara joaten ziren ilaran. Maiatzeko loreak.

735. Monagilo eta latina (ARR-172/013)

Lehenengo jaunartzea egin, eta hurrengo egunean monagilo hasi zen. Mezak latinez izaten ziren. "Introituak" latinez esaten ditu.

736. Txakur handi bat, mezako (ARR-172/016)

Zazpi urterekin hasi zen monagilo moduan. Abadeak mezako txakur handi bat sartzen zion libretan.

737. Bost abade Abadiñon (ARR-172/018)

Abadiñon bost abade zeuden: don Roman, don Angel, parrokoa, don Alejandro eta don Euleriano. Apaiz bakoitzaren eginkizunak aipatzen ditu. Abade bakoitzak bere "amakasa" (serora) zuen, gazteenak izan ezik: gazteena ama eta arrebarekin joan zen.

738. Eliza bakarra eta bost abade (ARR-172/020)

Abadiñon eliza bakarra zegoen. Eliza baterako bost abade zeuden, eta 2.000 biztanle bizi ziren herrian. Limosnak eta hiletak, diru-iturri.

739. Primerako hiletak (ARR-172/021)

Primerako hiletak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Bost abadeek hartzen zuten parte hiletan. Kanpai-hotsa. Abadeen eta monagiloen jantziak. Hilotza eliza ataria uzten zen. Segundako eta tercerako hiletak.

740. Monagiloen "kaporala" (ARR-172/022)

Lau edo bost monagilo zeuden. Felix eliza ondoan bizi zen, eta bera zen "kaporala" (buru egiten zuena). Bataioak.

741. Segundako eta tercerako hiletak (ARR-172/023)

Segundako eta tercerako hiletak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Tercerako hiletak, pobreenak: apaiz bakarra eta kanpai-hots txikia. Klasismoa.

742. Saturraranen, gerra irten zenean (ARR-172/024)

11 urterekin, Gasteizko seminarioara joan zen. 1935-1936ko ikasturtean joan zen Gasteizera, latina ikastera. Oporretan, latineko seminaristak Saturraranera bidali zituzten. Saturraren zeudela, uztailaren 18an, gerra irten zen. Handik egun batzuetara, seminarista bakoitza bere etxera bidali zuten. Felix trenez joan zen Abadiñora.

743. Pistoladun bat elizan sartu (ARR-172/026)

Saturrarandik Abadiñora bueltatu zenean, gerra hasita zegoen. Egun batean, meza esaten hari zirela, gizon bat sartu zen pistola batekin. Sakristian bildu zituen denak. Han parrokoak "kamelatu" zuen gizona, eta etxera eraman eta bazkaria eman zion pistoladun gizonari.

744. 22 karlista fusilatu zituen gizona (ARR-172/027)

Abadiñoko elizan zeudela gizon batek pistolarekin mehatxatu eta hurrengo egunean Durango bonbardatu zuten. Gero, gizon horrek eta beste miliziano batzuek 22 karlista fusilatu zituztela kontatzen du. Gizon hori Burgosko penalean fusilatu zuten.

745. Abadiñoko Mendiolan lau elorriotar fusilatu (ARR-172/028)

Gerra denborako kontuak. Egun batean, Elorrioko abade bat joan zen Abadiñoko abadetxera. Abade hark esan zien Elorrioko lau gizon fusilatu zituztela Abadiñoko Mendiola auzoan. Baserritar batek aurkitu zituen lurperatutako gorpuak. Gorputzak gurdian hartu eta Abadoñoko kanposantura eraman zituzten. Fusilatuetako bat Abadiñoko don Angel organistaren aita zen. Elorriko abadea, Abadiñokoa eta Felix kanposantura joan ziren. Lau gorpuak lurrean, gerritik gora biluzik zeuden. Bakoitzak lau tiro zituen. Don Angelen aitak eskaluparioa zuen. Felixi eskapularioa kentzeko esan zioten.

746. Mateos batailoia (ARR-172/030)

Gerra denboran, Mateos batailoi komunista joan zen Abadiñora. Eliza, don Angel organistaren etxea eta Felix bizi zen abadetxea kuartel moduan hartu zituzten. Felix-eta abadetxetik botata, parrokoaren etxera joan ziren. Mateos batailoia Villarealgo frontera joan ziren gero.

747. Abadea Itsasalde batailoian kapilau (ARR-172/031)

Gerra denborako kontuak. Felix hazi zuen abadea oso abertzalea zen, eta gudariek bere beharra izan zezaketela pentsatuta, Itsasalde batailoian kapilau joan zen. Abadea falta zen denboran, amarekin bakarrik gelditu zen etxean. Gauetan, herriko mutilzahar bat joaten zen beraiekin lo egitera.

748. Abadiñotik irtetzeko abisua (ARR-172/032)

Gerra denborako kontuak. Ama gaixo zegoenez, Mañariako bere jaiotetxera eraman zuen taxi batean. Herrian pregoia jo zuten frontea Kanpazarren zegoela, eta herritik irtetzeko abisua emanez. Herriko baserritar batzuekin Zornotzara joan zen gurdian. Durangon ez egoen argirik; herria erabat apurtuta zegoen. Zornotzan bera hazi zuen abadearen anaiaren etxean egon zen.

749. Kuartela bonbardaketa bertatik bertara bizi (ARR-172/033)

Gerra denborako kontuak. Zornotzan lasai ez, eta Abadiñora bueltatzea erabaki zuen. Zornotzatik Durangora tranbian joan zen. Durangotik Abadiñora oinez zihoala guardia zibilaren kuartel parean bonbardaketa izan zen. Zanga batean gorde zen Felix.

750. Zornotzatik Abadiñora bueltatu (ARR-172/034)

Gerra denborako kontuak. Abadiñora iritsi eta abade gaztearen etxera joan zen. Abadeak esan zion ama Mendiolako baserri batean zegoela. Antza, Mañariako baserria bonbardatu egin zuten, eta hara eraman zuten. Frontea Urkiolan zegoen.

751. Abadearekin topo egin Mendiolan (ARR-172/035)

Gerra denborako kontuak. Ama Mendiolako baserri batean zegoela jakin zuenean, bere bila joatea pentsatu zuen. Frontea Urkiolan baitzegoen. Mendiolara iritsi eta bera hazi zuen abadearekin egin zuen topo. Abadea teniente jantzita zegoen. Abadeak komandateari auto bat eskatu zion, eta Abadiñoko etxetik traste denak hartu eta Zornotzara eraman zituen ama-semeak.

752. Abadearen iloba seminarista (ARR-172/036)

Gerra denborako kontuak. Abadiñotik Zornotzara joan ziren. Felix hazi zuen abadearen iloba bat seminarista zen, eta Amaiur batailoian zebilen. Villarealeko erasoaldian bakoitzak bere aldetik hanka egin eta bakarrik iritsi zen Abadiñora. Osabaren etxea itxita ikusi zuenean, Felixen bizikleta hartu eta Zornotzara joan zen.

753. Zornotzatik Bilbora ihesean (ARR-172/037)

Gerra denborako kontuak. Zornotzan zeudela, frontea aurrera zetorrela ikusita Bilbora joan ziren. Bilbon amaren aldeko senide batzuen etxean egon ziren. Senideei eta etxeari buruzko azalpenak. Gosea pasatu zuten. Felix hazi zuen abadeari Deustun ipini zioten kuartela, eta arroz zaku bat eraman zien goserik pasa ez zezaten.

754. Bilboko borrokaldia (ARR-172/038)

Gerra denborako kontuak. Bilbon zeudeneko azalpenak. Itsasalde batailoiak entregatzea pentsatu zuen. Larrinagoko eta Karmeloko presoei buruzko azalpenak. Bilbon zubiak apurtu zituzten.

755. Nazionalak Bilbon sartu (ARR-172/039)

Gerra denborako kontuak. Bilbon egon ziren deborako kontuak. Begoñara bidean zuten babeslekua, eta egunero joaten ziren hara. Egun batean babeslekura zihoazela, San Anton eliza aurrean gizon bat "¡Viva España! ¡Arriba España!" ohikatzen hasi zen pistola ametralladora batekin. Artxandara bidali zituzten. Artxandan ogi zuria eman zien jateko. Handik Deriora bidali zituzten. Tankeak Deriotik Bilbo aldera joaten ikusi zituen. Derion Durangorako autobus bat hartu zuten. Durangotik Mañarira, amaren jaiotetxera, joan ziren.

756. Mañarira (ARR-172/040)

Gerra denborako kontuak. Bilbotik Mañarira joan ziren, amaren jaiotetxera. "Gorriek" baserria hutsik utzi zuten. San Anton ermitara meza entzutera joateko txapel gorria jarri zioten Felix. Abadea ere meza esaten txapel gorriarekin.

757. Abadea preso, Karmelon (ARR-172/041)

Mañariako baserrian miseria besterik ez zuten. Abadeak gutun bat idatzi zion Felixi Karmelon preso zegoela eta mantan bat eramateko eskatuz. Abadea bisitatzera joan zenean, Aramaioko bere jaiotxera joateko esan zion abadeak.

758. Etxanera, monagilo... (ARR-172/042)

Aramaion, Goiko Errota baserrian egon ziren Felix eta ama; abadearen jaiotetxean. Mezara traje eta korbatarekin joaten zen, seminarista moduan. Etxango familia batek berarekin eraman zuen Felix, auzoko ermitan monagilo lanak egiteko aitzakian, baina baserriko lanetan gehiago aritu zen. Igandetan egiten zituen monagilo lanak, eta aukera zuenean txanponen bat osten zuen. Baserrian non egiten zuen lo. Baserri horretan karlista bat egon zen ezkutatuta.

759. Etxanetik Otxandiora, amonarenera (ARR-172/043)

Etxanen gustora ez, eta aitaren aldeko Otxandioko senideen baserrira bidali zuen amak. Esnea batu, irak ebaki, soroko lanak... egiten zituen. Amonak mutil egin zuela dio. Baina ez zitzaion baserria gustatzen, eta amari idatzi zion handik ateratzeko eskatuz.

760. Otxandiotik Arrasatera, amarekin (ARR-172/044)

Aramaion, Goiko Errota baserrian (abadearen jaiotetxean) egon ziren Felix eta ama bolada batean. Denbora hartan, Felix Landa karlista egon zen gordeta baserri horretan. Behinola, gizon hori baserrira joan zen eskerrak ematera, eta Felixen amak egoera baliatu zuen bere semearentzako lana eskatzeko. Gizonak baiezkoa eman, eta, egun batzuetara, amarekin Arrasatera joan zen Felix.

761. Zerrajeran hartu ez (ARR-172/045)

Behin Arrasaten, Felix Landak bidalita Zerrajerako bulegora joan zen Felix gaztea. Zerrajeran egunkari bat eman zioten irakurtzeko, baina Felixek gutxi ikusten zuen eta bistan failoa zuela ikusita ez zioten lanerako deitu.

762. 14 urterekin, Elman lanean hasi (ARR-172/046)

Baina Zerrajeratik deitzen ez, eta Felix Landarengana jo zuen berriz lana bilatzeko laguntza eske. 1939ko urtarrilean Elman hasi zen lanean. Elmako fundatzaileak aipatzen ditu. Moldeadore ofizioa ikasten jarri zuten.

763. Arrasatera, bizitzera (ARR-172/047)

Elman lanean hasi zeneko kontuak. Aramaioko Goiko Errota baserritik Arrasatera joaten zen egunero, lanera. Etxetik prestatuko bazkaria jaten zuen San Frantziskoko elizpean. Elmako langile bat Goiko Errotakoekin senide egiten zen, eta hark bazkaltzera bere etxera joateko esan zion. Gero, ama eta biak Arrasatera joan ziren bizitzera.

764. Elman, fundizioan eta moldeadore (ARR-172/048)

Elman lanean hasi zeneko kontuak. Egunean 3 pezeta irabazten zituen, baina nahikoa ez eta fundizioan hasi zen lanean; egunean 10 pezeta irabaziz. Gerritik gaizki ibiltzen zen, ordea, eta berriz moldeadore lanera pasatu zen.

765. Ama Asam lantegian hasi (ARR-172/049)

Behin Arrasaten bizi zirela, Felixen ama Industrias Asam lantegian hasi zen lanean, nikelean. Lantegia etxearen atzeko aldean zegoen. Asam lantegiko ugazabei buruzko azalpenak ematen ditu.

766. Monagilo, ezkondu arte (ARR-172/050)

Ama eta biak lanean zebiltzan, eta ondo bizi ziren. Elizan monagilo ibiltzen zen Felix. Luistarretan monagilo ibiltzen zen bere bihotzeko lagun Ximonekin batera, ezkondu arte. 'Acción Católica'n ere ibiltzen zen.

767. Zazpi urte nobiotan (ARR-172/051)

17 urterekin nobio moduan hasi zen gaur egun bere emaztea denarekin. 24 urtera arte ibili ziren nobiotan. Soldadutzatik libratu arte ezin zuen ezkondu.

768. Parrokoak ezkontzeko agindu (ARR-172/052)

Felixen ama lupusarekin gaixotu, eta Eibarko klinikan egon zen. Izeba batek Bar Patri zuen Eibarren. Apaizarekin topo egin eta amak gaixo zuela esatean, apaizak ezkontzeko esan zion. Domekan "elezteixak" bota zizkion abadeak.

769. Ezkontzan zazpi lagun (ARR-172/053)

Amaginarrebarengana joan zen eta abadeak ezkontzeko esan ziola aipatu zion. Andregaiaren familiari buruzko azalpenak. Bera hazi zuen abadeak ezkondu zituen. Ez zuten banketerik eman. Ezkontzan zazpi lagun egon ziren.

770. Aitaren aldeko familia (ARR-172/054)

Aitaren aldeko familiari buruzko azalpenak ematen ditu. Familia egoera ekonomiko onean zegoen. Familiakoek hainbat taberna zituzten: Bar Patri (Eibarren), Bar Landaluze (Gasteizen), Bar Ochandiano eta Bar El Caserio. Osaba bat Arabako harrobi baten jabe ere bazen.

771. Eztei-bidaia (ARR-172/055)

Eztei-bidaian Donostiara, Bilbora eta Gasteizera joan ziren. Ezkontzeko dirurik ez, eta ugazabak 3.000 pezeta eman zizkion. Emazteari eszedentzia eman zioten Zerrajeran, 4.000 pezeta jaso zituen.

772. Emazteak bularra emateko baimena (ARR-172/056)

Emazteak eta biek egiten zuten lana. Bigarren umea eduki zuenean, emaztea goizetan eta arratsaldetan lanetik ateratzen zen umeari bularra emateko. Bizikletan egiten zuen lantegitik etxerako joan-etorria.

773. Enkargatu, Elman (ARR-172/057)

28 urte zituela, enkargatu jarri zuten Elman. Eta handik hiru urtera, emazteak lana utzi zuen. Amat kooperatibaren sortzaileetako bati buruzko azalpenak ematen ditu.

774. Danok bat elkartea (ARR-172/059)

Danok bat Arrasateko elkarteari buruzko azalpenak ematen ditu. Soziedadeko funtzaileetako baten semearen bidez sartu ziren lagunak bazkide moduan. Flor izeneko karta jokoan ibiltzen ziren. Jauntxoak aparte egoten ziren.

775. Flor karta-jokoa (ARR-173/001)

Flor karta-jokoari buruzko azalpenak. "Faltie" esaten dute joko horretan. Arrasaten Felixen lagun taldea bakarrik aritzen zen joko horretan.

776. Bi mutikori 'Acción Católica'ko intsignia kendu (ARR-173/006)

'Acción Católica'ko mutikoek galarazia zuten neskekin dantza egitea. Felixen lagun bi Oñatiko festetara joan ziren, eta han neskekin dantza lotuan egin zutelako 'Acción Católica'ko intsignia kendu zien.

777. 'Acción Católica' (ARR-173/008)

Neskekin dantza lotuan egiteagatik 'Acción Católica'ko intsignia kendu zien bi mutikori. Ez zituzten elkartetik bidali. Intsignia kentzearen esanahia. Don Jose Maria zen 'Acción Católica'ko arduraduna. Arrasateko 'Acción Católica'ko fundatzaileei buruz hitz egiten du.

778. Garizuma (ARR-173/010)

Garizuman, ez zen egoten musikarik. Batzuek, txirikiletan ibiltzen ziren. Dantza lotuan egitea galarazia zegoen.

779. Biderakoari "ereserki nazionala" (ARR-173/011)

Dantzan ari zirela gure Jaune pasatzen bazen, bandak "ereserki nazionala" jotzen zuen, eta denak dantza egiteari utzi eta belauniko jartzen ziren.

780. Zine akaberan, eskua jasota (ARR-173/012)

Zine akaberan, Franco agertzen zen pantailan eta ereserkia entzuten zen. Ikusleek tente jarri eta eskuineko besoa altxatu behar zuten. Mutil batek besaulkiko heldulekua teloira bota zuen behin.

781. Francoren argazkiari txikitoa bota (ARR-173/013)

Santa Agedako festetan Francoren argazki bati txikito bat zion mutil batek. Kartzelan sartu zuten mutila. Kartzelatik ihes egin zuen, eta nondik nora ibili zen azaltzen du.

782. Galdutako esnea edan (ARR-173/014)

Elman lanean zebileneko pasadizo bat kontatzen du. Makinan lanean zebilela, berarekin mutiko bat egoten zen bere ondoan "matxoak" kolokatzen. Amak "armosua" ekarri zion Felixi, baina esnea galduta zegoen. Esnea botatzera zihoala, mutikoak ez botatzeko esan zion. Hark edan zuen mindutako esnea.

783. Txerria lurpetik atera (ARR-173/015)

Gose denborako kontakizuna. Antza, baserri batean gaixotuta hil zen txerri bat, eta lurperatu egin zuten. Gizon batek hori jakitean, txerria lurpetik atera eta etxera eraman zuen jateko.

784. Amari taloa ezkutatu (ARR-173/016)

Gerraosteko gose urteez hitz egiten du. Felixek talo bat prestatu zuen berarentzat, ama lanetik beranduago etorriko zela pentsatuta. Ustekabean, ordea, ama etxera sartzen somatu zuen, eta ikaztegian gorde zuen zartagina.

785. Elma lantegia (ARR-173/018)

Arrasateko Elma lantegian etxetresnak eta hodiak egiten zituzten. Eskuzko kafe-errotak ziren lantegiaren "fuertea".

786. Arrasateko lantegi garrantzitsuenak (ARR-173/020)

Arrasateko lantegi garrantzitsuenak izendatzen ditu: Cerrajera, Elma, Metalúrgica Cerrajera, Asam, La Industrial (cucharera) eta Arzamendi, Berecibar y Cía. Zerrajeratik ateratzen ziren beste lantegietako fundatzaileak.

787. Arrasateko baserriak I (ARR-173/025)

Arrasateko baserriak. Desagertutako baserriak.

788. Arrasateko baserriak II (ARR-173/026)

Arrasateko baserriak. Desagertutako baserriak.

789. San Isidroko kapera eta Santa Teresa eliza (ARR-173/027)

Musakolako San Isidroko kapera nork eta nola egin zuen. Santa Teresa elizari buruzko azalpenak.

790. Debara, hondartzara (ARR-174/055)

Umezai egon zenean ikusi zuen aurrenezko itsasoa, Deban. Egun pasa joan ohi zen umeekin Debako hondartzara. Gerora, autobusean joan izan zen.

791. Neskametza (ARR-174/061)

Arrasaten neska asko zegoen neskame. Umeekin ateratzen zirenean elkartzen ziren neskameak, San Joanetan. Gainerakoan, neskameak ez ziren biltzen; ez zegoen kafea hartzeko dirurik.

792. Etxezarretatarrak (ARR-175/016)

Etxezarreta baserriko nagusia gerra denboran hil zen, ondoezak emanda. Haren alargunari buruzko azalpenak ematen ditu. San Isidrorako kaperara joaten zen meza entzutera. Zaldi bat eta gurdi batekin ibiltzen ziren. Uda partean joaten ziren Arrasatera.

793. Etxezarretako sagastiak eta dolarea (ARR-175/017)

Etxezarreta baserrian sagasti handia zuten. Sagardoa egiten zuten bertan. Matiasen aita eta anaia joaten ziren Mojategiko sagarrekin hango makinan sagardoa egitera.

794. Arzamendi, Berecibar y Cía lantegian hasi (ARR-175/019)

Ia hiru urtean ibili zen basolanean. 17 urterekin, Arzamendi, Berecibar y Cía lantegian hasi zen lanean. Lantegia non zegoen azaltzen du. Sarrailagintzan aritzen ziren. Bolada baten 80-90 langile izan ziren. Gerra aurrean sortutako lantegia zen.

795. Soldaduak Anporretan (ARR-175/020)

Gerra denborako kontuak. Mojategi baserrian pasatu zuten gerra, ez ziren beste inora joan. Beste baserri batzuetatik bidali egin zituzten, gerra zetorrela eta. Soldaduak Anporretan egon ziren.

796. "Gorrien" erasoa (ARR-175/021)

Anporretan Francoren aldeko soldadu bat hil zuten. Nazionalek sei hilabete egin zituzten Arrasaten, udazkenean iritsi eta udaberrira arte. "Gorriek" atakea eman eta militarrek pinudiari su eman zien. "Gorriak" Kanpazarren geratu ziren.

797. Cerrajerara bonbak bota (ARR-175/023)

Cerrajera lantegiari bonbak botatzen zizkien bertan bonbak egiten zituztelako. "Gorriek" Kanpazartik botatzen zituzten jaurtigaien zarata gogoratzen du.

798. Udalatxen kainoia (ARR-175/025)

Cerrajera lantegiari bonbak botatzen zizkien bertan bonbak egiten zituztelako. Udalatxen, goi aldean, kainoia jarri zuten nazionalek, mandoekin igota.

799. Militarrak baserri hutsetan (ARR-175/027)

Gerra denboran ez zuten militarrik eduki Mojategi baserrian. Musakolan baserri hauetan gelditu zen jendea: Garratz, Osiñalde eta Mojategi. Beste baserrietatik jendea kanpora bidali zuten: baserriak utzi beharra, militarren mehatxuak tarteko. Auzoko baserri hutsetan militarrak egon ziren gero.

800. Auzoko mutilak "gorriekin" (ARR-175/028)

Musakolan 25 baserri zeuden gerra etorri zenean. Mutil asko zegoen auzoan. Mutil gazte kuadrilak joan ziren nazionalistekin. Haien agurrak. Gero, nazioalek baserrietan norbait falta zela ikusten bazuten, familia osoa bidaltzen zuten baserritik.

801. 'La Quinta del Biberón' (ARR-175/029)

18 urterekin, soldadu joateko deitu zioten Matiasi. 1946an Gasteizen egon zen, kapitain baten asistente. Gasteizera joan eta sei bat hilabetera bukatu zen gerra.

802. Afrikara soldadu (ARR-175/030)

Gerra bukatu eta denbora gutxira, Afrikara bidali zuten soldadu. Afrikarako bidaia nolakoa izan zen azaltzen du. Melillatik 25 kilometrora zegoen kostaldeko kanpamendu batean zazpi-zortzi hilabete egin zituen. Gero, Ceutan eta Tetuanen egon zen.

803. Lizentziatu eta lau hilabetera berriz soldadu (ARR-175/031)

Soldadutzako kontuak. 22 urterekin lizentziatu zen Matias. Etxera bueltatu eta lau hilabetera berriro soldadu joateko abisua heldu zitzaion II. Mundu Gerra zela eta. Bi urte eta erdi pasatu zituen Gasteizen. Domeketan etxera joateko sukaldeko sarjentuari eskatzen zioten permisoa.

804. Bost urte eta erdi soldadutzan (ARR-175/032)

18 urterekin soldadu joan eta 24 urterekin bueltatu zen etxera. Bost urte eta erdi egin zituen soldadu, bi alditan banatuta. Soldadu egon zen bigarren aldian instrukzioak bakarrik egin zituzten. Ez ziren Gasteizetik irten ere egin.

805. Soldadu denboran jan faltarik ez (ARR-175/033)

Matiasek soldadu pasatu zituen ia sei urteak gose urteak izan ziren. Soldadu egon zen denboran ondo jaten zuten: ogi zuria eta rantxoa. Domeketan etxera joaten zenean, jateko zerbaitekin bueltatzen zen Gasteizera.

806. Mojategiko lursailak eta plazako salmenta (ARR-175/036)

Ortu dezentea zeukaten Mojategi baserrian. Ebakoitzetan Matiasen arreba joaten zen plazara, salmenta egitera. Plazan zer saltzen zuten: oilaskoa, patata, porrua, baba gorria... Mojategiko lursailei buruz hitz egiten du. Garia eta artoa landatzen zuten.

807. Etxeko jatorduak (ARR-175/037)

"Armosatzeko", kafesnea ogiarekin. Bazkaltzeko, baba gorriak urdaiarekin. Ondoren, sagarren bat. Taloa eta morokila egiten zituen Matiasen amak.

808. Aste guztirako ogia (ARR-175/038)

Aste guztirako egiten zuen ogia amak. Labekada batean 10-12 ogi egiten zituen.

809. Baserriko lanetan orduak "kontatu gabe" (ARR-175/039)

Zazpirak inguruan afaltzen zuten. Afaldu ondoren lanean jarraitzen zuten baserrian. Lantegian 8-10 ordu lan egin, eta baserriko lanetan orduak "kontatu gabe" aritzen zirela dio.

810. Behiak batzea eta esne partiketa (ARR-175/040)

Denbora askoan aritu zen Matiasen ama behiak batzen. Gero, amak urteetan aurrera egitean, Sebastian eta Matias anaien artean jezten zituzten lau behi. Bildutako esnea auzoan bizi ziren tia-tioen etxean lagatzen zuten. Gero, tiak Musakolako etxeetan banatzen zuen esnea.

811. Garia entregatzea (ARR-175/042)

50 kilo gari entregatu behar izaten zuten udaletxean.

812. Osiñako errota (ARR-175/043)

Errotak itxi zituzteneko garaiaz hitz egiten du. Osiñako errotan guardia zibilak egoten ziren egunez; errotariak hamaiketakoa ematen zien. Errota ez zegoen prezintatuta. Matias eta anaia Sebastian gauez joaten ziren errotara.

813. "ABC" lantegia (ARR-175/044)

Arzamendi, Berecibar y Cía lantegian sarrailak muntatzen zituen Matiasek. Lantegiaren gainbeheraz hitz egiten du.

814. Nobiotako kontuak (ARR-175/047)

Bere emazte izango zenarekin nobiotan noiz hasi zen kontatzen du: "lagun egin gitzen San Pedro Egun baten". Hiru urte nobiotan ibili eta ezkondu egin ziren. Txikiteoan neska-laguntzen baino gehiago. Matiasen hitzetan xirriak berez ikasten dira, eskola gabe.

815. Domeketako dantzaldia (ARR-175/048)

Domeketan musika egoten zen Arrasateko plazan. Plaza bete-beteta egoten zen. Musikarien atsedenaldian, estazioraino bueltatxoa egiten zuten. Neska-mutilek elkarrekin egiten zuten dantza.

816. Etxezarreta ondoan pinu sartzen... (ARR-175/052)

Etxezarreta abokatu eta diputatuaren baserri ondoan diputazioak aginduta pinu landarak sartzen hasi zireneko pasadizoa kontatzen du. "Señoritoa" esaten zioten. Etxezarretaren euskara "behetarra" zela dio Matiasek.

817. Zarugaldeko "Arrixan" kale-baserria (ARR-176/002)

Zarugalden, "Arrixan" (jatorrizko Arriaran baserria Uribarrin zegoen) kale-baserrian bizi zen familia. Bidearen beste aldean, kortak zeuden eta bertan edukitzen zuten ganadua. Behiak, idiak, astoak, ahuntzak, behorrak... zituzten. Baserriak ematen zuenetik bizi ziren. Auzoan, aroztegia zuen aitak, baina etxerako bakarrik aritzen zen; negurako egurra bertan mozten zuen. Elbiraren aita mutikotatik etxegilea zen osaba batekin ibili izan zen, eta harekin ofizioak ikasi zituen.

818. Mesedetako mojetan ikasia (ARR-176/005)

Lau-bost urte zituela hasi zen "merzedarietako" eskolan, eta 15 urtera arte ibili zen bertan. Valladolideko moja batekin ikasi zuen gaztelaniaz hitz egiten. Asko kostatu zitzaion gaztelaniaz hitz egiten ikastea; euskaldunak gutxietsi egiten zituzten. Zigortu egiten zituzten.

819. Dotrina eta jaunartzea (ARR-176/008)

Elbirak jaunartzea euskaraz egin zuen, zazpi urte zituela. Abade-etxera joaten ziren dotrina ikastera. San Joan Batailatzailearen parroki-elizan egin zuen jaunartzea.

820. Abade-etxea eta apaiz abertzaleak (ARR-176/009)

Errepublika garaian, Arrasateko abade-etxean ikastola zegoen. Arrasaten, hiru abade abertzale hil zituzten. Gero fusilatua izan zen abadeetako batek, On Jose Joakin Arinek, prestatu zuen Elbira jaunartzerako.

821. Eskola garaiko jolasak (ARR-176/012)

Eskola garaiko jolasak aipatzen ditu: sokasaltoa, "diez-veinteka", "kalistroan" (klaustroan lasterketak egiten), txorro-morroka... ibiltzen ziren. Kromoekin eta tortolosekin ere jolastu ohi zuten. Eskolako neskaren batek ere ba omen zuen diaboloa.

822. Nazionalak, baserriak eta esne-bezeroak (ARR-176/013)

1936ko irailaren 26an sartu ziren Nazionalak Arrasaten. Kaleko arriskutik alde egiteko, Elbiraren aita ganaduarekin "Arrixan" baserrira igotzen zen goizetan; seme-alabak ere berarekin egoten ziren. Iluntzean, kale-baserrira jaisten ziren, eta amak behiak jezten zituen. Esne-bezeroak beraien etxera joaten ziren esne bila.

823. Nazionalak Krutzetxikin behera (ARR-176/014)

Nazionalak Arrasaten sartu zirenean, Elbira "Arrixan" baserrian zegoen aita eta anai-arreba txikienekin; iluntzean, kalera jaisten ziren. Ama eta ahizpa zaharrenak, berriz, kale-baserria zaintzen geratu ziren. Krutzetxiki mendian behera joaten ikusi zituzten nazionalen tropak. Jendeak beldur handia zuen.

824. Baserritik bizi (ARR-176/015)

Bost behi, idi parea, astoa... zeuzkaten. Eguna hasterako, kaletik "Arrixan" baserrira joaten ziren ganaduarekin; iluntzean jaisten ziren kale-baserrira. Ganaduak ondo ezagutzen zuen baserrirako bidea. Urtean, bi txerri hiltzen zituzten: bata, udazkenean; bestea, Gabon ostean. Bederatzi lagun bildu ohi ziren etxean. Baserriak ematen zuenetik bizi ziren; "amak erosi behar ziren gauzak asko zaintzen zituen".

825. Morteroa hirugarren solairuan (ARR-176/019)

Elbira bizi zen etxearen hirugarren solairura mortero bat bota zuten. Ohe gainera erori zen, eta kalte txikiak eragin zituen. Mortero eta kanoikaden arteko aldea zein den azaltzen du.

826. Gerra garaiko gordelekua, errekan (ARR-176/020)

Bonbardaketak hasten zirenean, etxekoek errekan hartzen zuten babes. Aitak etxea egin zuenean prestatutako toki bat zen.

827. San Andres eguneko erasoa (ARR-176/021)

Gerra zibileko kontuak. San Andres egunean, "gorrien abanzada" bat egon zen Udala aldetik. Behe-laino handia zegoen, eta kale aldean mugimendu handia ikusten zen. Militarrek Santa Barbara aldean kanoi bat jarri zuten Udala aldera ("gorrien" trintxeretara) begira, eta herritarrei agindua eman zien lehiak guztiz ez ixteko (kalte handiagoak ez eragiteko). Goizaldean, behe-lainoa aprobetxatuz, "gorriek" militar ugari hil zituzten ezustean. Amak ez zien usten gerrako kontuez hitz egiten.

828. Gerra denboran, eskolarik ez (ARR-176/025)

Gerra denboran, gurasoek ez zien usten kalera ateratzen. Ez ziren eskolara joaten.

829. Dendak eta errazionamendua (ARR-176/026)

Gerra denboran, herriko denda batzuk itxi egin zituzten. Errazionamendua jarri zutenean, dendetan ilara luzeak, orduetakoak, egoten ziren janaria eskuratu ahal izateko. Azkarate okindegia etxe ondoan zegoen.

830. Baserriko lanak: artoa, belarra, oiloak... (ARR-176/027)

Ez du etxean garia egiten ezagutu, baina artoa bai. Elbiraren ama 100 oilo edukitakoa da, eta haiei artoa ematen zien jaten. Artoaz gain, erremolatxa, arbia eta alpapa egiten zuten soroetan. Larunbatetan, segalariak joaten ziren aitari belarra mozten laguntzera. Belarra "Arrixan" baserriko ganbaran jasotzen zuten; gero, aldian-aldian, gurdiarekin jaitsi ohi zuten kale-baserrira.

831. "Arrixan"-go errenteroak (ARR-176/028)

Elbiraren familia "Arrixan" baserritik kale-baserrira jaitsi zenean, "Arrixanen" errenteroak geratu ziren. Errenteroei buruz hitz egiten du: gizonak Zerrajeran egiten zuen lana, eta hiru ume zituzten. Baserri inguruko lurrak Elbiraren familiak lantzen zituen.

832. Udalako gurdibidea (ARR-176/030)

Lehen, Udala bidea gurdibidea zen. Arrasatera lanera jaisten zen Udalako jendea bide horretatik ibiltzen zen. Asto eta gurdiekin ibili ohi ziren.

833. Ortuko eta basoko lanak (ARR-176/032)

Zarugaldeko kale-baserriaren atzean ortuak zituzten. Elbiraren ama ortuko lanean aritzen zen, eta aita, berriz, baserriko lanetan ibiltzen zen, baso-garbiketan, goldan...

834. Zarugaldeko garbitokia (ARR-176/034)

Zarugaldeko kale-baserrian ura eta argia zuten. Arropak garbitzera erreka ondoko garbitokira joaten ziren. Herriko garbitokiak: Zarugalden, Gaztelondon eta Maalan zeuden. Kaleko jendea Zarugaldeko garbitokira joaten zen arropak garbitzera menditik ur garbia etortzen zelako.

835. Zigortutakoan, amari esan ez (ARR-176/037)

Eskola garaian, Elbira askotan zigortzen zuten. Ama bila joaten zenean, ez zion esaten zigortu egin zutenik, eta beste gezurren bat esaten zion.

836. Eskolako oroitzapenak (ARR-176/039)

Eskola garaiko oroitzapen onak ditu. Lagun onak egin zituen. Ikasgelan, 40 neska inguru ziren, eta moja "pixka bat gogorra" omen zen. Historia sakratua ikasten zuten. Eskolan, moja erdalduna jarri zien erdaraz irakasteko. Elbirak ez zekien gaztelaniaz hitz egiten; lezioa galdetutakoan euskaraz esanez gero, irakasleak iraindu egiten zituen.

837. Amak erdararik ez; aitak, bai (ARR-176/040)

Elbiraren amak ez zekien gaztelaniaz hitz egiten. Behinola, amak militar bati euskaraz egin zionekoa kontatzen du. Aitak, berriz, bazekien gaztelaniaz. Aita osaba etxegile batekin lanean ibili zen kanpoan, eta horrela ikasi omen zuen.

838. Aita, osabarekin Toledo lanean ibilia (ARR-176/041)

Elbiraren aita osaba etxegile batekin lanean aritu zen gaztetan. Toledoko katedraleko kanpandorrean kanpaiak jartzen ibili omen ziren.

839. Elorrioko eta Apotzako jaiak (ARR-176/043)

Elbiraren aita Elorriokoa zen, eta iraileko lehenengo igandean hango jaietara joan ziren aitarekin; ama baserrian geratzen zen ganadua zaintzen. Amaren familia, berriz, Apotzakoa zen, eta hango jaietara ere joaten ziren. Orduan, aita gelditzen zen ganaduaren kargu.

840. Erromeriak (ARR-176/046)

Uribarri, Musakola, Aretxabaleta... inguruko erromerietara joaten ziren. Pazkoetan, Bergara joaten ziren trenez. Tren bereziak jartzen omen zituzten Bergarako jaietara joateko.

841. Zinera joateagatik zigortu (ARR-176/047)

Gaztetako kontuak. Ez zuten arazorik izaten baltseoak egiteagatik. Igandetan, zinera joaten ziren. Norbaitek abisua pasatzen zien mojei, eta, gero, mojek zigortu egiten zituzten zinera joaten zirelako.

842. Arrasateko auzoak, kaleak... (ARR-176/050)

Zarugalde kaletik Musakola eta Maala urruti egiten zitzaizkien. Miatzerreka auzoa non hasten den azaltzen du.

843. Hiletak (ARR-176/053)

Miatzerrekako norbait hiltzen zenean, etxekoek jaitsi behar izaten zuten gorpua Zarugalderaino. Han, Elbiraren etxe aurrean, mahai bat jartzen zuten hildakoaren gorpua bertan jartzeko. Abadea Zarugaldera joaten zen, eta handik hasten zen elizarako prozesioa.

844. San Joan parrokia (ARR-176/055)

San Frantziskoko elizan abadeak ematen zuen meza; gero, joan ziren frantziskotarrak hara. Elizako ospakizun nagusiak, San Joan parrokian egin ohi ziren.

845. Durangoko San Antonio barnetegia (ARR-176/060)

15 urterekin, mesedetako eskolan ikasketak bukatuta, Durangoko San Antonio barnetegira bidali zuten. Moja klaratarrena zen eskola. Gabon garaian eta udaran bakarrik ateratzen ziren handik. Gose denboran egon zen han.

846. Gose garaia (ARR-176/061)

Gose denboran, Elbiraren etxekoek ez zuten goserik pasa; berak Durangoko barnetegian bai. Amak taloak eta morokilak egiten zituen. Elbirak gustuko zuen amaren morokila, azukrearekin. Gari-irinarekin egindako ahia prestatu ohi zuen amak.

847. Barnetegian, goseak (ARR-176/062)

Gerra ostean, Durangoko San Antonio barnetegian egon zen, eta han gosea pasa zuen. 80 neska eta 20 moja zeuden barnetegian. Hamabostean behin, etxekoak bisitan joaten zitzaizkion, eta jatekoa eraman ohi zien.

848. Arrautzak entregatu behar (ARR-176/064)

Gerra ostean, astean dozena bat arrautza entregatu behar izaten zuten alondegian.

849. Merkataritza-peritu ikasketak (ARR-176/065)

Hiru urte egin zituen Durangoko San Antonio barnetegian. Bilbon egiten zituzten eskolako azterketan. Gero, beste bi urte egon zen Bilbon ikasten. Denbora horretan, ahizpa zaharrenaren etxean egon zen. Merkataritza-peritu titulua atera zuen.

850. Barnetegiko errutina (ARR-176/069)

Durangoko San Antonio barnetegia egon zeneko garaiari buruz hitz egiten du. Barnetegiko errutina nolakoa izaten zen azaltzen du. Frantsesa, matematika, gramatika, historia... ikasten zuten. Mojek asko kontrolatzen zituzten.

851. Bergarara lagunekin taxian (ARR-177/010)

"Unión Cerrajera" militarizatua egon zen garaian, tarteka domeka arratsalderen bat libratuta, Bergarara joaten zen lagunekin taxia hartuta. Anekdota bat kontatzen du.

852. Herrian mutil gazterik ez (ARR-177/011)

Herrian ez zegoen mutil gazterik, denak gerran zebiltzalako. Bera eta lagunak ziren herriko nagusienak eta neska-kontuetan ere libre ibiltzen ziren.

853. Inguruko tornuak zerrajerarako errekisatuta (ARR-177/012)

"Unión Cerrajera"k inguruko tornu denak errekisatu zituen eta ordu luzez lan egiten zuten.

854. Zerrajera militarizatua (ARR-177/013)

Lantegia erabat militarizatua zegoen. Jantziak militarrak ziren eta koronel alemaniar batek jarraipena egiten zien.

855. Gerratik itzulitakoak, estraperloan (ARR-177/015)

Gerra garaian 500 lagun inguru zebiltzan lanean "Unión Cerrajera"n. Herrira bueltatuko asko estraperloan ibili behar izan ziren.

856. Langileak militar izendapenekin (ARR-177/016)

Gerrarako proiektilak egiten zituztenean, militarizatuta zeuden erabat. Uniformedunik egunerokoan ez zen egoten.

857. Oreja eta eskekoa (ARR-177/017)

Oreja ezkondu zenekoa gogoan du. Madrilen diputatua zen eta itzuli zenean, nagusi jarri zen "Unión Cerrajera"n, aitaginarrebaren lekua hartuta. Anekdota bat kontatzen du Oreja eta eskeko baten ingurukoa.

858. Oreja eta Edurra fusilatuak (ARR-177/018)

Oreja eta Edurra izeneko bat (lanera bizikletan zihoan gizon bat) fusilatu zituztenekoa kontatzen du. Rikardo Azkoagak ihes egitea lortu zuen errekara salto eginda.

859. Errepublikak hezkuntza hobetu (ARR-177/019)

Errepublika etorritakoan, gurutzeak kentzeagatik protestan ibili ziren, norbaitek hala aginduta. Errepublikak irakasle tituludunak eta hezkuntzako azpiegiturak ipini zituen.

860. Bedia Antzokia (ARR-177/022)

Bedia Antzokian antzerkia, dantzariak eta ikuskizun asko izaten ziren. Diktadura garaian pelikula bukatutakoan "Cara al Sol" kantatu behar izaten zuten.

861. Arrasateko preso eta fusilatuak (ARR-177/023)

Aita eta osaba bat kartzelan egon ziren. Aita zerrajeran postu garrantzitsua zuelako askatu zuten. Beste asko fusilatu zituzten. Osaba tuberkulosiarekin etorri zen kartzelatik eta hil egin zen. Haurdun zegoen emakumea ere fusilatu zuten. Oiartzun eta Errenteria aldean hil zituzten.

862. Garagartzako eskola eta San Viator (ARR-179/002)

Garagartzako eskolan ibili zen mutikotan. Eskola eliza ondoan zegoen. Gerra aurretik, neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten. Gerraostean, neskak Santa Agedako eskolara joaten hasi ziren, eta mutilak Garagartzara. Ziriako Jauregi zen maisua. Garagartzako eskolatik San Viator eskolara pasatu zen. 14 urtera arte ibili zen San Viatorren.

863. Garagartzako maisua (ARR-179/004)

Garagartzako maisuari buruzko kontuak. Ziriako Jauregi zen maisua, eta maisu oso gogorra omen zen. Ikasleek egindako bihurrikeriak. Maisuak "egurra" ematen zien.

864. Ikasle "destakatuen" artean (ARR-179/005)

Garagartzako eskolako kontuak. Gelan lau arbel zauden, eta maisuak lau ikasle "destakatuenak" deitzen zituen arbelera. Maisuak ez zien azalpenik ematen. Maisua herrira joaten zenean, Jerardo lagatzen zuen gelako arduradun moduan.

865. Eskolan hitzik ere ez euskaraz (ARR-179/006)

Garagartzako eskolako kontuak. Gerraostean, debekatuta zuten euskaraz hitz egitea. Jolas-orduan euskaraz hitz egiten harrapatuz gero, maisuak zigortu egiten zituen. Maisuaren usoentzako hostoak biltzen zituzten.

866. Eguen arratsaldetan kartutxoak biltzera (ARR-179/007)

Garagartzako eskolako kontuak. Gerra denboran, frontea egon zen Murua barrenean eta Untzilla aldean. Gerra ondorenean, eguen arratsaldetan ez zuten eskolarik edukitzen, baina zaku bat hartu eta frontea egon zen tokian gelditutako kartutxo hutsak jasotzera bildatzen zituen maisuak. Kartutxo zakukadak maisuari eraman behar izaten zizkien.

867. Lehenengo tiroak (ARR-179/009)

Gerra hasierako oroitzapenak. Baserritik auzoko errotara asto gainean zihoala, Murua aldetik zetozen tiroak entzun zituen.

868. Esne partitzea, errazionamendua eta nazionalak (ARR-179/010)

San Viator eskolara joaten zeneko kontuak. Uribarrin nazionalek egindako parapeta bat zegoen. Goizetan, auzoko abadeari meza laguntzen ibiltzen. Etxera joan, eta zer "armozatzen" zuen kontatzen du. Esnea hartu eta kalerakoan, lau-bost bezerori banatzen zien esnea. Segidan, eskolara joaten zen. Eskolatik irtendakoan, errazionamenduko jakiak hartzera joaten zen. Jenaroren etxea esaten zioten eraikinean nazionalek kuartela eduki zuten. Marmitekin etxera zihoala, kuartelean sarrarazi zutenekoa kontatzen du.

869. Bi osaba gerran ibili (ARR-179/011)

Amaren aldeko bi osaba gerran ibili ziren nazionalistekin ("gorriekin"). Osaba bat preso hartu zuten, ordea, eta Langileen Batailoietan ibili zen. Gero, nazionalekin eraman zuten gerrara. Urkiolan, Intxortan, Teruelen eta Belchiten ibili ziren gerran.

870. Aita kalean eta ama umeekin Bedoñara (ARR-179/013)

Gerra denborako oroitzapenak. Jerardoren aitak Arrasateko Metalúrgica Cerrajeran egiten zuen lana. Hasiera batean, lana egin eta etxera bueltatzen zen. Gero, frontea zegoela eta, ez zioten etxera bueltatzen uzten. Ama hiru seme-alabekin gelditu zen baserrian. Gauetan, inguruko "gorrien" aldekoek atea joatzen zien. Beldurra pasatzen zuten. Ganaduak eta gurdian traste batzuk hartu eta Bedoñara joan ziren, amaren aldeko senide batzuen baserri batera. Irapean traste batzuk gorde zituzten. Zazpi hilabete egin zituzten Bedoñan. Handik bueltatu zirenean, baserria hutsik aurkitu zuten: babak, artoa, ehunak, josteko makina... ostu zizkien.

871. Bedoñako egonaldia (ARR-179/014)

Gerra denborako oroitzapenak. Uribarritik Bedoñara joan ziren, auzokoen jazarpenetik ihesi. Bedoñan, amaren jaiotetxean, hainbat hilabete pasatu zituzten. Tropak baserri inguruan egon ziren denboraldi batez. Bedoñan egon ziren denboran, Azatzara joaten ziren eskolara. Arropa: brusa janzten zuten. Eskolara joaten zirenean, Otala baserrian bazkaltzen zuten.

872. Nazionalek bi granada bota osabari (ARR-179/015)

Gerra denborako oroitzapenak. Uribarritik Bedoñara joan ziren, auzokoen jazarpenetik ihesi. Bedoñan, amaren jaiotetxean, hainbat hilabete pasatu zituzten. Osaba idi-parea eta gurdiarekin bidean gora zihoala, nazionalen hegazkin batetik bi granada bota zizkioten. Ez zitzaion ezer gertatu.

873. Nazionalen kainoiak auzoan (ARR-179/016)

Gerra denborako oroitzapenak. Uribarritik Bedoñara joan ziren, auzokoen jazarpenetik ihesi. Bedoñan, amaren jaiotetxean, hainbat hilabete pasatu zituzten. Auzoan, nazionalen kainoiak non egon ziren azaltzen du. Handik bonbak botatzen zituzten Udala eta Intxorta aldera. Soldaduek almazena eduki zuten baserritik gertu.

874. Auzokoek etxea hustu (ARR-179/017)

Gerra denborako oroitzapenak. Uribarritik Bedoñara joan ziren, auzokoen jazarpenetik ihesi. Bedoñan, amaren jaiotetxean, hainbat hilabete pasatu zituzten. Handik Uribarriko baserrira begira egoten ziren prismatikoekin. Auzokoek etxean utzi zituzten gauza guztiak harrapatu zizkien. Gurasoen joera politikoak.

875. Amak josteko makina berreskuratu (ARR-179/019)

Jerardoren amak etxetik alde eginda egon ziren denboran ostutako josteko makina berreskuratu zuen gerra ondorenean. Inbidia eta ikusezinak auzokoen artean.

876. Baserriko lanak, Itturrixan (ARR-179/020)

Gerra denborako oroitzapenak. Uribarritik Bedoñara joan ziren, auzokoen jazarpenetik ihesi. Bedoñan, amaren jaiotetxean, hainbat hilabete pasatu zituzten. Bedoñan egon ziren denboran, baserriko lanetan lagundu behar izaten zuten: itulan, gari-ebakitzen, arbia garraiatzen... Itturrixa (Iturriaga) baserrian zenbat senide egon ziren aipatzen du.

877. Telleria baserria (ARR-179/022)

Garai batean, Telleria baserrian teilak egiten ziren. Jerardoren aita mutikoa zela utzi omen zioten teilak egiteari. Telleria baserriaren egiturari buruzko azalpenak: buztina egosteko labeak. Buztina etxe ingurutik ateratzen zuten, eta ura ere bertan zuten.

878. Ibarra sarrailagintzan lanean hasi (ARR-179/027)

14 urterekin eskola amaitu eta familiako Ibarra sarrailagintza lantegian hasi zen lanean, Aretxabaletan.

879. Bizikleta eta gaztetako irteerak (ARR-179/028)

Andregaia San Martzialgo erromerian ezagutu zuen. Gaztetan, asko ibiltzen zen bizikletan. Jai arratsaldetan Urkiolara, Otxandiora, Bergarara... joan ohi zen bizikletan. Jai goizetan, meza eta baserriko eginkizunak.

880. Nobio garaia (ARR-179/029)

Nobio garaiko kontuak. Arrasatetik Bergarara trenez joan ohi zen: bizikleta furgoian sartzen zuen. Bergarako taberna bateko sotoan gordetzen zuen bizikleta, eta andregaiarekin ibiltzen zen paseoan. Uda partean, bizikletaz bueltatzen zen Arrasatera.

881. General Mecánica lantegia (ARR-179/031)

Ibarra lantegia utzi eta Bergarako General Mecánica makina-erreminta lantegian hasi zen lanean. Lantegia non zegoen azaltzen du. Jerardo lantegiaren fundatzaileetako bat izan zen.

882. Solista, auzoko elizan (ARR-180/004)

Mutikotan, solista moduan abesten zuen auzoko elizan. Auzoko apaizak Arrasateko apaiz eta organistarekin hitzordua lotu zion, eta lau-bost mutikoren entseguetara joaten hasi zen. Gero, Arrasateko Parrokiako Abesbatzan ibili zen urte askoan.

883. Umore Ona eta Bergarako Orfeoia (ARR-180/005)

Jerardo Bergarara ezkondu zen. Bergaran, Umore Ona taldean hasi zen kantuan. Gero, Bergarako Orfeoitik deitu zioten, eta Orfeoian hasi zen. Bergarako Orfeoiarekin kantuan ibilitako tokiak aipatzen ditu.

884. Bilboko Koralarekin ere kantuan ibilia (ARR-180/006)

Bergarako bost edo sei lagun Bilboko Koralean ere aritzen ziren kantuan, errefortzu moduan. Bilboko Koralean parte hartu zuen azken emanaldia Benjamin Britten 'Gerrako Requiema' izan zen. Sevillan bi kontzertu eta Madrilen eta Bilbon kontzertu bana eman zituzten.

885. Iruñeko Orfeoiarekin, Europan barrena (ARR-180/008)

Iruñeko Orfeoiarekin ere aritu izan da kantuan. Europako hainbat txokotan kantatu du "Pamplonesarekin".

886. Bergarako Orfeoiren entseguak (ARR-180/013)

Bergarako Orfeoian hasi zenean, batzokia izandako eraikinean entseatzen zuten. Don Roman Oiartzabal medikua zen Orfeoiko zuzendaria. Entseguak 22:00etatik 23:00etara izaten ziren. Hurrengo egunean, 07:00etan trena hartu behar izaten zuen lanera joateko.

887. Ama, Arrasatera eta Oñatira plazara (ARR-180/015)

Eskolatik baserrira bueltatutakoan, hango lanetan lagundu behar izaten zuen. Jerardoren ama Arrasatera eta Oñatira joaten zen berdurak eta landareak saltzera. Ostiraletan eta Domeketan egoten zen merkatua Arrasaten.

888. Landara saltzera tribulian (ARR-180/016)

Uribarri auzoko baserri askotan landatzen ziren barazkiak. Jerardoren ama Arrasatera eta Oñatira joaten zen berdurak eta landareak saltzera. Gero, anaiak jarraitu zuen. Lehenengo, astoarekin joaten ziren plazara. Gero, ordea, zaldia eta tribuliarekin.

889. Ortuko lanak (ARR-180/018)

Ortuan, laiarekin edo horzbikoarekin biratzen zuten lurra. Zer barazki landatzen zituzten: porrua, tipula, aza, letxuga... Ortua ureztatzeko errekatik hartu behar izaten zuten ura. Negu partean, arbia ateratzea.

890. Mendia garbi eduki behar (ARR-180/019)

Jerardoren amari mendia garbi edukitzea gustatzen zitzaion. Ira eta ota ebakitzera joan behar izaten zuen. Pinua sartu zutenean, otak ez zuen hainbeste indar hartzen.

891. "Gari-jorran" (ARR-180/020)

"Gari-jorra", gariaren artean hazten zen oloa, "trebolia" eta "aixena" (aihena) ateratzeko egiten zen. Jorra-aitzurra erabiltzen zuten gari-sailean hazitako belar txarrak kentzeko. Jorra-aitzurraren deskribapena.

892. Kupoa eta estraperloa (ARR-180/021)

Baserrian ez zuten uzta handia biltzen, eta bildutako dena kupoan entregatu behar izaten zuten. Zenbaitetan, ez ziren iristen kupoa osatzera. 14 urte zituela Bedoñatik Ozaetara (Araba) oinez joan zen lehengusua eta asto parea hartuta patata eta gari bila. Estraperloa.

893. Txerri-hiltzea, ezkutuan (ARR-180/022)

Gerraostean, baserritarrek deklaratu egin behar izaten zuten txerriren bat hil behar zutenean. Jerardoren aita txerri-hiltzen ibiltzen zen. Guardia Zibilen kontrolak. Aitak goizaldean hiltzen zituen txerriak. Txerriari kaina bat sartzen zion ipurdiko zuloan, kurrinkadarik ez egiteko.

894. Astoarekin errotara (ARR-180/024)

Auzoko errota prezintatuta zegoen. Elgetara bideko Errota-Erdikoa errotara joana da astoarekin garia trukatzera. Murua gainetik Baztarraldera ere joana da astoarekin, errotara. Berak ez zuen bidea ezagutzen, baina astoak bai.

895. Ura eta argindarra (ARR-180/025)

Beti ezagutu izan du argindarra baserrian. Baserritik gertu metal ura zuten, eta Jerardo mutikoa zela jarri zuten ura etxean.

896. Gari-jotzea (ARR-180/026)

Lehenengo, eskuz jotzen zuten garia. Larraina nola antolatzen zuten deskribatzen du. Gero, argindarrarekin martxan jarritako motor elektrikoa erabiltzen hasi ziren. Motorra auzokoen artean erositakoa zen.

897. Lehen dena aprobetxatzen zen (ARR-180/027)

Antzinako bizimoduari buruz hitz egiten du. Senide asko izaten ziren etxeetan. Garbitasuna, ahal zen modukoa. Platerak garbitzeko erabiltzen zen ura txerrien jana prestatzeko erabiltzen zen gero. Txiki gelditutako arropak anaia batetik bestera pasatzen ziren.

898. Dantza kontuak (ARR-180/029)

Uribarri aldean, ez zuten arazorik izaten neskekin dantzan egiteko. Aldiz, Oñatin dantza eskea eginez gero, hango neskek Mariaren alabak kongregaziokoak zirela esaten zien, eta ez ziren dantzara ateratzen.

899. Jai arratsaldetako jolasak eta "bailableak" (ARR-180/031)

15-16 urte artean, auzoan ibiltzen ziren neska-mutilak bale-baleka. "Aramaittekua" jotzen zutenean, etxera. 17 urte ingururekin, kalera joaten hasi zen. Tabernaren batean kafea eta kopa edan eta zigarroren bat erretzen zuen. Gero, bandaren dantzaldia izaten zen plazan; azkenengo pieza, pasodoblea. Jaiero izaten ziren "bailableak" Arrasaten.

900. Hiletak eta monagilotza (ARR-180/032)

Auzoko abadeak 5 zentimo ematen zizkien astearen akaberan monagilo lanengatik. Hiletaren bat egoten zenean, hiru meza izaten ziren (bi aldare txikietan eta hirugarrena aldare nagusian): orduan, erreala ematen zien mezan laguntzeagatik. Hiletei buruzko azalpenak.

901. Domu Santu Eguna (ARR-180/033)

Domu Santu Eguneko ohiturak. Olata (opila) eguna izaten zen. Kandelak pizten zitzaizkion sendiko azken hildakoari. Elizan lagatzen zituzten olatak eta dirua.

902. Monagilotzako dirua (ARR-180/034)

Auzoko abadeari meza ematen laguntzeagatik astearen akaberan 5 zentimo jasotzen zituzten. Hileten kasuan, erreala izaten zen. Jerardoren lagun batek abadeari 5 zentimoko txanpona bota egin zion, diru gutxi zela adierazteko. Handik aurrera ez zien dirurik eman.

903. Monagilotzako diruarekin pospoloak erosi (ARR-180/035)

Mutikotako kontua. Udazkeneko jai arratsalde batean zer egin ez zekitela, mendira joan eta gaztaina batzuk erretzea pentsatu zuten Jerardok eta lagunek. Meza laguntzen irabazitako diruarekin pospoloak erosi zituen Jerardok auzoko Gau-Txori tabernan. Abadeak, ordea, Jerardoren amari galdetu egin zion ea semeak dirua entregatu zion. Etxera joan eta diruarekin zer egin zuen kontatzean, amak belarrondokoa jo zion. Abadeak ematen zion dirua etxean entregatu behar izaten zuen.

904. Gose garaia (ARR-180/036)

Errazionamendu garaiko kontuak. Labesua egiten zuten etxean. Olio falta. Boniatoa (patata) brasan prestatzen zuten. Telleria baserri txikia izanik, nahiko lan izaten zuten jan kontuetan.

905. Arabara etxerako gari eta patata bila (ARR-180/037)

Gerraosteko egoera. Telleria baserri txikia izanik, nahiko lan izaten zuten jan kontuetan. Etxean egiten zuten gari guztia entregatu egin behar izaten zuten. Etxerako gari bila Arabara joaten ziren. Guardia Zibilak estraperloko patatarekin ia harrapatu zuenekoa kontatzen du.

906. Estraperloko ibilerak (ARR-180/038)

Bedoñan egon ziren denboran, lehengusuarekin joaten zen Arabara estraperloan jeneroa ekartzera. Lehengusuak ondo ezagutzen zituen inguruko bideak. Mendiko ibilerak: ordu asko oinez eta lorik egin gabe.

907. Ardo zahagia etxean (ARR-180/039)

Bere gogoan, beti ezagutu izan du ardo zahagia etxean. Arabako ardozale batzuk joaten ziren auzora ardoa ematera, eta 50-60 litroko ardo zahagiak uzten zituzten baserri batean. Gero, baserritarrari ordaindu eta zahagia karretilan eramaten zuten etxera.

908. Auzoko jaietan, gonbidatuak (ARR-180/040)

Abuztuaren 24a, San Bartolome Eguna da Uribarriko jaieguna. Auzoko zaindaria, berriz, Itxaropeneko Ama. Abuztuan, gonbidatuak izaten zituzten baserrian. Ohitura handia zegoen jaietan senideak etxera bazkaltzera gonbidatzeko. Jateko berezia izaten zen egun horietan.

909. Etxean egindako izozkia (ARR-180/041)

Jaiegunetan, gonbidatuak izaten zituzten baserrian. Postrerako izozkia egiten zuten etxean. Izozkia egiteko Elma etxeko aparatu bat erabiltzen zuten. Kalean erosten zuten izotz barra.

910. Gonbidatuak (ARR-180/042)

Abuztuan, San Bartolome jaietan, gonbidatuak izaten zituzten baserrian. Egun batean baserri bateko senideak joaten ziren, eta beste egunean, beste baserrikoak. Jende asko biltzen ziren etxean.

911. Santa Eulalietan, Bedoñara (ARR-180/044)

Bedoñako jaiak Santa Eulalia Egunean izaten ziren. Ilusio handiarekin joaten ziren hango senideen etxera. Bedoña eta Arrasate arteko bi bide aipatzen ditu. Etxera bueltan, lasto-azaoak piztuta.

912. Biderakoak eta elizakoak (ARR-180/046)

Abadearekin batera elizakoak banatzera nola joaten zen kontatzen du. Monagiloak esku batean kanpai txiki bat eta bestean farola eramaten zituen. Abadea, berriz, komunioarekin joaten zen.

913. Uribarriko galdutako baserriak (ARR-180/047)

Uribarri auzoko ia baserri denak galdu dira. Galdutako baserri batzuen izenak aipatzen ditu. Telleria baserria zen tokian lantegiak daude orain.

914. Hemengo bizimodua nahiago Txinakoa baino (ARR-187/002)

Hemengo bizimodua nahiago du Txinakoa baino. Hemen ditu lagunak. Toki askotako jendea ezagutzen du: euskaldunez gain, marokoarrak, ekuadortarrak...

915. Belaunaldi berriak irekiagoak (ARR-187/003)

Adineko txinatarrak asko egoten dira etxean (horregatik esaten da ez direla integratzen), baina bere adineko gazteak irekiagoak dira.

916. Zaletasuna: musika ekoiztea, lokalean (ARR-187/004)

Zaletasunak. Saskibaloian ibili zen umetan. Lokalean egoten da denbora librean, lagunekin. Tecno eta deep house musika ekoizten egoten dira lokalean.

917. Kotxean batera eta bestera (ARR-187/006)

Tabernetan ibiltzeko ohitura ere badu, lagunekin. Arrasaten, Gasteizen, Bilbon... musika elektronikoa jartzen duten lekutara, batez ere. Kotxean ibiltzea ere gustatzen zaio.

918. Sare sozialetan murgilduta (ARR-187/007)

Sare sozialak asko erabiltzen ditu. Argazkiak igotzen ditu. Snapchat zer den azaltzen du. Gurasoei ez zaie arritza egiten teknologiaren mundua; urte asko daramatzate hemen eta ohituta daude.

919. Asteburuetan lana jatetxean (ARR-187/008)

Jatetxeko lana oso lotua da. Denetik egiten du. Asteburutan libratzea zaila dauka. Astelehena libratzen du. Badaki zer den lo egin gabe lanera joatea.

920. Ostalaritza ikasten ibilia (ARR-187/009)

Bere anaiak Enpresaritza ikasi zuen eta txinerako itzultzaile gisa dabil. Gasteizen Ostalaritza ikasten ibili zen Ding; ondo moldatzen da sukaldean.

921. Skatea zaletasun (ARR-187/011)

Skatea du zaletasun moduan. 10-11 urterekin hasi zen. Skate pista ireki dute kiroldegian.

922. Pelikulak eta musika (ARR-187/012)

"Ocho apellidos vascos" filma gustatu zitzaion. Youtuben ikusten ditu bideoak eta bestela zinemara joaten da. Musika ere jaisten dute Internetetik.

923. Txinan itxiagoak? (ARR-187/013)

Txinako eta hemengo ohiturak alderatzen ditu. Han karaokea egiten dute lagunartean. Txinan itxiagoak direla uste du. Hala ere, Txina asko aldatu da azken urteetan: modernizatu.

924. Lagunekin gaztelaniaz (ARR-187/015)

Gutxi egiten du euskaraz lagunekin, gehiago gaztelaniaz. Lanean eta lagun jakin batzuekin (ikastolako lagunekin) egiten du euskaraz. Arrasateko taberna batzuetan gutxi entzuten da euskaraz.

925. Arrasateko Erdikokaleak izandako izen ezberdinak (ARR-190/002)

Arrasateko Erdikokalian bizi zan. Jaio zenean kalean maisu baten izena zuen eta gerra ostean General Franco kalea deitzera pasatu zen. Bera jaio zen etxea bota egin zuten.

926. Gurasoak Donostian ezagutu ziren (ARR-190/003)

Ama arrasatearra eta aita aretxabaltarra. Aita igeltseroa zen eta ama neskame bezela egon zen lanean Donostian sei urtez. Gurasoak Donostian nola ezagutu ziren kontatzen du.

927. Arrasate gerra aurretik; Merzedarixetara eskolara (ARR-190/004)

Gerra aurretik Arrasate nolakoa zen gutxi gogoratzen du. Amak plazara bidaltzen zituzten jolastera. "Merzedarixetara" joaten zan eskolara gerra aurretik eta San Frantzizkoko elizan izaten zen.

928. Bonbardeaketen babeslekuak Arrasaten (ARR-190/006)

Gerrako oroitzapen gutxi ditu: hegazkin beltzak zerutik pasatzen zirenekoa eta bonbardeaketetan Maixorrena etxeko eta frontoi inguruko babeslekuetan ezkutatu zirenekoa. Babeslekutik ateratzean geratu zen usaiaz ondo gogoratzen da.

929. Aitonaren etxea suntsituta bonbarengatik (ARR-190/007)

Aitonaren etxean bonba bat jausi zen. Gerran beldurrez bizi ziren. Gerra Arrasaten pasa zuten baina egun batzuk baserrian pasa zituela gogoratzen du

930. Purificacion deitzen zioten gerraostean eskolan (ARR-190/008)

Gerraostean gurasoak lanera bueltatu ziren eta bera eskolara, baina dena gazteleraz. Garbiñeri Purificicación deitzen zioten baina berak ez zuen kasorik egiten. Eskolako mojek arratsaldetan ospitalean lan egiten zuten.

931. Gerraosteko elikagaiak (ARR-190/009)

Gerraostean ez zuten goserik pasa baina errazionamendu txartela erabiltzen zuten. Babarrunak eta morokilak jaten zituzten egunero. Gabonetan, Zerrajerak elikagai asko ematen zituen herrian. Sagarrak ez ziren inoiz falta etxean. Sardinak, antxoak eta txitxarroa ere egoten ziren.

932. Telefonikan eta dendan lanean (ARR-190/010)

Hamalau urterekin Telefonican lanean hasi zen, telegramak entregatzen. Telefono deietan lan egiteko bi ahizpa eskatzen zituzten eta berak ez zuen. Aitak gero denda bat zabaldu zuen eta bertan egon zen lanean, hogeitabost urterekin ezkondu zen arte.

933. Umetako jolasak (ARR-190/011)

Umetan, sokasaltoan, gordetzen, sokan, "hanka-koxkoka"... ibiltzen zen jolasean lagunekin. Ez zegoen dirurik.

934. Musika banda eta txistulariak Arrasaten (ARR-190/012)

Musika-banda eta txistulariak egoten ziren garai batean Arrasaten. Aretxabaletako Otsoa danbolin-jotzailea aipatzen du. Herriko plazaren erdian musika-kioskoa zegoen. San Juanetan,

935. Erromeriak inguruko herrietan: Aretxabaleta, Bergara... (ARR-190/013)

Aretxabaletako erromerietara oinez joaten zen eta Bergarakoetara, tren berezian. Trenen ordutegiak aipatzen ditu. Musika piezak nola jotzen zituzten azaltzen du.

936. Emakumeak industrian lanean (ARR-190/015)

Ezagutzen ditu emakume batzuk industrian lan egindakoak baina bere lagunen artean ez. Bulegoan emakumeak egoten ziren eta fabrika batzuetan ere bai, gehienbat alargunak.

937. Trenbideko langileak, lehenengo erdaldunak Arrasaten (ARR-190/016)

Gerra aurretik heldu ziren lehenengo erdaldunak Arrasatera, trenbidea eraikitzeko. Tomatea gordinik jaten ikusten zuten lehenengo aldia izan zen. Etorritako langileen seme-alabek euskara ikasi zuten.

938. Senarraren aita fusilatua eta gerratik bueltan etxerik ez (ARR-190/018)

Garbiñek, senarrari buruz hitz egiten du: Gerra garaian bere aita fusilatu zuten, etxea hustu zieten eta izeba baten baserrian bizitzen egon ziren. Ikasketak egin zituen eta kooperatibista egin zen Union Cerrajeran.

939. Union Cerrajeraren garrantzia Arrasaten (ARR-190/019)

Union Cerrajera zen Arrasateko garaiko lantegirik handiena eta garrantzitsuena. Cerrajerak asko lagundu zuen Arrasaten: prezio merkeagoak janari eta oinetakoetan, ikatza dohainik. Beste lantegi batzuk ere bazeuden: Elma, Artamendi-Berezibar, Altuna...

940. Arrasateko ospitalaren sorrera; mojak erizain (ARR-190/020)

Jose Maria Arizmendiarreta apaizak lagundu zuen Arrasateko ospitalea sortzen. Hasieran, Merced-eko mojek hartu zuten ospitaleko lanen ardura eta bertan bizi ziren. Urteetara, Altamirara lekualdatu ziren.

941. Garai batean, ama etxean eta aita lanean (ARR-190/021)

Garai batean, ama etxean egoten zen haurrak zaintzen. Orain ezberdina dela kontatzen du Garbiñek.

942. Santa Agedako ospitale-psikiatrikoa (ARR-190/022)

Garai batean, ia ez zegoen autorik Arrasaten. Bi pertsona gogoratzen ditu. Santa Agedako ospitale-psikiatrikora jende asko joaten zen eta bisita asko egoten zirenez, herrian kotxea zutenek taxista lanak egiten zituzten. Ospitaleran inguruetan dagoen txaletari buruz hitz egiten du.

943. Aretxabaletatik Soraluzera egunero oinez (ARR-190/024)

Trena Arrasatera XX. mende hasieran heldu zen. Garbiñeren aitaren osaba bat, egunero joaten zen Aretxabaletatik Soraluzera lanera oinez.

944. Inguruko baserritarrak herrian saltzen (ARR-190/026)

Arrasatera, bertako edo inguruko herrietako (Aretxabaleta, Aramaio...) baserritarrak saltzen zituzten produktuak azokan. Trukea egoten zen. Sagarrak eta gaiztainak lapurtzen zituzten maiz.

945. Arrasateko tren geltokiaren itxiera (ARR-190/028)

Autopistak eraiki eta bideak hobetu zirenean, trenak indarra galdu zuen eta Arrasateko geltokia kendu zuten. "La Bergaresa" autobusa zuten eta ez zuen trenaren falta asko sumatu.

946. Bonbardeaketak Arrasaten (ARR-190/031)

Arrasateko kaleetatik erregimenaren kontrakoak ziren emakumeak ateratzen zituzten, ilea moztuta eta errizino-olioa emanda. Behin emakumeak plazan deitu zituzten eta bonba bat bota zuten baina plaza ondoko etxe batean jausi zen. Zaragozan gertatutakoa kontatzen du.

947. Atzerriko soldaduak Arrasaten (ARR-190/033)

Soldadu italiarrak eta alemaniarrak zeuden Arrasaten gerra garaian. Italiarrek jarrera xume bat zuten hiritarrengan baina alemaniarrak harroputz batzuk zirela kontatzen du.

948. Soldadu italiarrei arropak garbitzen zizkieten emakumeek (ARR-190/038)

"Ferixaleku"-ko askan garbitzen zituzten arropak Garbiñek eta bere amak. Arrasaten zeuden beste aska batzuk ere aipatzen ditu. Emakumeak kontu-kontari ibiltzen ziren bertan. Soldadu italiarrak haien arropak garbitzera hurbiltzen ziren baina ez zekiten nola egin eta herriko emakumeek garbitzen zizkieten. Txinbo, "Lagarto" xaboia eta lixiba erabiltzen zuten.

949. Lehenengo irratia, telebista, telefonoa... (ARR-190/040)

Irrati bat zeukan aitonak. Lagunak etxera joaten ziren Londreseko BBC irratsaioa entzutera. Lehenengo telebista, senarra gaixorik egon zenean erosi zuten, Casius Clay boxealaria ikusi nahi zuelako. 28.000 pezeta balio zuen telebistak. Bizilagunen artean beraiek izan zuten lehenengo telebista eta jende asko joaten zitzaien etxera. Telefonorik ez zuten izan beranduarte.

950. Hildakoaren gorpua kanposantura nola eramaten zen (ARR-190/041)

Garai batean, hildakoen gorpuak ez ziren eliza barruan sartzen eta eztalita eramaten zituzten kaletik. Ume zela, herriko gizon baten gorpua bistan eraman zutela kontatzen du. Kanposaturako bidea nolakoa zen azaltzen du. Isilik igotzen ziren.

951. ETAk Arrasaten eraildako hiru guardia zibilak (ARR-190/042)

ETAk Arrasaten hiru guardia zibil hil zituenekoa kontatzen du.

952. Amaren familia Azkoititik Bedoñako Sakristaukora (ARR-191/003)

Sakristauko baserri-etxean jaio zen, Bedoña auzoan. Elizako ardura batzuen kargua hartzeko sortutako etxea da. Amaren familiak hartu zuen etxearen kargu eta Azkoititik Bedoñara joan ziren bizitzera .

953. Aitak lana aldatu zuen, lan-baldintza eskasengatik (ARR-191/004)

Aita okina zen Arrasaten, baina lan-baldintzak ez zirenez onak (adibidez, ez zuen Gizarte Segurantzarik), lana utzi eta "Unión Cerrajera"n hasi zen lanean .

954. Sakristauaren lanak Bedoña auzoan (ARR-191/005)

Sakristau moduan egiten zituzten lanak: ordularia zaindu, ateak zabaldu... Meza egoten zen egunero. Apaiza Bedoñan bertan bizi zen senide batekin eta hark egiten zituen elizako lanetako asko. Handik urte batzuetara, errentero zirenei etxea erosteko eskubidea ematen zien lege bati esker, etxea erosi ahal izan zuten. Ordurako elizako martxa ere gutxituta zegoen eta sakristau lanak egiteari utzi zioten.

955. Bedoña auzotik San Viator eskolara oinez egunero (ARR-191/008)

Arrasaten hasi zen eskolan, San Viatorren, fraideekin. Gaur egun ikastolaren eraikina da. Oinez joaten zen eskolara, beste aukerarik ez zegoen eta.

956. Bedoña auzoaren historia (ARR-191/009)

Bedoña auzoaren historia aspaldikoa da. Erdi Aroan gaztelu bat zegoen, gaur egun eliza dena, eta oraindik ikus daitezke gazteluaren egituraren arrastoak. Aretxabaletako auzoa izan zen 1966 arte, baina gertutasunagatik Arrasaterekin izan du beti harremana: eskolarako, erosketetarako, lanerako... Bedoñatik Aretxabaletara 7 kilometro daude eta dena baso-bidea da.

957. Bedoñan auzotasun handia; auzolana (ARR-191/011)

Bedoña auzoan aberastasun handia egon da, batez ere auzotasunagatik. Aretxabaletan egon arren, harreman gutxi zuten Aretxabaletarekin eta Arrasatek, berriz, ez zien ezer ematen, ez zirelako Arrasatekoak. Hori dela eta, auzolanean egin behar izan zituzten gauza asko, esaterako, Arrasaterako bidea.

958. Bedoña auzoa: administratiboki Aretxabaletatik Arrasatera pasatzeko bidea (ARR-191/012)

Bedoña auzokoek administratiboki Aretxabaletatik Arrasatera pasatzeko zer bide egin behar izan zuten. Urteetako borroka izan zen. Azkenean Madrilera joan behar izan ziren eta ministro-kontseiluaren bitartez lortu zuten Francok aldaketa sinatzea 1966an. Hara iristeko bidean asko lagundu zienetako bat Azkoitiko Udala izan zen. Bedoña auzoa eredu izan dela dio, bizitzea tokatu zaion egoera kaskarrei irtenbidea ematen jakin duelako; nortasun handikoa.

959. Bedoña auzoko etxeetara ura eramateko tramiteak (ARR-191/013)

Auzorako hainbat zerbitzu auzolanari esker lortu zituzten, esaterako baserri guztietara ur edangarria eramatea. Gatzagako Udalari esker jakin zuten Madrilen bazirela diru-laguntza batzuk. Tramite ugari egin behar izan zituzten, besteak beste, auzokoen elkartea sortu. Donostiako Gobernu Zibilean esan zieten Egia auzokoak euren antzera zebiltzala eta haien eredua jarraituz lortu zuten elkartea sortzea eta Madrilgo diru-laguntza jasotzea. Tramiteetarako garrantzitsua da bidelagun onak aurkitzea.

960. Bedoña auzoko baserriak (ARR-191/014)

Garai batean 22 baserri ziren Bedoña auzoan, baina bi galdu dira (bata erreta eta bestea jausita). Ez da baserri berririk egin, baina lehengo 22 baserriak 32 etxebizitza edo familia dira orain.

961. Bedoñako auzo-batzordea (ARR-191/015)

Bedoñako auzo-alkatea da. Ardura guztiak pertsona bakar baten esku egon ez zitezen, lau laguneko batzorde bat sortu zuten. Lau urtetik behin batzordeko kideak aldatzen dira. Batzordeko kideek bilerak egiten dituzte hilero.

962. Bedoñako eskola itxi ostean, umeak kotxeetan eskolara (ARR-191/016)

Garai batean auzoetan eskolak egiteko aukera sortu zen eta Bedoñan ere hainbat urtez izan zuten eskola. Gerora, eskolak bateratzeko lege bat etorri zen eta itxi egin zuten. Hasieran auzo-taxi antzeko zerbitzu bat jarri zuten, baina berehala kendu zuten, eskola nazionaletarako bakarrik zelako, ikastoletarako ez. Ordutik gurasoak antolatzen ziren umeak garraiatzeko. Koskortutakoan ere buelta asko egin behar izan dute seme-alabekin, baina beraien erabakiz bizi direla han azpimarratzen du.

963. Bedoña auzoko jaiak (ARR-191/018)

Abenduaren 10ean ospatzen dituzte Bedoña auzoko jaiak. Santa Eulalia de Merida da auzoko zaindaria. Garai batean elizkizunek zuten indarrik handiena. Egunean bertan izaten zen ospakizuna. Gaur egun ez da erraza ezer antolatzea, "negu-negua" izaten delako eta edozer gauza antolatzeko, babestutako lekuetan izan behar delako. Ospakizuna agian beste data batera aldatu beharko luketela dio.

964. Bedoñako parrokia eta Andramarizuriko ermita (ARR-191/020)

Bedoñako elizak parrokia izaera duenez, auzokoen hiletak bertan egin izan dira beti. Gaur egun gutxitu egin dira elizkizunak, ezkontza eta bataio gutxiago dagoelako. Bedoña erdigunetik aparte samar Andramarizuri baserriaren ondoan ermita bat dago, inguruetako zaharrenetakoa. Lehortea zegoenean, hara oinez joan eta hango amabirjina ekartzen zen Bedoñara, errezoak egin eta euria eskatzeko.

965. Bedoñako parrokiako erlojuaren makinaria (ARR-191/022)

Bedoñako parrokiako erlojuaren makinaria ondare bat zela dio, Arrasaten eskuz egina baitzen. Pot egin zuenean, makinaria elektronikoa jarri zen.

Kanpai-mota batzuk ere bertan txertatu zituzten eta aukera zuten kanpaiak programatzeko edo eskuz jotzeko, botoi bati emanda. Gaur egun auzokoen whatsapp taldearen bitartez pasatzen dituzte abisuak.

966. ´Loramendi´ poeta Bedoñan jaioa; haren omenezko plaka (ARR-191/024)

`Loramendi´ poeta Bedoñan jaio zen. Fraide sartu zen. Hasieran gaztelaniaz idatzi arren, gero euskaltzale amorratua izan zen eta euskaraz idatzi zuen. Bere lan gutxi daude, gazterik hil zelako. Bedoñan omenaldia egin zioten, hil aurretik irabazitako sariengatik, eta plaka bat jarri zuten haren omenez. Gerra sasoian plaka hori apurtu nahi izan zuten, erdian lauburu bat zuelako. Auzotarrek plaka bere lekutik kendu eta Aretxabaletara eraman zuten babeslekuren batera. Urte luzez desagertuta egon ostean, plaka berreskuratu zuten eta, 37 urteren ostean, berriz jartzea lortu zuten.

967. `Loramendi´ri bere jaiotetxean egindako omenaldia (ARR-191/025)

Artean `Loramendi´ poetaren ama bizi zela, hainbat euskaltzalek omenaldia egin zion bere jaiotetxean. Jende asko bildu zen, tartean jende ezaguna, esaterako, Bitoriano Gandiaga. Omenaldi haren inguruko kontuak. Handik urte batzuetara erabaki zen garai batean `Loramendi´ren omenez jarritako plaka berreskuratu beharra zegoela eta hainbat euskaltzale aritu ziren lanean hori.

968. Aretxabaletaren lotura `Loramendi´rekin (ARR-191/026)

Gaur egun ez da egiten `Loramendi´ren omenezko ekitaldirik. Aretxabaletan haren omenezko plakaren erreplika dago kalean ipinita eta izen hori daraman Kultur Elkartea ere badago. Garai batean Bedoña Aretxabaletakoa zenez, Aretxabaletak beti izan du `Loramendi´ren inguruko interes handiagoa Arrasatek baino.

969. Bedoña auzoaren inguruko liburua (ARR-191/030)

Gaztetan ez zuen izan aukerarik gauza asko bizitzeko eta gerora piztu zaio hainbat kontu jakiteko interesa. Bedoña auzoaren inguruko informazioa biltzen ibili da, dena liburu batean jasota uzteko. Bedoñako auzotasuna. Mutikotako oroitzapenak. Igande arratsaldeetan bezperak egoten ziren. Auzoko gizonezkoek bilera modukoa egiten zuten eta han erabakitzen ziren kontu garrantzitsu asko.

970. Bedoñako aztarna erromanikoen inguruko liburua (ARR-191/031)

Bedoñako aztarna erromanikoen inguruko liburuxka bat prestatu du. Bedoñan ez da egon eraikin erromanikorik. Hipotesi batek dio Arabako herrixkaren batetik etorriak direla bertako aztarnak, agian Bedoñako parrokiaren eta hainbat baserriren jabe zen Gebarako kondearen bitartez. Bedoñan aurkitu daitezkeen aztarna erromanikoak zeintzuk diren eta horien inguruko hipotesiak azaltzen ditu. Erakusketa bat ere prestatu dute.

971. Bedoña auzoko ondarearen berri emateko interesa (ARR-191/034)

Behin parrokoak ezin zuela eta bera joan zen Bedoña auzoko bisita gidatu batera, elizako atea zabaltzera. Orduan konturatu zen bisitetan okerreko

informazioa ematen zela, esaterako eraikin erromanikoak egon zirela auzoan. Horregatik hasi zen informazioa biltzen eta prestatzen, jendeari auzoko ondarearen berri emateko. Ezkutuan dagoen ondarea erakutsi ahal izateko, panelak jarri dituzte.

972. Bedoñako aztarna erromanikoen inguruko ikerketak (ARR-191/035)

Hainbat historialari ibili dira Bedoñako aztarna erromanikoak ikertzen. Inguruetan egon zen eliza erromaniko bakarra Aretxabaletan zegoen San Migel de Bedarreta zen. Gaur egun hilerria dago eliza hura zegoen lekuan eta hilerriko sarrera erromanikoa da. Pentsa zitekeen harriak handik eraman zirela Bedoñara, baina ikerketek ezetz diote. Harrigarria da harriak Arabatik ekarri izana, baina hori dio hipotesi nagusiak.

973. Bedoñako Etxebarri baserrian jaioa (ARR-192/002)

Bedoñako Etxebarri baserrian jaio zen. Garai batean 21 bat etxe zeuden. Zortzi anai-arreba dira.

974. Kaleko lehengusuak baserrira jatera, gosea zutelako (ARR-192/003)

Urtebete zuen gerra hasi zenean baina zerbait gogoratzen du. Etxean, umeei ez zieten ezer kontatzen eta zerbait entzun ezkero ixilik egoteko esaten zieten. Beldurra zen nagusi. Aretxabaletako lehengusuak beraien baserrira joaten ziren askaltzera, gosea zutelako. Aiton-amonei buruz hitz egiten du

975. Gerra garaian, patatak egunero (ARR-192/004)

Aretxabaletan bizi ziren lehengusuak egunero igotzen ziren baserrira, gosea zutelako. Egunero patatak afaltzen zituzten, era ezberdinetan eginak. Garia, errekisatu egiten zen eta militarrek eraman egiten zuten.

976. Abadea neskatilak ikutzen (ARR-192/005)

Bedoñako elizan ibili zen eskolan eta abadea zein maisua. Abadeak neskatilak asko ikutzen zituela kontatzen du. Etxean ez zuten ezer kontatzen.

977. Bergaran neskame (ARR-192/006)

Hamabost urterekin Bedoña utzi eta Bergarara joan zen neskame bezala lan egitera. Etxeko andreak erakutsi zion lan guztia eta oso oroitzapenak onak ditu. Gerora, semearekin tratua mantendu du.

978. Neskame zeneko kontuak: lanak, soldata, uniformea... (ARR-192/008)

Neskame egon zenean, etxeko semearekin tratu oso ona egin zuen. Etxeko lan guztiak egiten zituen. Etxebizitza, erropa, jana... ematen zioten baina soldata baxua zen. Uniformea jazten zuten neskameek eta zerbitzatzen zuten etxeetan bizi ziren.

979. 50eko hamarkada, garai tristeak (ARR-192/009)

Umetasun eta gaztaro tristeak gogoratzen ditu Irenek. Garaia tristea zen eta beti beldurraren zeuden.

980. Gaztetan familiartean hika; gaur egun zuka (ARR-192/011)

Abadeari berorika, neskame egondako familiakoei zuka eta anai-arreben artean gaztetan beti hika. Gurasoek hika egiten zieten eta haiek gurasoei zuka. Hika hitz egiteko ohitura galdu egin da.

981. Santa Eulaliako jaiak Bedoñan (ARR-192/012)

Bedoñako jaiak abenduaren 10ean dira, Santa Eulaliak. Gehienetan euria egiten zuela gogoratzen du. Baserrian familiarteko asko biltzen ziren bazkaltzeko. Zer jaten zuten. Bere amak oso paella goxoa prestatzen zuen.

982. Baserrian ez zuten goserik pasatu (ARR-192/013)

Garai batean, berdina bazkaltzen eta afaltzen zuten egunero: Babak, patatak eta esnea. Igandero, ontza erdi txokolate. Baserrian bizi zirenez ez zuten goserik pasa.

983. Jenero gutxi gerraostean (ARR-192/014)

Baserrian ez zuten goserik pasa baina beste jende askok bai. Dirurik ez zegoen baina jenero gutxi zegoen ere. Istorio bat kontatzen du.

984. Koartelean janariak elkar-trukatzen (ARR-192/015)

Arroza, garbantzuak, azukrea... dendan topatzea ez zen erreza. Amak, guardia zibilaren koartelean esnea banatzen zuen eta han zegoen emakumearekin trukea egiten zuen: baserriko produktuak errekisatutako gauzengatik (arroza, azukrea...). Marmitan ezkutatzen zituzten elikagaiak.

985. Bedoñatik abarketan jeitsi eta herrian zapatak jantzi (ARR-192/017)

Bedoñatik Arrasatera abarkekin jeisten ziren eta gero zapatak janzten zituzten. Hamahiru bat urterekin, Bedoñako 3-4 lagunekin igandero jeisten ziren herrira, buelta bat ematera.

986. Arrasateko Rere ostatuan lanean (ARR-192/018)

Arrasateko Rere ostatuan lanean egon zen. Taberna eta ostatua zen. Gela batzuk zeuden. Nagusiarekin izandako tirabira bat kontatzen du, enpresa batzuetako ordezkariek uzten zieten eskupekoa nagusiak gordetzen zuelako. Nagusiak ukatu egin zien eta eguerdian lana utzi zuten, taberna bakarrik utzita. Handik, Bergarako beste familia batera joan zen neskame bezala lanera. .

987. Neskame zenean, Gabonak lanean (ARR-192/021)

Gabonetan turroi eta mazapana jaten zuten. Neskame egon zenean ez zen etxera bueltatzen, familiekin ospatzen zuen. Neskame bezala ez zuen inoiz goserik pasatu baina badaki batzuek gosea pasatu zutela.

988. Neskame zegoen familiarekin, Debara udan (ARR-192/023)

Bergaran Camacho familiarekin neskame zenean, udak Deban pasatzen zituzten eta beste neskame batzuk ere bazeuden. Haietaz hitz egiten du.

989. Arrasateko ReRe taberna, ekonomatoa... (ARR-192/025)

Arrasateko Rere taberna eta Zerrajerako ekonomatoa non zeuden.

990. "Pobreak bai, baina tontuak ez!" (ARR-192/027)

Eskolara joateko aukerarik ez zuen izan eta batzuetan sentitu du beste batzuek ergektzat hartu dutela. "Pobreak bai, baina tontuak" ez zirela esaten du Irenek. Abadearekin ez zuen askorik ikasi.

991. Umetako jolasak eta bihurrikeriak (ARR-192/028)

Umetako jolasei buruz hitz egiten du. Harri-koxkoka jolasten zuten platertxo apurtuekin. Bihurrikeri bat kontatzen du. Sokasaltoka, gorde-gordeka...ibiltzen ziren, denak batera, neska eta mutil.

992. Errege eguneko opariak (ARR-192/029)

Errege egunean jasotzen zituzten opariez hitz egiten du. Behin, bere ahizpa txikiari panpin bat oparitu zioten eta anai batek apurtu egin zion aurpegia panpinari. Goxokiak, mazapanak, egurrezko jostailuak izaten zituzten opari bezala.

993. Etxeko giroa: tristezia eta beldurra (ARR-192/030)

Umetan, etxean beldurra nabaria zen. Beti ixilik mantentzeko esaten zieten gurasoek, guardia zibila azkar joaten zelako. Guardia zibila auzoko batzuen bila joana zen eta inoiz ez zituzten gehiago ikusten. Giroa tristea zen.

994. Koronabirusaren pandemia (ARR-192/031)

Koronabirusaren pandemiari buruz hitz egiten du eta arma gabeko gerra bat dela uste du Irenek.

995. Bedoñako Artiaga baserria (ARR-193/002)

Artia baserrian jaioa. Tomasen aitak 11 anai-arreba zituen eta denak bizi ziren baserrian, haien senar-emazte eta seme-alabekin. Jende asko bizi ziren baserrian. Artia baserriaren historia.

996. Baserriaren ekoizpena: animaliak, baratzea, esnea, ogia... (ARR-193/003)

Baserrian ardiak eta behiak zituzten. Baratzean artoa, garia eta arbia ekoizten ziren, besteak beste. Ekoizten zutena jaten zuten. Txahala eta esnea saltzen zuten. Astoarekin jaisten ziren Arrasatera esnea saltzera.

997. Oiloak libre (ARR-193/004)

Oiloak libre izaten zituzten barraskiloak soroetatik urruntzeko. Gaur egun ekologikotzat jotzen den ekoizpena, lehen normaltzat hartzen zen.

998. Umetan jolasean (ARR-193/005)

Umetan zoriontsu izan da. Lau anai dira eta beti jolasean zeuden. Berunezko auto txikiekin jolasteko pistak egiten zituzten. Tiragomekin ibiltzen ziren ere. Ehiza behar bat zen.

999. Bideak pikatxoiekin egiten (ARR-193/006)

Aitak lehenengo autoa nola erosi zuen. Arrasatetik Bedoñara joateko bidea zegoen, baina baserrira heltzeko ez. Gero egin zituzten auzolanez baserrirako bideak. Basoko pixka bat egiten galiziarrak eta kantabriarrak ibiltzen ziren eta askotan janariarengatik lan egiten zuten.

1.000. Gurdientzat gomazko gurpilak Gasteiztik ekarriak (ARR-193/007)

Gurdientzat gomazko gurpilak Bedoñara nola heldu ziren. Gasteizera joan ziren haien bila. Hasieran gurpilekin ez ziren konpontzen baina azkenean lortu zuten gurpilekin ondo lan egitea.

1.001. Arabara animalientzat bazka bila (ARR-193/009)

Arrasatetik Gasteizera trena egon arren, haiek ez ziren asko joaten. Autoa erosi zutenean bai, animalientzat bazka bila joaten ziren gehienbat. Bergarara ordea, trenean joaten ziren jaietan.

1.002. Bedoñako auzo-eskola (ARR-193/010)

Garai batean, Bedoñan eskolak apaizak ematen zituen. Dotrina bakarrik erakusten zen. Tomas bertan urtebete ibili zen baina abadez aldatu eta honek eskola ematen ez zutenez, auzoan eskola eraiki zuten. Euskaraz hitz egitea debekatuta egon arren, Bedoñan ez zituzten haurrak zigortzen.

1.003. Baserritarrak izateagatik mespretxua eta bullyng-a (ARR-193/011)

Arrasatera ikastera joan zenean anaiarekin, mespretxu asko jaso zuten, gaztelaniaz ez zekitelako eta baserritarrak zirelako. Katalunian bizi izan zen izeba batek erakutsi zizkien matematikak eta gaztelaniaz idazten eta irakurtzen. San Viatorrera ikastera joan zireneko lehenengo eguna gogoratzen du.

1.004. Medikuaren eta notarioaren semeen laguntza, eskolan integratzeko (ARR-193/012)

San Viatorreko eskolan, orduko medikuen bi seme eta notarioaren beste batek babespean hartu zituzten Tomas eta bere anaia. Haien laguntzaz klaseak jarraitu ahal izan zituzten. Gaztelaniaz hitz egitea derrigorrezkoa zen eta gainera modan zegoen.

1.005. Lana Kooperatibaren sorrera eta garapena (ARR-193/014)

Lana Kooperatibako sortzaileetako bat izan zen Tomasen aita. Kooperatibaren sorrera, garapena, bazkideak, langileak, ekoizleak, konpetentzia...

1.006. Gehienbat barazkiak jaten zituzten baserrian (ARR-193/016)

Baserrian, beste ezer baino gehiago barazkia jaten zen. Plazan barazkiak saltzen zituzten eta bueltan etxera zihoan dena jaten zuten. Amak haragia eta arraina erosten zituen herrian. Urtean txerri bat hiltzen zuten baserrian.

1.007. Garai batean, baserrietan urdaiazpiko ondua egiten zen (ARR-193/018)

Txerria hiltzen zutenean, etxeko anai-arreben artean banatzen zuten haragi guztia. Hasieran urdaiazpikoa egiten zen baserrietan baina klima aldatu egin zen eta hezetasun gehiago zegoenez, ez zen ondo ontzen.

1.008. Jaietako menua, oilaskoa, zainzuriak eta "kesokemaua" (ARR-193/019)

Egun berezietan eta jaietan oilaskoa jaten zen. Bedoñako jaietan familia osoa elkartzen ziren. Zainzuriak jaietan bakarrik jaten zituzten. Legatza. Arrasateko denda batzuetan saltzen zen. Azkenburuko bezala, "kesokemaua", flana jaten zuten.

1.009. Arrasaten arbigara jaten da (ARR-193/020)

Gabonetan, osaba batek angulak eramaten zituen. Arbigarak Arrasaten eta Aretxabaletan jaten dira. Garai batean ez zegoen pastelik eta Maria galletak jaten zituzten.

1.010. Bedoñako baserrien argia pribatua zen; ur-depositua (ARR-193/021)

Garai batean, baserrira heltzen zen argia pribatua zen, auzotarrena. Hilabetero faktura pasa eta umeak baserriz baserri joaten ziren bakoitzak kontsumitutakoa kobratzeko. Ura, depositu batetik lortzen zuten. Ura sukaldeko ekonomikan berotzen zuten. Komunik ez.

1.011. Baserriko lehenengo dutxa eta garbigailua (ARR-193/022)

Baserrian lehenengo dutxa jarri zenean, urak ez zuen presiorik. Ur hotzarekin dutxatzen ziren. Arropak harrian garbitzen zituzten. Lehenengo garbigailua baserrian.

1.012. Gerrari buruz ez zen hiitz egiten (ARR-193/025)

Gurasoek ez zuten gerrari buruz hitz egiten semeekin. Errepresio gogorra jaso zuten eta seme-alabei mesede egiteagatik ez zuten ezer kontatzen.

1.013. Larragainera bala-zorroen bila (ARR-193/026)

Larragainen gerrako trintxerak egon ziren eta auzoko lagun nagusiagoekin joaten ziren bala-zorroen bila. Etxean debekaturik zeukaten hara joatea, jakina zelako hainbat soldadu bertan zeudelako lurperatuta.

1.014. Euskaraz egiteagatik zigortuak (ARR-193/027)

Frankismoan, hizkuntzaren gaineko menpekotasuna. Euskal folklorea gaztelaniara itzultzen zen. Euskaraz hitz egiteagatik eskolan jasan dituen zigorrak. "Rubio" koadernoekin gaztelaniaz ikasten.

1.015. Umetako jolasak: kanikak, toketorreka, hanka-koxkoka, "kantineritas"... (ARR-193/029)

Ume garaian, neguan elizpean jolasten zuten. Kaniketara, hanka-koxkoka, taketorreka (zapiaren jokoa), kui-kuike (gordeketetan)... "Aemaittekue" bederatziretan izaten zen, Ave Mariaren orduan. Bilbotik auzora oporretan

joaten ziren ume batzuk zeuden eta haiekin gaztelaniaz egiten zuten askotan. Haiekin, "kantineritas"-era jolasten zuten.

1.016. Malbe-ren baserrian jolasean (ARR-193/030)

Malbe-ri buruz. Bere baserrira joaten ziren jolastera eta Malbe zirikatzera.

1.017. Errekan bainatzen eta amuarrain eta karramarroak harrapatzen (ARR-193/031)

Errekara joaten ziren bainua hartzera, neska eta mutilak. Ez zekiten igerian. Amuarrainak eta karramarroak harrapatzen zituzten. Amuarrainak eskuekin nola hartzen diren. Behin sugea ukitu zuen ta geroztik ez da amuarrainak hartzera joan.

1.018. Bedoñako jaiak eta soinu-jotzaileak (ARR-193/032)

Bedoñako jaiak abenduan dira, Santa Eulalian. Errastiko tabernako kortan erromeriak egiten ziren. Hasieran soinu-jotzaileak joaten ziren eta gero trikitilariak: Sarkoitxua, Gardoki, Egañazpi eta Sakabi, Laja eta Landakanda, Laja eta Iturbide...

1.019. Dantza lotuan distantziak markatzeko erak (ARR-193/033)

Gaztetan, lotuta dantzan egiten zuten. Ligatzeko oso aproposa zen, bikoteak sentimenduak dituzten edo ez jakiteko. Neskek dantza lotuan distantziak nola markatzen zituzten.

1.020. Arrasaten ez zegoen ligatzerik (ARR-193/034)

Baserritik abarkak jantzita jaisten ziren kalera eta gaur egun Etxaluze zahar-etxea dagoen lekuan zegoen labaderoan abarkak utzi eta zapatak janzten zituzten. Kaleko neskek ez zuten baserritarrekin elkartu nahi. Azkenean, Oñatin ezagutu zuen emaztea.

1.021. Oñatira neska-lagun bila (ARR-193/035)

Oñatira joaten hasi ziren bakeroen filmak ikustera eta han ezagutu zuen emaztea. Arrasate inguruko herri askotako jendea ezkondu zen Oñatiko jendearekin.

1.022. Cerrajeratik atera ziren tailerrak (ARR-193/036)

Boom industrialak, behar berriak sortu zituen, produktu berriak sortzen zirelako. Garbigailuak, berogailuak, sukalde berriak... Cerrajerari buruz eta bertatik atera ziren hiru adar nagusiak.

1.023. Kooperatiben hazkundea (ARR-193/037)

Kooperatibaren filosofia, ezaugarriak eta hazkundea. Kooperatiba erakargarriagoa zen ikuspegi ezberdinetatik.

1.024. Cerrajera eta Gelmako langilegoaren borroka (ARR-193/038)

Cerrajerak eta Gelmak langile-mugimendu handia izaten zuten. Asko borrokatu zuten langileen baldintzak hobetzeko eta gero, gainerako enpresetara zabaltzen ziren hobekuntzak, baita kooperatibara ere. Kooperatiba eta gainerako enpresen hazkundearen arteko ezberdintasunak.

1.025. Boom industrialaren ondorioz, etxebizitza altuak eraiki ziren (ARR-193/039)

Boom industrialaren ondorioz immigrazio asko jaso zuen Arrasatek. San Andres auzoa garai batean nolakoa zen. Etxebizitza berriak alturan eraiki ziren. Lantegiek lursail handiak behar zituzten.

1.026. Industria hazkundeak behar berriak sortu zituen (ARR-193/040)

Industria hazkundeak behar berriak sortu zituen etxe guztietan: garbigailuak, berogailuak, hozkailuak, autoak... Gaur egun denetik dago.

1.027. Ilargira lehen bidaia, Teruelen filmatua (ARR-193/041)

Ilargira lehen bidaia, Teruelen filmatua izan zela esaten zuen auzoko batek.

1.028. Internet eta gazteak: pornoa, armak... (ARR-193/043)

Gaur egungo gazteek interneten gauza larregi ikusten dituzte. Haiek gaztetan nolakoak ziren.

1.029. Auzo ezberdinen arteko pikeak (ARR-193/044)

Auzo eta herri ezberdinen arteko gazteen arteko pikeak, gehienbat nesken kontura izaten ziren. Hala ere, errespetuz bizi izan dira.

1.030. Bedoñan bizitzea zer den; kostu ekonomikoa (ARR-193/046)

Bedoñan bizitzea ohitura bat da. Kalean edo baserrian bizitzearen ezberdintasunak. Baserrian bizitzearen kostu ekonomikoa: hobekuntzak, teilatua, lanak, garraioa... Garai batean pinuak saltzean baserrian hobekuntzak egin ziren baina gaur egun egoera ezberdina da.

1.031. Bertso-txapelketaren egungo kontzeptua oso berria da (ARR-194/007)

Emakume eta gizonezko bertsolariak, plazan aldi berean agertu ziren arren, emakumeak gero plazatik desagertu egin ziren. Gaur egun ezagutzen dugun bertso-txapelketa kontzeptua, nahiko berria da. Aurretik, jendeak bertsotan egiten zuen.

1.032. Bertsotan egitea eta bertsolari izatea ezberdina da (ARR-194/008)

Bertsotan egitea eta bertsolari izatea ezberdina da. XV. mendetik jendeak bertsotan egiten zuela dokumentatuta dago, baina ez bertsolari kontzeptu gisa.

1.033. Emakumeek beti egin dute bertsotan (ARR-194/010)

Emakumeek beti egin dute bertsotan. Plazan bertsotan egitea oso kontzeptu labainkorra dela azaltzen du. XIX. mendean emakumeak eta gizonezkoak plazan aurrez aurre bertsotan ibiltzen ziren baina gero emakumeen presentzia desagertu egin zen. Garai batean, plazetan baino beste espazio batzuetan egiten zen bertsotan. Txapelketaren kontzeptua oso berria da.

1.034. Eresiak, hiletetako bertsoak (ARR-194/011)

Bertsotan egitea kantatzearekin eta inprobisatzearekin lotzen bada, XV. mendeko dokumentu baten arabera (Esteban Garibaik jasotakoa), Sancha Ozaetaren bertsoa jasota dago, orduak "eresiak" deitzen zirenak. Milia Lasturrekoaren eresia ere jasotzen du Garibaik. Familia oneko familien eresiak jaso bazituen ere, familia guztietan egiten zen, baita enkarguz ere.

1.035. Eresien debekua; eresiak artelanetan irudikatuta (ARR-194/012)

Emakumeek ziren eresiak kantatzen zituztenak. Eresiak oso kritikoak eta dramatikoak izategatik debekatu ziren arren, kantatzen jarraitzen ziren. XIII. mendeko artelanetan eresiak irudikatuta agertzen dira.

1.036. Esteban Garibai arrasatearra (ARR-194/014)

Esteban Garibai,1533an jaio eta 1599an hil zen. Etxean entzundako kontuak liburuetan jaso zituen, batez ere amonari kantatzen entzundakoak. Sancha Ozaeta eta Milia Lasturkoren eresiak, bandoen arteko liskarretan gertatutakoak kontatzen dituzten kantak.. jaso zituen.

1.037. "Profasadak" edo emakume bazter-endredatzaileak (ARR-194/015)

Bizkaiko Foru Zaharrean, "profasada" hitza azaltzen da irainak edo gaizki-esakak definitzeko. Foru berrian aldiz, profasada hitza bazter-endredatzaile bezala ulertzen da eta emakumearen irudiari lotuta dago. Emakume asko epaitu zituzten, herriko pertsona garrantzitsuen inguruko bertsoak atera eta haietaz barre egiten zutelako.

1.038. Profasaden epaiketak (ARR-194/016)

Profasadak analfabetoak ziren baina hizkuntzarekin jolasteko abilezia handia zuten. Ehungileak, jostunak, sukaldariak... izaten ziren eta haien izenak gaur egun ezagutzen diren, epaituak izan zirelako. Kartzelan egondakoak ere badaude.

1.039. Profasadak bertsotan ibiltzen ziren (ARR-194/017)

Profasaden bertso batzuk iritsi dira gaur eguneraino, nahiz eta ez dauden ondo transkribatuta. Auzitara eramandako hainbat emakumeren izenak eta urteak aipatzen ditu. Auzi bateko dokumentuetako batean, neska hauek bertsoak egiten zituztela eta hauek familiaren irudiarengan egiten zuten kalteaz hitz egiten da.

1.040. Garai batean hizkuntzaren asko jolasten zen (ARR-194/019)

Emakumea beti ibili da bertsotan, kantuan, inprobisatzen, hitzekin jolastu du... Garai batean elebakarrak eta eskolarik gabekoak ziren, beste hizkera mota batzuk erabiltzen zituzten eta oso hizkera freskoa zuten.

1.041. Bertsopaperen sorrera (ARR-194/021)

Bertsopaperen sorrera, Gabonekin lotuta dago. Jendeak kantak sortzen zituen, inprentara eraman eta gero elizan abesten ziren. Kinkileroek saltzen zituzten herriz-herri eta Europatik zabaldua zegoen fenomenoa zen. Egileetako bat Bizenta Mogel izan zen baina beste asko anonimoak dira.

1.042. Bertsotan egitea ohikoa zen neska eta mutilen artean (ARR-194/022)

Garai batean oso ohikoa zen neskek zein mutilek bertsotan egitea. Jolas bat moduan zen, ondo pasatzekoa eta elkar zirikatzekoa.

1.043. Bertsopaperak kontsumo objektu bat bihurtu ziren (ARR-194/023)

Azoketan bertsopaperak agertzen hasi ziren, baita bertsolari handien artean ere. Segurako gizon bat Kubako gerratik itsu bueltatu eta lanik ezin zuenez egin, bere emaztearekin bertsopaperak sortu eta meza ostean nola kantatu eta paperak saltzen zituzten kontatzen du. Bertsopaperak kontsumo objetu bihurtu ziren Euskal Herrian.

1.044. Bertsopaperak emakumeek ere idazten zituzten (ARR-194/024)

Bertsopaperak idazten emakumeak ere bazeuden. Segurako itsuaren eta Jean Etxepareren adibideak jartzen ditu. Emakumeak sinatutako bertsopaperak ere badaude, baina normalean gizonezkoak izaten ziren, emakumeei iraina egiteko.

1.045. Emakumea bertsotan aritzea guztiz ohikoa zen (ARR-194/025)

Emakumeek bertsotan sano egiten zuten eta ohikoa zen, ez zegoen gaizki ikusita. Desafioetan ere aritzen ziren. Desafio hauek umorean oinarritzen ziren gehienbat eta asko bertsopaperei esker heldu dira gaur egunera.

1.046. Lehenengo Lore Jokoak eta bertsolaritza (ARR-194/027)

Lehenengo lore jokoak 1851an antolatu zituen Anton Abadiak Ipar Euskal Herrian. Bertsopaperen lehiaketako irabazleetako bat Uthurralt (Marieder) izan zen eta denak gizon-emakumeak elkarrekin aurkezten ziren, ez banatuta. Bertso onenak baloratzeko irizpideak Lore Jokoetan sortu ziren.

1.047. XX. mendeko emakume bertsolarien kontrako lehen aipamenak (ARR-194/028)

Bertsotan egiten zuten emakume asko zeuden arren, haien izenak ez dira mantendu. Bilintxek bertsotan bere pareko zuen Hondarribiko neska bat aipatzen du: Joxepa. Lore Jokoetan garaile irten ziren emakumeen izenak (Osorio, Etxebarri...) heldu dira gaur egunera, kronikak idazten zirelako. Kronika horietako batean "sexu ahuleko"ak irabazi zuela aipatzen da eta hor aldaketa bat ematen hasi zela uste du Anabelek.

1.048. Rosario Artolaren bertsoak aldizkarietan (ARR-194/030)

Rosario Artolak aldizkarietan argitaratzen zituen bere bertsoak. Aldizkari hauek ez ziren bakarrik Euskal Herrian editatzen, baita diasporan ere. Rosariok gitarra ere jotzen zuen. Emakumeak askotan egoten ziren haien senarrekin batera kantatzen, gitarra jotzen, bertsopaperak saltzen...

1.049. Señoritak eta neskameak formatzea zen sistemaren helburua (ARR-194/032)

XIX. mendeko testuinguruko (karlistadak, industrializazioa, baserritik kalera lanera joatea...) balore politiko eta moralisten arabera, hezkuntza sistema nazionala sortu zen, non mutilei eta neskei irakasgai ezberdinak irakasteaz gain, sexuaren araberako rolak erakusten zizkieten. Emakumeak etxeko-andre formal eta moralak izateko formatuak ziren, gehiegi hitz egingo ez zutenak. Señoritak (aberatsen artean) eta neskameak (pobreen artean) formatzea zen sistemaren helburua. Ez zegoen lekurik nesken artean elkartzea kantatzeko, bromak egiteko, bertsotan egiteko...

1.050. Irain berrien aroa: sardinerak, baserritarrak... (ARR-194/033)

Emakumeek formalak izan behar zutela adierazten zuten abestiak sortu ziren. "Desde Santurce a Bilbao" kantan, "sardinerak" hitza irain bezala erabiltzen da eta hauek ziren kantatzen ibiltzen ziren emakumeak. Baserritarrak ere mespretxagarri bihurtu ziren kaletarrentzat.

1.051. Bertsolarien fama txarra (ARR-194/034)

Eliteak bertsolariaren fama txarra zabaldu zuen: mozkor fama, arlotea, baserritarra... Baina bertsoek publikoa zutenez, gizonek beraien espazioak bilatu zituzten (sagardotegietan adibidez) eta onartuagoak ziren emakumeak baino.

1.052. Joxepa Zubeldiaren bertsoak (ARR-194/035)

Joxepa Zubeldia Madrilera joan zen neskame bezala. Ezkondu eta seme-alabak izan ondoren, senarra gaixotu eta Hernanira itzuli ziren denak. Denda bat zabaldu zuen. Kantuak, poesiak eta bertsoak idatzi eta botatzen zituen normaltasun osoz. Gaur egun, garai hartan gertatutako baztanga epidemia baten berri daukagu, Joxeparen bertso batzuei esker. Hala ere, Joxeparen alabak eta bere lagunek, Joxeparen koaderno asko erre zituzten, garaiko morala jarraitzen ez zutelako. Ezberdin hezitako garai berdineko bi emakumeren ikuspegiak dira.

1.053. Mundu tradizionalaren amaierako emakume bertsolariak (ARR-194/036)

Mundu tradizionalaren amaierako urteetan, bertsotan ibiltzen ziren emakume batzuen izenak geratu dira: Joxepa Antonia Aranberri (Xenpelarren iloba), Mikela eta Joxepa Inazi Elizegi, Mikela Inazia Gaztelu... Oso giro euskalduneko familiako emakumeak dira, batzuk bertsolarien familiakoak, tradizionalak...

1.054. Bertsoa, baserritarren kontua (ARR-194/037)

Bertsolari gizonezko asko famatuak egin ziren, haien bertsoen bertsopaperak banatzen zirelako. Ez zegoen ohiturarik bertsoak jasotzeko eta gehienak galdu egin dira. Bertsoak jasotzen hasi zen lehena Antonio Zabala izan zen. Bertsoei ez zitzaien garrantzirik ematen, baserritarren kontua zelako

1.055. Bertso eskolei esker emakumeak oholtzara igo dira berriz (ARR-194/038)

80. hamarkadatik aurrera eta bertso eskolen bidez, emakumearen presentzia handitu zen bertsolaritzan. Cristina Mardaras, Arantzazu Loidi... izan ziren

lehenengo emakumeak eta kritikak ere jaso zituzten, nahiz eta berehala isildu ziren.

1.056. Emakumeen presentzia bertsolaritzan beti egon da (ARR-194/039)

Zorionez bertsolaritzan emakumeak normaltasunez ikusten dira gaur egun. Emakumeen historia bertsolaritzan ez da lineala izan baina beti hor egon da, batzuetan bistarago eta besteetan ezkutuago.

1.057. 1945-1960 garaiko emakume bertsolariak (ARR-195/002)

1945-1960 garaiko bertsolari emakume batzuk aipatzen ditu. Lucia Goñi, Treku... giro oso euskaldunetako emakumeak ziren. Oso gutxitan agertzen ziren bertsotan jendaurrean. Baserri-giroan mugitzen ziren.

1.058. XX. mende hasieran, Arrasate guztiz euskalduna (ARR-195/004)

Arrasate oso euskalduna zen XX. mende hasieran. Industriarekin eta erregimenarekin herria asko erdaldu zen eta, batez ere baserritarrengatik mantendu zen euskara. Eskolek, euskara baztertzen lan bikaina egin zuten.

1.059. Maria Estibaliz de Sasiola idazle Debarra (ARR-195/006)

Maria Estibaliz de Sasiola idazle Debarrari buruz. Poesia idazten zuen eta Larreako haurren idatzietan agertu ziren.

1.060. Euskara hiztun pertsona kultuak (ARR-195/009)

Kultuak eta jakintsuak beste batzuk direla pentsatzen dugu beti. Zergatik ez Euskal Herria? Giroa kultua zen, baina ez zaio garrantzirik eman.

1.061. Dokumentu ofizialak gaztelaniaz, baina pregoiak euskaraz (ARR-195/010)

Euskara nagusi bazen ere aspalditik, poliki-poliki kargudun pertsona bat izateko gaztelania jakitea derrigortzen hasi zen. Arrasaten, adibidez, 1409ko ordenantzak gaztelaniaz zeuden baina pregoiak euskaraz egin behar zirela jasota dago, herritarrek ulertu ahal izateko. Jende gehiena elebakarra zen eta oso gutxi ziren elebidunak.

1.062. Bizenta Mogel idazlea (ARR-195/011)

Bizenta Mogel idazlea. Bere familian denak idazleak ziren eta itzultzaile lanak ere egin zituen. Gabon kantak eta Fernando VII. aren aldeko bertsoak idatzi zituen.

1.063. Rosario Artola idazle (ARR-195/013)

Rosario Artola idazlea. Aldizkarietan argitaratzen zituen bere lanak. Gitarra jotzen zuen. Emakumeek musika-instrumenturik jotzen ez zutela pentsatu da. Maurizia.

1.064. Valentin Zubiarreren bertsolari emakumezkoen margolana (ARR-195/015)

Valentin de Zubiaurrek margotutako bi emakume bertsolariren koadroa. Zubiaurretarrak madrildarrak ziren baina jatorriz berriztarrak. Margolana 1913an pintatu zuen eta Reina Sofia museoan dago ikusgai, "Versolaris" izenarekin.

1.065. Errepublika garaian, emakumeek politika egiteko idazten zuten (ARR-195/019)

Emakume Abertzale Batzako kideek politikari buruz idazten zuten, ez literatura egiteko.

1.066. Hitanoaren transmisioa familian (ARR-195/022)

Aitagandik izan ezik, beste familiako kideengandik hika jaso du beti (ama, amona, neba, izebak... Familiako emakumezkoek beti egin diote noka. Lehengusu txikiekin ere beti hika egiten du.

1.067. Gurasoak haien artean beti zuka (ARR-195/023)

Gurasoek beraien artean beti egin dute zuka, nahiz eta familiako gainontzekoekin hika erabili. Gurasoek haien gurasoei, beti zuka. Berorika oso gutxitan entzun izan du, baina ezagutzen du gurasoei horrela egindakorik ere.

1.068. Eskola, erdalduntzeko bidea (ARR-195/024)

Mojetan ikasi zuen Anabelek eta amak kontatzen dio ez zuela hitzik ere egiten, ez zielako mojei ezer ulertzen. Auzoan, baserri giroarekin izan dute harreman gehiago eta eskola izan da erdalduntzeko bidea.

1.069. Hitanoz jarduteak hurbiltasuna ematen du (ARR-195/025)

Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen eta ikastolan lanean hasi zenean, Bedoñako biztanleekin hika egiten hasi zen. Hikak hurbiltasuna ematen dio. Zuka, distantzia bat mantentzeko erabili du. Ikasleei beti zuka egin die, baina gaur egun batzuekin hika egiten du.

1.070. Arrasateko egungo hitanoaren egoera (ARR-195/026)

Euskararen egoera ez da ona Arrasaten, eta hitanoarena ere ez. Mutilen artean hika gehiago entzuten, baina beraien artean egiten dute gehienbat. Neskei ez zaie egiten edo toka erabiltzen dute, noka beharrean. Orokorrean oso gutxi entzuten da hitanoa.

1.071. Emakumeek hitanoa eremu intimoetan erabiltzen zuten (ARR-195/027)

Hitanoa emakumeentzat fina ez denaren ohitura. Bere amak lagunekin beti egin du hika. Emakumeentzat trataera mota hau eremu intimoetan eman izan da askotan, baina gizonezkoentzat ez.

1.072. Hitanoa emakumeei ez transmititu izana (ARR-195/030)

Hitanoa emakumeei ez transmititzea, "burgestze" prozesuaren ondorioetako bat da.

1.073. Hitanoaren kontrako iritziak (ARR-195/031)

Baserri-jatorriko gurasoak dituzten pertsonak dira Arrasaten hitanoa gehien erabiltzen dutenak. Hitanoaren kontrako iritziak eta iruzkinak, zeharka askotan entzun ditu. Normalean, gurasoei hika egitea errespetu falta dela entzun du gehien.

1.074. Lagunekin zuka egiten du (ARR-195/032)

Gaur egun, hitanoz hitz egiten ikasteko interesa dago. Anabelek, hika norekin egiten duen azaltzen du: lankide eta ikasle batzuk, familia, seme-alabekin... Lagunekin, beti zuka egiten du.

1.075. Hitanoa umeekin eta bere buruarekin (ARR-195/033)

Etxeko umeekin zuka egin du beti, baina biloba jaio zenean, noka atera zitzaion. Seme-alabekin transmisio-etena izan zuen baina orain hika egiten die. Animalekin eta bere buruarekin, to egiten du.

1.076. Hitanoaren transmisioaren etena (ARR-195/035)

Ume txikiei zuka egiten zaie normalean eta urte batzuetara hika egiten zaienean, hitanoaren transmisioaren etena eman da.

1.077. Hitanoa berreskuratzeko ekimenak (ARR-195/036)

Arrasaten, hitanoa berreskuratzeko ekimenak. Noka-tertuliak. Ahalduntzeko tresna bat da hitanoa.

1.078. Arrasateko berbak I (ARR-195/040)

Arrasateko berbak. Bixaoa eta lokamuxe (siesta)

1.079. Arrasateko berbak II (ARR-195/042)

Arrasateko berbak. Lekarixoa, irrintzi mota bat da; artalataikua, kantuan korroan dantzan egitea; Lubana (lubakia); Bizi-alargun, garai batean banatzen ziren emazteei deitzeko modua; mailukia (marrubia), kerizie (itzala).

1.080. Arrasateko esalmoldeak (ARR-195/043)

Arrasateko esamolde batzuk. "Asto fan, ta mando etorri", "Hor konpon Mari Anton, txakurrak buztana beria jon" amak esaten zuen etxean.

1.081. Arrasateko berbak III (ARR-195/045)

Arrasateko hitzak. "Atartea" deitzen diote atariari. Harresiko ateei "portala" deitzen diote, baina etxeko ateei, atartea.

1.082. Arrasateko Amandre Santa Ines-en gorputz momifikatua (ARR-195/047)

Umetan, amesgaiztoren bat zutenena, Arrasateko elizan dagoen Amandre Santa Ines momiaren letania kantatzen zieten. Aspaldi, bistan zegoen momia

baina jendea kuttunak egiteko arropak eta gorputzaren zatiak kentzen hasi zen. Santuaren istorioa kontatzen du eta nola heldu zen Arrasatera momifikatuta.

1.083. Lagun batzuekin hika (ARR-196/002)

Amak anai-arrebekin beti egin izan du hika, aitak lagun artean ere bai. Berak anai-arrebekin zuka egiten du eta lagun batzuekin hika.

1.084. Hika mutilzaharren kontu zakarra (ARR-196/003)

Beronikak gogoan du hika egitea ez zegoela ondo ikusita, mutilzaharren kontua zela esaten zietela. Amaginarrebak Koldori esan izan dio hika ez jarduteko, berak egiten duen arren; zakarra iruditzen zitzaion.

1.085. Nagusitutakoan, lagun artean hika (ARR-196/004)

Nagusitu zirenean, hika hasi ziren lagun artean, zergatik hasi ziren gogoan ez badute ere. Amaiak erdaraz ondo zekienez, lagun egin ziren Beronika eta biak.

1.086. Gurasoek hika sekula ez (ARR-196/007)

Amaiaren amak eta aitak hika zeinekin egiten zuten kontatzen du. Amaiari eta Beronikari gurasoek ez zieten hika sekula egin.

1.087. Hika lehenengoz, lankideekin (ARR-196/008)

Amaia lanean hasi zenean hasi zen hika lehenengoz, lankideekin.

1.088. Inguruan denak hika (ARR-196/010)

Koldok anai-arreba zaharrenei hika egiten die eta gazteenei zuka. Gurasoek haserretzen zirenean egiten zieten hika; gainontzean, zuka. Etxean gonbidatuak zituztenean, hika egiten zuten denek.

1.089. Lagun artean hika natural (ARR-196/012)

Untzilako eskolan debekatuta zeukaten euskaraz egitea. Adin guztietakoak batera egoten ziren. Lagun artean hika egin izan du beti Koldok, andreari izan ezik, gehienak baserri girokoak izan dira eta.

1.090. Arrasaten Aretxabaletan baino euskara gutxiago lehen (ARR-196/017)

Arrasaten Aretxabaletan baino euskara gutxiago entzuten zela dio Koldok. Untzilako eskolatik Aretxabaletakora joan zenean, hiru lagun gerturatu zitzaizkion euskaraz.

1.091. Euskaldunak zirenik ere (ARR-196/018)

Amaiaren amak uste zuen Zerrajeran ia denak erdaldunak zirela. Gerora konturatu zen gehienak euskaldunak zirela. Beronikari erdaraz ikastea kosta egin zitzaion baina gero erdara batean ibiltzen zela dio. Gogorra zela dio.

1.092. Umetan baserritarra izatea eta erdaraz ez jakitea gogorra zen (ARR-196/021)

Euskaraz bakarrik jakin eta baserritarra izatea konplejua hartzeko modukoa zen. Egoera gogorra zela dio Beronikak. Koldoren Untzilako lehenengo maistrari ez zion ardura izaten umeek euskaraz egitea. Beronika egunero arrastaka sartzen zuten eskolara.

1.093. Gizonen artean hika gehiago (ARR-196/024)

Gizonen artean hika gehiago egiten zela uste dute. Amaginarrebak ez egiteko esaten zion Koldori. Umetatik berba egin izan du hika Koldok.

1.094. Hika semeari bai, alabari ez (ARR-196/026)

Koldok semeari hika egin izan dio baina alabari ez. Inork ez daki zergatik gertatu izan den.

1.095. Zeinekin egiten duten hika (ARR-196/027)

Beronikak lagun konkretu batzuekin egiten du hika. Koldok uste du gazteei hika egiten diela, baina mutilei seguruenik. Amaiak ere oso gutxirekin egiten du hika.

1.096. Hika modan, baina erdara ere bai (ARR-196/028)

Hika modan jarri dela uste dute. Hala ere, kuadrillan euskaraz egitea erronkatzat dute gazteek.

1.097. Bailaran hika hirurogehi urtetik gorakoek (ARR-196/030)

Bailaran hika egiten dutenen perfila 60 urte ingurukoak eta baserrian jaiotakoak direla uste dute.

1.098. Bere buruari hika (ARR-196/031)

Txakurrekin hika egiten du Koldok. Bere buruari hika egiten dio Amaiak; besteek ez diote erreparatu izan.

1.099. Zeren arabera hika? (ARR-196/032)

Hika egiteak gertutasuna ematen dio Beronikari. Koldok ez dauka halako bereizketarik. Amaiak batzuekin gertutasunagatik egiten du hika baina beste batzuekin ez.

1.100. San Antoniori hika (ARR-196/033)

Amaiaren amak San Antoniori berba egiten zionean, hika egiten zion, eta ama birjinari zuka. Koldok egiten diotenaren arabera egiten du batzuetan; hika egiten badiote, berak ere bai. Barneratuta daukate zuka zeini egin behar zaion.

1.101. Hika edo zuka, ohitura aldatu behar (ARR-196/039)

Hika ikasteko gurasoei hika egitea ez dute gaizki ikusten, ikasteko bada. Adibide bat ematen du Amaiak. Zu edo hi egin, ohitura aldatzea zaila dela azaltzen dute.

1.102. Maritxu Kajoi hasieran (ARR-196/047)

Arrasateko pertsonaia xelebreez berba egiten dute; Dongi udaltzaina. Hasieran Maritxu Kajoi zelakoa zen kontatzen dute.

1.103. Mugikor gabeko garaian zela moldatzen ziren lagun artean (ARR-196/049)

Lagun arteko hitzorduak astero berdinak izaten ziren. Koldok nobio garaiko kontuak kontatzen ditu. Bizilagunen etxeetara joan behar izaten zuten telefonoz jarduteko.

1.104. Amandreen bizimodu gogorra (ARR-196/054)

Beraien amandreen bizimoduaz berba egiten dute. Beronikaren amandrea oso gazterik alargundu zen eta bizimodu gogorra izan zuen. Kriada joan izan ziren hiruren amak.

1.105. Amaren bizimodua, lana eta lana (ARR-196/055)

Ezkonberritan, beraien amak zela bizi ziren kontatzen du. Arropak eskuz garbitzen zituzten. Amaiaren ama Arrasatera etorri zenean, apopilo egon zen; Zerrajeran lan egin zuenekoa kontatzen du.

1.106. Emakumeak lan eta lan (ARR-196/056)

Koldoren amari astoa kartzelan sartu zion udaltzainak. Beronikaren ama bizi osoan lanean ibili izan da; emakume guztiek egin izan dutela lan asko dio Koldok.

1.107. Gonbidatu asko jaietan baserrian (ARR-196/057)

Gonbidatuak etxean hartzen zituzteneko garaia kontatzen du Koldok. Lehen alkoholdun edari asko hartzen zituztela kontatzen du.

1.108. Gerratik ihesi; bueltan Koruetara bizitzera (ARR-197/002)

Gerraren ondorioz alde egin eta urtebetez kanpoan izan ziren. Aita kartzelan, etxea apurtuta, ama seme-alabekin Koruetara joan zen bizitzera. Hogeita bat urtera arte egon zen bertan.

1.109. Bizikletaz hara eta hona (ARR-197/003)

Hamabi urte zituela egunero San Jose kolegiora joaten hasi zen, bizikletaz. Geroxeago, arreba mojetan hasi zen, eskolan. "Kukaratxak" esaten zieten mojei, beltzez jantzita zihoazen eta. Orduan bideak oso txarrak zeuden. Udazkenean gurpilak zulatzen zizkion sasiak sarri. Euritarako gabardina erosi zioten, bizikletaz ibiltzeko. Ekonomika gainean lehortzen zuen.

1.110. SIGMAra lanera (ARR-197/005)

Hogeita bat urterekin Arrasatera etorri zen bizitzera. Hogeita birekin soldadu joan zen Irunera. Don Jose Mariak (Arizmendiarrietak) kanpoko enpresa handiak ezagutzea gomendatu zion. Hala, SIGMA lantegian sartu zen.

1.111. Arrasate kooperatibako sortzaile (ARR-197/006)

Hogeita lau urte zituela, nobiari ama hil zitzaion eta anaia soldadu joan behar zenez, ezkondu egin ziren. Arrasate kooperatibako sortzaileetako bat izan zen.

1.112. Arrasate kooperatiban euskara eskolak (ARR-197/007)

Ikastolaren sorreran parte hartu zuen; diru-biltzaile aritu zen. Kooperatiban euskara klaseak ematen zituzten, 1970 inguruan. Aurrez alfabetatze saioak egin zituzten horretarako, Patxi Altunarekin. Beranduago, Xabier Mendigurenekin ere egin zituzten saioak.

1.113. AEDren sorrera (ARR-197/008)

AED sortu zenean ere, hasieratik parte hartu zuen. Sortzaileetako batzuk aipatzen ditu. AEDko lokalaren ondoan taberna ireki zuten eta derrigorrez euskaraz egin behar zen bertan. Goiena ere AEDtik sortutakoa dela dio.

1.114. Amandrearen bertso zaharrak (ARR-197/009)

Amandreak bertso zaharrak zekizkien asko eta harekin ikasi zituen. Aretxabaletan gramola ipintzen zuten dantzarako. Lagunekin etxerako bidean bertsotan joaten zen.

1.115. Lehenengo bertsolaritza saioak Arizmendin (ARR-197/010)

1974an, larunbat goizetan gazteak ikastolaren ingurura gerturarazteko ekintzak antolatu zituzten. Orduantxe sortu zuten bertso eskola eta ehunetik gora animatu ziren. Hiru irakasle ziren.

1.116. Bertso-eskolaren hasierak (ARR-197/011)

Abel Muniategik materiala prestatu zien bertso eskolarako. Amurizaren errima hiztegia erabiltzen zuten. Garai berean, Enbeitatarrek nagusiendako bertso eskola sortuta zuten.

1.117. Ikastoletan bertsolaritza irakasten nolatan hasi ziren (ARR-197/012)

Ikastolan ikasgai moduan bertsolaritza ematea proposatu zuen baina ez zuten onartu. Aldundiak finantziatuta, ikastolen federazioan liberatu egin zuten Mikel Mendizabal. Eskolarteko lehenengo bertsolari txapelketa zelakoa izan zen kontatzen du.

1.118. Arantzazu Loidi eta Iñaki Sarasua, oso bertsolari onak (ARR-197/013)

Arantzazu Loidik eskolarteko bertsolari txapelketan txapela irabazi zuen. Oso bertsolari ona izan zela dio, baita Iñaki Sarasua ere.

1.119. Hika inguruan (ARR-197/019)

Gurasoek hika egiten zieten. Senideen artean hika egin izan dute. Koruetan neska-mutil denek beraien artean hika egiten zuten umetatik.

1.120. Ikaskideek bazekiten eta euskaraz! (ARR-197/020)

Nagusiagoei eta gurasoei zuka egiten zieten. Estherrek Arrasaten eskolan erdaraz ikasi zuen. Urte asko geroago, bere eskolakideek euskaraz bazekitela konturatu zen.

1.121. Semeari hika, alabari zuka (ARR-197/023)

Euskalkia eta hika ez dira eskolan erakutsi. Patxiren semeak lagunekin hika egin izan du. Patxik semeari hika egin izan die eta Estherrek alabari eta ilobari zuka.

1.122. Hika egiteak gaztetasuna sentiarazten dit (ARR-197/025)

Hika berreskuratzea aberastasuna litzatekeela uste dute. Pantailekin harrapatuta ikusten ditu inguruko denak; zukarekin nahiko lan. Hikak gertutasuna eta gaztetasuna ematen diela dio, eta konfidantza.

1.123. Umetako garaiak Koruetan (ARR-197/033)

Beraiek ez beste denak ziren baserritarrak; haiek belarretan ibiltzen ziren eta beraiek arbolapean lasai. Ipurtargiak batzen ibiltzen ziren. Mutilak igeri egitera joaten ziren, neskak ez. Txoritan, amoarrainetan, pilotan... ibiltzen ziren mutilak eta neskak tortoloxetan, harri-harrike, soka saltoka, txirikiletan... Mutikoekin sakalamangaka. Txopi jolasean aritzen ziren elkarrekin.

1.124. Soldata parekidea eskatzen (ARR-197/035)

Eskola profesionalik ez zeukaten emakumeek. Zein lantegitan jardun zuen kontatzen du Estherrek. Lanpostu berean, emakumeek %10 gutxiago kobratzen zuten; soldata bera eskatu zutenekoa kontatzen du.

1.125. Lehenengo arropa garbigailua moldatu zuen Patxik (ARR-197/039)

Arropa garbigailua egiteko hasierako sistema azaltzen du Patxik. Berak egin zion moldaketa Arrasate kooperatiban. Oso edukiera txikia omen zeukan. Esther ezkondu zenean, garbigailu automatikoa ipini zuen etxean.

1.126. Telefonoaren eta kotxearen eraginez, ingurukoekin harreman gutxiago (ARR-197/041)

Ezkondu zenean, telefonorik ez zeukaten. Senide denek batera hartu zuten telefonoa eta zenbaki jarraiak dituzte horregatik. Telefonoaren eraginez, auzokoekin harremana gutxitu egin zela dio Estherrek, baita kotxeen eraginez ere.

1.127. Dena berrerabiltzen zen (ARR-197/043)

Garai batean zaborrik sortu ere ez zuten egiten, erre egiten zituzten eta. Errekara jaurtitzen zuenik bazegoen. Egunkari papera gorde egiten zuten, paketeak egiteko edo komuneko paper moduan. Azukrearen papera ere gorde egiten zen, berrerabiltzeko.

1.128. Dendara norberak ontzia eraman behar (ARR-197/044)

Olioa eta esnea ontzietara betetzen zizkieten. Lata handietatik hartuta, katiluetan erosten zituzten piperrak, tomatea... Esnea egosi egiten zen eta ihes egiten zuen sarri.

1.129. Etxekoak hika entzun izan ditu beti (ARR-198/002)

Gurasoek hika zein zuka egin izan diote. Etxekoak hika entzun izan ditu.

1.130. Anaiarekin hika egiten hasita (ARR-198/003)

Anaiarekin hika egiten du orain.

1.131. Hika beti-beti beste mutil batekin egiten du (ARR-198/004)

Hika zeinekin egiten duen azaltzen du. Baserriko lotura dutenekin egiten du gehiago.

1.132. Aitak zuka, amak hika eta anaiarekin orain hika (ARR-198/008)

Aitak zuka egin izan dio; amak egin izan dio hika. Anaiarekin hasita dago hika egiten.

1.133. Amarekin praktikatu izan du hika (ARR-198/009)

Amarekin hika egin izan du eta hala ikasi. Elkarrizketa luzeetan zuka egiten dio amari, eta amak bietara. Ilobekin orokorrean zuka egiten du. Oso gutxirekin egiten du hika.

1.134. Noka ikastaroko esperientzia (ARR-198/010)

Batzuekin hikak errazago irteten dio beste batzuekin baino. Noka ikastaroan parte hartu zuen eta nolakoa izan zen azaltzen du. Bigarrenean, bera izan zen irakasle.

1.135. Hika sentimendu batekin lotzen du (ARR-198/013)

Hika sentimenduekin lotzen du berak, sustraiekin lotze bat. Ahaldundu egin behar izan da kalean noka egiteko.

1.136. Kaleko esparrua gizonena gehiago izateak noka galarazi du (ARR-198/014)

Noka toka baino gehiago zergatik galdu den azaltzen du.

1.137. Berari hika egitea aldarrikatu izan du (ARR-198/016)

Noka egitea aldarrikapenetik ere sortu zaiola azaltzen du.

1.138. Hika elkarrekin zela hasi ziren (ARR-198/020)

Elkarrekin hika zela hasi ziren kontatzen dute eta hika egiteak zer dakarkien.

1.139. Nortasun kolektiboak eraikitzen lagun dezake hitanoak (ARR-198/021)

Herri identitatea garatzeko aukera ona iruditzen zaio Joni hitanoa.

1.140. Hika norbere buruarekin, praktikatzeko (ARR-198/023)

Beraien buruarekin hika egiten dute batzuetan. Ainhoak hizkuntza askotan egiten dio bere buruari.

1.141. Euskaltegian euskalkia erakustea mugatuta dago (ARR-198/024)

AEKn formalki ez baina euskalkia lantzen dute batzuetan.

1.142. Arrasaten euskararen erabilerari buruz (ARR-198/026)

Euskara desagertzear egon zenez, nahikoa egin dutela uste du Jonek. Hizkerak eta hizkuntzak oso nahastuta erabiltzen direla uste du Ainhoak. Jonek identitate kolektiboa galtzea euskararen galera eragiten ari dela uste du.

1.143. Agurainen eta Arrasateren arteko aldea (ARR-198/028)

Agurainen bizi izan duena Arrasateko egoerarekin alderatzen du Ainhoak. Batzuentzat euskara identitatea da baina beste batzuentzat eskolako kontua.

1.144. Teknologia berrietan erdararen erauntsia dago (ARR-198/029)

Jonen ustez euskararena arazo politikoa da. Mugikorreko erreferentzia guztiak erdaldunak direla azaltzen du. Ainhoak uste du lan handia egiten ari direla teknologia berrietan euskara erabiltzeko baina zaila dela.

1.145. Erdara nagusi da Arrasaten (ARR-198/030)

Arrasateara etorrita, pakistandarrek gazteleraz hitz egiten dute; beraz, Jonek dio horrek esan nahi duela Arrasateko hizkuntza nagusia gaztelera dela. Hika aritzea aldarrikapen moduan bizi du Jonek.

1.146. Norbere baitan toka aritzeaz (ARR-198/032)

Jonek txakurrari hika egiten dio, toka. Ainhoak bere buruari toka egin izan dio; zergatia ez dauka oso argi.

1.147. Berorika besoetako umeari, zuka ume txikiari, hika koxkortutakoari (ARR-198/034)

Ainhoak besoetako umeari esaldi batzuk berorika egin izan dizkiola aipatzen du.

1.148. Hika egiten duen bikote nagusia (ARR-198/035)

Jonek ezagutzen du bikote nagusi bat elkarrekin hika egiten duena.

1.149. Ezkondutakoan zuka; semeari hika, alabari zuka (ARR-198/037)

Azkoitiko kasu bat aipatzen du, ezkondutakoan hika egitetik zukara pasatu zena, eta ohartu. Semeari hika eta alabari zuka egitea ohikoa izan da.

1.150. Hikaren inguruko jarrerak (ARR-198/038)

Hikaren aldeko jarrerak entzun izan dituzte.

1.151. Helduago bati hika egitea zail (ARR-198/040)

Helduago bati hika egitea deseroso zaio.

1.152. Hika aritzeko, ahalegina egin behar (ARR-198/042)

Hika egiterakoan, gehiago pentsatu behar izaten dute, aditzak topatzeko.

1.153. Emakumeen ahalduntzea eta hitanoa batuta (ARR-198/044)

Emakumeen ahalduntzea eta hika uztartzeari buruz ari da.

1.154. Hika-zuka elkarrizketei eustea gaitza (ARR-198/047)

Batak hika eta besteak zuka ez dira sarri aritzen, eustea zaila delako.

1.155. Hitanoaren galerak pena (ARR-198/048)

Hikaren galerak pena ematen die. Berbak ere galdu egin direla diote.

1.156. Euskalkirik ez dutenek, informalaren falta (ARR-198/049)

Hizkera informalari buruzko gogoetak.

1.157. Garai bateko emakumeen bizimodua (ARR-198/053)

Lehenagoko emakumeen bizimoduari buruz ari dira.

1.158. Gustoko idazleak eta musika (ARR-198/055)

Gustoko dituzten idazle eta musikariak aipatzen dituzte.

1.159. Militantzia zela aldatu den (ARR-198/057)

Garai batean militantziak esparru zabala hartzen zuen. Gaur egun, ordainpean egiten dira zeregin asko. Belaunaldi gazteei dena eraikita eman zaiela uste dute eta horrek zaildu egiten duela ekimena.

1.160. Baserritarra izatearren, burla (ARR-198/063)

Joni "kaxero" esan izan diote, baserritarra izateagatik. Ainhoak amari mina eta amorrua nabaritu izan dio gaiaz berba egiterakoan.

1.161. Elkarrekin hika egiteko ohitura (ARR-199/002)

Elkarrekin hika egin izaten dute beti, baita ikastolan ere. Ohitura kontua da.

1.162. Mariasunen gurasoak Udalakoak (ARR-199/005)

Arrasaten jaioa, kalean, Makatxenea baserrian (gaur egun Santa Marina auzoa). Guraso biak Udalakoak zituen. Gurasoek hika egiten zuten elkarrekin, bikote izan aurretik ere lagunak zirelako. Alaba bakarra da eta hika egin diote beti.

1.163. Aste barruan izeba-osabekin bizitzen (ARR-199/006)

Izeba-osabekin asko egondakoa da, aste barruan, gurasoek taberna ipini zutelako Udalan. 11-12 urte zituela joan ziren hara bizitzera. Haiek ere hika egiten zioten. Asteburuetan tabernan egiten zuen lana. Eskolan dana erdaraz egin zuen, mojekin. Kulturate den eraikinean egin zuen Batxilergoa. Baserritarra dela dio. Aitona-amonek zuka egiten zioten, lehengusuek hika.

1.164. Udalan hitanoa bizirik zegoen (ARR-199/007)

Ez zen Udalako eskolan ibili, Arrasaten kalean baizik, mojetan. Udalan auzoko adineko umeekin hika egiten zuen. Tabernan kanpotarrei zuka. Gurasoek senideekin hika. 20 urterekin etorri zen Arrasatera bizitzera.

1.165. 20 urterekin ikastolara lanera (ARR-199/008)

20 urterekin ikastolan hasi zen irakasle. Etxera joan zitzaizkion bila. Dio ez zirela asko egongo euskara zekitenak.

1.166. Ikastolako irakasle batzuekin egin izan du hika, baserritarrekin (ARR-199/010)

Magisteritza gerora ikasi zuen. Sasoi hartan ez zuen hika inorekin egiten han. Gerora bai. Hika baserriko jendearekin egin du.

1.167. Gesalibar auzoan bizimodua, umetan (ARR-199/013)

Uribarri auzoko baserri batean jaioa, Baztargain Azpin, baina Gesalibarrerako joera zuten. Aita bertakoa zuen eta ama Eskoriatzakoa. 11 urterarte Gesalibarko eskolan ibili zen eta bertakoak ditu lagunak. Gero Almenen ikasi zuen, Eskoriatzan.

1.168. Eskola garaiko hizkuntza: gaztelania (ARR-199/014)

Etxean hitanoa asko entzun du umetatik. Gurasoek anai-arrebekin hika egiten zuten eta baita lagunekin ere, adinekoekin. Gurasoek zuka egiten zuten elkarrekin. Beraiei oso haserre zeudenean egiten zieten hika, baina normalean zuka. Eskolan maistrak bakarka zeudenean soilik egiten zion euskaraz, baina erdara hutsean ziren eskolak. Kanpotar asko zeuden eskolan; "maketoekin" ez ziren ondo konpontzen orduan, gerora bai.

1.169. Anaiarekin eta lagunekin erdaraz sasoi batean (ARR-199/015)

Anaiarekin ere erdaraz egiten zuen batzuetan eta baita lagunekin ere, etxean euskaraz egin arren. Oso berandu hasi ziren hika egiten lagun koadrillan. Etxean debekatuta zuten erdaraz egitea. Almenen bi talde egin ziren: euskaldunen taldean zegoen bera. Koadrilako hiruk erabaki zuten Magisteritza egitea eta ordaun hasi ziren euskaraz (eta hika) egiten. Batua ikasi egin behar izan zuten, euskaltegian.

1.170. Kontzientzia linguistikoa eta mudantza hitanora (ARR-199/016)

15-16 urterekin bazuen kontzientzia politikoa, baina linguistikoa 17-18rekin etorri zitzaion, Magisteritza ikasten hasi zenean. Hasieran zuka eta gero hika. Koadrillako gehienak baserri ingurukoak ziren eta etxean hika entzundakoak.

1.171. Erraz hasi zen hika (ARR-199/017)

Senarra izango zuenak (Koldo Zubizarretak) joera handia zuen euskaraz egiteko. Semeari hika egiten dio, baina alabari ez dio egin izan sekula. Semeak egiten du hika lagun batzuekin, baserri giroko mutilekin. Hika egiten hasi zenean ez du gogoratzen zailtasunik izan zuenik, noka zein toka. Batzuek toka egiten diete neskei ere.

1.172. Ikastolan ezagutu zuten elkar (ARR-199/019)

San Franzisko Xabier ikastolan ezagutu zuten elkar, eta hika hasi ziren baserriko iraskea taldetxo bat elkartu zenean. Norekin egin duten hika ikastolan. Mariasunek mendiko lagunekin hika egiten du, baina bik bakarrik erantzuten diote hika. Irakasle batzuek ahalegin handia egin dute hika egiteko.

1.173. Norekin egiten duten hika (ARR-199/020)

Koadrilako gehienekin egiten du hika Amaiak, mutil zein neska. Anaiarekin ez du sekula hika egin, urtebete zaharragoa den arren. Mariasunek debekatuta zuen etxean gaztelaniaz hitz egitea; amak esaten zion mojek eskolan esandakoak gezurra zirela. Familia abertzalekoak dira biak eta etxean errieta egiten zieten erdaraz eginez gero.

1.174. Seme-alaben hizkuntza ohiturak (ARR-199/021)

Ez du seme-alabei euskaraz egiteko beharrik izan, etxeko hizkuntza euskara izan delako. Semeak arazoak izan zituen gaztelaniaz ondo egiteko, beti baserrian egoten zelako. Alabak ez, Extremadurako zaintzaile bat izan zutelako eta harekin ikasi zuelako. Seme-alabek lagunekin euskaraz egiten dute gehienbat.

1.175. Mariasuni barre egiten zioten ilobek, hika egiten zienean (ARR-199/022)

Hika egiten duten gazte gutxi ezagutzen dituzte. Mariasuni barre egiten zioten umeek hika egiten zienean. Iloba batek esaten dio pena duela ez zuelako ikasi. Amaiak gogoan du ondarrutarrek ez zietela ulertzen hika eginda.

1.176. Gazteek ez dute hika egiten Arrasaten (ARR-199/023)

Amaiak dio 50 urtetik gorakoekin egiten duela hika, baserri ingurukoak denak ere. Gazteek ez dutela egiten uste du. 33 urteko semeak egiten du, baina oso lagun gutxirekin. Kaletarrek ez ei dakite hika. Gurasoak baserrikoak dituzten gazteek ere ez dute egiten hika.

1.177. Galeraren zergatia eta hitanoaren gutxiespena (ARR-199/024)

Galderaren zergatia zein izan daitekeen. Mariasunek dio Udalan batzuek umeei erdaraz egiten zietela, ez hika ez zuka. Hitanoa oso jende gutxirekin egiteko dela jaso du Amaiak ere, eta errespetu falta dela seme-alabei hika egitea. Baserritarren konplejuak: burla egiten zieten eta erdaraz egiten zuten, ez igartzeko baserritarrak zirela.

1.178. Hitanoa, familiakoekin eta lagunarterako (ARR-199/025)

Udalarako errepiderik ez zegoen eta astoan joan behar izaten zuten. Mariasuni 'bulling'-a egiten zioten eskolan, baserritarra zelako. Amaiak ez du baserritarra izateagatik halakorik jasan. Hitanoari buruz entzun dutena: familia edo lagunarterako soilik dela. Mariasunen aitajaunak mutilei egiten zien hika, neskei ez.

1.179. Mariasun guardia zibilari erantzuten (ARR-199/026)

Mariasunek gogoan du Guardia Zibila baserrira joan zela miaketa bat egitera, eta amandreari kargu hartu ziotela gaztelaniaz ez zekielako. Mariasunek erantzun zion guardia zibilari, zortzi urterekin.

1.180. Euskara txarra Arrasatekoa? (ARR-199/027)

Magisteritza ikasten hasi zenean, Ondarrukoek beraien erara hitz egiten zutela eta beraiek ere eurenean egiten hasi ziren. Batua eta euskalkiak: beraien

euskara txarra zela uste zuten. Tolosakoak zuen fama ona. Udalan egon zen apaiz batek ere hala esaten omen zuen.

1.181. Mutilek hika gehiago neskek baino? (ARR-199/028)

50 urtetik gorako baserritarrek egiten dute hika, eta oso gutxik. Beraien lagun taldeetan neskek ere berdin-berdin egiten dute hika; beste leku batzuetan mutilek gehiago egiten dute. Arrasaten 50 urtetik beherakoen artean ez da hitanoa mantendu. Amaiak ez die egin seme-alabei, errieta egiteko ez bada; bere senarrak semeari bakarrik.

1.182. Ezezagunekin hikarik ez (ARR-199/030)

Emakumeek ez dute ezezagunekin hika egiten (gizakumeek errazago). Jakin egin behar dute besteak errejistro hori darabilela. Gizonezkoak gehiago sozializatu izan dira emakumeak baino, baina aurreko belaunaldietako kontua dela diote. Beraiek beraien amak baino askoz askeagoak izan dira.

1.183. Zer egin hitanoa galdu ez dadin (ARR-199/031)

Hitanoa galtzen dabil: ezer egin beharko al litzateke? Hika ikastaroak beharrezkoak direla diote. Goiena Telebistak batua erabiltzen dute. Euskalkien lekua hedabideetan eta ikastetxeetan. Ahozkoan bertako euskalkia erabili dute biek.

1.184. Arrasateko euskalkia ere arriskuan (ARR-199/032)

Eskolan euskalkia entzutea garrantzitsua iruditzen zaie. Askotan irakasleek ez dakite bertako hizkera. Arrasateko hizkera galtzeko arriskuan dago. "Larue" hitza (horia), adibidez, jada ez da erabiltzen. Ezin da dena ikastetxeen esku utzi. Etxeko transmisioaren garrantzia.

1.185. Hika irakastea eskoletan? (ARR-199/034)

Amaiak dio tarteka entzuten direla gurasoen artean euskaraz egiteko kanpainak, baina ez nahikoa. Eskolan hika lantzea ere ondo ikusten du, bertsolaritza lantzen den moduan. Hika ikastaroek ere jarraipena behar dute, ez solteak izan.

1.186. Umeek erdararako joera (ARR-199/035)

Eskolatik irtenda erdaraz egiten dute ume askok. Ez zaie kanpotarrei errua bota behar. Baliteke arabiarrek gehiago egitea bertakoek baino. Hika ikastaroak egon dira Arrasaten. "Hikalagunak" izateko gertu daude, "ahal dutenean".

1.187. Appa Hi! aplikazioari buruz (ARR-199/036)

Appa hi! aplikazioari buruz hitz egiten dute. Amaiari oso erraza iruditu zaio. Modu ona iruditzen zaie hika ikasteko. Inportantea da ez moztea, hanka sartuaz ikasteko.

1.188. Mobil bariko garaia (ARR-199/043)

Teknologia berrietara engantxatu gara denok. Amaia gaztea zela, auzoan telefono bakarra zegoen eta urte gutxian mobilari lotuz joan gara. beharra sortzen da. Oporretan mobilaz ahaztu egiten dira.

1.189. Emakumeen bizimodua lehen eta orain (ARR-199/045)

Emakumea etxe barruan sartuta eta gizonezkoen zerbitzura zegoen lehen. Oraindik asko dago egiteko: kargudunak gizonezkoak dira orain ere eta zaintza emakumeen esku dago. Feminismotik asko egin da (Mariasun mugimendu horretan ibili izan da).

1.190. Teknologia berrien abiadura (ARR-199/047)

Teknologia berriekin kokoteraino dago Mariasun. Amaiak dio lan munduan ere sartu direla eta larritasun handienak horretxekin igaro dituela berak irakaskuntzan.

1.191. Militantzia eta konpromisoa (ARR-199/049)

Mariasun beti izan da militantea eta konpromiso falta ikusten du gaur egun. Francoren garaian aldaketan sinesten zuten. Zaintza lanengatik utzi zuen militantzia Mariasunek. Amaia ere euskararen militantea izan da gaztetatik.

1.192. Feminismoan militatzen (ARR-199/050)

Mariasun Arrasateko emakumeen asanbladan ibili zen. 1977an sortu zen. Sección Femeninan zerbitzu soziala egin behar zen gidabaimena ateratzeko, Francoren garaian; lokala okupatu egin zuten beraiek eta hantxe egin zituzten emakumeen asanbladako bilerak urtetan.

1.193. Feminista izatea gaizki ikusita (ARR-199/052)

Feminista izatea gaizki ikusita zegoen. Hogei bat hasi ziren eta beti ibili da jendea inguruan. Harremana zuten beste emakume asanblada batzuekin. Leioako topaketan egon zen eta aurretik baita Granadan eta Bartzelonan ere. MKn ere hasi zen militatzen.

1.194. Senideen artean hika (ARR-200/003)

Gurasoek ez zieten hika egiten seme-alabei. Senideen artean hika egiten zuten.

1.195. Mojen eskolan hasitakoan, "las caseras" esaten zieten (ARR-200/004)

Hamar urtera arte auzoko eskolara joaten zen eta euskaraz egiten zuten han, baina gero mojetara joaten hasi zen eta han egindako lagunekin erdaraz egiteko joera dauka. "Las caseras" esaten zieten eta ahoskerarengatik burla egiten zieten.

1.196. Umeekin hika tarteka, modu informalean (ARR-200/005)

Bilobekin hika pixka bat egiten du, modu informalean ari direnean. Eskolan ez diete ez bertako euskalkirik ez hikarik erakusten.

1.197. Aitak hika egin izan die, baina gazteenari ez (ARR-200/008)

Amak zuka egiten die. Aitak hiruri hika egiten die eta txikienari zuka. Gurasoek beraien artean zuka egin izan dute, eta anai-arrebekin hika.

1.198. Euskaraz hika, baina erdararako joera ere bai (ARR-200/009)

Ahizpen artean hika egin izan dute baina erdararako joera ere izan dute, eskolan erdaraz egin behar izatearen ondorioz. Auzoko eskolan elkarrekin euskaraz egiten zuten.

1.199. Hika batzuekin bakarrik (ARR-200/010)

Hika zeinekin egin izan duten kontatzen du Amaiak.

1.200. Seme-alabei hika oso tarteka (ARR-200/012)

Seme-alabekin zuka egin izan du. Hika tarteka egin izan die. Semeak lagun batzuk baditu hika egiten dutenak. Ez du uste alabak hika egiten duenik.

1.201. Hika zakarra omen da (ARR-200/015)

Bere ustez hika gutxiago zergatik egiten den azaltzen du Primik. Hika oso zakarra dela entzun izan dute.

1.202. Irakasleen aldetik, hikarekiko eta euskalkiarekiko interes gutxi (ARR-200/017)

Irakasle askok baserriko bizimoduaren berri ez dutela izan diote eta horrek hiztegian eragina duela. Hikarekiko interes handirik ez dute sumatu lankideen artean.

1.203. Hika, euskalkia eta euskara beherantz (ARR-200/018)

Hogeita hamabost urte ingurutik gorakoek egiten dutela hika uste dute. Hika, euskalkia zein euskara bera beheranzko joeran dihoazela uste dute.

1.204. Umeak erdaraz lehen baino gehiago (ARR-200/019)

Umeak erdaraz ari direla kontatzen du Amaiak. Primiren ustez migrazioak zerikusi handia du horretan.

1.205. Hikak gertutasuna eta konfiantza ematen du (ARR-200/023)

Hikak gertutasuna eta hizkera informala ematen dituela uste dute. Biek erabili izan dute tarteka ikasleei hitz egiteko.

1.206. Eskolan tartea hitanoarentzat (ARR-200/024)

Eskolan tarte batzuetan hika egitea ondo legokeela uste dute.

1.207. Euskalkia indartzea aberasgarri (ARR-200/025)

Euskarazko berbak galtzen ari direla uste dute. Batuari indarra eman nahi izaterakoan, euskalkiaren garrantziari ez diotela erreparatu uste dute.

1.208. Mugikorrik gabe lasaiago bizi ginen (ARR-200/027)

Telefono mugikorrik gabe urte askoan lasai asko bizi izan direla uste dute. Orain ere ez dute gehiegi erabiltzen baina dependentzia sortzen duela diote eta gero eta gehiago erabiltzen dutela beraiek ere.

1.209. Erdara noiz eta zela ikasi zuen (ARR-201/004)

Ama eta osaba erdaraz aritzen ziren umeek ez ulertzeko. Arrasaten eskolan hasi zenean, aldamenean euskalduna zeukan baina gainerakoek erdaraz egin behar izaten zioten.

1.210. Hika etxean jaso du (ARR-201/005)

Gurasoek hika egin izan diete seme-alabei. Anai-arrebekin hika egin izan du. Lagun jakin batzuekin ere egin izan du.

1.211. Hika seme-alabekin eta bilobekin noiz eta zela egiten duen (ARR-201/007)

Mutila den bilobari hika egiten dio. Hamasei urteko bilobarekin, neska denarekin, hika egingo diola adostu du. Seme-alabei haserretutakoan hika egiten zien. Pasarte bat kontatzen du.

1.212. Zeinekin aritzen diren hika (ARR-201/008)

Nagusiei eta senarrari zuka egin izan die; errespetu falta zen hika egitea. Joxepik bilobekin hika egiten du; haiek ere bai berari. Inmak alabarekin tratua egin zuen elkarri hika egiteko, alabak praktikatu ahal izateko.

1.213. Hika zeinekin egiten zuen umetan (ARR-201/011)

Gurasoek seme-alabekin hika egiten zuten, baita lagunekin eta ere. Eskolako lagunekin hika egiten zuen, eskola barruan erdaraz. Umetako pasarte batzuk kontatzen ditu.

1.214. Arrasaten ia denekin erdaraz (ARR-201/012)

Hamasei urterekin eskola profesionalera joaten hasi zen. Ordurako batera eta bestera ibiltzen zen. Bere auzokoarekin hika egiten zuen baina gainontzeko ikasleekin erdaraz.

1.215. Kaletik etxera erdara eramaten zuten umeek (ARR-201/013)

Eskolan eta kalean erdaraz ikasi eta etxera erdaraz joatea ohikoa zen. Inmak pasarte bat kontatzen du.

1.216. Hika, ondo egiten zuenarekin (ARR-201/015)

Fagorren lan egin zuten elkarrekin eta han egin ziren lagun. Hika egiten zuen ondo zekienarekin.

1.217. Neskei eta mutilei hika (ARR-201/017)

Mutilek neskei hika egiten ez dakitela dio Joxepik. Inmak berak egin izan dio biloba bati hika, mutila izanda, eta besteari zuke, neska izanda.

1.218. Marin auzoan hika galdu egin da (ARR-201/020)

Beraien gazte garaian baserri auzoetan hika egiten zuten. Eskoriatzako Marin auzoan hika galdu egin dela dio Joxepik.

1.219. Lehenengo erlojua izan zutenekoa (ARR-201/022)

Duela hirurogeita hamar urte moduan bizi nahiko luke Joxepik urtebetez. Lehenengo soldatarekin erlojua erosi zuen Joxepik. Inmak opari jaso zuen erlojua eta itsasoan bainatuta, hondatu.

1.220. Euskara galdu zutenekin mintzapraktikan (ARR-201/025)

Mintzapraktikan jarduten du Joxepik. Bere bi taldekideek euskara galdu egin zuten. Zer dela eta gertatu den hori azaltzen dute.

1.221. Mutilekin eta senarrarekin zela hitz egiten duten (ARR-201/026)

Inma eta bere senarrak hasieran erdaraz egiten zuten elkarrekin. Joxepik hika egin izan die beti bere adineko mutil eta gizonei. Inmak senarrarekin bietara egiten du orain, euskaraz eta erdaraz, nahastean.

1.222. Baserritarrak izatearren zapalkuntza (ARR-201/029)

Arrasaten euskara atzeratuen kontutzat hartzen zela dio. Baserritarrak izatearren jasan zituzten zapalkuntzez berba egiten dute.

1.223. Hikak konfidantza eta gertutasuna ematen ditu (ARR-201/031)

Hikak konfidantza edo gertutasuna ematen duela diote, taldetu egiten duela. Euskaraz oso ondo egiten duenarekin hikara pasatzen dira berehala.

1.224. Telefonorik gabeko garaia (ARR-201/040)

Telefono gabeko garaiaz ari dira. Medikuaren bila joan egin behar izaten zuten bertara. Zerbait gertatutakoan, abisua etxe guztietara eramaten zen. Telefonoaren etorreraz hitz egiten du Joxepik. Telefono mugikorrarekin lehenengoz norbait ikusi zuenekoa kontatzen du Inmak.

1.225. Telefonoaren beldur (ARR-201/041)

Telefonoa bestaldera hartu zuen bati buruzkoak kontatzen ditu Joxepik. Telefonoari beldurra ziotenekoa kontatzen du Inmak.

1.226. Arropa garbitzea lan nekeza (ARR-201/042)

Arropak garbitzea lan handia zela diote; amandreek zela garbitzen zituzten kontatzen dute.

1.227. Lehengo eta oraingo bizimodua emakumeentzat (ARR-201/043)

Belaunaldi bakoitzean bizimoduan alde handia egon dela dio Inmak. Haurdun geratu zenean, lantegian galdezka ibili zen zenbateko baja tokatzen zitzaion. Berehala lanean hasi behar izan zuen.

1.228. Baserritar izatearren konplexua eta euskaltzaletasuna (ARR-201/045)

Inmak "casera" esatearren konplejua izan izan du. Amak euskara barruraino sartu ziela dio Joxepik. Euskaraz irakurtzearren zoriondu egin zuen behin irakasle batek Joxepi.

1.229. Umetako jolasak (ARR-201/046)

Joxepik txirikilan jolasten zuen; Inmak ez. Elizan gizonak eta emakumeak aparte egoten ziren. Inmak mutilekin jolasten zuen. Joxepik jolas asko ditu gogoan.

1.230. Zigarrolakoa, ez arrasatearra (ARR-202/004)

Zigarrola auzoan bizi zirela, ez ziren arrasatear sentitzen, Zigarrolakoak baizik. Ijitoekin jolasean ibiltzen zen. Ama baserrikoa zen eta aita kaletarra.

1.231. Etxean hika jaso zuen eta lagun artean berehala egin (ARR-202/005)

Mutilduz gero, hika hasten ziren auzotarren artean. Lagun artean ere hika egin izan dute, nahiz eta tarte baten erdaraz ere aritu ziren. Aitak hika egiten zien, amak ez hainbeste. Hitanoa zakarregia zela esaten zien amak, baina berak ere hala egiten zuen ahizpekin eta. Haserretutakoan egiten zien.

1.232. Emaztearekin eta seme-alabekin hika (ARR-202/008)

Noka eta toka berdin egiten duela dio. Emaztearekin, lagun zirela hika egiten zuten eta erabaki zuten, bikote izan arren eta gaizki ikusia egon, transmisioaren onerako, hika egiten jarraitzea. Semeei ere hika egiten diete, baina batzuetan zuka ere bai.

1.233. Hitano ikastaroak ematen (ARR-202/009)

Hitano ikastaroak ematen zela hasi zen kontatzen du.

1.234. Euskaltegian hitanoa bai ala ez (ARR-202/010)

Euskaltegian hitanoa erakutsi ala ez, iritzia ematen du.

1.235. Gatzagako hitano ikastaroa (ARR-202/011)

Gatzagan eman zuen hitano ikastaroari buruzko nondik norakoak kontatzen ditu.

1.236. Hitanoa berreskuratzeko, euskara indartsu behar (ARR-202/012)

Hitanoa berreskuratzeko euskarak indartsu behar duela uste du.

1.237. Amak eta anai-arrebek hika berari (ARR-202/015)

Amak hika egin izan dio berari beti, baita bere anai-arrebei ere. Anai-arrebek hika egiten diote baina berak ez. Hamar urterekin kalera etorri zen bizitzera eta hor erdaraz hasi zen. Erdararik ez zekiela joan zen eskolara.

1.238. Hika lankideekin (ARR-202/016)

Lankideekin egin izan du hika baina ez beste inorekin.

1.239. Alabak eskatu egin dio hika egin diezaion (ARR-202/017)

Alaba gazteenak eskatu izan dio hika egiteko eta hasita daude. Lagun artean, baina, alabak ez dauka hika norekin egin.

1.240. Euskalkiari garrantzi gutxi (ARR-202/021)

Euskalkia eskolan erakustearen aldekoa izan da bera baina bailaran ez dela egin dio. Euskalkiari garrantzirik eta funtziorik ez zaiola eman nahi izan uste du.

1.241. Bizkaian euskalkiari prestigioa eman zaio (ARR-202/023)

Euskalkia mantentzea luxua dela uste du Amaiak. Arrasateko euskalkia txarra dela entzun izan du Joxerrak. Bizkaian euskalkiari beste prestigio bat ematen zaiola azaltzen du.

1.242. Euskalkia eta hitanoa gertukoak (ARR-202/024)

Euskalkia eta hitanoa gertukoak direla dio. Hizkuntza bati alde informala kentzea akatsa dela uste du.

1.243. Hitanoa, konfiantza eta hurbiltasuna (ARR-202/029)

Hitanoak konfiantza eta hurbiltasuna ematen dituela uste dute. Hitanoaren galeran apaizek zerikusia izango zutela uste du Joxerrak, zakarra zela esaten zieten eta. Hitanoa basati izatearekin lotu izan dela diote.

1.244. Appa Hi! aplikazioa, hitanoa prestigiatzeko (ARR-202/031)

Appa Hi! aplikazioa elegantea iruditu zaio Joxerrari eta zorrotza ere bai. Gazteentzat bitarteko ona dela uste du.

1.245. Word programa ezagutzen hasi zirenekoa (ARR-202/034)

Mugikorrik gabeko garaia ez dela hain aspaldikoa diote. 1998an Word programa erabiltzen ikasten hasi ziren. Hasieran mugikorrak berba egiteko bakarrik erabiltzen ziren.

1.246. Gizonik gabe, libreago (ARR-202/035)

Joxerraren amak, alargundu zenean, gizona balitz moduan bizi zela esan zien seme-alabei, libreago sentitzen zelako. Hainbat pasarte kontatzen dituzte beraien amenak, bizimodua hobera joan zaiela azaltzeko.

1.247. Auzolana beharrezko (ARR-202/037)

Euskararen militanteak izan direla diote. Borondatez lan asko egiten zen, egin egin behar zelako. Profesionalizazioa behar izan dela diote baina lanbidetik kanpo ezer gutxi egiten dela. Auzolanak beharrezkoak direla dio Joxerrak.

1.248. "Pueblo"ra joan nahi zuten (ARR-202/038)

Dena antolatu behar denaren ustea dagoela diote. Lehen zela jolasten zuten kontatzen dute. Kanpotik etorritakoak "pueblo"ra joaten zirela eta beraiek ere joan nahi izaten zuten. Mantzanilla batzera ere joaten ziren.

1.249. Eskolako oroitzapen txarrak (ARR-202/040)

Irakasle frankistak eta faxistak izan zituen Joxerrak. Gerora irakasle batzuek aldaketa egin zuten eta euskaraz egiteko eskatzen zioten. Mojekin oso gaizki pasatu zuela kontatzen du. Almenen pederasta bat tokatu zitzaiela dio Amaiak.

1.250. Nola ikasi duen hika (ARR-203/002)

Aitak hika egin izan dio batzuetan. Arrebak badaki baina ez du egiten. Entzun egin izan du eta lagun zehatz batzuekin egiten du hika. Noka egiteak lotsa ematen dio, ez duelako erabili izan.

1.251. Aramaioko eta Arrasateko hika (ARR-203/003)

Baserritarrengandik jaso du hika. Aurreko belaunaldiekin lotuta dagoela uste du. Aramaioko auzoetako hitanoak zelakoak diren azaltzen du.

1.252. Hika egiten hasi, laga, berriro ekin... (ARR-203/004)

Hika egiten nola hasi zen: norekin egin ez zeukanez, aitari egiten hasi zen baina gero zukara pasatu zen. Barne-gatazka bizi izan zuen hitanoak generoa markatzen duelako, eta urte batzuez hika egiteari laga zion. Azken urteetan berriz ekin dio.

1.253. Hitanoaren balioa (ARR-203/006)

Hika ondare kultural aberatsa eta komunikatzeko era desberdina direla uste du. Goxotasuna sortzen duela dio. Ikasteak ere erakarri izan du.

1.254. Hika noiz eta norekin (ARR-203/007)

Noka zeinekin egin dezakeen ez dauka argi. Hika noiz eta non egin erabaki izan du; biren arteko kontua dela dio.

1.255. Hika zeinekin egiten duen (ARR-203/008)

Hika zeinekin egiten duen azaltzen du; banaka batzuk eta lanarengatik harremana duen baserritarrekin. Aramaion hika zeinek egiten duen azaltzen du. Orokorrean emakume gutxi entzuten ditu hika.

1.256. Hitanoa gazteagoek zergatik ez duten erabiltzen (ARR-203/009)

Hitanoa adin-tarte batetik behera zergatik ez den erabiltzen azaltzen du, bere sentsazioetatik.

1.257. Hika egiteak zer sentiarazten dion (ARR-203/011)

Hika aritzeak ez dio erosotasunik ematen, kosta egiten zaiolako. Poza ematen dio egiteak, hala ere. Hainbatekin aritzean gertutasuna eta gardentasuna sentitzen du.

1.258. Baserri giroan jaso eta egiten du hika (ARR-203/014)

Etxean aitak egin izan dio hika, osabek ere bai... Baserriarekin lotura izateak hika ezagutzeko aukera eman dio, baita egiteko ere. Amak ez dio egin izan baina bera entzun izan du hika. Noka egitea kosta egiten zaio. Aitak arrebari ez dio egin izan.

1.259. Nori bai, nori ez, nahastea (ARR-203/015)

Aitak anaiekin ez du hika egiten baina arrebarekin denek egiten dute. Izebak Ibairi eta arrebari ez die egiten hika.

1.260. Hika zela hasi zen eta zeinekin egiten duen (ARR-203/016)

Unibertsitatean hasi zen hika erabiltzen, Segurako ikaskide batekin. Garai batean kuadrillan erdaraz egiten zuten eta barne-gatazka bat bizi ondoren, denekin euskaraz hasi zen.

1.261. Hitzartu gabe hasi ziren hika elkarrekin (ARR-203/017)

Basoarekiko eta naturarekiko zaletasunak batu ditu. Batzuetan hika egiten dute eta beste batzuetan ez. Hitanoa galtzeak pena ematen dio Ibairi eta bere ekarpena egin nahi du.

1.262. Lea-Artibain hitanoak antzeko egoera (ARR-203/018)

Lea-Artibain hika egiten dutela konturatu da eta berearen antzekoa dela. Horrek ere animatu egin du. Zornotzako emakume batek beti hika egiten dio eta asko gozatzen du.

1.263. Euskalkiari garrantzia ematen diot (ARR-203/024)

Markelek euskalkiari garrantzia handia eman izan dio. Gipuzkeraz egitea eleganteagoa dela pentsatu izan da. Adin batera helduta, batzuk sustraietara bueltatzen direla ikusten du. Sei lagun bizi dira baserrian eta euskalki asko erabiltzen dituzte; horietako batekin hika egiten du baina batuan.

1.264. Hika aritzean zaurgarri sentitzea (ARR-203/026)

Hitanoa zela zabaldu aipatzen dute. Zaurgarri sentitzen da Markel hika aritzen denean, hesi horiek apurtzen baduela lana dio.

1.265. Memorian, gauzak kontatzeko eran... eragin du mugikorrak (ARR-203/028)

Mugikor gabeko garaietaz ari dira. Arrebak mugikorra eskatu zuelako aita asko haserretu zenekoa kontatzen du Markelek. Memorian nola eragin duen aipatzen du Ibaik. Gauzak kontatzerakoan ere mugikorra erabiltzen dela dio Markelek.

1.266. Mugikorraren erabilera neurtzeaz (ARR-203/029)

Mugikorrak eragiten dion antsietateaz ari da Markel. Ibaik kontatzen du lanean izandako gorabehera batek nola arautu duen mugikorraren erabilera.

1.267. Genero berdintasunerako asko falta da (ARR-203/030)

Emakumeen bizimodua lehen eta orain gizonena baino gogorragoa dela uste du Ibaik. Bere etxean etxeko lanak nahiko banatuta egon direla kontatzen du.

1.268. Gustuko musika (ARR-203/032)

Euskal musika aparteko genero bat bezala hartzeak harritu egiten du Ibai. Musika berritzailea eta tradizionala, biak gustoko ditu Markelek.

1.269. Euskararen egoera Arrasaten (ARR-203/034)

Ibaik bere lagunarte euskaldunari buruz berba egiten du. Uribe inguruan euskarak duen egoeraz dihardu. Kalean egoera beltz ikusten du.

1.270. Euskararen egoera Aramaixon; taberna giroa erdaldunagoa (ARR-203/035)

Aramaion euskararen egoera antzera dagoela iruditzen zaio Markeli. Adinaren arabera, hizkuntza aldaketak ematen direla kontatzen du. Institutuan burlak jasotzen zituzten aramaioarrak izatearren, baserritartzat eta gutxiagotzat hartzen zituztelako.

1.271. Hika norekin egiten dute (ARR-204/001)

Hika norekin egiten duten. Gazteek ez dute ikasi eta inbidiaz begiratzen diete.

1.272. 17 urterekin ikasi zuen hitanoz hitz egiten (ARR-204/004)

Juncalek kalean ikasi zuen hikaz, kuadrilako beste bik haien artean egiten zutelako. Kuadrilako guztiak dira euskaldunak, baina beraiek bakarrik egiten zuten hikaz.

1.273. Hika jende gutxirekin, baina modu naturalean (ARR-204/005)

Norbaitek hika egin ezkero, berak horrela erantzuten badu ere, lehenengo hitza zuka izaten da. Hitanoz hitz egitea modu naturalean ateratzen zaio.

1.274. Arrasateko hitanoaren egoera (ARR-204/006)

Kalean ez da asko entzuten, baina ikastaroak antolatzen dira eta jende asko apuntatzen da.

1.275. Amak egiten zion hika, aitak ez (ARR-204/009)

San Andres auzoko Miravalles baserrian jaio zen Esther. Txikitatik entzun du etxean hitanoa. Koxkortzen joan ahala, berari ere hitanoz egiten zion amak. Aitak, ez. Gaztetan ez zuten hika erabiltzen, helduen zerbait zela uste zutelako. Euskaltegian lan egiten du eta lankide bakarrarekin erabiltzen du hika.

1.276. Hitanoa norekin erabili (ARR-204/010)

Gaur egun, pertsona oso konkretu batzuekin aritzen da hikaz, gehienak emakumeak. Batzuetan, konfiantza asko izan arren, pertsona horrekin ez dute hitanoa erabiltzen. Behin, irakasle bat harritu egin zen, amak koinatekin hika egiten zuela kontatu zuenean.

1.277. Alabek amari hika egitea? (ARR-204/011)

Gaztetan, amarekin joaten zen etxez-etxe barazkiak saltzera, eta atentzioa deitzen zion baserri bateko alabek haien amari hika egiten ziotelako. Arraroa egiten zaio gaur egun ere, baina Juncali ez.

1.278. Noka eta toka ez da ondo erabiltzen (ARR-204/013)

Hitanoz hitz egitearen inguruan entzun dituzten iritziez hitz egiten dute. Jende askok ez daki noka eta toka ezberdintzen. Gizonezkoei gehiago entzuten zaio hitanoz.

1.279. Euskara gutxi entzuten da Arrasaten (ARR-204/014)

Oso gazte gutxik erabiltzen dute hitanoa eta euskararen erabileraren arazoarekin lotuta dago.

1.280. Etxean ez diete seme-alabei hika transmititu (ARR-204/015)

Etxean ez diete seme-alabei hika transmititu baina ez dakite oso ongi zergatik.

1.281. Arrasateko euskalkia ezin ulertu Legazpian (ARR-204/019)

Alaberi batzuetan hika egiten diete, baina ez da zerbait naturala. Biek ikastolan ikasi dute. Hasiera batean, irakasle gehienak ez ziren herrikoak. Euskara batuari garrantzi handiagoa ematen zitzaion. Juncalek gogoratzen du, umetan Legazpira joaten zenean, bertako haurrek ez ziotela ulertzen, euskalkian hitz egiten zuelako.

1.282. Euskalkien aberastasuna (ARR-204/020)

Euskalkiek, herri-nortasuna eta aberastasuna ematen dute. Etxean eta kalean transmititzen da euskalkia.

1.283. Gaztelaniaz hitz egiteko sasoi bat izan zuten (ARR-204/021)

Gaur egun, euskaldunak diren gazteek gaztelaniaz egiten dute haien artean. Garai batean, denek izaten zuten gaztelaniaz hitz egiteko sasoi bat, baina azkar bueltatzen ziren euskarara.

1.284. Senarrarekin ez du inoiz hitanoz hitz egiten (ARR-204/023)

Senarrak hika egiten du baina bikoteak ez du inoiz hika egiten elkarrekin.

1.285. Gizonezkoek hitanoz emakumeak baino gehiago (ARR-204/027)

Emakumeen artean hika gutxiago egiten da eta horren arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen pentsatzen dute. Garai batean, sozializatzeko modua ezberdina zen, eta emakumeak etxe barruan gehiago harremantzen ziren. Frankismo garaian, emakumeek gaztelania gehiago erabiltzen zuten eta hori ere izan daiteke hitanoaren galeraren arrazoi bat.

1.286. Emakumeak beti kritikatuak izan dira (ARR-204/028)

Emakumeak beti formak mantendu behar izan ditu eta kritikatuagoa zen beti. Emakumeak galtzak jazten hasi zirenean, kritika asko jaso zituzten. Gaur egun, bikote gazteen artean kontrol gehiago dagoela esaten da.

1.287. Euskalkia eskolan erakutsi beharko litzake (ARR-204/029)

Ikastolan, hika batuko aditzak ikasi zituzten. Gaur egun, eskola batzuetan ez dira hikako aditzak ikasten, ez eta ikusten. Herriko hizkera eta herriko hitanoa erakutsi biharko litzake.

1.288. Hitanoa erabilera faltagatik galtzen da (ARR-204/030)

Hitanoa sustatzeko ikastaroak egiten badira baina gero ez bada erabiltzen, alperrikakoa da. Berdina pasatzen da euskararen erabilerarekin.

1.289. Aditz formalen eta hizkeran arteko ezberdintasuna (ARR-204/035)

Aditz tauletan agertzen dena eta hitz egiteko modua oso ezberdina da.

1.290. Mugikorrik gabeko garaiak (ARR-204/038)

Mugikorrak erabiltzen ez ziren garaiari buruz hitz egiten dute. Lehenengo mugikorrak nolakoak ziren. Unibertsitate inguruko telefono-kabinetan ilarak egoten ziren telefonoz deitzeko.

1.291. Bizitzan ez dute ezer faltan bota izan (ARR-204/039)

Garai bateko eta gaur egungo emakumearen bizimodua nola aldatu den. Haien amekin alderatuta, ondo bizi izan direla uste dute. Askatasun gehiago izan dute, etxetik kanpo lan egin dute... Juncalen etxean, umetan, etxeko zereginak egiten zituzten guztiek, mutilek eta neskek. Ez dute ezer faltan bota izan.

1.292. Ikastolako oroitzapenak (ARR-204/040)

Ikastolako lagunen artean, beti dago norbait guztiaz gogoratzen dena. Ikastolan askatasun gehiago zutela uste dute. Erlijioko irakaslea gogoratzen dute.

1.293. Baserria izatearen abantailak (ARR-204/042)

Baserriko bizimodua beti izan da gogorra, batez ere animaliak izanda. Juncalen ustez, joera bat ikusten ari da baserrira bueltatzeko. Estherrentzat, askotan baserri mundua idealizatu egiten da. Umetan, oporraldiak baserrian apsatzen zituzten hango lanak egiten. Koronabirusaren garaian, jende askok eskertu zuen baserrian bizi ahal izatea.

1.294. Baserri mundua arriskuan? (ARR-204/043)

Baserri mundua arriskuan dagoen edo ez eztabaidatzen dute. Baserri bat konpontzea eta produkzio bat aurrera eramatea, oso garestia da. Juncalek, inguruko baserritarren artean lanak banatzen dituen auzo bati buruz hitz egiten du.

1.295. Militantzia lehen eta orain (ARR-204/045)

Gaur egungo militantzia eta garai batekoa, oso ezberdina da. Konpromezu-maila asko murriztu da.

1.296. Gaur egungo umeen jolasak (ARR-204/047)

Garai bateko eta gaur egungo umetako jolasak guztiz ezberdinak dira. Umeak zirenean, kalean jolasten zuten baina gaur egun dena kotxez beteta dago eta ezinezkoa da. Umetan jolasten zituzten jokuak ez dira ikusten gaur egun (goma, sokasaltoan...). Askotan umeak mugikorrarekin ere ikusten dira.

1.297. Patinetean eskolara (ARR-204/048)

Umeak taldean joaten dira eskolara, patinetearekin.

1.298. Hika mutilekin bakarrik egin izan du (ARR-205/002)

Nahiz eta gurasoak haien artean eta semeekin zuka egin, etxean beti entzun du zuka egiten amonari eta osabei. Osabek beti hika egiten zieten. Gaztetan, mutilekin hika egiten hasi zen, baina neskekin ez. Gaur egun, jende gutxiagorekin egiten du euskalkiko hika. Hika batua gehiago erabiltzen du, gehienbat lantokian.

1.299. Lantokian, hika batua erabiltzen du (ARR-205/003)

Xabier irakaslea da, eta lankideekin euskara batuan hitz egiten du gehienbat. Hitanoz hitz egiten badu, batuan edo bere lankideen euskalkian egiteko joera dauka.

1.300. Lagunekin hitanoz egiten noiz hasi ziren (ARR-205/009)

Xabierri gurasoek eta ia familia osoak beti egin diote hika. Umetan, lagunen artean ez zuten hika egiten, nahiz eta jakin. Inguruko herri txikietako ikasleak haiekin eskolara joaten hasi zirenean, eta haiek hika egiten zutela ikustean konturatu zen Xabier beraiek ere bazekitela hika eta horrela komunikatzeko aukera zutela. Gaur egun, 20 bat pertsonekin egiten du hika Arrasaten. Lantokian ere egiten dute.

1.301. Seme-alabei hika egiten die (ARR-205/010)

Alabari hika egiten dio, baina horrez gain mutilekin bakarrik egiten du hika. Arrebak ez du inoiz hika egin, baina badaki.Alabari hasieran ez zion hika egiten, baina seme txikiari bai. Emazteak esanda hasi zen alabari ere hitanoz hitz egiten. Ez zaio kostatzen txip-a aldatzea.

1.302. Hitanoa gizonek gehiago erabiltzen dute (ARR-205/011)

Ohitura faltagatik ez die emakumeei hika egiten. Emakumeei ez die inoiz entzuten hitanoz hitz egiten, baina ziur dago egon badaudela. Aurreko belaunaldikoen artean ere, gizonezkoek hitanoa gehiago erabili izan dutela uste du.

1.303. Lehengusuen artean betidanik hika (ARR-205/014)

Lehengusuak dira eta betidanik hitz egin dute hikaz beraien artean. Lehengusinarekin eta arrebarekin ez, ordea.

1.304. Hitanoz lagun taldean (ARR-205/015)

Xabier musika-talde baten dabil eta hainbatekin hitanoz egiten du.

1.305. Hika egiteagatik burlak jaso (ARR-205/016)

Xabierrek ez du entzun inoiz hikaren inguruko iritzi txarrik, baina gurasoek gaztetan bai. Igorren kasuan, hamalau bat urte zituenean, mutil batzuek burla egiten zioten hitaniz hitz egiteagatik. Gaur egun, oso zaila da hika hitz egiten duen jendea topatzea kaleetatik.

1.306. Arrasateko hika hiztunaren perfila (ARR-205/017)

Arrasateko hika hiztunaren perfila: gizonezkoak, helduak eta gehienbat baserri jatorrikoak.

1.307. Hizkuntzaren txip-a aldatzea batzuetan zaila da (ARR-205/018)

Xabierren emaztea, hikako ikastaroan ibili da, baina berari zaila egiten zaio 20 urtez zuka ibili ondoren, hikara aldatzea.

1.308. Arrasaten euskara gutxi entzuten da (ARR-205/019)

Arrasaten euskaraz entzutea geroz eta zailagoa da, eta hitanoa berreskuratzeko lehenengo euskara berreskuratu beharko litzake. Nahiz eta eskoletan dena euskaraz izan, ingurua erdalduna da eta horrek gaztelaniaz hitz egitera eramaten du gizartea.

1.309. Arrasaten hitanoa bultzatzea ez da lehentasun bat (ARR-205/020)

Euskaraz bizitzeko aukera duen norbaitentzat edo gizarte batentzat, erronka bat izan daiteke hitanoa bultzatzea. Baina euskararen egoera txarra den lekuetan, ez. Errezagoa da gaztelaniaz bizitzea, inguruak hori errazten duelako. Errezagoa da Oñatira joan eta hango norbaitekin hika egitea, Arrasaten egitea baino.

1.310. Euskalkiak, bai edo ez? (ARR-205/023)

Euskalkiak mantentzeko zailtasunez hitz egiten du Xabierrek. Igorrek, ordea, euskalki asko egoteak hizkuntza zatitu bat egotea ahalbidetzen duela uste du. Euskararen jatorriaren eta garapeni buruz hausnartzen dute.

1.311. Hizkuntza txikiak zatituta egoten dira (ARR-205/025)

Hizkuntza txikiak zatituta daudela uste du Igorrek. Hizkuntza ezberdin bat hitz egiten duen gizarte bat, estatu boteretsu baten menpe dagoenean, hizkuntza hori oso zatituta egoten da.

1.312. Hizkuntza bateratu baten abantailak (ARR-205/027)

Hizkuntza guztiek daukate elkartzeko edo banatzeko gaitasuna, eta geroz eta egitura boteretsuago bat egon, hizkuntza bateratu bat egongo da. Euskalkien kasuan, leku ezberdinetako jendea elkartzen bada, zein euskalkitan egingo den eta horretarako hizkuntza bateratu baten abantailak zeintzuk diren azaltzen dituzte. Prozesu luzea dela uste dute, normaltasunez eman beharko litzatekeena.

1.313. Euskalkien galera, euskara batuaren alde (ARR-205/029)

Euskara batua indartzeko, euskalkien eta ondorioz herri nortasunaren galera eman dela dio Xabierrek. Igorrentzat, etorkizun batean jende gehiagok euskara erabiltzen badu, entitate batek goitik indarra egingo duelako izango da.

1.314. Hizkuntza baten helburua (ARR-205/030)

Hizkuntza baten helburua komunikatzea bada, hizkuntza bateratuago bat behar dela uste du Igorrek. Denok euskalki berdinean hitz egingo bagenu, euskara indartsuagoa izango litzateke. Igor, ordea, ez dago ados.

1.315. Hitanoaren inguruko arauak (ARR-205/035)

Hitanoaren inguruan dauden idatzi gabeko arauak errespetatzeari buruz hitz egiten dute. Momentu zehatzetan, eta ikasteko bada, ondo ikusten dute. Xabierri behin ikasle batek hika egin zion galdera bat, eta honek hika erantzun. Ikasleak ez zion Xabierri ulertu, eta kontestu horretan adibidez, ez du ikusten hika erabili behar denik, agian beste batzuei ere kostatu egingo zaielako ulertzea. Baina, ulertzen du ere arauetatik kanpo erabili egin behar dela, oso jende gutxik duelako aukera hikaz hitz egiteko familia barruan.

1.316. Hitzak elkartzeko joera (ARR-205/038)

Helduagoek, hitzak elkartzeko joera dutela uste du Igorrek.

1.317. Euskalki ezberdinak ulertzeko gaitasuna (ARR-205/041)

Euskalki ezberdinak ulertzeko gaitasuna. Askotan hitz konkretuak ulertzea zaila da, baina kontestuan esan nahi dena ulertzen da. Anekdota bat kontatzen du.

1.318. Mugikorrik gabeko garaia (ARR-205/043)

Mugikorraren erabilera mugatu egiten du Xabierrek eta telefonoa isilik izaten du ia beti. Mugikorrik ez zegoen garaian, autonomoagoak ginen eta itxaroten genekien. Distantziak motzagoak dira mugikorra dugunetik eta poliki-poliki bizitza aldatu digula uste dute.

1.319. Irakurzaletasuna (ARR-205/045)

Xabierrek gehienetan gaztelaniaz irakurtzen du, ez hizkuntzagatik, edukiagatik baizik. Irakurzaletasunaz eta eskola garaiko literatura irakasgaiaz hitz egiten dute.

1.320. Emakumearen paperaren aldaketa (ARR-205/046)

Emakumearen bizimodua hobetu egin da garai batetik hona, nahiz eta oraindik asko falta den. askotan, matxistak ez garela uste dugu, baina bagara.

1.321. Garai batean eskolaz kanpoko klaseetara joatea arraroa zen (ARR-205/049)

Gazteak zirenean, jende gutxi joaten zen eskolaz kanpoko klaseetara. Gaur egun, arraroa da ez joatea.

1.322. Garai batean haur gehiago zeuden (ARR-205/050)

Umeak zirenean, askoz ere hau gehiago zeuden. Gaur egun, Arrasaten haur gehien dituen auzoei buruz hitz egiten dute. Arrasateko jende asko Aretxabalaetara bizitzera joan zen, etxebizitza aukerak zirela eta.

1.323. Herrigintzarekiko konpromezuaren aldaketa (ARR-205/053)

Garai batean, gauza egiteko taldekako joera bat zegoen. Gaur egun, ordea, indibidualagoa da. Horren ardura, beraien adinekoak dutela uste du Xabierrek. Gauza batzuk onerako aldatu dira, biana beste batzuk ez.

1.324. Baserritarra izatea edo baserrian bizitzea, ezberdina (ARR-205/054)

Ez da berdina baserritarra eta baserrian bizi dena. Gaur egun, baserriaren irudia erromantizatua dagoela uste du Xabierrek. Baserritik bizitzeak kostu handia dauka. Ez da berdina garai bateko baserriaren bizimodua edo gero lantegira lanera joan zenarena.

1.325. Baserritar gutxi geratzen dira (ARR-205/055)

Gaur egun, baserri asko oso apainduta eta edertuta daude, baina baserriari lotutako lanbideak eta jakituria galdu egin dira. Jende gutxi dago baserritik bizi dena. Baserriko lanen, produktuen, mekanizazioaren... aldaketak. Garai batean, jendeak gauza asko zekiskien egiten, konpontzen, berrerabiltzen...

1.326. Gaur egun ez dakigu ezer egiten (ARR-205/056)

Gaur egun, edozer gauza egiteko delegatu egiten dugu (gela bat margotu, txorrota bat aldatu...) eta garai batean, norberak edo inguruko batek egiten zuen. Gaur egun, gauza gutxiago egiten dakigu.

1.327. Baserritik bizi nahi duenarentzat, laguntzak (ARR-205/057)

Sistema bat topatu beharko litzateke, baserritarrak beti egoteko eta baserritik bizi nahi duenarentzat erreztasunak jartzeko: alokairuan, saltzen lagundu, mekanizazioan lagundu... Xabierrek kasu bat kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-17

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com